

TXOSTENA INFORME

31

ATZERRIKO EMAKUME

ETORKINAK EAEN



MUJERES INMIGRANTES

EXTRANJERAS EN LA CAE



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ATZERRIKO EMAKUME
ETORKINAK EAEN**

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2012

IZENBURUA:	Atzerriko emakume etorkinak EAen. Mujeres inmigrantes extranjeras en la CAE
EDITOREA ETA EGILEA:	EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz
TALDE TEKNIKOA:	Xabier Aierdi José Antonio Oleaga Izaskun Sáez de la Fuente Joaquín Arriola Silvia Carrizo Ana I. Pérez Machío Laura Pego Amelia Barquín Monika Madinabeitia Nerea Alzola Iraide Fernández Julia Shershneva Maite Fouassier SOZIOLOGIA ETA GIZARTE LANGINTZA SAILA UPV/EHU
MAKETATZAILEA ETA DISEINU GRAFIKOA:	Taide Arteta
DATA:	2012ko abendua
DESKRIBATZAILEAK:	atzerriko emakume etorkinak, genero ikerketak, inkestak, datu estatistikoak, Euskadi
ISBN-10:	84-616-2142-5
ISBN-13:	978-84-616-2142-2

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
1. SARRERA	13
2. HELBURUAK	17
2.1. EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinen egoera: funtsezko eremuak ..	19
2.2. Bertako herritarrek nola ikusten dituzten emakume atzerritar immigranteak ..	20
2.3. Emakume atzerritar immigranteen aurreikuspenak eta beharrizanak	20
3. METODOLOGIA	21
3.1. 1. fasea: EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinen egoera	23
3.2. 2. fasea: EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinak: funtsezko eremuak ..	24
3.3. 3.fasea: Euskal gizartearen pertzepzioa	25
3.3.1. Aztergaia	25
3.3.2. Laginaren tamaina	25
3.3.3. Informazioaren bilketa eta tratamendua	26
3.4. 4. fasea: EAEn bizi diren emakume atzerritar immigranteen aurreikuspenak eta beharrizanak	27
4. EAE-N BIZI DIREN ATZERRIKO EMAKUME ETORKINEN EGOERA: FUNTSEZKO EREMUAK	31
4.1. EAEn bizi diren emakume atzerritarrak. <i>Xabier Aierdi</i>	33
4.1.1. Administrazio-egoera	39
4.1.2. Ikasketa-maila	41
4.1.3. Lan-egoera	42
4.1.4. Laburpena	46
4.2. Emakume etorkinek EAEko ekonomian duten eragina. <i>Joaquín Arriola</i>	47
4.2.1. Atzerriko migrazioa lagungarria da biztanleriaren zahartzea berdintzeko	48
4.2.2. Atzerriko emakume etorkinek balio erantsia sortzen dute	49
4.2.3. Emakume etorkinek zergak ordaintzen dituzte, eta egiten duten ekarpena kontutan hartuta, gizarte-zerbitzu gutxi erabiltzen dute ...	52
4.2.4. Emakume etorkinek biztanleriaren bizi kalitatea hobetzen dute	54
4.2.5. Atzerriko emakume etorkinei esker, giza kapital gehiago dago EAEn	56
4.2.6. Ondorioak	57
4.3. EAEko emakume etorkinak: lan arloa. <i>Silvia Carrizo</i>	59
4.3.1. EAEko migrazioaren bilakera. Emakumeen migrazioa: gogoeta orokorrak	59
4.3.2. Emakume etorkin langileen lan-baldintzak	61

4.3.3.	Emakume etorkinen lan-egoera: kontuan hartu beharreko alderdi batzuk	63
4.3.4.	Emakume etorkinen lan-bizitzan eragina duten alderdiak	64
4.3.5.	Ondorioak	68
4.4.	Emakume etorkinak: EAE eta kultura. <i>Izaskun Sáez de la Fuente</i>	71
4.4.1.	Kultura definitzeko gakoak	71
4.4.2.	Kultura- eta erlijio-aniztasuna kudeatzeko eredu etikoak eta politikoak	73
4.4.3.	EAEEn bizi diren emakume etorkinak. Ondorio soziologiko adierazgarriak	76
4.4.4.	Balantzea eta azterketaren ikuspegia	85
4.5.	EAEko emakume etorkinen biktimizazioa. <i>Ana Pérez Machío eta Laura Pego</i>	87
4.5.1.	Emakume etorkinen biktimizazioan eragiten duten faktoreen problematika: hurbilketa bat	87
4.5.2.	EAEEn bizi diren atzerriko emakume etorkinen aurka egiten diren delitu mota ohikoenak	93
4.5.3.	Ondorioak	99
4.6.	EAEko emakume etorkinak eta hezkuntza. <i>Amelia Barquín, Monika Madinabeitia eta Nerea Alzola</i>	103
4.6.1.	Hezkuntza eta atzerriko immigrazioa	103
4.6.2.	16 urtetik gorako emakume etorkinen ikasketak	104
4.6.3.	Hizkuntzen ezagutza eta erabilera	108
4.6.4.	Eskola-adinean dauden seme-alaben amak	110
4.6.5.	Ondorioak eta erronkak	115
4.7.	Gizarte-ongizate subjektiboa: emakume etorkinen ikuspegia. <i>José A. Oleaga</i>	119
4.7.1.	Osasuna, oro har	119
4.7.2.	Zailtasunak	128
4.7.3.	Bereizkeria	133
4.7.4.	Gizarteratzea eta gizarte-sareak	139
4.7.5.	Ondorioak	149
4.8.	Integrazioa, EAErekin identifikatzea eta etorkizuneko proiektuak. <i>José A. Oleaga</i>	151
4.8.1.	Gizarte-harremanak eta bereizkeria	151
4.8.2.	Integrazioa eta EAErekin identifikatzea	161
4.8.3.	Etorkizuneko proiektuak	164
4.8.4.	Ondorioak	172
4.9.	EAEEn bizi diren atzerriko emakume etorkinen tipologia ezartzeko bidean. <i>José A. Oleaga</i>	173
4.9.1.	Emakumeen ustez, zein da beren osasun-egoera? (Ikuspegi 2010)	173
4.9.2.	Asebeteta al daude gaur egun duten bizitzarekin? (Ikuspegi 2010)	175
4.9.3.	Nola hautematen dute bereizkeria? (Ikuspegi 2010)	176
4.9.4.	Euskaldun sentitzen al dira? (Ikuspegi 2010)	178
4.9.5.	Bereizkeria maila (AEI 2010)	180
4.9.6.	Balioesten al dituzte bertako biztanleak? (AEI 2010)	181
4.9.7.	Zenbat identifikatzen dute beren burua EAErekin?(AEI 2010)	183
4.9.8.	Zenbateraino daude integratuta euskal gizartean? (AEI 2010)	185
4.9.9.	EAEEn bizi diren atzerriko emakume etorkinak: proposatutako tipologia	187
4.9.10.	Ondorioak	188

5. BERTAKO HERRITARREK NOLA IKUSTEN DITUZTEN ATZERRITAR EMAKUME IMMIGRANTEAK	193
5.1. Emakume atzerritar immigranteek egin duten ekarpenaren pertzepzioa: euskal gizartearen aurreiritziak eta estereotipoak	195
5.1.1. Funtzionaltasun ekonomikoa	195
5.1.2. Estereotipoak eta aurreiritziak	197
5.1.3. Gizarteari egindako ekarpena	199
5.2. Euskal gizarteak emakume atzerritar immigranteez duen irudia	201
5.2.1. Emakume immigranteei lotutako ezaugarriak	202
5.2.2. Emakume atzerritar immigranteekiko begikotasuna	205
5.2.3. Emakume immigranteen irudi bereizgarria	206
5.3. Euskal gizartearen balorazio orokorra emakume atzerritar immigranteen etorreraren aurrean	210
5.4. Ondorioak	211
6. EMAKUME ATZERRITAR IMMIGRANTEEN AURREIKUSPENAK ETA BEHARRIZANAK	215
6.1. Migrazioa jatorriko herrialdean	217
6.1.1. Immigratzeko arrazoiak	218
6.1.2. Aurreikuspenak	224
6.1.3. Helmuga edo destinoa	225
6.1.4. Erabakia hartzea	231
6.2. Euskadira etortzea	235
6.2.1. Hasierako iritziak	235
6.2.2. Hizkuntza	236
6.2.3. Oraina Euskadin	237
6.3. Shock kulturala eta akulturazioa	252
6.3.1. Hautemandako desberdintasun kulturalak	253
6.3.2. Akulturazioa eta identitatea	254
6.3.3. Hautemandako bazterketa- eta diskriminazio-jokabideak	257
6.4. Mundu-ikuskerak eta genero-rolak	262
6.4.1. Euskadiko emakumeak eta gizonak, eta bikote-harremanak	262
6.4.2. Emakumeen egungo egoera beren jatorriko herrialdeetan	267
6.4.3. Emakumeen aurkako indarkeria	269
6.4.4. Atzera begiratuz aurrera egitea	276
6.5. Aurreikuspenak eta etorkizuna	279
6.5.1. Barren-barrenean dauden joerak: bizitza ez da gizon bat	283
6.5.2. Lortu duten edo lortzen ari diren autonomiarekiko poztasun urria	286
6.5.3. Seme-alabak, bai; ezkontideak, agian	287
6.5.4. "Hemen beste helburu batzuk izan ditzakezu"	289
6.5.5. Gizarte-baldintzekiko gogobetetasuna	291
6.6. Ondorioak	295
6.6.1. Orokorrak	295
6.6.2. Profilen arabera	299
7. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	305
7.1. Ondorioak	307
7.2. Proposamenak	310

8. BIBLIOGRAFIA	315
9. ERANSKINA	323
9.1. Elkarriketen gidoia	325
9.2. Galdetegia	328



AURKEZPENA



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatu du eskuartean dugun azterlan hau, euskal gizartean dauden atzerriko emakume etorkinei buruzkoa. Emakume horiek gure gizartean zein egoeratan dauden azaltzen du, eta bi galderari erantzuten die: euskal gizarteak zer irudi du emakume etorkinei buruz? Emakume etorkinek berek zer irudi dute gizartean duten egoeraz?.

Azterlan kuantitatibo eta kualitatibo honen bidez, balioetsi egin nahi da emakume etorkinek gure gizartearen ongizateari egiten dioten ekarpenaren handia; halaber, herritarren sektore horri buruz dauden estereotipoak apurtu nahi dira.

Azterlanaren arabera, atzeritik emakumezko langileak iritsi izanari esker kudeatu izan dira zenbait egitura-aldaketa. Egiturazko aldaketa horiek garrantzitsuak izan dira, izugarri esanguratsuak, pertsonak zaintzearekin eta familia-harremanekin zerikusia dutenak: lan-

merkatuan emakume gehiago sartu izana eta biztanleriaren zahartu izana dira horren adibide garbi bi. Ondorioz, esan daiteke emakume atzeritarrek errenta eta aberastasuna sortzen dutela, dela zuzeneko ekarpenen bidez, dela zeharkako zergen bidez.

Ekarpen hori ez da berdin ikusten euskal herritarren artean. Onartzen den arren emakume etorkinek zeresan handia daukatela zaintza-lanetan eta etxeko lanetan, gizartearen zati handi batek oraindik ere uste du emakume etorkinek euskal gizarteari ematen diotena baino gehiago jasotzen dutela. Azterlanaren datuek, ordea, argiki eraisten eta ukatzen dute uste hori.

Azterlanaren zati kualitatiboak aukera ematen digu atzerriko emakumezko etorkinek zer itxaropen dituzten jakiteko; zer desira, gurari eta amets dituzten azaltzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiet azterlana egin dutenei, eta, bereziki, azterlanean parte hartu duten emakume etorkin guztiei, elkarlanean eskuzabal aritzeagatik. Nahi nuke azterlan hau baliagarri izatea, bai gure gizartean dauden emakume etorkinen errealitatea hobeto ezagutzeko, bai gure estereotipoak apurtzeko eta ikusmoldeak berritzeko.

María Silvestre Cabrera

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

1

SARRERA

Azken bi hamarkadetako migrazioen ezaugarrien artean, aipatzekoa da emakume etorkinek izan duten protagonista-eginkizuna, hein handi batean ekintzaileak izan baitira migrazio-proiektuetan. Euskal Herriari dagokionez, emakume etorkinen presentzia beste inon baino nabariagoa da; izan ere, azken urteotan EAera bizitzera etorri diren pertsonen ia erdiak emakumeak dira. Hein batean, etorkinak igortzen eta hartzen dituzten herrialdeen arteko doikuntzek azaltzen dute hori. Uste ohi dugunaren kontrara, EAEn lekukotu diren hamar pertsonatik seik lekualdatze bakarra egin dute sorteriaren eta erroldatze-lekuaren artean. Hortaz, gizarte hartzailearen eskarien eta gizarte igorleen eskaintzaren arteko doikuntza zehatz baten ondorio izan ohi dira migrazio-mugimenduak

Europarako migrazioan lehen baino emakume gehiago izateak prozesu batzuk ezkututzen ditu. Prozesu horiek nekez azaleratzen dira eta zerikusia dute instituzioek guztiz bete ezin dituzten premiak betetzea xede duten biztanle-egokitzapenekin. Hauek dira migrazio-prozesuak bizkortu eta espezializatu izanaren arrazoi-tako batzuk: Europako biztanleriaren zahartzea, jaiotza-tasa baxuak, lana eta familia uztartzeko politikarik ez izatea, bertako emakumeak lan-munduan sartzea eta beste faktore ekonomiko –desindustrializazioa– eta kultural batzuk –indibidualizazio- eta destradizionalizazio-prozesuak–. Gösta Esping-Andersenek, Elisabeth Beck-Gersheimen, Raquel Bujánek, Constanza Tobíok, Amaia Pérez Orozcok, Sonia Parellak, eta beste hainbat idazlek testuak argitaratu dituzte berriki ikusezinak izangatik zalantzarik gabe elkarri lotuta dauden gai horiei buruz.

Hona hemen paradoxa: industrializazioaren aldetik gero eta ahulagoak diren lan-egituretan txertatzea helburu duten immigrazio-mugimenduak hazi egin dira. Horrek argi uzten du gizarte hartzaileen jardura-egitura eta lan-nitxoak aldatu egin direla. Duela gutxira arte, immigranteentzat ezinbestekoa zen industriari lan egitea integratzeko. Gaur egun, ordea, beste arlo batzuek ahalbidetzen dute integrazioa; batez ere: zaintzaren, etxeko lanen eta zerbitzuen arloek. Arlie Russel Hoschschildek kate transnationalei buruz idatzi zuen, eta duela gutxi, bizitza intimoaren merkantilizazioari buruz.

Horrenbestez, afektu-kate transnacionalak desberdintasunaren eta bereizkeriaren kateak ere badira. Emozioak ez ezik, kapitala ere transferitzen da. Are gehiago, fenomeno horri ematen zaion erantzunak esango digu kate horiek zenbateraino diren berdintzaileak edo zenbateraino areagotzen duten desberdintasuna. Europako herrialdeek eta EAek badute horren berri. Batetik, publikoki talentu handiko pertsonak eskatzen dituzte beren ekoizpen-sektoreek mundu mailan lehiari jardun dezaten. Baina, bestetik, beren gabezia larrienak *de facto* betetzeko immigrazioa sortzen dute. Lehenengo kasuan, herritartasun unibertsalaren estatusa proposatzen dute. Bigarren kasuan, aldiz, herritartasun-politika murriztatzaileak proposatzen dituzte, etnien eta sexuen arabera zatikatu eta segmentatutako lan-merkatuak oinarri dituztenak. Beste behin ere, baliteke emakumeak izatea galtzaile, baina orain mundu mailan. Gaur egun, ez da konponbiderik ikusten mundu mailan. Dena den, migrazioen bidez, egungo ekonomia- eta gizarte-ereduaren ahulgune asko ikus eta azalera daitezke.

Datu batzuen arabera¹, egoera den bezalakoa izanda ere, emakume etorkinak asebateago daude oro har bizitzarekin gizon etorkinak baino. Afrikako emakumeak ere asebateago daude. Gaur egun, Afrikako emakumeek dituzte zailtasun gehien euskal gizarteko lan-merkatuan sartzeko. Horiek horrela, epe ertainera begira, ezinbestean aztertu behar da zein den emakume immigranteen egoera objektiboa, zer itxaropen dituzten eta, batez ere, zer arlo lehenetsi behar ditugun, egun nagusi diren egiturak eta oztopoak ez daitezen iragazki saihestezin bat izan datozen belaunaldientzat. Ziur asko, etorkinen lehenengo belaunaldiak bereizkeria-maila handia onartuko du, betiere bizi proiektua gauzatzea galarazten ez bazaio.

¹Azterlan honen atal batzuetan, egileek noiz edo noiz datu berberei egiten diete erreferentzia. Irakurleei errepikorra gerta dakiekeen arren, batzuetan datuak errepikatu egin ditugu, testuinguruak eta argumentuaren hariak hala eskatuta.

Baina, neurri zuzentzaile egokiak ezartzen ez badira, desberdintasun hori ondorengo belaunaldiei transmitituko zaie, ziur asko. Hori saihetsi egin behar da, kosta ahala kosta.

Immigrazioa ispilu handi bat da. Bertan, immigrazioaren eguneroko zailtasunak ez ezik, gizarte hartzailea ere ikusten da. Emakume etorkinen egoera zein den eta zer zailtasun eta itxaropen dituzten aztertzea baliagarria izango zaigu euskal gizartearen oinarriren gainean egituratu behar dugun ikusten hasteko, baldin eta bidezko gizarte bat izatea nahi badugu.

2

HELBURUAK

Azterketa honen bidez lortu ditugun hainbat informazio-helburu planteatuko ditugu atal honetan. Helburu horiek guztiak helburu nagusi honekin daude lotuta:

EUSKAL GIZARTEAN BIZI DIREN ATZERRIKO EMAKUME ETORKINEN EGOERA DESKRIBATU ETA HAIEN EZAUGARRI NAGUSIAK EZAGUTZEA, EUSKAL GIZARTEAK NOLA IKUSTEN DITUEN AZALTZEA ETA EMAKUME HORIEK DITUZTEN AURREIKUSPENAK ETA BEHARRIZANAK AZTERTZEA.

Helburu nagusi hori lortze aldera, beharrezkotzat jo dugu hura moldatzen eta eratzen duten elementuei buruzko informazioa biltzea, helburu zehatz hauen inguruan:

EAE-N BIZI DIREN ATZERRIKO EMAKUME ETORKINEN EGOERA: FUNTSEZKO EREMUAK

2.1

- EAEen bizi diren atzerriko emakume etorkinen ezaugarri soziodemografikoak deskribatzea: adina, sorterrria, egoera zibila (edo bikotekidea), seme-alabak, etxebizitza, erlijio-sinesmenak, hizkuntza.
- Ekonomiarekin eta lanarekin lotutako aldagaiei buruzko informazioa erabiltzea: enplegua, enplegu-mota, diru-sarrerak, estatusa, bazterkeria-egoerak, etab.
- Emakume horien administrazio-egoeraren berri izatea.
- Pertsonen arteko egoerari eta gizarte-harremanei dagokienez, atzerriko emakume etorkinen egoera deskribatzea: gizarte-kapitala, gizarte-sareak, familiaren laguntza, komunitatearen laguntza, etab.
- EAEen bizi diren atzerriko emakume etorkinek gizarte-ongizatea eta ongizate pertsonala nola hautematen duten adieraztea.
- EAEen bizi diren atzerriko emakume etorkinen arteko aldeak aztertzea: ezaugarri soziodemografikoak, ekonomikoak, lanekoak, etab.
- Tipologia bat egitea, atzerriko emakume etorkinak taldetan banatzen dituen eta soziodemografiari, lanari, ekonomiari eta kulturari buruzko erretratu bat emango diguna, gero erretratu horretan sakondu dezagun.
- 6, 7 edo 8 atzerriko emakume etorkin mota aukeratzea, EAEen bizi diren atzerriko emakume etorkin guztien prototipo eta ordezkari gisa.
- EAEen bizi diren atzerriko emakume etorkinek euskal gizartea aberasteko egiten duten ekarpenaren alderdi ekonomikoetan sakontzea.
- Migrazio-esperientzian zehar emakume etorkinek bizitzen dituzten ahalduntze-prozesuekin lotutako alderdietan sakontzea; haien bizi prozesuan gertatzen diren eginkizun-aldaketak nabarmentzea, bai eta aldaketa horiek dakartzaten ondorioak ere.

- Atzerriko emakume etorkinen kulturari buruzko alderdietan sakontzea; sorterriei eta kulturei buruzko mapa egitea eta mapan aniztasunari buruzko datuak sartzea (hizkuntza, erlijioa, gizartea, etab.).
- EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinek lan-eremuan zer eginkizun duten aztertea: egungo egoera, laneko sektoreak, lan-prekarietatea, murgildutako edo ezkutuko lana, lan-bereizkeria, lana eta etxeko lana uztartzea, etab.

BERTAKO HERRITARREK NOLA IKUSTEN DITUZTEN EMAKUME ATZERRITAR IMMIGRANTEAK

2.2

- Bertako biztanleriak emakume atzerritar immigranteez zer irudi duen deskribatzea.
- Euskadiko biztanleriak emakume atzerritar immigranteez zer estereotipo eta aurreiritzi izan ditzakeen aztertzea.
- Emakume atzerritar immigranteek euskal gizarteari egiten dion ekarpen ekonomikoari dagokionez Euskadiko biztanleriak zer pertzepzio duen zehaztea.
- Emakume atzerritar immigranteek euskal gizartearen egitura sozialari egiten dion ekarpenari dagokionez Euskadiko biztanleriak zer pertzepzio duen zehaztea.

EMAKUME ATZERRITAR IMMIGRANTEEN AURREIKUSPENAK ETA BEHARRIZANAK

2.3


- Emakume atzerritar immigranteen esanak sakon aztertzea, migrazio-prozesuen kontaktuzun autobiografikoaren berri izateko.
- Jakitea zer aurreikuspen edo itxaropen dituzten emakume immigrante atzerritarrek beren migrazio-proiektuan, bai lehenaldian, bai orainaldian, bai etorkizunean.
- Emakumeek migrazio-prozesuan dituzten nahikundeak, desirak eta ametsak deskribatzea.
- Prozesu horretan topatzen dituzten zailtasunak eta jasotzen duten laguntza nabarmentzea.
- Emakume atzerritar immigranteek EAEn daudenean dituzten beharrizanak hauteman eta ondorioztatzea.
- Etorkizunerako nahi dutena proiektatzea, eta, bereziki, haien alabengan dituzten itxaropenak adieraztea.

3

METODOLOGIA

Metodologiari dagokionez, azterlanaren ezaugarriak eta proposatutako helburuak direla eta, bi zati bereiziko ditugu. Dena den, berez, lau zatiek helburu partzial berberak dituzte eta, noski, azterlanaren helburu nagusia betetzen dute.

3.1. IRUDIA Lan-eskema



1. FASEA: EAEN BIZI DIREN ATZERRIKO EMAKUME ETORKINEN EGOERA

3.1

Lehenik eta behin, beharrezkoa iruditu zaigu informazioa errotik bururaino jasotzeko fase bat egitea. Fase hori baliagarria izan da testuinguruan kokatzeko aztergai dugun fenomenoak, hots, EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinen egoera: zenbat dira, nondik datoz, zer motibazio dituzte, non egiten dute lan, non bizi dira, nola bizi dira, norekin dituzte harremanak, seme-alabarik dute, senarrik edo bikotekiderik dute, nola sentitzen dira, zer espero dute bizitzaz, nolakoa izan da haien bizi bidaia, etab.

Dokumentazio-fase horretan, funtsean, bigarren mailako hiru informazio-iturri izan ditugu:

- Errolda: EAEko herritarren azken urteetako erroldak xehetasunez aztertu ditugu, eta horri esker, testuinguruan jarri dugu EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinen egoera. Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) datu-baseak eskuratzeari dagokion guztian, Ikuspegi - Eusko Jaurlaritzako Immigrazioaren Behatokiaren laguntza jaso dugu.
- Etorkinei eta osasunari buruzko azterlana, Ikuspegi 2010: 2009tik 2010era, Ikuspegik - Immigrazioaren Euskal Behatokiak, EHUrekin elkarlanean, azterlan interesgarri bat egin zuen, euskaldunek, bertakoek eta etorkinek gizarte-ongizateari buruz zer ikuspegi zuten jakiteko. Xehetasunez aztertu zituzten jatorri ezberdineko hainbat talderen –errumaniarren, magrebtarren, kolonbiarren, asiarren, boliviarren eta euskaldunen– arteko aldeak. Datu-base horrek 1.750 bat erregistro ditu.
- Eusko Jaurlaritzak immigrante atzerritarrei buruz egindako estatistika-lana, AEI 2010: duela gutxi, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietako Saialak asmo handiko estatistika-lan bat egin du, EAEn aldi baterako eta lekukotuta dauden etorkinei buruzko erretratu fidagarri bat egiteko. Zehazki, atzerriko 2.500 etorkini baino gehiagori inkesta egin diete.

Asmoa da existitzen diren datu-baseak berriro ustiatzea euskal gizarteko emakume atzerritar immigranteek gaur egun eta azken urteetan zer errealitate bizi duten eta bizi izan duten jakiteko. Horretarako, SPSSWIN estatistika-programa erabili dugu. Zuzendaritza-taldeko kideak, Aierdi eta Oleaga jaunak, arduratu dira datuak ustiatzeaz eta taulak sortzeaz.

Aldagai bakarreko eta bi aldagaiko estatistika-prozesu ohikoak baliatu ditugu (frekuentziak, ehuneko horizontal eta bertikalak, joera zentralako neurriak eta dispertsio-neurriak, korrelazio eta elkartetako koefizienteak, hipotesien egiaztapena), baina, horiez gain, aldagai anitzeko analisi espezifikokoak egin ditugu segmentazio-zuhaitzak lortu (AID eta CHAID) eta EAEn bizi diren emakume atzerritar immigranteen tipologia bat ezartzeko.

2. FASEA: EAE-N BIZI DIREN ATZERRIKO EMAKUME ETORKINAK: FUNTSEZKO EREMUAK

3.2

Horrez gainera, EAEn bizi diren emakume atzerritarren egoera kokatu eta ulertzeko eremu giltzarri batzuk sakontasun handiz aztertu ditugu. Hauek dira eremu giltzarri horiek:

- Emakume etorkinen inguruko elementu kulturalak: eremu horretan, Bizkaiko Elizbarrutiko Teologia eta Pastoralta Institutuko kide den Izaskun Saéz de la Fuenteren ekarpena jaso dugu.
- EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinek egiten duten ekarpenaren alderdi ekonomikoak: EHUko irakasle den Joaquín Arriolaren laguntza jaso dugu.
- Lan-ingurunea eta lana zein familia uztartzeko aukerak: eremu horretan, Malen Etxea elkarteko presidentea den Silvia Carrizoren laguntza jaso dugu.

- EAEko emakume etorkinen biktimizazioarekin lotutako alderdiak: eremu horretan, EHUko irakaslea den Ana I. Pérez Machioren eta EHUko KREIko ikertzailea den Laura Pegoren laguntza jaso dugu.
- Euskal gizartean bizi diren atzerriko emakume etorkinen prestakuntzari eta hezkuntzari lotutako alderdiei buruzko kontuak: eremu horretan, Amelia Barquínen, Monika Madinabeitiaren eta Nerea Alzolaren laguntza jaso dugu; Mondragon Unibertsitateko irakasleak dira hirurak.

3. FASEA: EUSKAL GIZARTEAREN PERTZEPZIOA

3.3

Euskal gizarteak emakume atzerritar immigranteez eta haiek gizarteari egiten dioten ekarpenaz duen pertzepzioa, nahiz haiei ematen zaien irudia eta rola, duena bereziki garrantzitsuak dira EAEn bizi diren emakume atzerritar immigranteen errealitate soziala bere osotasunean ezagutzeko.

Horregatik, beharrezkotzat jo dugu bertako biztanleek zer iritzi duten zuzenean jakitea, alderdi erabakigarri batzuetan soilik izan arren. Horrenbestez, inkesta kuantitatibo bat egin diogu aztergai dugun gizarte-multzoaren lagin adierazgarri bati.

Sinergiak baliatzeko eta ikerketaren kostua asko ez igotzeko, galdera-multzo bat sartu dugu Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak urtero egiten duen Barometroan, eta beste galdera-multzo bat, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak apirilean egin zuen Soziometroan; aurrez, hitzarmen bat sinatu genuen bi erakunde horietako arduradunekin.

AZTERGAIA

3.3.1

Gure aztergaia honako pertsona haiek osatzen dute:

- EAEn bizi diren eta espainiar nazionalitatea duten 18 urtetik gorako pertsonak.

LAGINAREN TAMAINA

3.3.2

Ikuspegiren inkestaren lagina 1.200 lagunek osatzen dute: 400 lurralde historiko bakoitze-ko. Beraz, inkestaren %95eko konfiantza-maila dugu, eta gehienezko laginketa-akatsa %2,83koa da, gutxi gorabehera (kasurik txarrean, $p=q=0,5$). Hau da, %4,9 izango da,

gutxi gorabehera, lurralde bakoitzerako. Zuzeneko inkesta da, etxez etxe egina, eta adin-, sexu- eta habitat-kuoten araberrako esleipen proportzionalaren bidezko laginketa estratifikatua hartu da oinarri. Inkestatu beharreko etxeak eta pertsonak ibilbide aleatorioen sistema erabiliz hautatu dira (*random routes*), 29 euskal udalerritan banatutako 61 laginketa-puntutan.

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen apirileko Soziometroa egiteko, EAeko 1.000 laguneko lagina hartu zen, eta haiei telefonoz egin zitzaizkien galderak. Lagina honela zegoen banatuta: 250 Araban, 450 Bizkaian eta 300 Gipuzkoan. Gehienezko laginketa-akatsa %3,16koa da, gutxi gorabehera, eta inkestaren konfiantza-maila, %95,5koa (kasurik txarrean, $p=q=0,5$).

INFORMAZIOAREN BILKETA ETA TRATAMENDUA

3.3.3

Ikuspegiaren 2012ko Barometroaren informazioa 2012ko martxoaren 14an eta apirilaren 13an bildu zen (etxez etxeko inkesta); informazioa biltzeaz CPS Iritzi eta Merkatu Ikerketak enpresa arduratu zen, inkesta kuantitatiboen landa-lanean espezializatutako esperientzia handiko enpresa.

2012ko apirileko Soziometrorako informazioa 2012ko apirilaren 18an bildu zen (telefono bidezko inkesta); inkesta hori egiteaz Ikerfel enpresa arduratu zen, hori ere ospe handikoa horrelako lanetan.

Bildutako informazioa kodetu eta euskarri informatikoan grabatu da, gerora tratatu, prozesatu eta taulatan sartzeko. Zeregin horretan, Eginsoft enpresaren laguntza izan dugu; Eginsoft horrelako lanetan espezializatutako kalkulu-zentroa da. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen lankidetzak teknika izan dugu. BARWIN eta SPSSWIN pakete estatistikoak erabili ditugu. Datuen prozesamendurako ehuneko horizontalak eta bertikalak erabili ditugu, bai eta ohiko estatistiko deskribatzaileak ere, erdigunerako joera dutenak (batez bestekoa, erdiko balioa, moda) eta sakabanatzeko joera dutenak (desbideratze tipikoa, bariantza). Horrez gain, kasu bakoitzerako egokitzat jo ditugun erlazio estatistikoak eta aldagaiak elkartzeko metodoak erabili ditugu (korrelazioak, kinkarratua, kontingentzia-koefizientea, etab.), bai eta hipotesiak egiaztatzeko beharrezko testak ere (parametrikokoak eta banaketa librekoak). Amaitzeko, aldagai anitzeko teknika espezifikokoak ere erabili ditugu, hala nola, AFC korrespondentzia sinpleen faktore-analisia.

4. FASEA: EAE-N BIZI DIREN EMAKUME ATZERRITAR IMMIGRANTEEN AURREIKUSPENAK ETA BEHARRIZANAK

3.4

Fase honen xede nagusia da EAEn bizi diren emakume atzerritar immigranteen egoera adieraztea, sakontasunez eta modu adierazgarri batean. Emakume horien esanak bildu nahi ditugu: esan diezagutela nola ikusten duten errealitatea, gauzak nola diren haien ikuspegitik, nola ikusten duten gure gizartea, beren etorkizuna eta beren alabena. Haien biografiak ezagutu nahi ditugu, haien bizipenak, gaur egun zer beharizan dituzten jakin, etorkizunera ko dituzten aurreikuspenak eta itxaropenak aztertu, euskal gizartea nola ikusten duten arakatu, haien alabentzat zer aurreikuspen dituzten galdetu, haien ondorengoentzat zer etorkizun ikusten duten, etab.

Ikerketaren lehen fasean proposatu diren profilekin lan egin dugu. Guztira, emakume immigrante atzerritarren bederatzi profil ezarri ziren, EAEn bizi diren emakumeenak guztiak, eta profil bakoitzean ezaugarri, balio, aurreikuspen eta egoera aski diferenteak nabarmentzen dira. Zehazki, zortzi profil hauekin lan egin dugu, bederatzigarrena tratu txarrak eta/edo edozein motatako indarkeria jasan duten emakume atzerritar immigranteei dagokiena baita, gainerako zortzi profilekiko zehar-izaera duena:

- 1) 1. profila: Emakume **europar, argentinarrak eta txiletarrak**; bikotekidea dutenak edo bikotekiderik gabeak; seme-alabak dituztenak edo seme-alabarik gabeak; EAEn urte gutxi edo urte luzez bizitzen ari direnak, iraupen labur edo luzeak; legezko egoera administratiboan daudenak; lana dutenak; hizkuntzarekin arazorik ez dutenak.
- 2) 2. profila: emakume **latinoamerikarrak**, Kolonbian, Perun eta inguru hartako herrialdeetan jaioak; EAEn bizi direnak **epe luzerako**; bikotekidea dutenak edo bikotekiderik gabeak; seme-alabak dituztenak edo seme-alabarik gabeak; gizarte-sare propio bat izan edo besteren sare batean daudenak; bere egoera pertsonala poztasun nahiko handiz bizi dutenak; beren etxean edo besteren etxean lan egiten dutenak eta adinekoak edo haurrak zaintzen dituztenak; hizkuntzarekin arazorik ez dutenak.
- 3) 3. profila: **arraz beltzeko** emakume **afrikarrak**, Saharaz azpikoak; epe labur edo luze-rako daudenak EAEn; gaztelaniarekin eta euskararekin zailtasunak dituztenak; bikotea dutenak edo bikotekiderik gabeak; seme-alabak dituztenak edo seme-alabarik gabeak; prestakuntza-maila ertain eta ertain-baxukoa; batik bat, erlijio musulmanekoak; legezko egoera administratiboan daudenak.
- 4) 4. profila: egoera administratibo **irregularrean** dauden emakumeak; Saharaz azpikoak, Afrika iparraldekoak edo magrebtarrak, errumaniarrak, etab.; bikotea dutenak edo bikotekiderik gabeak; seme-alabak dituztenak edo seme-alabarik gabeak; EAEn bizitzen denbora gutxi daramatenak (10 urte baino gutxiago); gizarte-laguntzak, diru-sarrerak bermatzeko laguntzak eta antzekoak jasotzen dituztenak.
- 5) 5. profila: emakume **magrebtarrak** (Afrika iparraldekoak, marokoarrak, aljeriarrak...); erlijio musulmanekoak; gazteak; **bikotekide** egonkorra dutenak; seme-alabak dituztenak edo seme-alabarik gabekoak; gizarte-sare urrikoak; harreman gutxi dutenak gizartean eta beste pertsona batzuekin; hizkuntza-arazoak dituztenak.

- 6) 6. profila: emakume **errumaniarrak**, ijitoen etniakoak gehienak; gizarte-sare sendo bateko kide direnak; harreman sozial gutxi harreman urriak dituztenak beste talde batzuetako pertsonekin; beren egoerarekin poztasun handia edo txikia dutenak; bikotea dutenak edo bikotekiderik gabeak; seme-alabak dituztenak edo seme-alabarik gabeak; prestakuntza-maila ertain eta ertain-baxukoa.
- 7) 7. profila: emakume asiarrak, **Txina ingurukoak**, **lan** egiten dutenak; gizarte-sare propioa eta sendoa dutenak; harreman gutxi dutenak beste talde batzuetako jendarte eta pertsonekin; zailtasunak dituztenak EAEko hizkuntzetan komunikatzeko; bikotekidea dutenak; seme-alabak dituztenak edo seme-alabarik gabeak; hartzen dituen gizartean oso integrazio baxua eta harekin hartu-eman gutxi dutenak.
- 8) 8. profila: emakume **latinoamerikarrak**, Nikaraguakoak, Paraguaikoak...; **denbora gutxi** daramatenak EAEn bizitzen; legezko edo legez kanpoko egoera administratiboan daudenak; bikotekiderik gabeak, seme-alabak dituztenak edo seme-alabarik ez dutenak; beren etxean lan egiten dutenak eta adinekoak edo haurrak zaintzen dituztenak; gizarte-sare propiorik ez dutenak; harreman gutxi dutenak beste pertsona batzuekin eta beste gizarte-talde batzuekin.

Azterlan honetan ahalegina egin dugu emakume atzerritar immigranteen iritziak, diskurtsoak, gogo-grinak, balorazioak, aurreikuspenak, beharrianak, itxaropenak eta bestelako alderdiak ezagutzeko, eta, horretarako, iritzi-azterketa kualitatibo bat egin dugu, aztergai dugun biztanleria-zatiaren lagin adierazgarri bat hartuta. Metodologia-egitura kualitatibo bat erabiltzea zen egokiena ikerketaren nolakoa eta ezarritako helburuak aintzat hartuta, hori baita emakumeen biografien, diskurtsoen, aurreikuspenen eta beharrianen berri zehatza izateko modua.

Hasiera batean, proiektu honen asmoa zen profil bakoitzeko lau emakumerekin lan egitea –guztira, 32 emakumerekin–, elkarrizketa sakonak egiteko, eta, gerora, guztiak profil bakoitzarean biltzea, taldeko edo mikrotaldeko (8 mikrotaldeko) dinamika batean lan egiteko. Azken urrats horretan, sakondu, osatu eta garatu egingo litzateke aurretiko elkarrizketetan bildutako informazioa. Hala ere, landa-lana egiten hastean, ikusi dugu ezinezkoa zitzaila, fisikoki, profil bereko mikrotalde horiek elkartzeko, elkarrengandik urrun bizi baitira horietako asko eta ez baitute, gainera, ordutegi erabilgarri bera izaten elkartzeko.

Horrenbestez, mikrotaldeak osatu beharrean, beste elkarrizketa sakon batzuk egin ditugu, eta handitu egin dugu azterlan honetan parte hartu duten emakume atzerritar immigranteen kopurua. Azkenik, 43 elkarrizketa sakon egin ditugu eta bi mikrotalde osatu ditugu. Azterlanean, guztira, 49 emakume atzerritar immigrantek parte hartu dute:

- Emakume europar, argentinar eta txiletarrak: 5 emakume (5 elkarrizketa)
- Egonaldi luzeko emakume latinoamerikarrak: 9 emakume (5 elkarrizketa eta mikrotalde bat, 4 emakume gehiagorekin)
- Arraza beltzeko afrikarrak: 6 emakume (6 elkarrizketa)
- Legez kanpoko egoera administratiboan: 6 emakume (6 elkarrizketa).
- Magrebtarrak: 6 emakume (6 elkarrizketa)
- Ijito arrazako errumaniarrak: 6 emakume (6 elkarrizketa)
- Txinatarrak: 5 emakume (5 elkarrizketa)
- Egonaldi laburreko emakume latinoamerikarrak: 6 emakume (4 elkarrizketa eta mikrotalde bat, 2 emakume gehiagorekin)

Elkarrizketa sakonen xede nagusia emakumeen migrazio-prozesua aztertzea izan da, eta mikrotaldeek ere emakumeen biografia aztertu dute (elkarrizketa edo entrebista sakonak egin eta haien bizi-historiaren aztertu da). Mikrotaldeen saioetan, garrantzi handia izan dute

emakumeen diskurtsoek, emozioek, sentimenduek, jarrerek, nahikundeek, aurreikuspenek, itxaropenek, etab.

Lan horren guztiaren ondorioz, euskal gizartean ditugun emakume atzerritar immigranteen egoera erakutsi dugu, emakume horien profil nagusien egituratze kualitatibo bat osatuz.

Emakume atzerritar immigranteak biltzeko, pertsona immigranteekin lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeekin eta elkarteekin lan egin dugu eta gizarte-azterlanetarako informazio kualitatiboa hauteman eta biltzen duten enpresekin jarri gara harremanetan (CPS Estudios de Mercado y Opinión).

Bereziki eskertu nahi dugu eragile hauen ahalegina, dedikazioa eta laguntza: Gasteizko elizbarrutiko Cáritas, Gipuzkoako Cáritas, SOS Arrazakeria, CEAR, Ecuador Etxea, Munduko Emakumeak, Emigrad@s sin Fronteras, Ellacuría Fundazioa, CITE-CC.OO. eta Donostiako Udaleko Gizarte Bitartekaritzako Programa.

Informazioa apirilean, maiatzean, ekainean eta uztailean bildu da, eta ikerketa-taldeko teknikariek egin dituzte elkarrizketak eta mikrotaldeak. Zehazki, hauek izan dira lan hori guztia egin dutenak: Julia Shershneva, Iraide Fernández eta Maite Fouassier.

Bildutako informazioa euskarri informatikoan grabatu da, gerora tratatu, prozesatu eta aztertzeko. Elkarrizketak eta mikrotaldeetan egindako lana transkribatzeko, BCR enpresaren eta haien teknikarien laguntza izan dugu, lan-mota horretan espezializatuta dauden aldetik.

4

EAE-N BIZI DIREN ATZERRIKO EMAKUME ETORKINEN EGOERA: FUNTSEZKO EREMUA

EAEN BIZI DIREN EMAKUME ATZERRITARRAK

Xabier Aierdi

4.1

EINeko 2011ko urtarrilaren 1eko Biztanleen udal eroldaren behin-behineko datuen arabera, eta gero eta pertsona gehiago nazionalizatzen ari direla kontuan hartu gabe, EAEn 144.500 atzerritar bizi dira –hau da, ez dute espainiar herritartasuna–; biztanleria osoaren %6,4, hain zuzen ere. Nahiz eta ziurtasun osoz ez jakin zenbat atzerritarrek lortu duten azken urteotan espainiar herritartasuna, ziur asko, biztanleria osoaren %8 da, eta jatorriz atzerritarrek diren 175.000 pertsona baino gehiago bizi dira behin betiko EAEn. Alde horretatik, duela gutxi egindako Atzerriko Etorkinen gaineko Inkestaren (AEI)² arabera, jatorriz atzerritarrek diren 179.583 pertsona bizi dira EAEn; hau da, biztanleria osoaren %8,2 (ikus 4.1. taula).

4.1. TAULA Atzerriko biztanleak, AEI 2010 inkestaren arabera

	GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK		GUZTIRA	
	K	%	K	%	K	%
Nazionalizatuak	2.467	2,8	2.629	1,8	5.096	2,8
Espainiarrak eta beste batzuk	14.399	16,6	16.398	17,7	30.797	17,1
Atzerritarrek	70.089	80,6	73.541	79,4	143.630	80
Bat ere ez / aberrigabeak	30	0	30	0	60	0
Guztira	86.985	100	92.598	100	179.583	100

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Sexu-banaketari dagokionez, EINen datuen arabera, espainiar herritartasuna duten biztanleen artean emakume gehiago daude (% 51,3), jatorriz atzerritarrek diren biztanleen artean baino (% 48,6)³. Hona hemen horren arrazoiak. Duela gutxira arte, lehenbizi gizonek emigratzen zuten, eta gero, normalean beren familia etorrazten zuten immigrazio-herrialdera. Gaur egun, berriz, kontuan hartzekoak dira emakumeek beren kabuz egiten dituzten migrazio-mugimenduak. Edonola ere, lehenengo fasean gizonek migratu edo emakumeek migratu, familiak berriz biltzen direnean, sexuen ehunekoak parekatu egiten dira. Dena den, lurralde historiko bakoitzean dauden etorkin-taldeak araberakoa ere bada parekatze hori: Latinoamerikako etorkinen artean beste lekuetako etorkinen artean baino emakume gehiago daude.

Horiek guztiak kontuan hartuta, EAEn 70.200 atzerriko emakume bizi dira. Jatorriari dagokionez (ikus 4.2. taula), Latinoamerikakoa da emakume gehien duen etorkin-taldea: handik immigratutako hamar pertsonatik sei emakumeak dira. Datu hori oso adierazgarria da; izan ere, EAEn, lau etorkinetik bat Latinoamerikako emakume bat da. Hori da, zalantzarik gabe, etorkin mota ohikoena. Egungo migrazio-fenomenoak buruzko ikerlan askotan ezarritako tipologia oinarri hartuta, EAEko immigrazio motak emakumeak erakartzen ditu lan-merkatuaren sektore hauetan lan egin dezaten: zerbitzuen sektorean eta zaintzaren sektorean.

²Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerriko etorkinen gaineko inkesta, AEI 2010, Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak egina. Sarrerako kapitulu honetan, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) eta AEIren datuak hartuko ditugu oinarritzat. Erroldan dauden informazio-hutsuneak betetzeko joko dugu AEIra.

³AEI inkestaren arabera, % 48,4 gizonezkoa da, eta % 51,6, emakumezkoa.

4.2. TAULA EAEko biztanleria: kontinente bakoitzetik etorritako etorkinen kopurua, emakume kopurua eta sexu-banaketa


	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKU- MEAK	EMAKUME %		GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Guztira	2.183.615	1.066.363	1.117.252	51,2				
Espainiarrak	2.039.064	992.041	1.047.023	51,3				
Atzerritarrak	144.551	74.322	70.229	48,6	100	51,4	48,6	
Europar Batasuna	35.958	20.273	15.685	43,6	24,9	14,0	10,9	
Gainerako Europa	4.346	1.943	2.403	55,3	3,0	1,3	1,7	
Afrika	32.381	21.553	10.828	33,4	22,4	14,9	7,5	
Latinoamerika	60.440	23.803	36.637	60,6	41,8	16,5	25,3	
Iparramerika	1.827	780	1.047	57,3	1,3	0,5	0,7	
Asia	9.461	5.887	3.574	37,8	6,5	4,1	2,5	
Ozeania	112	67	45	40,2	0,1	0,0	0,0	
Apatridak	26	16	10	38,5	0,0	0,0	0,0	

Iturria: EIN eta egileek egina

Jatorri ezberdineko etorkin-taldeen emakume kopuruari buruz ari garela, Latinoamerikako etorkin-taldearen ondoren, emakume kopuru handiena Ipar Amerikako etorkin-taldeak du (% 57,3), eta gero, Europar Batasunekoak ez diren Europako herrialdeetako etorkin-taldeak (% 55,3). Dena den, leku horietatik etorritako etorkinak ez dira asko. Kontrako muturrean, emakume kopuru txikiena Afrikako (33,4 %) eta Asiako (% 37,8) etorkin-taldeek dute.

Datu horiek zerikusia dute emigratzeko eta immigratzeko arrazoiekin. Immigratzeko arrazoiei dagokienez, argi dago EAEk immigrazio jakin bat lehenesten duela; Latinoamerikako emakumeena, alegia. Halaber, emigrazioa bideratzen du emakumeen emigrazioa bultzatzeko. Emigrazioaren ikuspuntutik, Afrikako emakume etorkinek, eta hein txikiagoan Asiakoek, beste emakume etorkinek baino autonomia gutxiago dute. Norbaiti lagun egiteko emigratzen dutela esan dezakegu.

4.1. GRAFIKOA EAEko eta lurralde historikoetako (%) emakume etorkinen kopuruaren bilakaera: 1998-2011




Iturria: EIN eta egileek egina

Lurralde historikoei dagokienez (ikus 4.1. grafikoa), emakume etorkin gutxiago daude Araban, Gipuzkoan (% 49,4) eta Bizkaian (% 49,6) baino. Horrek zerikusia du lurralde historiko bakoitzaren jarduera-egiturekin eta etorkinen jatorriarekin; izan ere, hiru lurralde historikoen artean aldeak egon badaude, nahiz eta txikiak izan.

Herrialde hartzailearen premien eta premia horiei aurre egiteko etorkinek izan beharreko profilaren eta sexuaren arteko doikuntza ez da perfektua, ez eta milimetrikoki doitzen den *eredu hidrauliko* bat ere. Hala ere, ziur asko, ohi baino hobeto doitzen da, eta gizartean, bertako biztanleriaren premien ereduak onartzen dira. Sarri aipatu izan den dei efektua termino engainagarriaren arabera, migrazioak kontrolik gabeko mekanismoek bideratzen dituzte eta premia jakin batzuen mende daude: emigratio-herrialdeek beren biztanleak erbesteratzeko dituzten premien mende, hain zuzen ere. Hori gorabehera, *premia efektua* azpimarratu behar da; izan ere, nahiz eta emigratio-fluxuak hasieran irizpide arbitrarioen ondorio izan, epe ertainera eta laburrera, immigrazio-herrialdeek etorkinak hartzeko dituzten premietara doitu ohi dira. Doikuntza ez da erabatekoa, baina ia bai.

Horrenbestez, etorkin-talde handien herritartasunaren ehunekoei erreparatzen badiegu (ikus 4.2. grafikoa), datu zinez adierazgarri bat ikusiko dugu: igorle izandako herrialdeen lekua hartu duten herrialdeetatik etortzen diren etorkinak gero eta gehiago dira emakumeak. Kolonbiako etorkinak batez ere 2000. urtean iritsi ziren, eta haien artean (bai eta Peruko eta Ekuadorko etorkinen artean ere) emakume gutxiago daude Boliviako etorkinen artean baino (2004. urtean hasi ziren etortzen), Paraguako etorkinen artean baino (2008. urtean hasi ziren etortzen) eta orain ugaritzen ari diren Nikaraguako etorkinen artean baino. Hitz batez, emakume etorkinen kopurua handituz doa etorkinen fluxua herrialde batetik beste batera aldatu ahala.

4.2. GRAFIKOA EAEra etortzen diren etorkinen 20 jatorrizko herrialde nagusien emakume kopurua



Iturria: EIN eta egileek egina

Horiek horrela, aurrean duguna migrazio-fluxuak bideratzen eta taxutzen dituen prozesu bat da, funtsezko mekanismo hau duena: herrialde igorleak izan daitezkeenetatik, gizarte hartzaileak bere premietara hobekien egokitzen den herrialdea aukeratzen du. Gizarte hartzailearen protagonismoak indargabetu egiten ditu eguneroko praktikan hainbat arrazoi direla eta erakundeen eta politikaren bidez ezartzen diren iragazkiak. *Ahotik belarrirako* bidearen

bidez konpontzen dira ziur asko immigrazio-politiken gabeziak eta oztopoak. Hainbat arlotako eragileek esan dutenez, atzerriartasun-politika da *de facto* oztopatzen duena zentzuzko immigrazio- eta integrazio-politika egitea. Gizarteak gabezia hori betetzen du, hain zuzen ere. Gero ikusiko dugun moduan, aukeratzeak baztertzea dakar; izan ere, Latinoamerikako emakumeak (edo Europaren erdialdeko emakumeak) aukeratzeak aldi berean mezu jakin bat igortzen du; alegia, laneratzea eta gizarteratzea zaila/ezinezkoa dela jatorriz Afrikakoak diren emakumeentzat. Emakume horien artean, bereizketa bat egin dezakegu: batetik, Magrebeko emakumeak daude: haien immigrazioak lotura estua du familiarekin eta mendekotasunarekin; eta bestetik, Saharaz hegoaldeko herrialdeetako emakumeak: haien immigrazioak ez du hain lotura estua familiarekin. EAEra iritsi diren atzerriko etorkin guztien % 7,5 da Afrikako emakumea. Baliteke ehuneko txiki hori Afrikako etorkinen artean gizon gehiago egotearen eta emakumeek laneratzeko zailtasunak izatearen ondorioa izatea, edo alderantziz. Zaila da kausa eta efektua zein diren argitzea.

4.3. TAULA Jatorrizko herrialdean eskuratutako lan-kontratu batek bultzatuta immigratu duten pertsonen kopurua

	GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK		GUZTIRA	
	KONTRATUZ	GUZTIRA	KONTRATUZ	GUZTIRA	KONTRATUZ	GUZTIRA
Mendebaleko EB	33,2	100	7,0	100,0	21,5	100
Errumania eta Ekiald. EBko batzuk	11,1	100	0,4	100,0	5,3	100
Magreb	17,3	100	3,9	100,0	11,9	100
Argentina, Txile, Uruguai	11,2	100	3,1	100,0	6,7	100
Kolonbia, Ekuador, Peru	27,0	100	15,9	100,0	20,4	100
Bolivia	0,5	100	2,6	100,0	1,7	100
Paraguai	6,5	100	9,8	100,0	8,5	100
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	10,4	100	9,2	100,0	9,6	100
Gainerako Latinoamerika	26,5	100	2,6	100,0	10,7	100
Txina	38,5	100	34,9	100,0	36,9	100
Senegal	16,4	100	17,6	100,0	16,6	100
Gainerako Afrika	7,8	100	0,0	100,0	4,2	100
Gainerakoak	20,0	100	22,3	100,0	21,1	100
Biztalaria atzerritarra	19,1	100	8,6	100,0	13,5	100

Iturria: EIN eta egileek egina

Erregulazio sozial hori agerian gelditzen da, noiz eta EAEra kontratu bidez etorri diren etorkinen sexuari eta jatorriari dagozkien ehunekoak aztertzen ditugunean (ikus 4.3. taula). Hona hemen gizartean zabaldua dagoen betiko leloa: immigrazioa onargarria izateko eta ziurgabetasuna kentzeko lagungarria da jatorrizko herrialdean lotutako kontratu baten bidez bideratzea edo herrialde hartzaileko lan-eskaintza finko batek bultzatzea. Hori gorabehera, datuen arabera, atzeritarren % 13,5 soilik jarri da bizitzen EAEn kontratu bat dela bide. Emakumeei dagokienez, lan-kontratuaren bideek are pisu gutxiago dute; emakumeen % 8,6k soilik jo du bide horretara. Dena den, Txinako emakumeen artean lan-kontratuaren bidea aipatzekoa da; izan ere, herenak jo du bide horretara. Txinako emakumeen ondoren, Senegaleko emakumeek (% 17,6) eta Kolonbiakoek (% 15,9) hartu dute bide hori. Boliviako, Brasileko, Errumaniako eta Saharaz hegoaldeko Afrikako oso emakume gutxiak jo dute bide horretara.

Horren ondorioz, legez kanpoko bideetatik (esate baterako, turista-bisa) sartzen dira gehienak EAEra (ikus 4.4. taula). Aipatzekoa da familia-berrelkarteratzearen bidez sartu dela lau pertsonatik bat; hots, % 26; emakumeen kasuan, % 31,9. Emakume gehienek turista-bisa

erabiltzen dute sartzeko. Familia-berrelkarteratzei dagokienez, usteak gorabehera, badirudi gizon baino emakume gehiago sartzen direla EAEn bide horretatik. Magrebeko, Senegaleko, Saharaz hegoaldeko gainerako herrialdeetako eta Txinako emakume asko sartzen dira EAEn familiarekin berriz biltzeko. Horiek horrela, azken herrialde igorleei dagokienez, aipatzekoa da zer-nolako garrantzia duten emakumeek familiaren migrazio-proiektuaren buru gisa. Boliviako emakumeen % 7,6k eta Paraguako emakumeen % 4,3k soilik erabili du berrelkarteratzearen bidea EAEn bizitzen jartzeko. Aldiz, Boliviako gizon etorkinen % 20,2k eta Paraguako gizonen % 9,4k jo du bide horretara. Emakumeen aldeko asimetria hori bistakoa da, hein txikiagoan bada ere, Latinoamerikako beste herrialde batzuetako emakume etorkinen kasuan ere; ez, ordea, Kolonbiako emakume etorkinen kasuan, nahiz eta Kolonbiako immigrazioa izan finkatuena eta aspaldikoena.

4.4. TAULA Nola sartzen diren atzerriko emakume etorkinak EAera, jatorri-eremuaren arabera

	KONTRA-TUZ	TURISTA GISA	IRREGU-LARRA	ERREAGRU-PATUA	DEPOR-TATUAK	IKASLEAK	ELEIZ EMA-KUMEAK	GUZTIRA
Mendebaleko EB	7,0	55,5	1,6	33,4	0,0	2,4	0,0	100
Errumania eta Ekiald. EBko batzuk	0,4	74,8	0,4	22,8	0,0	1,5	0,0	100
Magreb	3,9	24,6	1,9	68,8	0,0	0,9	0,0	100
Argentina, Txile, Uruguai	3,1	69,4	0,0	26,6	0,0	0,9	0,0	100
Kolonbia, Ekuador, Peru	15,9	50,9	2,3	30,7	0,0	0,1	0,0	100
Bolivia	2,6	87,4	2,4	7,6	0,0	0,0	0,0	100
Paraguai	9,8	80,6	3,9	4,3	1,1	0,4	0,0	100
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	9,2	60,9	1,6	27,4	0,8	0,0	0,1	100
Gainerako Latinoamerika	2,6	56,2	0,0	41,1	0,0	0,0	0,0	100
Txina	34,9	24,0	0,0	41,1	0,0	0,0	0,0	100
Senegal	17,6	0,0	23,5	58,9	0,0	0,0	0,0	100
Gainerako Afrika	0,0	31,4	20,2	40,3	3,3	4,9	0,0	100
Gainerakoak	22,3	45,0	0,0	26,8	4,6	0,9	0,3	100
Biztalaria atzerritarra	8,6	55,9	2,3	31,9	0,5	0,8	0,0	100

Iturria: EIN eta egileek egina

Eskualde-banaketari dagokionez, atzerritar gehienak Bilbo Handian (% 37,6), Arabako lautadan (% 17,6) eta Donostian (% 13,8) daude (ikus 4.5. taula). Hiriburu-eskualde horietan, gizon (% 67,9) baino emakume gehixeago (% 70,3) daude. Donostiako, Plentzia-Mungiako eta Bilbo Handiko eskualdeetan daude emakume gehien, eta Markina-Ondarroako eta Arabako Lautadako eskualdeetan, gutxien.


Adin-banaketari dagokionez (4.3. grafikoa), 25 urtetik 44 urtera bitartekoa da atzerritarren adin-tarte nagusia; hots, % 50ak baina gehiago du adin-tarte hori. Halaber, kontuan hartze-koak dira aurreko eta geroko adin-tarteak; hots, 18 urtetik 24 urtera bitarteko adin-tartea (% 15 gutxi gorabehera) eta 45 urtetik 65 urtera bitartekoa (% 15 gutxi gorabehera). Atzerritar gutxi du 65 urte baino gehiago. Gazteenei dagokienez, 15 urtetik beherakoa da atzerritarren % 15 gutxi gorabehera. Ez dago alde nabarmenik sexuen artean.

4.5. TAULA EAEn bizi diren atzerriko etorkinen eskualdekako banaketa

	BIZTANLERIA SEXUAREN ARABERA			SEXUAREN ARABE-SEXUAREN ARABE- RAKO BANAKETA RAKO KONPOSIZOIA			ATZ. BIZT. BANAKETA ESKUALDEKA					
	GI	EM	GU	GI	EM	GU	GI	EM	GU			
Kantauri Arabarra	867	776	1.643	1,2	1,2	1,2	52,8	47,2	100	0,6	0,6	1,2
Gorbeia ingurua	252	215	467	0,4	0,3	0,3	54,0	46,0	100	0,2	0,2	0,3
Arabako Lautada	13.681	10.895	24.576	19,0	16,1	17,6	55,7	44,3	100	9,8	7,8	17,6
Arabako Mendialdeak	87	98	185	0,1	0,1	0,1	47,0	53,0	100	0,1	0,1	0,1
Arabako Errioxa	525	446	971	0,7	0,7	0,7	54,1	45,9	100	0,4	0,3	0,7
Arabako Ibarrak	204	164	368	0,3	0,2	0,3	55,4	44,6	100	0,1	0,1	0,3
Donostialdea	9.243	9.962	19.205	12,9	14,8	13,8	48,1	51,9	100	6,6	7,1	13,8
Goierri	2.858	2.090	4.948	4,0	3,1	3,6	57,8	42,2	100	2,1	1,5	3,6
Tolosaldea	1.233	1.059	2.292	1,7	1,6	1,6	53,8	46,2	100	0,9	0,8	1,6
Urola Kosta	2.289	1.961	4.250	3,2	2,9	3,0	53,9	46,1	100	1,6	1,4	3,0
Deba Goiena	1.508	1.348	2.856	2,1	2,0	2,0	52,8	47,2	100	1,1	1,0	2,0
Bidasoa Beherea	2.986	2.862	5.848	4,2	4,2	4,2	51,1	48,9	100	2,1	2,1	4,2
Deba Beherea	1.599	1.451	3.050	2,2	2,2	2,2	52,4	47,6	100	1,1	1,0	2,2
Arratia-Nerbioi	655	638	1.293	0,9	0,9	0,9	50,7	49,3	100	0,5	0,5	0,9
Durangaldea	3.165	2.635	5.800	4,4	3,9	4,2	54,6	45,4	100	2,3	1,9	4,2
Enkarterriak	863	786	1.649	1,2	1,2	1,2	52,3	47,7	100	0,6	0,6	1,2
Gernika-Bermeo	1.466	1.399	2.865	2,0	2,1	2,1	51,2	48,8	100	1,1	1,0	2,1
Bilbo Handia	25.906	26.521	52.427	36,0	39,3	37,6	49,4	50,6	100	18,6	19,0	37,6
Markina Ondarroa	1.130	674	1.804	1,6	1,0	1,3	62,6	37,4	100	0,8	0,5	1,3
Plentzia-Mungia	1.383	1.489	2.872	1,9	2,2	2,1	48,2	51,8	100	1,0	1,1	2,1
Total	71.900	67.469	139.369	100	100	100	51,6	48,4	100	51,6	48,4	100

Iturria: EIN eta egileek egina

4.3. GRAFIKOA Atzerriko biztanleriaren adin-egitura, sexuaren arabera




Iturria: EIN eta egileek egina

Adin-banaketa hori oso interesgarria da. Aipatzekoa da Magrebeko emakume etorkinen % 71k eta Saharaz hegoaldeko gizon etorkinen % 89,9k 16 urtetik 64 urtera bitarteko adina duela; hotz, lanerako adina. Bestalde, adin-egitura horren bidez, herrialde bakoitzeko etor-

kinek zer mendekotasun-tasa duten jakin dezakegu: Saharaz hegoaldeko etorkinek dute handiena (8,9), eta Magrebeko etorkinek, txikiena (2,4).

EAEko atzerritarren batez besteko mendekotasun-tasa 5,1 da gizonen kasuan, eta 4,8 emakumeen kasuan (ikus 4.4. grafikoa). Horrek esan nahi du atzerritarren artean lanerako adina duten bost pertsona daudela mendekotasuna duen pertsona bakoitzeko. Latinoamerikako herrialdeei dagokienez, mendekotasun-tasa aztertzea interesgarria da: emakumeen kasuan 6,3 da, eta gizonen kasuan, 4,1. Hona hemen bertakoen mendekotasun-tasa: bertako gizonen % 2,0 eta emakumezkoen % 1,7; guztira, % 1,9. Atzerritarrek beren mendekotasun eza besterendu eta bertako biztanleen mendekotasunari aurre egin diezaiokete. Horrek azaltzen du, hein handi batean, zergatik dauden atzerritarrak gurean.

4.4. GRAFIKOA Lanerako adinean dagoen atzerriko biztanleria eta mendekotasun-tasa, jatorri-eremuen arabera



Iturria: EIN eta egileek egina

ADMINISTRAZIO-EGOERA

4.1.1

EAE xede duen immigrazio-prozesua zenbateraino lekukotu eta garatu den jakiteko funtsezkoa da, besteak beste, etorkinen administrazio-egoera aztertzea. AEIren arabera, hauek guztietatik, gizonen % 92 eta emakumeen % 91,7 arazko egoeran dago: nazionalizatutako pertsonak, erregulazioaren lehenengo fasean daudenak (lehenengo lan- eta egoitzabaimena eta lehenengo berritzea), bigarren fasean daudenak (bigarren berritzea eta behin betiko egoitza-baimena) eta egoitza-baimena bai baina lan-baimenik ez dutenak.

Irregularitasun-tasa % 7,5 da gizonen kasuan, eta % 7,8, emakumeen kasuan⁴. Ikusten denez, atzerriko immigranteen erregularizazioa oso aurreratuta dago, nahiz eta askok pentsatu, batetik, krisi ekonomikoa dela-eta egonkortasunaren aldeko joera horrek atzera egingo zuela eta *gerora sortutako legez kanpoko egoerak* gertatuko zirela, eta bestetik, lanik ez

izatearen erruz, etorkinek berriro ekin beharko ziotela prozesuari hasiera-hasieratik, nahiz eta haien administrazio-egoera araututa egon. Hori, ordea, kasuen % 0,5 besterik ez da, gizonen eta emakumeen artean.

Errepara diezaiogun herritartasunari. Europako etorkinen egoera (bai eta Mendebaldeko Europar Batasuneko, Errumaniako eta Ekialdeko Europako etorkinen egoera ere) erabat araututa dago, Txinako etorkinen egoera ere bai. Magrebeko, Saharaz hegoaldeko eta Latinoamerikako etorkinen kasuan, gizon baino emakume gehiago daude egoera arautuan. Emakumeen eta gizonen arteko aldeek eta herrialdeen artekoek zerikusia dute faktore hauekin: noiz iritsi diren, noiz lekukotu diren eta zer lan-eremutan sartu diren.

4.6. TAULA Atzerriko biztanleriaren erregularizazio-tasa, jatorriaren arabera

	ERRESIDENTZIA ETA LAN BAIMENA				IRREGULARARRAK				
	HASI.-KO BAIM. ETA 1. BERRIK.	2. BERRIK. ETA PER- MANENTEA	ERRESIDEN . BAIM. (EZ LANEKO)	ERREGUL. GUZTIRA	IRRE- GULA- RRAK	IRREG. ERATO- RRIAK	GUZT.	K	%
Mendebaleko EB	0,0	98,7	1,3	100,0	0,0	0,0	100	7.403	5,2
Errumania eta ekiald. EB	0,0	97,8	1,7	99,5	0,5	0,0	100	9.549	6,6
Magreb	1,5	86,7	9,9	98,2	1,5	0,3	100	9.040	6,3
Afrika subsahariarra	6,8	66,1	7,2	80,1	13,5	6,4	100	3.474	2,4
Latinoamerika	11,7	65,4	8,0	85,1	14,5	0,5	100	36.816	25,6
Txina	5,1	87,4	7,6	100,0	0,0	0,0	100	2.155	1,5
Gainerakoak	5,7	65,5	4,0	75,2	24,0	0,7	100	5.134	3,6
Emakumeak guztira	6,9	76,3	6,4	89,6	9,8	0,6	100	73.571	51,2
Gizonak guztira	7,1	76,7	6,3	90,1	9,3	0,7	100	70.120	48,8
Atzerriko biztanleria	7,0	76,4	6,4	89,8	9,5	0,6	100	143.691	100

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Hori dela eta, datuak zehaztasun handiagoz aztertzeko, zenbait gauza aipatu behar ditugu. Lehenik eta behin, erregularitasun-tasei dagokienez, atzerriko gizonen eta emakumeen artean ez dago alde nabarmenik. Bigarrenik, egoera guztiz arautua duten etorkinak eta espainiar herritartasuna eskuratu dutenak daude hobekien lekukotuta; hala nola, Latinoamerikako herrialde hauetako etorkinak: Argentina, Txile, Uruguai, Kolonia, Ekuador eta Peru; eta Afrikako etorkinak.

Hirugarrenik, herritartasun-tasa baxuena duten herrialdeetako etorkinak lekukotu dira gutxien; esate baterako, Boliviakoak (% 10,4) eta Paraguaikoak (% 3,0). Horretaz gainera, ehunekoei erreparatuta, nabarmentzekoa da, batetik, herrialde horietako etorkinen ehuneko handi bat egoitza-baimenaren lehenengo fasean dagoela, eta bestetik, beste herrialdeetako etorkinek baino bigarren berritze edo behin betiko baimen gutxiago dituztela herrialde horietako etorkinek. Guztira, Paraguaiko etorkinen erregularitasun-tasa % 62,8 da, eta Boliviako etorkinena, % 87,7; Latinoamerikako gainerako herrialdeetako etorkinen erregularitasun-tasa % 78,6 da. Amaitzeko, herrialde hauetako etorkinen irregularitasun-tasa batez bestekoa baino handiagoa da: Paraguai (% 37,4), Latinoamerikako herrialde igorle

⁴Urtero urtarrilaren 1ean erroldan dagoen biztanle kopurua eta aurreko urteko abenduaren 31n egoitza-baimena duten biztanleen kopurua alderatzen baditugu, ziur asko, legezko egoeran dauden pertsonen kopurua AEI 2010 inkestan agertzen den kopurua baino txikiagoa izango da: biztanleen % 80-85 egongo da legezko egoeran. Edonola ere, kasu gehienetan, igarotako denboraren baitan dago legezkoetza. 2009an eta 2010ean aurreko urteetan baino etorkin gutxiago etorri zirenez, ziur asko, legezko egoeran dauden etorkinen kopurua ekonomia-krisiaren aurreko urteetan baino gehiago ari da hazten.

berriak eta Latinoamerikako beste herrialde batzuk. Gerora sortutako legez kanpoko egoerak batez ere Saharaz hegoaldeko emakume etorkinei eragiten die.

IKASKETA-MAILA

4.1.2

Ikasketa-mailari dagokionez, erroldak ez du behar adina informazio ematen, eta horretaz gainera, ez dago behar bezala eguneratuta. Edonola ere, egoitza-baimenik ez duten Europar Batasunetik kanpoko pertsonak bi urtetik behin berriro erroldatu behar dute, eta horrek egoera hobetu du pixka bat. Horiek horrela direla, komeni da AEI 2010 inkestara jotzea.

Inketa horren datuen arabera (ikus 7. taula), atzerritarren % 37,9k lehen mailako ikasketak egin ditu, % 40,4k, bigarren mailako ikasketak edo baliokideak eta % 21,7k hirugarren mailako ikasketak egin ditu edo egiten ari da. Errepara diezaiegun 16 urte eta gehiago dituzten atzerritarren ikasketa-mailari eta sexuari: emakumeen ikasketa-maila handixeagoa da gizonena baino. Emakumeek gizonak baino hirugarren mailako eta bigarren mailako ikasketa gehiago dituzte, eta lehen mailako ikasketa gutxiago (hirugarren mailako ikasketen kasuan, gizonak baino hiru puntu gehiago, eta lehen mailako ikasketen kasuan, ia lau puntu gutxiago). Atzerritar guztiak kontuan hartzen baditugu, gizonen eta emakumeen datuen artean ez dago alde nabarmenik, bai, ordea, datuak herrialdez herrialde aztertzen baditugu.

4.7. TAULA Atzerriko biztanleria: sexuaren, ikasketa-mailaren eta jatorri-eremuaren arabera

	GIZONEZKOAK				EMAKUMEZKOAK				GUZTIRA						
	1. MAILAKOAK ARTE	2. MAILAKOAK / LANBIDE HEZ. I	LANBIDE HEZ. II /	3. MAILAKOAK	GUZTIRA	1. MAILAKOAK ARTE	2. MAILAKOAK / LANBIDE HEZ. I	LANBIDE HEZ. II /	3. MAILAKOAK	GUZTIRA	1. MAILAKOAK ARTE	2. MAILAKOAK / LANBIDE HEZ. I	LANBIDE HEZ. II /	3. MAILAKOAK	GUZTIRA
Mendebaldeko EB	42,3	32,1	25,6	100	41,6	19,2	39,2	100	42,0	26,6	31,4	100			
Errumania eta ekiald. EB	37,3	46,3	16,5	100	36,6	39,7	23,7	100	36,9	42,7	20,5	100			
Magreb	47,8	37,2	14,9	100	56,2	31,2	12,5	100	51,3	34,7	13,9	100			
Argentina, Txile eta Uruguai	29,2	41,5	29,3	100	30,1	40,4	29,4	100	29,7	40,9	29,4	100			
Kolonia, Ekuador eta Peru	38,2	44,8	17,0	100	31,9	54,7	13,4	100	34,7	50,3	15,0	100			
Bolivia	37,7	49,5	12,9	100	33,6	51,6	14,7	100	35,3	50,8	13,9	100			
Paraguai	27,3	54,0	18,7	100	26,3	52,1	21,5	100	26,7	52,8	20,5	100			
Brasil, Venezuela eta Dominikar Err.	35,6	51,4	12,9	100	29,7	50,4	20,0	100	31,7	50,7	17,6	100			
Gainerako Latinoamerika	26,7	32,8	40,4	100	20,7	50,3	28,9	100	22,4	45,6	32,1	100			
Txina	46,4	40,2	13,5	100	49,5	45,5	5,1	100	47,9	42,7	9,5	100			
Senegal	68,1	19,8	12,1	100	54,9	38,8	6,3	100	66,0	22,7	11,2	100			
Gainerako Afrika	47,0	31,4	21,6	100	39,7	41,6	18,7	100	43,8	35,9	20,3	100			
Gainerako guztiak	33,0	27,6	39,4	100	19,7	22,2	58,1	100	26,2	24,9	48,9	100			
Guztira	40,8	39,1	20,1	100	35,2	41,6	23,2	100	37,9	40,4	21,7	100			

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Mendebaldeko Europar Batasuneko pertsonen artean, emakumeek goi-mailako ikasketa gehiago egin dituzte gizonek baino. Hori bera gertatzen da Boliviako eta Paraguaiako etorkinen artean. Aldiz, Argentinako, Kolonbiako, Brasilgo, Txinako eta Senegaleko etorkinen artean, gizonek goi-mailako ikasketa gehiago egin dituzte emakumeek baino. Bestalde, Mendebaldeko Europako emakume etorkin askok dute ikasketa-maila baxuena. Halaber, ikasketa-maila hori duten Senegaleko emakumeen kopurua zinez da deigarria (% 54,9); are deigarriagoa da Magrebeko emakumeen kasua; izan ere, emakume askok dute ikasketa-maila baxuena (% 56,2).

Kopuruak hain handiak izan ez arren, aipatzekoak dira lehen mailako ikasketak soilik egin dituzten Saharaz hegoaldeko emakumeen kopurua (% 41,6) eta Txinako emakumeen kopurua (% 49,5). Egoera horri herrialde batzuetako etorkinek (Afrikakoek, esate baterako) lanmerkatuan sartzeko dituzten zailtasun objektiboak gehitzen badizkiogu, zaurgarritasun- eta bazterkeria-egoera pairatzeko arriskuan egon daitezkeen taldeak ikusiko ditugu. Horren kontrara, Txinako emakume etorkinek, gizartearekin, familiarekin eta sorlekuarekin lotutako sareak direla eta, ez dute halako arriskurik; izan ere, komunitate-sareek ematen duten lansegurtasunak eta bizi segurtasunak indargabetu egiten dute gizarte-bazterkeria objektiboa. Beste kontu bat da zer kontrol sozial dakarren berekin segurtasun horrek.

Oro har, Europako, Argentinako eta Latinoamerikako herrialde igorle berrietako (Paraguaiako eta Boliviako) emakume etorkinek dute ikasketa-maila handiena.

LAN-EGOERA

4.1.3

Orain artekoak laneratzeari buruzko datuekin osatuko ditugu. Horretarako, emakume etorkinen jarduera- eta lan-egoerari buruzko datu batzuk erabiliko ditugu. 4.8. taulan, atzerritarren lan-egoera jaso dugu, sexuaren arabera banatuta. Taula lan-tasa altuenetik baxuenera dago antolatuta, eta ikus dezakegunez, hainbat eredu daude.

Lehenik eta behin, berriki lekukotu diren emakume etorkinen eredia: Paraguaiako, Txinako eta gainerako Latinoamerikako herrialdeetako (esate baterako, Nikaraguako) emakume etorkinena, hain zuzen ere. Eredu horretan, immigrazioa hertsiki lotuta dago helburu honekin: emakumeak lan arloan sartzea. Paraguaiako emakumeen % 67,9, Txinako emakumeen % 55,9 eta Latinoamerikako herrialde igorle berrietako emakumeen % 69,9 lanean dago. Horretaz gainera, jatorri bereko gizon etorkinen egoerari erreparatzen badiogu, bi gauza ikusiko ditugu: batetik, *txinatarren salbuespenezko egoera*: jatorri horretako etorkinen jarduera- eta lan-tasa altu-altuak, alegia; eta bestetik, Latinoamerikako emakumeek EAEko lan-egituran duten eginkizun estrategikoa areagotuko duen immigrazio-eredua. Paraguaiako eta Nikaraguako emakume etorkinei dagokienez, gizonen eta emakumeen jarduera-tasen arteko aldeak immigrazioa jatorrizko herrialdean bertan espezializatzen dela adierazten du, gizarte hartzailearen premien arabera. Bi kasu horietan, emakumeen jarduera-tasa gizonena halako bi da ia.

Bigarrenik, EAEra urte batzuk lehenago etorri ziren herrialdeetako etorkinen eredia; Boliviako, Argentinako eta Kolonbiako etorkinena, hain zuzen. Kasu horietan, emakumeen jarduera-tasa handiagoa da gizonena baino. Hala gertatzen da Boliviako eta Argentinako etorkinen artean; ez, ordea Kolonbiako etorkinen artean. Kolonbiako etorkinen kasua oso adierazgarria da; izan ere, lehenengo immigrazioa aipagarria da etorkin kopuruari eta EAEra iritsi zireneko datari dagokionez.

4.8. TAULA Atzerriko etorkinen lan-egoera, jatorriaren eta sexuaren arabera

	GIZONEZKOAK				EMAKUMEZKOAK				ATZERRIKO BIZT.			
	OKUPATUA	BALIZKO LANGABEA	INAKTIBOA	GUZTIRA	OKUPATUA	BALIZKO LANGABEA	INAKTIBOA	GUZTIRA	OKUPATUA	BALIZKO LANGABEA	INAKTIBOA	GUZTIRA
Mendebaldeko EB	57,6	25,1	17,3	100	31,3	17,8	50,9	100	46,4	22,0	31,6	100
Errumania eta ekiald. EB	52,4	22,8	24,8	100	40,4	18,0	41,6	100	45,9	20,2	33,9	100
Magreb	29,5	35,8	34,7	100	13,3	14,9	71,9	100	22,8	27,1	50,1	100
Argentina, Txile eta Uruguai	43,7	17,5	38,8	100	51,0	3,9	45,1	100	47,5	10,4	42,1	100
Kolonbia, Ekuador eta Peru	47,7	20,3	32,0	100	51,7	10,9	37,3	100	49,9	15,1	35,0	100
Bolivia	40,1	22,0	37,9	100	54,3	12,7	33,0	100	48,4	16,5	35,0	100
Paraguai	45,5	25,1	29,4	100	67,9	12,7	19,3	100	59,1	17,6	23,3	100
Brasil, Venezuela eta Dominikar Err.	32,0	19,2	48,7	100	42,3	23,9	33,8	100	38,6	22,2	39,3	100
Gainerako Latinoamerika	43,1	42,0	14,9	100	69,9	8,8	21,3	100	62,7	17,8	19,5	100
Txina	66,3	5,0	28,7	100	55,9	2,1	42,0	100	61,4	3,6	34,9	100
Senegal	39,0	41,7	19,3	100	27,1	27,9	44,9	100	36,8	39,1	24,1	100
Gainerako Afrika	26,5	33,4	40,1	100	13,0	42,7	44,3	100	20,9	37,3	41,8	100
Gainerako guztiak	43,0	25,2	31,9	100	39,2	12,2	48,6	100	41,1	18,9	40,0	100
Guztira	43,3	26,2	30,5	100	42,4	15,2	42,4	100	42,9	20,6	36,6	100

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Hori bera esan dezakegu Ekuadorreko eta Peruko etorkinei buruz. Kolonbiako etorkinei dagokienez, gizonen jarduera-tasa emakumeena baino altuxeagoa da, eta jarduera ezaren tasa baxuxeagoa. Kolonbiako etorkinek jardueraren arloan dinamika jakin bat ezarri zuten, eta baliteke Latinoamerikako herrialdeetatik gerora etorritako etorkinek dinamika horri eutsi izana. Kolonbiako etorkinen immigrazioa adierazgarria izan zen: lekukotu eta berrelkartaritze- eta ugaltze-prozesu nabarmenak sortu zituen. Horren ondorioz, gero eta pertsona gehiago daude ez aktibo, lana dutenen kalterako. Ziur asko, zenbat eta hobea izan administrazio-, ekonomia- eta bizitza-egoera, hainbat eta handiagoa da etorkin-taldearen jarduera ezaren tasa. Horregatik, gerta daiteke beste herrialde batzuetako etorkinak, lekukotu ahala, Kolonbiako etorkinek irekitako bideetatik igarotzea.

Hirugarrenik, hiru eredu ditugu: bat, lanari dagokionez tradizional samarrak diren immigrazio-ereduak; bi, batez ere gizonetako emigranteak dituzten herrialdeen egoerak; eta hiru, kulturaren araberrako eredu. Europako immigrazioek lehenengo ereduari jarraitzen diote. Afrikako immigrazioek, berriz, bigarren ereduari. Lehenengo ereduari, gizonen jarduera-tasa handiagoa da emakumeena baino, eta emakumeen jarduerarik ezaren tasa handiagoa gizonena baino. Bigarren ereduari, oro har, langabezia-tasa handiagoa da jarduera-tasa edo jarduerarik ezaren tasa baino. Esate baterako, Magrebeko emakumeek dute jarduerarik ezaren tasa handiena (% 71,9). Horrek azaltzen du laneratzeko dituzten zailtasunak. Dena den, Magrebeko emakumeen kasuan, familia-egitura tradizionalak eragin handia du.

Jarduera-sektoreei dagokienez (ikus 9. taula), lanean dauden etorkin gehienek zerbitzuen sektorean egiten dute lan (% 73,7); hurrena, eraikuntzaren sektorean (% 14,7); gero, industriaren sektorean (% 8,9); eta azkenik, nekazaritzan (% 2,7). Horiek horrela, lehenik eta behin, argi dago alde handia dagoela sexuen artean. Zerbitzuen sektorean emakume etorkinen % 97,2k egiten du lan eta gizon etorkinen % 49,6k.

Emakume etorkinek batez ere sektore horretan egiten dutenez lan, gainerako sektoreek ez dute hainbesteko pisurik. Bada salbuespenik, noski, baina lanean ari diren emakume etorkin ia guztiek, edozein herrialdetakoak direla ere, sektore horretan egiten dute lan. Senegaleko emakume etorkinak dira salbuespen: zerbitzuen sektorean ez ezik, industriaren sektorearen ere lan egiten dute, bai eta nekazaritzaren sektorean ere, hein txikiagoan bada ere. Gaingiroki ikusita, herrialde guztietako hamar etorkinetik bederatzik zerbitzuen sektorean egiten dute lan. Dena den, gauza jakina da jarduera-sektore hori oso zabala dela.

4.9. TAULA Atzerriko etorkinen jarduera-sektorea, sexuaren arabera

	GIZONEZKOAK					EMAKUMEZKOAK				
	A.	I.	E.	Z.	G.	A.	I.	E.	Z.	G.
Mendebaleko EB	3,9	16,2	34,0	45,9	100	0,0	0,0	0,0	100,0	100
Rumania eta Ekialdeko EB	7,8	18,8	45,1	28,3	100	0,0	1,3	1,0	97,7	100
Magreb	8,9	25,0	24,8	41,3	100	0,0	2,9	0,0	97,1	100
Argentina, Txile eta Uruguai	0,0	7,0	15,3	77,7	100	0,0	10,6	0,0	89,4	100
Kolonbia, Ekuador eta Peru	4,1	11,0	36,9	48,0	100	0,0	1,9	0,0	98,1	100
Bolivia	4,2	16,1	35,5	44,2	100	0,0	0,0	0,0	100,0	100
Paraguai	0,0	3,4	43,9	52,7	100	0,0	0,0	1,9	98,1	100
Brasil, Venezuela eta Dominikar Errep.	0,0	5,2	27,7	67,1	100	0,0	3,4	0,7	95,9	100
Gainerako Latinoamerika	0,0	10,4	25,8	63,8	100	0,0	7,0	0,0	93,0	100
China	0,0	0,0	1,4	98,6	100	0,0	0,0	0,0	100,0	100
Senegal	26,0	30,4	13,3	30,4	100	7,4	43,8	0,0	48,8	100
Gainerako Afrika	14,6	43,7	4,3	37,3	100	0,0	0,0	0,0	100,0	100
Gainerakoak	3,7	8,2	17,4	70,6	100	0,0	0,0	0,0	100,0	100
Atzerriko biztanleria	5,5	15,5	29,4	49,6	100	0,0	2,4	0,3	97,2	100

	GUZTIRA					
	A.	I.	E.	Z.	G.	
Mendebaleko EB		2,8	11,6	24,2	61,5	100
Rumania eta Ekialdeko EB		4,1	10,4	23,9	61,6	100
Magreb		6,7	19,7	18,8	54,8	100
Argentina, Txile eta Uruguai		0,0	9,0	6,7	84,3	100
Kolonbia, Ekuador eta Peru		1,7	5,7	15,6	76,9	100
Bolivia		1,4	5,5	12,1	81,0	100
Paraguai		0,0	1,0	14,7	84,3	100
Brasil, Venezuela eta Dominikar Errep.		0,0	3,9	8,9	87,2	100
Gainerako Latinoamerika		0,0	7,6	4,8	87,6	100
Txina		0,0	0,0	0,8	99,2	100
Senegal		23,4	32,2	11,4	32,9	100
Gainerako Afrika		10,9	32,5	3,2	53,5	100
Gainerakoak		2,0	4,4	9,4	84,2	100
Atzerriko biztanleria		2,7	8,9	14,7	73,7	100

A.: *Agrikultura*, I.: *Industria*, E.: *Eraikuntza*, Z.: *Zerbitzuak*, G.: *Guztira*
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Errepara diezaiozun lanean ari diren atzerriko etorkinen lan edo jarduera motari (ikus 4.10. taula). Gehienak (% 52) lan kualifikatueta edo erdi kualifikatueta aritzen dira, eta % 34,2 ez-kualifikatueta. Beste muturrean, % 13,8 da zuzendaria, teknikaria edo administraria. Etorkinek, oro har, lan kualifikatu gutxi samar dituzte, eta emakumeek, are gutxiago; izan ere, gizonek baino zuzendaritza-postu gutxiago betetzen dituzte (% 11,9), batez bestekoa baino lan kualifikatu gutxiago dute (% 43) eta lan ez-kualifikatu gehiago (% 45).

Horretaz gainera, Mendebaleko Europako, Txinako, Argentinako eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetako etorkinek ez bezala, gainerako herrialdeetako etorkinek kualifikazio txikia dute. Nabarmena da, halaber, Latinoamerikako herrialdeetako zenbat emakume etorkinek dituzten erdi kualifikatutako edo ez-kualifikatutako lanak (Argentinako, Txileko eta Uruguaiako emakume etorkinak salbu). Azken herrialde igorleei dagokienez –hots, Bolivia eta Paraguai–, % 64,5 eta % 71,5 da hurrenez hurren kualifikaziorik ez duten emakume etorkinen ehuneko.

4.10. TAULA Lanean ari diren atzerriko etorkinak, lanbidearen/jardueraren, jatorriaren eta sexuaren arabera

	GIZONEZKOAK				EMAKUMEZKOAK				GUZTIRA			
	DIREKT.,TEKNIKOAK ETA ENPLEGATUAK	KUALIFIK.	EZ KUALIF.	GUZTIRA	DIREKT.,TEKNIKOAK ETA ENPLEGATUAK	KUALIFIK.	EZ KUALIF.	GUZTIRA	DIREKT.,TEKNIKOAK ETA ENPLEGATUAK	KUALIFIK.	EZ KUALIF.	GUZTIRA
Mendebaleko EB	37,3	47,5	15,2	100	48,6	21,7	29,7	100	40,5	40,1	19,4	100
Rumania eta Ekialdeko EB	3,3	73,5	23,3	100	12,7	42,8	44,5	100	7,8	58,8	33,4	100
Magreb	9,6	64,1	26,3	100	4,0	68,9	27,1	100	8,2	65,3	26,5	100
Argentina, Txile eta Uruguai	9,5	74,0	16,4	100	21,4	49,9	28,7	100	16,2	60,5	23,3	100
Kolonia, Ekuador eta Peru	7,0	64,9	28,1	100	4,4	47,6	47,9	100	5,5	54,9	39,5	100
Bolivia	3,1	69,4	27,5	100	5,0	30,6	64,5	100	4,3	43,8	51,9	100
Paraguai	1,0	63,6	35,4	100	1,9	26,7	71,5	100	1,6	37,9	60,5	100
Brasil, Venezuela eta Dom. Errep.	10,6	72,3	17,1	100	7,6	44,3	48,1	100	8,5	52,9	38,6	100
Gainerako Latinoamerika	10,4	49,3	40,4	100	13,3	47,4	39,3	100	12,7	47,8	39,5	100
Txina	33,2	64,6	2,2	100	32,3	67,7	0,0	100	32,8	65,9	1,2	100
Senegal	3,7	44,6	51,7	100	0,0	34,0	66,0	100	3,2	43,1	53,7	100
Gainerako Afrika	4,1	62,9	33,0	100	0,0	100,0	0,0	100	3,0	72,5	24,5	100
Gainerakoak	36,1	49,8	14,1	100	9,5	41,4	49,1	100	23,8	45,9	30,3	100
Atzerriko biztanleria	15,8	61,2	23,0	100	11,9	43,0	45,0	100	13,8	52,0	34,2	100

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Azkenik, errepara diezaiegun EAEko emakume etorkinek ikasketak direla-eta dituzten gain-kualifikazio-tasei (ikus 11. taula). Hamar etorkinetik zazpi duten lana bat dator jasotako prestakuntzarekin, lautik batek prestakuntza baino beheragoko lana du eta gutxi batzuek (% 3,4) prestakuntza baino goragoko lana dute. Emakumeek gizonen baino gainkualifikazio handiagoa dute: hamarretik hiruk prestakuntza baino beheragoko lana dute. Egoera hori are larriagoa da Errumaniako eta oro har Latinoamerikako herrialdeetako etorkinen kasuan.

Afrikako emakume etorkinek (hamarretik zortzik) eta batez ere Txinako emakume etorkinek (hamarretik bederatzik baino gehiagok) dute egokitzapen handiena prestakuntzaren eta lanaren artean.

4.11. TAULA Lanean ari diren atzerriko etorkinak: lanpostuaren eta prestakuntza- ren arteko egokitzapena, jatorriaren eta sexuaren arabera

	GIZONEZKOAK				EMAKUMEZKOAK				GUZTIRA			
	BAI	AZPITIK	GAINETIK	GUZTIRA	BAI	AZPITIK	GAINETIK	GUZTIRA	BAI	AZPITIK	GAINETIK	GUZTIRA
Mendebaleko EB	82,0	7,3	10,8	100	64,3	25,2	10,5	100	75,6	13,8	10,7	100
Rumania eta Ekialdeko EB	75,5	20,9	3,6	100	60,1	38,5	1,4	100	67,3	30,2	2,5	100
Magreb	72,5	20,7	6,7	100	76,4	19,3	4,3	100	73,3	20,4	6,3	100
Argentina, Txile eta Uruguai	39,8	56,0	4,2	100	72,2	26,0	1,8	100	59,5	37,7	2,8	100
Kolonbia, Ekuador eta Peru	72,6	25,5	1,9	100	67,2	32,4	0,4	100	69,8	29,1	1,1	100
Bolivia	58,3	41,7	0,0	100	71,1	28,3	0,5	100	66,5	33,2	0,3	100
Paraguai	66,0	34,0	0,0	100	65,4	34,6	0,0	100	65,6	34,4	0,0	100
Brasil, Venezuela eta Dom Errep.	67,2	30,1	2,7	100	57,6	42,4	0,0	100	60,0	39,4	0,7	100
Gainerako Latinoamerika	69,5	30,5	0,0	100	47,5	48,5	4,0	100	54,8	42,5	2,7	100
Txina	95,6	4,4	0,0	100	92,5	7,5	0,0	100	94,2	5,8	0,0	100
Senegal	69,7	26,7	3,6	100	68,3	31,7	0,0	100	69,5	27,3	3,2	100
Gainerako Afrika	81,3	18,7	0,0	100	79,6	20,4	0,0	100	80,5	19,5	0,0	100
Gainerakoak	81,7	15,7	2,7	100	74,5	25,5	0,0	100	78,1	20,5	1,4	100
Atzerriko biztanleria	74,1	21,7	4,3	100	65,9	32,1	2,0	100	70,0	26,8	3,2	100

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

LABURPENA

4.1.4

Amaitzeko, erroldan zuzenean edo zeharka jaso ohi diren alderdien deskribapen labur hori laburbildu nahi dugu, eta horretarako, hausnarketa bat egin nahi dugu EAEn lekukotutako etorkinek, batez ere emakumeek, laneratzeko eta gizarteratzeko dituzten aukerei buruz. Hasierako orrialde hauetan ikusi dugunez, immigrazio-fluxua uste baino arautuagoa dago gizartean, eta herrialde hartzailearen premiak eta herrialde igorlearen eskaintza zehaztasun handiz egokitzen dira. Horrek azaltzen du zergatik dagoen euskal gizartea –inplizituki bada ere– Latinoamerikako etorkinen alde eta zergatik diren gero eta gehiago emakumeak herrialde horietatik datozen etorkinak. Hori gorabehera, Afrikako emakume etorkinek, hainbat arrazoi direla medio, arrisku handia dute ez aurrera ez atzera gelditzeko eta baztertuak izateko. Ondorengo orrialdeetan, gai horri eutsiko diogu, eta datuak aztertuz, EAEko emakume etorkinen tipologia zehaztuko dugu.


EMAKUME ETORKINEK EAEKO EKONOMIAN DUTEN ERAGINA

Joaquín Arriola

4.2

Eustaten arabera, 1991 eta 2009 artean 155.000 atzerritar etorri ziren EAera bizitzera; horietatik, 77.000 emakumeak dira. XXI. mendearen hasieran, etorkin gehiago hasi ziren etortzen atzerritik. Joera horrek gora egin zuen 2007ra arte, eta gero, krisialdia dela eta, behera (ikus 4.5. grafikoa).

4.5. GRAFIKOA Atzerritarren kanpo-migrazioen saldo garbia



Iturria: Eustat eta egileek egina

BAIren (Biztanle Aktiboen Inkesta) datuak berriagoak dira (2011ko lehenengo hiruhilekoak). Datu horien arabera, EAEn 109.000 atzerritar aktibo daude, eta horietatik, % 55 emakumea da⁵. Emakume etorkinen jarduera-tasa gizon etorkinena bezain altua da (16 urtetik gorako etorkin aktiboak kontuan hartuta), eta bertako gizonen eta emakumeen jarduera-tasa baino askoz altuagoa (ikus 4.12. taula).

Hortaz, ekonomiaren dinamikarekin lotutako fenomeno berri bat dakusagu. Dinamika horrek asko aldatu ditu demografiaren eta biztanleriaren ereduak. Emakumeek pisu handia dute eredu horietan.

⁵Bi oinarritzko datu-iturri erabiltzen da: Euskal gobernuak 2010ean "Atzerriko biztanleriari buruzko datu orokorrak: aspektu orokorrak eta identifikaziorako oinarritzko datuak" txostena (AEI) eta Espainiako Estatistika Institutuak argitaratzen dituen BAIko datuak. Esatekoa da iturriok ez datozela bat EAEn legokeen atzerriko emakumeen kopuruan. EINren arabera, 2010ean, hiruhileroko batazbestean, 62.675 atzerriko emakume zegoen. 2010ko AEI txostenaren arabera, 73.541 atzerriko emakume zeuden. Azken kopuru hau Eustat-ek bere Migrazio Mugimenduen Estatistika Txostenean aipatzen duen 76.888 emakume atzerritarren zenbakitik hurbilago dago.

4.12. TAULA Biztanleria, herritartasunaren arabera, eta lan-egoera.
2011ko 3. hiruhilekoa (milakotan)

	BIZTAN- LERIA	BIZT. > 16 URTE	AKTIBOA	OKUPA- TUA	AKTIBITA TETASA (%)	ENPLEGU TASA (%)	OKUPA- ZIO TASA (%)	LANGA- BEZI TASA (%)
Espainiarra	2.007	1.717	984	876	57	51	89	11
Atzerritarra	109	101	77	55	76	55	72	28
Emakume espainiarrak	1.027	887	453	400	51	45	88	12
Emakume atzerritarrak	61	53	40	30	75	55	74	26

Iturria: BAI (EIN)

Ez da erraza emakume etorkinek ekonomian zer eragin izan duten jakitea; izan ere, zaila da datu banakatuak lortzea eta kontuan hartu behar da hainbat lotura daudela emakume etorkinen ekoizpen-jardueren eta kontsumoaren artean eta gizartean eta eremu pribatuan egiten duten lanaren artean.

Migrazio-prozesu berriek eragina dute soldatapeko biztanleen sektorekako banaketan eta denbora kudeatzeko moduan, batez ere arlo hauetan: ahalmen-urritasuna dutenen arreta, kontsumo-ereduak, garraioa, zerga-sistema (diru-sarrerak eta gastuak), etxebizitza eskaria eta azpiegiturak eraikitzeke plangintzak. Batzuetan, prozesu horiek arlo horietan guztietan eragiten dituzte kontraesanak eta anibalentziak.

Lehenik eta behin, atzerriko emakume etorkinek EAEn duten eragin ekonomikoaren faktore nagusiak aztertuko ditugu, baina datuak banakatu gabe. Zehazki, gai hauek aztertuko ditugu:

- Zer eragin duten emakume etorkinek demografian.
- Zer balio erantsi sortzen duten emakume etorkinek.
- Zer ekarpen egiten dioten biztanleen ongizate orokorrari.
- Zer eragin duten zerga-sisteman.
- Zer eragin duten giza kapitalari dagokionez.

**ATZERRIKO
IMMIGRAZIOA
LAGUNGARRIA DA
BIZTANLERIAREN
ZAHARTZEA
BERDINTZEKO**

4.2.1

XX. mendearen amaieran, 2000. urtean, espainiar herritartasuna zuten 1.962.000 pertsona zeuden EAEn. 1.482.000 pertsona lan egiteko adinean zeuden, eta gainerako 498.000 pertsonak gazteegiak (291.000) edo zaharregiak (207.000) ziren lan egiteko.

Hamar urte geroago, espainiar herritartasuna duten 1.340.000 pertsona soilik daude lan egiteko adinean. 15 urtetik beherako 284.000 mendeko pertsona daude, eta 415.000 adindu, XX. mendearen amaieran baino bi aldiz gehiago.

4.13. TAULA EAEko biztanleria, herritartasunaren eta adinaren arabera. Guztizkoak eta ehunekoak

2000	GUZTIRA	0-15 URTE	16-44 URTE	45-64 URTE	65 URTE ETA +
Espainiarra	1.962.008	290.687	958.197	510.796	206.976
Atzerritarra	21.140	2.426	13.918	3.493	1.303
Guztira	1.983.148	293.113	972.115	514.289	208.279
2010					
Espainiarra	2.038.970	283.572	754.161	586.040	415.197
Atzerritarra	139.369	21.047	96.430	19.433	2.459
Guztira	2.178.339	304.619	850.591	605.473	417.656
2000					
Espainiarra	98,9	14,7	48,3	25,8	10,4
Atzerritarra	1,1	0,1	0,7	0,2	0,1
Guztira	100	14,8	49	25,9	10,5
2010					
Espainiarra	93,6	13	34,6	26,9	19,1
Atzerritarra	6,4	1	4,4	0,9	0,1
Guztira	100	14	39	27,8	19,2

Iturria: EIN, udal erroldaren berrikuspena

Besteen mende dauden pertsonen kopuruak gora egin du, eta lan egiteko adinean dauden biztanleen kopuruak, berriz, behera. Bilakaera demografiko horrek zaildu egingo zukeen ekonomiaren kudeaketa –inoiz ez bezalako gainbehera soziala eta ekonomikoa ekarriko zukeen–, baldin eta euskal gizartean 118.000 atzerritar sartu izan ez balira. Atzerritarren % 83 lan egiteko adinean daude.

Batez ere langile andana horrek dinamizatu du euskal ekonomia azken hamarkadan. Haiei esker kudeatu ahal izan dira emakume asko eta asko lan-merkatuan sartzeak eta biztanleriaren zahartzeak –oso arazo larriak eragin ditu biztanleriaren zahartzeak– ekarritako egitura-aldaketa handiak.

Emakume etorkinen laguntza ezinbestekoa izan da bi prozesu horiei aurre egiteko.

ATZERRIKO EMAKUME ETORKINEK BALIO ERANTSIA SORTZEN DUTE

4.2.2

EAEEn, atzerritarren immigrazioak funtsean lanarekin du zerikusia. Penintsulako beste zonalde batzuetan ez bezala, hemen bizi diren atzerritar pasiboen kopurua ez da batere handia.


Horrek esan nahi du emakume etorkinek lan egin egiten dutela, legezko ekonomian edo klandestinoan, eta, langile diren aldetik, aberastasuna eta errenta sortzen dutela EAEEn.

Halaber, zergak ordaintzen dituzte: zerga zuzenak, baldin eta haien lana legezkoa bada; edo zeharkako zergak, kontsumo-jardueren bitartez.

AEI 2010 inkestaren datuen arabera, EAEn atzerriko 39.061 emakumek egiten dute lan, eta 14.112 langabezian daude.

Horrek esan nahi du EAEn bizi diren hamar emakume etorkinetik zazpik lan egiten dutela. Tasa horrek emakumeen egoera orokorrek kontrastatzen du. BAIk 2001eko lehenengo hiruhilekoan konputatzen dituen 1.088.000 emakumetik 700.000 emakumek lan egiteko adina zuten, eta horietatik 492.800 emakume soilik zeuden aktibo lan-merkatuan; hau da, EAEn, hamar emakumetik lauk soilik egiten du lan, eta hogeitik bat bakarrik ari da lan bila.

4.6. GRAFIKOA EAEko emakumeak, lan-egoeraren eta herritartasunaren arabera




EIN: Biztanleria Aktiboaren Inkesta, 2011ko 3. hiruhilekoa

Halaber, kontuan hartu behar dira datu hauek: nahiz eta 24.222 emakumek beren burua "ez-aktibotzat" jo, 8.969 emakumek diote "ez dutela lan egin nahi" eta 59.253 emakumek diote EAEn lan egiten dutela edo noizbait lan egin dutela; hau da, 2010ean langabezian egon zitezkeen edo lanean zeuden emakumeen kopurua baino 6.079 emakume gehiagok diote EAEn lan egiten dutela edo noizbait lan egin dutela.

Atzerriko emakume etorkinak EAEko emakumeen % 6 dira, eta emakume etorkin langileen % 8 (aktibo, lanean edo langabezian daudela aitortzen duten emakumeak soilik kontuan hartuta).

Atzerriko 52.569 emakumek diru-sarreraren bat jaso zuten; 26.003 emakumek, ordea, ez. Lana da diru-iturri nagusia, balioaren eta emakume kopuruaren aldetik.

4.7. GRAFIKOA Atzerriko emakumeak eta diru-sarrerak: zenbatek jasotzen dituzten eta zer-nolako diru-sarrerak diren



Iturria: AEI 2010

4.14. TAULA Diru-sarrerak jasotzen dituzten atzerriko emakumeen kopurua eta diru-sarrera motak

	BAI	EZ	LANA EDO ERRENTAK	BESTERIK
	52.569	26.003	37.262	15.307
Biztanleria atzeritarren %	%50	%58	%50	%51

Iturria: AEI 2010

Emakume etorkin langileen erdiek laneko diru-sarrerak jasotzen dituzte, eta herenak diru-sarrerak jasotzen ditu langabezia egoteagatik. Diru-sarrerarik jasotzen ez duten etorkinen artean, gizon baino emakume gehixeago daude (% 58). Halaber, emakume etorkinak gehiago dira diru-sarrerak bermatzeko errenta, doako pentsioa (DP) (% 64) eta Ahalmen Urrikoak Gizarteratzeko Legean ezarritako laguntza (LISMI) (% 80) jasotzen duten pertsonen artean.

4.15. TAULA EAEn bizi diren atzeritarren diru-sarrera mota nagusiak

	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA	EMAKUMEZKOAK/GUZTIRA
Lana edo errentak	37.263	74.872	49,8
Langabeak	3.543	10.824	32,7
Jubilazio edo alarguntasun pentsioa	1.177	1.822	64,6
Inutilitate pentsioa	367	942	39,0
PNC, LISMI edo antzekorik	324	403	80,4
Alimentu pentsioa	204	430	47,4
RGI	9.219	14.354	64,2
Beste gizarte laguntzarik	472	1.196	39,5
Diru sarrerarik gabe	26.004	44.642	58,3
Guztira	78.573	149.485	52,6

Iturria: AEI 2010

AEI 2010 inkestaren datuen arabera, 37.262 emakume etorkinen hileko soldataren batura 33.825.780 euro da, eta urteko soldataren batura, 405.909.359 euro.

la 406 milioi euroko lan-errenta horri lanean daudela eta gizarte-segurantzari kotizatzen diotela aitortzen duten emakume etorkinen (% 79) gizarte-kotizazioa erantsiz gero, 549,3 milioi

euro dira guztira: 2010ean EAeko soldatapeko langile guztiek batera eskuratutako ordainsariaren % 1,2, hain zuzen ere. Hortaz, esan dezakegu langile etorkinek euskal ekonomian sortzen den errentaren % 1,7 sortzen dutela gutxienez.⁶

Espainiako Eskualde Kontabilitatearen arabera, EAeko BPG 66.900 milioi euro izan zen 2010. urtean. Horrek esan nahi du emakume etorkin langileek sortzen duten balio ekonomikoa 1.120,7 bat milioi euro dela.

4.16. TAULA Atzerriko emakumeen diru-sarrerak, iturriaren eta xedearen arabera (€ eta atzerritarren diru-sarreraren gutzizkoaren %)

	URTEKO DIRU SARRERAK	ETXEKO GAS-TUETARAKO	GASTUAK EDO AURREZTEKO	JATORRIZKO FAMILIARAKO
Lan edo errenta diru sarrerak	405.909.359	332.173.524	32.181.360	38.159.400
Beste diru sarrerak	142.331.771	133.640.148	4.435.740	4.255.872
Guztira	548.241.131	465.813.672	36.617.100	42.415.272
Lan edo errenta diru sarrerak	42,0%	41,0%	40,0%	55,0%
Beste diru sarrerak	52,0%	52,0%	52,0%	54,0%
Guztira	44,0%	43,0%	41,0%	55,0%

Iturria: AEI 2010

Halaber, AEI 2010 inkestaren datuen arabera, emakume etorkinen soldataz kanpoko diru-sarreraren batura 11.860.981 euro da; hau da, urtean, 142.331.771 euro. Horrenbestez, EAeko emakume etorkinek jasotzen dituzten 4 eurotik 3 laneko diru-sarrerak dira.

Datuek agerian uzten dute, halaber, emakumeek gizonen baino lanaz kanpoko diru-sarreraren premia handiagoa dutela eta diru-sarreraren ehuneko handiago bat erabiltzen dutela sorterriko familiei laguntzeko.

EMAKUME ETORKINEK ZERGAK ORDAINTZEN DITUZTE ETA, EGITEN DUTEN EKARPENA KONTUTAN HARTUTA, GIZARTE-ZERBITZU GUTXI ERABILTZEN DUTE

4.2.3

Emakume etorkin langile gehienek lan-egoera arautua dute. AEI 2010 inkestaren datuek erakusten dutenez, 39.062 emakume etorkin daude lanean; horietatik, 30.969 emakumek (% 79) gizarte-segurantzari kotizatzen diote.

⁶Espainiako Eskualde Kontabilitateak 2010. urteko BPGaren lehenengo kalkuluak aurkeztu ditu azken edizioan –2011n izango da eskuragarri–, bai eta 2009. urteko soldatapeko langileen ordainsariaren (SLO) kalkuluaren aurrerapen bat ere. 2000. urte-tik eta 2009. urtera arte SLOk batez beste zer pisu izan duen kalkulatu dugu, 2010. urteko BPGan izan dezakeen pisuaren lehen kalkulua egiteko. Hortaz, kalkuluen arabera, 2010. urtean, soldatapeko langileen ordainsaria 32.788.489.143 euro da.

Gutxiago dira laneko diru-sarreraren bat edo errentak jasotzen dituztela aitortzen duten emakumeak (37.263), lanean daudela aitortzen duten emakumeak baino. Laneko diru-sarreraren bat edo errentak jasotzen dituztela aitortzen dutenen aldean, % 83k kotizatzen du. Azken batez, lanean dauden emakumeak edo laneko diru-sarrerak jasotzen dituztela aitortzen duten emakumeak kontuan hartzen baditugu, lan egiten duten hamar emakume etorkinetik zortzik lan-jarduera aratuak egiten dituztela ondorioztatuko dugu inkesta horretatik.⁷

4.17. TAULA Atzerriko emakumeen lan-egoera

Okupatuak	39.062
<i>Gizarte Asegurantzaren kotizatzen</i>	30.969
<i>Gizarte Asegurantzaren kotizatu gabe</i>	8.094
Balitzko langabeak	14.112
Inaktiboak	24.222
Lan edo errenten diru sarrerak jasotzen dituzte	37.263
Desenplegu diru sarrerak jasotzen dituzte	3.543

Iturria: AEI 2010

Zergei dagokienez, emakume etorkin langileek hiru modutara laguntzen dute gastu publiko finantzatzeko:

- Laneko diru-sarreraren eta errenten bidez eskuratutako 406 milioi euroek 143,4 milioi euroko gizarte-kotizazioa dakarte⁸.
- PFEZari dagokionez, 28,6 bat milioi euro biltzen dira emakume etorkin langileen lan-errentetatik⁹.
- Emakume etorkinek 502 milioi euroko kontsumoa egiten dute. Kalkuluen arabera, beraz, BEZaren zerga 45,2 milioi euro izan daiteke¹⁰.

Laburbilduz, emakume etorkin langileen ekoizpen- eta kontsumo-jarduera ekonomikoak bide ematen du zergatan 217,2 milioi euro baino gehiago biltzeko.

EAEko emakume etorkinen bizkar bildutako zergen gutxi gorabeherako zenbateko hori 1,5 aldiz handiagoa da emakume etorkinek lanaz kanpo eskuratzen dituzten diru-sarreraren gutzitiko zenbatekoa baino. Lanaz kanpoko diru-sarrerak, batez ere, gizarte-laguntzak eta langabeentzako laguntzak dira, eta AEI 2010 inkestaren arabera, 142,3 milioi euro dira.

⁷Mikrodatuak xehe-xehe aztertu ez ditugun arren, badirudi AEI 2010en taula orokorretako datuak ez datozela guztiz bat. 39.062 emakumek diote lanbide bat dutela eta lanean daudela, baina 37.262k soilik diote laneko diru-sarrerak edo errentak dituztela. 3.543k diote langabetuentzako diru-laguntza jasotzen dutela. Beraz, guztira 40.806 emakume aktibo daude. Bestalde, beren burua ez-aktibotzat jotzen duten 1.125 emakumek diote inkesta baino urtebete lehenago 6 hilabetez edo gehiagoz lan egin dutela.


⁸Kalkulu hori egiteko, kontuan hartu dugu, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 26/2009 Legearen arabera, kontingentzia komunaren kotizazioa % 28,30 dela. Ildo beretik, kontratu mugagabearen langabezia-kontingentzia % 7,05 da; lanaldi osoko kontratu mugatuaren langabezia-kontingentzia, % 8,30, eta lanaldi erdikoena, % 9,3 (lanean igarotako denbora guztia kontuan hartuta); Soldatak Bermatzeko Funtsaren kotizazioa, % 0,20; eta lanbide-heziketaren kotizazioa, % 0,70. Zifra horien batura 0,79rekin biderkatu dugu legez kanpoko enplegua kanpo uzteko; izan ere, ez du kotizatzen.

⁹Kalkulu hori egiteko, atzerriko emakume langileek 2007. urteko PFEZ aitortzearen aitortutako batez besteko kuota likidoa (10.893 euro) biderkatu dugu BPGek 2007. urtetik 2010. urtera izan duen hazkuntza tasarekin eta errentak jasotzen dituzten emakumeen kopuruarekin.

¹⁰Kalkulu hori egiteko, gastuaren (aurrezkiak barne) herena etxean kontsumitzen dela jo dugu, BEZ tasa oso murriztua duten produktuetan, tasa murriztua duten produktuetan eta 2010eko uztailetik indarrean den tasa normala duten produktuetan (produktuen herena): $0,3 \times (0,04 + 0,08 + 0,18) \times (\text{Gastua})$.

Bien arteko aldea handia da, eta, beraz, esan dezakegu emakume etorkinak EAEko Ogasunaren zergadun garbiak direla.

4.8. GRAFIKOA 2010. urtean, atzerriko emakumeek EAEn izan duten eragin ekonomikoa eta monetarioa (milioika €)



Iturriak: AEI 2010 (soldatak), EEK (BPG), Eustat (oinarri likidagarriak PFEZ) eta egileek egina

**EMAKUME
ETORKINEK
BIZTANLERIAREN
BIZI KALITATEA
HOBETZEN DUTE**

4.2.4

Atzerriko langileak sektore jakin batzuetan lan egitera etorri dira. Edozein motatako lanetan aritzen diren arren, etorkin gehienak lau sektoretan aritzen dira: eraikuntzan, merkataritzan, ostalaritzan eta etxeko zerbitzuan.

Eraikuntzaren sektorean, batez ere gizonezkoek egiten dute lan; etxeko zerbitzuan, berriz, emakumezkoek. Ostalaritzan eta merkataritzan, gizonezkoak eta emakumezkoak aritzen dira. Hortaz, duela gutxitik EAEn bizi dugun egoera ekonomikoarekin lotutako bi lan-nitxotan egiten dute lan emakume etorkin gehienek:

- Hamar emakume etorkinetik lauk etxeko zerbitzuan egiten dute lan.


Etxeko zerbitzuan gero eta emakume etorkin gehiagok egiten dute lan, eta hori argi eta garbi dago lotuta azken hamarkadan, Europar Batasunak ezarritako ildoari jarraiki, emakumeak lan-merkatuan sarrarazteko egindako ahaleginarekin.

4.18. TAULA Lanean ari diren atzerritarren kopurua, jarduera-sektorearen arabera

	GIZONAK	%	EMAKUMEAK	%
Agrikultura	1.141	3,0	0	0,0
Arrantza	679	1,8	12	0,0
Alimentazioaren industria	611	1,6	179	0,5
Papergintzaren industria	150	0,4	21	0,1
Industria petrokimikoa	114	0,3	0	0,0
Kautxuaren industria	382	1,0	31	0,1
Industriako beste zenbait	235	0,6	92	0,2
Metalurgia	1.595	4,2	26	0,1
Makinaria	1.841	4,9	24	0,1
Mat. Elektrikoa	298	0,8	88	0,2
Garraiorako materiala	410	1,1	254	0,7
Eskulan zenbait	1.404	3,7	415	1,1
Energia	116	0,3	0	0,0
Eraikuntza	10.736	28,3	198	0,5
Komertzioa	4.460	11,8	4.572	11,7
Hosteleria	4.364	11,5	8.562	21,9
Garraioa-Komunikazioa	2.507	6,6	178	0,5
Inst. finantziariak	0	0,0	46	0,1
Entrepresetako zerbitzuak	1.962	5,2	3.217	8,2
Administrazio Publikoa	321	0,8	152	0,4
Hezkuntza	949	2,5	1.345	3,4
Osasuna-Zerbitzu publikoak	946	2,5	3.241	8,3
Beste zerbitzu komertzialak	1.526	4,0	1.185	3,0
Etxeko lanak	1.193	3,1	15.175	38,8
Erakunde estraterritorialak	0	0,0	28	0,1
Zehaztugabea	0	0,0	21	0,1
Guztira	37.940	100	39.062	100

Iturria: AEI 2010

4.9. GRAFIKOA EAE: lanean ari diren emakumeen ehunekoa (16-64 urte) eta etxeko langileak dituzten familien kopurua



Iturria: Eustat


Emakume etorkinak familietan sartu dira, sukaldari- edo garbitzaile-lanak egiteko, edo haurrak edo mendeko adineko pertsonak zaintzeko. Emakume etorkinek egiten duten soldatapeko etxeko lanari esker, euskal emakume askok lan-merkatuan aritzeko astia dute.

- Hamar emakume etorkinetik 3,5ek merkataritzan eta ostalaritzan egiten dute lan.

Sektore horietan aritzen da lan egiten duten bost euskal biztanletik bat, eta lan egiten duten lau emakumetik bat. Bi sektore horiek langile asko behar izaten dituzte, eta soldatak baxu samarrak izan ohi dira. EAEn langile eskasia zegoenean, etorkin andana handi bati iritsi zen, eta haiei esker –batez ere, emakume etorkinei esker–, sektore horiek zabaldu egin ziren.

Emakume etorkinek sektore horietan egiten duten lanari esker, jardueren zabalkunde-eritmoari eutsi ahal izan diogu, eta lehiakortasunak gora egin du; izan ere, langile gehiago daude, eta horrek soldataren presioa jaitsi du bi sektore horietan.

4.10. GRAFIKOA Atzerriko emakume langileen lanbidea, jarduera-sektorearen arabera



Iturria: AEI 2010

ATZERRIKO EMAKUME ETORKINEI ESKER, GIZA KAPITAL GEHIAGO DAGO EAEN

4.2.5

EAEko hiru emakume etorkinetik bik erdi- edo goi-mailako prestakuntza dute: 18.656 emakume (emakume guztien % 24) LH 2ren baliokideak diren ikasketak edo maila gorenekoak egiten ari dira edo eginda dituzte. 32.349 emakumek (% 41) bigarren mailako ikasketak dituzte, edo LH 1en baliokidea den lanbide-prestakuntza.

14.009 emakume etorkinek (% 18) aitortu dute ikasketaren bat egiten ari direla.

Horrenbestez, lan-indar hori prest dago gero eta malguagoa eta balioaniztunagoa den sistema ekonomikoan sartzeko. AEI 2010 inkestaren arabera, lan egiten duten 18.421 emaku-

me etorkinek aitortu dute une jakin batean EAeko lan-merkatuan lan egin dutela, eta adierazi dute izan dituzten lanpostuak beren prestakuntza-mailaren azpitik daudela.

Hau da: EAEn emakume etorkin langileen herena gai da oraingo edo iraganeko lanpostuen bidez sortzen dutena baino balio erantsi handiagoa sortzeko.

ONDORIOAK

4.2.6

Hein handi batean, lan-jarduerarekin lotutako arrazoiak direla-eta daude etorkinak EAEn. Hamar emakume etorkinetik zazpi egiten dute lan. EAeko emakume guztiak kontuan hartuz gero, hamarretik lauk baino ez dute lan egiten.

Atzerritik etorritako langile andana handia izan da azken hamarkadan EAeko jarduera ekonomikoa dinamizatu duen faktore nagusia. Zehazki, EAera lanera etorri diren emakume etorkinei esker kudeatu ahal izan dira emakume asko eta asko lan-merkatuan sartzeak eta biztanleriaren zahartzeak –oso arazo larriak eragin ditu biztanleriaren zahartzeak– ekarritako egitura-aldaketa handiak.

Emakume etorkin langileek EAEn sortzen den aberastasun ekonomikoaren % 1,2 sortzen dute. Aberastasun horrek gora egin zuen 2010. urtean, eta lehenengo kalkuluen arabera, 828,2 milioi euro izan zen. Zenbateko horretatik, emakume etorkin langileek 205,9 milioi euro jaso zituzten soldaten edo errenten bidez.

EAeko emakume etorkinek jasotzen dituzten 4 eurotik 3 laneko diru-sarrerak dira. Diru-sarrerera horiek zerga-ekarpenak dituzte: 2010ean, 105,3 milioi euro bildu ziren gizarte-kotizazioen bidez, eta 28,6 milioi euro, errentaren gaineko zergaren bidez.

Kalkuluen arabera, emakume etorkinen kontsumo-jarduerak, BEZa dela eta, 2010ean 45,2 milioi euroko zerga-sarrerak sortu zituzten, eta haien zerga-ekarpena 224,1 milioi euro izan zen. Lanaz kanpoko errenten bidez –esate baterako, gizarte-laguntzen eta langabeentzako laguntzen bidez– 142,3 milioi euro eskuratu zituzten 2010ean. Hortaz, zerga-ekarpena askoz handiagoa da lanaz kanpoko diru-sarreraren zenbatekoa baino.

Emakume etorkin langileek batez ere etxeko zerbitzuan, merkataritzan eta ostalaritzan egiten dute lan. Haien lanak EAeko emakumeen laneratzea erraztu du. 1998an EAeko emakumeen % 38,7k egiten zuen lan; 2010ean, berriz, % 58,7k. Horretaz gainera, haiei esker, langile asko behar dituzten zerbitzuen hazkunderari eta lehiakortasunari eutsi ahal izan diogu.

EAeko hiru emakume etorkinetik bik erdi- edo goi-mailako prestakuntza dute, eta EAEn emakume etorkin langileen herena gai da oraingo edo iraganeko lanpostuen bidez sortzen dutena baino balio erantsi handiagoa sortzeko.

Atzerritik etorritako langile andana handia izan da azken hamarkadan EAeko jarduera ekonomikoa dinamizatu duen faktore nagusia. Zehazki, EAera lanera etorri diren emakume etorkinei esker kudeatu ahal izan dira emakume asko eta asko lan-merkatuan sartzeak eta biztanleriaren zahartzeak –oso arazo larriak eragin ditu biztanleriaren zahartzeak– ekarritako egitura-aldaketa handiak. EAEn azken hamarkadan gertatutako immigrazio-prozesua ez da Espainian gertatutakoa bezain jendetsua. Edonola ere, Espainiara baino etorkin gehiago etortzen dira EAera lan-jarduerarekin lotutako arrazoiak direla-eta.

Emakume etorkin gehienak lanarekin lotutako arrazoiak direla-eta etortzen dira EAera. Hamar emakume etorkinetik zazpi egiten dute lan. EAeko emakume guztiak kontuan hartuz gero, hamarretik lauk baino ez dute lan egiten. Emakume etorkin langileek batez ere etxeko zerbitzuan, merkataritzan eta ostalaritzan egiten dute lan. Haien lanak EAeko emakumeen laneratzea erraztu du. 1998an EAeko emakumeen % 38,7k egiten zuen lan; 2010ean, berriz, % 58,7k. Horretaz gainera, haiei esker, langile asko behar dituzten zerbitzuen hazkundeari eta lehiakortasunari eutsi ahal izan diogu.

Emakume etorkinek, langileak eta kontsumitzaileak diren aldetik, eragina dute ekonomia-
ren egoeran.

Emakume etorkin langileek EAEn sortzen den aberastasun ekonomikoaren % 1,2 sortzen dute. Aberastasun horrek gora egin zuen 2010. urtean, eta lehenengo kalkuluen arabera, 828,2 milioi euro izan zen. Zenbateko horretatik, emakume etorkin langileek 205,9 milioi euro jaso zituzten soldaten edo errenten bidez. EAeko emakume etorkinek jasotzen dituzten 4 eurotik 3 laneko diru-sarrerak dira.

Kalkuluen arabera, emakume etorkinen kontsumo-jarduerek, BEZa dela eta, 2010ean 45,2 milioi euroko zerga-sarrerak sortu zituzten.

Emakume etorkinek aberastasuna sortzen dute, eta merkatuaren eskariari erantzuten diote, eta horrek guztiak eragina du zergetan, noski. Emakume etorkinen diru-sarrerak sortzen dituzten zerga-ekarpenei dagokienez, 2010ean, 105,3 milioi euro bildu ziren gizartekotizazioen bidez, eta 28,6 milioi euro, errentaren gaineko zergaren bidez. Kalkuluen arabera, EAeko emakume etorkinen zerga-ekarpena 224,1 milioi euro izan zen. Lanaz kanpoko errenten bidez –esate baterako, gizarte-laguntzen eta langabeentzako laguntzen bidez– 142,3 milioi euro eskuratu zituzten 2010ean. Hortaz, zerga-ekarpena askoz handiagoa da lanaz kanpoko diru-sarrearen zenbatekoa baino.

Hiru emakume etorkinetik bik erdi- edo goi-mailako prestakuntza dute, eta EAEn emakume etorkin langileen herena gai da oraingo edo iraganeko lanpostuen bidez sortzen dutena baino balio erantsi handiagoa sortzeko.

EAEKO EMAKUME ETORKINAK: LAN ARLOA

Silvia Carrizo

4.3

Mundu osoan, emigranteak gero eta gehiago dira emakumeak. Familiako eginkizunek mugak gaintzen dituzte eta nazioz haraindiko familia-harremanak sortzen dira. Horren ondorioz, beste ikuspuntu baten arabera antolatu behar dira komunitateetako bititza eta familiak.

Genero-desberdintasuna dela eta, gizonak eta emakumeak ez dute berdin bizi migrazioaren esperientzia. Migratzeko erabakiak, migratzeko erabiltzen diren sareak eta herrialde hartzailean laneratzeko prozesuak ez dute eragin bera gizonengan eta emakumeengan. Emakumeen migrazioa handitzea estrategia bat da, bai eta erantzun bat ere: familien iraupenerako estrategia bat eta informaltasunean oinarritutako ekonomia duten herrialdeek krisialdiari ematen dioten erantzun bat, hain zuzen ere. Herrialde horietan, gizonak ez dute beren gain hartzen familiako erantzukizunik, eta horren ondorioz, emakume askok bakarrik mantendu behar izaten dute familia. Gizarte hartzailean, "agindutako paradisuak" hainbat aurpegi izango ditu, emakumeak zer egoeratan sartzen diren. Migrazio-proiektuaren alderdi positiboak dira oinarrizko eskubideak izateko aukera (esate baterako, osasun-zerbitzuak), seme-alabentzako hezkuntza eta lan ordaindua izatea, dirua irabaztea eta aukeratu ahal izatea. Bestalde, beste gizarte bati aurre egiteak bultzatu egingo ditu emakumeak beren identitateari eta estatus sozialari buruz hausnartzera.

Krisiak gertatzen direnean, migrazio-mugimenduek abaila hartzen dute; izan ere, Cristina Reynak dionez, "Europako krisi ekonomikoak berariaz eragin die emakumeei. Ekonomia indartsuen luxu bat da aniztasuna. Argudio hori dela eta, Europako emakume asko etxera itzuli dira eta bazter utzi dituzte etxeko lanetan aritzen ziren emakume etorkinak. Horren ondorioz, emakume etorkinek ez dute diru-sarrerarik. Eskariak behera egiten duenez, prezioek ere behera egiten dute, eta horren erruz, lan bera soldata txikiagoaren truk egiten da. Batzuek Europako beste herrialde batzuetara joatea erabakitzen dute, han egoera hobea delakoan, eta erabaki horrek beste migrazio-prozesu bat ekarriko du"¹¹. Hori dela bide, emakumeek berriro ekiten diote bidaiari eta berriro bizitzen dute prozesu osoa, bai eta prozesu horrek dakartzan galerak eta estutasuna ere.

EAEKO MIGRAZIOAREN BILAKAERA. EMAKUMEEN MIGRAZIOA: GOGOETA OROKORRAK

4.3.1

XXI. mendearen hasieran EAEn izandako immigrazioa ez da izan Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetakoa bezain jendetsua; ehunekotan emanda, Estatuko batez bestekoa baino aski baxuagoa da. Guztira, 179.582¹² atzerritar bizi dira EAEn; hau da, EAEko biztanle-

¹¹*Feminización de las migraciones*. Cristina Reyna (2010)

ria osoaren % 8,2. Estatuan, aldiz, biztanleria osoaren % 12,2 da atzerritarra. Alde horretatik, zera aipatu behar da: EAEn dauden etorkinen ehunekoa Estatuko etorkinen batez besteko ehunekoa baino baxuagoa izan arren, migrazio-fluxuak ez dio hazteari utzi azken urtean. Etorkin gehienak Latinoamerikako herrialdeetakoak dira; etorkin guztien % 46,9. Talde horretatik, % 29,2 herrialde hauetakoa da: Kolonbia, Ekuador, Peru, Bolivia eta Paraguai. % 8 Brasilekoa, Venezuelakoa eta Dominikar Errepublikakoa da, eta % 4,5, Argentinakoa, Txilekoa eta Uruguakoa. Gainerako % 5,2 Latinoamerikako gainerako herrialde batzuetakoa da. Etorkinen % 22,3 Europar Batasuneko (EB) herrialderen batekoa da. % 11,9 Mendebaldeko EBko herrialdeetakoak da, eta % 10,4, Errumaniakoa eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetakoa. Bestalde, etorkinen % 21,7 Afrikakoa da. Aipagarria da % 15,2 Magrebeko herrialdeetakoak dela. % 1,8 Senegalekoa da, eta % 4,7, Afrikako gainerako herrialdeetakoak¹³.

Sexu-banaketari dagokionez, gizonezkoen kopurua eta emakumezkoena antzekoak dira. Dena den, gutxiagatik bada ere, emakumeak gehiago dira: aipatutako inkestaren arabera, % 51,6. Latinoamerikako etorkinen artean dira emakumeak gehiago, hain zuen ere. Gainerako herrialdeetako etorkinen artean, % 55 baino gehiago da gizonezkoa. EAeko etorkinak, Estatuko gainerako etorkinak bezala, gazteak dira: % 47k 25 urtetik 44 urtera bitarteko adina du; % 34 25 urtetik beherakoa da. Adinak ezaugarri nabarmen bat jartzen du agerian: etorkinak langile-klasekoak dira, eta bizitzako garai emankorrean daude. Gizarte hartzaileek, ordea, askotan ez dute hori balio nabarmen eta positibotzat aintzatesten, balioesten eta onartzen.

Etorkinen ezaugarri batzuei buruzko zertzelada batzuk eman ondoren, emakume etorkinengan jarriko dugu arreta. Bat nator Sara Cuentas ikerlariaren definizioarekin: "emakumeen migrazioaren ezaugarri bereizgarrietako bat da munduko ekonomiaren esparruan etengabe erreproduzitzen eta erabiltzen diren genero-desberdintasunetan oinarritzen dela. Emakume etorkin langile gehienek "emakumeen lanak" egiten dituzte; hau da, haurtzainak, etxeko langileak edo sexu-langileak dira. Lan-nitxo desatseginenak dituzte, ordainsariari, legebabesari, gizarte-aintzatespenari eta lan-baldintzei dagokienez. Hala, generoa da herrialde hartzaileetan lan-merkatua antolatzen duen printzipioa; indarrean diren genero-ereduak, emakumeak baztertzen dituztenak, erreproduzitu eta indartu egiten dira. Dena den, kontua ez da lan horiek emakumeek egitea soilik, baizik eta klase, jatorri edo/eta herritartasun jakin bateko emakumeek egitea. Hala, genero-desberdintasunari beste zapalkuntza mota batzuk gehitzen zaizkio, errazagoa izan dadin emakume etorkinak ekonomikoki esplotatzea eta mirabe (etxeko langile) izatera eta gizarteak mespretxatzen dituen lanak (sexu-langileak) egitera behartzea."

"Emakumea izatea, etorkina izatea, nortasun etniko jakin bat izatea eta etxeko langilea izatea: lau bereizkeria mota horiei egin behar diete aurre, hain zuzen ere, Espainiara aukera bila datozen emakume gehienek. Emakume izateak ia eskusiboki mugatzen ditu etxeko langile izatera eta pertsonak zaintzera"¹⁴.

Emakume etorkinek gizarte hartzaileetan aurkitzen duten predeterminismo sozialari, hots, haien gaitasun profesionalak, ikasketak eta trebetasunak ukatzen dituen predeterminismo sozialari, atzerritartasun-legeen murrizketak eta ekitate eza gehitu behar zaizkio. Horrek are gehiago zailtzen du, oro har, etorkinen eta, batez ere, emakumeen garapen pertsonala, laneko garapena eta parte-hartzea. Estatuak garatutako immigrazio-politikek erraztu egin

¹²Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailak egindako AEI 2010 inkestaren datuen arabera.

¹³Euskal gizartean bizi diren atzerriko emakume etorkinei buruzko azterlan-proiektua. Xabier Aierdi eta José A. Oleaga (2011ko uztaila)

¹⁴Mujeres transnacionales Actoras del Cambio Social. Sara Cuentas Ramirez y Patricia Vera. *Diáspora Solidaria* (2010)

die enplegu-emaileei langile etorkinak esplotatzea eta abusatzea. Hala, milaka eta milaka emakume behartzen dituzte irregulartasuna, prekarietatea eta ikusezintasuna pairatzera. Gaur egun, 14.632 pertsona daude egoera horretan; horietatik, erdiak baino gehiago (% 52,6) emakumeak dira. Administrazio-egoerari (arautua/arautu gabea) dagokionez, egoitza-egoera arautzeak (besteak beste, lanerako eskubidea izateko), herritartzeak edo ikasketak eta lanbideak homologatzeak ez du zuzenean hobetzen enplegu-kalitatea eta mota, ez eta egoitza-baimena edo herritartasuna izanda ere. Entzute aitortua duten ikerketen arabera, etxeko enplegua da emakume etorkin langileen lan-nitxo nagusia, eta gero, ostalaritza eta merkataritza-zerbitzuak.

EMAKUME ETORKIN LANGILEEN LAN-BALDITZAK

4.3.2

Emakume etorkin langileek azken hamarkadan zer-nolako lan-baldintzak izan dituzten aztertzeko, beharrezkoa da 2008. urteko eta ondorengo urteetako ekonomiaren testuinguruari erreparatzea; izan ere, garai hartan jo zuen munduko krisiak Europako ekonomia. Halaber, ezin dugu ahaztu Espainiako ekonomian, bai eta gainerako herrialdeetako ekonomietan ere, langabe kopuruak gora egin zuela izugarri, ekonomia-sektore batzuk guztiz hondoratu zirela, milaka enpresek porrot egin zutela eta gobernuek kezkatzeko moduko zorrak egin dituztela munduko merkatuen eskariak arintzeko. Politika horiek, ekoizpen- eta finantza-oinarria ez ezik, gizarte-ordena ere aldatu zuten poliki-poliki, bai eta pertsonen izaera eta jokabidea ere, desberdintasunaren eta langabeziaren ondorioz. Ildo horretatik, Vicenç Navarro, Juan Torres López, Alberto Garzón Espinosa eta beste ekonomialari batzuek lan-merkatuaren bi ezaugarri aipatu dituzte, espainiar estatuan lanaren kalitatearen berezitasuna zein den azaltzeko, eta hauxe azpimarratu dute: “lan-merkatuan emakume gehiago daude. Horren ondorioz, haien jarduera-tasak gora egin du: 1996an % 45,1 zen; 2006an, aldiz, % 60,2. Dena den, behar adina berdintasunerako politika eta bazterkeriaren aurkako legezko mekanismo abian jarri ez direnez, batez besteko soldatak behera egin du. Halaber, azken urteotan etorkin asko sartu dira, eta hori dela eta, soldatak beren horretan gelditu dira, inoiz baino baxuago. Horren ondorioz, langileek lanaldi luzeagoak egin behar izan dituzte, nahiz eta hori berez produktiboa ez izan. Alde horretatik, 1960an, soldatek (faktoreen kostuari erantsitako) BPGan zuten parte-hartzea % 68 izan zen; 1975ean, parte-hartzea azken 35 urteetako handiena izan zen: % 73,63, hain zuzen ere; 2008an, berriz, parte-hartzeak behera egin zuen: % 60,21 izan zen. ELGAko gainerako herrialdeetan ez bezala, Espainian soldata errealak ez dira hazi azken hamabost urteotan. Soldatek pisua galdu dute, eta horren ondorioz, Europaren barruan, generoen arteko desberdintasun handiena duten herrialdeetako bat da Espainia”¹⁵.

Egoera horrek eta EAEko lan-merkatuak badute elkarren antzik. Emakume etorkinei eta lan arloari buruz hitz egiten hasteko, lehenik eta behin, etxeko zerbitzuaren sektoreari lotuko gataizkio, sektore horretan aritzen baitira emakume etorkin langileak. Hona hemen emakume etorkinek sektore horretan egiten duten lanari buruzko datu adierazgarri batzuk. 2007ko martxoan, EAEko hainbat erakundek bat egin eta zera esan zuten: “etxeko barne-langile etorkinek sektoreko lan-baldintza okerrenak dituzte: % 79k hamar ordu baino gehiago egiten du lan, eta % 21ak, zortzi ordutik hamar ordura artean. 789 € da batez besteko

¹⁵Hay alternativa. Vicenç Navarro, Juan Torres López y Alberto Garzón Espinosa.

soldata. Askotan, janaria eta lo-tokia ematen zaie, soldatetik kenduta. Atsedeen-egunei eta oporrei dagokionez, % 41ari ez dizkiote oporrak ordaintzen, edo ez du oporrik. % 64k ez du atsedetik lanaldien artean, eta bostetik batek ez du egun batez ere atsedeen hartzen”¹⁶.

Sektore horretako lan-baldintzek azken urteetan izan duten bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da langile batzuek bertakotzeagatiko lan-baimena eskuratu eta lan-egoera arautu zutela. 2012tik aurrera, etxeko langileak gizarte-segurantzaren erregimen orokorrean sartuko dira –dena den, muga batzuk izango dituzte–. Horri esker, lehen zuten erregimen bereziaren lan-baldintzak asko hobetuko dira. Hori gorabehera, Etxeko Langileen Bizkaiko Elkarteak (ELE - ATH) gai horren inguruan urtero egiten duen txostenen arabera, etxeko barne-langile etorkinen lan-baldintzak ez dira askorik aldatu: oraindik ere esplotatu egiten dituzte.

Etxeko lana baldintza berezi batzuetan egiten denez, zaila da lan-baldintzak eta -kalitatea ebaluatzea. Arlo horretan, gidaritzat hartzekoa da ELE - AHT elkarteak egiten duen jarraipen-lana; izan ere, egunero-egunero kudeatzen ditu gai horrekin lotutako kasuak. Nahiz eta partziala izan, etxeko langileen egoerari buruzko informazioa ematen digu. Elkarte horrek emandako datuak 2010eko azarotik 2011ko urrira bitarteko aldiari dagozkio. Kudeatutako 241 kasuetatik, “% 87 etorkina zen, eta % 46, barne-langilea. Barne-langile guztiak etorkinak ziren, eta beren eginkizun nagusia mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzea zen”¹⁷.

Lanaldiari dagokionez, etxeko langileen erregimenaren arabera, etxeko langileek jarraian 36 orduko atsedena izateko eskubidea dute. Gehienek, ordea, ez dute halako atsedetik. % 21ak ez zuen atsedeen-egunik izan. Eguneroko atsedeenaldiari dagokionez, % 51ak ez zuen atsedeen-ordurik izan lanaldi osoan. Soldatari dagokionez, inkestaren arabera: langileen “% 50aren soldata (aparteko ordainsariak barne) 951 eurotik 1.200 eurora artekoa da, eta % 30aren soldata, 600 eurotik 950 eurora artekoa”. Inkesta horretan azpimarratzen denez, barne-langileak pertsona adinduak zaintzen aritzen dira, etxeko eginbehar guztiak egiten dituzte eta 15 orduko lanaldiak izaten dituzte¹⁸.

Ikusten dugunez, nahiz eta urteak igaro eta sentsibilizazio-kanpainak egin, lan-baldintzek ez dute nabarmen egin onera, etxeko lana ez da lehen baino gehiago aintzatesten eta gizarteak ez ditu balioesten emakume etorkin langileak. Estratifikazio etnikoa eta desberdintasunak (generoen artekoak, generoaren baitakoak eta klaseen artekoak) dira emakume etorkinentzako lan-merkatuaren ezaugarriak.

Esparru orokorrean, etxeko zerbitzuaren sektoretik kanpo, emakume etorkinen lan-merkatuaren egoera zein den jakiteko, besteak beste, UGT - Huelvak Berdintasunerako eta Gizarte Politikarako idazkaria den Francisco Javier Pérez Barbosaren bidez emandako datuak erabil ditzakegu. Francisco Javierrek hauxe esan zuen emakume etorkinei buruz: “diskriminazio ekonomiko itzela dago; izan ere, bertako emakumeen urteko soldataren batez bestekoa baino % 51,4 gutxiago kobratzen dute. Bertako emakumeek batez besteko urteko soldataren % 14,3 gutxiago kobratzen dute” (*bajomilenguaje.blogspot.com 2010eko uztailaren 17*).

EAEEn, erreferentziatzat darabilgun inkestaren arabera (AEI 2010), lan egiten duten etorkinetatik, emakumeen % 37,3k lan-baldintzekin lotutako arazoren bat duela aitortu du: % 31,3k dio lanaldiarekin, soldatarekin eta kontratuarekin lotutako arazoak dituela; % 4,3k, baztertu

¹⁶*Manos que mueven el mundo*. Asociación Malen Etxea. Silvia Carrizo (2008)

¹⁷http://www.ath-ele.com/doc/estadisticas_2011.pdf

¹⁸Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartearen (ATH-ELE) aholkularitza-zerbitzuen 2011ko urriko estatistika.

egiten dutela etorkina izateagatik; % 4,2k, umiliatua izan dela; % 7,4k, ezin dituela aldi berean seme-alabak zaindu; % 7,7k, legez kanpo lan egiten duela, nagusiak hala erabaki duela; % 6,6k, ez dela asteko atsedendia betetzen; eta % 10,6k, lan bat baino gehiago dituela. Horretaz gainera, % 20,7k ez dio gizarte-segurantzari kotizatzen (gizonen % 8,4k ez dio kotizatzen gizarte-segurantzari). Hitz batez, lan-merkatuaren azken kate-maila dira emakume etorkin langileak.

Jarduerari dagokionez, emakume etorkin langileen % 50,5 lanean dago, % 18,2 langabezian dago eta % 31,3 ez-aktiboa da. Emakume etorkin langileen lan-merkatua haien jatorriaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu hor ere estratifikazio etnikoa dagoela eta emakumeak diskriminatu egiten direla jatorriaren arabera. Lehen esan dugun moduan, emakume etorkin langile gehienek (% 96,5) zerbitzuen sektorean egiten dute lan. Senegaleko emakumeen kasua berezia da: hango emakume etorkin langileen % 43k industrian egiten du lan.

Latinoamerikako (Argentinako, Txileko, Uruguako, Kolonbiako, Peruko, Ekuadorreko, Boliviako eta Paraguako) emakume etorkinek dute jarduera-tasari handienetako bat (% 60 eta % 75 artean). Berez, Txinako emakume etorkinek dute jarduera-tasa handiena, baina asko ez direnez, ez dute Latinoamerikako emakumeek bezainbesteko eragina. Jardueratasaren arabera, gero Brasileko emakume etorkin langileak daude; ondoren, Venezuelakoak, Dominikar Errepublikakoak, Ekialdeko EBkoak (% 47) eta, azkenik, hamar puntu baino beherago, Senegalekoak eta Mendebaldeko EBkoak. Langabeen eta ez-aktiboen tasei dagokionez, aipatzeko da Magrebeko emakumeen egoera (% 62,2 ez-aktiboa da) eta Senegaleko emakumeen egoera (% 38,9 langabezian dago). Mendebaldeko EBko emakume etorkinen % 46,1 ez-aktiboa da. Horrek, baina, zerikusia du etorkin-talde horren ezauzarriekin; besteak beste, adinarekin eta egoera ekonomikoarekin. Lanari dagokionez, emakume etorkin langile gehienek (% 55,2) ez dute kontraturik edo kontratu mugagaberik. Lana aurkitzeko denborari dagokionez, Magrebeko emakumeek (% 46,6) eta Senegalekoek (% 41,2) behar izaten dute denbora gehien (urtebete edo bi urte), eta ondoren, Boliviakoek (% 35,6). Lan-merkatua diskriminatzailea da, eta Magrebeko emakumeek bizi dute egoera okerrera. Kontuan hartu behar da % 70ak gutxi gorabehera ez duela inoiz EAEn lan egin. Hori dela eta, langileek isolamendua, mendekotasuna eta gutxiespena pairatzen dute.

EMAKUME ETORKINEN LAN-EGOERA: KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI BATZUK

4.3.3

Politika publikoak garatzen hasi zirenean, arazo hau jarri zen mahai gainean: emakume etorkinak ez ditugu ikusten, kontuan hartzen eta aintzatesten bertako herritarrekiko dugun berdintasun eta bereizkeria eza berarekin. Erakunde politikoen arabera, hauxe dira "emakume etorkinak": "arazoak sortzen dituen talde bat, bazterketa-egoeran dagoena edo gizartetik baztertua izateko arriskua duena". Gizarte-eragileek sortutako kategoriek definizio hori indartzen dute. Eragile horiek abian jarri zituzten prestakuntza-programen bidez, neurri eskusiboak (edo baztertzailak) eta homogeneouskoak hartu dira –orain arte– etorkin guztientzat. María García Cano Torricok dioenez: "hausnartu eta zalantzan jarri behar da zer lortzen

dugun ekimen horiek abian jartzearekin. Praktikan, ekimen horien bidez –batez ere, emakumeentzat soilik diren ekimenen bidez–, emakume etorkinek ez dute lortzen gizarteratzea edo beste lan-sektore batzuetan sartzea; hots, etxeko zerbitzuaren eta pertsonen zaintza-ren sektoreak ez diren sektoreetan sartzea. Aitzitik, zera esatera ausartzen naiz: ekimen horiek Espainiako lan-merkatuan dagoen lan-segmentazioa (generoa, etnia eta klasea) berregitera garamatzate”¹⁹.

Emakume etorkinak, oro har, langileak dira, eta nahiz eta generoarekin eta klasearekin lotu-tako berriarazko arazoak pairatu (bereizkeria, soldata baxuak, hitzartutako lan-eskubideak ez betetzea), emakume eta herritar diren aldetik, bereizkeria jasaten dute eta baztertuak diren gainerako emakume langileen behar berberak dituzte. Batzuetan, emakume etorkinen kolektiboa uniformetzat hartzen da, “langile funtzionalen multzotzat”. Ez diogu jaramonik egiten banan-banan edo denek batera dituzten premia zehatzei; egoera pertsonalarekin, lege-egoerarekin, jatorriarekin, hizkuntzarekin, kulturarekin eta abarrekin lotutako premiei. Hori dela eta, zera azpimarratu zen: lan arloa aztertzean gogoan hartu behar ditugula emakume etorkinen bizi kalitatean eragina duten zeharkako alderdiak, eta alderdi horiek kontuan hartu behar direla politika publikoak eta gizartean eragina izateko ekimenak egitean.

EMAKUME ETORKINEN LAN- BIZITZAN ERAGINA DUTEN ALDERDIAK

4.3.4

Etxeko langileak. Soldaten gainbehera, lan-baldintzak ezegonkortzea. Lanpostuak galtzea

Emakume etorkinen lana eta EAEko ekonomiaren garapenari egiten dioten ekarpena ia ikuzezinak dira. Ez dugu aitortzen emakume etorkinak gizarte hartzailearen funtsezko oinarriaren euskarri direla (besteak beste, pertsonak zaintzen dituztelako); izan ere, haien lana ez dugu oraindik aintzatesten. Ez dugu aitortzen lan prekarioak eta kaskarrak hartzen dituztela eta lanean baldintza baztertzailak izaten dituztela; hau da, ez dute paperik, gizarte-segurantzarik, lan-baldintza txarrak dituzte, ordu asko lan egin eta gutxi kobratzen dute, eta batzuetan, ez dute oporrik, jaiegunik eta gizarte-onurarik. Halaber, nahiz eta haien egoera prekarioa izan, aintzat hartu behar dugu emakume etorkinek dirua bidaltzen dietela beren familiei eta, hala, hemen egiten duten lanaren bidez jatorrizko herrialdeetako ekonomiaren garapena bultzatzen dutela. Haien lanaren bidez, herrialde hartzailean eta igorlean politika publikoen arloan dagoen hutsunea betetzen da, bai eta, Europan, mendekotasuna duten pertsonen, batez ere pertsona adinduen, zaintzari buruzko politika publikoen arloan lanaren merkatu globalak duen hutsunea ere. Erantzunkidetasun-politiken eta laneko eta familiako bizitza uztartzeko politiken porrotari aurre egiteko bide bat da, hain zuzen ere, haien jardue-ra. Bertako emakumeak behartuta daude lana eta familia uztartzera; ezin dituzte konpondu familia-egituran bere horretan jarraitzen duten genero-desberdintasunak. Hori dela eta, etorkin bat kontratatzen badute, familia barneko tentsioak baretu ditzakete. Bertako gizon-ek, orain arte bezala, ez dute ugalketaren arloko zereginetan parte hartzen. Emakume etorkinek dirua bidaltzen dute sorterrira, eta hala, han dagoen osasun-, hezkuntza- eta etxe-

¹⁹*Manos que mueven el mundo*. Lehen ere aipatu dugu lan hori.

bizitza-politika publikoen gabeziari aurre egiten diote eta senideen premiak betetzen dituzte; hots, seme-alaben, gurasoen, bikotekideen eta neba-arreben premiak betetzen dituzte.

Nahiz eta lana prekarioa izan, emakume etorkinek diote pozik daudela gizarte hartzailean egiten duten lanarekin; izan ere, lan horri esker, beren familiaren oinarritzko premiak betetzen dituzte eta beren komunitatean edo familian inoiz bizi izan ez duten autonomia-maila dute. Horren ildotik, azpimarratu egin behar da krisiaren ondorioz lan prekarioaren merkata aldatu egin zela eta, aldaketa horren ondorioz, bertako emakume pobretuek ekonomia murgildura jo behar izan zutela lan bila. Hori dela eta, bertako etxeko langileek eguneko langileak ziren emakume etorkinen lekua hartu zuten. Bertako langileek barne-langileen postuak hartu ez dituzten arren, merkatu murgilduan eskariaren gorakadaren ondorioz izan den aldaketak, lan prekarietateak eta ziurgabetasunak lan-baldintzak are gehiago ezegonkortzen dituzte, eta soldatak jaisten. Hitz batez, horren erruz, nagusiek lehen baino gehiago esploatzen dituzte, eta estortsio handiagoa egiten diete.

Irregularitasuna, gerora sortutako legez kanpokotasuna: baimenak galtzea kontratua ez izateagatik

Espaniar estatuan eta Europar Batasunean ahalak eta leherrak egiten dituzte immigrazioa kontrolatzeko eta murrizteko. Horretarako, mugak eta gizabanakoak kontrolatzeko migrazio-politikak abiarazten dituzte. Horren lekuko dira Atzerritarrei buruzko Legean etengabe egiten diren aldaketak. Egoera politiko horrek, baina, kontraesana dakar; izan ere, lan-merkatuak bere horretan malgutzen eta ezegonkortzen ari badira ere, etorkin langileei ekonomia arautuaren baitako kontratuak exijitzen zaizkie lan- eta egoitza-baimenak eskuratzeke. Hori dela eta, zaila da paperak lortzea edo berritzea²⁰.

Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak aditzera emandako datuen arabera, 2010eko urrian lehen baino 31.300 kotizatzaile etorkin gutxiago egon ziren. Kotizatzaile guztietatik, 182.774 etxeko langileen erregimenean daude, eta horietatik 8.674 EAekoak dira. Datu bakan hori garrantzitsua da une honetan; izan ere, altei eta bajei esker, badakigu lan-merkatuak nola jokutzen duen eta badakigu gutxi gorabehera zenbat emakumek duten laneko kontratu bat eta zenbat langilek kotizatzen dioten gizarte-segurantzari.

Estatistiken bidez ezin da adierazi zenbat etorkin langilek ordaintzen duten Gizarte Segurantzaren kuotaren % 100 lan- eta egoitza-baimena berritu ahaliko dutela bermatzeko. Ohiko bilakatu den kuota horrek kostu handia eragiten du langileen soldatan; izan ere, (900 euroko soldatatik) 164,40 euro ordaindu behar dituzte lan egiten duten herrialdean gelditu ahal izateko, ez beste ezertarako. Kuota horren bidez, BPGaren hazkundera sustatzen dute. Bestalde, langile multzo handi samar batek ezin du halakorik egin; gerora sortutako legez kanpoko egoeran daude; hau da, lan- eta egoitza-baimena eskuratu duten arren –gehienean, arautu gabeko egoeran hiru urtez bizi ondoren–, ez dute behar adina kotizazio-denbora eta ez dute lan-kontraturik, eta horren ondorioz, ezin dute lan-baimena berritu; izan ere, eskakizun horiek ezinbestekoak dira. Hitz batez, batez beste lau urtez lan egin ondoren, etorri zireneko lege-baldintza berberetan daude.

Alde horretatik, krisiak eraginda, egoerak okerrera egingo duela iragartzen dugu. Partido Popularraren gobernuaren bozeramaleek atzerritartasun-arauak aldatuko dituztela esan zuten. Rafael Hernandok, immigrazio-gaietan alderdiaren parlamentuko bozeramaile denak, komunikabideei azaldu dienez, gobernuaren helburua da erregularizazio masiboak bertan behera uztea eta ahalik eta gehien murriztea, eta horretarako, bertakotzeagatik baimenak

²⁰*Empleo doméstico, género e inmigración*. María Florencia García Paz (2009)

deuseztatzea eta lanarekin loturiko immigrazio-sistema bat ezartzea, etorkinak lanera etor daitezten eta lana amaitzean sorterrira itzul daitezten.

Gerora sortutako legez kanpoko egoeran dauden emakumeak ez ezik, EAEn bizi eta legez kanpoko administrazio-egoeran dauden emakumeak ere kontuan hartu behar dira. Aipatutako inkesta egin zenean, guztira ia 7.600 emakume zeuden egoera horietako batean; gehienak Latinoamerikakoak ziren, eta ehuneko txikiago batean, Senegalekoak. Bestalde, kontuan hartu behar dugu emakume etorkin langile gehiago iritsiko direla eta hemen daudenek lan- eta egoitza-baimenak galduko dituztela; izan ere, horren ondorioz, gero eta gehiago izango dira "paperik gabeko" emakumeak. Krisia eta biztanleriaren sektore horrek duen babes-gabezia direla medio, emakume etorkin langileek prekaritatea, esplotazio eta abusu handiagoa pairatuko dute.

Emakume etorkin gehienak laneko errentatik bizi da. Tamalez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren aldaketek eta garai bateko INEMen eta Lanbiderenategiteak eragin negatiboa izan dezakete emakume etorkin langileengan. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da lehen zilegi zela Lanbiden lan-baimenik gabe izena ematea eta lan-eskaintzetara sarbidea izatea. Orain, ordea, ez dago aukera hori. Horrenbestez, "legez kanpoko" langileek GKEtara eta lagunengana jo behar dute lana bilatzeko. Neurri horiek eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legean ezarritako baldintza gogorrak –izan ere, gogortu egin dituzte– lege-sare baten parte dira; gizakion oinarriko eskubideak murriztea helburu duen lege-sare baten parte. Halaber, autonomia-erkidegoek Estatuaren migrazio-politikaren ildoak sendotzen dituzte neurri eta baldintza horien bidez. Estatuaren migrazio-politika baztertzaila, arbitrarioa eta sexista da, eta herritarren eskubideak kontuan hartu beharrean merkatuaren premiak soilik hartzen ditu kontuan.

Migrazio-prozesua, ahalduntze-prozesu bat den aldetik

Emakume etorkin langile gehienek bost urte baino gehiago daramate EAEn lanean eta bizitzten, eta denboraren joanarekin, aldatu egin dute beren migrazio-prozesuaren iraupena, bai eta helburuak ere. Batzuek bizpahiru urte gelditzea pentsatzen zuten. Dena den, gaur egun, askok denbora gehiago gelditzeko asmoa dute, bai eta betiko gelditzeko asmoa ere; izan ere, emakume etorkin langileentzat migrazioa ahalduntze-prozesu bat da. Sorterrian ahultasun-egoeran bizi izan ondoren, gizarte hartzailean sorterrian baino baldintza eta aukera hobeak aurkitu dituzte.

Migrazio oro migratu duen emakumearen historia biografikoa da. Dena den, emakume askok antzeko ibilbidea egiten dute, batez ere Latinoamerikako emakumeek. Sorterritik kanpo denbora gehiago igarotzeko eta gizarte hartzailean betiko bizitzeko erabakia hartzeko, zenbait urrats egon ohi dira. Lehengo urratsa bidaiatzeko txartela eskuratzea da: "joan, gauzak nola dauden ikusi eta bueltan etorriko naiz"; bigarren urratsa, txartela berritzea: "joan eta erabakiko dut". Prozesu hori abian zela, krisiak sorterriko familien eta komunitateen premiak areagotu ditu, eta gizarte hartzailean izandako laneko arazoak direla eta, migrazioaren iraupena eta helburuak aldatu egin dira. Edonola ere, aldaketa hori ez du ekonomiak soilik eragin, migrazioak abiarazitako ahalduntze-prozesuak ere eragin du. Ahalduntze-prozesuak, gizabanakoarentzat ez ezik, gizartearentzat ere balio handia du. Emakume etorkinen lan-jarduerak birmoldatzeko ildoak ezarri behar ditugu. Emakume etorkinak hurbileko zerbitzuetara eta ugalketaren arloko zerbitzuetara mugatuko ez dituzten trebakuntza- eta prestakuntza-programak abiarazi behar ditugu. Trebakuntza eta prestakuntza jasotzeko aukera izan ezean, emakume etorkin langileek esplotatuak izateko arrisku handia dute –arrisku hori handiagoa da krisi-garaietan–.

Magrebeko eta Afrikako emakumeak

Ezinbestean aipatu beharreko egoera berezia bizi dute Afrikako emakume etorkinek. Afrikako emakumeak Magrebeko eskualdeetan edo Saharaz hegoaldeko herrialdeetan multzokatu ohi dira, edo bestela, herrialdearen arabera. Beste emakume etorkinek baino bazterkeria handiagoa pairatzen dute; beste emakume etorkinek baino jarduera-tasa baxuagoa dute, eta langabezia-tasa handiagoa; eta zirkulu itxietan bizi dira; hori dela eta, aukera gutxi dituzte besteekin harremanak egiteko, garatzeko eta autonomoak izateko. Ipar Afrika astintzen duten prozesu politikoek ziur asko Europarako migrazioa eragingo dute, eta eskualde horietako emakumeak Estatuko eta EBko hiri eta eskualdeetarako joko dute.

Eredu horiek alde zuzenetik oso ongi zehaztuta daude. Halaber, lan-merkatua sexista eta baztertzaila da. Horregatik, ezinbestekoa da migrazio aldatzeko ikuspegi bat proposatzea eta bertako eta kanpoko emakume langileen artean batasun feminista lortzeko bideak bilatzea, gizarte hartzaileek emakume etorkinei ematen dizkien lan-nitxoaren mugak hausteko. Ildo horretatik, Cristina Reynak zera proposatu du: herrialde hartzailean emakume etorkinek langile diren aldetik dituzten eskubideak aitortzea; familia, seme-alabak eta abar atzean utzi eta erbestera joatera bultzatu zituen sistema identifikatzea; isolamendutik ateratzea emakume bakoitza eta emakume diren aldetik ahaldundutzea; sorterrian, emakume antolatutako sustatzea eta haiei laguntza ematen jarraitzea. Emakume horiek komunitateak aldatzen ari dira, gizarte ahaldundu bat lortzeko eta emakumeek gizartean, politikan eta ekonomian erabateko parte-hartzea izan dezaten²¹.

Laburbilduz, lan arloari dagokionez, emakume etorkinek dituzte merkatuko baldintza okerre-
nak. Politika publikoek estigmatizatu eta arazoak dituen kolektibotzat hartzen dituzte; hots, "baztertuta edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan" dagoen kolektibotzat. Ikuspegi hori da, hain zuzen ere, politika publikoek egiten dituzten ekimenen ardatza; ahaztu egiten dute hein handi batean gizartean dagoen bereizkeriak eragiten duela bazterkeria hori. Gizarteak naturalizat hartzen ditu estratifikazio etnikoa, sexuaren araberako lan-banaketa, generoaren baitako desberdintasunak eta klase-desberdintasunak. Emakume etorkin langileen administrazio- eta lege-egoera, prestakuntza eta lanbidea edozein dela ere, eta ikasketen homologazioa edo espainiar hiritartasuna izan edo ez, gizarteak naturalizat hartzen dituen desberdintasun horien erruz, haien lan-baldintzek ez dute hobera egiten, eta balio eta kualifikazio gutxien duten lanak izaten jarraitzen dute etxeko zerbitzuaren, ostalaritzaren eta sexu-zerbitzuen sektoreetan; gizarte hartzaileak eman eta zehaztutako lekuan, hain zuzen ere. Gizartearen oinarriak berdintasuna eta ekitatea izatea eta pertsona guztiek eskubide berak izatea nahi badugu, langile-klasearen harremanak eta tirabirak konpondu behar ditugu.

²¹ *Feminización de las migraciones*. Lehen aipatutako lana.

Migrazioa eta lana aztertu dugu, eta lehenengo datu aipagarria da Euskadiko etorkinak gazteak direla: % 47k 25 urtetik 44 urtera bitarteko adina du; % 34 25 urtetik beherakoa da. Adinak ezaugarri nabarmen bat jartzen du agerian: etorkinak langile-klasekoak dira, eta bizi-tzako garai emankorrean daude. Gizarte hartzaileek, ordea, askotan ez dute hori balio nabarmen eta positibotzat aintzatesten, balioesten eta onartzen.

Sara Cuentas ikerlariak dioenez: "emakumeen migrazioaren ezaugarri bereizgarrietako bat da munduko ekonomiaren esparruan etengabe erreproduzitzen eta erabiltzen diren generodesberdintasunetan oinarritzen dela. Emakume etorkin langile gehienek "emakumeen lanak" egiten dituzte; hau da, haurtzainak, etxeko langileak edo sexu-langileak dira. Lan-nitxo desatseginenak dituzte, ordainsariari, lege-babesari, gizarte-aintzatespenari eta lan-baldintzei dagokienez. Generoa da herrialde hartzaileetan lan-merkatua antolatzen duen printzipioa; indarrean diren genero-ereduak, emakumeak baztertzan dituztenak, erreproduzitzen eta indartzen ditu. Dena den, kontua ez da lan horiek emakumeek egitea soilik, baizik eta klase, jatorri edo/eta herritartasun jakin bateko emakumeek egitea. Hala, generodesberdintasunari beste zapalkuntza mota batzuk gehitzen zaizkio, errazagoa izan dadin emakume etorkinak ekonomikoki esplotatzea eta mirabe (etxeko langile) izatera eta gizarteak mespretxatzen dituen lanak (sexu-langileak) egitera behartzea. Emakumea izatea, etorkina izatea, nortasun etniko jakin bat izatea eta etxeko langilea izatea: lau bereizkeria mota horiei egin behar diete aurre, hain zuzen ere, Espainiara aukera bila datozen emakume gehienek. Emakume izateak ia eskusiboki mugatzen ditu etxeko langile izatera eta pertsonak zaintzera".

Emakume etorkinek gizarte hartzaileetan aurkitzen duten predeterminismo sozialari, hots, haien gaitasun profesionalak, ikasketak eta trebetasunak ukatzen dituen predeterminismo sozialari, atzerriartasun-legeen murrizketak eta ekitate eza gehitu behar zaizkio. Horrek are gehiago zailtzen du, oro har, etorkinen eta, batez ere, emakumeen garapen pertsonala, laneko garapena eta parte-hartzea. Estatuak garatutako immigrazio-politikek erraztu egin die enplegu-emaleei langile etorkinak esplotatzea eta abusatzea. Hala, milaka eta milaka emakume behartzen dituzte irregulartasuna, prekarietatea eta ikusezintasuna pairatzera.

Gaur egun, EAEn 14.632 etorkin bizi dira; horietatik, erdiak baino gehiago (% 52,6) emakumeak dira. Administrazio-egoerari (arautua/arautu gabea) dagokionez, egoitza-egoera arautzeak (besteak beste, lanerako eskubidea izateko), herritartzeak edo ikasketak eta lanbideak homologatzeak ez du zuzenean hobetzen enplegu-kalitatea eta mota, ez eta egoitzabaimena edo herritartasuna izanda ere. Entzute aitortua duten ikerketen arabera, etxeko enplegua da emakume etorkin langileen lan-nitxo nagusia, eta gero, ostalaritza eta merkataritza-zerbitzuak.

ELE - AHT elkarteak 2010ko azarotik 2011ko urrira bitarteko aldiari buruz egindako estatistiken arabera, 241 langiletik, "% 87 atzeritarra da, eta % 46, barne-langileak. Barne-langile guztiak etorkinak ziren, eta beren eginkizun nagusia mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzea zen."

Lanaldiari dagokionez, etxeko langileen erregimenaren arabera, etxeko langileek jarraian 36 orduko atsedena izateko eskubidea dute. Erdiek baino gehiagok, ordea, ez dute halako atsedunik izan. % 21ak ez du izan atseden-egunik. Eguneroko atsedenaldira dagokionez, % 51ak ez du atseden-ordurik izan lanaldi osoan. Soldatari dagokionez, inkestaren arabera: langileen "% 50aren soldata (aparteko ordainsariak barne) 951 eurotik 1.200 eurora artekoa da, eta % 31ren soldata, 600 eurotik 950 eurora artekoa". Halaber, inkesta horretan azpima-

rratzen da barne-langileek pertsona adinduak zaintzen, etxeko eginbehar guztiak egiten eta 15 orduko lanaldiak izaten dituztela.

Ikusten dugunez, nahiz eta urteak igaro eta sentsibilizazio-kanpainak egin, lan-baldintzek ez dute nabarmen egin onera, etxeko lana ez da lehen baino gehiago aintzatesten eta gizarteak ez ditu balioesten lan egiten duten emakume etorkinak. Estratifikazio etnikoa eta desberdintasunak (generoen artekoak, generoaren baitakoak eta klaseen artekoak) dira emakume etorkinentzako lan-merkatuaren ezaugarriak.

EAEEn, erreferentziatzat darabilgun inkestaren arabera (AEI 2010), lan egiten duten etorkinetatik, emakumeen % 37,3k lan-baldintzekin lotutako arazoren bat duela aitortu du: % 31,3k dio lanaldiarekin, soldatarekin eta kontratuarekin lotutako arazoak dituela; % 4,3k, baztertu egiten dutela etorkina izateagatik; % 4,2k, umiliatua izan dela; % 7,4k, ezin dituela aldi berean seme-alabak zaindu; % 7,7k, legez kanpo lan egiten duela, nagusiak hala erabaki duela; % 6,6k, ez dela asteko atsedenaldia betetzen; eta % 10,6k, lan bat baino gehiago dituela. Horretaz gainera, % 20,7k ez dio gizarte-segurantzari kotizatzen (gizonen % 8,4k ez dio gizarte-segurantzari kotizatzen). Hitz batez, lan-merkatuaren azken kate-maila dira emakume etorkin langileak.

Lanari dagokionez, emakume etorkin langileen % 50 lanean dago; % 18, langabezian; eta %31 ez-aktiboa da. Dena den, emakume etorkinen lan-merkatua jatorriaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu estratifikazio etnikoa dagoela eta emakumeak jatorriaren arabera diskriminatzen direla.

Latinoamerikako (Argentinako, Txileko, Uruguaiako, Kolonbiako, Peruko, Ekuadorreko, Boliviako eta Paraguaiako) emakume etorkinek dute jarduera-tasarik handienetako bat (% 60 eta % 75 artean). Berez, Txinako emakume etorkinek dute jarduera-tasa handiena, baina asko ez direnez, ez dute Latinoamerikako emakumeek bezainbesteko eragina. Jarduera-tasaren arabera, gero Brasileko emakume etorkin langileak daude; ondoren, Venezuelakoak, Dominikar Errepublikakoak, Ekialdeko EBkoak (% 47) eta, azkenik, hamar puntu baino beherago, Senegalekoak eta Mendebaldeko EBkoak. Langabeen eta ez-aktiboen tasei dagokionez, aipatzeko da Magrebeko emakumeen egoera (% 62,2 ez-aktiboa da) eta Senegaleko emakumeen egoera (% 38,9 langabezian dago). Mendebaldeko EBko emakume etorkinen % 46,1 ez-aktiboa da. Horrek, baina, zerikusia du etorkin-talde horren ezaugarriekin; besteak beste, adinarekin eta egoera ekonomikoarekin. Lanari dagokionez, emakume etorkin langile gehienek (% 55,2) ez dute kontraturik edo kontratu mugagaberik. Lana aurkitzeko denborari dagokionez, Magrebeko emakumeek (% 46,6) eta Senegalekoek (% 41,2) behar izaten dute denbora gehien (urtebete edo bi urte), eta ondoren, Boliviakoek (% 35,6). Lan-merkatua diskriminatzailea da, eta Magrebeko emakumeek bizi dute egoera okerrean. Kontuan hartu behar da % 70ak gutxi gorabehera ez duela inoiz EAEEn lan egin. Hori dela eta, langileek isolamendua, mendekotasuna eta gutxiespena pairatzen dute.

Laburbilduz, lan arloari dagokionez, emakume etorkinek dituzte merkatuko baldintza okerrak. Politika publikoek estigmatizatu eta arazoak dituen kolektibotzat hartzen dituzte; hots, "baztertuta edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan" dagoen kolektibotzat. Ikuspegi hori da, hain zuzen ere, politika publikoek egiten dituzten ekimenen ardatza; ahaztu egiten dute hein handi batean gizartean dagoen bereizkeriak eragiten duela bazterkeria hori. Gizarteak naturalizat hartzen ditu estratifikazio etnikoa, sexuaren arabeko lan-banaketa, generoaren baitako desberdintasunak eta klase-desberdintasunak. Emakume etorkin langileen administrazio- eta lege-egoera, prestakuntza eta lanbidea edozein dela ere, eta ikasketak homologatuta izan eta espainiar hiritartasuna izan edo ez, gizarteak naturalizat hartzen dituen desberdintasun horien erruz, haien lan-baldintzek ez dute hobera egiten, eta balio eta kualifikazio gutxien duten lanak izaten jarraitzen dute etxeko zerbitzuaren, ostalaritzaren

eta sexu-zerbitzuen sektoreetan; gizarte hartzaileak eman eta zehaztutako lekuan, hain zuzen ere. Gizartearen oinarriak berdintasuna eta ekitatea izatea eta pertsona guztiek eskubide berak izatea nahi badugu, langile-klasearen harremanak eta tirabirak konpondu behar ditugu.

Emakume etorkinen lan-bizitzan eragina duten alderdiak.

1. Etxeko langileak. Soldaten gainbehera, lan-baldintzak ezegonkortzea eta lanpostua galtzea.
2. Irregularutasuna, gerora sortutako legez kanpokotasuna: baimenak galtzea kontratua ez izateagatik.
3. Migrazio-prozesua, ahalduntze-prozesu bat den aldetik. Ezinbestean aipatu beharreko egoera berezia bizi dute Afrikako emakume etorkinek. Afrikako emakumeak Magrebeko eskualdeetan edo Saharaz hegoaldeko herrialdeetan multzokatu ohi dira, edo bestela, herrialdearen arabera. Beste emakume etorkinek baino bazterkeria handiagoa pairatzen dute; beste emakume etorkinek baino jarduera-tasa baxuagoa dute, eta langabezia-tasa handiagoa; eta zirkulu itxietan bizi dira; hori dela eta, aukera gutxi dituzte besteekin harremanak egiteko, garatzeko eta autonomoak izateko.

EMAKUME ETORKINAK: EAE ETA KULTURA

Izaskun Sáez de la Fuente

4.4

Atal honen xedea da tresnak ematea emakume etorkinen egoera kulturaren ikuspuntutik aztertzeko. Kultura konplexua da, eta alderdi asko ditu, eta hein batean, ekonomiaren, hezkuntzaren, emakumeak abusuen biktima bilakatzearen eta beste hainbat alderdiren mende dago.

Lau urrats hauei jarraitu diegu hausnarketa egiteko:

1. Kulturaren ezaugarri nagusiak zein diren zehaztuko dugu, eta kulturak genero-ikuspegiaren aldetik zer bereizkeria egiten dituen nabarmenduko dugu.
2. Kultura- eta erlijio-aniztasuna kudeatzeko ereduak aztertuko ditugu, eta feministen eskakizun hau defendatuko dugu: asimilazio-ereduaren etnozentrismoa eta multikulturalismo akritikoa gainditzea; izan ere, zinez iraingarria da emakumeen hiritar-eskubideentzat. Beste aukera bat aurkeztuko dugu: kultura arteko paradigma bat, teoriarik eta praktikan sexu-arauak eta -estereotipoak gainditzen lagunduko diguna.
3. EAEn bizi diren emakume etorkinen kulturaren eta erlijioaren ezaugarri nagusietako batzuk aipatuko ditugu.
4. Azterlan-proiektua garatzeko metodologiaren faseetan zer elementu kontuan hartu behar ditugun aztertuko dugu.

KULTURA DEFINITZEKO GAKOAK

4.4.1

Hausnarketa-eremua zedarrizteko, ezinbestekoa da kultura terminoak zer esanahi eta irismen duen argitzea. Antropologiaren ikuspegiaren arabera, elementu material eta immaterial batzuen multzoa da kultura (esate baterako, balioak, tradizioak, ohiturak, hizkuntza eta jokamoldea); elementu horiek belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira gizartean, eta beste giza talde batzuegandik bereizten dute giza talde bat. "Zentzu hertsian, kultura dela esateko, ezinbestekoa da elkarrekiko mendekotasuna egotea elementuetako bakoitzaren eta dagokion kultura-sistemaren, hots, gizartearen kultura globalaren, artean, eta elementuak elkarri lotuta egotea"²².

Plog eta Bates (1980) antropologoek kontzeptualizazio klasikoaren arabera, kulturak bost ezaugarri nagusi ditu:

1. *Ikasitako jokamolde bat da*, gizabanakoen eta kolektiboen nortasuna moldatzen duena eta, errealitateari zentzua emate aldera, *errealitatea interpretatzeko eta esanahia emateko modu bat* (ideiak, sinesmenak, balioak, etab.) aurreraposatzen duena. Sozializazio-prozesuek hau guztia "inposatzen" digute: hizkuntza jakin bat, denbora eta espazioa

²²Zenbait egile, *Enciclopedia Universal*, Salvat, Madril, 2009, IX. liburukia, 4.155-4.156 or.

egituratzeko modu jakin batzuk, jateko eta janzteko ohitura jakin batzuk, aginteari eta botereari buruzko ikusmolde jakin batzuk eta ikuspegi ideologiko eta erlijioso jakin batzuk.

2. *Sinbolikoa da*. Sinboloak –hizkuntza, bai eta hitz gabeko mintzaira ere– elementu arbitrario, malgu eta aldakorren bidez eratzen dira.
3. *Sistema baten moduan egituratuta dagoen osotasun bat da, eta jarraibideak ditu*. Ohiturak, erakundeak, balioak eta sinesmenak elkarri lotuta daude. Hori dela eta, alderdiren bat aldatzen denean, beste alderdiak ere aldatu egiten dira modu batean edo beste batean.
4. Gizarte jakin bateko giza taldeek modu jakin batean partekatzen dute –hainbat subkultura daude–, eta, hortaz, bere horretan izaera anitza du.
5. *Egokitzeke tresna bat da*; aldatu egiten da erronka berriei aurre egiteko. Ez dago kultura pururik: kultura guztiak dira mestizoak; izan ere, beste mundu-ikuskerak batzuk bereganatuz eta historian zehar beste kultura batzuekin izandako hartu-emanen ondorioz sortzen dira. Kultura arteko gatazkak aztertzen dituzten ikerketa psikosozialek badute muga bat: gatazkak aztertzean, kultura modu estatikoan hartzen dute; hau da, kulturen arteko aldeetan jartzen dute arreta. Badago, ordea, kultura ulertzeko beste modu bat, kulturen arteko aldeak ezkututzen ez dituen, harremanei eta dinamikei garrantzia ematen diena eta kulturak aldatzeko duen gaitasuna azpimarratzen duena. Kulturak aldatu egiten dira, horren lekuko dira migrazio-fluxuak; izan ere, migrazio-fluxuak direla eta, hibridazioa gertatzen da; hau da, sorterriko kultura ez da besterik gabe gizarte hartzailean txertatzen; kulturak ez dira elkarrengandik banatuta gelditzen.

Erljioak, sozializatutako sinesmenak diren aldetik, kulturek dituzten mundu-ikuskeren oinarritzko osagaietako bat dira. Erabat sekularizatutako gizarte askotan –gure gizartean, esate baterako– sinesmenak urritu egin dira. Dena den, sinesmen horietatik eratorritako unibertso sinbolikoak eragina du kultura jakin baten imaginario kolektiboan eta kultura horren eguneroko praxian. Eragina hainbat arlotan igartzen da; esate baterako, espazioa eta denbora banatzeko moduan, jateko eta janzteko ohituretan, sexuen arteko harremanetan eta beste kultura batzuekiko harremanetan.

Nork sortu dute, baina, kulturen engranajea? Historikoki, gizonek sortu, zabaldu eta aldatu dituzte balioak, arauak eta praktikak, ia emakumeen parte-hartzerik gabe. Gizonak nagusi dira munduan; hori legitimatzen dute politikek, kulturek eta erlijioek. Emakumeak objektu sinboloko bilakatu dituzte. Hori dela eta, gizonen presentziak eta onesprenak baldintzatu izan du emakumeen autoestimua. Gizonek goretzi eta gutxietsi egiten dituzte emakumeak, eta haiei buruzko diskurtso kulturelek, beraiek sortzen eta kontrolatzen ez dituzten diskurtsoek, objektu bilakatzen²³. Kultura-ereduen artean aldeak badaude ere, emakumeak, oro har, besteentzako izakiak bilakatu dira, eta horren kausaz, identitate negatiboak eman zaizkie, baztertu egin dira, eta ikusezin bilakarazi hainbat bortizkeria motaren bidez (fisikoa, psikologikoa, afektiboa, sinbolikoa...). Purutasunaren/ezpurutasunaren, sufrimenduaren, sakrifizioaren eta erruaren printzipioen mende dauden imaginario ideologiko, kultural eta erlijiosoak elikatzen dute emakumeen aurkako bortizkeria. Erruari dagokionez, jatorrizko bekatua da erruaren iturburua –Evak pertsonifikatzen du errua–; emakumeak errudun sentitzera behartuta daude lan-merkatuan sartzearen ondorioz etxetik kanpo daudelako eta sekularizazio-prozesua bultzatu izana leporatzen zaielako.

²³Ikus MARÍA ANTONIA GARCÍA DE LEÓN, *Herederas y Heridas. Sobre las élites políticas femeninas*, Cátedra, Valentzia, 2003, 85. Hain zuzen, alienazio, reifikazio eta gauza bihurtze terminoak erabiltzen dira historian zehar emakumeak kultura guztietan gizonen mende egon direla azpimarratzeko –lehenengo terminoa hegelianismotik dator; bigarrena, marxismotik; eta hirugarrena, existentzialismotik–.

**KULTURA- ETA
ERLIJIO-
ANIZTASUNA
KUDEATZEKO
EREDU ETIKOAK ETA
POLITIKOAK**

4.4.2

Bere garaian esan zen Mendebaldearen bihotzean egindako atentatu islamistak –New Yorken irailaren 11an egindakoa izan zen lehena– aniztasuna kudeatzeko asmoz abian jarri ziren ereduaren porrotaren erakusgarri zirela. Eredu batzuek asimilazioa zuten oinarri, eta beste batzuek, kultura-aniztasuna. Bestalde, atentatu horiek bide eman zioten Huntingtongi apokalipsiari buruzko tesiak egiteko; izan ere, haren ustez, *Gizarteen arteko gatazkak* eka-rriko du apokalipsia. Atentatu horien ondorioz, eredu horiek zalantzan jarri ziren, eta horrek hutsune bat sortu zuen. Estatu-nazioen politikek bestearekiko beldurra erabili dute hutsune hori betetzeko, bai eta terrorismoarekin lotutako erradikalismoa zabalduko delako beldurra ere. Atzeraldiaren mamuak beldur hori areagotu du. Rodríguez Zapaterok eta Tayyip Erdoganek –Turkiako errepublikako lehen ministroa eta Justizia eta Garapena alderdi islamistako burua– komunikabideen aurrean bostekoa emanez gauzatu zuten *Zibilizazioen arteko aliantza*, NBEk eskatu eta babestu zuena, oraingoz politikan eraginik ez duen asmo oneko adierazpen bat besterik ez da²⁴. Aliantza hori gorabehera, hainbat ikerketa-korrontek eta erakundek –esate baterako, Unescok eta Europako Kontseiluak– urteak daramatzate kultura arteko elkarriketa bultzatzeko gakoak lantzen²⁵. Eredua aldatzeko, antropologiaren eta etikaren ikuspegia aldatu behar da. Horri buruz arituko gara, hain zuzen ere, gero. Dena den, aipa dezagun, diskurtso politikoki zuzenak alde batera utzita, gutxi daudela aldaketa horren alde.

Hiru eredu arauemaile daude. Sailkapena egiteko, kontuan hartu dugu eredu horiek zer erantzun publiko eta politiko ematen dizkieten gero eta konplexuagoak diren errealitate sozial, kultural eta erlijiosoei. Nolanahi ere, ereduak ezin dira guztiz bereizi, elkarrekin nahastea gerta baitaiteke. Ereduak labur-labur deskribatuko ditugu. Batez ere, hau hartuko dugu kontuan: oinarri etikoa, ikuspegi juridikoa eta politikoa, erlijioaren eta politikaren arteko harremani buruzko ikuspegia eta ondorio sozialak.

²⁴Zapatero eta Erdogan sentsibilitate aski ezberdinen ikur dira erlijioaren eta politikaren arteko loturei dagokienez. Zapatero eredu laiko trinko baten ordezkaria da; eredu horrek kontu pribatutzat hartzen ditu erlijioak. Erdoganek, aldiz, islamaren presentzia publikoa aldarrikatzen du –bere ibilbidea horren erakusgarri da–. Hori da, hain zuzen ere, Turkia EBn sartzeko eztabai-dagai nagusietako bat.

²⁵2008. urtea kulturen arteko elkarriketaren europar urtea izendatu zuten.

4.1. KOADROA Kultura- eta erlijio-aniztasuna kudeatzeko eredu etikoak eta politikoak

	MONOKULTURALISMOA	KULTURA-ANIZTASUNA	
		MULTIKULTURALISMOA	KULTURARTEKOTASUNA
<p>Eredu arauemaileak</p> <p style="text-align: center;">↕</p> <p>Baliabide publikoen kudeaketa</p> <p style="text-align: center;">↕</p> <p>Eguneroko bizitza</p>	<ul style="list-style-type: none"> Asimilazionismoa (noranzko bakarreko integrazioa) Berdintasunerako eskubidea zuzenbide- eta berdintasunarloan (frantziar liberalismoa) Arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> Bazterkeria, bereizkeria eta ghettoak sortzea Laikotasun baztertzaila Patriarkalismo moderatua 	<ul style="list-style-type: none"> Desberdintasunerako eskubidea Aintzatespen-politikak (britaniar komunitarismoa) Arriskuak: <ul style="list-style-type: none"> Bazterkeria, bereizkeria eta ghettoak sortzea Atzera egitea xede duten eredu konfesionalen bertsoiak Patriarkalismo latza 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasunerako eskubidea Desberdintasunerako eskubidea Kulturen arteko elkarriketa/hartu-eman positiboak/negoiazioa (bi noranzkoetan) Laikotasun inklusiboa Parekotasunaren aldeko borroka, kontuan harturik patriarkatua menderatze-sistema transkultural bat dela

Iturria: egileek egina

Asimilazio-eredua

Frantziako Iraultzan ezarri zen eredu juridiko eta politiko liberal zorrotza da. Eredu horren arabera, kulturen eta erlijioen arteko aldeak eremu pribatuan gelditu behar dira. Hori dela eta, Estatuak ez ditu kontuan hartzen, ez *a priori* arauemailetan, ez kudeaketan (*laikotasun baztertzaila*). Asimilazio-ikuspegia, inposatuz gero, etnozentrikoa, legez kontrakoa eta demokraziaren aurkakoa izango da, eta kulturaren uniformetasuna helburu duenez, bazterkeria eragingo du. Badago, dena den, halakorik eragiten ez duen erdibideko asimilazio-ikuspegi bat, giza eskubideetan oinarritzen dena. Ikuspegi horren aldekoak jabetzen dira eskubide horiek ez direla porrot egin zuen Ilustrazio eurozentrikoaren hondarrak, baizik eta diskurtso eta jardun sozialen egokitasun etikoa ebaluatzeko erreferente nagusia. Ildo horretatik, Celia Amorós Filosofiako katedradunak *kanon feminista ilustratu eta multikulturala* adierazpena erabiltzen du zera azpimarratzeko: Ilustrazioak eta hari esker sortu zen feminismoak asko zor diotela mundu-ikuskeren artean egon diren eta egon behar diren kontraste kulturaleri.

Multikulturalismoa

Izaera komunitarista duten ereduetan oinarritzen da. Hein batean, kultura-aniztasunerako eskubidea onartzen du. Eskubide hori dela eta, kultura-aniztasuna aintzatesteko politikak, eremu pribatuan autonomia errespetatzeaz harago doazenak, sortu behar dira. Modernitatearen arabera, gizabanakoak subjektu arrazionalak eta autosufizienteak dira. Eredu horren arabera, ordea, gizabanakoak talde baten partaideak ere badira. Horregatik abiarazi behar dira, hain zuzen ere, etnia-, kultura- eta erlijio-aniztasunarekin bat datozen politika publikoak. Eredu horren arrisku nagusia da konpartimendu estankoz (ghetto) osatutako gizarteak sortzea –konpartimendu batzuk beste batzuk baino bakartuago egongo dira–. Kultura- edo erlijio-talde bakoitzak bere arauetara jarraituko diete, taldeen arteko harremanak urriak eta azalekoak izango dira eta estatuaren zeregina gatazkak saihestea izango da. Horrek, baina, gizarte-kohesioa eta bizikidetzaz zailduko du.

Multikulturalismoak desberdintasuna eta bazterkeria eragiten ditu; izan ere, kulturen edo/eta erlijioen arteko aldeak aintzatesteko politikaren defentsa erlatibista gogorra egiten du. Horrelako planteamenduen oinarrian uste hau dago: kultura oro errealitate esentzial, puru eta harmoniatu bat da, komunitate etniko, nazional edo erlijioso bateko kideek partekatzen dituzten balio, sinesmen, arau eta jokabideez osatua dagoena. Kultura barneko gatazkak ezkututzen dira, bai eta baliabide materialak eta sinbolikoak eskuratzeko desberdintasunean oinarritutako gizarte-harremanak, eta ados ez egoteko eskubidea zapaltzen da. Hortaz, *kulturaren ikuspegi esentzialista* gailentzen da. Ikuspegi horren arabera, hauxe da kultura: "sortzen gaituen zerbait [...] gorde beharreko gordailu antzeko bat"²⁶. Kultura-eredu horretan, belaunaldien arteko harreman asimetrikoak sendotu eta erradikalizatu egiten dira, eta harreman horiek direla medio, emakumeak identitate-desberdintasunaren azken gotorleku bilakarazten dira. Hori lortzeko, sakratutzat jotzen dira tradizio jakin batzuentzat funtsezkoak diren ikur ugari. Ikur horiek azpiratu egiten dituzte emakumeak: haiei ematen zaie kulturaren "gordailua" zaintzeko eginkizuna, bai eta kulturen eta erlijioen ikurrak zabaltzeko eginkizuna ere²⁷. Horretaz gainera, kapitalismoaren, patriarkatuaren eta neokolonialismoaren aliantza perfektu eta bidegabe bat dela medio, Lurreko leku gehienetan miserian bizitzera behartuta daude. Gauzak horrela, ezkondu aurretik birjintasuna eskatzea emakumeen sexualitatea ideologikoki eta sozialki kontrolatzeko modu pribilegiatu bat da; izan ere, liburu-erlijioen tradizio guztien arabera, emakumeak lizunak eta hezigaitzak dira.

"Kultura-aniztasunaren ikuspegi sendoetan –ikuspegi horiek ez dira feminismoaren ikuspuntutik aztertu, noski–, 'emakumea' kulturaren metafora da, kultura-komunitatearen iraupenaren irudikapen material eta sinbolikoa. Kultura jakin bat desagertuko delako beldurra gailentzen denean –kultura nagusiak eraso egiten diolako eta asimilatua izatera kondenatuta dagoelako–, gizonezkoek lerroak estutzen dituzte 'beren emakumeen' gainean duten dominazioa defendatzeko. Gizonezkoek emakumeengan duten dominazioa da beren kultura-komunitatearen iraunkortasunaren muin ukiezin eta negoziatua"²⁸.

Kulturartekotasuna

Kutsu errepublikanoa duten ereduetan oinarritzen da –gogoratu Jürgen Habermasek gai honi buruz egindako diskurtsoak–. Eredu horiek kultura eta erlijio ezberdinen arteko sinergiak bilatzen dituzte elkarriketa ekitatiboen bidez –elkarriketak hainbat gunetan eta erakundetan egiten dira–, bizikidetzaren demokratikorako proiektuak egiteko, eskubideak pertsona guztiek izan ditzatela bermatzeko eta herritarren betebeharrak (*hiritar etika*) pertsona guztiei exijitu ahala izateko²⁹. Herritarrek erlijio-aniztasuna errespetatzea ontzat hartzeak ez du inola ere eragozten herritarren hiritartasun sozialaren partaide izatera bultzatzea. Integrazioa banatze-justiziaren eta, beraz, gizarte-eskubideen bidez bideratzen da (esate baterako, hezkuntza, osasuna, gizarte-laguntzak eta etxebizitza). Horrek, azken finean, esan nahi du kudeaketa politikoak uneoro izan behar dituela kontuan biktimak³⁰; izan ere, kultura

²⁶XABIER ETXEBERRIA, *Sociedades multiculturales*, Mensajero-Alboan, Bilbao, 2004, 35. or.

²⁷Esate baterako, talde fundamentalisten ustez, beren emakumeak estaltzea beren nortasunari osorik eusteko modu bat da. Hala zertzen dute, hain zuzen ere, purutasunaren eta ezpurutasunaren legeek agintzen duten segregazioa (lana sexuaren arabera banatzea eta espazioak bereiztea). (Ikus IZASKUN SÁEZ DE LA FUENTE, "Fundamentalismo religioso en el mundo actual y perspectiva de género", *Iglesia Viva* 235 [2008] 90).

²⁸ROSA COBO (Ed.), *Interculturalidad, feminismo y educación*, Catarata-Ministerio de Educación, Madrid, 2006, 13-14 or.

²⁹Victor Campsen eta Salvador Gineren aburuz, hiritar orok adierazi beharko luke bat datorrela gutxieneko etika horrekin (Ikus VICTORIA CAMPS y SALVADOR GINER, *Manual de civismo*, Ariel, Barcelona, 1998, 9)

³⁰Zenbait egile, *La laicidad en los nuevos contextos sociales*. Diziiplina arteko azterlan, Sal Terrae, Santander, 2007, 314. or.

arteko ikuspegiari atxikitzen gatzazkiola esateak ez du ezertarako balio, baldin eta bereizkeriak eta segregazioak hor jarraitzen badute.

“Bestea” solaskide egokitzen hartzea da kulturartekotasunaren printzipioa. Horrek ez du esan nahi, ordea, planteamendu eta ohitura onartezinak onesten edo argi eta garbi arbuiazen ez dituenik, batez ere emakumea gutxiesten dituztenak (esate baterako, ezkontza behartuak, genitalen mutilazioa, bortizkeria matxista eta etxean giltzapetu eta ikusezin bilakaztea) eta beste ohitura batzuk; esatea baterako: *hiyab* erabiltzea, baldin eta nahita erabiltzen dela frogatzen ez bada. Kasu horietan, beharrezkoa da iritziak elkarrizketaren bidez adieraztea eta bitartekotza erabiltzea. Nahiz eta agian politikoki zuzena ez izan, ezinbestekoa hau azpimarratzea:

“[...] kultura guztiek ez dute begirune bera merezi: begirune handiagoa merezi dute giza eskubideak errespetatzen dituzten kulturak; izan ere, berdintasuna sustatzen dute kulturaren izenean legezkoak ez diren pribilegioak sustatzen eta hierarkiak zein estratifikazioak sendotzen dituzten kulturetan [...] 'emakumeen mendekotasuna eta eginkizun estereotipatuak auzitan jarri dituzten kulturak hobeak dira halako gaiak inoiz auzitan jarri ez dituztenak baino'.”³¹

Kulturartekotasunak zentzua izan dezan, askotariko bizikidetzaren eredu gisa hartu behar dugu (bizikidetzaren hutsetik harago joan behar dugu). Eredu horrek gizarte osoan izan behar du eragina, eta ez etorkinengan eta gutxiengoan dauden kulturetako zein erlijioetako pertsonengan soilik. Berriro diogu: eredu horren azpian kulturearen ikuspegi dinamiko bat dago, kultura prozesutzat hartzen duena. Prozesu hori barneko tirabirek eragindako aldaketan (*kultura barneko une erabakigarriak*) eta beste kulturekiko harremanen (*kultura arteko une erabakigarriak*) mende dago.

**EAEN BIZI DIREN
EMAKUME
ETORKINAK.
ONDORIO
SOZIOLOGIKO
ADIERAZGARRIAK**

4.4.3

Ez dago EAEn bizi diren emakume etorkinei buruzko azterlan monografiko espezifikorik. Horregatik da garrantzitsua, hain zuzen ere, Emakunde abian jartzen ari den lana. Oraingoz, emakume etorkinen errealitatera kulturaren ikuspuntutik hurbiltzeko, besteak beste, hiru erreferentzia enpiriko hauek ditugu: a) Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2007an atzeritarrei egindako inkesta; b) Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailak 2010ean egindako Atzerriko etorkinen gaineko inkesta (AEI); eta c) Bilboko Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraliza Institutuak (ETPI) eta EDE Fundazioak 2008an argitutako *Inmigración, identidades religiosas y diálogo intercultural* azterlan kualitatibo orokorra, zenbait gizabanakorekin banan-banan kultura- eta erlijio-identitateei buruz izandako elkarrizketa sakonetan oinarritutakoa.

³¹ROSA COBO (Ed.), lehen aipatutako lana, 17. or.

Ezaugarri etnikoak zein nazionalak eta azpian dautzan migrazio-proiektuak

Datuen arabera, migrazio-fluxuetan nolabaiteko etnifikazio generiko eta diferentzial bat ari da gertatzen. Oro har, EAEn bizi diren etorkinen artean, gizon baino emakume gehixeago daude. Latinoamerikako herrialdeetako etorkinen artean, emakumeak dira gehiengo (talde mestizoa eta latinoak); Senegaleko (Saharaz hegoaldeko Afrika) eta Magrebeko etorkinen artean, aldiz, gizonak. Errumaniako, Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako, Afrikako gainerako herrialdeetako eta Txinako etorkinen sexu-banaketa orekatuagoa da.

Halaber, etxean komunikatzeko, emakumeek gizonen baino gehiago erabiltzen dute gaztelania eta gizonen emakumeek baino gehiago erabiltzen dute arabiera. Beste datu interesgarri bat: etorkinak, oro har, ondo edo nahiko ondo moldatzen dira gaztelaniaz eguneroko bizi-tzan. Magrebeko, Senegaleko eta, batez ere, Txinako emakumeek dute zailtasun handien gaztelaniaz aritzeko³² (Magrebeko eta Senegaleko gizonak, aldiz, ongi moldatzen dira). Gizarte hartzailearen hizkuntza ez jakiteak taldearen endogamia areagotzen du, eta bertako herritarrekin harremanak egitea zailtzen.

Gizarte hartzaileetan emakume etorkinek dituzten ezaugarri etnikoak eta nazionalak lotura estua dute sorterritik ateratzera bultzatu zituzten faktoreekin. Migrazio-prozesu orok izaera soziala du. Alde horretatik, familia-estrategien eginkizuna oso garrantzitsua da. Askotan, nork migratuko duen erabakitzeke, taldearen barruko boterearen hierarkia hartzen da kontuan, bai eta hainbat testuingurutan dauden genero-estratifikazioak ere³³. Faktore baldintzatzaile horiek direla medio, emakumeak izaten dira hainbat migrazio-prozesuren eragileak –nahiz eta bertako herritarrek berdintzat hartu ohi dituzten emakume etorkin guztiak–. EAEn bizi diren etorkin askok erabaki pertsonal bat dela bide emigratu dute; batez ere, Afrikako gizonen eta Frantziako eta Boliviako emakumeek. Afrikako gizonen migrazio-ereduak ezaugarri hauek ditu: gizonen, emigratioaren bide-erakusle diren aldetik, garrantzi handia dute; emigratu ostean, familia sortzen dute; gizonen arteko harremanek garrantzi handia dute; migrazio-sarea aitaren bidetik sortzen da; eta gizonenak izan ohi diren lanbideak egiten dituzte. Bestalde, Latinoamerikako emakumeen migrazioak ezaugarri hauek ditu: Latinoamerikako etorkin gehienak emakumeak dira –aukeraketa-irizpideei dagokienez, estatus sozioekonomikoa baino garrantzitsuagoa da sexua–; emakumea da nagusi; amatasun transnazionala eta emakumeen migrazio-sareak sortzen dituzte; eta gizarte hartzailean, ia eskusiboki emakumeenak diren lan-nitxoetan egiten dute lan³⁴.

EAEra duela gutxi etorri diren emakumeen eta gizonen artean, familia-bateratze gutxiago gertatzen dira, eta gehiago dira *“lan hobea bilatzea”* helburu duten etorkinak. Etorkinak beren prozesuen eragile aktiboak direla eta ongizate handiagoa bilatzen dutela pentsatzera garamatza horrek. Edonola ere, emakume etorkin batzuen kasuan, batez ere Aljeriako emakumeen kasuan, familiak –zehazki, senarrak– eragin handia du oraindik ere. Alde horretatik, haien immigrazioak bateratze-prozesuekin du zerikusia.

Berriro diogu: emakumeen arteko alde horiek lotuta daude genero-estratifikazioen arloan kulturen artean dauden aldeekin. Askotan, Latinoamerikako emakumeak (bai eta Marokoko emakume alargunak edo bananduak ere, etikarekin eta erlijioarekin zerikusia duten arra-

³²Kasu honetan ere, gizonen emakumeek baino zailtasun handixeagoa dute, baita Magrebeko eta Senegaleko emakumeek baino zailtasun handixeagoa ere.

³³Herrialde batzuetan (Dominikar Errepublikan eta Filipinetan), familia-egiturek eta -ideologiek besteak beste emakume nekazari ezkongabeak emigratzera bultzatzen dituzte; beste herrialde batzuetan, aldiz, oztopatu egiten dute hori (Marokon) (Ikus COLECTIVO IOE, *Inmigrantes, trabajadores y ciudadanos. Una visión de las migraciones desde España*, Valentziako Unibertsitatea-Patronat Sud-Nord, Valentzia, 1999, 187. or.).

zoiak tarteko beren herrialdetik irtetera behartuta daudenak) familia gurasobakarren buru bilakatzen dira edo familia ugarien eta zabalaren mantenu ekonomikoaz arduratzen diren emazteak dira. Besteak beste, besteak zaintzen dituzte, eta etxetik kanpo lan egin edo ez, erabat esplotatuta bizi dira. Alde horretatik, bizi baldintzek okerrera egin dute familia gurasobakarretan. Emakume etorkin asko errudun sentitzen dira; izan ere, emigrazioa dela eta, ezin dira zuzenean arduratu ugalketarekin eta seme-alaben hazkuntzarekin lotutako eginkizunez³⁵. Nahiz eta sorterrian familia asko desegituratuta egon, etorkinek mitologiara jotzen dute eta gizarte hartzaileetan patriarkatua berriro ezartzea xede duten prozesuak bultzatzen dituzte³⁶. Edonola ere, kasu batzuetan, komunitate transnazional hori sortzea eta emakumeek dirua kontrolatzea positiboa izan daiteke; izan ere, horrek genero-rolak berriro definitzea ekar dezake. Hala, atzerrian ezkonduko diren etorkinen harremanak berdintasunean oinarrituko dira; hau da, erantzukizunak eta betebeharrak partekatuko dituzte.

Herrialde periferikoetako (esatea baterako, Argentinako) hiri-eremuetako herritarren artean eta Marokoko ezkongabeen eta unibertsitateko ikasleen artean, gero eta gehiago dira ongizate ekonomikoa hobetzeko asmoz emigratzen duten gizabanakoak. Haien helburua da norberaren ongizatea hobetzea, edo familiari laguntzea. Kasu horietan soilik dute etorkinek diruaren gaineko benetako kontrola eta erabakiak hartzeko ahalmen handiagoa, nahiz eta familiako gizonek izan agintea jatorrizko gizartean. Generoari buruzko iritziek eragin handia dute oraindik ere. Kultura askotan, emakumeei dagokie senitartekoak zaintzea eta haiez arduratzea.

Maroko emakume landatarren eta, oro har, herrialde musulmanetako emakumeen artean, ohikoa da oraindik ere familiarekin bateratzeko asmoz immigratzea. Dena den, emakume horiek bide ezberdinak egiten dituzte. Emakume batzuk, nahiz eta senarrari jarraitu, sorterriko lan-merkatuan lan egindakoak dira, eta badakite, beraz, zer den gizarte-eskalan gora egitea. Beste batzuek, berriz, gizarte hartzailearen ezegonkortasun ekonomikoa dela eta, senarraren baimena eskuratzen dute etxetik kanpo lan egiteko. Horrek, baina, ez ditu zalantzan jartzen sistema patriarkalaren funtsak: emakumeek etxetik kanpo lan egin dezakete, baldin eta arau moralak eta erlijiosoak errespetatzen badituzte eta emazte eta ama diren aldetik dituzten betebeharrak betetzen badituzte. Muturreko kasu batzuetan, emakume batzuk erabateko mendekotasunean eta gizartetik bakanduta bizi dira. Horren kausaz, zaila da emakume horiek gizarte hartzailearekin harremanak egitea eta bizi estrategiak berriro definitzea. Isolamendu hori areagoa da baldin eta sorterriko hizkuntzak ez badu gaztelaniarekin zerikusirik eta, batez ere, analfabetoak badira eta ez badute ikasketarik; izan ere, senarraren edo seme-alaben mende egongo dira inguruarekin edozein motatako komunikazio izateko. Kontua are gehiago korapilatzen da baldin eta, itxura fisikoa edo janzkera dela eta, estigma bat bilakatzen bada emakume atzerritarra izatea (esatea baterako: *hiyab* dararmaten Marokoko eta Aljeriako emakumeak). Halaber, jatorri bereko etorkin-taldeak ez badu urratsik ematen egokitzeko eta gizartearen onespina lortzeko, baztertua izateko arriskua era esponenzialean handitzen da, eta norbanakoaren integrazioa korapilatu egiten da. Hori gertatzen denean, badirudi emigrazioa, egoera bat izan beharrean, zera aldagaitz bat dela, odolaren purutasuna bezain ezaugarri ezabagaitz bat³⁷.

³⁵“(…) amatasun transnazionalaren ondorio negatiboei buruzko diskurtso bat egin da. Egin ez ezik, zabaldu ere egin da komunikabideetan eta erakunde publikoetan (hori da Filipinetako emakumeen kasua). Dena den, migrazioei buruzko literaturan ez da txintik esaten aitatasun transnazionalari buruz. Familia transnazionalen esparruan, inork ez du zalantzan jarri aitatasuna; ez dago erreferentziarik seme-alabak sorterrian utzi dituen ‘aita etorkin txarrari’ buruz” (Ikus LAURA OSO, “Migración, género y hogares transnacionales” in JOAQUÍN GARCÍA ROCA eta JOAN LACOMBA [Ed.], *La inmigración en la sociedad española. Una radiografía multidisciplinar*, Bellaterra, Bartzelona, 2008, 571-572 or.)

³⁶PEDRO MARCOS eta IZASKUN SÁEZ DE LA FUENTE, “La perspectiva de género en las prácticas de mediación intercultural e interreligiosa”, *Soziologiaren eta Zientzia Politikoen VII. Euskal Kongresua*, Bilbo, 2009, 5 (CD formatuan eskuragarri).

Garrantzitsua da herrialde bakoitzetik zenbat emakume eta zenbat gizon etorri diren jakitea. Izan ere, datuez harago, “aditzera ematen digu familiak nola osatuta dauden, laguntza-sareek zer ezaugarri dituzten, gizarte hartzailean nola banatzen dituzten genero-rolak emakume eta gizon etorkinek etxe barruan nahiz gizartean eta gizarte hartzaileak nola hautematen eta aintzatesten dituen gizon eta emakume etorkinak”³⁸. Normalean, jatorri jakin bateko etorkinen gehiengoak sexu batekoa izateak zaildu eta galarazi ere egiten du jatorrizko herrialdeko kultura-ereduari eustea. Aldiz, etorkinen artean familia osoak badaude, aukera gehiago daude jatorrizko herrialdeko familiari buruzko ideologian oinarritutako ereduak sendotzeko. Ez dezagun ahaztu, baina, emakume etorkin askorentzat familia ez dela zapaldua izateko leku bat, baizik eta beste bereizkeria batzuk indargabetzen dituen “kolpe-motelgailu” bat, nahiz eta familiaren barruan ideologia patriarkala nagusi izan.

Sorterriko erlijio-loturak

Etorkinak *sozializazio erlijioso eta kultural* jakin bat duten herrialdeetatik etortzen dira. Familia zabaletako emakumeek oso eginkizun garrantzitsua dute; izan ere, haiek arduratzen dira sozializazio hori belaunaldiz belaunaldi transmititzeaz. Mundu-ikuskerak andozentrikoek emakumea, ama, zaintzailea eta sinestuna kontzeptuak lotu eta tradizioen gordetzailatzat hartu izan dituzte emakumeak.

Horretaz gainera, erlijioa EAEn guztiz desinstituzionalizatuta³⁹ dagoenez, EAeko erlijioek ez dute sorterrian duten sekularizazio-maila eta kulturarekiko, politikarekiko eta eguneroko bizitzarekiko lotura estua. Islamean nabarmentzen da gehien erlijioak bizitzaren arlo ezberdinetan duen nonahikotasuna. Alde horretatik, etorkin musulmanek otoitz asko egiten badute ere –ia ez dago alderik belaunaldien artean–, katolikoek eta ortodoxoek artean, emakumeek otoitz askoz gehiago egiten dute gizonen baino⁴⁰. Edonola ere, erlijio bereko etorkinen artean ere aldeak daude. Esate baterako, Kolonbiako emakume katolikoek sekularizazio-maila eta Argentinako emakume katolikoena ez da bera.

Aniztasun etnikoari eta nazionalari dagokionez, generoak eragin handia du identitate erlijioso nagusietan. 2007an, erlijio musulmanean, gizon sinestunen kopurua emakume sinestunen kopurua halako hiru zen; erlijio katoliko erromatarrean, emakume sinestunen kopurua gizon sinestunen kopurua baino ia hogeita puntu handiagoa zen; eta erlijio ebanjelikoan, emakume sinestunak gehiago ziren, nahiz eta emakumeen eta gizonen arteko aldea aurreko kasuan bezain handia ez izan.

Mestizaje etnikoa eta kulturala aski arrunta da etorkinen jatorrizko herrialdeetan. Edonola ere, Afrikan beste inon baino aniztasun handiagoa dago, sekta eta erlijio-talde ugari daude

³⁷Fadela Amara *Ni putas ni soumises* (ez putak ez otzanak) mugimendu feministaren buruak –Frantziako langile etorkinen auzoetako mugimendu horri 2003. urtean eman zitzaion hasiera Frantzia osoan egin zuten martxa baten bidez– berari gertatuko zerbait kontatzen du immigrazioaren ikuspegi esentzialista desegitea zeinen zaila den azpimarratzeko: “Halabeharrak hala aginduta, [Frantziako] Errepublikaren arragoan –haurtzaroko eskolan– sentitu nintzen arrotz lehenengo aldiz, noiz eta andereño batek ikasle atzerritarren zerrrenda bat egin behar zuela eta, ondo beharrez zalantzarik gabe, eskua altxatzeko eskatu zidan egunean. Baina nik (...) Frantziar herritartasuna nuen (...) Ez nuen bidegabekeria hura onartzen. Horregatik, ahaleginak egin nituen bestearen ikuspegia aldatzeko; hots, ni nire jatorri sozial eta etnikoekin sistematikoki lotzen nindutenean ikuspegia aldatzeko. *Frogatu egin nahi nuen, ezberdintasunak ezberdintasun, elkarrekin bizi gintezkeela errepublika laiko batean, eta errepublika horretan biztanle guztiek eskubide berak izan zitzaizketela*” (Ikus F. AMARA, *Ni putas ni soumises*, Cátedra-Feminismos, Madril 2004, 32. or.).

³⁸JUAN LUIS FUENTES eta TRINIDAD L. VICENTE, *La población magrebí en el País Vasco. Situación y perspectivas*, Arartekoa- Juan San Martín giza eskubideen bilduma, Bilbo, 2007, 35. or.

³⁹Desinstituzionalizazioak zera esan nahi du: erlijio-esperientzia eta esperientzia hori bideratzeko bitartekari lanak egin izan dituzten instituzioak –gure inguruan, Eliza Katolikoa– bereiztea xede duen prozesua.

⁴⁰Urtetan zehar sozialismo errealekoa bizi ondoren, Errumaniako etorkinen erlijio-ohiturak indarberritzen ari direla hauteman dugu. Sinestunek asko balioesten dute hori. Horrek, jakina, zerikusia du nazionalismoarekin; izan ere, herrialde hartan, herriki lotuta daude etniarekin eta nazioarekin lotutako alderdiak eta erlijioa.

eta. Erlijiozkotasun tradizionalenean, gizartearen eta erlijioaren aldetik garrantzitsuak diren balioak daude; esate baterako, pertsona adinduekiko errespetua eta Latinoamerikako herri-tarrek Andre Mariari dioten debozioa. Halaber, erlijioak jokabide-kode jakin bat dakar bere-ekin –batez ere, Magrebeko herritarrengan ikusten da hori argien– eta egoera zailetan segurtasuna ematen du, bai eta egoera horietara egokitzeko laguntza ere. Latinoamerikako emakume etorkinen artean, aldaketa bat gertatzen ari da belaunaldien artean: nahiz eta ba-tzuek erlijio tradizionalari eutsi, beste batzuk fedea argitzen eta arrazionalizatzen hasi dira. Sorterrian elizak hurrez eta gaztez beteta dauden arren, Hego Amerikako gazteentzat erli-jioa jadanik ez da eztabaidatu ezin den zerbait; hau da, jakintzat ematen den zerbait.

Herrialde hartzailearen mikroegitura soziala

Gizartean zabaldutako estereotipo baten arabera, etorkinek –batez ere, emakumeek– ikasketa-maila baxua dute, eta horrek laneratzea eta gizarteratzea zailtzen ditu. Datuek, haatik, estereotipo hori zalantzan jartzera behartzen gaituzte: hamar etorkinetik ia seik bigarren mailako ikasketak egin dituzte gutxienez, eta % 8k soilik ez du ikasketarik. Oro har, emaku-meek ikasketa-maila handiagoa dute. Salbuespen bakarra Magrebeko emakumeen kasua da; izan ere, emakumeen ikasketa-maila gizonena baino pixka bat txikiagoa da. Dena den, esan beharra dago Magreben beste inon baino pertsona gehiago daudela lehen mailako ikasketarik edo batere ikasketarik gabe. Bestalde, gizon etorkinen artean, Senegaleko gizo-nak dira prestakuntza gutxien jaso dutenak (Senegaleko etorkinek dute prestakuntza-maila txikienetakoa).

Eremua (auzoa), gizarte-klasea (pobrea) eta jatorria (etorkina) elkarri lotzen dira modu arris-kutsu batean, eta horren erruz, etorkinen segregazio espaziala areagotu egin ohi da. Espainian ez dago etorkinen ghettorik; hau da, ez dago hiri-eremurik non talde bat, gehien-go diren bertako biztanleez osatuta ez dagoena, demografikoki gailentzen den. Hala eta guztiz ere, egia da etorkinak bi auzo motatan biltzen direla: hiriko parte zaharrean (infraetxe ugari egiten dira bertan) edo hiri kanpoaldean. Bi auzo mota horiek ezaugarri berberak dituz-te: etxebizitzak merkeagoak dira eta bertako biztanleria zahartzen ari da. Etorkinei zer nahi-ko luketen galdetu eta zera erantzuten dute: zerbitzu egokiak dituzten auzoetan bizi eta era-bat hondatutako auzuneetatik alde egin. Edonola ere, talde etniko eta nazional batzuek (esate baterako, Aljeriako emakumeek) beste etorkinek baino garrantzi handiagoa ematen diote aberkidez inguratuta bizitzeari.

Etorkinen gehiengoak dio aisialdian mota guztietako pertsonekin egoten dela⁴¹; ia % 30ak, familiarekin soilik egoten dela; eta gutxiengoak, bere sorterriko edo kulturako pertsonekin soilik egoten dela⁴². Txinako etorkinek (gizonek zein emakumeek), Senegaleko etorkinek (gizonek emakumeek baino gehiago), Magrebeko emakume etorkinek eta Paraguaiko gizon etorkinek beste etorkinek baino joera handiagoa dute aisialdiko jarduerak herrikideekin egi-teko. Bestalde, azterketa kualitatiboek azpimarratzen dute ez dagoela etnia arteko harreman-ik etorkin-taldeen artean. Alde horretatik, beste etorkin-taldeen –batez ere, musulmanen eta beltzen– ezaugarri estigmatizatzaileak nabarmentzen dituzten etiketak eta estereotipoak erabiltzen dituzte; esate baterako, “Arabiarrak bortitzak dira, eta arazoak sortzen dituzte”⁴³.

⁴¹Gizon baino emakume etorkin gehixeago ibiltzen dira mota guztietako pertsonekin aisialdian; izan ere, bakarrik iristen dira, eta ez dute sorterriko gizarte-sareen laguntzarik izaten.

⁴²Etorkinen % 8 edo gutxiago.

⁴³G4-Saharaz hegoaldekoak Ikus ALFONSO PÉREZ AGOTE, BENJAMÍN TEJERINA eta MARGARITA BARAÑANO, Barrios multiculturales: relaciones interétnicas en los barrios de San Francisco (Bilbao) y Embajadores/Lavapiés (Madrid), Trotta, Madrid, 2010, 120. Egileen arabera, etika eta estereotipo horiek horma ikusezinak eraikitzen dituzte, eta horma horiek jatorri ezberdineko gizabanakoen eta taldeen arteko harremanak eragozten eta galarazten dituzte: “horren kausaz, ezinezkoa da ‘3 beltz, 2 ijito eta arabiar 1’ elkarrekin ikustea, eta gero eta zailagoa da moralala sendotzea gure gizarteetan”.

Emakumeen kasuan, batzuetan hiru motako bereizkeria pairatzen dute: emakume izateagatik, atzerritarra izateagatik eta beltza edo kaukasoar zuria ez den kolore batekoa izateagatik: “Leku pila batera bidali dut curriculum-a, baina inork ez dit hots egin. Ba al dakizu zergatik? Arabiar izena dudalako eta musulmana naizelako”⁴⁴. Halaber, arrazoi horiek direla medio, gerta daiteke lanean abusatzea edo sexualki abusatzea.

Errepara diezaiegun xehetasun handiagoz etorkinen familiei. Nahiz eta seme-alabak dituzten familiak nagusi izan, familia gurasobakarren buru diren emakumeen ehunekoa, batez bestekoaren aldean, kontuan hartzekoa da. Datu horrek zerikusia du bikote-harreman motekin: EAEn bizi diren etorkinen erdiak ezkongabeak dira, eta hamarretik ia lau ezkondata daude. Gizonen artean, gero eta handiagoa da ezkontzen diren gizonen ehunekoa. Emakumeen artean, berriz, gora egin du –beren pisu estatistikoari dagozkion marjina estuen barruan, betiere– bananduta, dibortziatuta eta alargun dauden emakumeen ehunekoak. Emakume askok familia dute. Dena den, kontuan hartzekoa da harreman bat bertan utzi duten emakumeen kopurua. Gure aburuz, harreman bat bertan behera uztea da migrazio-prozesua abiarazten duen faktoreetako bat –horretan lagungarria izan daiteke behinik behin– edo distantziaren eta bizitzako helburuak berriro zehaztearen ondorioetako bat; izan ere, emigrazioak bizitzako helburuak berriro zehaztera eramaten gaitu.

Asoziazionismo-maila oso txikia da. Gizarte-testuinguruak ezartzen dituen mugak ez ezik (euskal gizarteak ez du elkarteak sortzeko joera handirik), gizarteratze eskasaren ondorioz etorkin askok dituzten zailtasunak ere kontuan hartu behar dira; esate baterako, gerta daiteke baliabide ekonomiko gutxi izatea, elkarteko bilera-orduak laneko ordutegiarekin bateragarriak ez izatea, elkartea etxetik urrun egotea edo etorkin-taldeak heterogeneoak izatea. Askotan, etorkinak egoera jakin bati buruzko laguntza eskatzera joaten dira elkarteetara, baina ez dira elkarteko kide bilakatzen. % 4k soilik parte hartzen du etorkinen talde informaletan (gizonek gehixeago emakumeek baino), etorkinei laguntza emateko elkarteetan eta heziketa- eta kultura-taldeetan (azken horretan, emakumeek gehixeago gizonek baino). Bestalde, gizonen eta emakumeen % 8k soilik parte hartzen du erlijio-taldeetan. Magrebeko⁴⁴ eta, oro har, Afrikako etorkinen artean, gero eta emakume gehiagok parte hartzen dute halako taldeetan.

⁴⁴G-1: Marokoko emakume bat. Ikus ALFONSO PÉREZ AGOTE, BENJAMÍN TEJERINA ETA MARGARITA BARAÑANO, lehen aipatutako lana, 233. or

⁴⁵Dena den, parte-hartzearen ezaugarriei dagokienez, emakume gutxik hartzen dute parte magrebtar elkarte-sarean. “Emakumeei portaera horri buruz galde egin genienean, haietako batzuk oso zorrotz agertu ziren esatean ez dutela elkarte mistoetan lagundu nahi eta emakume etorkinen talderik ez dagoela [gero ikusiko dugunez, EAEn erlijio-aniztasunari buruzko azterlanaren arabera, badaude halako elkarteak] (...) elkarte-mugimenduan parte-hartzerik ez izateak agerian uzten du berriro eremu publikoan komunitateak agertzen duen sexuaren arabera banaketa. Horrela, emakumeek, ahal dutenean, bere egingo dituzte gizonei utzitakoak ez diren eremu eta jarduerak.” (Ikus JUAN LUIS FUENTES eta TRINIDAD L. VICENTE, lehen aipatutako lana, 199-200 or.)

Kultura- eta erlijio-nortasunari eutsi edo aldatu

Inkesten emaitzen arabera, EAEn bizi diren etorkinen hiru laurdenek diote ez dutela bere burua talde batekin identifikatzen. Dena den, etorkinen artean alde handiak daude jatorriaren arabera. Senegaleko gizonen % 60k (eta emakumeen % 40k) eta Magrebeko emakumeen eta gizonen % 50ak (emakume baino gizon gutxiagok) dio erlijioaren bidez identifikatzen duela bere burua. Bestalde, batez beste, % 5ak soilik du lurralde-lotura. Dena den, Txinako etorkinen artean, ehuneko hori boskoiztu egiten da. Halaber, gutxi identifikatzen dute beren burua etniarekin eta kulturarekin, Magrebeko eta Senegaleko etorkinak salbu. Bi leku horietan, erlijioa eta kultura aski lotuta daude. Oro har, etorkinek ez dute bazterkeriarik pairatzen atzeritarrak izateagatik, arrazagatik edo erlijioagatik. Dena den, hori aldatu egiten da generoaren eta jatorrizko herrialdearen arabera. Hauek dira, hurrenez hurren, estigmatizatuen sentitzen diren emakumeak: Latinoamerikako emakumeak –batez ere, aurpegi indigena dutenak–, Magrebekoak eta errumaniarrak⁴⁶.

Gizon eta emakume etorkin gehienek ohiturei eutsi nahi diete hurbileko eremuan eta eremu intimoan eta pribatuan; esate baterako, familian eta lagunartean. Dena den, emakumeek irimotasun handiagoz eusten diete ohiturei: etxea sorterriko kultura eta erlijioa gordezko leku pribilegiatu bat bilakatzen da, babes-leku bat; izan ere, askoren ustez, kaltegarria da etxetik kanpo dagoena⁴⁷. Halaber, etorkin gehienek (ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean) sorterriko sinesmenei eta erlijio-ohiturei eusten diete; batez ere, etorkin musulmanek. Ildo horretatik, Senegaleko gizonek, Aljeriako eta Marokoko emakumeek eta Txinako⁴⁸ etorkinek eusten diete zintzoen liturgia zibil eta erlijiosoei. Etorkinei galdetu diegu ea beren kulturari eta ohiturei uko egingo lieketen soldata eta gizarte-posizio hobeto baten truk. Emaitzak bat datoz aipatutako datuekin. Emakume musulmanek beste taldeek baino gehiago defendatzen dituzte beren tradizioak. Nekez uzten dute % 15 eta % 20 arteko tarte (gizon musulmanak eta gainerako erlijioetako kideak tarte horretan daude). Halaber, musulmanek eta ortodoxoek beste erlijioetako kideek baino sinesgarritasun handiagoa ematen diote asimilazioaren tesiarri. Tesi horren arabera, onartuak izan daitezten, beren kulturari uko egiteko exijitzen die euskal gizarteak.

Etorkinen ehuneko handi bat *hemengo janaria eta edariak kontsumitzera* ohitu da. Magrebeko emakumeek dute zailtasun handien gure ohitura gastronomikoetara ohitzeko. Halaber, inkesta egin dutenen erdiek baino gehiagok diote hemen bizi arren maiz janzen direla sorterriko jendea bezala. Sexuen arteko aldeak, oro har, ez dira adierazgarriak. Edonola ere, Aljeriako etorkinen kasua paradigmaticoa eta berezia da: hamar emakumetik zortzik jatorrizko herrialdeko jantziak erabiltzen dituzte; aldiz, gizonen erdiak besterik ez du hori egiten. Emakumeen eta gizonen arteko aldeak argi uzten du sorterriko gizarte-aldaketek edo/eta immigrazioak ez dutela eragin bera emakumeengan –kultura- eta erlijio-

⁴⁶Errealitate hori beste ikuspuntu batetik ikusita, Kolonbiako, Ekuadorreko eta Peruko gizonen eta emakumeen ia erdiek diote arrazismoarekin edo xenofobiarekin lotutako esperientziaren bat pairatu dutela –esperientzia batzuk beste batzuk baino larriagoak badira ere–. Magrebeko etorkinen ia % 30ak dio halako esperientzia bat pairatu duela; dena den, Magrebeko etorkinen artean, emakume baino gizon gehiagok diote halako jarrerak pairatu dituztela. Hona hemen bereizkeria-egoera larrien estatistika-datu batzuk: emakumeen % 40k dio irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak pairatu dituela, eta % 18k, erasoak, jazarpenak, tratu txarrak eta indarkeria pairatu dituela. Horren kontrara, emakumeek eta gizonen ez dute arrazakeriarik eta gaitzespenik pairatu erlijioaren kausaz.

⁴⁷Emakume etorkin batek esan zuenez “Etxean, ateko etxea ireki bezain pronto, ahaztu egiten duzu Espainian zaudela, atea ireki, sartu eta itxi, eta ordurako ez zaude Bilbon, Marraketxen zaude, marokoar estiloko pisua, marokoar estiloko egongela, marokoar janaria, arabieraz besterik ez dugu hitz egiten” (Ikus ALFONSO PÉREZ AGOTE, BENJAMÍN TEJERINA ETA MARGARITA BARAÑANO, lehen aipatutako lana, 104. or.)

⁴⁸Senegaleko emakumeen % 86 eta gizonen % 65; Aljeriako emakumeen % 66; Marokoko emakumeen % 59; Txinako emakumeen % 68 eta gizonen % 60. Beste etorkin-taldeen aburuz, Txinako etorkinen komunitatea oso itxia da: ez dute gaztelaniaz hitz egiten, eta beren etnia- eta kultura-taldeko kideekin soilik izaten dituzte harremanak eta sortzen dituzte negoziok. “Beren saltokiak dituzte, eta dena beren artean egiten dute. Langileak eta isilak direla esaten dute”.

tradizioen ikur nagusia dira— eta gizonengan. Ikuspegi dogmatikoenaren arabera, emakumeen janzkerak familiaren eta gizartearen egonkortasunari eusteko balio du. Emakumearen gorputza bekatua da. Alde horretatik, emakumeen jantzi tradizionalen helburua da gizonek haragizko bekatua ez egitea. Halaber, jantzi horien bidez, hainbat gauza lortzen dira: emakumeak edertasun fisikoarekin soilik ez lotzea, zaintzarekin lotutako genero-rolak sendotzea eta gizonek emakumeei eraso ez egitea⁴⁹.

Edonola ere, azpimarratu behar da erlijioek emakumeei jantzarazten dizkieten beloek —bai eta moja kristauen beloak ere— emakumeen mendekotasuna adierazten dutela sinbolikoki janzkeraren bidez. Hala lortzen da emakumeak ikusezin izatea eta gizonengandik bereiztea; hori agintzen dute liburu-erlijio (kristautasuna, judaismoa eta islama) guztietan aipatzen diren purutasunaren eta ezpurutasunaren legeek, hain zuzen ere. Gizonen eta emakumeen arteko bereizketa horren adibide da dikotomia hau: sakratua/gizonezkoa/publikoa/purua vs. profanoa/emakumezkoa/pribatua/ezpurua. Islamiarren artean, hainbat belo mota daude. Belo horiek emakumeen gorputza estaltzen dute, batzuek beste batzuek baino gehiago. Belo mota bakoitzak oihartzun ezberdina du iritziz publikoan. Egunero erabiltzen duten emakumeentzat ere esanahi ezberdinak ditu. Batzuek beren gizartearen ohitura bat delako jartzen dute edo/eta beren kultura-nortasunari eusteko elementu bat delako edo beren burua babesten laguntzen dielako —ez ditzaten gogait, irain, gaizki trata, etab—. Beste batzuk kentzera behartuta daude, indarkeriaren arrazistaren, xenofobiaren eta islamofobiaren beldur direlako, ondorio negatiboak dituelako lanpostu bat eskuratzeko edo lanetik bota ez ditzaten⁵⁰. Horrenbestez, ez dira libre jartzeko, ez eta ez jartzeko ere. Horiek horrela, komunitate etniko eta erlijioso itxietan bizi eta gizarte-kontrola handia duten emakumeen kasuan, zaila da jakitea zenbateraino jartzen duten beloa nahita edo zenbateraino behartuta. Gutxiengoan dagoen emakume batzuek mundu modernoari uko egiteko erabiltzen dute; izan ere, haien ustez, mundu modernoan dena azakeria hutsa da, eta balio estetikoak soilik hartzen dira kontuan. Beste emakume musulman batzuk jatorrizko herrialdeetan espazio publikoak okupatzeko hasi dira beloa erabiltzen; izan ere, beloa erabiltzeak horretan laguntzen diela konturatu dira. Hortaz, islamiar emakumeek ez dute amaren belo tradizionala hartzen; izan ere, haientzat, ezjakintasunaren, superstizioaren, itxita bizitzaren eta hezkuntzaren bidez atzean utzi duten guztiaren ikurra da. Alderantziz, arbasoekiko lotura mozteko erabiltzen dute “hiyaba”⁵¹. Dena den, ez dezagun ahaztu belodun emakume musulmanek defendatzen duten proiektua, muturreko kasuetan, arriskutsua dela demokraziarentzat, eta, beraz, emakumeen eskubideentzat.

⁴⁹“Janztean, emakumeek ez dute beren gorputzaren silueta nabarmendu behar... Bai, hobe da hala. Begira! Munduko emakume guztiak hala jantziko balira, nire ustez orain gertatzen diren emakumeen aurkako egintza kriminalak ez liriteke gertatuko. Emakumea zera da... familiaren oinarria, hark agintzen du etxean, hark hezten (Ikus JOSÉ LUIS FUENTES eta TRINIDAD L. VICENTE, lehen aipatutako lana, 117-118 or.).

⁵⁰Bertako biztanleek hezkuntzarik eta prestakuntzarik ez izatearekin lotzen dute zapiak erabiltzea: “Emakume batekin hitz egiten ari naiz eta, esate baterako, zera esaten dit, oso ondo hitz egiten duzu gaztelaniaz; gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta arabieraz hitz egiten dut, bai eta marokoeraz, bereberez eta beste hainbat hizkuntzatan, harritu egiten dira. Baina, nola liteke? Zapia daramazu eta hizkuntza horiek guztiak hitz egiten dituzu. Baina, zer ikusia du zapiak nortasunarekin? Ez du itxurarekin zerikusirik. Literatura ingelesa ikasi dut unibertsitatean; Turismoa ikasi dut Marokon, Turismoko goi-mailako institutuan (G-3 Magrebtarra, Ikus ALFONSO PÉREZ AGOTE, BENJAMÍN TEJERINA eta MARGARITA BARAÑANO, lehen aipatutako lana, 126-127 or.). Latinoamerikako emakume indigenentzat, bi ahoko ezpata da jantzi tradizionalak erabiltzea: onuragarria da artisaunen merkataritzan bezeroak erakartzeko, baina desegokia da bestelako lanak egiteko.

⁵¹“(…)emakume islamistek, konpromiso eta militantzia erlijiosoaren bidez, emakumearen estatutu tradizionala aldatu dute. ‘Hiyaba’ erabiltzen hasten direnean —batez ere, norberaren kulturaren alde egiteko balio du; zehazki, emakumeei sentiarazten die beren kultura eta zibilizazioa berreraikitzearen alde ari direla—, islamarekin hartzen duten konpromisoari esker, militante diren aldetik zenbait jarduera egin ditzakete bizitza publikoan —esate baterako, emakumeen artean proselitoak lortu—. Nahiz eta gizonek haien esku utzitako jarduerak izan (...) haien gizarte-ingurune murriztean kostata izango luketen eginkizun bat ematen diete (...) Erljioaren eta ideologiaren bilakaera horrek emakumearen banakotasuna sortzea dakar. Bestalde, islamaren izenean egiten denez, bat ez datozenen desadostasuna hutsaren hurrengo bilakatzeko da; izan ere, esparru sakratu batean, hots, erlijioaren esparruan, egiten da” (GENMA MARTÍN, “Fundamentalismo islámico y violencia contra las mujeres. Las razones de un falso debate” in MARÍA DOLORS RENUAU -konp-, *Integrismos, violencia y mujer*, Pablo Iglesias, Madril, 1996: 56-57 or.).

Beren ohituren arabera jateko, janzteko, orrazteko, sorterrian dagoen jendearekin komunikatzeko eta, oro har, behar kulturalak asetzeko, etorkinek irabazi-asmorik gabeko saltokiak sortzen eta kudeatzen dituzte. Saltoki horiek taldearen kohesioa indartzen dute: "ilea moztea nahi ez duen jendea, baina hara joaten da hitz egitera"⁵². Bestalde, jatorri bereko etorkinen ohiko erlijiozkotasunari eta erlijioaren antolamendu instituzionalari esker, batzuetan loturak sortzen dira etorkinen artean –lotura batzuk beste batzuk baino estuagoak izan ohi dira–; izan ere, erlijioak habitat pribilegiatuak bilakatzen dira. Erlijioei esker, beren kultura bizitzen dute, beren hizkuntzaren, irudien, kultura- eta erlijio- festen eta identitate etnikoa eta erlijiosoaren sendotzen duten eguneroko ohituren bidez. Zehazki, erlijioek ondasun materialak ematen dituzte, eta ondasun horiek baliagarriak izan daitezke etorkinentzat atzerrian finkatzen laguntzeko, sustapen sozioekonomikoa bultzatzeko, existentziaz seguru egoteko eta komunitate baten kide direla sentiarazteko. Hala eta guztiz ere, beste alde batetik ikusita, erlijioa beren bizitzan sartu aurretik, etorkinek bizitzan egonkortasuna lortu behar dute –“*lehenengo ogia eta gero arrosak*” esloganak laburbiltzen du ideia hori–. Zenbat eta gizarte-botere handiagoa izan etorkinen kolektiboek, hainbat eta instituzionalizatuago egongo dira erlijioak; izan ere, presioa egiteko eta negoziatzeko ahalmena izango dute, eta hala, baliabide materialak eta sinbolikoak eskuratu ahalko dituzte⁵³. Halaber, erlijio-komunitate jakin bateko kide izateak erreakzio bortitzak, neopatriarkalak eta defentsazkoak eragin ditzake, baldin eta ingurunea etsaitasunez hartzen bada. Talde barruko ezberdintasunak sinplifikatu egiten dituzte, eta ezberdintasun horiek botere-estrategien mende jartzen. Emakumeen duintasuna eta askatasuna zalantzan jartzea da botere-estrategia horien funtsa, hain zuzen ere. Etorkin batzuek bertako herritarren bizimodua arriskuan jartzen duten galdetu diegu, eta askogatik ez bada ere, gehiengoak –batez ere, emakume musulmanek– uste du hori ez dela hala. Edonola ere, laurdenak gauzak beste modu batera ikusten ditu.

Erlijioso-kongregazioen eta misiolari-komunitateen laguntza dela bide, Latinoamerikako eta Afrikako etorkin katolikoen erritualak oso errotuta daude sorterriko kulturetan. Aski zabaldu-tako zenbait debozio (Andre Mariaganako debozioa)⁵⁴ eta ohitura (esate baterako, bederatzaurrenak eta etxebizitzak bedeinkatzea) ez datoz bat EAEko gaur egungo errealitate erlijiosoarekin. Hori dela eta, eremu pribatuan edo etxean egiten dituzte. Hala, eremu horiek elkarrekin egoteko espazio pribilegiatu bilakatzen dira, batez ere emakumeentzat. Errumaniar sinestunek pribatuan egin behar dituzte liturgiak, batez ere, Pazkoko eta Eguberritako liturgiak: batetik, Eliza ortodoxoa EAEn berri samarra delako; eta bestetik, liturgia-egutegia eta egutegi zibila ez datozelako bat. Musulmanek beren sinesmen eta erritu garrantzitsuenei eusten diete; esate baterako, Ramadan hilabeteko baraualdia amaitzeko egiten den festari. Dena den, errituak “*ospatzeko modua*” aldatzen ari da. Are gehiago, festa batzuk alde batera uzten dituzte; izan ere, EAEn Islama ez da gehiengoaren erlijioa, eta, beraz, nekez izango du eraginik espazioen banaketan eta egutegi publikoan.

Latinoamerikako etorkinen artean, gizon baino emakume askoz gehiago joaten dira erlijio-espazioetara. Musulmanen artean, segregazio espaziala eta Islamaren ortodoxiak bultzatzen duen bazterkeria direla eta, ia beti gizon gehiago egoten dira meskitetan eta otoizte-gietan. Horrek esan nahi du emakumeak baztertuta daudela; izan ere, ez dituzte leku horietan sortzen diren harremanak eta bizi aukerak⁵⁵. Dena den, badira emakume musulmanen

⁵²G-4 Saharaz hegoaldekoak Ikus ALFONSO PÉREZ AGOTE, BENJAMÍN TEJERINA ETA MARGARITA BARAÑANO, *lehen aipatutako lana*, 105. or.

⁵³Ikus FERNANDO VIDAL eta JULIO MARTÍNEZ, *Religión e integración social de los inmigrantes: la prueba del ángel*, Comillas-CEIM-Bancaja, Madril-Valentzia, 2006.

⁵⁴Latinoamerikako tradizio katolikoan, Andre Mariaganako debozioa anibalentea da; batetik, molde patriarkalen eraginpean dagoen emakume-eredu bat transmititzen du; eta bestetik, elkartzeko eta sareak ezartzeko modu positibo bat da emakume etorkinentzat.

zenbait elkarte. Elkarte horiek zenbait meskita bezain zaharrak dira EAEn⁵⁶. Egoera hobeto ulertzeko, kontuan hartu behar dugu zer egoera bizi duten emakumeek sorterriko gizartean. Ahaidetasun-sistemek eta, hortaz, familia-kode patriarkalek baldintzatzen dute haien egoera, bai eta juridikoki eta politikoki ere. Alde horretatik, duela hiru hamarkada arte Espainian indarrean zeuden lege-xedapenak eta tradizioak gogorarazten dizkigu horrek. Haien zuzen, musulmanen kolektiboan agian beste kolektiboetan baino nabarmenagoak dira sektore tradizionalak eta sektore kritikoeak hainbat gairi buruz dituzten barneko eztabaidak; hala nola, zeinuak eta ikurrak esparru publikoan egoteari, meskiten eta otoiztegien segregazioari eta ezkontza mistoei buruzko eztabaidak. Azken batean, emakumeen askatasuna da eztabaidagaia. Erlijio horretan, ohiturak galtzen ari diren arren, norbanakoaren autonomia ez du arauen eta komunitatearen esparruan argi eta garbi gora egiten, ez eta belau-naldi gazteenetan ere⁵⁷.

BALANTZEA ETA AZTERKETAREN IKUSPEGIA

4.4.4

Orain arte egindako azterlan enpirikoen bidez, oro har, gehiago dakigu migrazioari buruz eta, batez ere, gizartean, ekonomian eta politikan duen eraginari buruz. Kulturaren eta erlijioaren esparruari buruz egin izan diren azterlanetan, ez zaio behar adinako garrantzia eman genero-ikuspegiari; ziur asko, ez garelako jabetzen zenbateraino erabiltzen dituzten kultura eta mundu-ikuskerak erlijioso guztiek emakumeak beren kultura edo mundu-ikuskerak definitzeko eta iraunarazteko. Horrek azal dezake –eta ez beste ezerk– talde fundamentalistek emakumeak moralki eta sozialki kontrolatzeko duten obsesioa. Esparru horretan, bete beharreko hutsune handi bat dago, beraz.

Funtsezkoa da emakumeen migrazio-proiektuetan eta proiektu horietatik sortzen diren gizarte-sareetan genero-erolek eta ahaidetasun-egiturek zer eragin duten jakitea. Horretarako, argitu egin beharko da nola aldatzen diren familia- eta kultura-taldeen barruko botere-hierarkiak gizarte hartzailean, eta sakon aztertu beharko dira gurasobakarreko familiak eta familiarekin bildutako emakumeak.

Bestalde, aztertu egin behar da zer garrantzi duen mundu-ikuskerak erlijiosoak erlijio, etnia eta herrialde ezberdinetako etorkinen kulturaren, nola aldatu diren erlijioaren, politikaren eta kulturaren arteko loturari buruzko gizarte-adierazpenak eta zer eragin izan duten aldaketa horiek etikaren eta arauen aldetik emakume etorkinen eguneroko bizitzan. Kontuan hartu behar da emakumeen kolektibo batzuek (esate baterako, Magrebeko, Senegaleko eta Txinako emakumeek) sutsuki egiten dutela beren kultura-eta erlijio-errien alde.

Halaber, funtsezkoa da harreman-ohitura endogamikoek eta exogamikoek zer potentzialtasun eta muga dituzten aztertzea, bai eta potentzialtasun eta muga horiek estereotipo eta

⁵⁵Ikuspegi tradizionalaren arabera, meskita gizonentzako topaleku bat da soilik, edo, izatekotan, purutasunaren eta ezpurutasunaren logikaren arabera bereizitako eremu sakratu bat. Hilekoa dela eta, emakumea ezpurutasunarekin eta bekatuarekin lotuta dago. Bereizketa horrek gizarte-eremuan eginkizunak bereiztea bat dakar: gizona/hornitzailea eta emakumea/ugaltzailea.

⁵⁶“Alde horretatik, Safa deritzon emakume musulmanen elkarteak aitzindaria da: Eibarko meskitarekin batera sortu zen, eta gaur egun, 75 kide ditu” (Ikus EDUARDO J. RUIZ VIEYTEZ (zuz.), *La diversidad religiosa en el País Vasco. Nuevos retos sociales y culturales para las políticas públicas*, Deusto Argitalpenak, Bilbo, 2011, 33. or.).

⁵⁷Ikus MARCO BOTEMPI, “Individualización y transformación de las identidades religiosas”, *Sistema* 197-198 (2007ko maiatza) 90

aurreiritzi etniko, erlijioso eta kulturekin zer lotura duten aztertzea ere –aurreiritziak ezitu egiten dira estatus sozioekonomikoaren arabera–. Hain zuzen, etorkinen eta gizarte hartzailearen arteko hartu-emanei eta emakume etorkinen gizarteratzeari begira, erlijiozeinu eta -ikurrek eginkizun garrantzitsua dute. Ezin dugu alde batera utzi zeinu eta ikur horiei buruzko eztabaida filosofikoa eta etikoa, funtsezkoa da eta.

Ezinbestekoa da bigarren belaunaldiko etorkinei arreta berezia ematea jakiteko zenbateraino diren onegarriak erabateko edo hautazko akulturazioari buruzko tesiak ('bigarren belaunaldiko etorkina' terminoa ez da guztiz egokia; izan ere, askotan, EAEn jaiotako emakumeak izaten dira). Familia osoen luzetarako azterketa bat egitea izango litzateke egokiena. Baina, halakorik ez dagoenez, adina kontuan hartu beharko litzateke hipotesiak egiteko, datuak biltzeko eta teoriak kontrastatzeko; izan ere, kulturaren ikuspegitik ikusita, adinak garrantzi handia du.

EAEKO EMAKUME ETORKINEN BIKTIMIZAZIOA

Ana Pérez Machío y Laura Pego

4.5

Kapitulu honetan, agerian jarriko ditugu EAEko emakume etorkinen biktimizazioaren kausak eta hipotesi zehatzak. Kapituluak bi atal ditu.

Lehenengoan, galdera honi erantzungo diogu: zergatik izan ohi dira emakume etorkinak delituen biktimak? Hiru funtsezko gai jorratuko ditugu: bat, generoa eta biktimizazioa: biktimizazioa ezin da generoaren bidez soilik azaldu; bi, kultura-aniztasuna: kultura-aniztasuna arrisku-faktore bat da; eta hiru, emakume etorkinak eta administrazio-egoera: emakume etorkin batzuk legez kanpoko administrazio-egoeran daude.

Bigarrenean, emakume etorkinak EAEn zer delituen biktima izan ohi diren zehaztuko dugu. Azterlan honetan, lau delitu mota hauetan jarriko dugu arreta: bikotekidearen aurkako indarkeria-delituetan, sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituetan, emakume langileen eskubideen aurkako delituetan eta pertsonen legez kanpoko salerosketaren eta trafikoaren delituetan.

Ikerlan batzuen emaitzei egingo diegu erreferentzia. Ikerlan horiek KREIk (EHU) egin ditu “biktimak diren emakume etorkinak” ikerketa-ildoaren baitan. Kapitulu honen egileek ikerlan horietan parte hartu dute.

EMAKUME ETORKINEN BIKTIMIZAZIOAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREEN PROBLEMATIKA: HURBILKETA BAT

4.5.1

Batek baino gehiagok azpimarratu izan du generoa, hots, emakumeek bizi duten desberdintasun estrukturala, dela gizonen emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeriaren funtsezko kausa. Dena den, kolektibo ahulei buruzkoa bada problematika, ezinbestekoa da biktimizazio-egoera zer adierazlek indartzen duten zehaztea. Txosten honen aztergaia, hots, atzerriko emakume etorkinen kolektiboa, kolektibo horietako bat da.

Alde horretatik, ez dugu ukatzen generoak edozein motatako indarkeria eragiten duenik⁵⁸, ez eta indarkeria emakumeak mendean jartzeko tresna bat denik ere, beste arrisku-faktore batzuei heldu nahi diegu, besterik gabe. Generoak ez ezik, faktore horiek ere jokaera bidegabe jakin batzuen biktima potentzial bilakarazten dituzte atzerriko emakume etorkinak.

⁵⁸LARRAURI PIJOAN, *Criminología crítica*, 32. or.

Kultura anitzeko gizarteetan, emakume etorkinen aurkako indarkeria ezin da generoaren bidez soilik azaldu

Gaur egun, mundu globalizatu honetan, tesi hori beste gizarte batzuetako elementuekin osatzen da. Gizarte horiek heldutasun demokratikoa lortzen saiatzen ari dira, eta ez dute parte-hartzean eta berdintasunean oinarritutako sistema politikorik; hau da, emakumeek eta oro har herritar guztiak askatasunak eta eskubideak erabili ahal izatea bermatzen duen sistema politikorik⁵⁹.

Alde horretatik, zilegi da esatea demokrazia-urritasunaren problematika eta pertsonen oinarritzko eskubideak bermatzen ez dituzten gizarte-egituren baldintzatzaileen problematika⁶⁰. Lehen munduko herrialde deritzenetara zabaltzen ari direla. Globalizazio-mugimenduaren ondorioz, herrialde horiek emakume etorkin kopuru eder bati esker indartzen ari dira egunez egun. Migrazio-fluxuen ordezkari diren emakume horiek⁶¹, ordea, ez dute askatasunik, berdintasunik eta giza eskubiderik⁶².

Gaur egungo feminismoak multikulturalismoari egin behar dio aurre. Gizarte demokratikoe-tan gehiengoaren onarpena izateko adinako adimen-maila lortu ondoren –hasieran, lortu ezina zirudien maila horrek–, immigrazioaren eta gizarte globalaren fenomenoek gaur egun beste erronka bat jarri dute mahai gainean, eta ez dirudi erronka hori erraz gaindituko dugunik⁶³. Beste herrialde batzuetako emakumeak iritsi dira, beren kultura-, erlijio- eta gizarte-ondarea eta guzti, eta horrek problematika bat ekarri du berekin. Problematika ez da etorkinak gizarteratzea, baizik eta gizarteak onartzea. Alde horretatik, gizarteak bermatu egin behar die Estatuan dauden pertsona guztiei, bai eta emakume etorkinei ere, haien giza eskubideak eta, zehazki, berdintasuna errespetatuko direla⁶⁴. Bestela, horrek esan nahiko luke feminismoa klase ertaineko emakume zuri eta heterosexualek emantzipazio-mugimendua izan dela⁶⁵.

⁵⁹VALCARCEL, *La memoria colectiva y los retos del feminismo*, 29. or. Halaber, alde horretatik, Celia Amorosek “La idea de igualdad” idazkiko 2. orrialdean azpimarratzen duenez, feminismoa hasi zenetik, “biztanleria” izan da irabazi gabeko apustua. Biztanleria gizonen eremua izan da eskusiboki. GERHARD, “Atempause: Die aktuelle Bedeutung der Frauenbewegung”, 6. or.; egile bera, “Frauenbewegung und Ehekritik”, 60. or. Egile horrek azpimarratzen duenez, gizartearen esparru guztietan baliozko justizia-ereduak aldarrikatzen dituen gizarte-mugimendua den aldetik, feminismoari garrantzi handia eman behar zaio.

⁶⁰DÛRKOPen aburuz (ikus “Feminismus und Labeling-Approach”, 279. or.), emakume guztiak, edozein gizarte-estatus dutela ere, berdina dira, eta horretatik, feminismoaren erronka handiena genero-berdintasuna lortzea dela kontuan hartuta, feminismoak gogor lan egin behar du legez kanpoko emakume etorkinen eskubideak bermatzeko; izan ere, haiek daude egoera ahulenean gizarteetan. HARDINGen aburuz (ikus *Feministische Wissenschaftstheorie*, 13. or.), emakumeak biktima bihurtzen dituzten desberdintasun sozialei buruzko ikusmoldea da, hain zuzen ere, gaur egungo feminismoaren erronka nagusia. Ikus, halaber, YOUNG, “Humanismus, Gynozentrismus und feministische Politik”, 63. or.

⁶¹JULIANOK azpimarratzen duenez (ikus *Excluidas y marginales*, 175. or.), hainbat eta hainbat saiatu dira emakumeen migrazioaren eragina gizonen migrazioaren eraginarekin lotzen; dena den, emakumeen migrazioak eragin handiagoa du espazioan eta denboran. Gaur egun, eskura ditugun ereduak ezin dugu eragin hori guztiz ulertu. Ildo beretik, RIBAS, ALMEDA, BODELÓN, *Rastreado lo invisible*, 50. or.; RUIZ OLABUÉNAGA/ARISTEGUI FRADUA/VICENTE TORRADO, “La sociedad migrante”, 61. or.

⁶²VALCARCELe (ikus *La memoria colectiva y los retos del feminismo*, 10. or.) feminismoaren bilakaera aztertu du, eta hizpidera ekarri du ilustrazioan feminismoaren hastapenetan gertatutako antzeko egoera bat: emakumei ez zegokien esparru publikoa eta politikoa, baizik eta etxekoa eta pribatua. Emakumeak ez ziren hiritar kategorian sartzen, baizik eta beheagoko kategorian, eta Estatuaren barruan ordena naturala iraunarazten zuten. Ez ziren hiritarrek, baizik eta ama eta emazteak. Hori bera azpimarratzen duete KIMek (ikus “Die Auswirkung der Globalisierung”, 181. or.) eta SMITHe (ikus “Eine Soziologie für Frauen”, 378. or.)

⁶³KIMek azpimarratzen duenez (ikus “Die Auswirkung der Globalisierung”, 191. or.), globalizazioa aukera ona izan daiteke, baldin eta alderdi guztiak onetsitako gizarteratzea badu xede.

⁶⁴Hain zuzen, gizarte kultura anitzen ezaugarriak ikusita, berdintasunaren errespetua izan behar da gaur egungo feminismoaren kezka. Alde horretatik, ikus DÛRKOP, “Feminismus und Labeling-Approach”, 279. or.; GERHARD, “Atempause: Die aktuelle Bedeutung der Frauenbewegung”, 12. or.; GOULD, “Private Rechte und Öffentliche Tugenden”, 67. or. ALTHOFF/LEPPELT, “Feminismus und Foucault”, 109. or.

Emakumeek bizi izan dituzten mendekotasun- eta desberdintasun-harremanak emakume direlako bizi izan dituztela esan izan da, eta halaxe da. Dena den, globalizazioaren eta emakumeen lekualdatzeen aroak beste arrisku-faktore batzuk ekarri ditu; esate baterako, kultura anitzeko gizarteen kultura- eta erlijio-aniztasuna eta emakume jakin batzuen administrazio-egoera. Faktore horiek ere emakume etorkinen biktimizazioa eragiten dute.

7.1.2. Kultura-aniztasuna: kultura anitzeko gizarteetan bizi diren atzerriko emakume etorkinentzako arrisku- eta zaurgarritasun-faktore bat

EAERI dagokionez, etengabeko migrazio-fluxuen eta fluxu horiek dakarten kultura-ondarearen ondorioz, gure gizarte tradizionala aldatzen ari dira; azken hamarkadetan, kultura-aniztasuna gero eta arinago ari da gailentzen. Alde horretatik, kultura-aniztasuna kontzeptuak zera dakar berarekin: edonork exijitu ahal izatea kulturen eta ideologiaren arteko aldeak errespetatzea⁶⁶.

Kultura anitzeko gizarteen kultura-, gizarte- eta erlijio-aniztasuna aberasgarria da gizartearentzat eta gizabanakoentzat. Horregatik, errespetatu egin behar da; betiere, ez badu Giza eskubideen aldarrikapen unibertsalaren edukien aurka egiten⁶⁷. Jakina denez, batzuetan gerta daiteke kultura baten bereizgarri batek giza eskubideak urratzea. Horren adibide nabarmenak dira, besteak beste, ablazioa eta ezkontza behartuak; izan ere, nahiz eta emakumeen eskubideak argi eta garbi urratu eta Espainiako arauen aurkakoak izan, oraindik ere noizean behin gertatzen dira.

Horrenbestez, kultura-aniztasunaren ikuspuntutik, baieztatu dezakegu badaudela faktore batzuk elkarri lotuta jokabide bortitzak bultzatzen dituztenak eta, horren ondorioz, emakume etorkinak horrelako jokabideen biktima potentzial bilakarazten dituztenak. Oro har, emakumeek eta, zehazki, emakume etorkinek jasan behar izan duten mendekotasun-egitura abiapuntutzat hartuta, gaur egun, gizarte demokratiko guztien berdintasun- eta askatasun-printzipioak hausten dituzten arrasto kultural, erlijioso eta sozialek lehengoan dira. Emakumeei eginkizun eta rol jakin batzuk ematen zaizkie. Emakume izatearen oinarritzat hartu izan diren eginkizun eta rol horiek besteekiko mendekotasunean eta sakrifizioan oinarritutako harreman pertsonalak bultzatzen dituzte. Halako harremanen ondorioz, emakumea gutxien eta, askotan, gizartetik baztertzen da⁶⁸.

“Gertaera bereizle edo kulturek” –hau da, herrialde jakin batzuen aspaldiko ohituretan oinarritu eta kolektibo edo talde jakin batean gailentzen diren bereizgarriek– maiz ezkutatzen dute genero-zapalkuntzan funtsatzen den gizarte-egitura patriarkal jakin bat. Emakumeek zapalkuntza hori jasan dute historian zehar: emazte eta ama izatera eta sena-

⁶⁵AMOROS, “La idea de igualdad”, 1. or. Ildo beretik, FRASERek (ikus “Multiculturalidad y equidad entre géneros”, 41. or.) esaten du zuriak ez ziren feministek denbora askoan kritikatu zituztela feminismo mota batzuk; beren bizitzak argitzen eta beren arazoak adierazten ez zituzten feminismoak, hain zuzen.

⁶⁶SCHÖNING-KALENDERek azpimarratzen duenez (ikus “Multikulturalität -Versuch über Dimensionen von Differenz”, 3. or.), gizarte baten kultura-aniztasunak zera esan nahi du: leku eta gizarte berean bizi diren bizimodu eta orientabide-sistema ezberdinak errespetatu behar direla; hau da, gizarte jakin batean identitate eta hainbat etnia eta arrazatako gizabanako ugari elkarrekin bizi direla onartu behar dela.

⁶⁷ESCUADERO MORATALLA, “Diversos aspectos de la violencia doméstica”, 42. or. Ildo beretik, VOLZek azpimarratzen duenez, (ikus “Zwangsheirat in Deutschland”, 200. or.) adostasunik gabeko ezkontzen ondorioak, funtsean, sexu-abusuak eta presio psikologikoa dira; hitz batez, emakumeen giza eskubideen etengabeko urraketa. Hori kultura patriarkalaren ondorio zuzena da, bai eta emakumea gizonaren objektutzat hartzearen ondorio ere. 2001. urteaz geroztik, Nazio Batuek esklabotzatzen jartzen du emakumea objektutzat hartzea.

⁶⁸ESCUADERO MORATALLA, “Diversos aspectos de la violencia doméstica”, 38. or.; MAQUEDA ABREU, “La violencia de género”, 2. or. VELÁZQUEZek ondo baino hobeto esaten duenez (ikus *Violencias cotidianas. Violencias de género*, 45. or.), emakumeei pasibo, otzan eta gizonen mendeko izaten erakutsi izan diete tradizioz, eta horrek zaurgarritasuna eta babesgabetasuna indartzen du, eta biktimizazio-egoerak bultzatzen.

rraren aginduetara makurtuta bizitzera behartuta bizi izan dira, beste ezer egiteko eskubiderik gabe⁶⁹.

Horrelako ohiturek moral jakin bati eusteko balio dute. Nahi ala ez, emakume guztien helburu behinena ezkontzea da. Askotan, ezkontzea da atzerrian legekotasuna lortzeko modu bakarra. Behartuta ezkontzen direnek presio psikologiko gogorra jasan behar izan dute: senideek mehatxatu eta behartu egin dituzte, eta indarkeria ere erabiltzen dute. Alde horretatik, kultura- eta familia-esparru jakin batzuetan onartuta dago indarkeria erabiltzea. Horri kultura- eta erlijio-tradizioak galtzearen beldurra gehitu behar zaio; izan ere, askotan gizarte gehiengoak kaltegarritzat jotzen dute, eta, hori dela eta, beldur dira tradizioak galduko dituzten⁷⁰.

Acale Sánchezek azpimarratu duenez, faktore horiek bakardadera eramaten dituzte emakumeak, bai eta senideekin soilik harremanak izatera ere. Senideak bilakatzen dira emakumeen gizarte-erreferente bakarrak. Horrek azaltzen du, hain zuzen ere, zergatik egoten diren egoera ahulean eta zergatik gertatzen den “migrazioak eragindako bakartzea” deritzon fenomeno⁷¹. Emakume etorkinak “azpi-herritarrak” dira: nahiz eta askotan legez kanpo egon, gure munduan daude, baina, haatik, ikusezinak dira; izan ere, ezin dute boterearen banaketan parte hartu, ez ditugu pertsonatzat aintzatesten eta ezin dituzte erabili pertsonak eta herritarrak izateagatik dituzten eskubideak⁷².

Ikuspegi horretatik, feminismoak kultura-aniztasunaren erronkari heldu behar dio, eta kultura-aniztasuna bideratu behar du kultura artekotasuna lortzeko. Emakumeen artean itunak egin behar dira “berdintasunaren ideia” indartzeko eta genero-desberdintasuna eta beste desberdintasun batzuk (klasea, sexualitatea, etnia, arraza eta herritartasuna)⁷³ uztartzeko. Hori da “pobreziaren feminizazioari”⁷⁴ aurre egiteko bide bakarra.

Horrenbestez, kultura anitzeko gizarteetan egon ohi diren desberdintasun soziokulturalak onartzeko, desberdintasun horiek gutxienez Giza eskubideen aitorpena bete dezatela eskatzea zilegi da; batez ere, dena delako ohitura emakumeen aurkakoa bada eta kolektibo horren babesgabetasuna agerian jartzen duten zaugarritasun-faktore erabakigarrietako bat bada (babesgabetasuna diogu; izan ere, kolektiboak ohitura hori bere egiten du, eta kultura jakin bateko kide izatearekin lotzen)⁷⁵.

Amaitzeko, multikulturalismoari, genero-ikuspegi ezari eta horrek sortzen dituen gizarte-jokabide zapaltzaile eta baztertzailerei heltzen diegunean topatu ohi dugun oztopo handi-

⁶⁹LEUZE-MOHRek (ikus *Häusliche Gewalt gegen Frauen*, 331. or.), Alemanian bizi diren atzerriko emakumeei buruz ari dela, esaten du kultura-tradizio batzuk azkenean helmuga-herrialdeetara esportatzen direla eta hori dela, hain zuzen ere, arazo nagusietako bat. Alemanian, senarrarekin batera iristen diren atzerriko emakume askok ez dute erabateko askatasuna eta berdintasuna izateko beharrezkoa den independentzia ekonomikoa; izan ere, gizonak egiten dute lan; emakumeak etxeaz eta familiaz arduratzen dira. Halako egoeretan, emakumeak babesgabe egoten dira. Babesgabetasun-egoera hori areagotu egiten da indarkeria pairatzen badute. Ildo beretik, KWONGek (“Removing barriers for battered immigrant women”, 140. or.) eta ORLOFF/DUTTON/AGUILAR HASS/AMM egileek (ikus “Battered immigrant”, 82. or.) azpimarratzen dute AEBetan dauden asiar kultura gehienentzat oso garrantzitsua dela familia babestea. Ohorea eta harreman hierarkikoak direla eta, emakume askok mota guztietako abusuak pairatzen dituzte kexatu gabe; izan ere, familiaren egonkortasuna ezin da hautsi; ez dago sozialki onartuta.

⁷⁰VOLZ, “Zwangsheirat in Deutschland”, p. 200.

⁷¹Ikus, ACALE SÁNCHEZ, “Mujeres inmigrantes”, 129. or.

⁷²Hain zuzen, DE LUCASEk “azpi-herritar” kontzeptua erabiltzen du (ikus “Nuevas estrategias de estigmatización”, 215. or.). Haren arabera, “azpi-herritarren” estatus juridikoa funtsezko oinarri juridikoen ukapenean datza; izan ere, berez atzeritarrak direnez, etorkinei ez zaizkie zuzenbide-estatuaren arauak aplikatzen. Ildo beretik, ikus DE LA CUESTA ARZAMENDI, “Mundialización y Justicia penal”, 73. or.

⁷³FRASER, “Multiculturalismo y equidad entre los géneros”, 36. or.

⁷⁴AMOROS, “La idea de igualdad”, 2. or.

tako bat –gure ustez, hala da eta– ekarri nahi dugu hizpidera⁷⁶. Hain zuzen, Nashek dionez, multikulturalismoak berriro sortzen ditu mendekotasun-eskemak⁷⁷, emakumeen subjektibotasun eza eta kultura-aniztasunari eta emakumeei buruzko ikuspegi estereotipoak. Alde horretatik, kultura-aniztasunaren gaineko eztabaidan ez dira emakumeak aintzatesten eta aztertzen, eta, berez, kultura-aniztasunaren esperientzien eragile nagusiak dira. Emakumeek ezkondua, azpiratuta, gizartetik baztertuta eta senarraren aginduen mende egon behar dutela dioen eredu tradizionalari eusten diogu. Eredu hori, ordea, giza eskubi-deak batere errespetatzen ez dituzten estatuei dagokie⁷⁸.

Legez kanpoko egoera: arrisku-faktore bat

“Herritartasuna” edo/eta “nazionalitatea” kontzeptuei buruzko auzietan sakonduko ez dugun arren, ezin dugu ahaztu generoak eta kultura-aniztasunak ez ezik legez kanpoko egoeran dauden emakumeen estatus juridikoak ere biktima bilakarazten dituela emakumeak. Alde horretatik, kontuan hartu behar da emakumeek “ikusezintasuna” pairatzen dutela eta, legez kanpoko egoera dela eta, “kriminalizatu” egiten direla⁷⁹.

Giza eskubideen unibertsaltasuna alde batera utzita⁸⁰ –Giza eskubideen aldarrikapenaren arabera, pertsona guztioi pertsona izateagatik dagozkigu eskubide horiek–, legezketasun-egoerak mugatzen du zuzenbidearen aldetik nor diren “herritarrak” eta nor “azpi-herritarrak”. Hain zuzen, ikuspegi tradizionalaren arabera, legez kanpoko etorkinek lege-erregimena hausten dute, eta, horregatik, erregimen zigortzaile baten mende egotera ez ezik, egoera juridiko okerrago bat izatera ere behartuta daude; izan ere, naturalizat jotzen dugu emakume atzerritarrei legezko egoeran egon daitezela exijitzea eskubide batzuk izan eta erabil ditzaten⁸¹.

Legezko egoeran/legez kanpoko egoeran egoteak dakartzan tratu-desberdintasunak, teorian behintzat, zuzenean legezketasun-egoerarekin lotuta dauden eskubide eta askatasun jakin batzuk erabili ahal izatearekin zerikusia du. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 13.1 artikulua da, hain zuzen ere, atzerritartasun-araudiaren oinarria: “1. Atzerritarrek titulu honek bermatzen dituen askatasun publikoak izango dituzte Espainian, itunek eta legeek ezartzen

⁷⁶Ikuspuntu horretatik, MAQUIEIRAK (ikus “Mujeres, globalización y Derechos Humanos”, 69. or.) aditzera ematen duenez, hainbat gizarte- eta kultura-testuingurutako ohiturak onestearren eta legezketat jotzearen ondorioz emakumeek pairatzen duten indarkeria estrukturala etengabe hazten ari da, eta badaude hori datu fidagarrien bidez frogatzen duten txostenak.

⁷⁷Ildo beretik, GUICHOT REINA, “Revisando el concepto de ciudadanía”, 4. or.; VALCARCEL, *La memoria colectiva y los retos del feminismo*, 30. or.; ZIELINSKA, “Gewalt gegen Frauen”, 1.021. or. Ildo beretik, HARDINGEK (ikus *Feministische Wissenschaftstheorie*, 12. or.) ondo baino hobeto esaten duenez, diskurtso feministak arrazakeriaren, inperialismoaren eta kapitalismoaren aurkako borrokari heldu behar dio; izan ere, ideologia horiek bereizkeria-egoerak sorrarazten dituzte.

⁷⁷COBOK (ikus “Multiculturalismo, Democracia paritaria y Participación política”, 6. or.) aditzera ematen duenez, kultura-aniztasunak ezinbestean eragiten dio feminismoari. Kanpora begira, kulturen arteko aldeak edonolakoak direla ere, feminismoak emakume-talde horien problematikari eutsi behar dio; izan ere, “herritartat” jotzen ditugun emakumeek historiako esperientzia latzenetan eta zapalkuntza-garaietan bizi izan dutenaren antzeko zerbait bizi dute emakume horiek.

⁷⁸NASH, “Diversidad, multiculturalismos e identidades”, 42. or.

⁷⁹KWONG, “Removing barriers for battered immigrant women”, 137. or.; ORLOFF/DUTTON/AGUILAR HASS/AMMAR, “Battered immigrant”, 47. or.

⁸⁰ORAA ORAA/RUÍZ VIEYTEZ/GIL BAZO egileek azpimarratzen dutenez (ikus “El extranjero ante el Derecho”, 281. or.), giza eskubideak gizaki guztientzat dira, ezin da bereizketarik egin arrazagatik, sexuagatik, jatorriarengatik, ez eta beste edozein arrazoiarengatik ere. Giza eskubideak oinarritzko eskubideak dira. Gizaki izateagatik ditugun eskubide unibertsalak, naturalak eta besterenezinak dira, estatuek onartu edo ez. Alde horretatik, giza eskubideen doktrinak ez du zuzenesten bertakoen eta atzerritarren artean bereizkeriarik egitea.

⁸¹Ikus, besteak beste, ASOCIACIÓN PRO DERECHOS HUMANOS DE ANDALUCÍA, “Por una ciudadanía plena”, 4. or.; BORJA, “Ciudadanía y globalización”, 4. or.; OCAÑA, “La Unión Europea: el proceso de integración y la ciudadanía europea”, 3. or.

dutenaren arabera [...]” Artikulu horren arabera, bertakoek eta atzerritarrek Espainiako Konstituzioaren I. tituluan jasotako askatasun publiko ia berak dituzte. Ia diogu; izan ere, atzerritarrek zenbait muga dituzte. Muga horiek Espainiako Konstituzioan eta Itunetan ezarrita daude. Doktrinak egiten dituen interpretazioen arabera, hau da itun horien funtsa: azpian datzan komunitate politiko burujabearen kide izatea edo ez.

Horren arabera, delako muga horiek ez dute zerikusirik giza eskubideekin; bai, ordea politikan parte hartzeko eskubideekin (Espainiako Konstituzioaren 13.2 artikulua) eta Konstituzioak legearen bidez ematen dituen eskubideekin; hots, “gizarte-eskubide”⁸² deritzenekin. Muga horien kausaz, lehen eta bigarren mailako herritarrak daude. Bigarren mailako herritarrak “azpi-herritarrak” dira.

Bi eskubide mota horiek erabili ahal izateko, administrazio-egoera arautua izatea exijitzen da. Horrek, baina, estigmatizazioarekin, bazterkeriarekin eta gizarte-bazterkeriarekin lotutako prozesu osoak eragin ditu. Hori azpimarratu du, bai eta ongi azpimarratu ere, Julianok⁸³. Legez kanpoko egoeran dauden emakume etorkinen kasuan, eskubide horiek ez izateak areagotu egin du biktima bilakatzeko arriskua. Batez ere, kanporatuak izango direlako beldurrak bilakarazten ditu biktima; izan ere, beldur hori dela eta, ez dute justizia-administrazioa jotzen, eta hala, delituzko ekintzak zigorrik gabe gelditzea gerta daiteke, eta horrek argi eta garbi handitzen du emakumeen zaurgarritasuna.

Alde horretatik, demokrazia kulturantzunak badu lehentasun bat: aniztasunak dakarren konplexutasuna (arriskuak eta aukerak) seriooki ulertzea, hain zuzen. Horretarako, gizarte uniformeen proiektuari/aurreiritziari lotutako subiranotasun- eta herritartasun-eredua gainditu behar da. Eredu hori, askotan, beren burua normalizatzen ezarri dutenek adosten eta inposatzen dute. Bestalde, estrategia paternalista alde batera utzi behar da, zalantzarik gabe. Estrategia horrek adingabetzat hartzen ditu etorkinak, beren kabuz ezer egiteko gai ez diren biktimatzat, edo bestela, arazotzat, mehatxutzat, gure arazoaren erruduntzat⁸⁴. Jarrera horiek gainditzeko, jabetu egin behar gara zer-nolako zaurgarritasun-egoeran dauden kolektibo batzuk, batez ere emakumeak, legez kanpoko administrazio-egoeran egoteagatik.

Laburpena

Kultura anitzeko gizarteak sendotzen ari dira, eta horrek oso argigarria dirudi feminismoa emakumeen aurkako indarkeriaren gizarte-ikuspegian egiten ari den aldaketa sakonak balioesteko.

Genero-rolen banaketarekin batera, “kultura- eta erlijio-aniztasunaren” moztarpean emakumeak biktima bilakatzeko faktore batzuk agertu dira. Kultura-aniztasunaren babesean-edo daudenez, askotan zaila izaten da faktore horiei erreparatzea. Horretaz gainera, problematika horri ikuspegi integral baten bidez heldu nahi badiogu, kontuan hartu beharko dugu biktima horietako batzuek bizi duten legez kanpoko administrazio-egoera.

Horrenbestez, globalizazioaren fruitu diren kultura anitzeko gizarteek “beste arrisku- eta zaurgarritasun-faktore batzuk” dakartzate. Faktore horiek eta genero-ikuspegia kontuan hartu behar dira emakumeen berdintasuna lortzera eta genero-indarkeriako egoerak gainditzera bideratutako estrategia globalak abiarazteko.

Horretarako, feminismoa eta kultura-aniztasuna uztartzeko, lehenik eta behin, “herritartasun” kontzeptua berriro definitu behar da, barne-hartzailea eta integratzailea izan dadin

⁸²RUIZ DE HUIDROBO, “El principio de equiparación entre nacionales y extranjeros en el Derecho español”, 76. or.

⁸³JULIANO, *Excluidas y marginales*, 13. or.

⁸⁴DE LUCAS, “Nuevas estrategias de estigmatización”, 218. or.

–gaur egun ez bezala–. Etikoki eta politikoki askatasuna eta berdintasuna nahi duten gizarteen funtsa izan behar du herritartasun kontzeptu horrek. Hala, gutxiengoek –kasu honetan, emakume etorkinek– pertsona izateagatik dituzten eskubideak libreki erabili ahalko dituzte eta, edozein lekutan daudela ere, eskubide horiek ez zaizkie kenduko⁸⁵.

Horiek horrela, mundu globalizatuaren eskakizunei erantzuteko, politika feministak bi gauza egin behar ditu. Lehenik eta behin, berdintasunari eta desberdintasunari buruzko eztabaida bultzatu behar du. Eztabaida hori elkarri eragiten dioten joera ugarietako buruzkoa eta demokraziaren eta gizarte-berdintasunaren aldekoa izan behar da⁸⁶. Bigarrenik, oro har, emakumeen aurkako indarkeria⁸⁷ eta, bereziki, emakume etorkinen aurkako desagerrarazteko lan egin behar du. Kontuan hartu behar da emakume etorkinen baldintza sozialen, kulturalen, erlijiosoen eta juridikoen atzean desberdintasun- eta bazterkeria-egoerak ezkututzen direla, eta egoera horiek eta generoak haien biktimizazioa areagotzen dutela.

Dena den, feminismoak ez ezik, estatuetakoko barne zuzenbideek ere beren gain hartu behar dituzte “emakumeen arrisku- eta zaurgarritasun-faktore berri horiek”. Estatuak osoko babes-politikak egin behar dituzte; politika horien bidez, delako estatu horren barruan dauden emakume guztiek, hots, indarkeriaren biktima izan diren emakume guztiek, osoko babes horretatik eratorritako eskubideak erabili ahal dituzten.

Ez da kontu hutsala; izan ere, ikuspegi horretatik, emakume etorkinek bizi duten zaurgarritasun-egoera berezi hori emakume etorkinen giza eskubideak nazioartekotzeko hainbat tresnatan aintzatesten da dagoeneko. Tresna horietan esaten denez, arreta berezia jarri behar da emakume horiek babesteko, genero-indarkeriaren biktima baitira.

Horrenbestez, gaur egungo feminismoak hari ezarritako lana egiten duen bitartean, estatuetakoko barne zuzenbideak aipatutako arrisku-faktoreak (generoa, kultura-aniztasuna eta administrazio-egoera) onartu behar ditu beren herrialdean egon eta indarkeriaren biktima diren emakume guztien osoko babesa indartzeko, bai eta legez kanpoko egoeran dauden emakumeena ere. Estatuak beharrezko mekanismoak eman behar dizkiete emakumeei biktimizazio-adierazleak gainditzeko, eta pairatutako abusu errealean aurka babestu behar dituzte. Horrelako jokabideak errotik eta erabat kentzeko, ezinbestekoa da tratamendu juridiko integral eta global bat abiaraztea: integrala, hartu beharreko neurriak integralak izango direlako, eta globala, estatu baten barruan dauden biktima guztiak kontuan hartuko direlako.

EAEN BIZI DIREN ATZERRIKO EMAKUME ETORKINEN AURKA EGITEN DIREN DELITU MOTA OHIKOENAK

4.5.2

Aurreko pasartean, atzerriko emakume etorkinen kolektiboak bizi duen biktimizazio-egoera aztertu dugu, eta egoera hori azaltzen duten zenbait faktore aditzera eman ditugu. Orain, emakume horiek EAEn jasaten dituzten delitu-jokabide zehatzak aztertuko ditugu. Delitu-

⁸⁵COBO, “Multiculturalismo, Democracia paritaria y Participación Política”, 11. or.

⁸⁶FRASER, “Multiculturalismo y equidad entre los géneros”, 55. or.

⁸⁷Ikus, VALCARCEL, *La memoria colectiva y los retos del feminismo*, 31. or.

jokabideen multzoan, bikotekideak eragindako indarkeria ez ezik, Zigor Kodeak (ZK) zigortzen dituen beste jokabide batzuk ere sartzen dira; esate baterako, sexuarekin zerikusia duten jokabideak, laneko abusuak eta pertsonen legez kanpoko salerosketarekin eta trafikoarekin lotutako jokabideak.

Jarraian, lau delitu mota horien ezaugarri bereizgarriak aipatuko ditugu; ez ditugu, ordea, sakon aztertuko.

Bikotekidearen aurkako indarkeria

Genero-indarkeriaren aurka babes osoa emateko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak⁸⁸ funtsean aldatu du emakumeek, subjektu pasibo diren aldetik, pairatzen dituzten legez kanpoko jokabideen orain arteko panorama, kontuan hartuz bikotekideen esku hiltzen diren emakume kopuruaren gorakadak susmoak piztu eta zirrara handia eragin duela gizartean.

Funtsezko aldaketak honetan dautza: egitezko tratu txarren hutsegitea (153. artikulua), mehatxuen hutsegite arina (171.4 artikulua) eta derrigortzeen hutsegite arina (172.2) delitutzat joko dira, baldin eta hiru hutsegite horien biktima emaztea edo emazte ohia bada edo erasotzailearekin antzerako maitasun-harremanak izan dituen emakumea bada, nahiz eta elkarrekin ez bizi. Halaber, 148. artikuluari inguruabar astungarri hau erantsi zaio: biktima emaztea edo emazte ohia izatea edo erasotzailearekin antzerako maitasun-harremanak izan dituen emakumea izatea, nahiz eta elkarrekin ez bizi (148.4 artikulua).

Delitu horiek hainbat ondasun juridikoren osotasun morala, osotasun fisikoa, ohorea eta abar kaltetzen eta arriskuan jartzen dute. Horren ildotik, zera azpimarratu behar da: une honetan, eraginkortasunez jokatzeko, ondasun juridikoek beren gain hartu behar dituzte –ondasun juridiko bakoitzak hari dagokion moduan– zaurgarritasun-egoera berezian dauden pertsonen aurkako jokabideak (ondasun juridikoek gauza bilakatzen dituzte pertsona horiek), aintzat hartuta erasotzailea nagusitasun-egoeran dagoela eta erasotzaileak biktima umiliatzen duela.

1/2004 LOren eragin-eremutik kanpo egon arren, 173.2 eta 173.3 artikulua eta azertu ditugunak lotuta daude. Artikulu horietan ere, besteak beste, emakume etorkinen aurkako ohiko tratu txarrak⁸⁹ zigortzen dira, baldin eta emakume etorkinak erasotzailearen emazte edo emazte ohi badira edo erasogilearekin antzerako maitasun-harremanak badituzte, nahiz eta elkarrekin ez bizi. Horrelako jokabideek biktimen osotasun morala zuzenean kaltetzen dutela azpimarratu nahi dugu. Jokabide horien oinarri materiala, lehen adierazitako zentzuan, honetan datza: jokabide umiliagarri eta laidogarrien bidez biktima gauza eta tresna bilakatzean⁹⁰.

Jokabide horiek zenbat atzerriko emakume etorkinek pairatzen dituzten aztertzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Estatu osoko datuak bilduz egin duen txosten hau erabiliko dugu: "Informe sobre víctimas mortales de la violencia de género y de la violencia doméstica en el ámbito de la pareja o expareja en 2010" (2010ean bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esku hil diren genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimei buruzko txos-

⁸⁸Aurrerantzean: 1/2004 LO.

⁸⁹Familia barruko indarkeriari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus, besteak beste, MAYORDOMO RODRIGO, *Aspectos Criminológicos, victimológicos y jurídicos de los malos tratos en el ámbito familiar* eta MUÑAGORRI LAGUÍA, "Las violencias en el ámbito familiar".

⁹⁰"Osotasun moralari" buruz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus, besteak beste, PÉREZ MACHÍO, "Osotasun moralaren babesa"; "Concreción del concepto jurídico de 'mobbing'", *El delito contra la integridad moral y Mobbing y Derecho Penal*, eta DE LA MATA BARRANCO/PÉREZ MACHÍO, "Concepto de trato degradante en el delito contra la integridad moral".

tena)⁹¹. Txosten horretan zinez datu beldurgarriak ematen dira: 2010ean 73 emakume hil ziren genero-indarkeriaren ondorioz; horietatik 28 (% 38) atzerritarrak ziren. Datu hori azpimarratzekoa da; izan ere, emakume etorkinen kopurua handia da. Kontuan hartu behar da Espainiako emakumeen biztanleria osoaren % 11,5 baino ez dela atzerriko emakumea eta ehuneko hori % 9,7 dela, baldin eta 16 urtetik gorako emakume atzerritarrak soilik kontuan hartzen baditugu. Hildako emakume etorkinen jatorriari dagokionez, gehienak Latinoamerikakoak ziren (hamar emakume), eta gainerakoak Ipar Afrikakoak (bederatzi emakume). Esan beharra dago lehen baino askoz Afrikako emakume gehiago hil zituztela 2010ean (2009an, Ipar Afrikako emakume bat hil zuten).

1/2004 LO indarrean jarri zenetik zortzi urte igaro dira, eta emaitza positiboa bada ere, lege horren bidez konpondu nahi izan genuen problematikak bere horretan dirau. Hain zuzen, lege horren aplikazioari buruzko estatistika-datu judizialen arabera, Espainian gero eta emakume atzerritar gehiagok eskatzen dute babes-agindua. 2005ean % 28,9k eskatu zuen babes-agindua; 2010eko lehenengo hiruhilekoan⁹², berriz, % 34,6k. Halaber, azpimarratu behar da babes-agindua eskatzen duten emakumeetatik asko atzerritarrak direla.

Sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituak

Sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituak Zigor Kodearen bigarren liburuko VIII. tituluari aipatzen dira (178tik 194ra bitarteko artikulua). Kapitulu honetan ezin dugu delitu horiei buruzko gogoeta sakonik egin. Dena den, zenbait gairi buruzko oinarritzko gogoeta batzuk egingo ditugu; esate baterako, problematika nabariena zein den identifikatuko dugu.

Sexu-erasoak

Hel diezaiegun sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako jokabide kaltegarriari; hau da, sexu-gaietan baimena libreki ematea, sexu-gaietan borondatea eratzeari⁹³ eta gizabakoa sexualitatearen arloan libreki gara dadin ahalbidetzen duten oinarritzko baldintzak gortetzea⁹⁴ kaltetzen duten jokabideei. Euskal emakumeek emakume izateagatik pairatzen dituzten kalte berak pairatzen dituzte emakume etorkinek. Alde horretatik, sexu-erasoei eta indarkeriari dagokionez, jatorri ezberdineko biktimen artean ez dago alde nabarmenik.

Hori baino bitxiagoak dira biktima kolektibo horretan gertatzen diren sexu-jarduera batzuk, Zigor Kodeak zigortzen dituenak; esate baterako, ZKen 180. artikuluan jasotako inguruabar astungarriak, sexu-erasoen biktima diren emakume etorkinen kasuan, artikulua horren 3. zenbakian jasota daudenak: *“Aurreko jokabideei bost urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie 178. artikuluko erasoak badira, eta hamabi urtetik hamabost artekoa 179. artikuluko badira, inguruabar hauetako bat gertatzen denean: [...] 3.) Biktima, bere adina, gaixotasuna, ahalmen-urritasuna edo egoera dela eta, bereziki ahula denean, 183. artikuluan ezarritakoa salbu”*.

⁹¹Ikus txosten osoa hemen:

http://www.observatorioviolencia.org/upload_images/File/DOC1306844610_victimias_2010.pdf

⁹²Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiak argitaratutako txostenetik ateratako datuak. Ikus txostena hemen: <http://www.poderjudicial.es/stfils/CGPJ/ESTADÍSTICA/DATOS%20ESTADÍSTICOS/FICHERO/EL%20OBSERVATORIO%20INFORMA.%205%20ANOS.pdf>

⁹³Hala dio CUGAT MAURIK (ikus “Delitos contra la libertad e indemnidad sexuales”, 312. or.). Ildo beretik, ORTS BERENGUER, “Delitos contra la libertad sexual”, 903. or.

⁹⁴MORALES PRAT/GARCÍA ALBERO, “Delitos contra la libertad e indemnidad sexuales”, 278. or.

Doktrinak hainbat modutara interpretatzen du "egoera dela eta, bereziki ahula den [biktima]" kontzeptua. Dena den, interpretazio horiek zerikusi handia dute kontzeptu horri hemen eman diogun zentzuarekin. Generikoki, doktrinak eta jurisprudentziak biktimaz kanpoko inguruabarrekin⁹⁵ lotzen dute kontzeptu hori. Inguruabar horiek egoera jakin batean jartzen dute biktima. Subjektu aktiboak zera nahi du: biktimak sexu-jarduera batean parte hartzea. Biktimak, ordea, zailtasunak ditu behar bezala erantzuteko (biktima estatusun-egoera batean dago, eta, horregatik, laguntza behar du edo haren erantzuteko gaitasuna gutxitu egiten da)⁹⁶. Besteak beste, biktimaz kanpoko inguruabarren adibide hauek jarri ohi dituzte: konortea edo loa galtzea⁹⁷, mozkortasuna eta substantzia psikotropikoekiko eta antzeko substantziekiko mendekotasuna⁹⁸. Edonola ere, "egoera" terminoa zabala da: doktrinan deskribatutako egoera ez ezik, babesgabetasuna ere sar daiteke termino horren barruan; babesgabetasunak subjektu pasiboaren gaitasuna ahultzen badu, betiere⁹⁹. "Egoera" eta "babesgabetasuna" terminoak zentzu horretan parekatuz gero, kontzeptu horrek bere baitan hartuko ditu emakumeek, ekonomiarekin eta gizartearekin zerikusia duten arrazoiak direla medio, bizi dituzten egoera bereziki ahul eta zaurgarri ugari¹⁰⁰. Hala, "egoera" arrazoiaren barruan, efektu hori¹⁰¹ azaltzen duen edozein hipotesi sartuko da, bai eta atzerriko emakume etorkinen egoera ere.

Esan beharrik ez dago antzeko interpretazioa egin behar dela sexu-abusuen arloan; izan ere, sexu-abusua ZKen 181.5 edo 182.2 artikulua inguruabar astungarria da, baldin eta bat badator ZKen 180. artikuluko 1. idatz-zatian jasotako 3. edo 4. inguruabarrarekin: 3.) *Biktima, bere adina, gaixotasuna, ahalmen-urritasuna edo egoera dela eta, bereziki ahula denean, 183. artikuluan ezarritakoa salbu; 4.) Nagusitasun- edo senidetasun-harremanez baliatzen denean erantzulea delitu egiteko, odolez edo adopzioz biktimaren aurreko, ondorengo edo neba-arreba izateagatik, edota ezkonsenidetasuna izateagatik.* "Egoera" terminoa interpretatu dugu, eta ondorioztatutako interpretazioaren erreferentziak ikusi ditugu. Gauzak horrela, aipatutako egoera horietan, lehen adierazitako zentzuan, emakume etorkinek beren zaurgarritasun-egoera berezia dela-eta pairatzen dituzten sexu-abusuei aurre egiteko, zigorrak gogortu beharko dira aipatutako xedapenetan (ZKen 181.5 eta 182.2 artikulua).

Laneko sexu-jazarpenera eta prostituzioan jardutera behartzea

Ezinbestean aipatu behar ditugu bi zigor mota hauek: laneko sexu-jazarpenera (ZKen 184. artikulua) eta prostituzioan jardutera behartzea (ZKen 188. artikulua); izan ere, legez kanpoko egoeran dauden emakume etorkinek maizen pairatzen dituzten jokabideak dira.

Lan-harremanen eremuko sexu-jazarpenerari dagokionez (ZKen 184. artikulua), doktrinak eta jurisprudentziak zera azpimarratu dute: lan-baldintza partikularrek horrelako jokabideen bik-

⁹⁵CUGAT MAURI, "Delitos contra la libertad e indemnidad sexuales", 346. or.

⁹⁶DÍEZ RIPOLLÉS, "Delitos contra la libertad e indemnidad sexuales", 359. or. Ildo beretik, Arabako Probintzia Auzitegiak abenduaren 22an hartutako 214/2004 Ebazpenaren 3. oinarri juridikoa, Malagako Probintzia Auzitegiak apirilaren 8an hartutako 213/2005 Ebazpenaren 2. oinarri juridikoa eta Auzitegi Nagusiak azaroaren 23an hartutako 1386/2005 Ebazpenaren 3. oinarri juridikoa.

⁹⁷DE PAULA SÁNCHEZ ZAMORANO, "Tratamiento jurídico", 18. or.; DELGADO LÓPEZ, "Las agresiones sexuales", 236. or.; GONZÁLEZ-CUÉLLAR GARCÍA, "Delitos contra la libertad sexual", 2.214. or.

⁹⁸Hala jasota dago Arabako Probintzia Auzitegiak abenduaren 22an hartutako 214/2004 Ebazpenaren 3. oinarri juridikoan.

⁹⁹Horixe azpimarratzen du ORTS BERENGUERek (ikus "Delitos contra la libertad sexual", 934. or.)

¹⁰⁰ALONSO PÉREZek (ikus *Delitos contra la libertad e indemnidad sexuales*, 61. or.), besteak beste, ekonomia-egoera zailak iradokitzen ditu, bai eta ondo iradoki ere.

¹⁰¹GONZÁLEZ RUS, "Delitos contra la libertad sexual", 338. or.

tima potentzial bilakarazten dituztela emakume horiek¹⁰². Lan-baldintza horiek definitzen dituzte, hain zuzen ere, berariazko lan-harremanaren ezaugarriak; hau da, emakume horiek kaiolatzen dituen harremanaren ezaugarriak.

Ez dugu behar adina datu EAEn zenbat adingabe prostituitzen diren jakiteko (ZKn 187. artikulua). Dena den, emakume etorkinen kolektiboak egunero bizi duen errealitateak prostituzioan jardutera behartzen ditu; ez dute beste aukerarik. Ez dugu ahaztu behar, prostituzioan jardutera ez ezik, emakume horiek etengabe biktima izatera ere behartuta daudela. Bortxaketak, laneko abusuak, kalte psikikoak, mehatxuak, indarkeria eta askatasun mugatua dira haien bizimoduaren ezaugarri nagusiak¹⁰³.

Prostituzioan jarduten duten emakume horien babesgabetasuna –batez ere, legez kanpoko egoeran dauden emakumeen babesgabetasuna– are ageriagoa da kontuan hartzen badugu kanporatuko dituzten beldur direla. Gogora dezagun egoera horietan Atzerriartasun Legea garatzeko 557/2011 Arautegiak ez diola kolektibo horri egoitza-baimena eskatzeko edo/eta kanporatze-prozesua bertan behera uzteko aukera ematen.

Langileen eskubideen aurkako delituak

Zigor Kodeko II. liburuko XV. tituluan jasotako zigor moten bidez, langileen eskubideak urratzen dituzten jokabideak zigortzen dira. Jokabide horiek lan-harremanenik lotuta daude¹⁰⁴.

Emakume etorkin langileei dagokionez, emakume langileen egoera orokorrarekin lotutako zigor motak alde batera utzita (ZKen 331. artikulua), agindu jakin batzuk aipatuko ditugu. Agindu horien bidez, emakume etorkin langileek langile eta etorkin izateagatik pairatzen dituzten jokabide jakin batzuk zigortzen dira.

Langileen legez kanpoko trafikoaren delitua da (ZKen 312. artikulua) enplegu-emaile jakin batzuek gehien egiten duten delitua. Enplegu-emaile horiek atzerriko emakumeak izaten dituzte langileen artean. Emakume horiek ez dute lan-baimenik izaten, eta lan-kontratuaren baldintzek haien lan-eskubideak¹⁰⁵ urratzen dituzte. Horretaz gainera, enplegu-emaileak haien zaurgarritasun-egoeraz baliatzen dira aberasteko¹⁰⁶. Askotan, enplegu-emaileak emakume horien zaurgarritasun-egoera bereziaz baliatzen dira abususko lan-baldintzak ezartzeko. Emakume horiek legez kanpo egoteak horretarako aukera ematen die.

ZKen 2. artikuluko “atzeritarrak” terminoari dagokionez, doktrinak eta jurisprudentziak erabaki dute, bai eta ondo erabaki ere, legezko egoeran dauden emakume langileak ez ezik emakume etorkin klandestinoak ere kontuan hartzea agindu horretan. Hala, enplegu-emaileek ezingo dizkiete ezarri lan-baldintza diskriminatzaileagoak legez kanpoko egoeran dauden emakumeei¹⁰⁷.

¹⁰²GARCÍA PÉREZ, “Del acoso sexual”, 416. or.; PEDREIRA GONZÁLEZ, “Artículo 184”, 647. or.

¹⁰³Ikus, besteak beste, Castellóko Probintzia Auzitegiak apirilaren 8an hartutako 13/2005 Ebazpenaren 1. oinarri juridikoa eta Huelvako Probintzia Auzitegiak ekainaren 30ean hartutako 13/2005 Ebazpenaren 3. oinarri juridikoa.

¹⁰⁴CARBONELL MATEU/GONZÁLEZ CUSSAC, “De los delitos contra los derechos de los trabajadores”, 1.544. or.; MUÑOZ CONDE, Derecho Penal. Parte Especial, 289. or.; POMARES CINTAS, “La inmigración laboral del extranjero”, 234. or.; VALLE MUÑIZ/VILLACAMPA ESTIARTE, “De los delitos contra los derechos de los trabajadores”, 1.046. or.

¹⁰⁵Besteak beste, RODRÍGUEZ MESA, “Abuso de mano de obra extranjera”, 166. or.

¹⁰⁶CARBONELL MATEU/GONZÁLEZ CUSSAC, “De los delitos contra los derechos de los trabajadores”, 1.551. or.; MORILLAS CUEVA, “Delitos contra los derechos de los trabajadores”, 905. or.; VALLE MUÑIZ/VILLACAMPA ESTIARTE, “De los delitos contra los derechos de los trabajadores”, 1.061. or.

¹⁰⁷Bestea beste, RODRÍGUEZ MESA, “Abuso de mano de obra extranjera”, 168. or. Ildo beretik, ikus Auzitegi Nagusiak uztailaren 18an hartutako 1045/2003 Ebazpenaren 4. oinarri juridikoa, Auzitegi Nagusiak azaroaren 22an hartutako 1390/2004 Ebazpenaren 1. oinarri juridikoa; Auzitegi Nagusiak azaroaren 25ean hartutako 1349/2004 Ebazpenaren 5. oinarri juridikoa eta Auzitegi Nagusiak otsailaren 24an hartutako 221/2005 Ebazpenaren 4. oinarri juridikoa.

Legez kanpoko egoeran egoteak ere ikusezin bilakatzen ditu emakume etorkinak. Euskal emakumeak sexu-arrazoiengatiko lan-bereizkeria (ZKen 314. artikulua) dela-eta joaten diren maizen epaitegira. Aldiz, abusuak legez kanpoko egoeran dauden emakume etorkin langileek pairatzen dituztenean, jokabide horiek bigarren mailako arazo izaten dira.

Ildo horretatik, KREIk 2006an argitaratutako ikerketaren¹⁰⁸ ondorioetako bat nabarmendu nahi dugu. Ikerketan aipatzen zenez, emakume etorkin gehienek lan-baldintza bidegabeak dituztela aitortzen dute; dena den, gehienei ez zaie egokia iruditzen salaketa jartzea, enplegu-emaileari “esker ona” zor baitiote.

Pertsonen legez kanpoko salerosketarekin eta trafikoarekin lotutako delituak

Zigor Zuzenbidearentzat ere premiazko ardura bat ari da bilakatzen migrazioaren fenomeno. Hori ulertzeko, kontuan hartu behar da gero eta etorkin gehiagok sartu nahi dutela gure herrialdean, gure herrialdera sartzeko saiakerak oso baldintza latzetan egiten direla, saiakera horietan pertsona asko hiltzen direla eta etorkinak Espainiara ilegalki sartzeko negozioak diru kopuru handiak erabiltzen dituela. Etorkinak Espainiara iristen direnean, batzuk bertan gelditzen dira, eta pertsonen salerosketaren eta trafikoaren biktima bilakatzen, eta beste batzuk Europar Batasuneko beste herrialde batzuetara joaten dira¹⁰⁹.

Pertsonen salerosketaren eta trafikoaren mapan, Espainia helburuko herrialde bat da funtsean. Europar Batasuneko beste herrialde batzuen mailaren azpitik egon arren, NBERen arabera, Espainia sexu- edo lan-esklaboen inportatzaile nagusietako bat da, Frantziaren, Erresuma Batuen eta Danimarkaren maila berean. Biktimak batez ere Kolonbiakoak, Dominikar Errepublikakoak, Nigeriakoak, Ukrainakoak, Errumaniakoak eta Errusiakoak dira. Kasu gehienak sexualki esplotatzen diren emakumeenak dira. Dena den, badira sexualki esplotatzen diren hauren kasuak, bai eta bestelako lan-esplotazio mota batzuk ere¹¹⁰.

Zigor Kodeak gogor zigortzen ditu pertsonen salerosketa eta pertsonen legez kanpoko trafikoa. Batzuetan nahasi egiten dira. Horregatik, deskribatu egingo ditugu jarraian.

Pertsonen salerosketaren delitua

Zigor Kodean duela gutxi sartutako 177. artikulua honela definitzen du pertsonen salerosketaren delitua: pertsonak bereganatzea, eramatea, lekualdatzea, hartzea, jasotzea edo ostatatzea Espainiako lurraldean, Espainiatik edo Espainia iraganbide zein muga izanik, indarkeria, larderia edo gezurra erabiliz, nagusitasun-egoeraz edo bertako edo atzerriko biktimaren beharrian-egoeraz edo ahuleziaz abusatuz. Salerosketatzat jotzeko, hau izan behar da deskribatutako ekintzaren helburua: lan edo zerbitzu behartuak inposatzea: esklabotasuna edo esklabotzaren, mirabetzaren edo eskaletasunaren antzeko jarduerak; sexu-esplotazioa, pornografia barne; edo/eta gorputzeko organoak ateratzea.

Legez kanpoko delitu horren lau ezaugarri garrantzitsu aipatuko ditugu. Lehenik eta behin, salerosketaren biktima bertakoa edo atzerritarra izan daiteke. Bigarrenik, biktima garraiatzea edo lekualdatzea ez ezik, hartzea, jasotzea eta ostatatzea ere ekintzaren parte dira. Hirugarrenik, ekintza egiteko hainbat baliabide erabiltzen dira; besteak beste, gezurra erabiltzen da eta biktimaren beharrian-egoeraz abusatzen da. Laugarrenik, helburua da per-

¹⁰⁸“Detección y análisis criminológico de los supuestos de victimización de mujer inmigrante en la CAE (2006)”, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurtasun Sailak finantzatutako proiektua.

¹⁰⁹Ikus SÁINZ-CANTERO, Los delitos contra los derechos de los ciudadanos extranjeros, 21. or.

¹¹⁰Ikus ABC, 2006ko apirilaren 25ekoa, 50. or.

tsanak esplotatzea; sexu-esplotazioaren, pornografiaren eta aipatu ditugun beste esplotazio mota batzuen bidez.

Errealitatean, hau izaten da emakume atzerritar askoren ibilbidea: organizazioek hartzen dituzte, sorterrian iruzur egiten diete zenbait lan-postu eskainiz (etxeko zerbitzuan, ostalaritzan, pertsona adinduak edo gaixoak zaintzen, biltzarretako laguntzaile-lanetan, etab.) eta, helburuko herrialdera iristen direnean, prostituzioan jardutera behartzen dituzte. Batzuek lortzen dute atzeman dituzten pertsonengandik ihes egitea; beste batzuek, ordea, etsi egiten dute, eta lanbide berria onartzen¹¹¹.

Legez kanpoko trafikoa eta migrazio klandestino

ZKen 318 bis artikuluan jasotakoaren arabera, delitua egingo du *zuzenean edo zeharka, pertsonak trafikagai hartzea sustatzen, faboratzen eta errazten duenak, Espainiatik, edota Espainia Europar Batasuneko beste herrialde batzuetara joateko iraganbide zein helmuga izanik (...)*.

Salerosketa ez bezala, pertsonak lekualdatzean eta hitzartutako lekura eramatean soilik datza pertsonen legez kanpoko trafikoa. Kasu horietan, etorkinak lekuz aldatzea onartzen du; trafikatzaileak ez dio iruzur egiten. Bestalde, aipatu beharra dago, pertsonen salerosketa ez bezala, pertsonen trafikoa beti dela transnazionala; izan ere, salerosketa nazio baten barruan gerta daiteke.

Espainiako mugak irazgaitz bihurtu dira poliki-poliki; batez ere, Schengeneko hitzarmenetan konpromisoak hartu zirenetik (konpromiso horiek Atzerritartasun Legearen murrizketen bidez areagotu ziren). Horren ondorioz, mundu osoko etorkin askorentzat oso zaila bilakatu da Espainiara legez sartzea. Legez kanpoko trafikoaren sareak horretaz aprobetxatu dira herrialdean sartzeko zerbitzu gehiago emateko (garraioa, agiriak, hartzea, etab.) eta tarifak igotzeko¹¹². Larritasuna eta premia direla eta, etorkinak prest daude herrialdean legez kanpo sartzegatik trafikatzaleei diru asko ordaintzeko. Tarifak organizazioen, etnien, herrialdeen, gizarte-gatazken, gerren eta beste hainbat faktoreren arabera aldatzen dira. Alde horretatik, mafia antolatuek etekin ekonomiko handiak lortzen dituzte pertsona horien kontura, beharrian-egoeran daudela eta haien bizia, osotasuna eta duintasuna arrisku handian daudela aprobetxatuz¹¹³.

ONDORIOAK

4.5.3

Txosten honen bidez, agerian jarri ditugu EAEko emakume etorkinen biktimizazioaren kausak eta hipotesi zehatzak.

Tradizio feministaren arabera, generoa da emakumeek pairatzen duten desberdintasun estrukturalaren arrazoi bakarra. Hori, baina, ez da hala kultura anitzeko gizarteak sendotzen hasi direnetik. Genero-rolen banaketarekin batera, "kultura- eta erlijio-aniztasunaren" moztarpean emakumeak biktima bilakatzen dituzten faktore batzuk agertu dira. Kultura-

¹¹¹Ikus POLIZIA JUDIZIALAREN UNITATE TEKNIKOA. GUARDIA ZIBILA. *Tráfico de seres humanos con fines de explotación sexual. Informe Criminológico*, 2003 y 2004, 16. or. <http://www.malostratos.org/images/pdf/Tráfico>

¹¹²Ikus PALOMO DEL ARCO, "Criminalidad organizada", 190. or.

¹¹³Ikus RODRÍGUEZ MONTAÑÉS, "Ley de Extranjería y Derecho Penal", 1.736-1.737 or.

aniztasunaren babesean-edo daudenez, askotan zaila izaten da faktore horiei erreparatzea. Horretaz gainera, problematika horri ikuspegi integral baten bidez heldu nahi badiogu, kontuan hartu beharko ditugu biktima horietako batzuek bizi duten legez kanpoko administrazio-egoera. Horrenbestez, globalizazioaren fruitu diren kultura anitzeko gizarteek "beste arrisku- eta zaugarritasun-faktore batzuk" dakartzate. Faktore horiek eta genero-ikuspegia kontuan hartu behar dira emakumeen berdintasuna lortzera eta genero-indarkeriako egoerak gainditzera bideratutako estrategia globalak abiarazteko.

Hain zuzen, feminismoak ez ezik, estatuetakoko barne zuzenbideek ere beren gain hartu behar dituzte "emakumeen arrisku- eta zaugarritasun-faktore berri horiek" (generoa, kultura-aniztasuna eta administrazio-egoera). Estatuak osoko babes-politikak egin behar dituzte; politika horien bidez, delako estatu horren barruan dauden emakume guztiek, hots, indarkeriaren biktima izan diren emakume guztiek, osoko babes horretatik eratorritako eskubi-deak erabili ahal ditzaten. Estatuak beharrezko mekanismoak eman behar dizkiete emakumei biktimizazio-adierazleak gainditzeko, eta pairatutako abusu errealean aurka babestu behar dituzte. Horrelako jokabideak errotik eta erabat kentzeko, ezinbestekoa da tratamendu juridiko integral eta global bat abiaraztea: integrala, hartu beharreko neurriak integralak izango direlako, eta globala, estatu baten barruan dauden biktima guztiak kontuan hartuko direlako.

Atzerriko emakume etorkinen kolektiboak bizi duen biktimizazio-egoera aztertu dugu, eta egoera hori azaltzen duten zenbait faktore aditzera eman ditugu. Horiek horrela, emakume horiek EAEn jasaten dituzten delitu-jokabide zehatzak aztertu behar ditugu. Delitu-jokabideen multzoan, bikotekideak eragindako indarkeria ez ezik, Zigor Kodeak zigortzen dituen beste jokabide batzuk ere sartzen dira; esate baterako, sexuarekin zerikusia duten jokabideak, laneko abusuak eta pertsonen legez kanpoko salerosketarekin eta trafikoarekin lotutako jokabideak.

Bikotekidearen indarkeria zenbat atzerriko emakume etorkinek pairatzen duten aztertzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Estatu osoko datuak bilduz egin duen txosten hau erabili dugu: "Informe sobre víctimas mortales de la violencia de género y de la violencia doméstica en el ámbito de la pareja o expareja en 2010" (2010ean bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esku hil diren genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimei buruzko txostena). Txosten horretan zinez datu beldurgarriak ematen dira: 2010ean 73 emakume hil ziren genero-indarkeriaren ondorioz; horietatik 28 (% 38) atzerritarrak ziren. Datu hori azpimarratzekoa da; izan ere, emakume etorkinen kopurua handia da. Kontuan hartu behar da Espainiako emakumeen biztanleria osoaren % 11,5 baino ez dela atzerriko emakumea eta ehuneko hori % 9,7 dela, baldin eta 16 urtetik gorako emakume atzerritarrak soilik kontuan hartzen baditugu. Hildako emakume etorkinen jatorriari dagokionez, gehienak Latinoamerikakoak ziren (hamar emakume), eta gainerakoak Ipar Afrikakoak (bederatzi emakume). Esan beharra dago lehen baino askoz Ipar Afrikako emakume gehiago hil zituztela 2010ean (2009an, Ipar Afrikako emakume bat hil zuten).

Sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako jokabide kaltegarriak dagokienez, hots, sexu-gaietan baimena libreki ematea, sexu-gaietan borondatea eratzea eta gizabanakoa sexualitatearen arloan libreki gara dadin ahalbidetzen duten oinarritzko baldintzak gordetzea kaltetzen duten jokabideei dagokienez, euskal emakumeek emakume izateagatik pairatzen dituzten kalte berak pairatzen dituzte emakume etorkinek. Alde horretatik, sexu-erasoei eta indarkeriari dagokionez, jatorri ezberdineko biktimen artean ez dago alde nabarmenik.

Lan-baldintzekin lotutako gehiegikeriei dagokienez, emakume etorkin gehienek lan-baldintza bidegabeak dituztela aitortzen dute; dena den, gehienei ez zaie egokia iruditzen salaketa jartzea, enplegu-emailari "esker ona" zor baitiote.

Pertsonen trafikoaren eta salerosketaren delituei dagokienez, errealitatean, hau izaten da emakume atzerritar askoren ibilbidea: organizazioek hartzen dituzte, sorterrian iruzur egiten diete zenbait lan-postu eskainiz (etxeko zerbitzuan, ostalaritzan, pertsona adinduak edo gaitxoak zaintzen, biltzarretako laguntzaile-lanetan, etab.) eta, helburuko herrira iristen direnean, prostituzioan jardutera behartzen dituzte. Batzuek lortzen dute atzeman dituzten pertsonengandik ihes egitea; beste batzuek, ordea, etsi egiten dute, eta lanbide berria onartzen.

Gaiaren problematika eta emakumeen kolektibo horrek biktimizazio-egoera gainditzeko dituen zailtasunak ikusita, argi dago sakon aztertu beharreko gaia dela.

EAEKO EMAKUME ETORKINAK ETA HEZKUNTZA

Amelia Barquín

Monika Madinabeitia

Nerea Alzola

4.6

HEZKUNTZA ETA ATZERRIKO IMMIGRAZIOA

4.6.1

Gizarte modernoetan, hezkuntza formalak eta hezkuntza emateko moduak eragin handia dute pertsonengan. Eskola unibertsalaren eginkizuna, hots, jakintza, informazioa eta kultura transmititzeko eginkizuna, aldatzen ari da gaur egun. Hala eta guztiz ere, oraindik ere oinarrizkoa da etorkizun sozial eta profesionalarentzat. Faktore garrantzitsu bat da geroko lanbideari begira. Halaber, gizartean gora egiteko tresna bat ere bada, batez ere gizarte-maila apalekoentzat. Haurrak eta nerabeak sozializatzeko eremu handi bat da, bai eta ikasleek beren gizartean parte hartu ahal izateko funtsezkoa den leku bat ere.

Nahiz eta familiaren gizarte-, ekonomia- eta kultura-egoerak eragin handia izan hezkuntzan, eta ikus-entzunezko komunikabideek botere handia izan sozializazioan, eta abar, eta abar, eskola da, oraindik ere, gizarte modernoetan eta postmodernoetan ondo moldatzeko beharrezkoak diren gutxieneko gaitasunak eskuratzeko lekua, bai eta goi-mailako ikasketak eta lanbide-heziketa egiteko abiapuntua ere.

Gure gizartean, eskolak eginkizun hauek ditu: hezteak; irakastea; kultura, balioak, bizimoduak eta abar transmititzea; eta bizitza sozialean gutxieneko partaidetza bermatzeko oinarrizko titulua ematea. Baina are gehiago, eskola harreman- eta jakintza-sareak egiteko leku bat da; hau da, gizarte-harremanak egiteko leku bat. Aurrekoari jarraiki, eskolak oso zeregin garrantzitsua du gizabanakoen eratzeko-prozesuan eta bilakaeran. Horretaz gainera, autoestimua onartzeko funtsezko espazioetako bat da.

Adela Cortina¹¹⁴ sarri esan duenez, familia askok, ikastetxea aukeratzen dutenean, haien ustez kalitatezko hezkuntza dena ez ezik, hau ere kontuan hartzen dute: zer-nolako haurrak joaten diren ikastetxe horretara, zer gizarte-mailakoak diren eta zer familiekin egingo dituzten harremanak beren seme-alabek. Hau da, aldi berean, zera ematen dute aditzera: ez dutela nahi beren seme-alabak haur jakin batzuekin ibiltzea. Horrek zerikusia du ideia honekin: harreman-sare egoki baten barruan egotea onuragarria da etorkizunean aukera gehiago izateko; hizkera arruntean esanda: "ate asko irekitzen ditu bizitzan".

Halaber, eskolako hizkuntzak jakitea, hau da, hizkuntza ofizialak jakitea, oso garrantzitsua da eskolan eta gizartean ondo moldatzeko. Eskolako hizkuntza edo hizkuntzak jakin ezean, ikasleak porrot egingo du; izan ere, hizkuntza ondo jakin behar da ekintza eta jarduerak egiteko. Hizkuntza-mailari dagokionez, kontuan hartu behar da errazagoa dela ikasleekin hitz egitea, ahozko eta idatzizko testu akademikoak ulertzea (problema bat, azalpen

¹¹⁴Ikus Adela Cortina (1993). *Ética aplicada y democracia radical*. Madril: Tecnos.

bat...) eta testu formalak egitea (lanak idaztea eta ahoz azaltzea, etab.) baino. Bestalde, helduentzat ere ezinbestekoa da hizkuntza ondo jakitea: helduek gizarte hartzailearen hizkuntza edo hizkuntzak jakitea funtsezkoa da gizarteratzeko eta gizarte horretara egokitzeko.

Jakina denez, EAEn euskararen irakaspen-mailak eragin nabarmena du eskolatzeko hizkuntza-ereduan. Hainbat ikerlanen bidez frogatu da A ereduan eskolatutako ikasleek ez dutela euskara ikasten eta B ereduan eskolatutakoen maila eskasa dela. D ereduaren bidez soilik lortzen dute ikasleek derrigorrezko bigarren hezkuntzara iristean euskara behar bezala jakitea. Gainera, eredu horretan ikasteak ez du esan nahi ikasleek gaztelania gutxiago dakitenik. Aipatzekoa da euskaraz behar bezala ikasten ez duten ikasleak zenbait arlotan (lanean, gizarteratzean...) egoera okerragoan egongo direla etorkizunean, eta ezingo direla hizkuntza horri lotutako kultura-unibertsioan sartu.

Bestalde, eskolaz kanpoko jolas- eta kirol-ekintzetan, ikasle etorkinen eta bertako ikasleen arteko harremanak onuragarriak dira haurrak eta gurasoak egokitzeko; batez ere, amak egokitzeko; izan ere, amak arduratzen dira batik bat seme-alabak hezteaz. Plazan, parkean, askariaren eta txirristaren artean, bertako nahiz atzerriko familiek eta, zehazki, emakumeek, elkarrekin hitz egiten dute, eta harremanak egiten dituzte, eta, horretaz gainera, emakumetako batzuek bertako hizkuntzak ikasten dituzte.

Kapitulu honetan, EAEko emakume etorkinei eta hezkuntzari buruzko datu garrantzitsu batzuen berri emango dugu. Lehenik eta behin, kolektibo horrek egindako ikasketak aipatuko ditugu. Bigarrenik, zer bertako nahiz sorterriko hizkuntza dakizkiten aztertuko dugu. Eta amaitzeko, eskola-adinean dauden haurren hezkuntzarekin lotutako zenbait alderdiri helduko diegu. Besterik esan ezean, *Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerriko etorkinen gaineko inkesta* AEI 2010 hartu dugu erreferentziatzat. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egindako inkesta horrek atzerriarren lagin zabal bat du oinarri (2.286 pertsona), eta pertsona horien bizitzako ibilbideari, itxaropenei, lan-egoerari eta abarri buruzko informazio jasotzen du.

16 URTETIK GORAKO EMAKUME ETORKINEN IKASKETAK

4.6.2

Azter dezagun, lehenik eta behin, zer ikasketa-maila duten EAEko emakume etorkinek. 2010. urtean EAEn errolatutako atzerriarren biztanleriari buruzko datuak jaso ditugu Emakunderen informazio-iturrietatik. Datu horien arabera, % 12,1ak ez daki irakurtzen eta idazten, % 27,1ak eskola graduatua baino behegokoko titulu bat du, % 38,8k eskola graduatua du eta % 26,6k eskola graduatua baino goragoko titulu bat du. Ez dago alde handirik gizonen eta emakumeen artean. Dena den, aipatzekoa da bi parametrotan aldeak daudela eta parametro horietan emakumeek ikasketa-maila handiagoa dutela: emakume gutxiagok dute eskola graduatua baino behegokoko titulu bat (emakumeen % 27,1ak eta gizonen % 31,6k) eta emakume gehiagok dute eskola graduatua baino goragoko titulu bat (emakumeen % 27,6k eta gizonen % 23,1ak).

Interesgarria da emakume etorkinen datuak eta bertako emakumeenak alderatzea. Lehenengo hiru parametroetan, ehunekoak oso antzekoak dira. Dena den, gutxigatik bada ere, emakume etorkin gehiagok dute eskola graduatua edo titulu baliokideren bat (etorki-

nen % 32,8k eta bertakoen % 30,4k), eta bertako emakume gehiagok dute eskola graduatua baino goragoko titulu bat (etorkinen % 27,6k eta bertakoen % 30,4k).

Nabarmentzekoa da bi taldeen datuak antzekoak direla eta, hortaz, estereotipo hau hausten dutela: bertako biztanleriaren aldean, etorkinek, batez ere emakumeek, prestakuntza formal eskasa dutela. Ikusi dugunez, emakume etorkinen eta bertako emakumeen ikasket-maila oso antzekoa da.

4.19. TAULA Atzerritarren ikasketa-maila

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
10 urtetik beherakoak	0,4	0,4
Ez daki irakurtzen eta idazten	12,1	12,9
Eskola graduatua baino beheragoko titulu bat	27,1	31,6
Eskola graduatua edo titulu baliokideren bat	32,8	32,1
Batxilerra, LH, 2. mailako LH, tit. baliokideren bat edo goi-mailakoak	27,6	23,1

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

4.20. TAULA Bertakoen ikasketa-maila

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
10 urtetik beherakoak	0,5	0,5
Ez daki irakurtzen eta idazten	11,4	12
Eskola graduatua baino beheragoko titulu bat	27,4	24,1
Eskola graduatua edo titulu baliokideren bat	30,4	30,1
Batxilerra, LH, 2. mailako LH, tit. baliokideren bat edo goi-mailakoak	30,4	36,7

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

4.21. TAULA EAEn bizi diren atzerriko emakumeen ikasketa-maila

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
Kontuan hartzeko moduko ikasketarik ez	9,1	7,5
Lehen mailako ikasketak	23,7	30,1
Bigarren mailako ikasketak	51	30,2
LH 1	3,6	6,8
LH 2	3,4	7,3
Hirugarren mailako ikasketak egiten	5,7	3,1
Hirugarren mailako ikasketak eginak	13,6	15,1

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerriko etorkinen gaineko inkestak (AEI 2010) etorkinen ikasketa-mailari buruzko beste datu batzuk ere ematen ditu. Emakume etorkinen ikasketa-maila jatorrizko herrialdeen arabera alderatzeko erabiliko ditugu datu horiek gero.

4.21 taulan ikusten denez, gizonek lanbide-heziketa hautatzeko joera handiagoa dute emakumeek baino, eta emakumeek joera handixeagoa dute hirugarren mailako eta goi-mailako ikasketak egiteko gizonek baino (emakumeen % 19,3k egiten ditu hirugarren mailako eta goi-mailako ikasketak, eta gizonen % 18,2k).

4.22 taulan, emakume etorkinen ikasketa-maila ikusiko dugu emakumeen jatorrizko herrialdearen arabera. AEI 2010 inkestaren arabera, Magrebeko emakumeek dute ikasketa-maila

baxuena (% 57,7k lehen mailako ikasketak edo beheragoko ikasketak ditu, eta % 10,1ak soilik du LH 2ko ikasketak edo goi-mailako ikasketak). Txinako eta Senegaleko emakumeek dituzte LH 2ko eta unibertsitateko ikasketa gutxien (% 10,1ak eta % 6,6k, hurrenez hurren). Kolonbiako, Ekuadorreko eta Peruko emakumeak, berriz, bigarren mailako ikasketak edo LH 1ko ikasketak dituztelako nabarmentzen dira (% 61,1ak). Horren kontrara, Mendebaldeko EBko emakumeek (% 33,2) eta Argentinako, Txileko eta Uruguako (% 26,6) emakumeek dituzte LH 2ko eta unibertsitateko ikasketa gehien.

4.22. TAULA Atzerriko emakumeen ikasketa-maila, jatorriaren arabera

	1. MAILAKOAK/GUTXIAGO	2. MAILAKOAK/LH 1	LH 2/3. MAILAKOAK
Mendebaleko EB	44,5	22,4	33,2
Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	30,2	37,3	32,5
Magreb	57,7	32,2	10,1
Argentina, Txile, Uruguai	28,4	45,0	26,6
Kolonbia, Ekuador, Peru	28,4	61,6	10,0
Bolivia	33,8	48,1	18,1
Paraguai	22,5	54,0	23,4
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	22,6	55,6	21,8
Txina	41,1	48,7	10,1
Senegal	57,9	35,5	6,6

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Bestalde, EAEko bizi diren atzerriko etorkinen gaineko inkestak aditzera ematen du 16 urtetik gorako gizon eta emakume askok araututako ikasketak egin dituztela edo egiten ari direla EAEn. Hori da, hain zuzen ere, EAEn erroldatutako 16 urtetik gorako emakumeen % 21,8ren kasua (inkestaren arabera, 17.287 emakume daude egoera horretan). Gizonen datuak antzekoak dira: % 23,6k ikasketa arautuak egin ditu edo egiten ari da EAEn. Ikasketa arautuak egin dituzten edo egiten ari diren emakumeen artean, Mendebaldeko EBko emakumeak nabarmentzen dira (emakume horien % 40,4 sartzen da talde horretan). Kolonbiako, Ekuadorreko eta Peruko emakumeen % 26,8, Argentinako, Txileko eta Uruguako emakumeen % 24,3 eta Magrebeko emakumeen % 23,5 aurreko taldean sartzen da. Paraguako emakumeek (% 5,0k), Boliviakoek (% 15,1), Latinoamerikako gaineko herrialdeetakoek (% 14,5), Txinakoek (% 13,1) eta Senegalekoek (% 14,4) egin dituzte edo egiten ari dira ikasketa arautu gutxien EAEn.

Inkesta egin zutenei zera galdetu zieten: ea haien lanpostuak eta haien prestakuntza-maila bat zetozen. Azpimarratzekoa da emakumeen % 67k baietz esan zuela, lanpostua eta prestakuntza-maila bat zetozela (gizonen % 72k esan zuen hori); emakumeen % 31k, aldiz, lanpostua prestakuntza-mailaren azpitik zegoela esan zuen (gizonen % 22,1ak esan zuen hori). Emakumeen % 1,9k soilik esan zuen bere lanpostua prestakuntza-mailaren gainetik zegoela (gizonen % 4,9k esan zuen hori). Argi dago emakume etorkin gehienek lanpostuak bat datozela egindako ikasketekin. Dena den, emakume kopuru handi batek bere prestakuntzaren azpitik dauden lanak egiten ditu.

Hel diezaiegun orain emakumeek EAEn egin dituzten edo egiten ari diren ikasketei buruz emandako datuei, oso interesgarriak dira eta.

EAEn izandako eskolatzearen ezaugarriei dagokienez, inkesta egin zutenei zera galdetu zieten: ea etorkin asko zeuden ikastetxeetan ikasi zuten. Emakumeen % 13k eta gizonen

% 17k baietz erantzun zuen; hau da, horrelako ikastetxe batean ikasi zuela. Dena den, alde handiak daude jatorriaren arabera. Magrebeko emakumeek dute ehuneko handiena (% 26,6k dio etorkin asko zeuden ikastetxe batean ikasi zuela), eta gero, Latinoamerikako herrialde hauetako emakumeek: Kolonia, Ekuador, Peru (% 17,1), Bolivia (% 15), Argentina, Txile, Uruguai (% 13,9). Txinako emakumeen % 12,9 talde horretan sartzen da. Horren kontrara, Mendebaldeko EBko herrialdeetako emakumeen % 4,7k soilik ikasi du halako ikastetxe batean.

Nahiz eta ehuneko horiek kasu batzuetan handiak direla iruditu, etorkinek diote eskolan ez direla oso bakartuta edo/eta gaitzetsita sentitu arrazagatik, erlijioagatik edo kulturagatik. Emakumeek, oro har, modu positiboagoan adierazten dute errespetua gizonen baino. Ikaskideek arrazagatik, erlijioagatik edo kulturagatik bakartu zituzten galdetu zieten inkestatutakoei, eta emakumeen % 3,1ak eta gizonen % 6,9k soilik esan zuten baietz. Bakartuta gehien sentitu direnak Senegaleko emakumeak dira (% 20,7), eta gero, Txinakoak (% 12,9), Mendebaldeko EBko herrialdeetakoak (% 5,7), Errumaniakoak eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetakoak (% 5,6) eta Magrebekoak (% 5,1).

Ikaskideek arrazagatik, erlijioagatik edo kulturagatik gaitzetsi zituzten galdetu zieten inkestatutakoei, eta emakumeen % 2,7k eta gizonen % 6,8k soilik esan zuten baietz. Kasu horretan, gaitzetsita gehien sentitu direnak Senegaleko emakumeak dira (% 20,7), eta gero, Txinakoak (% 12,9), Errumaniakoak eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetakoak (% 5,6) eta Magrebekoak (% 5,1). Ikusten denez, ehuneko horiek eta aurrekoak berdinak dira.

Hizkuntza ikasteko edo, oro har, ikasteko jasotako eskola-laguntzari dagokionez, etorkinen iritzia bat dator lehen esan dugunarekin: bildutako datuak, batez ere emakumeenak, oso positiboak dira. Emakumeen % 2,8ri soilik iruditzen zaio ez duela behar adina eskola-laguntza izan hizkuntza-mailara iristeko (gizonen % 4,6ri iruditzen zaio hori). Halaber, emakumeen % 3,5i soilik iruditzen zaio ez duela behar adina eskola-laguntza izan ikasketamailara iristeko (gizonen % 6,0ri iruditzen zaio hori). Horren kontrara, datuak aski desberdinak dira Txinako emakumeen kasuan (% 26ri iruditzen zaio ez duela behar adina laguntza izan hizkuntza-mailara iristeko, % 17ri iruditzen zaio ez duela behar adina laguntza izan ikasketamailara iristeko) eta Latinoamerikako herrialde batzuetako emakumeen kasuan. Argentinako, Txileko eta Uruguaiako emakumeen % 13ri iruditzen zaio ez duela behar adina laguntza izan ikasketamailara iristeko; dena den, haietako batek ere ez du esan behar adina laguntza izan ez duenik hizkuntza-mailara iristeko (% 0,0). Kolonbiako, Ekuadorreko eta Peruko emakumeen % 0,5ari iruditzen zaio ez duela behar adina laguntza izan ikasketetan, eta % 3,9ari iruditzen zaio ez duela behar adina laguntza izan hizkuntzaren arloan. Errumaniako eta Mendebaldeko EBko beste herrialde batzuetako emakumeek ere ehuneko handi samarrak dituzte: % 8,9 (ikasketamaila) eta % 5,6 (hizkuntza-maila). Deigarria gertatu zaigu Magrebeko emakumeek desadostasunik ez adieraztea jasotako eskola-laguntzaren gainean (bi galderetan % 0,0).

Gizarte hartzailean gizarteratzeko prozesuari dagokionez, interesgarria da ikustea ea norekin ibiltzen diren ikasketak egin dituzten edo egiten ari diren emakumeak: ikasle atzerritarrekin bakarrik edo ez. Oro har, emakume eta gizon etorkinek diote ez direla ikasle atzerritarrekin soilik ibili (gizonen eta emakumeen % 95k dio hori). Dena den, emakumeen kolektibo batzuek hein handiago batean eman dute aurkako erantzuna: Magrebeko emakumeen % 16,1ak (eta gizonen % 2,8k) dio ikasle atzerritarrekin soilik ibili dela. Boliviako emakumeen % 33,5ak (eta gizonen % 10,3k) eta Txinako emakumeen % 12,9k (eta gizonen % 0,0k) hori bera dio.

Magrebeko emakumeen erantzuna txundigarria da; izan ere, lehen ikusi dugunez, ez omen dira bakartuta edo gaitzetsita sentitzen eskolan. Boliviako emakumeen kasuan ere, gutxi sentitu dira bakartuta edo gaitzetsita, eta hala ere, haietako askok diote ikasle atzerritarrekin soilik egin dituztela harremanak. Txinako emakumeek, aldiz, beste emakumeak baino bakartuago eta gaitzetsiago sentitu dira.

EAEEn ikasketak egin edo egiten ari diren emakumeek ikasketa-maila handia lortu nahi dute. Emakumeen % 41,1ak (eta gizonen % 30,0k) bigarren mailako hezkuntza eta LH 2 baino goragoko ikasketak egin nahi ditu; batez ere, Errumaniako emakumeak eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako emakumeak gailentzen dira (emakumeen % 73,7). Inkestatutako emakumeen % 5,8k (eta gizonen % 5,1ak) lehen mailako ikasketak egin nahi ditu; % 8,0k (eta gizonen % 18,1ak), LH 1 eta antzeko ikasketak; % 7,6k (eta gizonen % 27,8k) LH 2 eta antzeko ikasketak; eta % 31,0k (eta gizonen % 16,5ak) bigarren mailako ikasketak.

Emakume gehienek A ereduan egin dituzte ikasketak (emakumeen % 86,3 eta gizonen % 79,3). Emakumeen % 8,0k B ereduan egin ditu ikasketak, eta % 4,6k (eta gizonen % 13,9k), D ereduan. Gogora dezagun D ereduan ikastea dela euskara ikasteko bide segurua.


AEI 2010 inkestan, zera galdetu zieten EAEEn ikasi duten emakumeei: ea A eredura bideratu zituzten (erantzuna bai edo ez zen). Ez zieten galdetu ea beste eredu batera bideratu zituzten. Emakumeen % 48,4k esan zuen A eredura bideratu zutela. Alderdi horri dagokionez, nabarmentzekoak dira Magrebeko emakumeak (% 64,7), Latinoamerikako herrialdeetakoak (Kolonbia, Ekuador eta Peru % 58,1; Bolivia % 53,5) eta Txinakoak (% 53,9). Interesgarria izango litzateke jakitea nork eta nola bideratu dituzten eredu horretara. Bestalde, ez dago korrelazio zuzenik bi aldagai hauen artean: zer eredutara bideratzen dituzten eta zer eredutan eskolatzen diren. Esate baterako, Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako etorkinei dagokienez, % 19 bideratu zuten A eredura eta % 86,7 eskolatu zen eredu horretan. Boliviako etorkinei dagokienez, % 53,5 bideratu zuten eredu horretara eta % 91,8 eskolatu zen eredu horretan. Argi dago eskolatzeko eredu hautatzen dutenean beste faktore batzuk ere kontuan hartzen dituztela. Faktore horiek aztertu beharoko genituzke.

HIZKUNTZEN EZAGUTZA ETA ERABILERA

4.6.3

Etxean erabiltzen dituzten hizkuntzei dagokienez, emakume etorkinen % 64,6k (eta gizonen % 55,2k) gaztelania erabiltzen du etxean; gero, hiztun kopuruaren arabera, errumaniera (% 6,9), arabiera (% 6,4), portugaleria (% 5,4), txinera (% 2,2), berberea (% 1,9) eta hiztun gutxiago dituzten hizkuntza batzuk. Emakume etorkinen % 1,3k soilik hitz egiten du euskaraz etxean.

4.11. GRAFIKOA atzerriko emakumeek etxean erabiltzen dituzten hizkuntzak



Iturria: AEI 2010 eta egileek egin

gizonen % 91,1ak) oso ondo, ondo edo nahiko ondo daki gaztelaniaz. Dena den, jatorrizko herrialdearen arabera, aldeak daude: Magrebeko emakumeen % 60,5ak oso ondo, ondo edo nahiko ondo daki gaztelaniaz; % 29,4k ez daki oso ondo; eta % 10ak ez daki gaztelaniaz. Beste jatorri batzuetako etorkinen artean, gaztelaniaz ez dakiten pertsonen ehuneko txikiagoa da (% 2,5 baino txikiagoa kasu guztietan). Datu horietatik zera ondoriozta dezakegu: Magrebeko emakume etorkinen talde handi bat gizarte hartzailetik bakartuta bizi dela.

Inkestatutako etorkin gutxiak dakite euskaraz. Emakumeen % 3,5ak (eta gizonen % 4,0k) soilik daki euskara oso ondo edo ondo; % 1,3k (eta gizonen % 1,7k) nahiko ondo; % 26,2k (eta gizonen % 30,1ak) eskas daki edo hobetu beharko luke; eta % 69,0k (eta gizonen % 65ak) ez daki. Hauek dira euskaraz ez dakiten emakume kopuru handienak dituzten kolektiboak: Magrebeko emakumeak (% 82,6k ez daki), Paraguaiakoak (% 74,4), Txinakoak (%88,6) eta Senegalekoak (% 80).

Euskararen ezagutzari dagokionez, kolektibo bat gailentzen da kolektibo guztien artean: Mendebaldeko EBko etorkinen kolektiboa (emakumeen % 13,4 dio oso ondo edo ondo dakiela euskaraz; eta % 26,4k, zertxobait dakiela). Datu hori bat dator etxeko hizkuntzarekin; izan ere, Mendebaldeko EBko emakumeak dira etxean euskaraz gehien hitz egiten dutenak (% 4,1). Argentinako, Txileko eta Uruguaiako emakumeei dagokienez, nahiz eta gutxi jakin oso ondo edo ondo (% 3,7) edo nahiko ondo (% 1,3), % 47,5ak badaki zertxobait.


4.23. TAULA Euskararen ezagutza

Oso ondo/ondo	3,5
Nahiko ondo	1,3
Eskas / hobetu beharko luke	26,2
Ez daki	69

Iturria: AEI 2010 eta egileek egin

Etorkin gehiagok dakite ingelesez euskaraz baino. Emakumeen % 20,3k (eta gizonen % 23,5ak) oso ondo, ondo edo nahiko ondo daki ingelesez; % 22,9k (eta gizonen % 27k) eskas daki edo hobetu beharko luke; eta % 56,8k (eta gizonen % 49k) ez daki. Gutxi dakitena Paraguaiako emakumeak dira (% 79k ez daki), eta gero, Magrebekoak (% 72,9) eta Txinakoak (% 66,3). Hobekien dakitena Mendebaldeko EBko emakumeak dira (% 35,1ak ondo edo oso ondo daki, eta % 5,2k, nahiko ondo), eta gero, Argentinakoak, Txilekoak eta Uruguaiakoak (% 15ak oso ondo edo ondo daki, eta % 16,7k, nahiko ondo).

4.12. GRAFIKOA Gaztelaniaren, euskararen eta ingelesaren ezagutza



Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

ESKOLA-ADINEAN DAUDEN SEME-ALABEN AMAK

4.6.4

Atal honen xedea ez da haurren eskolatzeari aztertzea. Dena den, horri buruzko datu batzuk aipatuko ditugu, ama etorkinekin zerikusi dute eta.

Gaur egun, euskal eskoletako ikasleen % 6,8 da etorkina (HHE kontuan hartu gabe). Pertsona kopuru txiki samarra da: Espainiako batez bestekoa (% 9,5) eta beste erkidego batzuetako kopurua (Errioxa: % 15,1; Nafarroa: % 10,5) baino dezente txikiagoa. Hori dela eta, berez, errazagoa izan beharko luke talde hori kudeatzea.

Gaur egun, baina, bi faktore hauek eskolatzeari zatitzen dute, eta ikasle etorkinak ikastetxe jakin batzuetan pilaraztea sustatzen: hiru hizkuntza eredu eta bi sare izatea (publikoa eta hiztartzutakoa). Hizkuntza-ereduei dagokienez, azken urteotan, gero eta ikasle etorkin gehiago matrikulatzen dituzte B eta D ereduetan. Duela urte gutxi, ikasle etorkin gehienak A ereduaren matrikulatzen zituzten. Eusko Legebiltzarrean oposizioko alderdi politikoen eskariz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2010eko otsailaren 28an plazaratutako datuen arabera, 2009-2010 ikasturtean, ikasle etorkin gehienak B eta D ereduaren eskolatu ziren; A ereduaren eskolatu ziren ikasleen kopurua txikiagoa izan zen (% 28,50). Dena den, esan beharra dago alde handiak daudela lurralde historikoen artean (ikus 24. taula). Aipagarria da Araban A ereduaren eskolatu direla etorkinen ia erdiak. Ikasle etorkinen eta gainerako ikasleen artean alde handia dago; izan ere, 2009-2010 ikasturtean, EAeko ikasleen % 9 soilik matrikulatu zen A ereduaren, eta Araban, A ereduko ikasle kopuru handiena duen probintzian, ikasleen % 16 soilik matrikulatu zen eredu horretan.

4.24. TAULA Ikasle etorkinak, ereduaren eta probintziaren arabera (HH, LMH, DBH)

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	ETORKINAK	%	ETORKIN.	%	ETORKIN.	%	ETORKIN.	%
A eredia	1.660	49,3	3.546	33,5	147	3,0	5.353	28,5
B eredia	1.187	35,2	3.132	29,6	1.583	32,7	5.902	31,4
D eredia	521	15,5	3.900	36,9	3.106	64,2	7.527	40,1
%	17,9		56,3		25,75		100	

Iturria: 2010eko otsailaren 28an, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak Eusko Legebiltzarrari emandako txostena

4.25. TAULA Ikasleak guztira, ereduaren eta probintziaren arabera (HH, LMH, DBH)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
A eredia	16,1	12,9	2,7	9,9
B eredia	41,7	27,9	19,8	27,2
D eredia	42,2	59,1	77,4	62,9

Iturria: 2010eko otsailaren 28an, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak Eusko Legebiltzarrari emandako txostena

Bestalde, eskola-sareei dagokienez, 2010-2011 ikasturtean, derrigorrezko hezkuntzako ikasle etorkinen % 66,5 eskola publikoan eskolatu zen. Dena den, ikasle etorkin guztiak kontuan hartuta, ikasleen erdia sare publikoan eskolatu zen, eta beste erdia, hitzartutako sarean. Ez zen alde handirik egon ikasturteen artean. Halaber, kontuan izan behar dugu hitzartutako eskoletan ikasten duten ikasleen kopuru handi bat eskola erlijiosoetan eskolatuta dagoela (alde handiak daude eskolen artean), eta kopuru txikiago bat, ikastoletan. Sare publikoan eta hitzartutakoan eskolatutako ikasleen kopuruei dagokienez ere, alde handiak daude probintzien artean.

4.26. TAULA Ikasle etorkinak, sarearen eta probintziaren arabera (HH, LMH, DBH)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Publikoa	75,8	66,5	57
Hitzartutakoa	24,2	33,5	43

Iturria: 2010eko otsailaren 28an, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak Eusko Legebiltzarrari emandako txostena

Eskolatzearen desoreka horien ondorioz, EAeko ikastetxeen kopuru handi batean zera gertatzen da: ikastetxeko ikasle etorkinen ehunekoa askoz handiagoa dela ikastetxea kokatuta dagoen auzoko etorkinen ehunekoa baino. Gutxienez hamahiru ikastetxetan, ikasleen % 50 etorkina da. Ikastetxe horietako gehienak A ereduko eskola publikoak dira (D ereduan daude ikasle etorkin gutxien). Gero eta bertako familia gutxiagok eskolatzen dituzte beren haurrak eskola horietan. Hori dela eta, libre gelditzen diren lekuak etorkinek betetzen dituzte, eta hala, gero eta etorkin gehiago pilatzen dira eskola horietan. Lehen ikusi dugunez, EAEn ikasketak egin dituzten edo egiten ari diren emakumeen % 13k eta gizonen % 17k esan du etorkin asko zeuden ikastetxeetan ikasi duela. Horien artean, nabarmentzekoak dira Magrebeko, Txinako eta Latinoamerikako herrialde batzuetako emakumeak.

Etorkinen pilaketa horiek kaltegarriak dira ikasle etorkinentzat. Ferrán Ferreren¹¹⁵ gidaritzapean azterlan berri bat egin dute duela gutxi 2009an Katalunian egindako PISA ebaluazioaren emaitzetan oinarrituta. Azterlan horren arabera, Katalunian, ikasle etorkinen kopurua % 25etik gorakoa den eskoletan, etorkinek eskola-emaitza dezente okerragoak dituzte ber-

¹¹⁵Ferran Ferrer (zuzendaria), Alba Castejón, José Luis Castel i Adrià Zancajo (2011). *PISA 2009: evaluació de les desigualtats educatives a Catalunya*. Col·lecció: Polítiques 74.

tako ikasleek baino. Beste era batera esanda: ikasgelan etorkin asko egoteak ez du ia eraginik bertako ikasleengan, bai, ordea, atzerriko ikasleengan. Beraz, eskolan ikasle etorkin asko egoteak ikasle etorkinei egiten die kalte.

ISEI erakundeak azken urteotan EAEn urtero egin dituen ebaluazio diagnostikoen arabera, estatus sozioekonomiko eta kultural apaleko familietako ikasleek izan dituzte, oro har, emaitza akademiko txarrenak. Horrekin batera, aipatzekoa da ikasle etorkinen eskola-errendimendua ez dela bertako ikasleena bezain ona. Duela gutxi egindako azterlan hauek hori bera diote: Ferrean Ferrerek Katalunian egindako azterlanak eta Gil Floresek¹¹⁶ PISA 2006ko emaitzetan oinarrituta Andaluzian egindako azterlanak. Hona hemen adibide argi bat: EAEko Ebaluazio Diagnostikoa egiteko, ebaluazioan parte hartzen duten ikasleen familiek galdera batzuk erantzun behar dituzte; esate baterako, zer ikasketa egiten dituzten gurasoek, zertan egiten duten lan, zenbat liburu dauden gutxi gorabehera etxean, Internet konexiorik duten, egunkaria irakurtzen duten egunero eta aldizkari espezializatuak eta literatura klasikoaren liburuak irakurtzen dituzten. Galdera horien erantzunen arabera egiten da familien eta ikastetxearen "indize sozioekonomiko eta kulturala" (ISEK). Emaitzak aztertze-ko balio du indize horrek, hain zuzen. Adibide bat aipatzearen, 2010eko txostenean, hauxe esaten da lehen hezkuntzako 4. mailako¹¹⁷ ikasleen emaitzei buruz: "Gurasoek Batxilergoko ikasketak edo altuagoak (% 70) dituzten ikasleek konpetentzia bakoitzaren batez besteko orokorraren emaitza berdina edo altuagoak dituzte *konpetentzia guztietan*" (151. or.). Horretaz gainera, txostenean zera ondorioztatzen da: "Jatorriz atzerritarra den ikasleak (% 7) ez du batez besteko orokorra lortzen konpetentzia bakar batean ere" (152. or.). Halaber, azpimarra dezagun emaitza hobekak lortu zituztela hiru urterekin eskolatutako ikasleek (ikasle etorkin asko ez dira adin horrekin eskolatzen, baizik eta EAera iristen direnean) eta senideekin eskolan eta ebaluazio diagnostikoan erabiltzen den hizkuntza hitz egiten duten ikasleek. Txosten horretan jasotako lehen hezkuntzako 2. mailako ebaluazioaren emaitzak antzekoak dira.

Hala eta guztiz ere, ez dago erabateko determinismo sozialik: EAEko ikastetxe eta irakasle batzuek lan handia egiten dute ikasle etorkinen gizarte-egoera orekatzeko. Oro har, familieren eta eskolaren arteko "jarraitutasunari eta jarraitutasun ezari" erreferentzia egin diezaiekegu¹¹⁸; izan ere, ideia horien bidez proposatzen den markoa interesgarria da gutxiengo etnikoetako ikasleek eskolan zer bizi duten ulertzeko. Marko horren helburua da ezagutza eta esperientzia hauek aztertzea, haien artean zer jarraitutasun dagoen aztertze-ko: ikasleak familian eta inguruan eskuratutako ezagutzak eta esperientziak (jatorrizko kulturarekin edo familiaren maila sozioekonomikoarekin eta eskura duen kultura-ondasunekin lotutako ezagutzak eta esperientziak) eta eskolak balioesten eta erabiltzen dituen ezagutzak eta esperientziak, eskolan arrakasta izateko baliagarriak direnak. Eskolak bere jarduteko moduari buruz hausnartu behar du eta familiekin elkarlanean jardun behar du jarraitutasun potentzialak sustatzeko. Lan hori ez dagokie familiei soilik; hau da, bertako eskolako kulturara egokitze-ko jarraitutasunak eta zubiak egitea ez dagokie familiei soilik. Jarraitutasun horiek erakitzea izan behar da eskola inklusiboaren paradigmen helburuetako bat.

¹¹⁶Javier Gil-Flores (2011). Familien estatus sozioekonomikoa eta ikasleek hezkuntzan lortutako emaitzak. *Cultura y educación* 23 (1), 141-154 or.

¹¹⁷Ikus ISEI-IVEI (2001). *Ebaluazio diagnostikoa 2010. Emaitzen txosten orokorra eta aldagaien analisisa*. <http://www.ediagnostikoak.net/ediag/eus/informazio-materialak/infor-materialak.htm>

¹¹⁸David Povedaren artikulua (2001) gauza ugari argitzen ditu gai horri buruz: La educación de las minorías étnicas desde el marco de las continuidades-discontinuidades familia-escuela. *Gazeta de Antropología* 17, 17-31 or.

Eskolako hizkuntza jakitea ere garrantzitsua da eskolan arrakasta izateko. Ollerek eta Vilak¹¹⁹ duela gutxi egin duten azterlan batean, berriro ere gogorarazten digute sei urtez ikasi behar dela eskolako hizkuntzako jakiteko (kasu horretan katalana). Halaber, azterlan horretan ere azpimarratzen dute eskolan 3-6 urterekin hasten direnek lortzen dituztela emaitza onenak. Hortaz, ondoriozta dezakegu hizkuntzaren arloan berariazko laguntzarik izan ezean ikasleek porrot egin dezaketela. Egunero eskolara joatea ez da nahikoa hizkuntza bat ikasteko. Onuragarria da eskolako hizkuntzaren eta ikasleek gizarte-inguruan darabilten hizkuntzaren artean jarraitutasuna egotea –ikasle atzerritarrek arinago ikasten dute katalanera, baldin eta, ikasgelan ez ezik, kalean ere katalanez hitz egiten badute–. Azterlanaren arabera, “katalana nagusi den lekuetako ikasleek dute idatzizko katalanaren eta gaztelaniaren ezagutza handiena”. Hain zuzen, euskaraz eskolatzen direnentzat, eskolako hizkuntza (euskara) eta gizartean gehiengoak erabiltzen duen hizkuntza (gaztelania) bat ez etortzea oztopo bat da eskolako hizkuntza ikasteko. Behar adina baliabide erabili behar dira oztopo horri aurre egiteko. Horregatik da hain garrantzitsua ikasleek eskolan hizkuntza arloko laguntza jasotzea eta eskolaz kanpoko eta aisialdiko ekintzetan eskolako hizkuntza erabiltzea. Bestalde, Ollerek eta Vilak (2011) frogatu dute hizkuntzen artean dauden aldeek (berdintasunek eta ezberdintasunek) eragina dutela eskolako hizkuntzaren ikaskuntzan.

Gizarte-ingurunearen partaidetza lagungarria da hasierako desorekak orekatzeko. Gai hori garrantzitsua da, eta hezkuntzaren arloan landu behar da¹²⁰.

Hezkuntza Ministerioak plazaratutako datuen arabera, 2009-2010 ikasturtean EAEko ikaste-txeetan matrikulatutako ikasle atzerritarren % 51,5 Erdialdeko Amerikakoa eta Hego Amerikakoa da; batez ere, Kolonbiakoa, Boliviakoa eta Ekuadorrekoa. % 22 Afrikakoa da; batez ere, Marokokoa eta Aljeriakoa. % 19 Europakoa da; batez ere, Errumaniakoa eta Portugalekoa. % 5,8 Asiakoa da; batez ere, Txinakoa eta Pakistangoa. Argi dago, beraz, ikasle atzerritar askok beste hizkuntza bat hitz egiten dutela; hots, euskara eta gaztelania ez den hizkuntza bat. Hortaz, hezkuntza-sisteman sartzean euskara eta gaztelania ikasi behar izateak bigarren, hirugarren edo laugarren hizkuntza bat ikastea esan nahi du.

Literatura zientifikoak askotan frogatu du garrantzitsua dela ikasleek familiako hizkuntza ondo ikastea; izan ere, hori da beste hizkuntzak –batez ere, eskolakoak– ikasteko oinarria (Ollerek eta Vilak 2011 ere aipatzen dute kontu hori). Familiek beren hizkuntza hitz egiten eta lantzen jarraitu behar dute, eta eskolek ikaskuntza hori sustatu eta balioetsi behar dute.

Halaber, ezin dugu ahaztu zer ikuspegi duten, oro har, herritarrek eta, bereziki, eskola-komunitateko kideek (irakasleek, ikasleek eta familiek) immigrazioari eta kolektibo jakin batzuei buruz eta zer estereotipo dauden etorkin berriei buruz. Félix Etxeberriak eta Kristina Elosegik¹²¹ azken urteotan egindako ikerlan eta txosten batzuk aipatzen dituzte. Ikerlan eta txosten horien arabera, ikasleek etorkinen aurka dituzten jarrera negatiboak gero eta nabariagoak dira. Funtsezkoa da kontu horri pedagogiaren arlotik heltzea, bai ikasleekin, bai herritarrekin oro har. Aipatzekoa da zenbait autonomia-erkidegotan kanpainak egiten ari direla gai horri heltzeko¹²². Hona hemen hezkuntzan garrantzi handia duen beste alderdi bat: arra-

¹¹⁹Judith Oller & Ignasi Vila (2011). Interdependencia entre conocimiento de catalán y castellano y efectos de la lengua familiar en la adquisición de las lenguas escolares. *Cultura y educación* 23 (1), 3-22 or.

¹²⁰Ikus Ignasi Vila eta Ramón Casares (2009). *Educación y sociedad. Una perspectiva sobre las relaciones entre la escuela y el entorno social*, Bartzelona, Horsori (Hezkuntzarako koadernoak).

¹²¹Félix Etxeberria eta Kristina Elosegi (2011). *Ikasle etorkinak eta hizkuntzak euskal eskolan. EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria*, Ikuspegia, 103-122 or.

¹²²Ikus “zurrumurruren aurka” Katalunian egindako kanpaina aitzindaria (http://w110.bcn.cat/portal/site/UsosDelTemps/menuitem.b4d797923997277cf740f740a2ef8a0c/?vgnnextoid=f9810053ebca0310VgnVCM10000074fea8c0RCRD&&lang=es_ES) o la de Andalucía (<http://nadiesinfuturo.org/de-interes/articulo/la-campana-andalucia-somos-todos>)

zakeriaren aurkako hezkuntza. Ikasle guztiek, bertakoek nahiz atzerrikoek, ikasi behar dute horren berri; izan ere, herritartasunerako gaitasunen barruan sartzen da.

Atal honen hasieran esan dugunez, eskolak interakzio soziala bultzatzen du ikasleen artean eta familien artean, eta alde horretatik oso garrantzitsua da. Seme-alaben ardurak bultzatuta eta eskolako jarraipena egiteko joaten dira familiak eskolara, eta han, beste bertako nahiz atzerriko pertsona batzuekin harremanak egiten dituzte. Batez ere, amez ari gara; izan ere, oraindik ere, bertako nahiz atzerriko familietako amak gehiago arduratzen dira seme-alaben hezkuntzaz aitak baino. Bertako eta atzerriko familiek harremanak egiteko, ezinbestekoa da eskolako ikasle guztiak ez izatea etorkinak edo bertakoak. Garrantzitsua da ikastetxeek jatorri ezberdineko familien arteko harremanak bultzatzea.

Lan-orduek eta bizitzako egoerek ez ezik, beste faktore batzuek ere mugatzen dute amek eskolan duten parte-hartzea. Faktore horien artean, aipatzekoa da eskolan harremanetarako eta funtzionamendurako erabiltzen den hizkuntza edo hizkuntzak jakitea. Arestian aipatu dugunez, emakume etorkinen % 11,5ak oso gutxi daki gaztelaniaz, edo ez daki. Magrebeko emakumeen artean, ordea, ehuneko hori handiagoa da: % 29,4k eskas daki gaztelaniaz, eta % 10ak ez daki. Etorkinek, oro har, ez dakite euskaraz (emakumeen % 3,5ak soilik esan du oso ondo edo ondo dakiela). Harremanetarako eta funtzionamendurako euskara erabiltzen duten ikastetxeetan, hori oztopo bat da gurasoekin bilerak egiteko eta abarrerako.

Bestalde, guraso-elkartearen bileretan, eskola-kontseiluaren bileretan eta halakoetan, beharrezkoa da testu formalak irakurtzea eta publikoki hitza hartzea. Atzerriko emakumeek, ordea, ohitura ezberdinak dituzte pribatuak edo familia-girokoak ez diren espazio zabal eta publikoetan parte hartzeari begira. Jatorri jakin batzuetako emakumeek hezkuntza-maila apala dute eta ez dute parte-hartze handirik bizitza publikoan. Bada, emakume horiek eskola-komunitateko ekintza formaletan duten parte-hartzea mugatua da. Bestalde, familia batzuek laguntzarako gizarte-sare txikiak dituzte eta ezin dituzte haurrak beste inoren zaintzapean utzi eskolako bileretara eta topaketetara joateko. Kasu horietan, eskolak bitartekoak jarri behar ditu familia horien parte-hartzea bermatzeko.

Etorkinen elkarteek eta kolektiboek ez dute aldarrikapen publikorik egiten haien seme-alaben hezkuntzarekin lotutako gaiei buruz. Esate baterako, ez dute salatzen eskola batzuetan etorkin kopuru handiak egotea edo behar baino baliabide gutxiago egotea ikasle etorkinen premia espezifikoei aurre egiteko. Ikusi dugunez, emakume gutxik (% 3,1) esan dute bakartuta sentitu direla arrazagatik, erlijioagatik edo kulturagatik EAEn ikasketa arautuak egin dituztenean. Dena den, talde batzuetan (Senegaleko, Txinako, Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako eta Magrebeko emakumeen artean), beste talde batzuetan baino emakume gehiago sentitu dira bakartuta. Halaber, oso gutxik (% 2,7) esan dute gaitzetsita sentitu direla arrazagatik, erlijioagatik edo kulturagatik. Dena den, kasu horretan ere, talde batzuek beste batzuek baino gaitzespen handiagoa sentitu dute. Era berean, ikusi dugunez, gutxik jo dute eskastzat hizkuntzaren eta ikasketen arloan jasotako eskola-laguntza (emakumeen % 2,8ri soilik iruditu zaio ez duela behar adina laguntza jaso hizkuntza-mailara iristeko, eta % 3,5ari iruditu zaio ez duela behar adina laguntza jaso ikasketamailara iristeko; kasu horretan ere, kolektibo batzuk beste batzuk baino asebateago daude).

Etorkin gutxik adierazten dute kexak dituztela edo ez daudela pozik. Hainbat arrazoik azaltzen dute hori; besteak beste, arrazoi orokorrek; esatea baterako, euskal hezkuntza-sistema sorterrikoa baino hobea dela uste izateak; eta bestelako arrazoiek; esatea baterako, jasotzen dituzten zerbitzuei begira eskakizun eta itxaropen gutxi izateak. Hori gorabehera, familia horiek eskubidea dute bertako biztanleek exijitzen eta jasotzen duten kalitatezko hezkuntza jasotzeko. Edonola ere, administrazioak neurriak hartu behar ditu benetako eki-

tatea lortzeko eta ikasleak aukera berdinak izan ditzaten, eta hasierako gizarte- eta hezkuntza-desberdintasunak orekatzeko aukera eman behar du.

ONDORIOAK ETA ERRONKAK

4.6.5

Ikusi dugunez, emakume etorkinen ikasketa-maila eta bertako emakumeena antzekoak dira; puntu gutxi batzuen aldea besterik ez dago bi parametroen artean (emakume etorkinen ikasketa-maila gizon etorkinena baino zertxobait handiagoa da). Emakume etorkinen % 32,76k eta bertako emakumeen % 30,37k du eskola graduatua edo titulu baliokideren bat. Bertako emakume gehiagok dute eskola graduatua baino goragoko titulu bat (etorkinen % 27,61ak eta bertakoen % 30,36k). Gainerako ehunekoak oso antzekoak dira. Hori dela eta, emakume etorkinak prestakuntza gutxi dutela dioen estereotipoa hutsala da. Jatorriaren arabera, dena den, aldeak daude: Magrebeko emakumeek dute ikasketa-maila baxuena.

16 urtetik gorako gizon eta emakume askok araututako ikasketak egin dituzte edo egiten ari dira EAEn. EAEn errolatuta dauden 16 urtetik gorako emakume etorkinen % 21,8k egin ditu edo egiten ari da ikasketa arautuak EAEn. Talde horrek datu interesgarriak eman dizkigu eskolatzearen baldintzei buruz. Ondorengo paragrafoan, ondorio horietako batzuk ekarriko ditugu hizpidera.

Aipatu dugu ez dagoela diskurtso kritiko orokorrik, ez eta emakumeen diskurtso kritikorik ere, seme-alabek eta emakumeek EAEn duten eskolatzeari buruz. Edonola ere, AEI 2010 inkestan, gertakari "objektiboenei" buruzko zenbait galdera daude; besteak beste, ea etorkin asko dituzten ikastetxeetan ikasi duten edo ea etorkin atzerritarrekin soilik egin dituzten harremanak. Datuen arabera, EAEn ikasketa arautuak egin dituzten emakume asko ez dira benetan integratu eskolan. Emakumeen % 13ak esan zuen baietz, etorkin asko zituen ikastetxe batean ikasi zuela. Aipatzekoa da Magrebeko emakumeen % 26,6ak baietz esan zuela. Txinako emakumeak besteak baino bakartuago eta gaitzetsiago sentitu dira. Nabarmentzekoa da Magrebeko eta Txinako emakumeak (eta batzuetan, Senegalekoak) beste emakume etorkinak baino egoera okerragoan daudela.

Oro har, etorkinek ez dute adierazten pozik ez daudenik. Hori gorabehera, ikastetxeek bermatu egin behar dute ikasle horiek bertako biztanleek exijitzen eta jasotzen duten kalitatezko hezkuntza bera jasotzen dutela.

Etorkinak gizarteratzeko, etorkinen eta bertakoen elkarrekintza ezinbestekoa da, eta haurren nahiz haiez arduratzen diren helduen elkarrekintza gertatzeko, ezinbestekoa da ikasle etorkin guztiak leku berean ez pilatzea. Horretaz gainera, ikasle etorkin guztiak pilatzeak eragin txarra du haien eskola-errendimenduan.

Bertako hizkuntzak, hots, gaztelania eta euskara, irakatsi behar zaizkie hizkuntza horiek ez dakizkiten emakumeei. Etorkin gutxik dakite euskaraz. Argi dago emakumeek hizkuntza horiek ikasteari ematen dioten lehentasunak beste faktore batzuekin duela zerikusia; hala nola, egoera soziolinguistikoarekin, laneko egoerarekin eta egoera pertsonalarekin. Emakume etorkinek gaztelania ikasteari ematen diote lehentasuna. Edonola ere, koste gutxiko ikastaro trinkoak antolatu behar dira bi hizkuntza horietan, azkarrago ikasi nahi dutenentzat. Gaur egun, herri askotan, gaztelaniako eskolak eskaintzen dituzten hezkuntza-zerbitzuak gainezka daude, eta euskarako eskolak hartzeko, berriz, dirua ordaindu behar da, eta horregatik, albo batera uzten dute euskara ikasteko asmoa.

Garrantzitsua da amek (baita aitek ere; testu hau emakume etorkinei buruzkoa delako jarri dugu parentesi artean) informazioa/prestakuntza jasotzea beren seme-alaben eskola-arrakasta bermatzeko funtsezkoak diren alderdien gainean. Hona hemen alderdi horietako batzuk: familiako hizkuntza, eskolaz kanpoko ekintzak eta eskolako lanak. Familiako hizkuntzari eustea zeinen garrantzitsua den ulertarazi behar zaie gurasoei, eta seme-alabek eskolako hizkuntzan egiten diren eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea eta eskolako lanak egiteko laguntza bilatzea zeinen onuragarria den jabebarazi (eskolako lanei dagokienez, laguntza etxean jaso dezakete edo, bestela, inguruan dauden zerbitzuetara jo dezakete). Familiek orain baino informazio gehiago jaso behar dute hizkuntza-ereduari eta eredu horrek ikaslearen gizarteratzean eta laneratzean izango dituen ondorioei buruz. Alde horretatik, interesgarria izango litzateke jakitea amek zer-nolako orientabidea jasotzen duten, orientabidea nork ematen dien eta zer eredutara bideratzen dituzten; beste hitzetan esanda, zer aholku eta informazio jasotzen duten seme-alaben eredia aukeratzeko.

Irakasleek immigrazioarekin lotutako alderdiei buruzko prestakuntza jaso behar dute, bai ikasten ari direnean (irakasle-eskolan), bai lanean ari direnean (prestakuntza etengabea). Eskola-kulturaren prozedura batzuek jarraitutasunak indartzen dituzte, batez ere estatus sozioekonomiko eta kultural ertaina eta altua duten bertako familienak. Prozedura horiei buruz hausnartu behar da, estatus baxuagoa duten haur etorkinen eta haien inguruaren artean zubiak egiteko; hots, eskolan arrakasta izaten lagunduko dieten zubiak egiteko.

Halaber, irakasleek prestakuntza jaso behar dute familiekin hobeto komunikatzeko. Hala, familiek hobeto ulertu eta kudeatuko dituzte beren seme-alaben eskolatzearekin lotutako funtsezko kontuak. Gogora dezagun ikasleengan itxaropen handiak izatea oso onuragarria dela pedagogiaren aldetik. Itxaropenak, ordea, ez dira maila sozioekonomiko eta kultural handia duten bertako familien ikasleengan soilik izan behar. Irakasleek prestakuntza jarraitua jaso behar dute alderdi horri buruz ere.

Badakigu ikasle etorkinek bertako ikasleek baino eskola-porrot handiagoa izaten dutela. Era berean, badakigu ikastetxe eta irakasle batzuek eraginkortasunez jokatzeko dutela eremu horretan. Horiek kontuan hartuta, interesgarria izango litzateke EAEko etorkinen seme-alaben eskola-arrakastaren gakoak zein diren aztertzea. Azterlan horrek aditzera emango dituen gakoak irakasleentzako prestakuntzan ikasiko/irakatsiko dira.

Premiazkoa da eskola-komunitatean (irakasleak, ikasleak eta familiak) arrazakeriaren aurkako hezkuntza zabaltzea. Administrazioak esparru horretan egiten duen inbertsioa estrategikoa izango da gizarte-kohesioari begira. Prestakuntza horren helburuetako bat da, oro har, etorkinen eta, zehazki, emakume etorkinen aurkako estereotipoen aurka egitea (jatorri jakin batzuetako etorkinek beste jatorri batzuetako etorkinek baino bazterkeria handiagoa pairatzen dute estereotipoen erruz).

Administrazioak behar adina baliabide erabili behar ditu eskoletan hizkuntza arloko berriazko laguntza emateko, bai eta ikasketa-maila lortzeko laguntza emateko ere. Hala, indartu egingo da eskolak gizarte-desoreka orekatzeko eta eskola-porrotari aurre hartzeko duen ahalmena. Inguruak ere (udaleko eta bertako zerbitzuek) horretan lagun dezake; besteak beste, ikasleen txokoen eta aisialdi-talde bidez. Komeni da ekimen horiek ikastetxearekin koordinatzea.

Testu honetan, EAEko emakume etorkinei eta hezkuntzari buruzko datu garrantzitsu batzuen berri eman dugu. Lehenik eta behin, emakume etorkinek egindako ikasketei buruz aritu gara. Emakume etorkinen eta bertako emakumeen ikasketa-maila alderatu dugu, eta emakume etorkinek EAE n egin dituzten ikasketei zer irizten dioten aztertu dugu. Bigarrenik, bertakoek eta etorkinek euskara zenbateraino dakiten eta erabiltzen duten ikusi dugu. Azkenik, eskola-adinean dauden seme-alaben hezkuntzarekin lotutako alderdi garrantzitsu

batzuk aipatu ditugu. Azterlan honetan, batez ere *Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerriko etorkinen gaineko inkesta* AEI 2010 erabili dugu. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egindako inkesta horrek atzerriarren lagin zabal bat du oinarri (2.286 pertsona), eta pertsona horien bizitzako ibilbideari, itzaropenei, lan-egoerari eta abarri buruzko informazio jasotzen du. Adin-eskolan dauden seme-alaben hezkuntzaren eremuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren datuei egin diegu erreferentzia, bai eta ikasle etorkinen eskolatzeari buruzko azterlan batzuei ere.

GIZARTE-ONGIZATE SUBJEKTIBOA: EMAKUME ETORKINEN IKUSPEGIA

José A. Oleaga

4.7


Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2010ean atzerritarrei eta bertakoei egindako inkestan, osasunari eta gizarte-ongizateari lotutako alderdi guztiak aztertu zituen; betiere, inkestatutako pertsonen ikuspegi subjektiboa abiapuntutzat hartuta (Osasuna eta Immigrazioa, Ikuspegi 2010)¹²³. Guk generoaren ikuspuntutik aztertu ditugu inkesta horren zati batzuk. EAEn bizi diren emakume etorkinek sentitzen, hautematen eta adierazten dituzten gauzetan jarri dugu arreta.

OSASUNA, ORO HAR

4.7.1

Ikuspegi 2010 azterlanak zalantza asko argitu zituen, eta aditzera eman zuen gure herrialdean bizi diren etorkin atzerritarrak nola sentitzen diren: % 84,9k esan zuen oro har osasun ona, oso ona edo bikaina zuela. Nahiz eta ehuneko hori bertako biztanleen ehunekoa (% 92) baino txikiagoa izan, argi dago etorkinak oro har ondo sentitzen direla euskal gizartean.

4.13. GRAFIKOA Hautemandako osasun orokorra, sexuaren arabera



1.G. Oro har, nolakoa da zure osasun-egoera?
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Batez besteko puntuazioei begiratuta, etorkinen eta bertakoen arteko aldeak are gehiago lausotzen dira. Ongizate subjektiboari dagokionez, etorkin atzerritarren puntuazio orokorra


¹²³Osasuna eta Immigrazioa, Ikuspegi 2010 inkesta kuantitatibo bat da, EAEko etorkinen lagin adierazgarri bati, zehazki, 5 herrialdetako (Errumaniako, Marokoko, Saharaz hegoaldeko Afrikako, Kolonbiako eta Boliviako) 1.250 etorkini, eta bertako 500 pertsonari egindakoa (inkestatutako pertsona guztiak 18 urtetik gorakoak ziren). Galdeketa-lanak 2009. urtearen amaieran eta 2010. urtearen hasieran egin ziren. Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiak egin zuen azterlana, EHUko doktore Nekane Basaberen lankidetzarekin.

(1 bikain eta 5 txarra) 2,43 puntukoa da, bertakoena baino zertxobait kaskarragoa (2,38 puntu). Hau da, bi puntuazio orokorrak osasun orokor onaren eta oso onaren artean daude, alde nabarmenik gabe.

Aldiz, datuak sexuaren arabera aztertzen baditugu, estatistika aldetik alde esanguratsuak ikusiko ditugu. Bertako gizonak eta emakumeak adierazitako osasunari dagokionez, ez dago alde nabarmenik (2,33 puntu gizonak eta 2,44 puntu emakumeak). Etorkinei dagokionez, ordea, gizonak osasun hobea dutela adierazten dute emakumeak baino (2,28 puntu gizonak eta 2,61 puntu emakumeak). Halaber, bertako emakumeak etorkin emakumeak baino hobeto sentitzen dira (bertako emakumeak 2,44 puntu eta emakume etorkinek 2,61 puntu). Hitz batez, atzerriko emakume etorkinek adierazitakoaren arabera, ongizate eta osasun subjektibo kaskarragoa dute gizon etorkinek eta bertako emakumeak baino.

Jar dezagun arreta atzerriko emakume etorkinengan. Ongizatea antzeko moduan hautematen dute jatorri ezberdinetako emakumeak. Hori dela eta, esan dezakegu emakume etorkin guztiek antzeko ongizate subjektiboa eta osasun orokorra dutela. Dena den, Kolonbiako eta Boliviako emakumeak salbuespen dira: adierazitakoaren arabera, Kolonbiakoek osasun hobea dute (2,45 puntu) Boliviakoek baino (2,82 puntu).

4.14. GRAFIKOA Emakume etorkinak: hautemandako osasun orokorra, jatorriaren arabera




1.G. Oro har, nolakoa da zure osasun-egoera?
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Ongizate orokorrarekin lotutako beste datu objektiboago bat emango dugu (kontuan hartuta, noski, inkestatutakoek emandako datua dela eta, beraz, hein batean, subjektiboa dela): azkeneko hilabeteen osasun fisikoak eta norbanakoaren arazo emozionalek zenbatetan galarazi dieten gizarte-ekintzetan parte hartzea.

Bertako biztanleriaren batez besteko puntuazioa 4,65 puntukoa da (1 "Beti" eta 6 "Inoiz ez"). Bertakoek muga eta zailtasun gehiago dituzte etorkinek baino (4,42 puntu). Dena den, oro har, esan dezakegu bertakoek eta etorkinek ez dituztela zailtasun asko.

Bertako emakumeen eta gizonen artean ez dago alde nabarmenik (emakumeak 4,69 puntu eta gizonak 4,60 puntu). Emakume eta gizon etorkinen artean, aldiz, bai, emakumeen kaltean berriro ere: adierazitakoaren arabera, emakumeak zailtasun gehiago dituzte (4,37 puntu) gizonak baino (4,46 puntu). Bertako emakumeak eta emakume etorkinak alderatuz gero, ikusiko dugu emakume etorkinek, adierazitakoaren arabera, egoera okerragoa bizi dutela edo zailtasun gehiago dituztela (4,37 puntu) bertako emakumeak baino (4,60 puntu).

4.15. GRAFIKOA Azken hilabetean, gizarte-jardueretan parte hartzeko izandako zailtasunak, sexuaren arabera




1 BETI; 2 IA BETI; 3 SARRITAN; 4 BATZUETAN; 5 BEHIN BAKARRIK; 6 INOIZ EZ

7.G. Zer maiztasunarekin zaildu dizkizute osasunak edo arazo emozionalek zure gizarte-jarduerak, azken lau asteotan (hala nola, lagunak edo senideak ikustera joatea)?

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

4.16. GRAFIKOA Emakume etorkinek azken hilabetean gizarte-jardueretan parte hartzeko izan dituzten zailtasunak



1 BETI; 2 IA BETI; 3 SARRITAN; 4 BATZUETAN; 5 BEHIN BAKARRIK; 6 INOIZ EZ

7.G. Zer maiztasunarekin zaildu dizkizute osasunak edo arazo emozionalek zure gizarte-jarduerak, azken lau asteotan (hala nola, lagunak edo senideak ikustera joatea)?


Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Proba estatistikoen arabera, badirudi Kolonbiako eta Marokoko emakumeek zailtasun guxtiago dituztela gizarteaz Boliviako eta Saharaz hegoaldeko herrialdeetako emakumeek baino.

Inkestatutako pertsonen gizarte-ongizateaz ari garela, egoera fisikoarekin edo emozionalarekin eta eremu horietan arazoak izateak ekar ditzakeen zailtasunekin hertsiki lotutako alderdiak ez ezik, bertakoen eta etorkinen asebetetasuna ere kontuan hartu dugu; hau da, kontuan hartu dugu ea aseta dauden zenbait arlo garrantzitsutan; hala nola, euskarri ekonomikoaren (diru-sarrerak eta lana), gizarte-kapitalaren (familia eta lagun-sarea) eta norbanakoaren arloetan (bizitzarekiko asebetetasun pertsonala eta orokorra).

Espero izatekoa zenez, bertako biztanleak dezente asebetetago daude diruarekin eta diru-sarrerekin (5,74) biztanle etorkinak baino (4,22). Dena den, aldea ez da hain handia. Oro har, badirudi bi taldeek asko handi ditzaketela diru-sarrerak, batez ere biztanle etorkinek.

4.17. GRAFIKOA Diruarekiko eta diru-sarrerekiko asebetetasuna




9.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden asebeteta diruarekin eta diru-sarrerekin, kontuan hartuta 1 'batere asebeteta ez' dela, eta 10, 'oso asebeteta'
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Azter ditzagun datuak sexuaren arabera. Bertako emakumeak eta emakume etorkinak alderatzen baditugu, ikusiko dugu bertakoak asebetetago daudela (5,89) etorkinak baino (4,76). Halaber, emakume etorkinak eta gizon etorkinak alderatzen baditugu, ikusiko dugu gizonak (3,79) ez daudela emakumeak (4,76) bezain asebeteta.

Datuak jatorriaren arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu badirela aldeak, eta alde horiek, ñabardura txikiekin bada ere, errepikatu egingo direla inkestatutako pertsonen bizitzaren beste alderdi batzuekin duten asebetetasuna aztertuko dugunean. Kolonbiako emakumeak bertako emakumeak bezain asebeteta daude, eta beste etorkin-talde batzuk baino asebetetago; batez ere, Errumaniako, Marokoko eta Saharaz hegoaldeko herrialdeetako emakumeak baino asebetetago.

Zehazki, diruari eta diru-sarrerei dagokienez, Kolonbiako eta bertako emakumeak (5,89 eta 5,76, hurrenez hurren) asebetetago daude Saharaz hegoaldeko herrialdeetako emakumeak (3,84), Errumaniakoak (3,98) eta Marokokoak (4,35) baino.

4.18. GRAFIKOA Diruarekiko eta diru-sarrerekiko asebetetasuna, jatorriaren arabera




9.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden asebeteta diruarekin eta diru-sarrerekin, kontuan hartuta 1 'batere asebeteta ez' dela, eta 10, 'oso asebeteta'
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Ikertutako biztanleak lanarekin aseta dauden edo ez hertsiki lotuta dago diruarekin eta diru-sarrerekin. Oro har, kolektibo guztiak asebetetago daude lanarekin diru-sarrerekin baino.

Dena den, ez daude oso asebeteta: kolektibo ia guztiek 4tik 6ra arteko puntuazioa dute. Diruari eta diru-sarrerei begira taldeen artean dauden alde berberak daude lanari begira.

Bertako biztanleak lanarekin dezente asebetego daude (5,94) biztanle etorkinak baino (4,49). Bertako emakumeak asebetego daude (6,02) emakume etorkinak baino (5,22), eta emakume etorkinak dezente asebetego daude gizon etorkinak baino (3,91). Bertako gizonak eta emakumeek antzeko asebetetasun-maila dute, ez, ordea, gizon eta emakume etorkinek.


4.19. GRAFIKOA Lanarekiko asebetetasuna, sexuaren arabera



9.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden asebeteta lanarekin, kontuan hartuta 1 'batere asebeteta ez' dela, eta 10, 'oso asebeteta'.

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

4.20. GRAFIKOA Lanarekiko asebetetasuna, jatorriaren arabera



9.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden asebeteta lanarekin, kontuan hartuta 1 'batere asebeteta ez' dela, eta 10, 'oso asebeteta'.

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Jatorriaren arabera, asebetetasun-maila aski ezberdina duten bi emakume talde daude: batetik, Kolonbiako emakumeak (6,32), euskaldunak (6,02) eta Boliviakoak (5,95) daude: haien artean ez dago alde handirik, eta besteak baino asebetego daude; eta bestetik, Marokoko emakumeak (3,80), Saharaz hegoaldekoak (3,87) eta Errumaniakoak (4,45) daude: haien artean ere ez dago alde handirik.

Familiari dagokionez, bertako biztanleria eta etorkinen biztanleria oso asebeteta daude. Dena den, bertako biztanleak (8,36) zertxobait asebetego daude etorkinak baino (7,88).

Bertako emakumeen eta emakume etorkinen artean ere badago alderik: bertakoak (8,39) asebetetago daude etorkinak baino (8,05). Gizon etorkinek dute asebetetasun gutxien (7,73): emakume etorkinek (8,05) baino dezente asebetetasun gutxiago dute. Gizon eta emakume etorkinek ez bezala, bertako emakumeek eta gizonak antzeko asebetetasun-maila dute familiari dagokionez.

4.21. GRAFIKOA Familiarekiko asebetetasuna, sexuaren arabera



9.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden asebeteta familiarekin, kontuan hartuta 1 'batere asebeteta ez' dela, eta 10, 'oso asebeteta'
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

4.22. GRAFIKOA Familiarekiko asebetetasuna, jatorriaren arabera



P9. A continuación le pedimos que evalúe el grado de satisfacción que Ud. siente en relación con los siguientes aspectos, teniendo en cuenta que 1 es muy insatisfactoria y 10 muy satisfactoria: familia
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina


Edonola ere, familiarekiko asebetetasunari dagokionez, badirudi talde guztiak oso asebetetata daudela, eta, beraz, oreka eta ongizate pertsonala eta soziala bermatuko dien funtsezko gizarte-kapital bat dutela.

Jatorriaren arabera, Kolonbiako emakumeak eta emakume euskaldunak besteak baino dezente asebetetago daude (8,55 eta 8,39, hurrenez hurren). Saharaz hegoaldeko emakumeak besteak baino asebetetasun gutxiago dute (7,39).

Lagunekin dugun asebetetasun-mailak ere informazioa ematen digu gizarte-sareekin eta gizarte-kapitalarekin dugun asebetetasunari buruz. Alderdi horri dagokionez, bertako biztan-

leen egoera zertxobait hobea da: bertako biztanleak (7,82) zertxobait asebetetago daude etorkinak baino (6,60).

4.23. GRAFIKOA Lagunekiko asebetetasuna, sexuaren arabera




9.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden asebeteta lagunekin, kontuan hartuta 1 'batere asebeteta ez' dela, eta 10, 'oso asebeteta'

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Sexuaren arabera, bertako emakumeak (7,86) asebetetago daude emakume etorkinak baino (6,69). Emakume eta gizon etorkinen artean, berriz, ez dago alde handirik. Bertako emakumeen eta gizonen artean ere ez dago alde handirik.

4.24. GRAFIKOA Lagunekiko asebetetasuna, jatorriaren arabera



9.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden asebeteta lagunekin, kontuan hartuta 1 'batere asebeteta ez' dela, eta 10, 'oso asebeteta'


Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Datuak jatorriaren arabera aztertu ditugu, eta beste azterlan batzuek, bai eta azterlan honek ere, iradokitakoa baieztatu dezakegu: bertako emakumeek gizarte-kapitalaren baliabide gehiago dituzte, eta lagunekin asebetetago daude (7,89) Errumaniako emakumeak (6,10) eta Marokokoak (6,15) baino. Bertakoak bezain asebeteta ez egoteak agerian jartzen du emakume horiek arlo horietan dituzten gabeziak.

Bakoitzak bere buruarekin duen asebetetasunari dagokionez, bertakoak asebetetago daude (7,74) etorkinak baino (7,49). Hala ere, bi kolektiboek asebetetasun-maila handi samarra dute. Kasu horretan, ez dago alderik bertako eta atzerriko emakumeen artean: bertako emakumeen asebetetasun-maila emakume etorkinenaren antzekoa da (7,79 eta 7,59: aldea

ez da esanguratsua). Halaber, emakume eta gizon etorkinen artean ere ez dago alde handirik (7,59 eta 7,41; aldea ez da esanguratsua).


4.25. GRAFIKOA Bakoitzak bere buruarekin duen asebetetasuna, sexuaren arabera



9.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden asebeteta zeure buruarekin, kontuan hartuta 1 'batere asebeteta ez' dela, eta 10, 'oso asebeteta'.

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

4.26. GRAFIKOA Bakoitzak bere buruarekin duen asebetetasuna, jatorriaren arabera



9.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden asebeteta zeure buruarekin, kontuan hartuta 1 'batere asebeteta ez' dela, eta 10, 'oso asebeteta'.

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Aldiz, emakumeak jatorriaren arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu alde nabarmenak daudela beren buruarekin duten asebetetasun-mailari dagokionez. Kolonbiako emakumeak daude asebeteen: euskal emakumeen asebetetasun-maila ia bera dute (haien arteko aldea ez da esanguratsua), eta beste emakume kolektibo batzuk baino asebeteago daude; hala nola, Errumaniako emakumeak (7,08), Saharaz hegoaldekoak (7,16) eta Marokokoak (7,33) baino asebeteago.


Edonola ere, aipatu beharra dago emakume etorkinak oso asebeteta daudela beren buruarekin: talde guztiek 7 puntutik gora dituzte.

Oro har, bizitzari dagokionez, inkestatutako bertako biztanleak dezente asebeteago daude (7,18 puntu) biztanle etorkin atzerritarrek baino (6,40 puntu). Etorkinen artean ere aldeak daude: emakume etorkinak asebeteago daude gaur egun duten bizitzarekin (6,65 puntu)

gizon etorkinak baino (6,19). Bertako emakumeen eta gizonen artean, aldiz, ez dago alde-rik.

Nolanahi ere, nahiz eta gizon etorkinak baino asebetetago sentitu, emakume etorkinak ez daude bertako emakumeak bezain asebeteta: bertako emakumeak dezente asebetetago daude (bertako emakumeak: 7,22; emakume etorkinak: 6,65).


4.27. GRAFIKOA Oro har, bizitzarekiko asebetetasuna, sexuaren arabera



10.G. Esan, mesedez, zenbateraino zauden asebeteta oro har bizitzarekin, kontuan hartuta 1 'batere asebeteta ez' dela, eta 10, 'oso asebeteta'
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Jatorriaren arabera, alde nabariak daude inkestatutako emakumeen artean. Oro har, bizitzari dagokionez, Kolonbiako emakumeek (7,30) eta bertakoek (7,22) antzeko asebetetasun-maila dute. Kolonbiako emakumeak dezente asebetetago daude Errumaniako emakumeak (6,10), Marokokoak (6,19) eta Saharaz hegoaldekoak (6,24) baino.

4.28. GRAFIKOA Oro har, bizitzarekiko asebetetasuna, jatorriaren arabera



P10. Globalmente, ¿hasta qué punto está Ud. satisfecho/a o insatisfecho/a con su vida actualmente? Por favor, marque en la escala su grado de satisfacción con la vida, siendo 1 muy insatisfecho/a y 10 muy satisfecho/a
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Edonola ere, jatorria kontuan hartuta, aipatu beharra dago ez dagoela emakumeen kolektiborik bizitzarekin pozik ez dagoenik: talde guztiek 6 puntutik gora dituzte.

Laburbilduz, nahiz eta askok ikuspegi eta diskurtso apokaliptikoak eta korapilatsuak izan EAEko atzerriko immigrazioari buruz, guk zera azpimarratu nahi dugu: etorkinek diote osasuntsu sentitzen direla, ez dutela zailtasun handirik gizarte-ekintzetan parte hartzeko eta

asebeteta daudela familiarekin eta beren buruarekin. Ekonomiarekin (diru-sarrerak), lanarekin eta gizarte-harremanekin (lagunak) zerikusia duten alderdiak hobeto daitezke. Hala ere, oro har, migrazio-esperientziarekin pozik daude, eta bizitzarekin asebeteta, ia bertako biztanleak bezain asebeteta.

Emakume eta gizon etorkinek adierazitakoaren arabera, emakumeek gizonek baino osasun okerragoa dute eta zailtasun gehiago dituzte eguneroko eginbeharretan; dena den, emakumeak gizonak baino asebetetago daude diru-sarrerekin, lanarekin, familiarekin, lagunekin, beren buruarekin eta oro har bizitzarekin. Arlo horietan, badirudi emakumeen itxaropenak hein handiago batean bete direla gizonenak baino. Dena den, emakume guztiek ez dute asebetetasun-maila bera. Kolonbiako emakumeak bertako emakumeak bezain asebeteta daude. Esan beharra dago Kolonbiako emakumeen kolektiboak igaro duela gurean denbora gehien, eta beste kolektiboek baino asti gehiago izan duela integratzeko eta gizarte-sareak eta harreman-sare pertsonalak egiteko. Bestalde, Errumaniako emakumeek, Marokokoek eta Saharaz hegoaldekoek eman dituzte erantzun ezkorrenak.

Hain zuzen, besteak beste, Errumaniako eta Marokoko emakume etorkinak estigmatizatzen ditugu gehien: beste etorkinei baino begikotasun gutxiago eta mesfidantza gehiago diegu, eta iruditzen zaigu beste etorkinek baino gaitasun edo/eta gogo gutxiago dutela eskal gizartean integratzeko. Halaber, kulturaren, ohituren, tradizioen, hizkuntzen, erlijioaren (Magrebeko emakumeen kasuan) eta beste hainbat arlotan, guregandik urrutien dauden etorkinak direla iruditzen zaigu. Talde horretan, Saharaz hegoaldeko etorkinak ere sar ditza-kegu; izan ere, haiek dute migrazio-esperientziarekin asebetetasun gutxien. Oro har, emakume etorkinek asebetetasun gutxiago dute gizon etorkinek baino.

ZAILTASUNAK **4.7.2**


Orain arte, ez dugu informaziorik izan zenbait alderdiri buruz; esate baterako, etorkinek gure herrialdean sartzean dituzten zailtasunei buruz. Beste era batera esanda, informazioa nahi genuen gizarte hartzaileak etorkinei jartzen dizkien oztopoei eta eragozpenei buruz. Etorkinak gurera etortzen direnean soilik jartzen dira agerian oztopo horiek eta jakiten dugu zer muga ezartzen ditugun eta zer mugari aurre egin behar dieten atzerriko etorkinek.

Azken batean, adierazle horrek zera ematen du aditzera: zer konfiantza-, irekitasun-, malgutasun- eta inklusibitate-maila duen gure gizarteak gurera etortzen direnen pertsonetik. Horregatik interesatzen zaizkigu, hain zuzen ere, etorkinek gure herrialdera iristean aurkitzen dituzten eragozpenak, oztopoak eta mugak.

Etorkinei galdetu gelditu genien ea zer zailtasun izan dituzten EAera etorri zirenetik:

- Ikasketen, lanaren, egoitzaren edo tituluen paperak izapidetzeko edo legeztatzeke (14_1.G)
- Familia (edo senideren bat) bateratzea lortzeko (14_2.G)
- Osasun-laguntza lortzeko (14_3.G)
- Gizarte-laguntza lortzeko (14_4.G)
- Lana aurkitzeko (14_5.G)
- Etxebizitza lortzeko/alokatzeko (14_6.G)
- Tradizioak/ohiturak praktikatzeko (14_7.G)
- Komunikatzeko, hizkuntza behar bezala ez jakiteagatik (14_8.G)
- Hemengo jendea ulertzeko (haien izaera, umorea, harremanak egiteko modua) (14_9.G)
- Euskaldunak ezagutzeko eta haien lagun izateko (14_10.G)

4.29. GRAFIKOA Zailtasunak, sexuaren arabera



14.G. Alda dezagun gaiak eta hitz egin dezagun gizarte-gaiei buruz, esate baterako, immigrazioaz. Ekarri gogorra EAera iritsi zinenetik izan dituzun esperientziak, batez ere azken urtekoak. Izan al duzu zailtasunik hauek egiteko?

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Laburbilduz, esan dezakegu etorkinek:

- Ez dutela zailtasunik izan osasun-laguntza lortzeko (1,43 puntu).
- Oztopo gutxi izan dituztela beren tradizioak eta ohiturak praktikatzeko (1,86 puntu), komunikatzeko (2,09 puntu), gizarte-laguntza lortzeko (2,02 puntu), euskaldunak ulertzeko (2,33 puntu) eta euskaldunak ezagutzeko eta haien lagun izateko (2,49 puntu).
- Ez dituztela zailtasun ez asko, ez gutxi izan senideak berriro biltzeko (2,59 puntu), paperak izapidetzeko (2,80 puntu) eta etxebizitza lortzeko edo alokatzeko (3,32 puntu).
- Dezente zailtasun izan dituztela lana aurkitzeko (3,67 puntu).

Gizonek eta emakumeek zailtasun bera dute senideak berriro biltzeko, osasun- edo gizarte-laguntza lortzeko, ohiturak eta tradizioak praktikatzeko eta hemengo jendea ulertzeko. Gainerako galderetan, aldiz, emakumeek gizonek baino askoz zailtasun gehiago dituzte; hau da, emakumeek gizonek baino zailtasun gehiago dute paperak izapidetzeko (emakumeek: 2,64 puntu; gizonek: 2,93 puntu), lana aurkitzeko (emakumeek: 3,42 puntu; gizonek: 3,87 puntu), etxebizitza lortzeko (emakumeek: 3,11 puntu; gizonek: 3,49 puntu), komunikatzeko (emakumeek: 1,89 puntu; gizonek: 2,24 puntu) eta euskaldunak ezagutzeko eta haien lagun izateko (emakumeek: 2,38 puntu; gizonek: 2,57 puntu).

Emakumeek ez dute inoiz esan gizonen baino zailtasun gehiago dituztela, eta hori deigarria da.

Emakume etorkinak jatorriaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu inkestatutako emakume etorkin guztiak, edonondik datozela ere, zailtasun bera dutela senideak berriro biltzeko (zailtasun gutxi/zailtasun ez gutxi, ez asko) eta hemengo jendea ulertzeko (zailtasun gutxi). Bi galdera horietan soilik datoz bat emakume etorkin guztiak.

Ikus dezagun zer alde dauden jatorri ezberdineko emakumeen artean gainerako alderdietan:

- Boliviako emakumeek zailtasun handiagoak izan dituzte osasun-laguntza lortzeko Kolonbiako emakumeek baino (Boliviako emakumeek: 1,66 puntu; Kolonbiakoek: 1,21 puntu).
- Errumaniako emakumeek zailtasun handiagoak izan dituzte gizarte-laguntza lortzeko Kolonbiako eta Marokoko emakumeek baino (Errumaniako emakumeek: 2,82 puntu; Kolonbiako eta Marokoko emakumeek: 1,64 eta 1,86 puntu, hurrenez hurren).
- Saharaz hegoaldeko emakumeek zailtasun handiagoak izan dituzte tradizioak eta ohiturak praktikatzeko Kolonbiako emakumeek baino (Saharaz hegoaldeko emakumeek: 2,21 puntu; Kolonbiakoek: 1,63 puntu).
- Errumaniako, Saharaz hegoaldeko eta Marokoko emakumeek zailtasun handiagoak izan dituzte komunikatzeko Kolonbiako eta Boliviako emakumeek baino (Errumaniako, Saharaz hegoaldeko eta Marokoko emakumeek: 2,53, 2,56 eta 2,97 puntu, hurrenez hurren; Kolonbiako eta Boliviako emakumeek: 1,22 eta 1,28 puntu, hurrenez hurren).
- Errumaniako, Saharaz hegoaldeko eta Marokoko emakumeek zailtasun handiagoak izan dituzte euskaldunak ezagutzeko eta haien lagun izateko Kolonbiako emakumeek baino (Errumaniako, Saharaz hegoaldeko eta Marokoko emakumeek: 2,69, 2,72 eta 2,88 puntu, hurrenez hurren; Kolonbiakoek: 1,96 puntu).
- Boliviako eta Saharaz hegoaldeko emakumeek zailtasun handiagoak izan dituzte papearak izapidetzeko Kolonbiako emakumeek baino (Boliviako eta Saharaz hegoaldeko emakumeek: 2,93, eta 3,07 puntu, hurrenez hurren; Kolonbiakoek: 2,11 puntu).
- Boliviako, Errumaniako eta Saharaz hegoaldeko emakumeek zailtasun handiagoak izan dituzte etxebizitza bat lortzeko edo alokatzeko Kolonbiako emakumeek baino (Boliviako, Errumaniako eta Saharaz hegoaldeko emakumeek: 3,24, 3,40 eta 3,76 puntu, hurrenez hurren; Kolonbiakoek: 2,47 puntu).
- Errumaniako eta Saharaz hegoaldeko emakumeek zailtasun handiagoak izan dituzte lana aurkitzeko Kolonbiako eta Boliviako emakumeek baino (Errumaniako eta Saharaz hegoaldeko emakumeek: 4,00 eta 4,34 puntu, hurrenez hurren; Kolonbiako eta Boliviako emakumeek: 2,72 eta 3,19 puntu, hurrenez hurren).


Laburbilduz, emakumeek adierazitakoaren arabera, Kolonbiako emakumeek dute zailtasun gutxien. Kontuan hartu behar da haiek daramatela denbora gehien gure herrialdean eta abantaila dutela hizkuntza badakitelako, beren kultura eta gurea antzekoak direlako eta gure antzeko ezaugarri fisikoak dituztelako. Aurrekoaren kontrara, Saharaz hegoaldeko emakumeek dituzte neke eta zailtasun gehien. Kontuan hartu behar da hizkuntza ikasi behar dutela, bere kulturaren eta gurearen artean alde handiak daudela eta bertako emakumeak ez bezalakoak direla fisikoki. Saharaz hegoaldeko emakumeen ondoren, Errumaniako emakumeek dituzte zailtasun gehien: Marokoko emakumeek baino zailtasun gehiago dituzte. Berez, Marokoko emakumeek oztopo handiak dituzte kulturaren eta hizkuntzaren aldetik; hala ere, haiek adierazitakoaren arabera, Errumaniako emakumeek baino oztopo eta zailtasun gutxiago dituzte.

Boliviako emakumeek besteek baino zailtasun gehiago dituzte paperak izapidetzeko, etxebizitza aurkitzeko eta osasun-laguntza lortzeko. Gure gizartera duela gutxi iritsi izanaren ondorio zuzena da hori; are gehiago, jatorri ezberdineko emakumeen etorkin artean, haiek dira gurera iritsi diren azkenak. Dena den, alor horietan zailtasunak dituzten arren, ez dute zailtasun handirik lana aurkitzeko eta komunikatzeko; izan ere, badakite gaztelaniaz.

Garrantzitsua da jakitea etorkinek zailtasun horiek nori leporatzen dizkioten. Horregatik, Ikuspegi 2010 inkestan, etorkinei zuzenean galdetu genien ea beren buruari egozten zioten zailtasun horien erantzukizuna edo, aitzitik, zailtasun horiek gizarte hartzailearen babes-mekanismo baten ondorio zirela uste zuten. Zehazki, bi esaldi eman genizkien, esaldiekin bat zetozen esan zezaten. Lehenengo esaldian, etorkinei leporatzen zitzairen zailtasunen erantzukizuna; bigarrenean, aldiz, gizarte hartzaileari.

Hona hemen lehenengo esaldia: "Ez nengoen ongi prestatuta zailtasunei aurre egiteko, eta horregatik izan ditut zailtasunak " (15_1.G). Inkestatutako pertsona gehienek, nahiz eta iritzia argi eta garbi ez adierazi eta iritzi bera ez izan, esan ziguten ez zetozena bat esaldi horrekin: ez da etorkinen arazo bat.

4.30. GRAFIKOA Norberaren erantzukizuna, sexuaren arabera




15_1.G. Zuk bizi izandako zailtasun horiek guztiak zenbateraino izan ziren arrazoi hauengatik? Ez nengoen ongi prestatuta zailtasunei aurre egiteko, eta horregatik izan ditut zailtasunak.
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Gutxi gorabehera etorkinen % 45ak esan zuen ez zettorrela bat esaldi horrekin, eta ia % 33k, bat zettorrela. Batez besteko puntuazioa 2,7 da, kontuan hartuta 1 "batere ez ados" dela, eta 5 "erabat ados". Hau da, oro har, etorkinak ez zeuden ados esaldi horrekin: izandako zailtasunak ez dizkiete beren gabeziei leporatzen.

Alde horretatik, ez dago alde handirik emakumeen (2,65 puntu) eta gizonen (2,72 puntu) artean, bai, ordea, jatorri ezberdineko emakumeen artean.

4.31. GRAFIKOA Norberaren erantzukizuna, jatorriaren arabera




15_1.G. Zuk bizi izandako zailtasun horiek guztiak zenbateraino izan ziren arrazoi hauengatik? Ez nengoen ongi prestatuta zailtasunei aurre egiteko, eta horregatik izan ditut zailtasunak.
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Kolonbiako emakumeek desadostasun handiagoa adierazten dute (batez besteko 2,19 puntu) Saharaz hegoaldeko (2,95), Errumaniako (2,92), Boliviako (2,76) eta Marokoko (2,72) emakumeek baino. Hau da, Kolonbiako emakumeek beste emakumeek baino gutxiago leporatzen diote izandako zailtasunen erantzukizuna beren buruari.

Hona hemen bigarren esaldia: "Nire herrialdeko etorkinei oztopoak eta arazoak jartzen dizkietelako izan ditut zailtasunak" (15_2.G). Bigarren esaldi horri buruz ere, inkestatutako pertsonak ez zuten iritzi garbi eta biribilik. Dena den, nolabait ados zeudela esan zuten: beren herrialdeko edo jatorriko etorkinen aurkako bereizkeria-egoeren ondorio dira izandako zailtasunak.

4.32. GRAFIKOA Besteren erantzukizuna, sexuaren arabera




15_2.G. Zuk bizi izandako zailtasun horiek guztiak zenbateraino izan ziren arrazoi hauengatik? Zailtasunak izan ditut... nire herrialdeko etorkinei oztopoak eta arazoak jartzen zaizkielako
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Gutxi gorabehera etorkinen % 50ak esan zuten bat zetorrela esaldi horrekin, eta ia % 28k, bat ez zetorrela. Batez besteko puntuazioa 3,24 da, kontuan hartuta 1 "batere ez ados" dela, eta 5 "erabat ados". Hau da, oro har, etorkinak bat datoz nolabait esaldi horrekin: gehie-

nen ustez, gizarte hartzaileak etorkinei jartzen dizkien oztopoen ondorio dira iraganean izandako zailtasunak.

4.33. GRAFIKOA Besteren erantzukizuna, jatorriaren arabera



15_2.G. Zuk bizi izandako zailtasun horiek guztiak zenbateraino izan ziren arrazoi hauengatik? Zailtasunak izan ditut... nire herrialdeko etorkinei oztopoak eta arazoak jartzen zaizkielako
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Kasu horretan ere, ez dago alde handirik emakumeen (3,20 puntu) eta gizonen (3,27 puntu) artean, ez eta jatorri ezberdineko emakumeen artean ere: guztiek leporatzen dizkiote gizarte hartzaileari beren sorterriko etorkinek izaten dituzten zailtasunak.

Laburbilduz, etorkinen ustez, gizarte hartzaileak etorkinei jartzen dizkien oztopoen ondorio dira iraganean izandako zailtasunak, eta ez, etorkinek zailtasun horiek konpontzeko dituzten gabezien ondorio. Bi esaldietako puntuazioen artean alde nabarmenak egoteak eta alde horiek gizonen artean (2,72 eta 3,47) eta emakumeen artean (2,65 eta 3,20) errepikatzeak uste hori berresten du.

Emakumeak jatorriaren arabera aztertu ditugu, eta ikusi dugu denek ez dutela iritzi bera. Kolonbiako, Boliviako, Errumaniako eta Marokoko emakumeek gizarte hartzaileari leporatzen dizkiote izandako zailtasunak (Kolonbiako emakumeek 2,19 puntu eman zizkioten norberaren erantzukizunari, eta 3,15 puntu, gizarte hartzailearen erantzukizunari; Boliviakoek: 2,76 eta 3,21 puntu; Errumaniakoek: 2,92 eta 3,26 puntu; Marokokoek: 2,72 eta 3,31 puntu). Saharaz hegoaldeko emakumeek hein berean leporatzen diote izandako zailtasunen erantzukizuna gizarte hartzaileari eta beren buruari (2,95 eta 3,16 puntu: ez dago alde esanguratsurik).

BEREIZKERIA

4.7.3


Bertakoen nahiz etorkinen kolektiboen artean jokabide diskriminatzaileak ez egotea gizarte hartzailearen garapen- eta segurtasun-mailaren erakusgarri da. Horregatik heldu nahi izan diogu gai horri txosten honetan. 2010ean Ikuspegik bertakoei eta etorkinei egindako inkestan, zuzenean edo zeharka bereizkeria-egoera posible eta potentzialekin zerikusia duten zenbait item daude. Item horien bidez, aditzera ematen zaigu, batetik, zer jarrera dituzten euskaldunek egoera horietan dauden etorkinen gainean, eta bestetik, zer bereizkeria-

egoera hautematen dituzten atzerriko etorkinek eguneroko bizitzan (heine batean, subjektiboa da etorkinek hautematen dutena).

Gizarte-bereizkeriak beti ditu bi alde. Bereizkeria pairatzen dutenen aldetik azter dezakegu, kasu honetan, atzerriko etorkinen aldetik, edo jarrera, jokabide eta portaera diskriminatzaileak hartzen dituzten edo har ditzaketen pertsonen aldetik azter dezakegu, kasu honetan, euskal herritarren aldetik. Txosten honetan, atzerriko etorkinek eta, zehazki, emakume etorkinek zer hautematen duten aztertuko dugu.

Etorkinei zera galdetu zieten: ea zer maiztasunarekin sentitu diren diskriminatuta EAEn etniarekin edo jatorriarekin lotutako arrazoiengatik (24_1.G). Etorkinek esandakoaren arabera, gutxitan (% 33,4) edo oso gutxitan (% 36,2) gertatzen da halakorik. Dena den, aintzat hartzekoa da halako diskriminazioa maiz (% 21,1) edo oso maiz (% 6,2) gertatzen dela dioten etorkinen kopurua. Hau da, lau pertsonatik batek bereizkeria-egoerak hautematen ditu, eta hori kontuan hartzekoa da.

4.34. GRAFIKOA Etnia edo arrazarengatik diskriminazioa EAEn



24_1.G. Zer maiztasunarekin gertatzen dira bereizkeria-egoerak EAEn etniarekin edo jatorriarekin lotutako arrazoiengatik?

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Oro har, etorkinen ustez, gutxitan gertatzen dira bereizkeria-egoerak. Gizon eta emakume etorkinek antzeko maiztasunarekin hautematen edo sentitzen dituzte bereizkeria-egoerak: ia batez besteko puntuazio bera dute (1 "oso gutxitan" eta 4 "oso maiz": gizonek, 1,94 puntu; eta emakumeek, 2,00 puntu).

Datuak jatorriaren arabera aztertu ditugu, eta emakumeen artean (eta gizonen artean) ez dago alde nabarmenik: denek antzeko maiztasunarekin hautematen dituzte bereizkeria-egoerak. Batez besteko puntuazioak 1,87 puntutik 2,16 puntura artekoak dira.


Oro har hautemandako bereizkeriaz gainera, 2010eko inkestan zera galdetu zieten etorkinei: ea azken hamabi hilabeteetan zuzenean bereizkeriarik pairatu zuten etniarekin edo jatorriarekin lotutako arrazoiengatik. % 77,9k ezetz esan zuen, eta % 22,1ak, baietz. Datuak sexua-aren arabera aztertu ditugu, eta ez dago alde handirik gizonen eta emakumeen artean: bi kolektiboetan, ezezkoa da nagusi.

Bereizkeria-egoerak xehetasun handiagoz aztertzeko, hiru urrats hauek eman ditugu: lehenik eta behin, edozein etorkinek EAEn hautemandako edozein bereizkeria-egoera aztertu dugu; bigarrenik, inkestatutako pertsonen jatorri bereko etorkin-taldeak pairatutako bereizkeria-egoerak aztertu ditugu; eta amaitzeko, norbanakoarekin lotutako gaiak jorratu ditugu.

Bigarren urratsean, zera galdetu genien etorkinei: ea zer bereizkeria pairatzen duten beren sorterriko pertsonen. Oro har, etorkinek diote beren jatorri bereko pertsonen bereizkeria

“gutxi” edo “ez gutxi, ez asko” pairatzen dutela. Batez besteko puntuazioa 2,65 da, kon-tuan hartuta 1 “batere ez” dela, eta 5 “asko”.


4.35. GRAFIKOA Bakoitzak pairatutako bereizkeria, sexuaren arabera



24_2.G. Azken 12 hilabeteetan, diskriminatuta sentitu al zara EAEn zure etnia eta jatorriarengatik?
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Datuak sexuaren arabera aztertu ditugu, eta ez dago alderik emakume eta gizon etorkinen artean. Bi kolektiboak bat datoz: bien ustez, bereizkeria-maila “gutxi” eta “ez gutxi, ez asko” artekoa da. Emakume eta gizon etorkinek antzeko puntuazioa dute: gizonek, 2,67 puntu; eta emakumeek, 2,61 puntu. Alde horiek ez dira esanguratsuak estatistika aldetik.

4.36. GRAFIKOA Jatorri bereko pertsonen aurkako bereizkeria, sexuaren arabera



26.G. Zure ustez, zer neurritan diskriminatzen dira zure herrialdeko etorkinak (bertakoei/euskaldunei/espainiarrei baino tratu okerragoa ematen zaie, esate baterako, etxebizitza eskuratzean, lanean eta tabernetan)?
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina


Bereizkeriari buruzko atal hau amaitzeko, hirugarren urratsari lotuko gatzazkio: gizabanakoek pairatutako bereizkeria-egoera zehatzen gainean lortutako informazioa aztertuko dugu. Etorkinei zuzenean galdetu genien ea zer maiztasunarekin gertatu diren egoera hauek EAEn daudenetik:

- Ekonomiaren aldetik euskaldunentzat mehatxu bat zarela sentiarazi dizute hemengo pertsonak, euskaldun zein espainiarrek (besteak beste, lana kentzen diezula eta gizar-te-laguntzaz aprobetxatzen zarela leporatu dizute) (25_1.G)
- Itxura fisikoarengatik diskriminatuta sentitu zara, mespretxuz begiratu dizute, aipamen negatiboak entzun dituzu edo bestelako bazterkeria-jarrerak bizi izan dituzu (25_2.G)

- Erasoak, irainak edo mehatxuak egin dizkizute (25_3.G)
- Euskaldunek beren artean inoiz erabiltzen ez dituzten jokabideak erabili dituzte zure aurka (25_4G)
- Jaramonik ez dizutela egiten eta bazter utzi zaituztela sentitu duzu (25_5.G)
- Salaketaren bat edo kexaren bat jarri duzu edo bestelako protestaren bat egin duzu aurreko egoeraren bat dela eta (25_6.G)

Etorkin gehienei, emakume zein gizonei, ez zaie iruditu ekonomiaren aldetik mehatxu bat direnik bertako biztanleentzat. Ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean.

4.37. GRAFIKOA Mehatxu ekonomikoa direlako irudipena, sexuaren arabera




25_1.G. EAEn bizi zarenetik, zer maiztasunarekin sentiarazi dizute hemengo pertsonak, euskaldun zein espainiarrek ekonomiaren aldetik euskaldunentzat mehatxu bat zarela (besteak beste, lana kentzen diezula eta gizar-te-la

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Jatorri ezberdineko emakume etorkinen artean ere ez dago alde handirik. Gehienek 1 “inoiz ez” edo 2 “gutxitan” erantzun dute. Batez besteko puntuazioa 1,85 da: gizonek, 1,87 puntu, eta emakumeek, 1,82. Nolanahi ere, Errumaniako emakumeek (2,07 puntu) halako jokabide baztertzailerik gehiago pairatu dituzte Marokoko emakumeek baino (1,62 puntu).

4.38. GRAFIKOA Itxurarengatik jasotako gaitzespena, sexuaren arabera




25_2.G. EAEn bizi zarenetik, zure itxura fisikoa dela eta, diskriminatuta sentitu zara, mespretxuz begiratu dizute, aipamen negatiboak entzun dituzu edo bestelako bazterketa-jarrerak bizi izan dituzu?

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Etorkin gehienak, emakumeak zein gizonak, ez dira baztertuta sentitu itxura fisikoarengatik. Kasu horretan ere, ez dago alde nabarmenik sexuen arten estatistika aldetik. Emakume etorkinen artean ere ez dago alde handirik. Erantzun gehienetan 1 "inoiz ez" edo 2 "gutxitan" erantzun dute. Batez besteko puntuazioa 1,86 da: gizonak, 1,87 puntu, eta emakumeak, 1,84.

Azter dezagun zer maiztasunarekin pairatu dituzten etorkinek eraso, irain eta mehatxuak. Etorkin gehienek "inoiz ez" erantzun dute. Beste kasuetan ez bezala, erantzunen eta batez besteko joeren ehunekoei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu kasu honetan alde nabarmenak daudela gizonen eta emakumeen artean. Emakumeek eraso, irain eta mehatxu dezentte gutxiago pairatu dituzte gizonak baino: emakumeen batez besteko puntuazioa 1,24 da, eta gizonena, 1,37; kontuan hartuta 1 "inoiz ez" dela, eta 5 "oso maiz".

4.39. GRAFIKOA Erasoak, irainak edo mehatxuak, sexuaren arabera




25_2.G. EAE n bizi zarenetik, zer maiztasunarekin pairatu dituzu erasoak, irainak eta mehatxuak?
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Jatorriaren arabera, ordea, aipatu beharreko aldeak daude emakumeen artean. Saharaz hegoaldeko emakumeek (1,45 puntu) halako jokabide baztertzaile gehiago pairatu dituzte Marokoko emakumeek baino (1,13 puntu).

Azter dezagun zer maiztasunarekin pairatu dituzten etorkinek haien aurkako jokabideak. Gehienek esan dute "inoiz ez" dutela haien aurkako jokabiderik pairatu. Dena den, erantzun kualitatiboak puntuazio bilakatuz gero, aldeak daude sexuen artean. Emakumeek (1,42 puntu) haien aurkako jokabide gutxiago pairatu dituzte gizonak baino (1,56 puntu); kontuan hartuta 1 "inoiz ez" dela, eta 5 "oso maiz".

Jatorriaren arabera, ordea, ez dago aipatu beharreko alderik emakumeen artean. Nolanahi ere, askotariko konparazioak egiteko erabiltzen dugun estatistika-metodoaren arabera, badi-rudi Saharaz hegoaldeko eta Errumaniako emakumeek (biek 1,60 puntu) halako jokabide diskriminatzaile gehiago pairatu dituztela Marokoko eta Boliviako emakumeek baino (1,32 eta 1,29 puntu, hurrenez hurren).

4.40. GRAFIKOA Haien aurkako jokabideak, sexuaren arabera




25_4.G. EAEn bizi zarenetik, euskaldunek beren artean inoiz erabiltzen ez dituzten jokabideak erabili dituzte zure aurka?

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Etorkin gehienek esan dute “inoiz ez” dutela sentitu bazter utzi dituztela.

Dena den, erantzun kualitatiboak puntuazio bilakatuz gero, aldeak aurkituko ditugu sexuen artean: emakumeek (1,66 puntu) ez dute gizonek (1,81 puntu) bezain beste sentitu jaramonik egiten ez dietela; kontuan hartuta 1 “inoiz ez” dela, eta 5 “oso maiz”. Jatorriaren arabera, ez dago alde nabarmenik emakumeen artean.

4.41. GRAFIKOA Bazter utzita sentitzea




25_5.G. EAEn bizi zarenetik, zer maiztasunarekin sentitu duzu jaramonik ez dizutela egiten eta bazter utzi zaituztela?

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Amaitzeko, bereizkeria-egoeren beste adierazle bat ekarriko dugu hizpidera. Adierazle hori inkestatutako pertsonen adierazpenetatik harago doa, eta haien egoera testuinguruan jartzen eta ebaluatzen du. Etorkinei galdetu genien ea EAEn daudenetik salaketaren bat edo kexaren bat jarri zuten edo bestelako protestaren bat egin zuten aurreko egoeraren bat dela eta.

Etorkin gehienek esan zuten ez zutela kexarik aurkeztu. Ez dago alderik, ez sexuen artean, ez jatorri ezberdineko emakumeen artean. Kolektiboak banan-banan aztertuta ere, gehien-goak ez du salaketarik edo kexarik aurkeztu.

4.42. GRAFIKOA Salaketak, sexuaren arabera



25_6.G. EAEEn bizi zarenetik, jarri al duzu salaketaren bat edo kexaren bat edo egin al duzu bestelako protesta-
ren bat aurreko egoeraren bat dela eta?

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Laburbilduz, emakume etorkinek gizonek baino irain, eraso, mehatxu eta aurkako jokabide gutxiago pairatu dituzte eta gutxiagotan sentitu dute bazter egin dietela. Dena den, indarkeriarekin zerikusi gutxiago duten beste egoera batzuetan (bereizkeria-egoera zehaztugabeak, ekonomiaren aldetik mehatxua direlako sentimendua, itxura fisikoagatiko bereizkeria...), ez dago alderik emakumeen eta gizonen artean. Horretaz gainera, aipatzekoa da Marokoko emakumeek beste jatorrietako emakumeek baino bereizkeria gutxiago pairatu dutela, oro har. Baliteke horrek zerikusi izatea haien harremanekin; izan ere, batez ere senideekin edo beren jatorriko pertsonekin izaten dituzte hartu-eman sozialak, eta, hori dela eta, harreman gutxi izaten dituzte beste gizarte- eta etnia-talde batzuetako pertsonekin. Horrek azaltzen du, hain zuzen ere, bereizkeria-egoerarik ez gertatzea.

GIZARTERATZEA ETA GIZARTE-SAREAK

4.7.4

Ikuspegik 2010ean egindako inkestan, etorkinen osasunarekin eta ongizatearekin lotutako gaiak aztertu zituzten, eta etorkinen erantzunak bertakoen erantzunekin alderatu. Horiek horrela, inkestan ez zegoen etorkinen gizarteratzeari buruzko galdera zuzenik edo espliziturik. Dena den, galdera batzuek, zeharka bada ere, informazioa ematen digute etorkinen gizarteratzeari buruz, eta arrastoak ematen dizkigute atzerriko etorkinek gure gizartean duten gizarteratzeari buruz zer pentsatzen duten jakiteko.

Item hauei buruz ari gara:


- Bere herrialdearekiko identitate-sentimendua: euskalduna edo/eta espainiarra (16a.G, 16b.G, 16c.G): zenbat eta euskaldunago edo espainiarrago sentitu, hainbat eta gizarteratuago daudela pentsa dezakegu;
- Etorkinen ustez, beraien eta bertakoen artean dagoen distantzia fisikoa (18G): zenbat eta bertakoen antz handiagoa dutela sentitu fisikoki, hainbat eta gizarteratuago daudela ondoriozta dezakegu;
- Beren herrialdeko, beste herrialde batzuetako eta bertako pertsonekin dituzten hartu-harremanak eta laguntasun-harremanak (gizarte-sareak) (19.G): zenbat eta trinkoagoa

eta irekiagoa izan haien gizarte-sarea, hainbat eta gizarteratuago daudela pentsa dezakegu;

- Beren herrialdeko, beste herrialde batzuetako eta bertako pertsonak zailtasunei aurre egiteko ematen dieten laguntza (gizarte-sareak) (20.G): zenbat eta trinkoagoa eta irekiagoa izan haien laguntza-sarea, hainbat eta gizarteratuago daudela pentsa dezakegu;
- Beren herrialdeko ohiturei eusteko gogoia (21.G) eta euskal ohiturak bereganatzeko gogoia (22.G), lanari, familiari, lagunei eta erlijio-ohiturei dagokienez: haien artean oreka badago, gizarteratuta daudela ondorioztatuko dugu;
- Jatorriko eta Euskal Herriko ohiturak erabiltzea, jatorriko hizkuntza eta gaztelania zein euskara erabiltzea eta aisialdian jatorri bereko pertsonekin eta euskaldunekin egotea (23.G): horien guztien artean oreka badago, gizarteratuta daudela ondorioztatuko dugu.

Oro har, gizon eta emakume etorkinek gehiago identifikatzen dute beren burua beren sor-terriarekin (alde nabarmena dago) euskal edo/eta espainiar nortasunarekin baino.

4.43. GRAFIKOA Identitate-sentimendua: jatorrizko herrialdekoa, euskalduna eta espainiarra




16.G: Berrito ere, ekarri gogora EAEn edo Espainian zaudenetik bizi izan dituzun esperientziak eta harremanak. Zer neurritan sentitzen zara zure herrialdekoa, euskalduna eta espainiarra (1 "batere ez" eta 5 "asko")?
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

"Gutxi" sentitzen dira euskaldun edo espainiar. Dena den, emakume eta gizon etorkinak euskaldunago sentitzen dira espainiarrak baino. Ez dago alderik sexuen artean: emakumeek eta gizonek antzeko identitate-sentimenduak dituzte.

Datuak jatorriaren arabera aztertu ditugu, eta ikusi dugu emakume etorkin guztiek, edonongoak direla ere, jatorrizko herrialdearekin identifikatzen dutela beren burua eta identitate-sentimendu sendoa dutela.


4.44. GRAFIKOA Emakume etorkinen identitate-sentimendua, jatorriaren arabera



16.G: Berrito ere, ekarri gogora EAEn edo Espainian zaudenetik bizi izan dituzun esperientziak eta harremanak. Zer neurritan sentitzen zara zure herrialdekoa (1 "batere ez" eta 5 "asko")?
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Hala ere, euskaldun eta espainiar identitate-sentimenduak aztertzen baditugu, ikusiko dugu alde nabarmenak daudela. Euskaldun identitate-sentimenduari dagokionez, Saharaz hegoaldeko emakumeak dezente euskaldunago sentitzen dira (2,69 puntu) Errumaniakoak (2,22 puntu) eta Boliviakoak (2,19) baino.


4.45. GRAFIKOA Emakume etorkinak: euskaldun identitate-sentimendua, jatorriaren arabera



16.G: Berrito ere, ekarri gogora EAEn edo Espainian zaudenetik bizi izan dituzun esperientziak eta harremanak. Zer neurritan sentitzen zara euskalduna (1 "batere ez" eta 5 "asko")?
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Espainiar identitate-sentimenduari dagokionez, beste emakumeak baino euskaldunago ez ezik, Saharaz hegoaldeko emakumeak dezente espainiarrago ere sentitzen dira (2,63 puntu) Marokoko, Boliviako eta Errumaniako emakumeak baino (2,06, 2,05 eta 2,03 puntu, hurrenez hurren). Edonola ere, euskaldun eta espainiar identitate-sentimenduari dagokienez, emakume guztiak, edonongoak direla ere, esan ziguten "gutxi" sentitzen direla euskaldun eta espainiar, aipatutako ñabardurak kontuan hartuta, betiere.


4.46. GRAFIKOA Emakume etorkinak: espainiar identitate-sentimendua, jatorria-
ren arabera



16.G: Berriro ere, ekarri gogora EAEn edo Espainian zaudenetik bizi izan dituzun esperientziak eta harremanak. Zer neurritan sentitzen zara espainiarra (1 "batere ez" eta 5 "asko")?
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Itxura fisikoari dagokionez, garrantzitsua da jakitea nola ikusten duten atzerriko emakume etorkinek beren burua, bertako emakumeen aldean. Oro har, emakume etorkinei ez zaie iruditzen bertako emakumeen oso antzekoak edo oso desberdinak direnik. Batez besteko puntuazioa 2,65 da (1 "batere antzik ez" eta 5 "oso antzekoa"). Hala ere, bertako emakumeen antz gutxi dutela pentsatzeko joera dute.

4.47. GRAFIKOA Itxura fisikoa: bertakoen antza, sexuaren arabera



18.G: Itxura fisikoari dagokionez (azala, aurpegiera, gorpuzkera, ilea, etab.), E
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina


Gai horretan, ez dago alde handirik gizon eta emakume etorkinen artean (2,55 eta 2,65 puntu, hurrenez hurren), bai, ordea, jatorri ezberdineko emakumeen artean; hala ere, hori espero izatekoa zen.

Emakume etorkin guztien artean, Errumaniako (Europa) emakumeei iruditzen zaie euskal emakumeen antz handiena dutela: euskal emakumeen "nahiko" antz handia dutela iruditzen zaie (3,36 puntu).

Marokoko, Kolonbiako eta Boliviako emakumeei iruditzen zaie euskal emakumeen antz "gutxi" edo "ez gutxi ez asko" dutela; haien artean ez dago alde nabarmenik (Marokoko emakumeek: 2,78 puntu; Kolonbiakoek: 2,54; eta Boliviakoek: 2,34).

Azkenik, Saharaz hegoaldeko emakumeei (gehienak beltzak dira) iruditzen zaie euskal emakumeen antz "gutxi" dutela edo ez dutela antzik (1,82 puntu).

4.48. GRAFIKOA Itxura fisikoa: bertakoen antza, jatorriaren arabera



18.G: Itxura fisikoari dagokionez (azala, aurpegiera, gorpuzkera, ilea, etab.), EAEko pertsonen antzekoa zarela iruditzen al zaizu? (1 "batere ez" eta 5 "asko")


Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Ikuspegik 2010ean egin zuen inkestan, kultura-ohiturei eta aisialdiko harremanei buruzko galderak egin genizkien inkestatutakoei. Zehazki, zera galdetu genien: ea zenbateraino eusten zieten beren jatorrizko herrialdeko ohiturei, hizkuntzari eta talde barruko harremanei eta ea zenbateraino bereganatu zituzten herrialde hartzailearen ohiturak, hizkuntza eta pertsonen arteko harremanak.

Erantzunen arabera, oro har, atzerriko etorkinek "asko samar" eusten diete jatorrizko herrialdeko ohiturei (3,96 puntu), "asko samar/asko" hitz egiten dute beren hizkuntza (4,50 puntu) eta "asko samar" ibiltzen dira beren jatorrizko herrialdeko pertsonekin aisialdian (3,74 puntu). Euskal Herriko ohiturei dagokienez, "ez gutxi ez asko/asko samar" bereganatu dituzte (3,59 puntu); "asko samar" hitz egiten dute gaztelaniaz (4,28 puntu), ez dute euskararik hitz egiten (1,20 puntu) eta "ez gutxi ez asko" ibiltzen dira bertako pertsonekin aisialdian (2,98 puntu). Hitz batez, badirudi lotura hertsia dagoela jatorrizko herrialdearekin gizarte hartzailearekin baino.

Sexuaren arabera, emakumeen eta gizonen artean antzekotasunak eta aldeak daude. Dena den, bi arlo hauetan soilik daude aldeak: erabiltzen dituzten hizkuntzetan eta aisialdian jatorrizko herrialdeko pertsonekin dituzten harremanetan. Emakumeek gizonen baino gehiago erabiltzen dute sorterriko hizkuntza (emakumeek: 4,55 puntu; eta gizonen: 4,45 puntu); hala ere, gaztelania ere gizonen baino gehiago erabiltzen dute (emakumeek: 4,44 puntu; eta gizonen: 4,16 puntu), kontuan hartuta gizarte hartzailearen hizkuntzetako bat dela. Hori ulertzeko, gogora dezagun emakume etorkin gehienak Latinoamerikakoak direla, eta horregatik, beren hizkuntzari euts diezaioketela; izan ere, gizarte hartzailearen hizkuntza bera da (gaztelaniaz ari gara). Gizon etorkin gehienak, ordea, ez dira Latinoamerikakoak.

4.49. GRAFIKOA Jatorrizko herrialdeko eta gizarte hartzaileko ohiturak, hizkuntza eta aisialdia



P23: EAEEn bizi arren, zure herrialdeko ohiturei eusten al diezu? Zure herrialdeko hizkuntzan mintzatzen al zara? Aisialdian, izaten al duzu harremanik zure herrialdeko pertsonekin? Betetzen al dituzu hemengo ohiturak? Hitz egiten al duzu gaztelaniaz? Hitz egiten al duzu euskaraz? Aisialdian, izaten al duzu harremanik bertako pertsonekin?

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina


Aisialdiari dagokionez, badirudi emakumeek pertsonen arteko harreman gutxiago dituztela. Emakumeek gizonek baino harreman gutxiago dituzte beren herrialdeko pertsonekin (emakumeek: 3,65 puntu; eta gizonek: 3,81 puntu). Horrek, baina, ez du nahi esan aisialdian harreman gehiago dituztenik euskaldunekin.

Jatorriaren arabera, alde nabarmenak daude. Hitz gutxitan, Marokoko eta Errumaniako emakumeek nahasten dituzte gutxien sorterriko ohiturak eta gizarte hartzailearenak. Bestalde, Kolonbiako emakumeek nahasten dituzte gehien sorterriko eta hemengo ohiturak. Kontuan hartu behar da haien kulturaren eta gurearen artean alde gutxiago daudela (hizkuntza, erlijioa, kultura...) beste kultura batzuen eta gurearen artean baino.

Marokoko emakumeek eusten diete gehien sorterriko ohiturei (4,29 puntu), eta Saharaz hegoaldeko emakumeek, gutxien (3,75 puntu). Marokoko, Errumaniako eta Saharaz hegoaldeko emakumeek erabiltzen dute gutxien beren sorterriko hizkuntza (4,38, 4,34 eta 4,13 puntu, hurrenez hurren), eta Kolonbiako eta Boliviako emakumeek, gehien (4,81 eta 4,69 puntu, hurrenez hurren). Horretaz gainera, Marokoko emakumeek bereganatu dituzte gutxien Euskal Herriko ohiturak (3,26 puntu; Kolonbiako emakumeek, aldiz: 3,89 puntu), hitz egiten dute gaztelaniaz gutxien (3,72 puntu; Errumaniako eta Saharaz hegoaldeko emakumeek ere gutxi hitz egiten dute gaztelaniaz: 4,03 eta 4,07 puntu, hurrenez hurren) eta harreman gutxien dituzte euskaldunekin aisialdian (2,69 puntu). Errumaniako emakumeek

ere harreman gutxi dituzte euskaldunekin aisialdian (2,62 puntu). Kolonbiako emakumeek dituzte harreman gehien euskaldunekin aisialdian (3,36 puntu).

4.50. GRAFIKOA Jatorrizko herrialdeko eta gizarte hartzailako ohiturak, hizkuntza eta aisialdia, jatorriaren arabera



P23: EAEn bizi arren, zure herrialdeko ohiturei eusten al diezu? Zure herrialdeko hizkuntzan mintzatzen al zara? Aisialdian, izaten al duzu harremanik zure herrialdeko pertsonekin? Betetzen al dituzu hemengo ohiturak? Hitz egiten al duzu gaztelaniaz? Hitz egiten al duzu euskaraz? Aisialdian, izaten al duzu harremanik bertako pertsonekin?


Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Amaitzeko, Ikuspegi 2010 inkestan beste bi galdera landu genituen. Galdera horiek zerikusia dute atzerriko emakume etorkinen gizarte-sareekin eta gizarte-kapitalarekin. Inkestatutako pertsoneri galdetu genien ea zer laguntasun-harreman dituzten beren herrialdeko, beste herrialde batzuetako eta Euskal Herriko zein Espainiako pertsonekin eta ea beren herrialdeko, beste herrialde batzuetako eta Euskal Herriko zein Espainiako pertsonen laguntza eman dieten zailtasunei aurre egiteko.

Laguntasun-harremanei dagokienez, oro har, etorkinek beren herrialdeko lagun "asko samar" dituztela esan zuten (3,61 puntu, kontuan hartuta 1 "batere ez" dela, eta 5, "asko").

Estatistika aldetik ez dago alde esanguratsurik emakumeen eta gizonen artean. Dirudienez, emakume eta gizon etorkinek "lagun asko samar" dituzte (3,54 eta 3,67 puntu, hurrenez hurren).

4.51. GRAFIKOA Lagunak: jatorri berekoak, beste herrialde batzuetakoak, euskaldunak eta espainiarrak, sexuaren arabera



P19: Ba al duzu zure herrialdeko lagunik? Beste herrialde eta talde etnikoetako lagunik? Lagun euskaldunik edo/eta espainiarrik? (1 "Bat ere ez" eta 5 "Asko")

Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Espero izatekoa zenez, atzerriko etorkinek beste herrialde batzuetako lagun gutxiago dituzte, eta lagun herrikide gehiago. Beste herrialde batzuetako lagunak "ez gutxi ez asko" direla esan zuten (2,74 puntu). Lehen ez bezala, hemen bai, alde nabariak daude emakumeen eta gizonen artean: emakumeek beste herrialde batzuetako lagun gutxiago dituzte (2,54 puntu) gizonek baino (2,81 puntu).


Lagun euskaldunei dagokienez, oro har, etorkinek bertako lagun "ez gutxi ez asko" dituzte (3,07 puntu), baina beste herrialde batzuetako lagunekin ez bezala, emakumeak eta gizonek bat datoz (3,02 eta 3,11 puntu), eta ez dago alde nabarmenik haien artean.

Datuak jatorriaren arabera aztertu ditugu, eta ikusi dugu jatorri ezberdineko emakumeen artean aldeak daudela herrikideekin, beste herrialde batzuetako pertsonekin eta euskaldunekin dituzten laguntasun-harremanei dagokienez. Herrikideekin dituzten laguntasun-harremanei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu Boliviako emakumeek laguntasun-harreman gehiago dituztela herrikideekin (3,76 puntu) Saharaz hegoaldeko emakumeek baino (3,23 puntu).

Beste herrialde batzuetako pertsonekin dituzten laguntasun-harremanei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu Boliviako, Kolonbiako eta Saharaz hegoaldeko emakumeak nabarmendu egiten direla; izan ere, beste herrialde batzuetako lagun gehiago dituzte (2,96, 2,95 eta 2,71 puntu, hurrenez hurren) Marokoko (2,21 puntu) eta Errumaniako (2,07 puntu) emakumeek baino.

Azkenik, lagun euskaldunei eta espainiarrei dagokienez, Kolonbiako emakumeek, gure artean denbora gehien daramatenek, lagun gehiago dituzte (3,46 puntu) Saharaz hegoaldeko, Boliviako, Errumaniako eta Maroko emakumeek baino (3,03, 2,96, 2,73 eta 2,67 puntu, hurrenez hurren).


4.52. GRAFIKOA Lagunak: jatorri berekoak, beste herrialde batzuetakoak, euskaldunak eta espainiarrak, jatorriaren arabera



P19: Ba al duzu zure herrialdeko lagunik? Beste herrialde eta talde etnikoetako lagunik? Lagun euskaldunik edo/eta espainiarrik? (1 "Bat ere ez" eta 5 "Asko")
 Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Beste pertsonengandik jaso duten laguntzari dagokionez, oro har, etorkinei iruditzen zaie herrikideen aldetik laguntza "ez asko ez gutxi" jaso dutela (2,97 puntu), beste herrialde batzuetako pertsonen aldetik laguntza "gutxi" jaso dutela (2,20 puntu) eta euskaldunen aldetik laguntza "ez asko ez gutxi" jaso dutela (2,99 puntu).



4.53. GRAFIKOA Jatorri bereko, beste herrialde batzuetako, EAEko eta Espainiako pertsonen laguntza, sexuaren arabera



P20: Arazoei aurre egiteko, zenbat laguntza jaso duzu hemen bizi diren jatorri bereko pertsonengandik? Hemen bizi diren beste herrialde batzuetako pertsonengandik? Bertakoengandik? (1 "Bat ere ez" eta 5 "Asko")
 Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Sexuaren arabera, emakume eta gizon etorkinei iruditzen zaie herrikideen aldetik eta beste herrialde batzuetako pertsonen aldetik laguntza bera jaso dutela. Dena den, gizonei ez bezala, emakumeei iruditzen zaie euskaldunen edo/eta espainiarren laguntza handiagoa jaso dutela (3,11 puntu).

4.54. GRAFIKOA Jatorri bereko, beste herrialde batzuetako, EAEko eta Espainiako pertsonen laguntza, jatorriaren arabera



P20: Arazoei aurre egiteko, zenbat laguntza jaso duzu hemen bizi diren jatorri bereko pertsonengandik? Hemen bizi diren beste herrialde batzuetako pertsonengandik? Bertakoengandik? (1 "Bat ere ez" eta 5 "Asko")
Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Jatorri ezberdineko emakumeen artean aldeak daude. EAEn bizi diren jatorri bereko pertsonen emandako laguntzari dagokionez, Errumaniako emakumeek laguntza gutxiago jaso dute (2,68 puntu) Marokoko emakumeek baino (3,23 puntu).

EAEn bizi diren beste herrialde batzuetako pertsonen emandako laguntzari dagokionez ere, Errumaniako emakumeek laguntza gutxiago jaso dute (1,79 puntu) Boliviako, Kolonbiako eta Marokoko emakumeek baino (2,39, 2,37 eta 2,37 puntu, hurrenez hurren). Bertako pertsonen emandako laguntzari dagokionez ere, Errumaniako emakumeek babesgabe sentitzen dira (2,78 puntu). Kolonbiako emakumeek beste emakumeek baino laguntza dezente

gehiago jaso dute (3,39 puntu). Esan beharra dago jasotako laguntzaz ari garenean, berez, emakumeen hautemate subjektiboaz ari garela.

Laburbilduz, badirudi EAEn bizi diren emakume etorkinek identitate-sentimendu estuagoa dutela jatorrizko herrialdearekin gizarte hartzailearekin baino. Hori, baina, normala da, baldin eta kontuan hartzen badugu askok denbora gutxi daramatela gure herrialdean eta jatorrizko herrialdearekiko loturak gizarte hartzailearekikoei gailentzen zaizkiela. Edonola ere, Saharaz hegoaldeko emakumeak (gehienak beltzak dira) beste emakumeak baino euskaldunago eta espainiarago sentitzen dira. Baliteke hori babes-mekanismo bat izatea; haien itxura fisikoaren eta euskal emakume zuriaren kanonaren artean dagoen alde nabarmena orekatzea helburu duen babes-mekanismo bat.

Pertsonen arteko harremani dagokienez, ikusi dugu emakume etorkinek gizon etorkinek baino harreman gutxiago dituztela beren jatorri bereko pertsonekin; horrek, baina, ez du esan nahi euskaldunekin harreman gehiago dituztenik. Emakume etorkinek gizon etorkinek baino harreman eta lagun gutxiago dituzte beren jatorri bereko pertsonekin. Emakume etorkinen artean, Marokoko emakumeak nabarmentzen dira; izan ere, lotura estua dute jatorrizko herrialdearekin, eta batez ere senide arteko harremanak dituzte: beste emakumeek baino sendago eusten diete beren herrialdeko ohiturei, gehiago hitz egiten dute beren hizkuntza, gutxiago hitz egiten dute gaztelania, gutxiago ibiltzen dira aisialdian euskaldunekin eta lagun euskaldun gutxiago dituzte. Errumaniako eta Saharaz hegoaldeko emakumeek antzeko arazoak dituzte hizkuntza eta kulturen/erlijioen arteko aldeak direla eta, eta haiek ere zailtasunak dituzte beste gizarte-talde batzuekin harremanak egiteko. Saharaz hegoaldeko emakumeek beren jatorri bereko pertsonekin ere harremanak egiteko zailtasunak dituzte. Errumaniako emakumeei iruditzen zaie laguntza gutxi jaso dutela beren jatorri bereko, beste herrialde batzuetako eta EAeko pertsonengandik.

Aldiz, Kolonbiako eta Boliviako emakumeek, EAEn aspalditik daudenek nahiz berriki iritsitakoek, antzeko kultura, erlijioa, hizkuntza eta abar dutenez, gainerako emakumeek baino harreman gehiago dituzte beren jatorriko pertsonekin eta beste komunitate batzuetako pertsonekin, eta integratuago daude. Kolonbiako emakumeek euskal emakumeen antzeko portaera-ereduak dituzte, eta, beraz, euskal emakumeen antz handien dutela esan dezakegu.

ONDORIOAK

4.7.5

Ikuspegi 2010 inkestaren datuek ikuspegi panoramiko argi bat ematen digute EAEn bizi diren etorkinen egoerari buruz. Datuen arabera, etorkinak, oro har, pozik daude bizitzarekin, eta, beraz, pentsa dezakegu beren migrazio-prozesua "normala" dela. Hortaz, alde batera utz ditzakegu migrazio-prozesuak arazoz josten dituzten estereotipoak.

Oro har, emakume eta gizon etorkinak osasuntsu sentitzen dira, ez dute zailtasun handirik eguneroko ekintzak egiteko, asebeteta daude familiarekin eta beren buruarekin eta ez dute zailtasun eta oztopo handirik gizarte- eta osasun-laguntza jasotzeko, ez eta beren ohiturak eta tradizioak praktikatzeko ere. Horretaz gainera, haiek esandakoaren arabera, bereizkeria-egoerak ez dira ohikoak eta ez dira maiz gertatzen.

Egoera, oro har, hori izan arren, bada itzal ilunik eta hobe daitekeen alderdirik. Lan-merkatura sartzeko, lan- eta egoitza-baimenen izapideak egiteko, senideak berriro biltzeko eta etxebizitza erosteko edo alokatzeko zailtasunez eta oztopoez ari gara. Lanarekin eta etxeko diru-sarrerekin lotutako alderdietan, badago zer eginik etorkinen asebetetasun-maila

hobetzeko. Pertsonen arteko harremanetan ere, itzal ilunak daude. Etorkinek diote ia ez dutela zailtasunik euskal idiosinkrasia ulertzeko eta bertako pertsonak ezagutu eta lagunak egiteko. Hala eta guztiz ere, ez daude guztiz asebeteta.

Oro har, gizon eta emakume etorkinek ez dituzte gauzak berdin hautematen eta ez dute berdin jokutzen (emakumeak ez dira gizonak bezain osasuntsu sentitzen, nahiz eta haiek baino asebeteago egon bizitzarekin; halaber, emakumeek gizonak baino bereizkeria gutxiago pairatzen dute; dena den, emakumeek gizonak baino harreman gutxiago dituzte eta joera handiagoa dute senideekin ibiltzeko). Edonola ere, jatorri ezberdineko emakumeen artean alde handiagoak daude emakumeen eta gizonen artean baino. Marokoko emakumeak nabarmendu nahi ditugu (baliteke Ikuspegi 2010 inkestan Marokoko emakumeei buruz esandakoa Ipar Afrikako emakumeei aplikatu ahal izatea); izan ere, beren jatorrizko herrialdeko pertsonekin ibiltzeko joera dute, harreman gutxi dituzte beste taldeekin eta askok ez dakitelako gaztelaniaz eta euskaraz. Horren ondorioz, beste emakumeek baino asebetetatsun gutxiago dute, eta ikuspegi ezkorragoa dute beren egoera orokorrari buruz.

Ñabardura batzuk gorabehera, antzeko zerbait esan dezakegu Errumaniako eta Saharaz hegoaldeko emakumeei buruz: hizkuntzarekin lotutako arazoak dituzte, bai eta beste gizarte-talde batzuetako pertsonekin harremanak egiteko zailtasunak ere (agian, hizkuntzak oztopatzen du harremanak egitea). Horretaz gainera, Errumaniako emakumeek beste emakumeek baino eragozpen eta oztopo gehiago eta laguntza gutxiago dituzte; hala iruditzen zaie, behinik behin. Saharaz hegoaldeko emakumeek zailtasun handiak dituzte talde bereko pertsonekin harremanak egiteko, eta beste emakumeak baino gaitzetsiago sentitzen dira etnia aski desberdin batekoak izateagatik.

Kolonbiako emakumeei dagokienez, kontuan hartu behar da gurean denbora gehien daraman etorkin-taldea dela eta antzeko kultura, erlijioa, hizkuntza eta abar dugula. Oro har, emakume-talde asebetena da aztertutako alor guztietan: beste emakumeek baino zailtasun gutxiago dituzte, eta harreman gehiago dituzte beren jatorri bereko pertsonekin, bai eta beste talde batzuetako pertsonekin ere. Kolonbiako emakumeek euskal emakumeen antzeko portaera-ereduak dituzte, eta, beraz, euskal emakumeen antz handien dutela esan dezakegu. Boliviako emakumeak bide berean daude. Dena den, EAEn denbora gutxiago daramatenez, oraindik ez dira Kolonbiako emakumeen mailara iritsi.

INTEGRAZIOA, EAEREKIN IDENTIFIKATZEA ETA ETORKIZUNEN PROIEKTUAK

José A. Oleaga

4.8

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailak duela gutxi eman ditu AEI 2010¹²⁴ deritzon inkestaren lehenengo datuak. Inkesta hori estatistika-lan ofizial bat da, eta EAEn bizi diren etorkinak aztertzea du helburu. Bertan, informazio asko ematen da EAEn bizi diren etorkin atzerritarrei buruz, bai eta haien bizikidetzta-unitateei buruz ere.

Aurreko kapituluetan, EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinei buruzko hainbat alor azertu ditugu. Kapitulu honetan, emakume etorkinen gizarteratzearekin eta integrazioarekin lotutako gaiak soilik helduko diegu. Horretarako, inkesta horren datuak berriro interpretatuko ditugu, genero-ikuspegitik.

GIZARTE- HARREMANAK ETA BEREIZKERIA

4.8.1

Atzerriko etorkinen gizarteratze-maila eta gizarteratzearen kalitatea zein den jakiteko, AEI 2010 inkestan zenbait galdera daude, etorkinek euskal gizarteko taldeekin, bertakoez nahiz etorkinez osatutako taldeekin, gizarte-harremanak eta harreman pertsonalak egiteko dituzten zailtasunei buruzkoak.


Oro har, 16 urtetik gorako atzerriko etorkinek diote ez dutela arazorik bertako pertsonekin edo taldeekin harremanak egiteko (% 92,0k dio ez duela arazorik), ez eta beste etorkinekin edo etorkin-taldeekin harremanak egiteko ere (% 87,7k dio ez duela batere arazorik).

Aipatzekoa da emakume atzerritarrek gizonek baino arazo handiagoak dituztela harremanak egiteko:

- Emakume etorkinen % 5,7k dio zailtasunak dituela bertako pertsonekin harremanak egiteko. Gizonen % 2,2k soilik dio hori.
- Emakume etorkinen % 3,2k dio zailtasunak dituela beste etorkinekin edo etorkin-taldeekin harremanak egiteko. Gizonen % 1,3k soilik dio hori.


¹²⁴AEI 2010 inkesta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egin zuen. EAEn bizi diren 5.612 etorkini egin zitzaizkien inkesta. Galdeketa-lanak 2010. urtean egin ziren, eta lehenengo txostenak 2011. urtearen hasieran egin ziren.

4.55. GRAFIKOA Bertako pertsonekin integratzeko zailtasuna, sexuaren arabera



Z101: Zailtasunik al duzu bertako pertsonekin eta taldeekin integratzeko?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

4.56. GRAFIKOA Etorkinekin integratzeko zailtasuna, sexuaren arabera




Z102: Zailtasunik al duzu etorkinekin eta etorkin-taldeekin integratzeko?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Datuak jatorriaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu jatorri ezberdineko emakumeen artean ere aldeak daudela. Bertako pertsonekin harremanak egiteko zailtasunei dagokienez:

- Txinako emakumeak nabarmentzen dira; izan ere, % 43,3k soilik dio ez duela arazorik bertako pertsonekin edo taldeekin harremanak egiteko, eta % 24,6k dio arazoak eta zailtasunak dituela integratzeko.
- Magrebeko eta Senegaleko emakumeak ere nabarmentzekoak dira; izan ere, emakumeen batez bestekoak baino arazo handiagoak dituzte: Magrebeko emakumeen % 76,8k eta Senegaleko emakumeen % 77,8k soilik dio ez duela arazorik bertakoekin harremanak egiteko. Magrebeko emakumeen % 14,3k dio arazoak dituela bertakoekin integratzeko.
- Kontrako muturrean, aipatzekoak dira Argentinako (eta Txileko eta Uruguaiako), Mendebaldeko EBko eta Latinoamerikako beste herrialdeetako emakumeak; izan ere, haiek dituzte arazo gutxien bertakoekin integratzeko. Hala esan digu Argentinako,

Txileko eta Uruguako emakumeen % 99,5ak, Mendebaldeko EBko emakumeen % 96,6k eta Latinoamerikako beste herrialdeetako emakumeen % 95,6k.

4.57. GRAFIKOA Bertako pertsonekin integratzeko zailtasuna, jatorriaren arabera




Z101: Zailtasunik al duzu bertako pertsonekin eta taldeekin integratzeko?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Etorkinekin edo etorkin-taldeekin dituzten gizarte-harremanei dagokienez, Txinako emakumeak berriro ere nabarmentzen dira; izan ere, % 42,2k soilik dio ez duela arazorik integratzeko, eta % 12,7k dio arazoak dituela.

Magrebeko emakumeak ere nabarmentzen dira; izan ere, % 79,6k soilik dio ez duela arazorik, eta % 12k dio arazoak dituela beste etorkinekin edo etorkin-taldeekin harremanak egiteko. Senegaleko emakumeen artean, gutxi samar dira arazorik ez dutenak (% 70,4), eta asko samar (% 27,1), beren herrialdeko edo kulturako pertsonekin arazoak dituztenak. Munduko gainerako herrialdeko emakumeei dagokienez, deigarria da gutxi samar direla harremanak egiteko arazorik ez dutenak (% 68,3), eta asko samar (% 22,8), beste etorkin-taldeetako pertsonekin harremanik nahi ez dutenak.

Kontrako muturrean, Mendebaldeko EBko eta Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeak nabarmentzen dira; izan ere, integratzeko edo/eta beste etorkinekin eta etorkin-taldeen harremanak egiteko arazo gutxien dituzte. Hala diote Mendebaldeko EBko emakumeen % 93,8k eta Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeen % 92,6k.

4.58. GRAFIKOA Etorkinekin integrazteko zailtasuna, jatorriaren arabera



Z102: Zailtasunik al duzu etorkinekin eta etorkin-taldeekin integrazteko?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egin


Gutxi gorabehera, 16 urtetik gorako 10 etorkin atzerritarretik 6 edozein pertsonarekin ibiltzen dira aisialdian; 10etik 3 senideekin soilik ibiltzen dira; eta 10etik 1 jatorri edo kultura bereko pertsonarekin soilik ibiltzen da. Hau da, etorkinen % 40 senideekin edo jatorri edo kultura bereko pertsonarekin soilik ibiltzen da aisialdian. Horrek esan nahi du etorkin horiek ez dutela bertakoekin harremanik, nahiz eta gehienek esan ez dutela zailtasunik bertakoekin harremanak egiteko.

Sexuaren arabera, emakumeek gizonek baino harreman gutxiago dituzte edozein pertsonarekin (emakumeen % 59,3k eta gizonen % 61,5ak dio hori), eta gizonak baino gehiago ibiltzen dira senideekin edo jatorri edo kultura bereko pertsonarekin (emakumeen % 39,9k eta gizonen % 36,2k dio hori).

Datuak jatorriaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu jatorri ezberdineko emakumeen artean alde handiak daudela:


- Txinako emakumeen % 12,6k soilik dio aisialdian edozein pertsonarekin ibiltzen dela, eta % 83k dio senideekin (% 57,7) edo jatorri edo kultura bereko pertsonarekin ibiltzen dela (% 29,8).
- Magrebeko emakumeak ere nabarmentzen dira; izan ere, Magrebeko emakume gutxi (% 39) ibiltzen dira aisialdian edozein pertsonarekin.

4.59. GRAFIKOA Norekin ibiltzen diren aisialdian, sexuaren arabera



Z99: Norekin ibiltzen zara aisialdian?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egin


4.60. GRAFIKOA Norekin ibiltzen diren aisialdian, jatorriaren arabera



Z99: Norekin ibiltzen zara aisialdian?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egin

Etorkinek aisialdi-taldeetan, etorkinei laguntza emateko elkarteetan, GKE-etan, kirol-klube-tan, hezkuntza-taldeetan, erlijio-taldeetan, sindikatuetan, alderdi politikoetan eta halako taldeetan parte hartzen duten aztertzea baliagarria da haien gizarte-harremanen egoera zein den jakiteko.


4.61. GRAFIKOA Talderen batean parte hartzea, sexuaren arabera



Z103: Talde edo elkarte hauetan parte hartzen duzu/izena emanda zaude?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Atzerriko etorkinen % 30,9k soilik parte hartzen du talde edo elkarteren batean. Sexuaren arabera, emakumeek gizonek baino gutxiago parte hartzen dute halako taldeetan. Lehen aipatutako joera errepikatu egiten da: gizonek emakumeek baino presentzia handiagoa dute eremu publikoan, eta gizarte-harreman gehiago dituzte. Gizonen artean, % 35,7k parte hartzen du talde edo elkarteren batean; emakumeen artean, aldiz, % 26,7k soilik parte hartzen du halako taldeetan.

4.62. GRAFIKOA Talderen batean parte hartzea, jatorriaren arabera



Z103: Talde edo elkarte hauetan parte hartzen duzu/izena emanda zaude?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina


Jatorriaren arabera, agerian jartzen da, berriro ere, Txinako emakumeak itxita bizi direla, batez ere talde barruko kideekin dituztela harremanak eta harreman gutxi dituztela beste pertsonekin: % 14,1ak soilik parte hartzen du talderen batean. Errumaniako (eta Ekialdeko EBko) emakumeek ere gutxi parte hartzen dute halako taldeetan (% 15,8).

Kontrako muturrean Senegaleko eta Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeak daude: beste emakumeek baino gehiago parte hartzen dute aipatutako taldeetan. Hala esan digu Senegaleko emakumeen % 53,2k eta Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeen % 50,0k.

AEI 2010 inkestan, atzerriko etorkinek pairatu dituzten bereizkeria-egoerei buruzko informazioa jaso genuen. Bereizkeria-egoera horiek lotuta daude arrazakeriarekin, xenofobiarekin, gaitzespenarekin eta marjinazioarekin. Inkestatutako pertsonen bereizkeria-egoera larriak eta ez hain larriak bereizteko eskatu genien.

Oro har, 10 atzerriko etorkinetik 2k diote bereizkeria-egoeraren bat pairatu dutela EAEn daudenetik. 3 bereizkeria-egoeratik 1 larritzat jotzen dute, eta beste biak, ez hain larritzat.

4.63. GRAFIKOA Arrazakeriak, xenofobiak, gaitzespenak eta marjinazioak eragindako bereizkeria, sexuaren arabera



Z116-Z117: Arrazakeriarekin, xenofobiarekin, gaitzespenarekin eta marjinazioarekin lotutako esperientziarik bizi izan al duzu EAEn?


Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Sexuaren arabera, atzerriko emakumeek gizonen baino bereizkeria-egoera gehiago pairatu dituzte: atzerriko emakumeen % 20,6k dio bereizkeria-egoeraren bat pairatu duela (gizonen % 18,5k dio hori bera). Horretaz gainera, gizon baino emakume gehiagok jotzen dute bereizkeria-egoera larritzat. Gizonen % 4,5k jotzen du bereizkeria-egoera larritzat, eta emakumeen % 8,3k; hots, gizonen ehunekoak halako bi ia.

Atzerriko emakume etorkinen artean, hauek dira bereizkeria-egoera eta -esperientzia larri nagusiak: "irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak" (% 38,6), "erasoak, jazarpenak, tratu txarrak eta indarkeria" (% 17,5) eta "bestelako gaitzespen, gehiegikeria eta umiliazioak eskolan eta lanean" (% 16,1).

Atzerriko gizon etorkinen artean, hauek dira bereizkeria-egoera larri nagusiak: "erasoak, jazarpenak, tratu txarrak eta indarkeria" (% 26,7) "irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak" (% 19,9), "tratu txarra zerbitzu publiko nahiz pribatuetan" (% 18,6) eta "bestelako gaitzespen, gehiegikeria eta umiliazioak eskolan eta lanean" (% 14,0).

4.64. GRAFIKOA Bereizkeria-egoera larriak, sexuaren arabera




Z116-Z117: Deskribatu bereizkeria-egoera larriak
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Jatorri ezberdinetako emakumeek bereizkeria-egoera ezberdinak pairatu dituzte:

- Nabarmentzekoak dira Senegaleko eta Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeak; izan ere, beste emakumeek baino bereizkeria-egoera gehiago pairatu dituzte. Afrikako emakumeen % 21,7k eta Senegaleko emakumeen % 13,4k dio bereizkeria-egoera larriak pairatu dituela. Horretaz gainera, bi emakume talde horiek pairatu dute bereizkeria gehien; hala esan du Afrikako emakumeen % 51,8k eta Senegaleko emakumeen % 38,3k. Brasileko (eta Venezuelako eta Dominikar Errepublikako) emakumeen % 38k ere bereizkeria pairatu duela dio.
- Kontrako muturrean, nabarmentzekoak dira Mendebaldeko Europako, Txinako eta munduko gainerako herrialdeetako emakumeak; izan ere, haiek pairatu dute bereizkeria gutxien; hala esan du Mendebaldeko Europako emakumeen % 95,5ak, Txinako emakumeen % 90,1ak eta munduko gainerako herrialdeetako emakumeen % 91,8k.

4.65. GRAFIKOA Arrazakeriak, xenofobiak, gaitzespenak eta marjinazioak eragindako bereizkeria, jatorriaren arabera



Z116-Z117: Arrazakeriarekin, xenofobiarekin, gaitzespenarekin eta marjinazioarekin lotutako esperientziarik bizi izan al duzu EAEn?


Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Jatorri ezberdineko emakumeek ez dituzte bereizkeria-egoera larri berak pairatzen. Dena den, oro har, maizen gertatzen den bereizkeria-egoera lotuta dago "irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazista eta xenofoboekin":

- Mendebaldeko EBko emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: "irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak" (kasuen % 100).
- Errumaniako (eta Ekialdeko EBko) emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: "bestelako gaitzespenak eskolan eta lanean" (% 42,1), "etorkinen arteko gatazkak" (% 26,4) eta "irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak" (% 25,8).
- Magrebeko emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: "irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak" (% 39,0), "senideen gaitzespena" (% 17,3) eta "bestelako gaitzespenak eskolan eta lanean" (% 14,3).
- Argentinako (eta Txileko eta Uruguai) emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: "erasoak, jazarpenak, tratu txarrak eta indarkeria" (% 49,0) eta "irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak" (% 26,1).
- Kolonbiako (eta Ekuadorreko eta Peruko) emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: "irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak" (% 37,6), "erasoak, jazarpenak, tratu txarrak eta indarkeria" (% 31,4) eta "bestelako gaitzespenak eskolan eta lanean" (% 31,4).

- Boliviako emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: “tratu txarra zerbitzu publiko nahiz pribatuetan” (% 42,4) eta “bestelako gaitzespenak eskolan eta lanean” (% 26,5).
- Paraguaiako emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: “irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak” (% 43,7), “senideen gaitzespena” (% 22,4) eta “etorkinen arteko gatazkak” (% 20,4).

4.66. GRAFIKOA Bereizkeria-egoera larriak, jatorriaren arabera



Z116-Z117: Deskribatu bereizkeria-egoera larriak
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

- Brasileko (eta Venezuelako eta Dominikar Errepublikako) emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: “irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak” (% 42,6), “delitu-jarduerak leporatzea” (% 24,2) eta “bestelako gaitzespenak eskolan eta lanean” (% 16,4).
- Latinoamerikako gainerako herrialdeetako emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: “irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak” (% 60,2).

- Txinako emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: “erasoak, jazarpenak, tratu txarrak eta indarkeria” (% 75,0).
- Senegaleko emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: “irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak” (% 76,4).
- Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeek bereizkeria-egoera larri hauek pairatzen dituzte maizen: “etorkinen arteko gatazkak” (% 34,1), “erasoak, jazarpenak, tratu txarrak eta indarkeria” (% 33,9) eta “irain, jokabide, aurreiritzi eta esamesa arrazistak eta xenofoboak” (% 32,0).

INTEGRAZIOA ETA EAEREKIN IDENTIFIKATZEA

4.8.2

EAEn bizi diren 16 urtetik gorako etorkin atzerritarren integrazio-maila subjektiboa handia da: % 19k dio gutxi integratuta dagoela edo ez dagoela batere integratuta, % 57,3k dio nahiko integratuta sentitzen dela eta % 23,5ak dio erabat integratuta dagoela euskal gizartean. Oro har, etorkinen batez besteko puntuazioa 4,01 da, 1etatik 5era bitarteko eskala erabiliz. Hau da, oro har, esan dezakegu etorkinak nahiko integratuta sentitzen direla gure gizartean.

Sexuaren arabera, emakumeak ez dira gizonak bezain integratuta sentitzen. Hala ere, emakumeen eta gizonen batez besteko puntuazioa 4 punturen inguruan dago. Horrek esan nahi du “nahiko integratuta” sentitzen direla.

4.67. GRAFIKOA Etorkinek euskal gizartean duten integrazio-maila subjektiboa, sexuaren arabera




Z118: Zer neurritan sentitzen zara euskal gizartean integratuta?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Jatorri ezberdineko emakumeen integrazio-maila subjektiboa aztertu dugu, eta haien artean aldeak daude. Datu hauek nabarmentzekoak dira:

- Txinako eta Magrebeko emakumeen iritzi, gutxi integratuta daude (3,37 eta 3,55 puntu, hurrenez hurren): beste jatorri batzuetako emakumeek baino puntu gutxiago dituzte. Argi dago beste herrialdeetako emakume etorkinek ez bezala jokutzen dutela.
- Beste muturrean, Mendebaldeko EBko eta Argentinako (eta Txileko eta Uruguai) emakumeen iritzi, oso integratuta daude; hau da, euskal gizartean oso integratuta sentitzen dira (4,39 eta 4,28 puntu, hurrenez hurren).

4.68. GRAFIKOA Etorkinek euskal gizartean duten integrazio-maila subjektiboa, jatorriaren arabera



Z118: Zer neurritan sentitzen zara euskal gizartean integratuta?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleek EAerekin lortu duten identifikazio-maila eta integrazio-maila subjektiboa antzekoak dira. Dirudienez, integratuta sentitzen diren pertsonak EAerekin identifikatzen dute beren burua, eta alderantziz. Hain zuzen, bi aldagai horiek, hots, integrazioa eta identifikazioa, era adierazgarrian daude lotuta ($r=.618$). Zenbat eta integratuago sentitu, hainbat eta gehiago identifikatzen dute etorkinek beren burua EAerekin, eta alderantziz.


Oro har, badirudi etorkinak dezente identifikatzen dutela beren burua EAerekin. Kasu horretan ere, nabarmentzekoa da gizonak emakumeek baino gehixeago identifikatzen dutela beren burua EAerekin. Edonola ere, oro har, emakume zein gizon etorkinek dezente identifikatzen dute beren burua EAerekin.

Jatorri ezberdineko emakumeen artean alde nabarmenak daude. Emakumeek euskal gizartean duten integrazio-maila subjektiboa aztertzean ikusi ditugun alde berak daude emakumeen artean identifikazioaren arloan:

- Txinako eta Magrebeko emakumeek gutxi identifikatzen dute beren burua EAerekin (3,44 eta 3,66 puntu, hurrenez hurren).


- Beste muturrean, nabarmentzekoak dira Mendebaldeko EBko eta Argentinako (eta Txileko eta Uruguai) emakumeak; izan ere, asko identifikatzen dute beren burua EAerekin (4,34 eta 4,26 puntu, hurrenez hurren).

4.69. GRAFIKOA Zenbateraino identifikatzen duten etorkinek beren burua EAerekin, sexuaren arabera



Z113: Zer neurritan identifikatzen duzu zeure burua EAerekin (Euskal Herriarekin edo Euskadirekin)?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

4.70. GRAFIKOA Zenbateraino identifikatzen duten etorkinek beren burua EAerekin, jatorriaren arabera




Z113: Zer neurritan identifikatzen duzu zeure burua EAerekin (Euskal Herriarekin edo Euskadirekin)?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Migrazio-prozesuak zenbaterainoko arrakasta izan duen jakiteko, oso baliagarria da etorkinek emigratu aurretik zituzten asmoak zenbateraino bete diren aztertzea. Nola aldatu dira emakume etorkinen asmoak hasieratik orain arte? Zer asmo dituzte epe laburrerako (5 urte) eta epe luzerako? Halako galderen bidez jakin dezakegu migrazio-proiektua arrakastatsua izan den edo, aitzitik, porrot bat izan den.


AEI 2010 inkestan, galdera horiek jasota daude. Bidaiari ekitean, 16 urtetik gorako atzerriko etorkinen % 39ren helburua zen "beste etapa bati ekitea beste herrialde batean", % 36,4ren helburu nagusia zen "ikastea" edo "dirua eskuratu eta sorterrira itzultzea" eta % 24,6ren helburua zen "senide bati lagun egitea", besterik gabe.

4.71. GRAFIKOA Etorkinek emigratu aurretik zituzten asmoak, sexuaren arabera



Z119: Emigratu aurretik, zer asmo zenituen?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

4.72. GRAFIKOA Etorkinek gaur egun dituzten asmoak, sexuaren arabera




Z120: Eta orain, zer asmo dituzu?
Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Gaur egun, etorkin gehiagok dute helburutzat "beste etapa bati ekitea beste herrialde batean" (% 51,3), eta etorkin gutxiagok du "sorterrira itzultzeko" asmoa (% 24). "Senide bati lagun egitea" helburu duten pertsonen kopurua ez da aldatu (% 24,6).

Oro har, etorkinek EAEn gelditzeko asmoa dute datozen 5 urteetan (hala esan du % 89,6k), eta epe luzerako asmoei dagokienez, gehienek hemen gelditzeko asmoa dute; hau da, etorkizunerako bizitza-proiektua hemen gauzatu nahi dute (% 75,9).

Datuak sexuaren arabera aztertu ditugu, eta zenbait ñabardura egin beharrean gaude: emakumeek eta gizonak ez zituzten asmo berak bidaiari ekitean. Gizon baino emakume gehiagok ekin zioten migrazio-proiektuari "norbaiti lagun egiteko" (emakumeen % 28,1 eta gizonen % 20,5), eta gizon baino emakume gutxiagok, "beste etapa bati ekiteko beste herrialde batean" (emakumeen % 36,4 eta gizonen % 42,1) edo "dirua lortu eta itzultzeko (ikas-teko)" (emakumeen % 35,5 eta gizonen % 37,4). Hau da, emakumeek eta gizonak hasieran zituzten asmoak ez dira berdinak, ez eta guztiz aurkakoak ere.

4.73. GRAFIKOA EAEn gelditzeko asmoa, sexuaren arabera



Z121: Zer egiteko asmoa duzu datozen bost urteetan?

Z122: Eta bost urte igaro ondoren, zer egiteko asmoa duzu? Zer bizitza-proiektu duzu?

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Emakumeen eta gizonen hasierako asmoak aldatu egin dira: orain beste itxaropen batzuk dituzte. Emakume eta gizon gutxiagok dute itzultzeko asmoa, eta gehiagok, hemen gelditzeko. Dena den, emakumeen eta gizonen artean aldeak daude; lehen aipatutako alde berak, hain zuzen. Gizon baino emakume gehiagok dute "norbaiti lagun egiteko" asmoa (emakumeen % 27,1 eta gizonen % 21,8), eta gizon baino emakume gutxiagok dute "sorterrira itzultzeko" asmoa (emakumeen % 23 eta gizonen % 25,1) edo "beste herrialde batean beste etapa bati ekiteko" asmoa (emakumeen % 49,8 eta gizonen % 53).


Etorkizuneko asmoei dagokienez, nahiz eta emakumeen eta gizonen arteko aldeak handiak ez izan, estatistika aldetik esanguratsuak dira. Emakumeek gizonak baino asmo gutxiago dute hemen gelditzeko, bai epe laburrera (emakumeen % 88,8 eta gizonen % 90,6), bai epe luzera (emakumeen % 75 eta gizonen % 77).

AEI 2010 inkestan sakon aztertu ziren datozen 5 urteetan EAEn gelditzeko asmoa duten 16 urtetik gorako etorkinen itxaropen batzuk; etxebizitzarekin, lanarekin eta gizarte-harremanekin zerikusia duten itxaropenak, hain zuzen ere.

Etxebizitzari dagokionez, etorkin gehienek ez dute etxebizitza bat erosteko asmoa, ez emakumeek, ez gizonak. Hala ere, gizon baino emakume gehixeagok dute etxebizitza bat eros-

teko asmoa. Emakumeen % 25,1ak (eta gizonen % 22,5ak) soilik du datozen 5 urteetan etxebizitza bat erosteko asmoa.


4.74. GRAFIKOA Etxebizitzari buruzko asmoak, sexuaren arabera



Z123: Etxebizitzari dagokionez, datozen 5 urteetan EAEn gelditzeko asmoa dutenek zer egiteko asmoa dute: Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Lanari buruzko asmoari edo itzaropenei dagokienez, ez dira oso baikor agertzen: etorkinen % 34,6k ez du "hobekuntzarik espero", eta % 15,3k "lana aurkitzea espero du, edozein lan". Dena den, % 28,6k "lanpostu egonkor bat aurkitzea" espero du, eta % 21,6k "beste lan-hobekuntza batzuk" espero ditu (soldata, sektorez aldatzea, prestakuntza handiagoa lortzea...).

4.75. GRAFIKOA Lanari buruzko asmoak, sexuaren arabera




Z124: Lanari dagokionez, datozen 5 urteetan EAEn gelditzeko asmoa dutenek zer egiteko asmoa dute: Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Eremu horretan, gizonak baino baikorrago ageri dira emakumeak; izan ere, gizon baino emakume gehiagok espero dute lan egonkorra aurkitzea eta beste lan-hobekuntza batzuk izatea.

Gizarte-harremanekin lotutako itzaropenei dagokienez, gauzak orain arte bezala jarraitzea espero dute etorkinek. % 12,9k soilik espero du bertakoekin harreman gehiago egitea. Emakumeak gizonak baino zertxobait baikorrago ageri dira. Dena den, oro har, etorkinek ez dute uste bertakoekin harreman gehiago egingo dituztenik, ez eta harreman horiek onura handirik ekarriko dietenik ere.


4.76. GRAFIKOA Gizarte-harremanei buruzko asmoak, sexuaren arabera



Z125: Gizarte-harremanei dagokionez, zer egiteko asmoa dute datozen 5 urteetan EAEn gelditzeko asmoa dutenek:

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

4.77. GRAFIKOA Etorkinek emigratu aurretik zituzten asmoak, jatorriaren arabera



Z119: Cuándo inició su viaje, ¿cuáles eran sus intenciones?


Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Jatorri ezberdineko emakumeen artean, aipatzeko moduko aldeak daude:

- Nabarmentzekoak dira Paraguaiako, Boliviako, Kolonbiako (eta Ekuadorreko eta Peruko) eta Errumaniako (eta Ekialdeko EBko) emakumeak; izan ere, hasieran, beste emakumeek baino asmo handiagoa zuten atzerrian dirua irabazi ondoren sorterrira itzultzeko (AEI 2010 inkestaren arabera, % 73,3k, % 55,7k, % 52,2k eta % 49,1ak, hurrenez hurren).

- Mendebaldeko EBko, Brasileko (eta Venezuelako eta Dominikar Errepublikako), Argentinako (eta Txileko eta Uruguai) eta Afrikako eta munduko gainerako herrialdeetako emakumeek hasieran beste emakumeek baino asmo handiagoa zuten beste herrialde batean beste bizitza bati ekiteko (hala dio % 51ak, % 49,8k, % 47,4k, % 58,6k eta % 53,3k, hurrenez hurren).
- Magrebeko, Mendebaldeko EBko, Argentinako (eta Txileko eta Uruguai) eta Latinoamerikako gainerako emakumeek hasieran beste emakumeek baino asmo handiagoa zuten senide bati lagun egiteko (hala dio % 47,6k, % 37,7k, % 36,8k eta % 36,6k, hurrenez hurren).

4.78. GRAFIKOA Etorrinek gaur egun dituzten asmoak, jatorriaren arabera



Z120: Eta orain, zer asmo dituzu?

Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

EAEn bizi diren emakume atzerritarrek gaur egun dituzten asmoei dagokienez, jatorri ezberdineko emakumeek ez dituzte asmo berak:


- Paraguai, Kolonbiako (eta Ekuadorreko eta Peruko) eta Boliviako emakumeek gaur egun ere dirua irabazi ondoren sorterrira itzultzeko asmoa dute. Dena den, emigratu aurretik baino emakume gutxiagok dute gaur egun asmo hori. % 40,0k, % 32,3k eta % 30,8k, hurrenez hurren, dirua aurreztu ondoren bere herrialdera itzultzeko asmoari eusten dio. Esan beharra dago Boliviako eta Paraguai emakumeek denbora gutxiago igaro dutela gurean Kolonbiako emakumeek baino, eta, beraz, hasierako asmoen eta gaur egungoen artean ere denbora gutxiago igaro dela.
- Errumaniako (eta Ekialdeko EBko) (% 61,3), Senegaleko (% 59,8), Mendebaldeko EBko (% 57,5), Boliviako (% 51,2), Brasileko (eta Venezuelako eta Dominikar Errepublikako)

(% 49,6), Magrebeko (% 48,6), Txinako (% 48,4), Argentinako (eta Txileko eta Uruguaiako) (% 48,2), Afrikako gainerako herrialdeetako (% 65,8) eta munduko gainerako herrialdeetako (% 63,5) emakumeen gehiengoak bizitza berri bati ekiteko asmoa du beste herrialde batean.

- Edonola ere, emakume-talde batzuek senide bati lagun egiteko asmoari eusten diote oraindik ere: hala dio Argentinako (eta Txileko eta Uruguaiako) emakumeen % 42,3k, Latinoamerikako gainerako emakumeen % 36,2k, Magrebeko emakumeen % 35,7, Brasileko (eta Venezuelako eta Dominikar Errepublikako) emakumeen % 34,5ak eta Txinako emakumeen % 30,6k.

Epe laburreko, hots, datozen 5 urteetarako, asmoei dagokienez, emakume gehienek, edonondik datozela ere, EAEn gelditzeko asmoa dute. Senegaleko eta Paraguaiako emakumeen artean beste herrialdeetako emakumeen artean baino emakume gehiagok dute hemen ez gelditzeko asmoa: Senegaleko emakumeen % 73,4k eta Paraguaiako emakumeen % 79,4k soilik du datozen 5 urteetan hemen gelditzeko asmoa.

4.79. GRAFIKOA EAEn gelditzea: datozen 5 urteetarako asmoak eta epe luzerako asmoak, jatorriaren arabera



Z121: Zer egiteko asmoa duzu datozen bost urteetan?

Z122: Eta bost urte igaro ondoren, zer egiteko asmoa duzu? Zer bizitza-proiektu duzu?


Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Epe luzera begira, esan dugunez, emakumeen % 75ak EAEn gelditzeko asmoa du. Dena den, jatorri ezberdineko emakumeen artean aldeak daude:

- Senegaleko emakumeen % 46,3k soilik du hemen gelditzeko asmoa. Halaber, aipatzen da Paraguaiako emakumeen % 59,9k, Errumaniako (eta Ekialdeko EBko) emakumeen % 62,7k eta Boliviako emakumeen % 64,2k soilik duela EAEn gelditzeko asmoa.

Emakume guztiek ez dute etxebizitza erosteko asmoa. Nabarmentzekoa da Kolonbiako (eta Ekuadorreko eta Peruko) emakumeen % 35,6k, Boliviako emakumeen % 31,9k eta Paraguaiako emakumeen % 30,4k etxebizitza bat erosteko asmoa duela. Aldiz, Senegaleko, Afrikako gainerako herrialdeetako, Latinoamerikako gainerako herrialdeetako eta Txinako emakume gutxiak dute etxebizitza bat erosteko asmorik (% 9,7k, % 12,1ak, % 12,8k eta % 16,1ak, hurrenez hurren).

4.80. GRAFIKOA Etxebizitza bat erosteko asmoa, jatorriaren arabera




Z123: Etxebizitzari dagokionez, datozen 5 urteetan EAEn gelditzeko asmoa dutenek zer egiteko asmoa dute: Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Lanari dagokionez ere, jatorri ezberdineko emakumeek ez dituzte itxaropen berak:


- Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeen % 47,3k, Magrebeko emakumeen % 22,9k, Brasileko (eta Venezuelako eta Dominikar Errepublikako) emakumeen % 18,9k eta Errumaniako (eta Ekialdeko EBko) emakumeen % 16,6k lan bat aurkitzea espero du: edozein motatakoa eta edonon.
- Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeen % 41,2k, Latinoamerikako gainerako herrialdeetako emakumeen % 40,6k eta Magrebeko emakumeen % 37,5ak beste emakumeek baino itxaropen handiagoa du lan egonkor bat aurkitzeko.
- Senegaleko emakumeen % 45,8k, Kolonbiako (eta Ekuadorreko eta Peruko) emakumeen % 38,1ak eta Paraguaiako emakumeen % 33,1ak beste emakumeek baino itxaropen handiagoa du lan-hobekuntzak izateko; hau da, soldata hobe izateko, jarduera-sektorez aldatzeko edo bere prestakuntzarekin bat datorren lana aurkitzeko.

4.81. GRAFIKOA Lanari buruzko itxaropenak, jatorriaren arabera



Z124: Lanari dagokionez, datozen 5 urteetan EAEn gelditzeko asmoa dutenek zer egiteko asmoa dute: Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

4.82. GRAFIKOA Gizarte-harremanei buruzko asmoak: bertakoekin harremanak egitea, jatorriaren arabera



Z125: Gizarte-harremanei dagokionez, zer egiteko asmoa dute hurrengo 5 urteetan EAEn gelditzeko asmoa dutenek: Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Gizarte-harremanekin lotutako itxaropenei dagokienez, nabarmentzekoak dira Boliviako eta Errumaniako (eta Ekialdeko EBko) emakumeak; izan ere, beste emakumeek baino itxaro-

pen askoz handiagoa dute bertakoekin harremanak egiteko. Hala dio Boliviako emakumeen % 30,8k eta Errumaniako (eta Ekialdeko EBko) emakumeen % 28,9k.

Horren kontrara, Latinoamerikako gainerako herrialdeetako (% 4,3), Argentinako (eta Txileko eta Uruguai; % 5,8), Kolonbiako (eta Ekuadorreko eta Peruko; % 6,6) eta Mendebaldeko EBko (% 7,2) emakumeek itxaropen gutxi dute bertakoekin harremanak egiteko.

ONDORIOAK

4.8.4

AEI 2010 azterlanaren datuak bat datoz Ikuspegi 2010 inkestako datuekin, eta azpimarratzen dute migrazio-prozesuak "normaltasunez" gertatzen ari direla eta, oro har, ez dagoela aparteko "arazorik". Horrek ez du esan nahi, baina, gatazkarik edo arazorik gertatzen ez denik migrazio-prozesuen kudeaketaren inguruan, norbanakoaren zein gizartearen ikuspuntutik. Hain zuzen, migrazio-prozesuak gizarte-fenomeno konplexuak dira; hori dela eta, prozesu horiek gauzatzen eta kudeatzen direnean, batzuetan tirabirak eta gatazkak sortzen dira. Ez dugu, haatik, prozesua zertan arazo bilakatu; izan ere, ez da arazo bat: datuek hala frogatzen dute.

Etorkin gehienek esan digute ez dutela integratzeko arazorik bertakoekin, beren jatorri bereko etorkinekin eta beste etorkinekin (nahiz eta % 40k senideekin soilik izan harremanak) eta ez direla diskriminatuta sentitzen. Horretaz gainera, oso integratuta daude, eta askok EAEn bizitzen gelditzeko asmoa dute. Nahiz eta aldeak egon gizonen eta emakumeen artean (aldeak ez dira handiak), jatorri ezberdineko emakumeen artean alde handiagoak daude gizonen eta emakumeen artean baino.

AEI 2010 azterlanean, edozein lekutako etorkinei egin zitzaizen inkesta. Ikuspegi 2010 inkestan, aldiz, euskal immigrazioaren eredu diren bost herrialdeetako etorkinak aukeratu zituzten. Hori dela eta, kapitulu honetan, lehen aipatu ez ditugun jatorri batzuetako etorkinei buruzko datuak ageri dira. Edonola ere, etorkin horiek lehen aipatu ditugun etorkinen antzera jokatzeko dute. Magrebeko eta Senegaleko (oro har, Ipar Afrikako eta Saharaz hegoaldeko) emakumeek eta Txinakoek dituzte arazo gehien integratzeko, batez ere senideekin eta talde bereko pertsonekin ibiltzen dira, beste emakumeek baino bereizkeria handiagoa pairatzen dute, ez dira beste emakumeak bezain integratuta sentitzen eta beste emakumeek baino asmo gutxiago dute EAEn gelditzeko. Dirudienez, zenbat eta handiagoak izan hizkuntzen, kulturen, erlijioen, ohituren, tradizioen... hitz batez, mundu-ikuskeren arteko aldeak, hainbat eta zailtasun gehiago dituzte emakumeek, batez ere komunitatean senideen kontrol handia duten emakumeek, integratzeko.

Kontrako muturrean, Mendebaldeko EBko eta Latinoamerikako (batez ere, Argentinako) emakumeak oso asebeteta eta integratuta daude bertakoekin zein beste jatorri batzuetako etorkinekin. Haien kulturak (hizkuntza, itxura fisikoa, historia, tradizioak, ohiturak, erlijioa...) gurearen antz handiagoa du beste kulturek baino. Hori bera ematen du aditzera, hain zuzen ere, Ikuspegi 2010 azterlanak.

**EAEN BIZI DIREN
ATZERRIKO
EMAKUME
ETORKINEN
TIPOLOGIA
EZARTZEKO
BIDEAN**

José A. Oleaga

4.9

Erroldak eta Eusko Jaurlaritzako Ikuspegi 2010 azterlana eta AEI 2010 inkesta aztertu eta datuak aztertzekeo aldagai anitzeko teknikak erabili ditugu (batez ere, CHAID), eta, datu horien bidez, EAEn bizi diren emakume atzerritarren tipologia bat egin dugu. Zehazki, ezau-garri ezberdinak dituzten 9 tipo edo segmentu egin ditugu. 9 tipo horiek deskribatu aurretik, labor bada ere, tipologia partzial batzuk aipatuko ditugu, emakume etorkinak bereizten dituzten aldagaiak nabarmentzeko. Funtsean, aldagai horien arabera egin ditugu 9 tipoak.

**EMAKUMEEN
USTEZ, ZEIN DA
BEREN OSASUN-
EGOERA?
(IKUSPEGI 2010)**

4.9.1


Ikuspegi 2010 azterlanaren datu-basea erabili dugu, eta segmentuak sortzeko CHAID aldagai anitzeko teknika aplikatu dugu. Hau da mendeko aldagaiak: hautemandako osasun-egoera subjektiboa (hiru kategoria daude). Aldagai askeak, berriz, hauexek dira: jatorrizko herrialdea, zenbat denbora igaro duten EAEn, adina, euskaraz hitz egitea, ikasketa-maila, erlijioa, bikotekidea izatea, seme-alaba kopurua, diru-sarrerak eta administrazio-egoera.

Emakumeak bereizteko, aldagai hauek erabili ditugu: jatorria, adina, bikotekidea izatea eta diru-sarrerak. Hala, 7 segmentu egin ditugu:

- 1) Kolonbiako, Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Marokoko emakumeak: 18 urtetik 37 urtera arteko adina; bikotekiderik ez: talde honek du osasun-egoera subjektibo onena; % 60,8k dio oso osasun ona duela.
- 2) Kolonbiako, Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Marokoko emakumeak: 18 urtetik 37 urtera arteko adina; bikotekidea bai; 601 eta 1.800 euro arteko hileko diru-sarrerak: talde honek ere oso osasun-egoera subjektibo ona du; % 51,6k dio oso osasun ona duela.
- 3) Errumaniako emakumeak: oso osasun-egoera ona dutela diote; % 46,6k dio oso osasun ona duela.
- 4) Kolonbiako, Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Marokoko emakumeak: 18 urtetik 37 urtera arteko adina; bikotekidea bai; gehienez 600 euroko diru-sarrerak hileko: talde onek ere oso osasun-egoera subjektibo ona du; % 43,8k dio oso osasun ona duela.

- 5) Kolonbiako, Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Marokoko emakumeak: 18 urtetik 37 urtera arteko adina; bikotekidea bai; 1.800 eurotik gorako diru-sarrerak hileko: osasun-egoera subjektibo ona dute; % 76,9k dio osasun ona duela.
- 6) Kolonbiako, Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Marokoko emakumeak: 37 urtetik gorakoa: osasun-egoera subjektibo ona dute; % 44k hala dio. Dena den, % 23,1ak dio osasun-egoera kaskarra duela.
- 7) Boliviako emakumeak: osasun-egoera subjektibo txarrena dute; nahiz eta % 44k osasun ona duela esan, % 27,6k dio osasun txarra duela.

4.83. GRAFIKOA Segmentazio-zuhaitza: osasunaren hautemate subjektibo




Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

ASEBETETA AL DAUDE GAUR EGUN DUTEN BIZITZAREKIN? (IKUSPEGI 2010)

4.9.2

Ikuspegi 2010 azterlanaren datu-base bera erabili dugu, eta segmentuak sortzeko CHAID aldagai anitzeko teknika beste aldagai batzuei aplikatu diegu. Hau da mendeko aldagaia: emakumeek gaur egun bizitzarekin duten asebetetasun-maila (1etik 10era arteko eskala). Aldagai askeak, berriz, hauexek dira: jatorrizko herrialdea, zenbat denbora igaro duten EAEn, adina, euskaraz hitz egitea, ikasketa-maila, erlijioa, bikotekidea izatea, seme-alaba kopurua, diru-sarrerak eta administrazio-egoera.

4.84. GRAFIKOA Segmentazio-zuhaitza: gaur egungo bizitzarekin duten asebetetasun-maila



Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egin

Emakumeak bereizteko, aldagai hauek erabili ditugu: jatorria, adina, hileko diru-sarrerak, seme-alabak izatea eta administrazio-egoera. Hala, 9 segmentu egin ditugu:

- 1) Kolonbiako emakumeak: 18 urtetik 37 urtera arteko adina; 601 eurotik 3.000 eurora arteko hileko diru-sarrerak: emakume horiek daude asebeten bizitzarekin; 7,79 puntu dituzte.

- 2) Saharaz hegoaldeko Afrikako, Marokoko eta Errumaniako emakumeak: 601 eurotik 3.000 eurora arteko hileko diru-sarrerak; ez dute seme-alabarik; emakume horiek ere oso asebeteta daude; 7,25 puntu inguru dituzte.
- 3) Kolonbiako emakumeak: 37 urtetik gorakoak: emakume horiek ere oso asebeteta daude; 6,28 puntu dituzte.
- 4) Boliviako emakumeak: emakume horiek ere oso asebeteta daude; 6,83 puntu dituzte.
- 5) Saharaz hegoaldeko Afrikako, Marokoko eta Errumaniako emakumeak: 601 eurotik 3.000 eurora arteko hileko diru-sarrerak; seme-alaba 1 edo 2; batez bestekoaren, hots, 6,68 punturen gainetik dagoen azken segmentua da.
- 6) Kolonbiako emakumeak: 18 urtetik 37 urtera arteko adina; gehienez 600 euroko diru-sarrerak hileko: emakume horien asebetetasun-maila batez bestekoa baino pixka bat baxuagoa da; 6,60 puntu dituzte.
- 7) Saharaz hegoaldeko Afrikako, Marokoko eta Errumaniako emakumeak: 601 eurotik 3.000 eurora arteko hileko diru-sarrerak; 3 seme-alaba edo gehiago; emakume horien asebetetasun-maila batez bestekoa baino baxuagoa da, argi eta garbi; 6,040 puntu dituzte.
- 8) Saharaz hegoaldeko Afrikako, Marokoko eta Errumaniako emakumeak: gehienez 600 euroko diru-sarrerak hileko; egoitza-baimena bai; aurreko taldearen antzeko puntuazioa dute: 5,92 puntu; hau da, hala-moduzko asebetetasuna.
- 9) Saharaz hegoaldeko Afrikako, Marokoko eta Errumaniako emakumeak: gehienez 600 euroko diru-sarrerak hileko; egoitza-baimenik ez; beste emakumeek ez bezala, emakume hauek argi eta garbi adierazi dute ez daudela asebeteta gaur egungo egoerarekin: 4,80 puntu dituzte.

**NOLA
HAUTEMATEN DUTE
BEREIZKERIA?
(IKUSPEGI 2010)**

4.9.3


Ikuspegi 2010 azterlanaren datu-base bera erabili dugu, eta segmentuak sortzeko CHAID aldagai anitzeko teknika beste aldagai batzuei aplikatu diegu. Hau da mendeko aldagaia: emakumeek azken urtean hautemandako bereizkeria-egoerak (bi kategoria). Aldagai askeak, berriz, hauexek dira: jatorrizko herrialdea, zenbat denbora igaro duten EAEn, adina, euskaraz hitz egitea, ikasketa-maila, erlijioa, bikotekidea izatea, seme-alaba kopurua, diru-sarrerak, zer probintzian bizi diren eta administrazio-egoera.

Emakumeak bereizteko, bi aldagai hauek soilik erabili ditugu: hileko diru-sarrerak eta zer probintzian bizi diren. Hala, 3 segmentu egin ditugu:

- 1) Hileko 1.800 eta 3.000 euroko diru-sarrerak dituzten emakumeak, Gipuzkoan bizi direnak: beste emakumeek baino bereizkeria-egoera gutxiago pairatu dituzte azken urtean; izan ere, % 8k soilik dio halako egoeraren bat pairatu duela. Segmentu txikiena da: emakumeen % 4,5 soilik sartzen da bertan.

- 2) Hileko gehienez 1.800 euroko diru-sarrerak eta 3.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten emakumeak: emakume horiek ere, beste emakumeek baino bereizkeria-egoera gutxiago pairatu dituzte azken urtean; % 16,3k soilik dio halako egoeraren bat pairatu duela. Segmentu handiena da (emakumeen % 78,7).
- 3) Hileko 1.800 eta 3.000 euroko diru-sarrerak dituzten emakumeak, Araban eta Bizkaian bizi direnak: beste emakumeek baino bereizkeria-egoera gehiago pairatu dituzte azken urtean; % 40,9k dio halako egoeraren bat pairatu duela. Segmentu hau aurrekoa baino txikiagoa da; izan ere, emakume etorkinen % 16,8 soilik sartzen da bertan.

4.85. GRAFIKOA Segmentazio-zuhaitza: bereizkeria-egoerak




Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

Ikuspegi 2010 azterlanaren datu-base bera erabili dugu, eta segmentuak sortzeko CHAID aldagai anitzeko teknika beste aldagai batzuei aplikatu diegu. Hau da mendeko aldagaia: zenbateraino sentitzen diren euskaldun (1etik 5era arteko eskala). Aldagai askeak, berriz, hauexek dira: jatorrizko herrialdea, zenbat denbora igaro duten EAEn, adina, euskaraz hitz egitea, ikasketa-maila, erlijioa, bikotekidea izatea, seme-alaba kopurua, diru-sarrerak, zer probintzian bizi diren eta administrazio-egoera.

Emakumeak bereizteko, aldagai hauek erabili ditugu: zenbat denbora igaro duten EAEn, zer probintzian bizi diren, ikasketa-maila, adina eta jatorrizko herrialdea. Hala, 10 segmentu egin ditugu. Lehenik eta behin, beren burua euskaldun izatearekin gehien identifikatzen duten emakumeak jarri ditugu, eta amaieran, gutxien identifikatzen dutenak:

- 1) EAEn 7 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; gutxienez lehen mailako ikasketak dituzte; 2,78 puntu dituzte.
- 2) EAEn 4-6 urte igaro dituzten emakumeak; Bizkaian bizi dira; lehen mailako ikasketak edo bigarren mailako ikasketak dituzte; 27 urtetik gorakoak dira; 2,71 puntu dituzte.
- 3) EAEn gehienez 6 urte igaro dituzten emakumeak; Araban bizi dira; 2,62 puntu dituzte.
- 4) EAEn 4-6 igaro dituzten emakumeak; Bizkaian eta Gipuzkoak bizi dira; ez dute ikasketarik, edo erdi- edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzte; Kolonbiakoak, Saharaz hegoaldeko Afrikakoak eta Marokokoak dira; 2,41 puntu dituzte.
- 5) EAEn 7 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; lehen mailako ikasketak egin dituzte; 38 eta 56 urte bitarteko adina dute: haien puntuazioa batez besteko puntuazioa baino zertxobait baxuagoa da; 2,33 puntu dituzte.
- 6) EAEn 4-6 urte igaro dituzten emakumeak; Bizkaian eta Gipuzkoan bizi dira; lehen mailako ikasketak edo bigarren mailako ikasketak dituzte; 28 urtetik beherakoak dira; 2,00 puntu dituzte.
- 7) EAEn 4-6 urte igaro dituzten emakumeak; Gipuzkoan bizi dira; lehen mailako ikasketak edo bigarren mailako ikasketak dituzte; 27 urtetik gorakoak dira; 1,92 puntu dituzte.
- 8) EAEn 4 urte baino gutxiago igaro dituzten emakumeak; Bizkaian eta Gipuzkoan bizi dira; 1,85 puntu dituzte.
- 9) EAEn 4-6 igaro dituzten emakumeak: Bizkaian eta Gipuzkoak bizi dira; ez dute ikasketarik, edo erdi- edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzte; Boliviakoak edo Errumaniakoak dira; 1,42 puntu dituzte.
- 10) EAEn 7 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; ez dituzte lehen mailako ikasketak burutu; 38 urtetik beherakoak dira; 1,27 puntu dituzte. Gainerako emakumeek gutxiago identifikatzen dute beren burua euskaldun izatearekin.


4.86. GRAFIKOA Segmentazio-zuhaitza: identitate-sentimendua



Iturria: Ikuspegi 2010 eta egileek egina

AEI 2010 Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailak egindako estatistika-lanaren datu-basea erabili dugu, eta segmentuak sortzeko CHAID aldagai anitzeko teknika beste aldagai batzuei aplikatu diegu. Hau da mendeko aldagaiak: azken urtean hautemandako bereizkeria (hiru kategorio). Aldagai askeak, berriz, hauexek dira: jatorrizko herrialdea, adina, legezko egoera zibila, ikasketa-maila, etxean hitz egiten duten hizkuntza, pobrezia-maila, jarduera-sektorea, lanbidea, lan-egoera, errolda, administrazio-egoera, zer probintzian bizi diren, kategorio profesionala eta zenbat denbora igaro duten EAEn.

4.87. GRAFIKOA Segmentazio-zuhaitza: bereizkeria-egoerak



Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Emakumeak bereizteko, aldagai hauek erabili ditugu: zenbat denbora igaro duten EAEn, jatorria, administrazio-egoera, zer probintzian bizi diren eta adina. Hala, 8 segmentu egin ditugu, eta bereizkeria gehien pairatu duten emakumeen segmentuetatik gutxien pairatu duten emakumeen segmentuetara ordenatu ditugu:

- 1) EAEn 4-5 urte edo 10 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; Magrebetik, Kolonbiatik (eta Ekuadorretik eta Perutik), Paragwaitik, Argentinatik (eta Txiletik eta Urugwaitik), Errumaniatik (eta Ekialdeko EBtik) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik etorritakoak; 16 urtetik 24 urtera bitarteko adina dute: beste emakumeek baino bereizkeria-egoera gehiago pairatu dituzte: % 20k dio bereizkeria-egoera larriren bat pairatu duela, eta % 17,1k, hain larria ez den bereizkeria-egoeraren bat pairatu duela.
- 2) EAEn 4-5 urte edo 10 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; Brasildik (eta Venezuelatik eta Dominikar Errepublikatik), Senegaletik, Boliviatik eta Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritakoak; emakume horiek ere bereizkeria-egoera asko pairatu dituzte: % 11,2k dio bereizkeria-egoera larriren bat pairatu duela, eta % 21,1ak, hain larria ez den bereizkeria-egoeraren bat pairatu duela.
- 3) EAEn 6-9 urte igaro dituzten emakumeak: emakume horiek ere bereizkeria-egoera asko pairatu dituzte: % 10,1ak dio bereizkeria-egoera larriren bat pairatu duela, eta % 15,7k, hain larria ez den bereizkeria-egoeraren bat pairatu duela.
- 4) EAEn 4-5 urte edo 10 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; Magrebetik, Kolonbiatik (eta Ekuadorretik eta Perutik), Paragwaitik, Argentinatik (eta Venezuelatik eta Dominikar Errepublikatik), Errumaniatik (eta Ekialdeko EBtik) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik etorritakoak; 24 urtetik gorakoak: emakume horietako askok bereizkeria-egoerak pairatu dituzte: % 6,8k dio bereizkeria-egoera larriren bat pairatu duela, eta % 8,9k, hain larria ez den bereizkeria-egoeraren bat pairatu duela.
- 5) EAEn gehienez 3 urte igaro dituzten emakumeak; egoitza- eta lan-baimena dute: emakume horietako askok ere bereizkeria-egoerak pairatu dituzte: nahiz eta bakar batek ere ez esan bereizkeria-egoera larriren bat pairatu duela, % 14,2k dio hain larria ez den bereizkeria-egoeraren bat pairatu duela.
- 6) EAEn 4-5 urte edo 10 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; Mendebaldeko EBko herrialdeetatik, Txinatik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritakoak; Gipuzkoan bizi dira: bakar batek ere ez du esan bereizkeria-egoera larriren bat pairatu duela; dena den, % 10,3k dio hain larria ez den bereizkeria-egoeraren bat pairatu duela.
- 7) EAEn gehienez 3 urte igaro dituzten emakumeak; egoitza-baimena soilik dute edo legez kanpoko egoeran daude: gutxi esan dute bereizkeria-egoera larriren bat pairatu dutela (% 3,7); halaber, gutxi esan dute hain larria ez den bereizkeria-egoeraren bat pairatu dutela (% 2,4).
- 8) EAEn 4-5 urte edo 10 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; Mendebaldeko EBko herrialdeetatik, Txinatik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritakoak; Araban eta Bizkaian bizi dira: beste emakumeek baino bereizkeria-egoera gutxiago pairatu dituzte: % 1,2k soilik esan du bereizkeria-egoera larriren bat pairatu duela, eta bakar batek ere ez du esan hain larria ez den bereizkeria-egoeraren bat pairatu duela.


**BALIOESTEN AL
DITUZTE BERTAKO
BIZTANLEAK?
(AEI 2010)**

4.9.6

AEI 2010 Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailak egindako estatistika-lanaren datu-basea berriro erabili dugu, eta segmentuak sortzeko CHAID aldagai anitzeko teknika beste

aldagai batzuei aplikatu diegu. Hau da mendeko aldagaia: zenbateraino balioesten dituzten bertako biztanleak (1etik eta 5era arteko eskala). Aldagai askeak, berriz, hauexek dira: jatorrizko herrialdea, adina, legezko egoera zibila, ikasketa-maila, etxean hitz egiten duten hizkuntza, pobrezia-maila, jarduera-sektorea, lanbidea, lan-egoera, errolda, administrazio-egoera, kategoria profesionala eta zenbat denbora igaro duten EAEn.

4.88. GRAFIKOA Segmentazio-zuhaitza: bertako biztanleak balioestea



Emakumeak bereizteko, hiru aldagai hauek erabili ditugu: jatorria, zenbat denbora igaro duten EAEn eta adina. Hala bost segmentu egin ditugu, eta bertako biztanleak gehien balioesten dituzten emakumeen segmentuetatik gutxien balioesten dituzten emakumeen segmentuetara ordenatu ditugu, nahiz eta berez segmentuen artean alde handirik ez egon:

- 1) Mendebaldeko EBko herrialdeetatik, Brasildik (eta Venezuelatik eta Dominikar Errepublikatik), Argentinatik (eta Txiletik eta Uruguaitik), Boliviatik, Paraguaitik eta Afrikako, Latinoamerikako eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako emakumeak; EAEn 10 urte edo gehiago igaro dituzte; 16 urtetik 24 urtera bitarteko edo 44 urtetik gorako adina dute: emakume horiek balioesten dituzte gehien euskal biztanleak (4,35 puntu).
- 2) Mendebaldeko EBko herrialdeetatik, Brasildik (eta Venezuelatik eta Dominikar Errepublikatik), Argentinatik (eta Txiletik eta Uruguaitik), Boliviatik, Paraguaitik eta Afrikako, Latinoamerikako eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako emakumeak; EAEn 10 urte edo gehiago igaro dituzte; 25 urtetik 44 urtera bitarteko adina dute: emakume horiek ere euskal biztanleak balioesten dituzte; haien puntuazioa (4,35 puntu) batez besteko puntuazioaren gainetik dago.
- 3) Mendebaldeko EBko herrialdeetatik, Brasildik (eta Venezuelatik eta Dominikar Errepublikatik), Argentinatik (eta Txiletik eta Uruguaitik), Boliviatik, Paraguaitik eta Afrikako, Latinoamerikako eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako emakumeak; EAEn 10 urte igaro dituzte: emakume horiek ere euskal biztanleak balioesten dituzte; haien puntuazioa (4,07 puntu) batez besteko puntuazioa baino pixka bat altuagoa da.
- 4) Kolonbiatik (eta Ekuadorretik eta Perutik), Errumaniatik (eta Ekialdeko EBko herrialdeetatik) eta Txinatik etorritako emakumeak: euskal biztanleak balioestean, 3,97 puntu eman dituzte.
- 5) Magrebeko eta Afrikako emakumeak: beste emakumeek baino gutxiago balioesten dituzte euskal biztanleak; dena den, haien puntuazioa ez da oso baxua (3,80 puntu).

**ZENBAT
IDENTIFIKATZEN
DUTE BEREN
BURUA EAEREKIN?
(AEI 2010)**

4.9.7


AEI 2010 Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailak egindako estatistika-lanaren datu-basea berriro erabili dugu, eta segmentuak sortzeko CHAID aldagai anitzeko teknika beste aldagai batzuei aplikatu diegu. Hau da mendeko aldagaia: zenbat identifikatzen duten beren burua EAerekin (1etik eta 6ra arteko eskala). Aldagai askeak, berriz, hauexek dira: jatorrizko herrialdea, adina, legezko egoera zibila, ikasketa-maila, etxean hitz egiten duten hizkuntza, seme-alaba kopurua, zer probintzian bizi diren, pobrezia-maila, jarduera-sektorea, lanbidea, lan-egoera, errolda, administrazio-egoera, kategoria profesionala eta zenbat denbora igaro duten EAEn.

Emakumeak bereizteko, lau aldagai hauek erabili ditugu: zenbat denbora igaro duten EAEn, zein den etxean hitz egiten duten hizkuntza nagusia, zer probintzian bizi diren eta nondik datozen. Hala, 10 segmentu egin ditugu, eta beren burua EAerekin gehien identifikatzen

duten emakumeen segmentuetatik gutxien identifikatzen duten emakumeen segmentuetara ordenatu ditugu:

- 1) EAEn 10 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; etxean gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez hitz egiten dute; Gipuzkoan bizi dira: gehien identifikatzen dute beren burua EAerekin; 4,80 puntu dituzte; hau da, "oso" identifikatuta sentitzen dira.
- 2) EAEn 10 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; etxean gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez hitz egiten dute; Araban eta Bizkaian bizi dira: emakume horiek ere asko identifikatzen dute beren burua EAerekin; 4,48 puntu dituzte; hau da, "oso" identifikatuta eta "nahiko" identifikatuta parametroen artean daude.
- 3) EAEn 4-9 urte igaro dituzten emakumeak; Bizkaian bizi dira; besteak beste, Brasildik (eta Venezuelatik eta Dominikar Errepublikatik), Argentinatik (eta Txiletik eta Uruguaitik) eta Errumaniatik (eta Ekialdeko EBko herrialdeetatik) etorriak dira: emakume horiek ere asko identifikatzen dute beren burua EAerekin; 4,47 puntu dituzte; hau da, "oso" identifikatuta eta "nahiko" identifikatuta parametroen artean daude.
- 4) EAEn 4-9 urte igaro dituzten emakumeak; Bizkaian bizi dira; besteak beste, Paraguaitik, Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik, Senegaletik eta Afrikako gainerako herrialdeetatik etorriak dira: emakume horiek ere asko identifikatzen dute beren burua EAerekin; 4,20 puntu dituzte; hau da, "nahiko" identifikatzen dute beren burua EAerekin.
- 5) EAEn 4-9 urte igaro dituzten emakumeak; Bizkaian bizi dira; besteak beste, Mendebaldeko EBko herrialdeetatik, Kolonbiatik (eta Ekuadorretik eta Perutik), Boliviatik, Magrebetik, Txinatik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorriak dira: emakume horiek ere EAerekin identifikatzen dute beren burua; dena den, haien puntuazioa (3,96 puntu) batez besteko puntuazioaren azpitik dago; hau da, "nahiko" identifikatuta sentitzen dira.
- 6) EAEn 4-9 urte igaro dituzten emakumeak; Araban eta Gipuzkoan bizi dira: Mendebaldeko EBko herrialdeetatik, Brasildik (eta Venezuelatik eta Dominikar Errepublikatik), Kolonbiatik (eta Ekuadorretik eta Perutik), Boliviatik, Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik, Argentinatik (eta Txiletik eta Uruguaitik), Errumaniatik (eta Ekialdeko EBko herrialdeetatik), Paraguaitik, Senegaletik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorriak dira: emakume horiek ere EAerekin identifikatzen dute beren burua; dena den, haien puntuazioa (3,94 puntu) batez besteko puntuazioaren azpitik dago; hau da, "nahiko" identifikatuta sentitzen dira.
- 7) EAEn 10 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; etxean frantsesez, arabieraz edo beste hizkuntzaren batean hitz egiten dute: emakume horiek "nahiko" identifikatzen dute beren burua EAerekin; 3,80 puntu dituzte.
- 8) EAEn 2-3 urte igaro dituzten emakumeak: emakume horiek "nahiko" edo "gutxi" identifikatzen dute beren burua EAerekin; 3,74 puntu dituzte.
- 9) EAEn 2 urte baino gutxiago igaro dituzten emakumeak: emakume horiek "gutxi" identifikatzen dute beren burua EAerekin; 3,37 puntu dituzte.
- 10) EAEn 4-9 urte igaro dituzten emakumeak; Araban eta Gipuzkoan bizi dira; besteak beste, Boliviatik, Txinatik, Magrebetik eta Afrikako gainerako herrialdeetatik etorriak dira: emakume horiek "gutxi" identifikatzen dute beren burua EAerekin; 3,34 puntu dituzte.

4.89. GRAFIKOA Segmentazio-zuhaitza: EAerekin identifikatzea




Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

ETORKINEN USTEZ, ZENBATERAINO DAUDE INTEGRATUTA EUSKAL GIZARTEAN? (AEI 2010)

4.9.8

Azkenik, AEI 2010 Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailak egindako estatistika-lanaren datu-basea berriro erabili dugu, eta segmentuak sortzeko CHAID aldagai anitzeko teknika beste aldagai batzuei aplikatu diegu. Hau da mendeko aldagaia: etorkinek euskal gizartean duten integrazio-maila subjektiboa (1etik 5era arteko eskala). Aldagai askeak, berriz, hauek dira: jatorrizko herrialdea, adina, legezko egoera zibila, etxean hitz egiten duten hizkuntza, seme-alaba kopurua, zer probintzian bizi diren, pobrezia-maila, jarduera-sektorea, lan-bidea, lan-egoera, errolda, administrazio-egoera, kategoria profesionala eta zenbat denbora igaro duten EAEn.

4.90. GRAFIKOA Segmentazio-zuhaitza: euskal gizartearen duten integrazio-maila



Iturria: AEI 2010 eta egileek egina

Emakumeak bereizteko, hiru aldagai hauek erabili ditugu: zenbat denbora igaro duten EAEn, zein den etxean erabiltzen duten hizkuntza nagusia eta nondik datozen. Hala, 8 segmentu egin ditugu, eta EAEn integratuen sentitzen diren emakumeen segmentuetatik guxien sentitzen diren emakumeen segmentuetara ordenatu ditugu:

- 1) EAEn 10 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; etxean gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez hitz egiten dute: emakume horiek beste emakume guztiak baino integratua go sentitzen dira EAEn; 4,41 puntu dituzte; hau da, "nahiko" integratuta eta "oso" integratuta parametroen artean daude.
- 2) EAEn 6-9 urte igaro dituzten emakumeak; besteak beste, Mendebaldeko EBko herrialdeetatik, Brasildik (eta Venezuelatik eta Dominikar Errepublikatik), Argentinatik (eta Txiletik eta Uruguaitik), Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik, Errumaniatik (eta Ekialdeko EBko herrialdeetatik), Senegaletik eta Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritakoak: emakume horien integrazio-maila subjektiboa handia da; 4,24 puntu dituzte; hau da, "nahiko" integratuta sentitzen dira.
- 3) EAEn 4-5 urte igaro dituzten emakumeak; besteak beste, Brasildik (eta Venezuelatik eta Dominikar Errepublikatik), Argentinatik (eta Txiletik eta Uruguaitik), Kolonbiatik (eta Ekuadorretik eta Perutik), Boliviatik, Paraguaitik, Errumaniatik (eta Ekialdeko EBko herrialdeetatik) eta Senegaletik etorritakoak: emakume horien integrazio-maila subjektiboa ere handia da; 3,97 puntu dituzte; hau da, "nahiko" integratuta sentitzen dira. Hori da emakume etorkinen batez bestekoaren gainetik dagoen azken segmentua.

- 4) EAEn 10 urte edo gehiago igaro dituzten emakumeak; etxean frantsesez, arabieraz edo beste hizkuntzaren batean hitz egiten dute: emakume horien integrazio-maila ere handia den arren, haien puntuazioa (3,84 puntu) batez bestekoaren azpitik dago. Edonola ere, EAEn "nahiko" integratuta daudela esan dezakegu.
- 5) EAEn 6-9 urte igaro dituzten emakumeak; besteak beste, Kolonbiatik (eta Ekuadorretik eta Perutik), Boliviatik, Paraguaitik, Magrebetik, Txinatik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritakoak: emakume horien integrazio-maila subjektiboa aurreko segmentuaren antzekoa da; 3,81 puntu dituzte; beraz, "nahiko" integratuta sentitzen direla esan dezakegu.
- 6) EAEn 2-3 urte igaro dituzten emakumeak: emakume horiek EAEn "nahiko" integratuta eta "gutxi" integratuta parametroen artean daude; 3,68 puntu dituzte.
- 7) EAEn 4-5 urte igaro dituzten emakumeak; besteak beste, Mendebaldeko EBko herrialdeetatik, Magrebetik, Txinatik eta Latinoamerikako eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritakoak: emakume horiek EAEn "nahiko" integratuta eta "gutxi" integratuta parametroen artean daude; 3,47 puntu dituzte.
- 8) EAEn 2 urte baino gutxiago igaro dituzten emakumeak: EAEn gutxien integratuta sentitzen diren emakumeak dira; 3,25 puntu dituzte; hau da, "gutxi" integratuta sentitzen dira.

**EAEN BIZI DIREN
ATZERRIKO
EMAKUME
ETORKINAK:
PROPOSATUTAKO
TIPOLOGIA**

4.9.9

Aurreko ataletan eskuratutako informazioaren analisisian (Ikuspegi 2010 eta AEI 2010 azterlanak eta eratorritako aldagai anitzen eta aldagai diskriminatzaileen analisisia) eta ikerketataldearen bilera monografikoetan oinarrituta, EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinen tipologiaren proposamen operatibo bat egin dugu.

Funtsean, aurreko analisisietan emakume taldeak bereizteko baliagarriak izan diren aldagaie-tan dago oinarrituta proposamen hau, bai eta EAeko immigrazioaren inguruan lehendik dugun esperientzian eta ezagutzan ere.

Atzerriko emakume etorkinen profilak sortzeko, aldagai hauek izan ditugu kontuan: jatorria, adina, EAEn bikoterik duten edo ez, seme-alabak izatea, etxean edo familia-unitatean dituzten hileko diru-sarrerak, administrazio-egoera, zer probintzian bizi diren, zenbat denbora igaro duten EAEn etorri zirenetik eta senideekin edo etxean erabiltzen duten hizkuntza nagusia.

Hona hemen proposatutako profilak:

- 1) **Europako, Argentinako eta Txileko** emakumeak; bikotekidea dute, edo ez; seme-alabak dituzte, edo ez; EAEn urte asko edo gutxi daramatzate; administrazio-egoera arautua eta lana dute, eta ez dute zailtasunik hizkuntzarekin.

- 2) **Latinoamerikako** emakumeak, Kolonbiakoak, Perukoak eta beste hainbat herrialde-
ta-koak; EAEn **urte asko** daramatzate; bikotekidea dute, edo ez; seme-alabak dituzte, edo
ez; beren gizarte-sarea ez ezik, beste gizarte-sare batzuk ere badituzte; oso asebeteta
daude beren egoera pertsonalarekin; etxean eta beste norbaiten etxean lan egiten dute,
eta pertsona adinduak eta haurrak zaintzen dituzte; ez dute zailtasunik hizkuntzarekin.
- 3) Afrikako emakume **beltzak**, Saharaz hegoaldekoak; EAEn urte asko edo gutxi darama-
tzate; zailtasunak dituzte gaztelaniaz eta euskaraz hitz egiteko; ez dute bikotekiderik, ez
eta seme-alabarik; ikasketa-maila ertaina eta ertain baxua dute; musulmanak dira; eta
administrazio-egoera arautua dute.
- 4) **Legez kanpoko** administrazio-egoeran dauden emakumeak, Saharaz hegoaldekoak,
Ipar Afrikakoak edo Magrebekoak, Errumaniakoak eta beste zenbait herrialde-
ta-koak; bikotekidea dute, edo ez; seme-alabak dituzte, edo ez; denbora gutxi daramate EAEn;
gizarte-laguntzak, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta antzekoak jasotzen dituzte.
- 5) **Magrebeko** emakume gazteak (Ipar Afrikakoak, Marokokoak, Aljeriakoak...), musulma-
nak; bikotekide egonkorra dute; seme-alabak dituzte, edo ez; gizarte-sare txikia dute;
gizarte-harreman eta pertsonen arteko harreman gutxi dituzte; eta zailtasunak dituzte
hizkuntzarekin.
- 6) **Errumaniako** emakumeak, funtsean ijito-etniakoak; beren gizarte-sare sendoa da; gizar-
te-harreman eta pertsonen arteko harreman gutxi dituzte beste taldeetako pertsonekin;
ez daude asebeteta beren egoera pertsonalarekin; bikotekidea dute, edo ez; seme-
alabak dituzte, edo ez; eta ikasketa-maila ertaina eta ertain baxua dute.
- 7) Asiako emakumeak, **Txinakoak; lana** dute; beren gizarte-sarea oso sendoa da; gizar-
te-harreman eta pertsonen arteko harreman gutxi dituzte, eta halaber, harreman gutxi
dituzte beste taldeetako pertsonekin; ez dakizkitez EAeko hizkuntzak; bikotekidea dute;
seme-alabak dituzte, edo ez; oso gutxi integratuta daude gizarte hartzailean; eta hartu-
eman gutxi dituzte gizarte hartzailearekin.
- 8) **Latinoamerikako** emakumeak, Boliviakoak, Paraguaiakoak eta beste zenbait herrialde-
ta-koak; **denbora gutxi** daramate EAEn; haien administrazio-egoera arautua edo arautu
gabea da; ez dute bikotekiderik, ez eta seme-alabarik ere; etxean egiten dute lan eta
pertsona adinduak eta haurrak zaintzen dituzte; ez dute gizarte-sare propiorik; eta harre-
man gutxi dituzte beste pertsona batzuekin eta beste talde batzuekin.
- 9) Tratu txarren, indarkeria matxistaren, sexu-esplotazioaren, lan-esplotazioaren eta hala-
koen **biktima** izan diren atzerriko emakume etorkinak.

ONDORIOAK

4.9.10

Gainbegiratu orokor horren ostean, ondorioak ateratzeko oinarri sendo samarra dugu; izan ere, gaur egun, oso biztanle atzerritar gutxi daude legez kanpoko egoeran. Halaber, hutsa-
la da gerora sortutako legez kanpoko egoeran dauden etorkinen kopurua (% 1 baino gutxia-
go). EINEk urtarilaren erdialdean jakinarazi zuenez, kanpoko migrazio-saldoa negatiboa
izango da: Espainian 29.606 atzerritar gutxiago sartuko dira; horietatik 17.166 EAERI dagoz-
kio –hots, % 58–. Saldo negatiboaren ondorioz, atzerritar gutxiago etorriko dira gurera, atze-
ritarren tasak behera egingo du eta fluxuen norabidea aldatu egingo da. Hori dela bide,

EAEk atzerritar gutxiago izango ditu; horixe ari gara esaten aspalditik, hain zuzen ere. Edonola ere, datu horiek baieztatu egin behar dira, eta hori beste hari bateko ezpala da.

Horiek horrela, 17.166 etorkin horien % 21,5 emakumezkoa izango litzateke, eta % 78,5 gizonezkoa. Ehuneko horiek baieztatu egiten dute guk azpimarratu dugun migrazio-eredua ez dagoela oker. Alderantziz, nahiz eta krisialdian egon, migrazio-eredu hori da nagusi EAEn. Eredu horren arabera, pertsonak zaintzeko eta ugalketaren arloko zereginetan lan egiteko etorrazten ditugu atzerriko emakumeak. Kontuan hartzeko da, *bertako gizonek ez dutela ugalketaren arloko zereginetan parte hartzen*; halaxe dio Izaskun Sáez de la Fuentek.

Migrazio-fluxuei dagokienez, baliteke etorkin batzuk beren herrialdera itzultzea. Dena den, ziur asko, etorkin asko Europako beste herrialde batzuetara joango dira; krisialdiak hain gogor jo ez dituen herrialdeetara, hain zuzen. Batzuk bertan geldituko dira krisialdiak irauten duen artean, eta beste batzuk han lekukotuko dira. EAEko *migrazio-eredu gogokoena* Latinoamerikako emakumeena da, eta, kalkuluak gorabehera, sinetsita gaude eredu hori betetzen duten etorkinen kopuruak gora egiten jarraituko duela, nahiz eta gorakada hori gizartearen premien araberrakoa izango den eta, ekonomia-krisiak zenbat iraungo duen ez jakiteak eragiten duen ziurgabetasunaren ondorioz, etorkinen fluxua murriztu egingo den.

Gertatzen dena gertatzen dela, hasierako argudioaren ildo beretik, Xabier Aierdik emandako datuen arabera, irregulartasun-tasa % 7,5 da gizonen kasuan eta % 7,8 emakumeen kasuan. Gainera, nahiz eta askok pentsatu krisi ekonomikoa dela-eta egonkortasunaren aldeko joerak atzera egingo zuela, oso etorkin gutxi daude *gerora sortutako legez kanpoko egoeran*. Egoera hori migrazioen kudeaketa sozialaren ondorio da; izan ere, immigrazio-fluxuaren kopuruak, osaera eta norabidea uste baino arautuago daude, eta azkenean, herrialde hartzailearen premiak eta herrialde igozlearen eskaintza zehaztasun handiz egokitzen dira. Horrek azaltzen du zergatik dagoen euskal gizartea –inplizituki bada ere– Latinoamerikako etorkinen alde eta zergatik diren gero eta gehiago emakumeak herrialde horietatik datozen etorkinak. Etorkin jakin batzuk aukeratzeak beste etorkin batzuk baztertzea dakar. Hainbat arrazoi direla medio, badirudi Afrikako emakumeek, Ipar Afrikakoek zein Saharaz hegoaldekoek, arrisku handiago dutela ez aurrera ez atzera gelditzeko eta baztertuak izateko.

Kulturaren aldetik, Izaskun Sáez de la Fuentek, Ana Pérez Machiok eta Laura Pegok beren idazlanetan diote kulturarteko ereduak hautatu behar ditugula, kultura-aniztasun erlatibista hutsalaren arriskuak saihesteko; izan ere, multikulturalismoak emakumea talde-esentzien gordailu bilakatzen du, eta galarazi egiten du kultura-eredu jakin batzuk, emakumeak etnien arabera estratifikatutako lan-merkatuaren mende egotera behartzen dituztenak, hausteko berariazko prozesuei ekitea. Kulturartekotasunak solaskide egokitzen hartzen du “bestea”. Horrek ez du esan nahi, ordea, planteamendu eta ohitura onartezinak onesten edo argi eta garbi arbuiatzen ez dituenik, batez ere emakumea gutxiesten dituztenak. Kulturartekotasunak zentzua izateko, askotariko bizikidetzaren eredu gisa hartu behar dugu. Eredu horrek gizarte osoan izan behar du eragina, eta ez etorkinengan eta gutxiengoan dau den kulturetako zein erlijioetako pertsonengan soilik.

Hasteko, hainbat arrazoi direla medio, kulturaren aldetik, gizarteratzeak eta haren ondoren datorren integrazioak, oro har, oinarri egoki samarrak dituzte; izan ere, emakume etorkin gehienek gaztelaniaz dakite, ez, ordea, euskaraz. Bi hizkuntza horiek ez dakizkiten taldeek behin eta berriro behartuko gaituzte zaurgarritasun handien duten bi taldeez arduratzera; hots, Afrikako emakumeek eta Txinako emakumeek arduratzera. Talde horiek mota bateko eta besteko erronka handiak dakarzkigute.

Edonola ere, ez dezagun gutxiets baztertzeko eta bereizteko dinamiken alboan normaltasunean oinarritutako dinamika daudela, eta azken horiek ohikoagoak direla aurrekoak baino.

Egia da, Izaskun Sáez de la Fuentek dioen moduan, orain arte egindako azterlan enpirikoen bidez, oro har, gehiago dakigula migrazioari buruz eta, batez ere, gizartean, ekonomian eta politikan duen eraginari buruz. Kulturaren eta erlijioaren esparruari buruz egin izan diren azterlanetan, ez zaio behar adinako garrantzia eman genero-ikuspegiari; ziur asko, ez gare-lako jabetzen zenbateraino erabiltzen dituzten kultura eta mundu-ikuskerak erlijioso guztiek emakumeak beren kultura edo mundu-ikuskerak definitzeko eta iraunarazteko. Horrek azal dezake –eta ez beste ezerk– talde fundamentalistek emakumeak moralki eta sozialki kontrolatzeko duten obsesioa. Esparru horretan, bete beharreko hutsune handi bat dago, beraz.

Normaltasunaren parametro orokorren barruan, ekarpen eta eragin ekonomikoaren datuek adierazten dute emigranteek batez ere lanagatik emigratzen dutela. Joaquín Arriolak dioenez, “penintsulako beste zonalde batzuetan ez bezala, hemen [EAEn] bizi diren atzeritar pasiboen kopurua ez da batere handia.” Horren ondorioz, atzerriko emakumeek errenta eta aberastasuna sortzen dute hainbat modutara, legez edo legez kanpo, zuzeneko ekarpenen bidez edo zeharkako zergen bidez. Jakina denez, prozesu horren oinarria jarduera-tasa da: atzerriko emakumeen jarduera-tasa bertako emakumeen jarduera-tasa halako bi da. Hortaz, Joaquín Arriolak egindako kalkuluen arabera, euskal ekonomian sortzen den errentaren % 1,7 sortzen dute gutxienez eta EAEko Ogasunaren zergadun garbiak dira. Hamarretik lauk etxeko zerbitzuan egiten dute lan (haien egiten duten soldatapeko etxeko lanari esker, euskal familietako emakume askok lan-merkatuan aritzeko astia dute), eta hiruk baino gehiagok merkataritzan eta ostalaritzan egiten dute lan. Azken finean, EAera lanera etorri diren emakume etorkinei esker kudeatu ahal izan dira emakume asko eta asko lan-merkatuan sartzeak eta biztanleriaren zahartzeak –oso arazo larriak eragin ditu biztanleriaren zahartzeak– ekarritako egitura-aldaketa handiak. Emakume etorkinen ia herena gainkualifikatuta dago gaur egun duen lanean. Horregatik, izan litekeena baino apalagoa da, ziur asko, haien ekarpena.

Emigratzearen eta beste gizarte eta kultura batzuetan lekukotzearen ondorioz, etorkinak, etorkin-taldeak eta haien sendiak aldatu egiten dira. Familia barruko eta familiaz kanpoko harremanek eta gizarte hartzailak etorkinei buruz dituen ikuspegi, aurreiritzi eta jarrerren feedbackak baldintzatuko dute aldaketa horren emaitza: etorkinek sorterriko ohiturak alde batera utziko dituzte, edo alderantziz, etniaren ohituretan zokoratuko dira, hein batean edo argi eta garbi kaltegarria den ingurunetik babesteko.

Honek guztiak baldintzatuko du etorkinen jarrera irekia edo itxia izatea: etorkin-taldearen barne eztabaidek, migrazio motak, hizkuntzak jakiteak edo ez jakiteak, migrazioan emakumeak protagonista izateak edo ez izateak, eta etorkinek edo etorkin-taldeek bizi dituzten aldaketa estrukturalak, materialek, sinbolikoek eta kulturalak.

Etorkinen ezaugarriek –besteak beste, haien sorterriak– baldintzatu egiten dute haien egokitzapena; dena den, ez dute aldeztu aurretik zehazten egokitzapena nola gertatuko den. Taldeak ez ezik, gizabanakoak ere aldatu egiten dira, eta aldaketa horien ondorioz, etorkinak jatorri bereko etorkinen taldearekin edo gizarte hartzailarekin bat etorriko dira, edo ez: egoera batzuetan, etorkinek beren taldean hartu beharko dute babesa, eta beste batzuetan, beren taldearekin dituzten loturak hautsi eta gizarte hartzailaren ereduak bereganatuko dituzte. Jakina, EAera etortzen diren emakumeek ari garela, funtsezkoa da jakitea zenbatek emigratzen duten nahita eta zenbatek behartuta; izan ere, administrazioaren oztopoek eta immigrazio-politikek etorkinen premiez aprobetxatzen diren jokamoldeak sorrarazten dituzte: jokamolde zitalenak, besteak beste, mafia eta salerosketa dira; eta ohikoenak, bertakoe-
ek tresna gisa erabiltzea etorkinak.

Egokitzapen horretarako, emakume etorkinen kapital kulturala funtsezkoa da. Kapital hori, datuen arabera, gizon etorkinena baino handixeagoa da. Dena den, aldeztatik zer lanpostu esleitzen zaizkien ikusita, argi dago helmuga-herrialdeetako lan-merkatua generoaren arabera antolatuta dagoela. Herrialde horietan, aldeztatik badauden genero-ereduak errepikatzen eta sendotzen dira, emakumeen ahalduzko kalterako. Silvia Carrizok azpimarratu duenez, etnien arabera estratifikatutako lan-merkatu batean besteen mende lanean ari direnak ez dira emakumeak, baizik eta “klase, jatorri edo/eta herritartasun jakin bateko” emakumeak.

Emakume etorkinak oinarrizko desberdintasun horren biktima dira, eta horretaz gainera, haien curriculuma ez da aintzatesten, eta hori dela eta, haien lan-ibilbidea aldeztatik mugatuta eta zehaztuta dago –hiru emakume etorkinetik bat gainkualifikatuta dago gaur egun duen lanean–. Hori gutxi ez, eta Amelia Barquínek, Monika Madinabeitiak eta Nerea Alzolak aditzera eman dutenez, ez dago *diskurtso kritiko orokorrik*, ez eta emakumeen diskurtso kritikorik ere, seme-alabek eta emakumeek EAEn duten eskolatzeari buruz. Eskolatzearen garrantzia azpimarratzen duten aldagai horiek behar-beharrezkoak dira diskriminazio positiboko estrategiak mahaigaineratzeko. Estrategia horien helburua da lekukotzen direnean eta gero gizartean mugitzen direnean gizartearen eta lanaren aldetik etorkinei kentzen zaiena baliabide instituzionalen bidez itzultzea, bai eta neurriak hartzea ere hurrengo belaunaldietako etorkinak bazter ez daitezen.

Amaitzeko, José A. Oleagak egindako atalean, EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinen tipologiaren proposamen operatibo bat egin dugu, aurreko ataletan eskuratutako informazioan eta ikerketa-taldearen bilera monografikoetan oinarrituta. Funtsean, aurreko analisietan emakume taldeak bereizteko baliagarriak izan diren aldagaietan dago oinarrituta proposamen hori, bai eta EAeko immigrazioaren inguruan lehendik dugun esperientzian eta ezagutzan ere. Atzerriko emakume etorkinen profilak sortzeko, aldagai hauek izan ditugu kontuan: jatorria, adina, EAEn bikoterik duten edo ez, seme-alabak izatea, etxean edo familia-unitatean dituzten hileko diru-sarrerak, administrazio-egoera, zer probintzian bizi diren, zenbat denbora igaro duten EAEn etorri zirenetik eta senideekin edo etxean erabiltzen duten hizkuntza nagusia. Proposamen hori egiteko, gai hauek hartu ditugu kontuan: nola hautematen duten beren osasuna eta ongizatea, zer zailtasun izan dituzten eta zer nolako bereizkeria pairatu duten, zer harreman dituzten besteekin, zenbateraino identifikatzen duten beren burua EAerekin, eta zer asmo zituzten sorterrian eta zer asmo dituzten gizarte hartzailean, epe ertainera eta epe luzera.

Tipologiak emakume etorkinak bereizten dituzten profilak biltzen ditu, eta EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinek dakarkiguten aberastasunaz eta aniztasunaz jabeazten gaitu. Panorama orokor eta deskriptibo horrek zenbait erronka jarri dizkigu mahai gainean. Agian, gerora egingo ditugun azterlanetan helduko diegu erronka horiei. Azterlan horien helburu nagusia tipologia horiek lantzea izan daiteke, bai eta haietan sakontzea ere, baina emakume etorkinen ahotik.

Gehiago jakin nahi dugu emakume etorkinei buruz. Jakitera eman nahi dugu zer asmo dituzten –iraganeko, oraingo eta etorkizuneko asmoak–, zeren beldur diren, zer irrikatzen duten eta zer nahi duten beraientzat eta seme-alabentzat. Haien errealitate bereizgarriaren eta etorkizuneko bizitza-proiektuen berri izan nahi dugu. Hori, baina, beste azterlan batean jorratuko beharko dugu. Ordura arte, gure ustez, EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinen fenomenoaren lehen hurbilketa hau nahikoa eta gehiago da.

5

BERTAKO HERRITARREK NOLA IKUSTEN DITUZTEN EMAKUME ATZERRITAR IMMIGRANTEAK

Euskadiko biztanleriari egindako bi inkestatan lortutako informazioa hiru multzotan antolatu dugu:

- Emakume atzerritar immigranteek egiten duten ekarpenaren pertzepzioa: euskal gizartearen aurreiritziak eta estereotipoak. Atal honetan, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako galde-sorta baten bidez lortu dugun informazioa garatuko dugu; galde-sorta horretan, inkestatuek adierazpenarekin ados zeuden ala ez adierazi behar zuten.
- Euskal gizarteak emakume atzerritar immigranteek duen irudia. Atal honetan, hiru item hauen bidez lortutako informazioa aztertuko dugu: lehenengoa, Ikuspegiren Barometroan sartutako "Osgood eskalaren" antzeko itema (adjektiboekin eta antonimoekin); bigarrena, bi sarrerako taula baten gisa egituraturako itema, hainbat ezaugarri (24) emakume atzerritar immigranteen profilari (7) lotzeko eta korrespondentzia sinpleen analisi faktoriala aplikatzeko (Ikuspegiren Barometroaren bidez lortua); eta hirugarrena, Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen Soziometroan sartutako itema, tarte-eskala baten bidez, emakume atzerritar immigranteen hainbat profilekiko (8) begikotasun-mailari buruzko iritziak jasotzen dituena.
- Euskal gizartearen balorazio orokorra emakume atzerritar immigranteen etorreraren aurrean. Atal honetan, Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen Soziometroan sartutako item baten bidez lortutako informazioa azalduko dugu, emakume atzerritar immigranteen presentziaz euskal gizarteak egiten duen balorazio orokorra jasotzen duena, tarte-eskala baten bidez.

EMAKUME ATZERRITAR IMMIGRANTEEK EGIN DUTEN EKARPENAREN PERTZEPZIOA: EUSKAL GIZARTEAREN AURREIRITZIAK ETA ESTEREOTIPOAK

5.1


FUNTZIONALTASUN EKONOMIKOA

5.1.1

Emakume atzerritar immigranteek egiten duten ekarpen ekonomikoaz euskal gizarteak zer iritzi duen jakiteko, hiru esaldi proposatu genizkien inkestatutako pertsonei, eta eskatu genien haien edukiarekiko zuten adostasun- edo desadostasun-maila adierazteko. Esaldi hauek aukeratu ziren:

- Emakume atzerritar immigranteen etorrerari esker, bestela hutsik geratzen diren lan-postuak betetzen dira.
- Emakume atzerritar immigranteek gure ekonomia hobetzen laguntzen dute.
- Emakume atzerritar immigranteen etorrerari esker, Euskadiko emakumeek etxea eta lana uztartu ahal izatea bermatu da.

5.1. GRAFIKOA Emakume atzerritar immigranteen ekarpen ekonomikoa



“Esadazu zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo adierazpen hauekin (gutziz ados; ados; ez ados ez aurka; aurka; guztiz aurka).”

Iturria: Soziologia Prospekzioarako Kabineta eta egileek egina.

Oro har, Euskadiko biztanleek aitortu egiten dute emakume atzerritar immigranteek duten funtzioa bestela hutsik geratuko ziren lanpostuak betetzen; hau da, haiek gure gizartean egoteari esker zenbait sektoretan ditugun premiak estaltzen dira, batez ere pertsonak (haurrak nahiz adinekoak) zaintzarekin lotutako arlo guztietan.

Hala adierazten du euskal gizartearen gehiengoak iritzi hau izateak: “emakume atzerritar immigranteen etorrerari esker, bestela hutsik geratzen diren lanpostuak betetzen dira”; %42,9 ados daude adierazpenarekin, eta %33,6, aurka.

Nolanahi ere, lan-merkatuan egiten duten ekarpen hori aitortzeak ez du adierazten haien ekarpenak “balio ekonomikoa” duen pertzepzioa dagoenik; horren arrazoia izan daiteke emakume atzerritar immigranteek (haietako askok, behintzat) tradizioz emakumeenak izan diren eta gizartean aitortpen txikia izan duten sektoreetan lan egitea. Azken urteetan, ahalegin handia egin da pertsonak zaintzeko lanak eta etxeko lanak aitortzeko eta horiei ospea emateko, eta asko aurreratu da ahalegin horretan; hala ere, badirudi bide luzea dugula oraindik aurretik.

Antza, hala adierazi nahi digu euskal gizarteak; izan ere, kopuru handi batek ez du uste emakume atzerritar immigranteek “gure ekonomia hobetzeko ekarpena” egiten dutenik (%42,2 adierazpen horren aurka dago). Nolanahi ere, azpimarratu behar da gizartearen zati handi batek aitortu egiten duela talde horrek egiten duen lana, bai eta gure gizarteari egiten dion ekarpena ere; hala, garbi onartzen dute gure ekonomia hobetzeko betetzen duten funtzioa (%30,2 ados dago).

Emakume atzerritar immigranteek etxeko lanetan eta mendeko pertsonen (haurren nahiz helduen) zaintzarekin loturikoetan egiten duten lana dela eta, zenbaitetan esan izan da haien etorrerak lagundu eta/edo indartu egin duela Euskadiko emakumeak lan-merkatuan sartzeko aukera; izan ere, gizonen laguntza eraginkorrik eta parekiderik ezean, emakume atzerritar immigranteek lan horiek egitetik salbuetsi dituzte.

Dirudenez, euskal gizartea, oro har, iritzi horren aurka dago, kopuru handi batek adierazi baitu ez dagoela ados “emakume atzerritar immigranteek esker, Euskadiko emakumeek etxea eta lana uztartu ahal izatea bermatu” dela dion adierazpenarekin (%41 ez dago ados).

Kopuru horrek hainbat gauza adieraz diezaguke. Batetik, emakume atzerritar immigranteen etorrerak ez duela bermatzen, berez, bertako emakumeak lan-merkatuan sartzea, ez eta lana eta familia bateragarri egitea ere, eragin handia duten beste hainbat aldagai baitaude, besteak beste: laneko eta enpresako baldintzak hobetzea, bateragarri egite hori lortzeko; etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan gizonak geroz eta erantzukizun handiagoa hartzea; eta etxeko lanak modu orekatuan banatzeko beharri dagokionez, gizartearen sentsibilizazioa hedatuz joatea. Eta bestetik, baliteke pertsona askok, pertsonarik kontratatuta izan ez dutenez, pertsona horien ekarpenari oso balio txikia ematea edo ekarpen horren berririk ez izatea.

Nolanahi ere, euskal gizartearen zati handi batek aitortzen du emakume atzerritar immigranteek izan dezaketen funtzio positiboa, aipatutako faktoreak eta beste batzuk direla eta, euskaldunek etxea eta lana bateragarri egiteko aukera hobetzeko; %30,4k adierazi du ados dagoela baieztapen horrekin.

Beraz, hiru galdera horiek oinarri hartuta, ondoriozta dezakegu zenbait lanpostu betetzeko emakume atzerritar immigranteek duten funtzionaltasunak ez duela adierazten, bertako biztanleriaren iritziz, haien ekarpenaren dimentsio ekonomikoa (*estrictu sensu*) nahiz gizarte-dimentsioa (lanaren eta familiaren bateragarritasuna) aitortzen denik.

Euskal gizartean dauden taldeei edo kolektiboek dagokienez, ez dugu alde nabarmenik aurkitu, gurutzaketa-aldagaien arabera. Besteak beste, hauek azpimarra ditzakegu:

- “Emakume etorkinei esker, bestela hutsik geratuko liritekeen lanpostuak betetzen dira” adierazpenarekin adostasun handiagoa adierazi dute Gipuzkoan bizi direnek, Araban eta Bizkaian bizi direnek baino.
- “Emakume atzerritar immigranteek gure ekonomia hobetzen laguntzen dute” adierazpenarekin adostasun handiagoa adierazi dute Gipuzkoan bizi direnek, gizonetakoek eta euskaraz dakitenek, Bizkaian bizi direnek, emakumezkoek eta euskaraz ez dakitenek baino.
- “Emakume atzerritar immigranteek esker, Euskadiko emakumeek etxea eta lana uzartu ahal izatea bermatzen da” adierazpenari dagokionez, askoz ere adostasun handiagoa adierazi dute Gipuzkoan bizi direnek, 64 urtetik gorakoek eta euskaraz hitz egiten dutenek Araban bizi direnek, 18-29 urte bitartekoek eta euskaraz gutxi dakitenek baino.

ESTEREOTIPOAK ETA AURREIRITZIAK

5.1.2

Beste azterketa batzuetan egiaztatu ahal izan dugunez, euskal gizarteak hainbat aurreiritzi ditu atzerriko pertsona etorkinen etorrerari dagokionez; aurreiritzi horiek, oro har, pertsona horiekiko estereotipo faltsuetan eta gutxiespenekoetan oinarritzen dira. Azterketa honen bidez, estereotipo faltsu eta gutxiesgarri horiek emakume atzerritar immigranteek ere eragin dieten egiaztatu nahi izan dugu.


Zehazki, ohikoenak diren bi estereotipoekiko euskal gizarteak zer iritzi duen galdetu dugu, bi adierazpen hauekiko duten adostasun- edo desadostasun-mailan oinarrituz:

- Emakume atzerritar immigranteek onura handiegia jasotzen dute gizarte-babeseko sistematik.

- Ekonomiari dagokionez, emakume atzerritar immigranteek euskal gizarteari egiten dioten ekarpena baino gehiago jasotzen dute.

Oraingoan ere, euskal gizarteak erantzun argia eman dio bi item horiei. Zerga-ekarpenei buruzko datuek (224,1 milioi euroko ekarpena 2010ean Euskadiko diru-kutxari) eta emakume atzerritar immigranteek lanaz kanpoko errenten bidez –esate baterako, langabeentzako gizarte-laguntzak– jasotzen dituzten sarrerei buruzkoek (142,3 milioi euro) adierazten dute emakume atzerritar immigranteak EAEko Ogasunaren zergadun garbiak direla (80 milioi eurotik gorako saldoa); hala ere, Euskadiko biztanleek bi estereotipo horiei eusten die, hots: “Emakume atzerritar immigranteek onura handiegia jasotzen dute gizarte-babeseko sistematik” (%58,4k du iritzi hori) eta “Ekonomiari dagokionez, emakume atzerritar immigranteek euskal gizarteari egiten dioten ekarpena baino gehiago jasotzen dute” (%45,5 ados dago adierazpen horrekin).

5.2. GRAFIKOA Euskal gizarteak emakume atzerritar immigranteei dagokienez dituen estereotipo negatiboak



“Esadazu zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo adierazpen hauekin: guztiz ados; ados; ez ados ez aurka; aurka; guztiz aurka.”

Iturria: Soziologia Prospekzioarako Kabineta eta egileek egina.

Azken urteetan, krisia (arrazoitzat edo aitzakiatzat hartuta) eta familia nahiz erakunde askoren baliabiderik eza edo baliabide-urritasuna direla eta, gure gizartean eta ingurukoetan ideia bat indarra hartuz joan da, hots: atzerriko etorkinak (emakumeak barne) gure ongizate-gizarteaz baliatzen ari direla eta gure gizarte-onurak eta -laguntzak modu desegokian erabiltzen ari direla.

Badakigu -datuek argi eta garbi erakusten dute- hori ez dela egia eta etorkinak, oro har, eta emakumeak, bereziki, gure ongizate-gizartearen zergadun garbiak direla: Euskadiko biztanleriaren %25 inguruk badaki hori eta hala berresten du, baina oso handia da aurkakoa pentsatzen duten pertsonen kopurua.

Euskadiko erakundeek eta administrazioek badute arazo horren berri, eta zurrumurruen aurkako estrategiak garatzeko lanean ari dira, estereotipo horiei aurre egiteko eta jendearen pertzepzioak errealitatera egokitzeko, baina, noski, asko dago egiteko.

Euskal gizartearen taldeei edo kolektiboiei dagokienez, berriro ere alde txikiak aurkitu ditugu horien artean. Besteak beste, hauek azpimarra ditzakegu:

- Euskadiko emakumeek adostasun handiagoa agertu dute “emakume atzerritar immigranteek onura handiegia jasotzen dute gizarte-babeseko sistematik” adierazpenarekin, gizonezkoek baino.

- Euskaraz gutxiago dakiten pertsonak adostasun handiagoa agertu dute “ekonomiari dagokionez, emakume atzerritar immigranteek euskal gizarteari egiten dioten ekarpena baino gehiago jasotzen dute” adierazpenarekin, euskaraz gehiago dakitenek baino.

GIZARTEARI EGINDAKO EKARPENA

5.1.3

Atal honekin amaitzeko, emakume atzerritar immigranteek euskal gizarteari egiten dioten ekarpenari eta ematen dioten laguntzari buruz Euskadiko gizarteak zer iritzi duen jakin nahi izan dugu. Horretarako, beste hiru esaldi hauek proposatu genizkien, horiekin zenbateraino zeuden ados edo aurka adierazteko:

- Atzerriko emakumeen seme-alabengatik izango ez balitz, Euskadik biztanleria galduko luke.
- Emakume atzerritar immigranteak garrantzitsuak dira gure adinekoak eta gure haurrak zaintzeko.
- Emakume atzerritar immigranteek ekarpen handia egiten diote gure gizarteari.

Gai horiei dagokionez, euskal gizarteak argiago ikusten du emakume atzerritar immigranteek Euskadiko gizarteari egiten dioten ekarpena eta ematen dioten laguntza. Europako jaiotza-tasa txikienetakoa izanik, euskal gizarteak badaki emakume atzerritar immigranteen funtzioa funtsezkoa dela gure etorkizunerako; izan ere, haien jaiotza-tasa handiagoa denez, gure saldo begetatiboa berdintzen du, eta Euskadiko gizartea bi milioi eta berrehun biztanleko populazioan egonkortzen.


Euskal gizartearen gehiengoak aitortu du atzerriko emakumeen seme-alabengatik izango ez balitz, Euskadik biztanleria galduko lukeela; %52,5 agertu da ados adierazpen horrekin.

Horrez gain, euskal gizartearen gehiengoak onartzen eta aitortzen du emakume atzerritar immigranteek gure etxe eta familia askotan duten funtzioa, haiek betetzen baitute gure haurrak eta adinekoak zaintzeko zeregin garrantzitsua. Hala, Euskadiko biztanleen %47,5ek aitortu du emakume atzerritar immigranteak garrantzitsuak direla gure adinekoak eta haurrak zaintzeko.

Atal honetan “baina” bakarra dago. Egun, geroz eta handiagoa da lanpostu horien kapitalizaerak gure gizartearen sozializazioarako, kohesioarako, harmoniarako eta etorkizunerako duen garrantziarekiko gizarte-sentsibilizazioa; hala ere, hainbat gizarte-taldek, ezjakintasuna edo gizarte patriarkalarekiko oroipena dela eta, zeregin horiek gutxiesten jarraitzen dute. Eginkizuna aitortu arren, ez da horren ekarpena kuantifikatzen; izan ere, ekarpen hori positiboki baloratzeak emakume atzerritar immigranteak onartzea ekarriko luke, zuzenean, eta antza, oraindik ez da azken urrats hori eman nahi.

Beraz, Euskadiko biztanleen zati handi batek argi eta garbi aitortu arren emakume atzerritar immigranteek gure gizarteari ekarpen handia egiten diotela (%38,4 ados agertu dira), beste batzuek -ia aurrekoak beste- zeregin horiek gutxiesten jarraitzen dute, eta ez diete ematen lehen mailako gizarte-ekarpen gisa berez duten garrantzia (%33,1 ez daude ados).

5.3. GRAFIKOA Emakume atzerritar immigranteek gizarteari egiten dioten ekarpena



“Esadazu zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo adierazpen hauekin: guztiz ados; ados; ez ados ez aurka; aurka; guztiz aurka”.
Iturria: Soziologia Prospekzioarako Kabineta eta egileek egina.

Atal honetan ere, ez ditugu desberdintasun nabarmen asko aurkitu euskal gizarteko hainbat talderen edo kolektiboren artean hiru item horiei dagokienez. Hauek soilik azpimarra ditzakegu:

- Beren burua ikasleen taldean sailkatzen duten pertsonak adostasun handiagoa agertu dute “atzerriko emakumeen seme-alabengatik izango ez balitz, Euskadik biztanleria galduko luke” adierazpenarekin, langabezia daudenek baino.
- 64 urtetik gorakoek, euskaraz ongi hitz egiten dutenek, eta erretiratu nahiz ikasleek adostasun handiagoa agertu dute “emakume atzerritar immigranteak garrantzitsuak dira gure adinekoak eta gure haurrak zaintzeko” adierazpenarekin, 65 urtez azpikoek, euskaraz gutxi dakitenek eta langabezia daudenek baino.
- Gipuzkoan bizi diren pertsonak, gizonezkoek eta euskara ongi hitz egiten dutenek adostasun handiagoa agertu dute “emakume atzerritar immigranteek ekarpen handia egiten diote gure gizarteari” adierazpenarekin, Bizkaian bizi direnek, emakumezkoek eta euskaraz gutxi dakitenek baino.

Oso zaila da emakume atzerritar immigranteei buruz hitz egitea “osotasun” homogeen bat balitz bezala; hau da, euskal gizartearen ikuspegitik, ezaugarri argiak dituen multzo bat balitz bezala.

Migrazio-prozesuak lantzen, aztertzen, ikertzen eta analizatzen jardun dugun urte hauetan guztietan, zerbait ikasi dugu, hots migrazio-prozesua norberaren istorio txikiek, bizipenek, nahiek, itxaropenek, irudipenek, ametsek eta abarrek osatutako mosaiko handi bat dela.

Alderaketa bat eginez, lur emankor eta askotariko bat, edota fauna eta flora askoko eta geografia-ezaugarri ugariako ekosistema bat deskribatzen, analizatzen, sintetizatzen edota ikertzen saiatzearen antzekoa da. Hau da, Amazonaren arroa nolakoa den azaldu nahi izango bagenu bezala. Edo, gertuago dugun eta, gutxienez, gure bi lurralde hartzen dituen paisaia bat baliatuz, Gorbeia mendigunea nolakoa den azaldu nahi izango bagenu bezala.

Aireko ikuspegi orokor bat deskriba al dezakegu? Zer ikusten dugun, zer mugarri garrantzitsu dituen, zer zuhaitz-multzo dauden edota zer geografia-ezaugarri nagusi dauden bertan. Horrek xehetasunak baztertzen ditugula adierazten al du? Zuhaitz bakoitzarena, zuhaixka bakoitzarena, lore bakoitzarena... Ikuspegi orokor batek soiltasunera eraman gaitzakeen arren, hori da xehetasunetan ez galtzeko eta luzatzeko modu bakarra, aztertzen ari garenen ikuspegi orokor bat izatea eragotziko ligukena.

Emakume atzerritar immigranteei buruzko azterketarekin ez da gauza bera gertatuko: argazki edo panoramika orokor bat lortze aldera, xehetasunak galduko ditugu gure analisisian, baina horrela, dialektika ikertzaile honen bidez, soilik lor dezakegu gaiaren ikuspegi oso bat, errealitatea hainbat ataletan banatuz, aztertuz eta gero, orokortasun-kutsua emateko, berriro berreraikiz.

Beraz, nahiz eta jakin Euskadiko biztanleei eginkizun zaila eskatzen diegula, informazioa biltzen saiatu gara, bertako biztanleek emakume atzerritar immigranteez, oro har, zer irudi duten eta, funtsean, zer ezaugarriekin lotzen diren jakiteko aukera emango diguna.

Horretarako, hiru item hauek sortu ditugu (horien bidez, 163 aldagaitan banatzen diren 37 uste bereizi dira):

1. Lehenengoan, inkestatutako pertsoneri eskatu zitzaizen emakume atzerritar immigranteei buruz zer iritzi zuten adierazteko, zortzi ezaugarri edo adjektibo positibo edota horien antonimoak aukeratuz.
2. Bigarrenean, Euskadiko biztanleei eskatu genien adierazteko zer begikotasun-maila duten emakume atzerritar immigranteekiko; funtsean, haien jatorri geografikoa aintzat hartuta.
3. Eta hirugarrenean, Euskadiko biztanleei eskatu genien talde horien baitan desberdintzeko, proposatu genizkien ezaugarrien edo tasunen arabera (guztira, 21).

Lehenengo itemerako, zortzi ezaugarri eta haien antonimoak aukeratu genituen, aurrez egindako ikerketen arabera emakume atzerritar immigranteen irudia zehazteko lagungarri izan zitezkeenak. Zehazki, hauek ziren zortzi ezaugarri horiek eta haien antonimoak:

- atseginak - zakarrak
- langileak - alferrak
- arduratsuak - ganorabakoak
- feministak - matxistak
- egiatiak - gezurtiak
- interesatuak - altruistak
- iaioak - ezgaiak
- ezjakinak - jantziak

Metodologiari dagokionez, ez diegu zorrotz jarraitu eskatutako urratsei; hala ere, item hau Osgood-en diferentzial semantikoa oinarritzen da, argi eta garbi.

Itemaren formulazioan, Euskadiko biztanleria ere ezaugarri baten edo haren antonimoaren arabera sailkatu nahi zen; dena den, muturreko erantzunak ez behartze aldera, tarteko leku batean jartzeko aukera ere eman genien, baldin eta inkestatutako pertsonak uste bazuen ezinezkoa zela ezaugarri bakar batez emakume atzerritar immigrante guztiak definitzea.

Antzeko ikerketa enpirikoetan oinarritutako gure lan-hipotesiaren arabera, bagenekien Euskadiko biztanleriak zer jarrera agertuko zuen; hau da, bere buruaz zuen iritzia apur bat hobea izango zela besteez (kasu honetan, immigranteez) zuen iritzia baino. Oro har, ikerketa honetan sartu diren galderen antzekoen aurrean, Euskadiko biztanleriak atzerritar immigranteak gure antzekoak direla adierazi ohi du, baina beti egon ohi da haiek baino hobekak garela pentsatzeko joera apur bat.

Lortu diren datuak joera horrekiko koherenteak dira (4. grafikoa); izan ere, proposatutako ezaugarri-bikote guztietan, Euskadiko biztanle gehienek ez dute ezaugarri bat edo haren antonimoa hautatu. Hau da, ezin izan dute kategorikoki baieztatu emakume atzerritar etorkinak, talde moduan, atseginak ala zakarrak diren (%67,5ek ez du ez bat ez bestea aukeratu); langileak ala alferrak (%66,2k); arduratsuak ala ganorabakoak (%67,2k); feministak ala matxistak (%51,6k); egiatiak ala gezurtiak (%69,7k); interesatuak ala altruistak (%60k); iaioak ala ezgaiak (%71,7k); edo ezjakinak edo jantziak (%57,8k).


Jarrera hori koherentea da Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren barometroetatik lortutako datuekiko; izan ere, datu horien arabera, euskal gizarteak uste du immigranteek askoz ere pertsonalitate-ezaugarri gehiago dituztela berdina euskaldunekin desberdina baino.

Baina ikerketa horietan bezala, gure ikerketan ere ikusi dugu Euskadiko biztanleek beren buruaz duten irudia apur bat hobea dela emakume atzerritar immigranteez dutena baino; hala adierazi dute, gainera. Hain zuzen, esan dezakegu Euskadiko biztanleek, testean aipatutako ezaugarrietatik, gutxiespen-kutsu nabarmena duten hiru ezaugarri lotzen dituztela emakume atzerritar immigranteekin.

- %43,9k uste du emakume atzerritar immigranteak batez ere matxistak direla, eta %4k, batez ere feministak direla.

- %34,9k uste du emakume atzerritar immigranteak batez ere interesatuak direla, eta %4,8k, batez ere altruistak direla.
- %34,3k uste du emakume atzerritar immigranteak batez ere ezjakinak direla, eta %7,8k, batez ere jantziak direla.

5.4. GRAFIKOA Emakume atzerritar immigranteen irudia eta ezaugarriak



"Oro har, nolakoak dira, zure ustez, emakume atzerritar immigranteak? Atseginak ala zakarrak; langileak ala alferrek; arduratsuak ala axolagabeak; feministak ala matxistak; egiaitiak ala gezurtiak; interesatuak ala altruistak; iaioak edo ezgaiak; ezjakinak ala jantziak".
Iturria: egileek egina.

Horrez gain, indar gutxiagoz bada ere, beste hiru ezaugarri negatibo ere haiekin lotzen dira:

- %22,1ek uste du emakume atzerritar immigranteak batez ere gezurtiak direla, eta %7,9k, batez ere egiaitiak direla.
- %18,1ek uste du emakume atzerritar immigranteak batez ere axolagabeak direla, eta %14,5ek, batez ere arduratsuak direla.
- %16,9k uste du emakume atzerritar immigranteak batez ere ezgaiak direla, eta %10,9k, batez ere iaioak direla.

Balantzaren beste aldean, ikus dezakegu Euskadiko biztanleriak kutsu positibo nabarmena duten bi ezaugarri lotzen dituztela emakume atzerritar immigranteekin.

- %21,5ek uste du emakume atzerritar immigranteak batez ere atseginak direla, eta %11k, batez ere zakarrak direla.
- %18,9k uste du emakume atzerritar immigranteak batez ere langileak direla, eta %14,8k, batez ere alferrak direla.

Euskadiko biztanleriaren artean jokabideari dagokionez dauden desberdintasunak hainbat aldagairen arabera (soziodemografikoak, ideologikoak, sozioekonomikoak, nortasunari lotutakok eta kulturartekotasun-mailarekin lotutakoak) aztertzen baditugu, hau hauteman dugu:

- Bertako emakumeek emakume atzerritar immigranteen irudi txarragoa dute bertako gizonezkoek baino; batez ere desatseginak, alferrak eta matxistak direla uste dute, eta ez hainbeste iaioak direla.
- Ikasketarik gabeko pertsonak emakume atzerritar immigranteek irudi txarragoa dute gainerakoek baino; batez ere alferrak, axolagabeak, gezurtiak, interesatuak, ezjakinak eta feministak direla uste dute, eta ez hainbeste iaioak direla.
- Euskaraz hitz egiten ez dutenek emakume atzerritar immigranteek irudi txarragoa dute euskaraz hitz egiten dutenek baino; batez ere alferrak, gezurtiak, interesatuak, ezgaiak eta feministak direla uste dute.
- Gutxien irabazten duten pertsonak (1.000 € arte) emakume atzerritar immigranteen irudi txarragoa dute; batez ere desatseginak, alferrak, feministak, gezurtiak eta ezgaiak direla uste dute.
- Norberaren egoera ekonomikoarekin gutxien pozten diren pertsonak emakume atzerritar immigranteen irudi txarragoa dute; batez ere desatseginak, alferrak, axolagabeak, gezurtiak eta ezgaiak direla uste dute.
- Langabeek, erretiratuek edo etxeko langileek, oro har, emakume atzerritar immigranteen irudi txarragoa dute lanean daudenek edo ikasleek baino.
- Estatus sozioekonomiko baxuagoa duten pertsonak, oro har, emakume atzerritar immigranteen irudi txarragoa dute estatus handiagoa dutenek baino; batez ere alferrak, gezurtiak eta ezgaiak direla uste dute.
- Etorkizunera begira aurreikuspen okerragoak dituzten pertsonak emakume atzerritar immigranteen irudi txarragoa dute aurreikuspen hobek dituztenek baino; batez ere alferrak, matxistak, gezurtiak, interesatuak, ezgaiak eta ezjakinak direla uste dute.
- Immigranteekin harreman gutxiago duten pertsonak emakume atzerritar immigranteen irudi txarragoa dute haiekin harremana izaten dutenek baino; batez ere alferrak, matxistak eta ezgaiak direla uste dute, eta ez hainbeste atseginak eta egitiak direla.

Oro har, emakume atzerritar immigranteen irudi txarragoa eta hobia duten pertsonen profila, funtsean, atzerritar immigranteen irudi txarragoa eta hobia duten pertsonen nahiz gure gizartera atzerritarrek etortzea okerrago eta hobeto onartzen duten pertsonen profilaren oso antzekoa da; hala adierazi dute, sistematikoki, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak eta BEGIRUNE EHuko Immigrazioari buruzko Ikerketa Laborategiak egindako beste ikerketek.

Laburbilduz, emakume atzerritar immigranteen irudi txarragoa dute bertako emakumeek, ikasketarik gabekoek, euskaraz hitz egiten ez dutenek, etxean hilean 1.000 € baino gutxiago irabazten dutenek, beren egoera ekonomikoarekin pozik ez daudenek, langabeek, erretiratuek, etxeko langileek, estatus sozioekonomiko baxuagoa dutenek, etorkizunerako aurreikuspen okerragoak dituztenek eta immigranteekin harreman gutxiago dutenek.

Aldiz, emakume atzerritar immigranteen irudi hobia dute bertako gizonezkoek, jantziago daudenek, euskaraz hitz egiten dutenek, etxean hilean 1.000 € baino gehiago irabazten dutenek, beren egoera ekonomikoarekin pozik edo axolagabe agertzen direnek, lanean edo ikasten daudenek, erdi-mailako edo goi-mailako estatus sozioekonomikoa dutenek, etorkizunerako aurreikuspen hobek dituztenek eta atzerritar immigranteekin harreman gehiago dutenek.

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak telefono bidez egindako inkestan, emakume atzerritar immigranteek Euskadiko biztanleen artean sortzen duten begikotasun-mailari buruz ere galdetu genuen. Horretarako, 0 puntu (begikotasunik ez) eta 10 puntu (begikotasun handia) arteko eskala bat erabili genuen, eta ikusi nahi izan genuen ea Euskadiko biztanleek emakume atzerritar immigranteen hainbat profilez duten irudian eta pertzepzioan desberdintasunik dagoen.

Zehazki, zortzi profil proposatu genituen, ikerketaren lehenengo fasean lortu genituenak, eta bigarren fase kualitatiboan ere profil horiek erabili ditugu, zenbait nabardura gora-behera.

1. Emakume atzerritar immigranteen lehenengo mota edo profila “Mendebaleko Europako emakumeek” soilik osatzen dute, Argentinakoak eta Txilekoak salbuetsita; izan ere, gure ustez, egoera desitxuratu eta erantzunean zalantzak sor ditzakete.
2. Bigarren profila, “Kolonbiako eta Peruko emakumeak”, iraupen luzeko Latinoamerikako emakumeei dagokie.
3. Hirugarrena, “Afrika beltzeko eta Saharaz hegoaldeko emakumeak”, emakume beltzen profil berari dagokio.
4. Laugarren profila, “Afrika iparraldeko emakumeak”, aurreko faseetan magrebtar profilez adierazitakoei dagokie.
5. Bosgarren profila, “Errumaniako eta EB ekialdeko emakumeak”, modu berean izendatutako profilari dagokio (Errumaniako eta EB ekialdeko emakumeak).
6. Txinako eta Asiako emakumeek osatutako seigarren profila fase kualitatiboan horrela izendatu zen multzoari dagokio.
7. “Paraguaiko eta Nikaraguako emakumeak” profila, zazpigarrena, fase kualitatiboan “azken etorritako latinoamerikarrak” izendatutako multzoari dagokio.
8. Eta edozein nazionalitateko emakumeek osatutako zortzigarren profilak, “egoera irregularrean dauden emakumeak”, izen bereko baliokidea du aurreko faseetan.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, Mendebaldeko Europako emakumeek sortzen dute begikotasun-maila handiena; batez beste, 5,97 puntu lortu dituzte.


Atzetik, tarte handira daude Paraguaiko eta Nikaraguako emakumeak (5,54 puntu), Txinako eta Asiako emakumeak (5,1 puntu), Kolonbiakoak eta Perukoak (5,50 puntu) eta Afrikako emakume beltzak (5,39 puntu).

Apur bat urrutiago daude Afrika iparraldeko emakumeak (4,75 puntu), Errumaniakoak eta EB ekialdekoak (4,44 puntu) eta egoera irregularrean dauden edozein nazionalitateko emakumeak (4,11 puntu); horiek begikotasun-maila txikiagoa dute Euskadiko biztanleen artean.

Emakume atzerritar immigranteek sortzen duten begikotasun-mailaren adierazpen horrek agerian utzi du gure ikerketan aipatuz joan garen ideia bat, hots: emakume atzerritar immigrante guztiak ez daude egoera berean, ez dituzte baliabide berak eta haiekiko dugun pertzepzioa ez da berdina kasu guztietan. Emakumeen zenbait talde baztertuago daude, eta arrisku handiagoa dute gizarte-bazterketa eta diskriminazioa jasateko; funtsean, Afrikako

emakumeak (arrazak beltzekoak nahiz Afrika iparraldekoak), Errumaniakoak eta administrazio-egoera irregularrean daudenak jasaten dute gehien bazterketa hori.

5.5. GRAFIKOA Emakume atzerritar immigranteekiko begikotasun-maila, haien jatorriaren eta egoeraren arabera



“Esadazu, Otik 10erako eskalan, zer begikotasun-maila sentitzen duzun gure herrian bizi diren emakume atzerritar immigranteekiko, kontuan hartuta 0 zenbakiak begikotasunik ez adierazten duela, eta 10 zenbakiak, begikotasun handia.

Iturria: Soziologia Prospekzioarako Kabineta eta egileek egina.

Datuak eta balorazioak pertsona-taldean arabera aztertuz, desberdintasun nabarmenak hauteman ditugu Euskadiko biztanleen artean. Hala, honako hau adieraz dezakegu:

- Oro har, emakume atzerritar immigranteei askoz ere puntu gutxiago ematen dizkiote eta haiekiko begikotasun-maila txikiagoa agertzen dute Araban bizi direnek, 45 urtetik gorakoek (batez ere, 64 urtetik gorakoek), emakumeek, erretiratuek eta etxeko lanetan aritzen direnek.
- Oro har, emakume atzerritar immigranteei askoz ere puntu gehiago ematen dizkiote eta haiekiko begikotasun-maila handiagoa agertzen dute Gipuzkoan bizi direnek, 45 urtetik beherakoek (batez ere, 30 urtetik beherakoek), gizonetakoek, langabeek eta ikasleek.

EMAKUME IMMIGRANTEEN IRUDI BEREIZGARRIA

5.2.3

Ikerketa hau egiten hasi aurretik, jada buruan generabilen Euskadiko biztanleriak emakume atzerritar immigranteen hainbat profilekiko duen irudi bereizgarriaren hipotesia, ikerketa-taldeak aurrez egin dituen beste ikerketa batzuen ondorioetan oinarrituz; beraz, ikerketa honen xedea zen euskal gizarteak emakume atzerritar immigranteen hainbat taldeetako duen irudi bereizgarri horren ideian sakontzea.

Horrenbestez, Ikuspegiren 2012ko Barometroaren inkestan, galdera-sorta bat sartu genuen, maiztasunen (korrespondentzien) taula bat egin, korrespondentzia sinpleen analisi

faktoriala aplikatu eta espazio metriko bat eraiki ahal izateko; espazio metriko horretan, hain zuzen, emakume atzerritar immigranteen hainbat profil eta Euskadiko biztanle bakoitzak profil horiekiko duen irudia osatzen duten tasun edo ezaugarri bereizgarriak sartu ziren.

5.1. TAULA Maiztasunen, emakume atzerritar immigranteen eta ezaugarrien taula

	Integratzeko ahalegina	Gure antzekoak	Zakarrak	Egiatiak	Integratzeko ahaleginik ez	Egoera erregularrean	Harremanak izatea zaila	Desberdinak gure aldean	Gure kulturarekiko errespetua	Bortitzak	Langileak	Zintzoak	Atseginak
Mendebaldeko Europa, Argentina, Txilekoak	772	960	22	534	43	813	47	29	781	23	522	558	557
Kolonia eta Perukoak	349	261	62	181	78	197	77	98	346	97	307	210	437
Afrika beltza eta Saharaz hegoaldekoak	260	48	69	195	132	50	135	365	224	72	270	231	241
Afrikako iparraldea, Magreb; Marokokoak	121	39	412	74	557	44	551	596	121	425	184	102	70
Errumania eta EB ekialdea	148	80	353	85	371	87	372	329	137	454	252	113	88
Txina, Asiakoak	162	38	161	117	356	150	383	480	207	21	655	243	126
Paraguai, Nikaraguakoak	240	163	27	132	38	100	42	68	247	15	241	170	238
Alde aktiboa	2.052	1.589	1.106	1.318	1.575	1.441	1.607	1.965	2.063	1.107	2.431	1.627	1.757

	Itxiak	Konfiantza ematen dute	Gaizkile ugari dago	Harremanak izan daitezke	Egoera irregularrean	Irekiak	Alferrak	Mesfidantza sortzen dute	Gezurtiak	Bakezaleak	Ez dute gure kultura errespetatzen	Alde aktiboa
Mendebaldeko Europa, Argentina, Txilekoak	21	735	17	857	32	715	40	28	45	664	33	8.848
Colombianas, Peruanas	36	275	83	382	135	465	190	99	139	315	66	4.885
Afrika beltza eta Saharaz hegoaldekoak	107	184	68	193	501	206	83	126	45	282	107	4.194
Afrikako iparraldea, Magreb; Marokokoak	506	88	545	110	595	67	314	583	290	97	524	7.015
Errumania eta EB ekialdea	305	98	604	122	370	80	252	536	298	108	251	5.893
Txina, Asiakoak	507	147	31	109	115	65	11	94	31	390	114	4.713
Paraguai, Nikaraguakoak	19	198	24	265	83	255	85	42	45	234	45	3.016
Alde aktiboa	1.501	1.725	1.372	2.038	1.831	1.853	975	1.508	893	2.090	1.140	38.564

“Orain, 1. txartel honetan erakutsi dizkizudan emakume atzerritar immigranteen hainbat taldetik, esadazu horietako zeinekin lotu daitezkeen ezaugarri hauek (erakutsi 1. txartela eta irakurri ezaugarriak).”
Iturria: egileek egina.

Horretarako, hainbat ezaugarri (guztira, 24) biltzen dituen taula bat betetzeko eskatu genien inkestatutako pertsoneri; hau da, emakume atzerritar immigranteen zazpi profil alderatu genituen, eta horien artean zeuden ezaugarri bereizgarriak bilatu genituen. Zazpi profil horiek jada aipatu ditugu aurreko atalean, bat salbu; hau da, egoera irregularrean dauden emakumeen taldea kendu, eta egoera hori beste zazpi profilekin lotu zitekeen ezaugarritzat erabili genuen. Izan ere, iruditzen zitzaigun, emakumeen profiltzat planteatzearen ondorioz, erantzunak gehiegi zatituko zirela eta horrek analisisa desitxura zezakeela.

Taula horri, korrespondentzia sinpleen analisi faktoriala aplikatu diogu, eta posizionamenduaren mapa bat lortu dugu; mapa horretan, emakume atzerritar immigranteen jatorriak eta haien ezaugarri bereizgarriak kokatu ditugu.

Korrespondentzia sinpleen analisi faktorialak ematen dituen datuak aztertuz, lehenik eta behin azpimarratu behar da lotura handia dagoela zenbait profilen eta ezaugarri batzuen artean. Horrenbestez, aldakortasun gehien duten faktoreak edo dimentsioak ondoriozta ditzakegu, hots: euskal gizartearen irudimenean, emakume atzerritar immigranteen profilak gehien bereizten eta desberdintzen dituzten dimentsioak.

Hala, baieztatu dezakegu emakume atzerritar immigranteen hainbat profilen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak -azken batean, irudi bereizgarria- bi irizpide edo faktoretan oinarritzen direla. Irizpide edo faktore horiek, haien garrantziaren arabera sailkatu ditugu.

- 1. irizpidea (1. dimentsioa, ardatz horizontalean): hainbat profilen artean dauden desberdintasun (aldakortasun) guztien %75,3 hartzen du. Faktore honen bidez, kontrajarri egiten dira, alde batetik, Europako, Argentinako eta Txileko emakumeak, eta "gure antzekoak dira", "irekiak", "haiekin harremanak izan daitezke" eta "egoera erregularrean daude" ezaugarriak (faktorearen ezkerreko aldean), eta bestetik, Afrika iparraldeko eta Errumaniako emakumeak eta "gaizkile ugari dago", "mesfidantza sortzen dute", "bortitzak", "itxiak", "ez dute ahaleginik egiten integratzeko" eta "zaila da haiekin harremanak izatea" ezaugarriak (faktorearen eskuineko aldean). Dimentsio honek, antza, kontrajarri egiten ditu kulturari dagokionez guregandik gertuen dauden emakumeak, hurbilekoak eta "parekagarriak", eta kulturalki gurekin bateragarritasun gutxiago dutenak, arrarotzat hartzen ditugunak eta mesfidantza sortzen digutenak. Horregatik, dimentsio hau KULTURA-EZBERDINTASUNA faktore gisa definitu dugu.


Irizpide horri dagokionez, Europako, Argentinako eta Txileko emakumeak, eta baita Paraguai, Nikaragua, Kolonia eta Perukoak ere (hurrenkera horretan), kulturalki guregandik gertuen dauden emakumetzat hartzen dira, eta gizartean integratzeko gaitasun handiagoa dutela esaten da. Faktore horren beste muturrean daude Afrika iparraldeko eta Errumaniako emakumeak; gure kulturatik urrunen ikusten ditugu, gutxien integratzen dira, eta haiek sortzen dute mesfidantza gehien. Batzuen eta besteen artean, beste emakume hauek daude: Txinako eta Asiako emakumeak, kulturalki oso urrun sentitzen ditugunak, eta Afrikako emakume beltzak, tarteko profila dutela diruditenak.

- 2. irizpidea (2. dimentsioa, ardatz bertikalean): profilen eta ezaugarrien arteko aldagarritasun guztiaren %14,7 hartzen du. Hau da, lehenengo irizpideak baino bereizketa txikiagoa egiten du; beraz, hura nabarmentzen da, hark baitu bereizteko gaitasun handiena. Nolanahi ere, bigarren faktore honek kontrajarri egiten ditu, batetik, Errumaniako eta EB ekialdeko emakumeak, eta "gaizkile ugari daude", indarkeriazko jarrera dutenak, "alferrak", "gezurtiak" eta "mesfidantza sortzen dutenak" ezaugarriak (faktorearen goiko zatia), eta bestetik, Txinako eta Asiako emakumeak, eta "langileak", "itxiak" eta "gure desberdinak" ezaugarriak (faktorearen beheko zatia). Dimentsio honetan, funtsean, bi emakume-talde horiek bereizten dira. Antza, Errumaniako emakumeak gizartean oso estigmatizatuta daude eta gutxiespen-kutsu handia dute; aldiz, txinatarrek irudi ona dute euskal gizartean (langileena), baina ez dute haiekin inolako lotura edo harremanik (itxiak eta desberdinak). Horregatik, honela definitu dugu dimentsio hau: ESTIGMA vs. GHETTO faktorea.

6. grafikoa, 1. eta 2. dimentsioak adierazi ditugu, eta bertan, emakumeen profilak eta haiei lotutako ezaugarriak azaldu dira; bertan, emakume-talde bakoitzaren jarrera eta euskal gizartearen irudimenean duten irudi bereizgarria beha ditzakegu.

Hurrengo grafiko honetan, goiko eskuinaldeko laukia *kulturalki urrun eta gizartean estigmatizatuta* dauden emakumeen profiei dagokie; bertan sartzen dira Errumaniako, EB ekialdeko eta Afrika iparraldeko emakumeak, funtsean ezaugarri hauekin lotzen direnak: *gaizkile ugari dago, gezurtiak, alferrak, bortitzak, mesfidantza sortzen dute, ez dute gure kultura errespetatzen, zakarrak, egoera irregularrean daude, ez dute ahaleginik egiten integratzeko, zaila da haiekin harremanak izatea, desberdinak dira gure aldean eta itxiak dira.*

5.6. GRAFIKOA Emakume atzerritar immigranteen irudi bereizgarria



Orain, 1. txartel honetan erakutsi dizkizudan emakume atzerritar immigranteen hainbat talderen artean, esadazu horietako zeinekin lotu daitezkeen ezaugarri hauek (erakutsi 1. txartela eta irakurri ezaugarriak)”.
Iturria: egileek egina.

Goiko eskuinaldeko laukia kulturalki guregandik gertu sentitzen ditugun baina gizartean estigmatizatuta dauden emakumeei dagokie, eta bertan, Kolonbiako, Peruko, Europako, Argentinako, Txileko, Paraguaiako eta Nikaraguako emakumeak ageri dira. Dena den, lehenengo biei, Kolonbiako eta Peruko emakumeei, dago lotuta, neurri batean, *estigmaren* ezaugarria; izan ere, gainerako guztiek jatorrizkoaren antzeko koordinatua dute 2. dimentsio horretan. Beraz, horrek adierazten du euskal biztanleen irudimenean garrantzi handiagoa duela *kulturalki* gertu ditugun emakumeak diren pertzepzioak. Emakume horiei ezaugarri hauek lotzen zaizkie: *gure antzekoak, irekiak, atseginak, haiekin harremanak izan daitezke, integratzeko ahalegina egiten dute, egoera erregularrean daude, konfiantza ematen dute, egiaitiak dira, gure kultura errespetatzen dute, zintzoak, bakezaleak eta langileak.*

Beheko eskuinaldeko laukia *kulturalki urrun eta ghetto batean* (gizarte-talde itxietan) dauden emakumeei dagokie, eta bertan, Txinako eta Asiako emakumeak ageri dira; ezaugarri hauekin lotuta daude: *itxiak, langileak, bakezaleak, desberdinak gure aldean, zaila da haiekin harremanak izatea eta ez dute ahaleginik egiten integratzeko.*


Afrikako emakume beltzak koordinatuen jatorritik gertu daude; adierazpen-kalitate txarra dute, dimentsio horiek osatutako eremu metriko horretan. Beraz, horrek adierazten du tarteko profila dutela aztertutako emakume-taldeen artean. Antza denez, Euskadiko biztanleek ez dituzte hain urrutikotzat hartzen (Afrika iparraldekoak, Europa ekialdekoak), ez eta beste talde batzuk bezain gertukotzat ere (Hego Amerikakoak, Europakoak). Era berean, ezin daiteke esan argi eta garbi estigmatizatuta edo ghettoan sartuta daudenik.

EUSKAL GIZARTEAREN BALORAZIO OROKORRA EMAKUME ATZERRITAR IMMIGRANTEEN ETORRERAREN AURREAN

5.3

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen telefono bidezko inkestan, emakume atzerritar immigranteak gure gizartera etortzearen aurrean zer sentimendu edo iritzi zuten eta zer balorazio egiten zuten laburbiltzeko eskatu genion euskal gizarteari. Etorrera horrek ondorio positiboak ala negatiboak dituen baloratzeko eskatu genien inkestatutako pertsonen, 0 (oso ondorio negatiboak) eta 10 (oso ondorio positiboak) arteko zenbakiak jarritz. Batez besteko puntuazioa 4,76 izan da; hau da, Euskadiko biztanleriak modu anbibalentean laburbildu du emakume atzerritar immigranteen etorrerak gure gizartean izan dituen ondorioekiko pertzepzioa, eta tarteko puntuazioa eman dio aipatutako eskala horretan.

5.7. GRAFIKOA Emakume atzerritar immigranteen etorrerak dituen ondorioen balorazioa



"Oro har, zer ondorio ditu, zure ustez, emakume atzerritar immigranteen etorrerak, positiboak ala negatiboak? Emadazu 0 (oso ondorio negatiboak) eta 10 (oso ondorio positiboak) arteko puntuazioa."
Iturria: Soziologia Prospekzioko Kabineta eta egileek egina.

Gure gizartean, oraindik ere, zenbait estereotipo negatibo daude eta zenbait taldek emakume atzerritar immigranteekiko errezeloak agertzen dituzte; hala ere, euskal gizarteak hautematen eta aitortzen du emakume atzerritar immigranteek gure komunitateari egiten dioten ekarpena. Beraz, 5 puntu inguruko balorazioa lortu du ekarpen horrek.

Datu hori Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak, bere Barometroan, urtero egiten duen galdera berarekin (immigranteen, gizonen nahiz emakumeen, etorrerari buruzkoa) alderatuz, azken urteetako kopuruen antzekoak izan dituela ikus dezakegu (5.7. grafikoa).

Hainbat pertsona-talde gurutzaketa-aldagaien arabera aztertuz, zenbait desberdintasun nabarmen aurkitu ditugu:

- Emakume atzerritar immigranteen etorrerak ondorio positiboak dituela gehien sinesten duten pertsonak Gipuzkoan bizi dira (5,18 puntu), ikasi egiten dute (5,58 puntu) eta euskaraz ongi hitz egiten dute (5,72 puntu).
- Aldiz, emakume atzerritar immigranteen etorrerak ondorio negatiboak dituela gehien sinesten duten pertsonak Araban bizi dira (4,36 puntu), etxeko lanak egiten dituzte (4,26 puntu) eta ez dakite euskaraz ezertxo ere (4,43 puntu).

Ez dugu desberdintasun nabarmenik aurkitu, ez adinaren arabera, ez sexuaren arabera.

ONDORIOAK 5.4

Hauek dira telefono bidezko eta aurrez aurreko inkestetan lortutako informazio guztia aztertuz lortutako ondorio garrantzitsuenak:

1. Euskadiko biztanleriak aitortzen du emakume atzerritar immigranteek betetzen duten funtzioa bestela hutsik geratuko liratekeen lanpostuak betez (%42,9 ados agertu da, eta %33,6 aurka); hau da, gure gizartean duten presentziak zenbait lan-sektoretan dugun premiari erantzuten dio.
2. Dena den, lan-merkatuan egiten duten ekarpena aitortzeak ez du adierazten haien "balio ekonomikoa"; ekonomiari (*estrictu sensu*) nahiz gizarteari (lanaren eta familiaren batera-garritasunari) egindako ekarpena aintzat hartzen dituen. Izan ere, euskal gizartearen %42,2 ez dago ados gure ekonomia hobetzen laguntzen dutela dion adierazpenarekin. Dena den, gizartearen zati handi bat emakume immigranteek egiten duten lanarekiko eta gure gizarteari egiten dioten ekarpenarekiko sentikorra da, eta garbi aitortzen dute gure ekonomia hobetzeko ematen duten laguntza (%30,2 ados dago).
3. Euskadiko biztanleria, antza, ez dago ados emakume atzerritar immigranteen etorrerak "Euskadiko emakumeek etxea eta lana uztartu ahal izatea bermatu" duela dion adierazpenarekin (%44,1 ez dago ados, eta %30,4 ados dago).
4. Eskuan ditugun datuek kontrakoa diotela dirudien arren, Euskadiko biztanleriak estereotipo hauek ditu: "atzerriko emakume etorkinek onura handiegia jasotzen dute gizarte-babeseko sistematik" (%58,4 ados dago) eta "ekonomiari dagokionez, atzerriko emakume etorkinek euskal gizarteari egiten dioten ekarpena baino gehiago jasotzen dute" (%45,5 ados dago).

5. Euskadiko biztanleriak badaki, Europako jaiotza-tasa baxuenetako bat izanik, emakume immigranteen funtzioa garrantzitsua dela gure etorkizunerako; izan ere, haien jaiotza-tasa handiagoari esker, saldo begetatiboa berdindu (arinki bada ere), eta Euskadiko biztanleria orekatuko da. Euskal gizartearen gehiengoak aitortu du atzerriko emakumeen seme-alabengatik izango ez balitz, Euskadik biztanleria galduko lukeela; %52,5 agertu da ados adierazpen horrekin.
6. Horrez gain, euskal gizartearen gehiengoak onartzen eta aitortzen du atzerriko emakume etorkinek gure etxea eta familia askotan duten funtzioa, haiek betetzen baitute gure haurrak eta adinekoak zaintzeko zeregin garrantzitsua. Hala, Euskadiko biztanleen %47,5ek aitortu du atzerriko emakume etorkinak garrantzitsuak direla gure adinekoak eta gure haurrak zaintzeko.
7. Euskadiko biztanleriaren gehiengoak argi eta garbi aitortu du atzerriko emakume etorkinek gure gizarteari ekarpen handia egiten diotela (%38,4 ados agertu da); halere, gutxiengo handi batek gure gizarteari egin dioten ekarpena ukatzen jarraitzen du (%33,1 ez dago ados).
8. Aitortu da ekarpena egiten dutela, baina ez dute nahi ekarpen hori zenbatekoa izan den zehaztea; izan ere, ekarpen hori positiboki balioetsiz gero, emakume atzerritar immigranteak onartzea ekarriko luke zuzenean, eta antza, oraindik ez da halakorik egin nahi.
9. Euskadiko biztanleriaren gehiengoak pentsatzen du emakume atzerritar immigranteak euskaldunon antzekoak direla; hala adierazten du euskal gizartearen zati handi bat emakume atzerritar immigranteak definitzeko ezaugarri hauetako bat aukeratzeko gai ez izateak: atseginak ala zakarrak (%67,5ek ez du ez bata ez bestea aukeratu); langileak ala alferrak (%66,2k ez du aukeratu); arduratsuak ala axolagabeak (%67,2); feministak edo matxistak (%51,6); egiatiak ala gezurtiak (%69,7); interesatuak ala altruistak (%60); iaioak ala ez-gaiak (%71,7); eta ezjakinak ala jantziak (%57,8).
10. Ñabardurei erreparatzen badiegu, gehiago dira emakume atzerritar immigranteak matxistak, interesatuak, ezjakinak, gezurtiak, axolagabeak eta ez-gaiak direla uste dutenak, feministak, altruistak, jantziak, egiatiak, arduratsuak eta iaioak direla uste dutenak baino. Baina, era berean, euskal gizartean, gehiago dira emakume atzerritar immigranteak atseginak eta langileak direla pentsatzen dutenak, zakarrak eta alferrak direla pentsatzen dutenak baino.
11. Taldeka banatuz, euskal gizarteak administrazio-egoera irregularrean dauden emakume immigranteekiko (zeinahi nazionalitatekoak izanda ere) agertzen dute begikotasun-maila txikiena: 4,11 puntu (0-10 eskalan); atzetik daude Errumaniako eta EB ekialdeko emakumeak (4,44 puntu) eta Afrika iparraldekoak (4,75 puntu). Begikotasun-maila handiena Mendebaldeko Europatik etorritakoek lortzen dute: 5,97 puntu.
12. Euskadiko biztanleriak emakume atzerritar immigranteekiko duen irudi bereizgarria bi irizpidetan (dimentsiotan) oinarritzen da, funtsean, erantzunen aldagarritasunaren zatirik handiena azaltzen dutenak.

Lehenengoa KULTURA-EZBERDINTASUNA izendatu dugun faktorea da, kulturalki gertukoago, irekiago eta gure antzekoago hartzen ditugun emakumeen profila (Europako emakumeak, Argentinakoak, Txilekoak, Paraguaiakoak, Nikaraguakoak, Kolonbiakoak, Perukoak...) eta urrunagotzat, arrarotzat eta desberdintzat hartzen ditugun emakumeenak (Afrika iparraldekoak, magrebtarrak, Marokokoak, Aljeriakoak, Errumaniakoak, EB ekialdekoak...) kontrajartzen baititu.

Bigarren faktorea ESTIGMA vs. GHETTOA izendatu dugu; faktore horrek gehien estigmatizatuta dauden emakumeen profilak (Errumaniakoak, EB ekialdekoak...) eta itxiztat hartzen ditugun emakumeen profilak (Txinakoak, Asiakoak...) kontrajartzen ditu.

13. Oro har, Euskadiko biztanleriak 4,76 puntu eman dizkie emakume atzerritar immigranteak euskal gizartera etortzeak eragin dituen ondorioei (positiboak=10 eta negatiboak=0); hau da, tarteko puntuazioa eman die.
14. Gure gizartean, oraindik ere, zenbait estereotipo negatibo daude eta zenbait taldek emakume atzerritar immigranteekiko errezeloak agertzen dituzte; hala ere, euskal gizarteak hautematen eta aitortzen du emakume atzerritar immigranteek gure komunitateari egiten dioten ekarpena. Beraz, 5 puntu inguruko balorazioa lortu du ekarpen horrek.

6

EMAKUME ATZERRITAR IMMIGRANTEEN AURREIKUSPENAK ETA BEHARRIZANAK

Bost gai-multzo hauetan bildu dugu 49 emakumeekin egindako elkarrizketatik atera dugun informazio guztia:

1. Migrazioa jatorriko herrialdean
2. Euskadira iristea
3. Kultura-talka eta akulturazioa
4. Mundu-ikuskerak eta genero-rolak
5. Aurreikuspenak eta etorkizuna

MIGRAZIOA JATORRIKO HERRIALDEAN

6.1

Beti eman dira migrazio-prozesuak gizateriaren historian, eta, prozesu horien baitan, atal honetan bereziki aztertu nahi dugu, besteak beste, zergatik ekin dioten migrazio-prozesu bati EAEn finkatu diren emakume atzerritarrek.

Urte askoan, migrazio-prozesuen subjektu pasibo edo bigarren mailako subjektu gisa hartu izan dira emakumeak; izan ere, analisiak adierazten zuten gizona zela migrazioaren sustatzaile nagusia, eta haren atzetik joaten zirela emakumeak eta gainerako senideak. Hala ere, gaur egun, migrazioen feminizazioa aztertzeari ekin zaio eta ez da emakumea subjektu pasibo gisa ikusten, hura izaten baita, askotan, migrazioari ekin eta haren lehen faseak urratzen dituen, gerora familia-nukleoa bildu edo berrelkartzeko. Autore batzuek uste dute feminizazioa dela munduko migrazioen egiturazko ezaugarri berrietako bat.

Arazoi bat baino gehiago izaten da migrazio-prozesu bati ekiteko eta eragozpen ugari gainditu behar izaten da prozesu horretan, bai jatorriko herrialdean, bai hartzaile den gizartearen. Gizakiaren funtsezko ezaugarriekin lotzen dira arazo horiek, nola diren jakin-mina, anbizioa edo biziraupen-sena, eta haiek izaten dira, funtsean, beste leku batzuetarako bidaia luze horiek egiteko eragin-indarra, nahiz eta askotan ez den ziurra izaten zer-nolako emaitzak emango dituen migrazio-prozesuak. Pertsonak haien jatorriko herrialdeetan bizi dituzten egoera pertsonalak eta egiturazkoak ulertzea funtsezkoa da behar bezala ulertu eta interpretatzeko zergatik hartzen den emigratzeko erabakia. Egoera edo baldintza horiek, noski, bestelako interakzio-polo bat topatu behar dute jatorriko gizartearen, emigratioaren ondorioetara egokitzeak. Izan ere, migrazio-sistema bat ezartzen da eskari nabarmen bat duen harreko gizartearen eta eskari horretara egokitzen den gizartearen artean, eta sistema horrek eragina izaten du migrazio-prozesu bat abiatzeko arazoak izan ditzaketan pertsonengan. Dena den, ez dira migrazio-prozesuetan sartzen migratzeko egoeran dauden pertsona guztiak.

EAEn finkatu diren emakumeek migrazio-prozesu batean sartzeko izan zituzten arazoak eta horretara bultza zituzten faktoreak aztertuko ditugu atal honetan. Horrez gain, migratzeko erabakia hartzeko prozesua aztertuko dugu eta jatorriko herrialdea uzteko han, jatorriko herrialdean, izan dituzten zailtasunei erreparatuko diegu.

Migrazio-prozesua hasten da pertsona edo talde bat bere jatorriko herrialdetik beste leku batera joaten denean aldi baterako, nahiz eta, aldezturik, ez den jakiten zenbat denborarako izango den. Baina, zer arrazoi izaten da hori egiteko? Zenbaitetan, arrazoi sozial eta kulturalak ezkutatzeko joera izaten da, eta erabateko garrantzia ematen zaie faktore ekonomikoak eta lan-esparruko arrazoiak. Hori egiten da lehen arrazoi horiek bigarrenak baino gutxiagotan ematen direlako.

Beren beharrianak eta aurreikuspenak betetzera beste lurralde batzuetara zergatik joan diren galdetu diegunean, elkarrizketatu ditugun emakumeek arrazoi agerikoak eta nabarmenak eman eta adierazi dizkigute, baina izan dira ezkutuan edo bigarren mailan geratu diren arrazoiak ere. Migrazioa emakumeak aukeratua edo derrigorrean egin izan den alde batera utzita, egia da, teoriarik behintzat, migratzeko arrazoiak ez direla soilik ekonomikoak izaten, baina, gure kasuan, elkarrizketatu ditugun emakume guztiek azaldu dituzte arrazoi ekonomikoak. Emakume immigranteak kultura-maila apalekoak direla eta haien jatorriko herrialdetik arrazoi ekonomikoak bultzatuta joaten direla uste izaten da, baina ez da beti betetzen arketipo hori. Emakume horien artean bada, kualifikazio-maila handia izanda, "beste zerbaiten bila" dabilenik ere. Hala ere, komeni da aztertzea zer neurritan den migrazioa faktore ekonomikoetan oinarritua, eta arrazoiak zer irakurketa egiten den, gerora, baldin eta migrazio-proiektuak arrakasta lortzen badu. Hori horrela izanda ere, emakumeek askotariko arrazoiak izaten dituzte jatorrizko herrialdea uzteko, eta askotarikoak izaten dira, era berean, harrerako herrialdea "erakargarri" egiten duten arrazoiak. Elkarrizketetan eman dizkiguten arrazoiak artean, nabarmentzekoak dira ekonomikoak, familiarak, akademikoak, etorkizun-ikuspegi onak ez izatea edo emakume gisa garatzeko aukerak bilatu nahi izatea, segurtasunik ez izatea eta tratu txarrak pairatu izana. Eman dizkigute beste arrazoi batzuk ere, garrantzi gutxiagokoak.

Elkarrizketen hariari lotuta, elkarrizketatu ditugun emakumeek emandako arrazoiak artean, bada ia guztiek aipatzen duten bat: arrazoi ekonomikoak eta lan-esparrukoak. Zehazki, lan bat bilatu eta trukean soldata bat eskuratzeko asmoarekin etorri ziren ia guztiak. Herrialde batzuetan soldata txikiak jasotzen dituzte, eta horrek eragotzi egin die, elkarrizketatutako emakume gehienei, bizirautea eta garapen pertsonal bat izatea; izan ere, gizarte-bazterketako egoerak bizi izan dituztela adierazi digute emakume askok. Emakume horientzat, segurtasun ekonomikoak eta sozialak eskuratzeko bidea da soldata duin eta erregular bat izatea, eta ez soilik emakumeentzat beraientzat, baita haien familientzat ere. Hori izan dute, beraz, atzerrian beste aukera batzuk bilatzearen arrazoiak. Emakume batzuek emigratu egin behar izan dute familia-nukleo egonkor bat mantentzeko baliabideak eskuratzeko, senideren bat hil zaiolako baliabidez gabetua izan den familia bat aurrera ateratzen saiatzeko, edo banantze nahiz dibortzioren baten ondorioz hautsi den familia bat sostengatzeko. Arrazoiak arrazoi, emakumeen lekukotasun guztiek adierazten dute ezin zutela bizi-maila duinik erdietsi, lan eginda ere.

"Hemen adina lan egingo banu han, ez nuke ezer egiteko aukerarik izango" (8. taldea: Eztabaida-taldea)

"Han ez du inork soldata bat jasotzen zortzi ordu lan eginda... ezta urrik ere. Beti irabazten duzu gutxienekoa, leku guztietan" (8. profila: Nikaragua)

"Han, lan ugari eta dirua urri, ez da ondo bizitzeko lain irabazten" (7. profila: Txina)

"Orain ez dago lanik, eta soldatak txikiak dira. Familiek gehiago behar dute" (6. profila: Errumania)

"Lanagatik bueltatu nintzen, han, nire herrialdean, lan egin arren, ez da ia ezertxo ere irabazten" (5. profila: Sahara).

"Gustura nengoen Senegalen, baina han ez zen lan askorik, eta patera izaten da gazteen ihesbidea" (3. profila: Senegal)

"Errumaniar egiten dugun lanak lan asko eta diru gutxi ematen du, eta horrela ezin da, ez du ematen jateko eta gastuetarako." (6. profila: Errumania)

"Zailak zeuden gauzak Argentinan, lan asko, diru gutxi, denbora librea eskas, eta bi urteko alaba nuen, ahal nuenean ikusten nuena, lanean ematen bainuen egun osoa... bizi-kalitatearen bila etorri nintzen" (1. profila: Argentina)

Enplegurik ez izatea da norberaren herrialdetik kanpo egoera hobeto bat bilatzeko arrazoi bat, elkarrizketatu ditugun emakumeen herrialdeetako lan-merkatuaren egoera izan baita, haietako batzuentzat, migrazio-prozesuari ekiteko arrazoi nagusia. Emakume askok hasten dute beren bizipenaren kontaketa haien jatorriko herrialdean lan- eta gizarte-egoera kaxkarrak bizi zituztela esanez, eta maila pertsonalean aurrera egiteko aurreikuspen ekonomiko urriak zituztela adieraziz. Emakume batzuek adierazi ziguten etsita zeudela zegoena baino kualifikazio txikiagoko lanpostuetan lan egin beharrean ikusi zutelako beren burua, eta zutelako espero lanpostu horietan lan egitea. Lan-egoera kaxkarra emakumeak beren jatorriko herrialdetik "kanporatzeko" faktore bat izaten da, eta helmugako herrialdera joateko dei-aldarria izan ohi da helmugako herrialdeko lan-merkatuaren egoerari buruzko informazioa.

Baina arrazoi guztiak ez dira izaten, zentzu hertsian, ekonomikoak, eta elkarrizketatu ditugun emakume askok esan digute beste gizarte batera joateko arrazoiak ekonomikoak eta sozialak izan direla. Kasu askotan, migrazioaren azken xedeetako bat izaten da gizarte-arreta hobea jasotzea; hau da, jatorriko herrialdekoak baino kalitate handiagoko eta kostu apalagoko gizarte-zerbitzuak jasotzea. Horien artean daude, esaterako, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak. Agerikoa denez, faktore sozial horiek berekin dakarte, modu inplizitu, osagai ekonomikoa. Alde horretatik, emakume immigranteentzat, balio handiko ezauzgarria da harrerako gizarte hezkuntza doakoa eta kalitatezkoa izatea. Derrigorrezko hezkuntzari eta unibertsitate-ikasketei buruzko iritzi ona dute, zeharkako balio "ekonomikoa" dutelako; hau da, lagungarriak direlako enplegua lortzeko.

"Hemen guztiek dute hezkuntza doan, osasuna doan eta etxebizitza. Txilen ez, pobre jaiotzerok, harenak egin du" (1. profila: txiletarra).

"Jakin banekien hemen merke ikas daitekeela" (3. profila: Kamerun)

"Hemen merkeagoak dira ikasketak, masterra egiteko programa bat eta doktoretza egiteko programa batek %70eko edo handiagoko aldea du unibertsitate publikoan, eta pentsatu nuen, pixka bat lan eginez gero, ordaindu nezakeela; Txilen, irakasle baten soldatarekin doktoretza egiteko asmoa badut, alde batetik, ezingo dut ordaindu soldataren erdia baino gehiago behariko baitut hura ordaintzeko, eta, bestetik, ezingo ditut ordutegiak bateragarri egin, zortzietatik zortzietara lan egiten baita han." profila: Argentina).

"Ikasi eta lan egin dezakezu, eta ez da garestia" (7. profila: Txina)

Ama diren emakumeen kasuan, haien seme-alaben etorkizunari eta haiek jaso dezaketen hezkuntzari erreparatzen diote askotan, eta sarri adierazten dute zer-nolako onura kualitativoa dakarkien Euskadiko hezkuntza-sisteman matrikulatuta izateak, haien jatorriko herrialdean izango lituzketen aukera murriztuzkoan aldea.

"Nire seme-alabek heziketa ona izatea nahi nuen..." (8. profila: Nikaragua)

"Nire alabek ikastea nahi dut, eta ikasketa-maila handiagoa da hemen. Nire alabak dira hemen finkatzeko arrazoi sendoenetako bat" (5. profila: Sahara).

Osasun-zerbitzuei erreparatuta, emakume immigranteek sarritan aipatzen dute gurean dugun ongizate-estatuak onura eta abantaila ugari dakarzkiela gizabanakoei; hala, askotan egiten dituzte konparazioak beste herrialde batzuekin, adierazteko osasun-zerbitzuak pribatizatu egin direla herrialde askotan eta dirudunek soilik balia dezaketela osasun-sistema. Azken kasu horien aldean, balio handia ematen diote EAEn osasun-sistema pertsona guztien eskura izateari. Batik bat, helmugako herrialdera iritsi ondoren baloratzen da faktore hori, baina, zenbaitetan, EAE helmugatzat hartzeko arrazoien artean aipatzen da.

“Nire herrian, dirudik ez baduzu, ezin zara medikuarengana joan, eta ospitaleratu behar baino bazaude, ordaindu egin behar duzu ospitaleko gela. Han garestia eta hobea da, baina bada han dirurik izan ez eta hil egiten den jenderik” (3. profila: Nigeria).

“Ni AEBtatik nentorren, eta han ez nuen medikuarengana joateko aukerarik izan. Han jendeak ez du osasun-eskubiderik, eta ikusi nuenean hemen zer-nolako abantailak zeuden, aukera horri erreparatu nion” (8. profila: Nikaragua).

Berariaz, Afrikatik etorritako emakume batzuek adierazi digute genero-diskriminazioko egoerak bizi izan dituztela haien herrialdeetako osasun-sisteman, emakume “histerikoen” edo bigarren mailako herritarren moduan tratatuak izan direlako, eta osasun-zerbitzuak eskuratze-ko aukerak itxi dizkietelako. Horrez gainera, osasun-zerbitzuak garestiak direnez eta emakume askok diru-sarrerara propiorik ez dutenez, ez dute osasun-zerbitzuak erabiltzeko aukera handirik izaten.

“Emakumea baldin bazara, ahula zarela esaten dute eta asmatzen ari zarela. Umea izatear bazaude soilik egiten dizute kasu, arretarik ezean hil egin baitzintezke” (3. profila: Burkina Faso)

“Aitari edo senarrari galdetu behar diozu medikuarengana joateko, han medikuak garesti dira eta galdetzen dizute zergatik zuk ez duzun dirurik. Batzuetan uste dute itxurak egiten ari zarela eta ez dizute ematen (3. profila: Nigeria)

“Emakumeak ez gaixotzen, gizonak bakarrik. Emakumeak ez dira medikuarengana joaten.” (3. profila: Burkina Faso)

Ildo horretan bertan, bada emigrazioa bultzatzen duen beste faktore bat: herritarren segurtasunik eza. Elkarrizketatu ditugun emakume batzuek garrantzi handia ematen diote herritarren segurtasunari, eta horregatik saiatu dira gizarte-ingurune *lasaiagoa* topatzen, beste herri batean. Askotan entzuten da arriskutsua zitzaiela gauean irtetea eta maiz konparatzen dute emakumeek jatorriko herrialdean eta herrialde hartzailean duten askatasunaren arteko diferentziak. Izan ere, elkarrizketa bat baino gehiagotan adierazi dute emakumeek haien jatorriko herrialdean pertsonen askatasunak ez direla euskal gizartean direnen modukoak.

“Joan ginenean (bere jatorriko herrialdera) segurtasun falta ikaragarria zegoen... eta hemen lasai ibiltzen zara, han autobusean sartzen bazara, segituan jarriko zaizu aldamenean neskato bat eta aizto bat aterako dizu, gainean daukazuna kendu eta haren poltsan sartzeko esanez” (2. profila: Kolonia).

“Hau leku seguruagoa da eta neuk ere ondo bizi nahi dut, eta nire familia ondo bizitzea.”

“Han, Marokon, ez dago segurtasunik” (5. profila: Maroko)

“Han hil egin zaitzakete, ez nuen hori gertatzerik nahi” (4. profila: Senegal)

“Familiarekin hitz egiten dut batzuetan eta harrigarri egiten zaie poliziak zu babestea –gure herrian ez baita halakorik gertatzen–. Hemen seguru sentitzen naiz” (6. profila: Errumania)

Elkarrizketatutako emakume batzuek adierazi dute sistema politikoak ez duela gardentasunik beren jatorriko herrialdean eta ohikoak izaten direla faborezko tratatuak. Gainera, ustelkeria egiturazkoa eta sistematikoa dela esaten dute, eta eragina izaten duela laneratze-prozesuetan. Jendeak gero eta atxikimendu gutxiago dio politikari gure gizartean, baina elkarrizketatu ditugun emakume batzuek esan digute hori izan dela haien jatorriko herrial-

detik kanporako migrazio-proiektu bat abiatzeko arrazoi giltzarria. Politikarekiko gaitzespen hori argi eta garbi ikusten da elkarrizketa batzuetan, behin baino gehiagotan aipatu baituzte ustelkeria, faboritismoa, bezerokeria eta herriarekiko mespretxua. Sistema politikoaren faktore eta ezaugarri horiek guztiek okertu egiten dituzte pertsonen bizi-baldintzak eta ziurgabetasuna eragiten die zenbait emakumeri. Horren ondorioz, haien ustez sistema politiko garbiagoa duen herrialde batera emigratzea erabakitzen dute emakume horietako batzuk.

“Ez zegoen besterik, ez zegoen lan-eskaintzarik, kargu onak haien artean banatu zituzten eta lankidetzat atzera egiten ari zen” (8. profila: Nikaragua)

“Nire gobernuak ez da hemengoa bezalako, zerbait egin nahi badizute egin egiten dizute, ez dute aitzakia bila ibili beharrik. Haientzat da dirua, aberatsak dira, eta gainerakoak pobreak.” (3. profila: Kamerun)

“Ustelkeriarengatik joan nintzen, ez nintzelako fidatzen, jasangaitza zitzaidan nirekin nahi zutena egitea, horrek segurtasun gabezia eragiten dit. Hemen ere ikusten da horrelakorik, baina ez da hainbestekoa, diferentea da.” (8. profila: Nikaragua)

“Nire herrian ez dizute kargu bat ematen balio duzulako, harremanak dituzulako baizik (8. profila: Nikaragua).

“Erizaina nintzen eta, zenbaitetan, politikarekin egiten nuen topo: gobernu-aldaketa bat ematen zenean, konpromisoak bete behar izaten zituzten, eta langile batzuk ateratzen zituzten beren alderdikoak sartzeko” (8. profila: eztabaida-taldea)

Emigratzeko erabakia hartzeko beste arrazoietako bat etorkizunean argirik ez ikustea da; izan ere, elkarrizketatu ditugun emakume batzuek esan digute hura izan zela, emigratzea, aurrera egiteko aukera bakarra, ez baitzuten aurrerabiderik ikusten beren herrialdearentzat. Mesfidantza hori handiagoa edo txikiagoa izan daiteke, baina elkarrizketatutako emakume guztiak bat etorri dira esatean esperantza edo itxaropen falta izan zela emigratzeko erabakia hartzeko arrazoietako bat.

“Baina, han geratzen bazara -Nikaraguan- argi dago bizirauteko geratzen zarela, eta jateko soilik. Ezin diozu gehiago eskatu etorkizunari” (8. profila: Nikaragua)

“Errumaniar ez dago etorkizunik, ez dago lanik inorentzat.” (6. profila: Errumania)

“Ez nuen etorkizunik Senegalen, ez nuen nire burua han ikusten etorkizun batean” (3. profila: Senegal)

“Han geratzen banaiz beti izango da berdin, beti beldurrez eta lanik gabe. Gauzak ez dira aldatuko, han dena beti gaizki dagoelako etorri ginen hona.” (3. profila: Ghana)

Emigratzeko erabakia hartzen dutenen artean, ama izateak ala ez izateak diferentziak dakartza haien pentsamoldean. Amak diren emakumeentzat garrantzi handikoa da etorkizunarekiko itxaropen falta emigratzeko erabakian, haien seme-alaben geroa baitute gogoan. Ama gehienek balioetsi egiten dute beren seme-alabek EAEn eskura dezaketen hezkuntza eta izan dezaketen askatasuna, nekez izango bailituzkete haien jatorriko herrialdean.

“Nire seme-alaben etorkizunagatik erabaki nuen emigratzea” (2. profila: Kolonbia)

“Egoera ikusita hartu nuen erabakia, aurrera egin dezan (haren alabak), esan nuen hau da soluzioa, esan nuen hemendik alde egin behar dut, ikasteko aukera izan dezan, han geratuz gero ez bailuke ikasteko aukerarik izango.” (8. profila: Paraguai)

Jakin-minak ere badu eraginik beste herrialdera joateko erabakia hartzeko garaian; izan ere, emakume batzuek esan digute jakin-mina izan zela emigratzeko izan zuten arrazoi nagusia. Hala ere, aurrez adierazi dugun moduan, beti izaten dira, eragin handiagoz edo txikiagoz, arrazoi ekonomikoak ere. Emakumeen egoera ekonomikoak duen garrantzi nabarmena alde batera utzita, kultura berriak ezagutzeko jakin-mina sortu zitzaizen elkarrizketatutako emaku-

me batzuei, eta, ondorioz, emigratzeko aukeran pentsatzen hasi ziren. Horrenbestez, beren herrialdeetatik irteteko arrazoi ezkutuetako bat izan zen "emigratzeko harra".

"Egoera zertxobait hobetzeko ere bai, diru pixkatxo bat biltzeko...; baina gehiago niregatik, irten egin nahi nuelako egin nuen, 20 urteak iristen dituzunean zeure buruari esaten diozu 'hermendik irten nahi dut beste leku batzuk ezagutzeko'" (8. profila: Paraguai)

"Abenturazalea naiz, irten egin nahi nuen" (2. profila: eztabaida-taldea)

"Bizitzera etorri nintzen Euskadira, probatzera" (1. profila: Argentina)

"Europa eta Espainia nolakoak ziren jakin nahi nuen. Gustatzen zait eta ikusi nahi nuen (7. profila: Txina).

"Ez nintzen diru irabazteko bakarrik etorri, beste kultura bat ere ezagutu nahi nuen" (3. profila: Nigeria)

"Jakin-minak eraginda pentsatu nuen Txinatik irtetea, Bartzelonako Olinpiar Jokoak ziren 92an, eta ikasturtea amaitu zenean amaren lagun batek esan zidan, nahi izanez gero, kontratatuko zidala, eta baietz esan nuen" (7. profila: Txina).

"Beste mundu bat, beste gauza bat, beste kultura bat ezagutzearekin amesten nuen... Senegalen giltzapetuta nengoela sentitzen nuen" (3. profila: Senegal)

Beste kultura batzuk ezagutzea eta norberaren kulturakoak ez diren bizipen soziokulturalak bizitzea nahikoa arrazoi izan ziren emakume batzuentzat ordura arte zuten bizitza atzean utzi eta beste gizarte batean bizitzeari ekiteko. Ilusioa sortzen du kulturekiko jakin-minak. Jakin-minaz gain, norberaren kultura aberastea garrantzi handiko arrazoia da emakume hauentzat; izan ere, emakume horietako batzuek proiektu bati ekin diote haiena ez den herrialde batean, lehendik zeukaten prestakuntza osatzeko. Itxura batean, arrakasta pertsonala izateko eta lana aurkitzeko bermea da hezkuntza *europarra*. Europako herrialdeetan eskuratutako tituluek balio handia dute lan-merkatuan, eta ez da ahaztu behar, gainera, lan-merkatu horrek emakumeak diskriminatzen dituela sarritan. Hori jakinda, elkarrizketatu ditugun emakume batzuek uste dute atzerrian prestakuntza jasotzeko ahaleginak onura ekarriko diela lan bat aurkitzeko garaian, baldin eta beren jatorriko herrialdera bueltatzen badira. Maila pertsonalari erreparatuta, garapen intelektualerako abagune paregabea da, eta, gainera, luzatu egiten da ikasketa-garaia; izan ere, emakume hauetako batzuen jatorriko herrialdeetan gazte uzten diote emakumeek ikasteari, ezkondu egin behar dutelako edo seme-alabak izaten dituztelako.

"Han ezkondu beharra nuen, eta, ezkontzen bazara, ez duzu ikasten, eta kanpora joan nintzen ikastera." (3. profila: Nigeria)

"Europara joateko ametsari jarraitzeko erabaki nuen Kamerundik irtetea, baita nire maila intelektuala handitzeko ere (3. profila: Kamerun).

"Aljerian ere ikasten dute (emakumeek), baina mugak dituzte." (4. profila: Aljeria)

"Eten bat egin nuen nire bizitzan, atzera begiratu nuen eta ikusi nuen lana besterik ez nuela egin [...] beste bizitza bat bizi nahi nuen, gauza gehiago ezagutu eta gehiago ikasi." (1. profila: Argentina)

Hezkuntzarekin lotutako arrazoiengatik emigratu dutela dioten emakumeek nolabaiteko miresmen bat diote EAEko hezkuntza-sistemari, eta zinez uste dute beraien seme-alabek hemen jaso dezaketan heziketak etorkizun hobea bermatuko diela geroan. Familia berrelkartzeko asmoa izaten da elkarrizketatu ditugun emakume batzuek adierazi diguten arrazoietako bat. Horrenbestez, harrerako herrialdera iristean, neba-arrebekin jartzen dira bizitzaren askotan eta, ia beti, bikote-bizitzari berrekiten diote. Azken kasu horretan, senarra izan liteke migrazio-proiektuari ekin diona edo, beste askotan, emakumea izaten da jatorriko herrialdeetik lehendabizi irten zena. Batak zein besteak bere egoera administratiboa legez-tatzen duenean, seme-alabekin berrelkartzea izaten da hurrengo urratsa. Arrakasta baten

ondoren dator berrelkartzea, hau da, harrerako herrialdean legez finkatu ondoren; hala, lehendabizi irten zen ezkontidea edo senar-emazteak legez bizitzen jartzen direnean harrerako herrialdean. Izan ere, lan- eta egoitza-baimenak lortzen dituztenean, haien ondorengok ekartzen dituzte ia beti.

"Ahizpa hemen nuelako erabaki nuen etortzea" (1. profila: Txile)

"Senarrarekin lortu nituen paperak. Ni baino lehen etorri zenez, familia berrelkartu genuen, eta orain banandu garen honetan, neuk nire paperak ditut (3. profila: Senegal)

"Nire senarra hemen zegoenez, ez nuen han bakarrik geratu nahi eta harekin etorri nintzen" (3. profila: Burkina Faso).

"Bai, senarra bakarrik etorri lehenik eta orain (paperak lortzean) seme-alabak ekarriko ditugu" (4. profila: Senegal)

"Nire senarra bakarrik lehenik eta orain seme-alaben bila noa nire herrira" (4. profila: Nigeria).

Beste alderdi bati helduz, aipatzekoa da emakumeak autonomia-prozesu bat bizi ohi duela harrerako herrialdean, eta horrek indartu eta berrelikatu egiten du emigratzeko erabakia. Immigratu duen emakumeak beste modu batera ikusten du bere burua (liberatuago, helburu gehiagorekin eta rol tradizionalatik harago doan gizarte-eginkizun batekin), eta hori beste arrazoi bat izaten da bizilekua aldatu eta jatorriko herrialdekoa baino gizarte irekiago batean bizitzen jarraitzeko. Emakume atzerritar immigranteek adierazten dute miretsi egiten dutela bertako emakumeek Euskadin eta/edo Espainian duten egitekoa eta, noizbait, idealizatu ere egiten dute rol edo paper hori. Hala, goraiatu egiten dituzte bertako emakumeen eskubideak eta etxeko nahiz etxetik kanpoko lanen banaketa, teoriarik, berdintasunezkoa.

"Nire etxean, emakumeek baino eskubide gehiago dituzte gizonak. Eskubide berak dituzte hemen emakumeek eta gizonak. Denak berdinak dira hemen. Emakume naizen aldetik, libreago sentitzen naiz hemen nire herrian baino" (3. profila: Nigeria)

"Oso gogorra da bizitza emakumeentzat Errumanian, ez da hemen bezain libre" (6. profila: Errumania)

Autonomia pertsonala handitzeko aukera gisa ikusten dute emakume batzuek migrazio-prozesua, eta horrek nabarmen hobetzen du hautematen duten bizi-kalitatea. Iruditzen zaie migrazioa dela autonomia izateko modu bakarra, bikotekidearen edo aitaren mende ez izateko bidea, edo haiek, jatorriko kulturen oinarrituta, ezartzen dituzten kontrol-neurriak itzuri egiteko modua. Ama hiltzen denean, beren gain hartzen dute emakume askok ugaltze-lanaren zama, baina, kasu askotan, ez dute bakarrik aurre egin nahi izaten zama horri.

"(Ez bazaude ezkontuta), ezin duzu logela bat alokatu edo bestelakorik egin, ezin duzu ezertxo ere egin. Gure ohiturek esaten dute gurasoen etxean geratu behar duzula, baldin eta ez bazaude ezkontuta edo dibortziatua eta seme-alabarik gabe bazaude." (5. profila: Maroko)

"Ama hil zitzaigunean, ni nintzen anai guztien ama, nik egiten nuen den-dena." (3. profila: Kamerun)

Azkenik, tratu txarrak izan dira elkarrizketatu ditugun emakume batzuek izan duten arrazoia beste herrialde batera joateko. Kasu batzuetan, biktima zuzenak izan ziren, eta beste batzuetan, berriz, seme-alaben kontra edo gurasoen kontra baliatutako indarkeriaren lekuko izan ziren. Kasu batzuetan tratu txar fisikoak izan ziren, tratu txar psikologikoak kasu guztietan, eta tratu txar soziala gehienetan. Tratu txarren azken mota horri dagokionez, askotan ez zaie emakumeei etxetik irteten uzten, gizonekin harremanak izaten edo lagun-talde bat izaten, hau da, ez diete egiten uzten ugaltze-lana oztopatu edo eragotziko duen ezer. Kasu batzuetan, errealitate edo egoera bortitz hori funtsezko arrazoi bat izaten da beste herri batera joateko beste aukera baten bila, bai eraso fisikoak jasateko beldur direlako, bai beren jato-

rriko herrialdean geratuz gero haien seme-alabei zerbait gerta dakiekeelako. Emakume afrikarrak dira, itxura batean, tratu txarrak gehien pairatzen dituztenak.

“Hiri batean bizi nintzen, nire aitaren anaiarekin, eta tratu txarra ematen zidan” (3. profila: Nigeria)

“Gizonak oso matxistak dira han [...] ezin etxetik irten eta haiek esandakoa egin behar. Gizonak jo egiten du [...]” (3. profila: Nigeria)

“Ez zaizkit istiluak gustatzen eta horregatik alde egin nuen. Istilu asko genituen etxean... [...] Aitak jo egiten zituen bere emazteak.” (3. profila: Nigeria).

“Afrikan aitek jo egiten dituzte semeak, egoistak dira. Lanerako nahi dituzte seme-alabak, eta nik ez nuen horrelakorik nahi.” (3. profila: Nigeria)

“Eroso ez, baina hango ohitura da, etxean izaten nintzen deseroso beti zegoelako istiluren bat eta ez zaizkit borrokak gustatzen” (3. profila: Nigeria)

Tratu txarrak pairatu ondoren edo haiek gertutik ikusi ondoren, bizimodua errotik aldatzeko gogoia piztu zitzaion, eta haientzat mesedegarriagoa eta aberasgarriagoa izango zen bizipen bati ekiteko arrazoi nagusietako bat bilakatu zen tratu txarrena.

Faktore guztiak aztertu ondoren, ikusten dugu bost faktore-multzo handi egin ditzakegula, eta faktore horiek elkarrekiko lotura handia dutela: egoera ekonomikoarekin eta/edo lanarekin lotutako faktoreak, bizi-kalitatearekin lotutakoak (hezkuntza/osasuna), jakin-min kulturala eta soziala, familia-egoerarekin lotutako faktoreak, eta jatorriko herrialdearen ezegonkortasuna edo segurtasunik eza. Konklusio edo ondorio interesgarriena da sarritan ez dela arrazoi bakar bat izaten migratzeko erabakiaren atzean; izan ere, arrazoi horiek guztiak edo horietako batzuk konbinatzen dira erabaki hori hartzeko. Emigratzeko erabakia ez da hartzen faktore baten edo bestearen ondorioz; aitzitik, elkarri lotutako irudi eta beharrianen multzo bat izaten da erabaki horren atzean. Horiek guztiek aurreikuspen batzuk sorrarazten dituzte, migrazio-proiektua egiteko unean bertan eskuratu edo gerora lortu nahi izaten direnak. Hori horrela izanda ere, ezin dugu ahaztu arrazoi ekonomikoa izaten dela lotura edo elkarre-ragin hori gidatzen edo itsasten duena; izan ere, hezkuntza eta osasun onaren bidez hobetu nahi badu emakume batek bere bizi-kalitatea, lan on bat izateko asmoa izango du era berean, bai egoera ekonomiko on bat izateko, bai bere familia aurrera ateratzeko. Eta horrez gainera, noski, jatorriko herrian bizi den ezegonkortasunetik eta segurtasun gabeziatik urrun eramane nahiko du bere familia.

AURREIKUSPENAK

6.1.2

Pertsona batek bere jatorriko herria utzi aurretik buruan dituen argi eta itzalaren jokoak bultzatzen edo eragiten du emigrazioa. Elkarrizketatutako emakumeek adierazten dutenari erreparatuta, ikusten dugu ez direla beti betetzen migratze-proiektuari ekin aurretik zituzten aurreikuspenak. Hasierako aurreikuspenak egiten badira prozesuari ekitean, ikusi beharrekoa da, amaieran, zer desira eta plan geratzen diren bete gabe. Sarritan, hainbat sentimendu kateatzen dira emakume horiengan, kezkatik pozeraino doazenak. Bizitza hobea lortzeko itxaropena sentitu ohi dute, baita porrot egiteko beldurra ere, eta, sarri, haien jatorriko herrialdeetan “galtzekorik ezer ez izatearen” sentimenduak bultzatzen ditu.

“Berdin zitzaidan, beldur nintzen, baina ez nuen ezertxo ere” (4. profila: Senegal)

“Oso pozik nengoen, uste nuen dena egin nezakeela eta asko hobetuko nuela” (8. profila: eztabaida-taldea)

"Hona iritsi nintzenez, bizimodua ez zen batere erraza eta asko damutu nintzen. Eta nire ahizpei esaten nien ea zer egin behar zuten, eta asko damutu nahiz eta negar asko egin dut, gauzak ez dira han jendeak esaten dituen bezain errazak, jendeak gauza asko esaten baititu, eta zuk uste duzu kalean bertan topatuko duzula dirua, eta hori ez da horrela" (3. profila: Nigeria)

Ikusten dugun moduan, emakumeek uste dute, migrazio-proiektuari ekin baino lehen, ez dutela ezer galtzekorik. Baina helmugako herrialdeko errealitatean murgiltzean, ikusten da, alde batetik, apaldu egiten zaiela hasierako poz hori eta, bestetik, errealitate horretara egokitu behar izaten dituztela beren aurreikuspenak. Aurreikuspen horiek ekonomikoak dira batik bat, baina, aurreko atalean esan dugun moduan, badira gizarte-izaerako aurreikuspenak ere. Gehien errepikatzen den ideietako bat da lana azkar lortuko dutela, soldata egokiak eskuratzeko. Hori horrela izanda ere, bada hona etorri aurretik non lan egin beharko duen dakien talderik. Izan ere, etorri berriak diren emakume latinoamerikarrek badakite etxerbitzuaren alorrean lan egin beharko dutela, eta, sarri, haien prestakuntzaren eta kualifikazioaren azpitik dauden lanak egin beharko dituztela. Onartu egiten dute egoera hori, dirua azkar irabazteko modu bat den aldetik. Bestalde, prestakuntza handia duten emakume afrikarrek eta hemen aspalditik dauden emakume latinoamerikarrek enplegu edo lan hobeak lortu nahi izaten dituzte, haien prestakuntzari hobeto egokituko direnak eta soldata handiagoak emango dizkietenak.

"Lana zegoela uste nuen, lana lortzea errazagoa zela" (3. profila: Kamerun)

"Hemen arazo gutxiago izango nituela uste nuen, lana izango nuela" (4. profila: Aljeria)

"Banekien etxeetan lan egin beharko nuela, ondo egiten da lan, baina uste nuen iritsi eta azkar topatuko nuela lana" (8. profila: Paraguai)

Migrazio-prozesuari ekitean norberak dituen aurreikuspenek eragin handia dute prozesu horretan sortzen diren sentimenduetan; hala, arrakastaren sententzia eta poztasun-sentimenduak izan ditzakete emakume batzuek, eta beste askok, berriz, porrotaren eta frustrazioaren sentimenduak bizitzen dituzte.

HELMUGA EDO DESTINOA


6.1.3

Jakin dugu zergatik irteten diren emakumeak beren jatorriko herrialdetik, baina, nola auke-ratzen dute zer herrira joango diren. Zergatik erabakitzen dute Euskadira etortzea eta ez beste norabaitera? Ez da erraza izaten norbera nora joango den erabakitzea, alderdi askori begiratu behar baitaie erabaki hori hartu aurretik; esaterako, alderdi ekonomikoei, gizarte-alderdiei, norberak alde aurretik dituen ideiei edo beste emigrante batzuek emandako informazioari. Faktore horiek guztiak aintzat hartu ondoren, lurralde jakin batean ezartzea erabakitzen dute emigranteek, baina, zenbaitetan, lurralde horrek ez ditu betetzen emakumeek zituzten aurreikuspenak. Hiru galdera hauei erantzutea dagokizu, beraz: Zergatik Euskadi? Zergatik Espainia? Zergatik Europa?

Adierazi dugun moduan, faktore bati baino gehiagori erreparatzen zaio nora joan erabakitzeke, baina erantzun bakar bat nahikoa izan daiteke, laburpen moduan, lehen bi galderei erantzuteko: nora joan erabakitzen da alde aurretik begiratuta emigranteak non izan ditza-keen gizarte-sareak, handiak nahiz txikiak, lehendik migrazioaren bidea jorratu duten pertsonen osatuak. Nolabaiteko lotura bat izaten da batzuen zein besteen artean. Bizilekua Euskadin finkatu duten emakume atzerritar immigrante askok senideez edo haien herriko

pertsonez osatutako sareak zituzten hemen, eta haien bidez izan dute Euskadiren egokitasunaren berri. Hirugarren galderari erantzuteko, berriz, nazioartean Europari buruz dagoen irudi utopikoa nabarmendu behar dugu. Egiten diren hautuak ez dira independenteak, elkarren mendekoak baizik; hala, Europari buruz dagoen irudiak eragina du Espainia hautatzeko garaian, eta Espainiari buruzko irudiak Euskadi aukeratzeko garaian. Zehatz ditzagun, dena den, harreman edo lotura horiek.

6.1. ESKEMA Helmuga edo destinoa aukeratzeko irizpide nagusiak



Iturria: Egileek egina

Europa

Elkarrizketatu ditugun emakume gehienek idealizatu egiten dute Europa, lurralde utopikoa eta idilikoa dela uste duten aldetik. Gizarte edo lurralde aberatsa dela diote, gizarte-eskubide ugari aitortzen dituen, askatasunak bermatzen dituen (askatasun kolektiboak, pertsonalak eta, nola ez, emakumeenak bereziki), hezkuntza-maila altukoa eta segurua. Ezaugarri horien guztien ondorioz, leku paregabea da Europa haientzat, migrazio-proiektuan dituzten asmo soziokultural guztiak gauzatzeko egokiena. Europari buruz galdetzen zaienean, Ingalaterrari, Frantziari, Alemaniari eta, sarri, Espainiari buruzko irudi idealizatu bat ageri dute emakume immigranteek.

Elkarrizketatu ditugun emakume batzuek, eta, bereziki, emakume afrikar eta latinoamerikar batzuek, "amets europarrak" hitz egiten digute beren migrazio-proiektuari buruz hitz egitean. Izan ere, komunikabideetan ikusten dutena edo lehendik etorritako emigranteek esan dietena aintzat hartuta, uste dute aukerez eta eskubidez betetako bizitza segurua izango dutela hemen. Askatasuna eta bizi-kalitatea da Europa, asko bizi eta ikasteko lekua. Autore eta literatura-idazle gehien eman dituen kultura-eremua da, maila intelektual handiena bermatzen duena. Alabaina, errealitatearen eraketa ideala eta partziala da hori. Hala aitortu digute, gerora, Europara bizitzera etorri diren emakume askok.

"Europara joateko ametsari ekiteko erabaki nuen Kamerundik joatea, baita nire maila intelektuala hobetzeko ere" [...] Neuk ere bizi nahi nuen amets europarra [...]. Duzun guztia bertan behera uztera eramaten zaitu amets europarrak" (3. profila: Kamerun)

"Autore europarrak irakurri ditugu beti unibertitatean eta beti geratzen zaizu Europara joateko har hori" (1. profila: Argentina)

"Europa irudikatzen duzunean, askatasuna eta bizi-kalitatea irudikatzen dituzu. [...] Jendeak asko ikasten du eta oso ondo bizi da han." (8. profila: eztabaida-taldea)

Ongizate Estatu sendo batez gozatzeko ilusioa izaten dute emigranteek, nahiz eta, batik bat emakumeek, egiaz dena baino irudi hobea izaten duten buruan. Horregatik aukeratzeko dute

emakume horiek Europa beren migrazio-proiektuaren helmuga edo destino gisa. Beste irizpide batzuk erabiltzen dira Europako zer herrialde zehatzera joango diren erabakitzeke, eta aurreraxeago azalduko ditugu. Hala ere, agerikoa da Europara etortzeko erabakiaren atzean lurralde horren irudi idealizatu bat dagoela, komunikabideek, zinemak eta bestelako kultura-adierazpenek lurralde emankorra, libre eta berdintasunaren zalea dela erakusten baitute. Azken finean, zibilizazioaren sorterrria da Europa, emankortasunaren, segurtasunaren, askatasunaren eta berdintasunaren lurraldea, nahiz eta, Europara etorri ondoren, bete gabeko ametsaren gizarte-eremua bihur daitekeen.

Espainia

Europaren baitan, herrialde erakargarria da Espainia emakume immigranteentzat, hainbat arrazoi direla medio. Krisi-garaiak izan arren, lurralde emankorraren irudia du oraindik Espainiak, eta emakume askok uste dute lan-aukera ugari izango dituztela Espainiara etorri gero.

"Hemen (Espainiaz ari da) lan gehiago dago" (4. profila: Senegal)

"Lana eta dirua daude Espainian" (8. profila: Paraguai)

Espainiaren kasu zehatzean, Ongizate Estatuaren funtsezko bi alderdi unibertsal nabarmentzen dituzte emakume immigranteek, osasuna eta hezkuntza, eta, jakin badakigu helmugako herrialdea erabakitzeke arrazoietakoa bat izaten direla. Lehen azaldu dugun moduan, bi alderdi horiei buruzko irudi ona izaten dute emakumeek haien jatorriko herrialdean, eta Espainian finkatzen direnean egiaztatu egiten dutenez irudi on hori, finkatu egiten da helmugako herrialde gisa duen irudi ona. Ez dakigu erabateko ziurtasunez ea faktore horrek jatorriko herrialdean duen eragina ala emakumeak Espainian finkatzen direnean indartzen ote den irudi hori, baina emakume guztiek aipatzen dituzte bata zein bestea, eta eskubide unibertsal moduan ikusten dituzte.

'Han, gaixotzen zarenean, ordaindu egin behar duzu senda zaitzaten, baina hemen, gaixotuz gero, ospitalera joan eta doan sendatuko zaituzte' (3. profila: Kamerun)

Kasu batzuetan, hizkuntza faktore erabakigarria da Espainia aukeratzeko. Enplegua bilatzeko eta gizartearen integrazteko oztopo ugari ezabatzen ditu hizkuntza konpartitzeak. Beste emakume batzuek, berriz, Espainia eta beren herrialdea gertu daudela nabarmentzen dute. Agerikoa denez, ezin dira bi arrazoiak parekatu, herrialde bat, Espainiatik gertu izan arren, urrun izan daiteke ikuspegi kultural batetik, eta alderantziz. Gertutasun edo parekotasun kulturalak nabarmen laguntzen dio gizarteratzeari, baina gertutasun geografikoa ez da beti izaten lagungarria prozesu horretan. Esaterako, askoz ere errazagoa da emakume latinoamerikarrentzat Euskadin laneratu eta gizarteratzea, emakume afrikarrentzat baino. Eta, alde horretatik, ez dago alde handirik Afrika iparraldeko nahiz Sahara azpiko emakumeen artean. Azterlan honetako lehen zatiko datuek adierazten dutenez, Afrikatik etorritako pertsonak, eta, bereziki, emakume afrikarrek, gabezia handiak dituzte bertako biztanleriak dituen eskakizunetara egokitzeko.

"Ez dakit alemanez hitz egiten, ez naiz Alemaniara joango ezingo dudalako jendearekin hitz egin" (8. profila: Nikaragua)

"Gertu dago eta familia bisitatzerako edo lanik topatzen ez duzunean buelta zaitetzeko" (4. profila: Senegal)

Herrialdean sartzeko erraztasunak dira emakume askok ematen duten arrazoietakoa bat. Sarritan alderatzen dituzte Frantziako eta AEBko legedien zorrotasuna, Espainiako legediarekiko. Espainiako legediak bi alderdi edo adar izan ditu orain artean: alde batetik, sartzen uzten zion *gogoko immigrazioari*, denbora batez iraunarazten zuen bere lurraldean, legez

kanpoko egoeran zeuden langileekin osatzeko lan-esparruko gabeziak, eta, azkenik, gehien interesatzen zitzaizkionak aukeratzen zituen. Era berean, luzatu egiten zuen laneratzeko edo gizarteratzeko zailtasun handienak zituzten immigranteen legez kanpoko egoera. Sarbide errazeko ate faltsua zen hura. Espainian sartzea erraza egin zaie emakumeei, atzerritarrak legez kanpoko egoeran edukiz eta, gerora, haien egoera legezatzeko prozesuen bidez antolatu baitira Espainian migrazio-fluxuak. Hori ikusita, *zirrikitu* handia ikusi dute hor emakume immigranteek, nahiz eta gerora, Espainian sartu ondoren, bizi izan dituzten beren migrazio-proiektua gauzatzeko zailtasunak.

“Oso erraz sartzen da hemen paperik gabe, ez da Frantzian bezala” (Perfil 3: Senegal)

“Errazagoa da, turista gisa sartzen gara guztiok.” (8. profila: Paraguai)

“Errazagoa delako hona etortzea. Bidaia oso garestia da eta maileguak bizkarrean dator norbera, baina deportatu egin zaitzakete mugan, baldin eta oso zorte txarra baduzu. Guk ez dugu bisarik behar sartzeko” (8. profila: eztabaida-taldea)

“Bestelako munduak, gauzak eta kulturak ikustea, Senegalen giltzapetuta sentitzen nintzen, errutina, ez zait gustatzen errutina, hona etortzea amesten nuen edo Amerikara joatea, ahizpa bizi den lekura, baina bisatua eskuratzea oso zaila zenez...” (3. profila: Senegal)

Baina ez da sartzeko erraztasuna elkarrizketatutako emakumeek balioesten duten alderdi bakarra. Emakume latinoamerikarrek Espainiara emigratzea lehenesten dute, Espainian sartzea nahiko erraza delako, Ameriketako Estatu Batuetara joateko zailtasunekin alderatuta. Arriskutsua da azken herrialde horretara joatea, ez dute han geratzeko aukera izango dutenaren bermerik eta, gainera, kontinentearen erdialdeko herriak igaro behar izaten dituzte lehendabizi. Gertutasunari erreparatuta, Ameriketako Estatu Batuak eskuragarriago dituzte emakume latinoamerikarrek Espainia baino, baina herrialde hartan legez sartzeko bideak zailak eta luzeak dira eta, legez kanpokoak, berriz, oso arriskutsuak, gero eta gehiago, batik bat emakumeentzat.

“Hona seguruago iristen da norbera bidaien kontuagatik, AEBra joateko bisak behar dituzu eta nekez ematen dizkizute, eta legez kanpo joanez gero, basamortua igaro behar duzu, gehiago ordaindu eta arrisku handiagoak pairatu” (8. profila: Paraguai)

“Eta batek baino gehiagok segurtasun-arrazoiengatik egiten du, hemen seguruago sartzen baitzara, eta AEBra sartu nahi baduzu, bisa eskatu behar duzu eta ezetsi egingo dizute, 200 dolar inguru ordaindu eta ukatu egiten dizute, eta ukatu ondoren galdu egiten duzu hori. Eta Espainiara etortzea erabakitzen du norberak seguruago datorrelako, AEBra joateko legez kanpo joan behar duzulako, desertutik igaroz eta bortxatua izateko edo eraila izateko arrisku handiarekin. Eta emakumea bazara, zailagoa duzu...” (8. profila: Nikaragua)

“Bai, senarra legez kanpo sartzen saiatu zen eta akabatu egin zuten ia, basamortuan abandonatu zuten ia...” (8. profila: eztabaida-taldea)

Lapurreten, bortxaketen eta, txarrean, heriotzaren arriskuak bizi behar direnez hara joateko, sarbide seguruko lekua da Espainia, hegazkin-txartel bat baino ez baitute behar immigranteek. Txartelak garestiak dira, baina ia segurua da sartzeko aukera, bidea ez da arriskutsua eta ez da konpondu ezinezko arriskurik suertatzen. Horrek guztiak nolabaiteko lasaitasuna ematen die elkarrizketatutako emakumeei, eta *legez kanpo* bidaiatzeak dakarren urduritasuna eta izua ezabatzen dizkie. Europako beste herrialde batzuk ere, Frantzia edo Alemania esaterako, erakargarriak dira immigranteentzat, baina migrazio-legedi zorrotzak dituztenez, arriskuak hartu behar dituzte beren gain, herrialde horietatik kanporatuak izan baitaitezke. Egoera horrek etengabeko kezka eta antsietatea eragiten die. Migrazioak fronteran kontrolatzeko moduaren zorrotzasuna da emakume immigranteek aintzat hartzen duten arrazoietako bat Espainia helmugako herrialde gisa aukeratzeko garaian. Alde horretatik, kontuan izan behar da elkarrizketatu ditugun emakume gehienak turista moduan sartu

direla Espainian beren jatorriko herrialdetik eta gerora legeztatu dutela beren egoera, erro-
tze sozialaren prozedura baliatuz kasu askotan.

Hala ere, Espainia helmugako herrialde gisa aukeratzeko arrazoirik nabarmenena, aurrez
adierazi ditugun arrazoiaren gainetik, Espainian gizarte-sareak eta senideak izatea da elkarriz-
ketatu ditugun emakume ia guztien kasuan. Elkarrizketetan, emakumeek agerian uzten
dute aurrez senide edo ezagunak dituzten lekuetara joaten direla emakumeak, baldin eta
migrazio-proiektuaren hastapenetan laguntzeko prest baldin badaude.

“Ahizpa hemen nuelako erabaki nuen etortzea” (1. profila: Txile)

Kasu gehien gehienetan, gainera, ez dute sare hori dutelako hartzen emigratzeko erabakia;
aitzitik, sare hori bera izaten da immigrazio-prozesua bultzatzen duena, kontratazaileren
batekin hitzartu ohi baitute alde aurretik lan-beharrizan bat asetzeko modua. Jatorriko
herrialdeak herritarrak kanpora joatera behartzen dituelako ematen dira migrazio-prozesu
batzuk, baina askoz gehiago eta indartsuagoak dira helmugako herrialdeen deia erantzun-
ez abiatzen direnak. Horrenbestez, funtsezkoa da laguntza edo babes hori izatea migrazio-
prozesuaren hasieran. Gainera, helmugako herrialdean babes ematen duten pertsona
horiek gomendatu eta eskatu diete elkarrizketatutako emakumeei migrazio-prozesuari eki-
teko. Nora joan daitezkeen esaten diete eta haien erreferenteak izaten dira prozesuaren
lehen urratsetan. Immigranterako izangaien erreferentzia-taldea dira. Bada etorri aurretik
sararik ez zuen emakumerik ere, batik bat, Espainia ikasteko leku gisa hautatu duten ema-
kumeen artean. Hala ere, ez da hori egoera normalena.

Euskadi

Euskadi helmuga edo destino moduan aukeratzeko bi modu izaten dira. Emakume batzuek
zuzenean aukeratu dute Euskadi, eta beste batzuek, berriz, Espainia aukeratu dute
lehenik, eta, Espainiara iritsi ondoren, Euskadira etortzen dira, egoera ekonomiko hobea-
goan dagoela jakiten dutenean. Atal honetan, jatorriko herrialdean Euskadi helmuga gisa auke-
ratzen dituzten pertsonak aztertuko ditugu nagusiki, eta, “Euskadi orain” atalean, beste hel-
muga bat aukeratu eta gerora EAERA etortzera erabaki zuten pertsonen kasua aztertuko
dugu.

Espainiara etortzeko erabakiarekin gertatzen den moduan, harrerako lekuan dituzten kon-
taktuek eta sareek baldintzatzen dute Euskadira etortzeko erabakia. Kasu askotan, senide-
ek ematen dizkiete emakumeei migrazio-prozesuari ekiteko baliabideak eta informazioa;
izan ere, kontaktu horiek gabe, oso zaila izaten da informazio hori lortzea.

*“Lagun bat nuen hemen eta esan zidan lanik ez banuen etortzeko hona, eta hori izan zen hona
etortzeko arrazoi nagusia” (8. profila: Paraguai)*

*“Txilen ezagutu nituen Bilboko lagun batzuegatik erabaki nuen hona etortzea, haiek esan
zidaten, nahi baduzu etorri eta lagunduko dizugu” (1. profila: Txile)*

*“Lagun bat nuen hemen, lagun handia, lagundu egin zidana ondo hitz egiten ez nuelako” (3.
profila: Kamerun)*

*“Hemen bizi den jendeak kontaktzen zuen hemen Euskadin ez dela immigrazioaren jarraipen
handirik egiten, lan egiten uzten dutela eta hemen jendea, han jendeak esaten du espainia-
rrek harrokeriaz begiratzen dizutela eta hemen Euskadin jendeak gizatasun handiagoz begira-
tzen dizutela, eta gauza horiek hemen geratzeko erabakia hartzen laguntzen dizute. Eta nire
aberkide gehienak inguru honetan bizi dira, Donostia inguruan. Hona etortzen hasi ginen
Lasarteko pertsona bat jendea ekartzen hasi zelako, hark egiten zituen kontaktuak, oso fede-
onez jardun zuen, eta hark egiten zituen kontaktuak” (8. profila: eztabaida-taldea).*

Elkarrizketa batzuetan, Euskadi Espainiako leku emankorrenetako bat dela adierazten dute emakumeek. Elkarrizketatutako emakume batek baino gehiagok esan digute “Hemen lan gehiago dago”.

“Ezagun bat nuen hemen eta deika aritzen zitzaidan, hona etortzeko esaten zidan, Bilbo oso polita dela, lana dagoela, lan asko dagoela” (2. profila: Kolonbia)

“Espainiako onena izan da beti Euskadi, beti izan da lan asko hemen, laguntza asko, asko denetik, eta hemen gaizki bazaude, zergatik joango zara beste hiri batera” (6. profila: Errumania)

“Nikaraguar guztiak Euskadira etortzen dira, lana dagoela esaten da. Hemen beste lekuetan baino lan gehiago dagoela dakigu hangook” (8. profila: Nikaragua)

“Almerian lan egin zuen nire senarrak paperak lortu arte, gero hona etorri zen. Hemen lan on bat topa daitekeelako, Almerian soroko lanak bakarrik” (3. profila: Burkina Faso)

Alde horretatik, leku bereziki erakargarria da emakumeentzat. Lehen adierazi dugu askatasun eta berdintasun gehiago sumatzen dituztela hemen immigranteek, baina, horrez gain, emakumeek uste dute gizonek baino aukera gehiago dituztela Euskadin, batik bat zaintzalanen jardun-esparruan, “adineko jende gehiago dagoelako”.

“Bilbora etortzera bultzatzen ninduen arrazoietakoa bat zen hemen lan gehiago zegoela, aukera gehiago eta adineko jende gehiago dagoela” (8. profila: Nikaragua)

“Jakin banekien hemen aitona edo amona bat zaintzen lan egingo nuela, hori behar dute hemen (8. profila: Paraguai)

“Gizonek baino aukera gehiago dituzten hemen emakumeek. Gizonek ez dute lanik aurkitzen, emakumeek etxeetan edo jendea zaintzen lan egiten dute, baldin eta lanik badago” (8. profila: eztabaida-taldea).

“Lehen bikoteak etortzen ziren, baina gizonentzat lanik ez dagoela ikustean, aldatu egin da egoera. Emakumeak etortzen dira orain.” (8. profila: eztabaida-taldea)

“Gizonak baino hobeto daude emakumeak hemen, errazago lortzen dute lana” (3. profila: Kamerun)

Argitaratu berri diren azterlan batzuek adierazten duten moduan, mendebaldeko gizarteak azkar ari dira zahartzen, eta horrek mendetasun-tasa handia sortu du Euskadin. Pertsona immigrante gazteengana jotzen da, neurri batean, egoera horri aurre egiteko. Gure gizartean zaintzalanen eskari handia dago, kontuan izanda etxeko eginkizunen banaketa ez dela berdintasunezkoa sexuen artean eta gero eta emakume gehiago sartzen dela lanmerkatuan. Ekoizpen edo produktzio lanak eta ugaltze-lanak bateratzea ezinezkoa izaten denez, lanpostu ugari sortzen dira jardun-esparru horretan, eta emakume immigranteek betetzen dituzte, batik bat, lanpostu horiek. Enplegu-sektore horretako lanak ez dira beti behar bezala erregularizatuta edo legezko era baten egiten, eta, ondorioz, lan-aukera bat izaten dira lan-kontratuak izenpetu ezin dituzten emakumeentzat. Egoera administratiboa alde batera utzita, sektore horretan soilik izaten dira enpleguak emakume atzerritarrentzat. Hau da, kontuan izaten badugu emakume latinamerikarrak direla EAEn finkatuta dauden hamar pertsona atzerritarretik hiru, eta Latinoamerikatik ez datozen immigranteen artean gero eta gehiago direla emakumeak, erraz ulertuko dugu bertako jendeak emakume latinamerikarrak dituela gogoko eta zergatik azken horiek, oro har, gizonezkoek baino errazago lortzen duten lana, baita gizon latinamerikarren aurretik ere.

Migrazio-proiektua beren prestakuntzaren inguruan antolatzen duten emakumeen kasuan, garrantzi handia ematen diote Euskadin erraza izatea hezkuntza-sisteman sartzea, batik bat, unibertsitate-sisteman. Horrenbestez, Euskadik irudi ona du immigranteentzat, bai eskuragarritasunari dagokionez, bai bizi-mailari dagokionez.

“Hemen erraz hartzen zaituzte unibertsitatean, Madrilen baldintza gehiago bete behar nituen masterra egiteko” (3. profila: Kamerun)

“Hemen segurtasuna dugu, osasun-zerbitzuak, eskubideak errespetatzen dizkizute, ordainketak egiten dizkizute, bestelako baldintzak dira” (8. profila: eztabaida-taldea)

Finean, hainbat faktore lotzen dira elkarrekin helmugako herrialde bat erabakitzeko garaian, baina, kasu guztietan, aurrerabide bat duten gizarteak aukeratzen dituzte emakume immigranteek. Leku batera edo bestera joateko kontuan hartzen diren alderdi edo faktoreen artean, oso kontuan hartzen da migrazioaren lehen fasean lagunduko duen gizarte-sare edo senitartekoren bat izatea, baita helmugako herrialdera sartzeko erraztasunak izatea eta lana aurkitzeko aukerak hautematea ere.

ERABAKIA HARTZEA

6.1.4

Migrazioari ekiteko erabakiarekin hasten da migrazio-prozesua. Erabaki hori hartzeko bidea edo prozesua aldatu egiten da gizartetik gizartera eta pertsonatik pertsonara, eta askotariko sentimenduak eta egoerak eragiten ditu. Hala ere, bada kasu guztietan azter edo haute-man daitezkeen alderdiak; hala nola, nork hartzen duen erabakia, nola gauzatzen edo betetzen den eta zer zailtasun topatzen dituzten emakumeek bidaia handiaren lehen urratsetan.

Nork erabakitzen du?

Migrazio-prozesuaren alderdi edo une honetan konturatzen gara aldatzen ari dela emakumea migrazioaren subjektu pasiboa denaren irudi edo pentsamolde klasikoa. Prozesuaren eragile aktiboak dira emakumeak gaur egun, eta haiek izaten dira, kasu askotan, prozesuari ekiteko erabakia hartzen dutenak.

Ama ezkongabeen kasuan, amak hartzen du erabaki indibiduala, erabakia ondorengoekin kontsultatu ondoren. Nahiko normala izaten da, era berean, erabakia gainerako senide eta lagunekin konpartitzea, haiek (normalean, amonak edo izebak) zainduko baitituzte emigratzera doan emakumeen mende zeuden pertsonak. Hala ere, emakumeek beraiek bakarrik hartzen dute erabakia. Hau da, emakumeek esaten dute haiek hartzen dutela emigratzeko azken erabakia. Errealitate hori are nabarmenagoa da emakumea ezkongabea bada eta ez badu inor zaindu beharrik.

“Nik neuk hartu nituen neuri zegozkidan erabakiak, aske nintzen erabakitzeko eta neuk erabaki zuen etortzea. (8. profila: eztabaida-taldea)

“Neuk bakarrik hartu nuen erabakia, inori galdetu gabe” (3. profila: Kamerun).

“Alabarekin hartu nuen erabakia, hari esan nion” (8. profila: Paraguai)

Bikotea duten emakumeen kasuan, bikotekideek elkarrekin hartu ohi dute erabakia, familia-logika bati jarraituz. Bikotearen baitan hitz egiten eta erabakitzen da proiektua, baina, oro har, emakumea izaten da bizilekuz aldatzen dena, lan-merkatuaren eskakizunei eta aukerei erantzunez.

“Erabakia konpartitu genuen, bion artean hartu genuen, gure alaba aurrera ateratzeko neu etorriko nintzela erabaki genuen, eta, Jainkoari eskerrak, nik neukan dirua, eta ez daramat gainean norberak zor duen diruak dakarren kezka buruan” (8. profila: Paraguai)

“Hitz egin genuen, eta handik irten behar genuela ikusi genuen. Nik baietz esaten nuen, han ezin zelako bizi. Azkenean, ni abiatu nintzen lehendabizi, errazagoa zelako lanen bat topatzea amonaren baten etxean lan egitea, lagun batek sartuko zidan” (3. profila: Nigeria)

Bada salbuespenik ere. Emakume batzuek, afrikarrak eta errumaniarrak gehien bat, ez zioten migrazio-prozesuari ekin nahi, baina derrigorrean emigratu zuten, haien senarrek hala erabakita. Emakume txinatar batzuen kasuan, familiako aitak erabaki du migrazio-prozesuari ekitea. Emakume latinamerikarrek, beraz, erabaki indibidualak hartzeko aukera izaten dutela dirudi, baina erabaki beste pertsona batzuekin adostuta hartzeko joera dute. Aitzitik, Afrikako iparraldetik edo Asiatik datozen emakumeek familiaren baitan hartzen dituzte erabakiak, eta ez dute erabakiak beren kabuz hartzeko aukera handirik.

“Senararekin lortu nituen paperak. Ni baino lehen etorri zenez, familia berrelkartu genuen, eta orain banandu garen honetan, neuk nire paperak ditut (3. profila: Senegal)

“Nire senarra hemen zegoenez, ez nuen han bakarrik geratu nahi eta harekin etorri nintzen” (3. profila: Burkina Faso).

“Senarra etorri zen lehendabizi lan egitera, eta, bueltatzen ez denez eta ezer ez nekienez, umeei etorri nintzen paperak eskuratu genituenean” (3. profila: Nigeria)

“Senarra patata-lanera etorri zen, eta gero eraikuntzan lan egin zuen; nahiago du hemen bizi” (6. profila: Errumania)

Gogorra izaten da beti erabakia hartzea, indarrak ahuldu egiten dira prozesuan zehar, eta emakumeek, sarri, oker dabilzala uste izaten dute. Zalantzakor ageri dira, eta, batzuetan, beldur izaten dira, baina, ia kasu guztietan, ilusioa gailentzen zaie itsasontzian edo hegazkinean sartu baino lehen.

Nola egiten da?

Erabakia hartu ondoren, unerik zailena dator, bidaiarako prestatzeko unea. Funtsezkoa da une hori, hor erabakitzen baita nola sartuko diren emigranteak helmugako herrialdean. Emakumeek, askotan, askitasun ekonomikorik gabe edo diru-sarrerara gutxirekin izaten direnez, bitarteko legal eta ekonomikoak eskuratzeko erronkari heldu behar diote beren herrialdetik irteteko.

Alde horretatik, jarduteko moduak aldatu egiten dira herrialdetik herrialdera. Latinoamerikatik, Nikaragua eta Paraguitik, etorri berriak diren emakumeen kolektiboa aparte aztertzean, elementu komun bat ikusi dugu haien artean, maileguak eskatzen dituztela, “jarana” delakoa. Ezinezkoa izaten da emakume horientzat hegazkin-txartela erosteko eta bidaiaren lehen gastuetarako dirua lortzea, eta, ondorioz, aukera arriskutsuak egiten dituzte zenbaitetan: mailegu-emaleei edo prestamistei eskatzen diete dirua. Legez kanpoko “zerbitzu” horrek dituen abantailetakoa bat da emakumeek azkar lortzen dutela dirua, baina interes oso handiak ordaindu behar izaten dituzte, eta beren jabetza urriak utzi behar izaten dituzte abal moduan.

“Bada, bidai-txartela oso garestia zen eta ez nuen diru hori, maileguan hartu behar izan nuen, han batek dirua maileguan ematen dizu eta nire etxea hipotekatu behar izan nuen, zorra ordaintzen dudana arte, onartu dut ez dudala etxerik han” (8. profila: Paraguai)

“Galdera: Nori eskatzen zaio mailegu hori?”

Erantzuna: Mailegu-emaleei, prestamistei.

E: Bankuari eskatzen diote pertsona batzuek.

E: Ikusi behar, bakoitza ahal duen moduan moldatzen da, azkarren lortzen duen bidetik.

E: Prestamisten esku erortzen gara hona gatozen gehienak. Eta muturreraino joaten gara, Nikaraguan legez kanpokoak baita %20an dirua mailegatzea, eta, hala ere, erori egiten gara. Haren kasuan, esaterako, 3000 hartu zituen maileguan

E: Eta 9000 ordaindu behar ditut, baina ezin dudanez ordaindu lanik ez daukadalako, 1000 gehiago dira, eta horrek estresa eragiten dit eta ilea ere erortzen hasi zait.

E: Eta hipotekak eginda, ez pentsa, etxetxo bat utzi behar duzu berme gisa, ez dizute edozein moduz ematen.

E: Mailegatu digutena baino bi aldiz balio handiagoa duen jabetza bat hipotekatua utzi behar duzu, maileguan ematen duenak ez du galerarik" (8. profila: eztabaida-taldea)

Ikusten dugunez, arrisku handia hartzen dute, helmugako herrialdean lana aurkitu eta nahikoa diru irabazi behar baitute mailegua ordaintzeko, eta ez da ziurra, aldez aurretik, hori horrela izango denik. Egoera horietan, asko kaltetzen da emakumeen bizi-kalitatea, eta, batik bat, haien egoera emozionala. Ordainketei aurre egin beharraren presioak baldintzatu egiten du haien bizitza eta "dirua irabazi" beharraren helburua lehentasunezkoa eta obsesioa bihurtzen da, haien ongizatearen gainetik. Antsietateak, larritasunak, depresioak eta urduritasunak gain hartzen die emakume horiei, kontuan hartuta, gainera, soldata apalak ordaintzen dizkietela eta uste baino zailagoa izaten zaiela lana lortzea. Haien egoera administratiboa legezkoa izaten ez denez (asko turistaren bisatuarekin sartzen dira), lor ditzaketen enpleguak ere erregularizatu gabeak izaten dira; beraz, sektore prekarioetan lan egiten dute, lan-eskubiderik gabe eta diru-sarrerara apalak jasoz.

Elkarrizketatu ditugun emakume afrikar gehienak legezko formulak erabili dituzte herrialdean sartzeko. Ikasle moduan edo familia berrelkartzeko erregimenean seguruago sentitzen direla adierazten digute emakume horiek, eta ez dutela *paterarik* edo antzekorik erabili nahi, arriskutsuak direlako.

"Paperak lortu zituen. Hura etorri zen lehena eta ni ekarri ninduen gero" (3. profila: Burkina Faso)

"Frantziar izan ondoren zaila zen eta hona etorri naiz lan-kontratuarekin, eta paperak senararekin lortu nituen, ni baino lehenago etorri zen hura, eta familia berrelkartzeko lortu genituen, eta orain banandu egiten garela, nik nire paperak ditut" (3. profila: Senegal).

"Asko hiltzen dira pateretan, asko ordaindu ondoren, nik ez dut halakorik egingo seme-alabak edukita" (3. profila: Senegal).

Prozesua garestia da, eta, batzuetan, asko luzatzen da denboran. Hori ikusita, turistaren bisatuarekin sartzen dira emakume batzuk Espainian. Agerikoa da maileguaren formula ez dela normalena; izan ere, familiari dirua eskatuta lortzen dute dirua askotan. Familia, kasu horretan, zentzu zabalean ulertu behar da, ez baitzaio dirua eskatzen etxean bizi den senideari soilik.

"Senarra bisitatzera etorri nintzen eta bueltatu egin behar nuen, baina haurdun gelditu nintzen hemen eta legez kanpoko egoeran geratu nintzen. Turistaren bisatuarekin etorri nintzen." (4. profila: Ekuatore Ginea).

"Diru asko da, turista moduan etorri nintzen" (4. profila: Senegal)

Emakume txinatarrei erreparatuz gero, helmugako herrialdera iristeko modu bertsuak erabiltzen dituztela dirudi, hau da, jatorriko herrialdean egindako kontratuak edo familia-sareak derrigortuta. Familia-unitateak mugitzen direnez, familiako guztiak batera berrelkartzen dira. Zaila da jakiten ea kontrataziorik egiten den jatorriko herrialdean familia-sare horietatik kanpo, baina kontratuaren ideia nabarmentzen dugunean, adierazi nahi dugu txinatarrek oso migrazio-prozesu seguruak egiten dituztela, haien komunitatearen kontrol handiarekin. Horrenbestez, nekez irteten da inor Txinatik *abentura bizitzera*, familia duten lekura joaten baitira. Haien senideek edo lagunek kontratuak egiten dizkiete beren negozioetan eta bizi-

leku bat eskaintzen diete, ordainsari apalagoen truke. Negozio propio bat jartzea izaten da immigrante txinatarren azken helburua. Sarbide-mota hori oso egokia da kanpotik datorren pertsonaren egoera administratiboa erregularizatzeko. Horren adierazle garbienetako bat da txinatarren kolektiboa dela Euskadin erregularizatzeko handienetako bat duena. Itxura batean, legezko egoera administratiboan izateak, laguntzako familia-sare zabala bat izateak eta helburu lorgarriak finkatzeak (negozioak jartzea) indartu egiten du haien poztasuna eta gogo-aldarteak, eta bizitzarekiko ikuspegi positiboa izatea dakarkie.

“Hemengo lagunek egin dizkieten kontratuekin etortzen dira beti txinatarrak. Txinatar bat ez da bakarrik etorriko” (7. profila: Txina)

“Espainiara etorri nahi nuen [...] nire amaren lagun batek denda bat zuen eta kontratu bat egin zidan hona etortzeko” (7. profila: Txina)

“Nire ilobak etorri egin nahi zuen eta kontratu bat egin nion. Nire etxean geratu zen eta gero beste lagun batek kontratatu zion” (7. profila: Txina)

“Nire aita etorri zen, eta negozioa eta paperak lortu zituenean, nire ama eta nire ahizpekin batera ekarri ninduen” (7. profila: Txina)

Azkenik, esan dezakegu atzean gelditu dela emakumea migrazioaren subjektu pasiboa denaren irudi edo pentsamolde klasikoa. Emigratzeko erabakia hartzeko prozesuan parte hartze handia dute emakumeek, eta, kasu askotan, hura izaten da beste herrialde batera joateko asmoaren sustatzailea. Beste herrialde batera joateko erabakia hartu ondoren, erronka bat izaten da emakume eta familia askorentzat migrazioari ekiteko baliabideak eskuratzea, inbertsioa handiak egin behar izaten baitira.

Laburbilduz,

- Pertsonen egoera ekonomikoa izaten da emigratzeko arrazoi nagusia edo haren bultzatzaile nabarmenena, eta, horrekin batera ageri dira, halaber, kultura berriak ezagutzeko jakin-mina eta askatasun-grina.
- Migrazioaren modalitate klasikoan, emakumeen rola bigarren mailakoa zen eta ez eragilea, baina jokamoldeak aldatzen ari dira, eta emakumeak migrazio-proiektu ugariren bultzatzaile dira gaur egun.
- Era berean, normala da gaur egun ere familia osoak emigratzea beste herrialde batera, baina gero eta bakarkako migrazio-proiektu gehiago abiarazten dituzte emakumeek, gerora berrelkartzeko familia osoa.
- Ez da erraza izaten zer herrialdetara joan erabakitzea, baina, erabaki hori hartzeko, erabakigarriak izan ohi dira helmugako herrialdean izan daitezkeen herrikideen sareak. Gizarte-sareak funtsezkoak dira migrazio-proiektuaren lehen fasean, eta arindu egiten dute immigrantearen ziurgabetasun-egoera.
- Europa lurralde emankorra dela uste dute immigranteek eta pertsonen askatasunak (gizabanakoenak, giza taldeenak eta, bereziki, emakumeenak) bermatzen dituela, eta hori da Europara etortzera bultzatzen dituen arrazoietakoa bat.
- Gerora erabakitzen dute Espainiara eta Euskadira etortzea, helmugako lurraldean dituzten gizarte-sareei erreparatuta.
- Espainiara eta Euskadira etortzeko arrazoiaren artean, emakume immigranteek nabarmentzen dute erraza dela iristea, mugetan ez dagoela kontrol handirik, lan-aukerak izaten direla eta sarri aipatzen dira EAEk dituen osasun- eta hezkuntza-zerbitzu bikainak.
- Oztopo handia izaten da independentzia ekonomikorik edo soldata duinik ez duten emakumeentzat jatorriko herrialdetik irteteko behar dituzten baliabideak eskuratzea. Ezarri

berriak diren emakume immigranteak dira, eta, bereziki, Amerikako erdialdeko herrialdeetakoak, egoera prekarioenean iritsi direnak, aldez aurretik maileguak eskatuta.

EUSKADIRA ETORTZEA

6.2

Atal honetan, elkarrizketatu ditugun emakumeak Euskadira iritsi zirenean hasieran zer iruditu zitzairen eta zer oztopo izan zituzten aztertuko dugu. Gero, lan-munduan txertatzearekin zerikusia duten alderdiak aztertuko ditugu, bai eta emakume immigranteek bizi dituzten bazterketa-egoerak ere. Eta, azkenik, emakume immigranteek integrazioaz zer iritzi duten deskribatuko dugu eta identitatearekin zerikusia duten alderdiak argitzen saiatuko gara.

HASIERAKO IRITZIAK

6.2.1

Hasierako uneetan bizi izan zuten egoerari buruzko iritziak oso desberdinak izan dira, elkarrizketatu ditugun emakumeek Euskadira etorri aurretik zituzten aurreikuspenen eta bizi zuten egoeraren arabekoak izan baitira. Horrenbestez, sentimenduak *continuum* aldatzen dira; batzuek miresmena adierazi dute eta beste batzuek, berriz, atsekabea. Emakume batzuk primeran sentitu ziren hasiera-hasieratik, eta beste batzuek, berriz, denbora pixka bat behar izan zuten gurera ohitzeko. Atsekabea, oro har, arrotza egiten zaien orografiak eta klimatologiak eragindakoa da, bai eta eguneroko bizitzari aurre egiteko gure gizarteko ohituretara egokitu ezinak eragindakoa ere. Hau da, eguneroko jokabide-ereduen berri izateko, "barneratzeko denbora izatea" dakar; izan ere, atzerritarrentzat ez da nahikoa izaten haien berri izatea, bereganatu egin behar dituztela baitirudi: "gehiago erakutsi behar nuen eta horrek dakarren guztiaren mende jarri".

"Lehendabizi, benetako egoeran ikusten duzu zure burua, eta nahiz gogorra izango zela espero genuen, ustekabean harrapatu gintuen, gauza ohikoenak egitea ere zaila iruditu zitzaigun; esaterako, harategian edozer eskatzea, zerura begiratzea eta euria egingo ote zuen asmatzea. Ez genuen erreferentziarik, ez genekizkien hitz gakoak, kodeak, soinuak, usainak... Hau da, testuinguruan kokatzeko beharrezkoak diren gauza horiek guztiak falta genituen, eta denbora dezente behar izan nuen horretarako, eta etxea aurkitzeko, lana aurkitzeko... eta hori guztia atzerritarra izanik. Atzerritarra nintzenez, "gehiago erakutsi behar nuen eta horrek dakarren guztiaren mende jarri" (1. profila: Argentina)

"[...] dena oso berde zegoen, oso ingurumen berdea iruditu zitzaidan, sana, jende gutxi, gus-tukoa dut, oso isila." (7. profila: Txina)

"Hasieran den-dena itsusia iruditzen zitzaidan, ez zara turista, penaz etortzen zara, alaba han utzita; janaria hain itsusia iruditzen zitzaidan; itsasoaren ondoan zegoen herri polit batetik etorri nintzen eta hau hain itsusia iruditzen zitzaidan. Nik alabari deitzen nion eta esaten nion 'hau kaka zaharra da', eta hemendik alde egiteko egunak kontatzen nituen." (2. profila: Kolonbia)

"Niri klimak atentzioa eman zidan, ni barrualdekoa naiz eta Madril bezalako da, ez du elurrik egiten, baina hemen euria... Nik ostalaritzan egiten nuen lan, eta lanaldi zatitua nuenez, joan eta etorri ibiltzen nintzen, blai eginda egun osoa. Zer nazka! nazkagarria, oso gogorra egin zitzaidan, iluntasuna, euria." (1. profila: Argentina)

Oro har, elkarrizketatu ditugun emakume guztiek adierazi dute oso gogorra izan zela hasiera, batez ere bakarrik etorri eta hemen zain inor ez zuten emakumeek. *Bakardadea* da emakumeek gehien erabili duten hitza, hasierako egun haietan bizi izandakoa adierazteko. Etorkizunari begira, tristura eta beldurra ere adierazi dituzte. Nolanahi ere, beldurra ez da gehien nabarmentzen den sentimendua, baizik eta nahikoa sare sozial ez izatearena, jendearekin egon baina hitz egin ezin izatearena edo “txiki” sentitzearena..

“Lehendabizi bakardadea, herrimina sentitzen duzu, familiaren falta sentitzen duzu, herriarena, gizartean zenuen rola falta duzu; bada, hori, nahiko bakarrik dagoen emakumea sentitzen zara. Bakarrik noala, bizitza arriskuan jarriko dudala eta ez dakidala zer gertatuko zaidan. Beldurra, estutasuna, gerta dakidanaren kezka, larritasuna.” (8. profila: Nikaragua)

“[...] ez nengoen beldurrak, tristura eta bakardadea sentitzen nituen; badakizu zer den jendez inguratuta egotea, baina, aldi berean, inorekin hitz egin ezin izatea?... eta batetik bestera ibiltzen nintzen, ibili eta ibili... eta nire burua txiki ikusten nuen, triste nengoen.” (2. profila: Kolonbia)

“Hona etorri eta, bada, egia da, gogorra da; izan ere, familia han dago, alaba han utzi behar izan nuen, eta, hasieran, bakardadeak gainezka egiten dizu. Familia han utzi behar da hona etortzeko, eta hemen, beste giro batera ohitu behar duzu.” (8. profila, ET: eztabaida-taldea)

“Etorri nintzenean, nahiko triste egon nintzen; ez dakit, tristura sentitzen nuen.” (8. profila: Nikaragua)

“Lehendabiziko hilean, bakar-bakarrik nengoenez, nahigabea sentitzen nuen, larritasun-arazok izan nituen. Etorri eta bakarrik nengoenez, ez nuen inorekin hitz egiten. Ez nuen norekin hitz egin, ez nuen seniderik.” (4. profila: Aljeria)

“Triste samar etorri nintzen, baina aldi berean, pozik eta zoriontsu, erronka berriak nituen eta pozik nengoen.” (3. profila: Mauritania)

Batzuetan, sentimenduak kontrajarriak izaten dira. Batetik, tristura adierazten da, senideak han utzi behar izaten direlako, bai eta lagunak, tradizioak, ohiturak eta bizimodu jakin bat ere. Hasieran, badirudi den-dena dela zaila, gauzarik ohikoenak ere bai. Eta bestetik, ezinegona eta ilusioa ere sentitzen da; izan ere, erronka berriei aurre egiteko aukerak eragiten duen zoriona eta satisfazioa gailentzen zaizkio bakardadeari eta gizarte-harremanen gabeziari.

HIZKUNTZA

6.2.2

Harrerako gizartearen hizkuntza ez jakitea oztopo handia izan daiteke immigranteentzat gizartean eta kulturaren integrazteko, bai eta lana aurkitzeko ere. Hortaz, gaztelania ez dakitene emakume gehienek beren buruarekiko segurtasunik eza, konfiantzarik eza sentitzen dute, beldurra, norberaren bizitzarekiko kontrola galdu dutela sentitzen dute, eta horrek guztiak, batzuetan, ondorio kaltegarriak eragiten ditu haien autoestimuan. Beren ahalmenetan sinesteari uzten diote eta beren buruarekiko duten konfiantza galtzen dute emakumeek. Elkarrizketatu ditugun emakume guztien artean, hitz egiteko arazoak dituztenak *besteen mendeko* bihurtzen dira, eguneroko jarduerak egiten –esaterako, erosketak egiten edo ospitalera joaten– laguntzen dietenena.

“Hona etorri eta lehendabiziko hilean, ez naiz irten, jendearen beldur nintzelako eta gaztelaniaz ezer ez dakidalako.” (4. profila: Aljeria)

“Hizkuntza ez badakizu, gauza guztien beldur zara, segurtasunik ez. Batzuek nirekin hitz egiten zuten, baina ez nintzen seguru sentitzen; eta niregana etortzen ziren, ubeldu bat nuen, eta

*ostatuan lan egiten zuen mutilak esaten zidan... Eta urte batzuk igaro direnean hasi naiz uler-
tzen zer esan nahi zidan, oso gogorra da.” (6. profila: Errumania)*

*“Hitza egiteko segurtasunik ez nuen, beldurra ematen zidan. Batzuetan, gaztelaniaz pentsa-
tzen dudanean, esaldiak ondo egiten ditut, akatsik eta ezer gabe. Baina hitzekin esatean, dena
nahasten da, ez dakit gauza hau ondo esaten ari naizen edo dena alderantziz. Hori egin zen
konfiantza galtzen hasi nintzenean.” (4. profila: Aljeria)*

*“Garrantzitsua da hizkuntza, ez nekien hitz egiten eta gauza asko oso muga handia da; ezin
duzu normal hitz egin besteekin.” (7. profila: Txina)*

*“[Elkarrizketa itzultzailearekin] Gaztelania ulertzen du baina ez du hitz egiten. Helduentzako
Hezkuntzan gaztelania ikasten aritu da, baina ikasteari utzi zion. Izan ere, ez du harremanik
familiakoa ez den inorekin; esaten du ondo dagoela horrela, nahiago duela etxean egon, tele-
bista ikusi eta senarrarekin hitz egin. Ama hizkuntzan ere ez daki ondo irakurtzen ez ondo idaz-
ten.” (6. profila: Errumania)*

Horrenbestez, zenbait emakumeri gaztelania ez jakiteak oso ondorio kaltegarriak eragin diz-
kie, autoestimuan zein eguneroko bizitzan. Horrez gain, emakume batzuek onartu dute gaz-
telania ez jakitea oztopo handia izan dela beren kultura-komunitatetik kanpoko pertsonekin
komunikatzeko; hala ere, adierazi dute horrek ez duela ondorio larriak eragin beren autonoma-
n, ez eta eguneroko gauzak egin ahal izateko ere. Hori hala da, batez ere, senideen edo
hizkuntza bera hitz egiten duten lagunen laguntza-sare handia duten emakumeen kasuan,
eta, beraz, hizkuntza ez jakiteak ez die oztoporik eragiten eguneroko bizitzan, gaztelaniaz
hitz egiten duten pertsonekin apenas baitute harremana. Askotan, harrerako gizartearen
hizkuntza ez jakitea eta ama-hizkuntzan ondo irakurtzen eta idazten ez jakitea batu egiten
dira.

Laburbilduz, esan genezake iritsi berritan egoera, oro har, gogorra dela batez ere bakarrik
etortzen diren eta helmugako tokian inor ezagutzen ez duten emakumeentzat. Eta gainera,
lehenengo fasea askoz ere gogorragoa dela gaztelania ez dakiten emakumeentzat. Hala
ere, hori ez da hala harrerako herrialdean familiako norbait baldin badute, nahiz eta gaztela-
nia ez jakin.

ORAINA EUSKADIN

6.2.3

Kapitulu honetan, emakume immigranteen bizitzako zenbait alor nolakoak diren aztertzen
saiatuko gara. Lehendabizi, elkarrizketatu ditugun emakumeen administrazio-egoera azter-
tuko dugu, eta bereziki erreparatuko diogu zer ondorio eragiten dituen emakume horien
eguneroko bizitzan administrazio-egoera araugabea izateak. Eta gero, lanaren eta etxebizi-
tzaren alorrekin zerikusia duten zenbait gai aztertuko ditugu, eta Euskadin bizi diren emaku-
me immigranteen bizitzan gizarte-sareek zenbateko garrantzia duten ere aztertuko dugu.

Administrazio-egoera

Administrazio-egoera elkarrizketatu ditugun ia emakume guztien jardunean ezinbestez aipa-
tu den elementu bat da. Horrenbestez, elkarrizketatu guztiek adierazi dute bizileku- eta lan-
baimena ez edukitzea arazo ugari eragiten dituen oztopo ikaragarria dela, immigrante guz-
tien 'oinarrizko agendan' baitago.

Elkarrizketatu ditugun emakume gehienek etorri aurretik bazekiten Espainian geratuko zire-
la eta administrazio-egoera araugabea izango zutela. Beste emakume batzuen asmoa

Euskadira etorri, bikotekidea ikusi eta itzultzea zen, baina zenbait egoera gorabehera –zenbait, haurdun geratu ondoren–, bertan geratu behar izan dute, nahiz bizileku-baimenik ez izan.

“Nire herrialdera bueltatzeko asmoa nuen... bi hilerako bisa nuen, gero bueltatu eta lan egiten jarraitzeko asmoa nuen, eta berriro bisa eskatzekoa; baina haurdun geratu nintzen eta senarrak esan zidan “hemen egon behar duzu,” hemen geratzen zara nire herrialdean ez dugulako etxerik, eta hemen geratu nintzen paperik gabe.” (4. profila: Aljeria)

“Turista-bisarekin etorri nintzen, senarrarekin egoteko eta bueltatukoan paper-kontu guztiak egin nahi nituen. Baina hona etorri, amodioa egin eta bikien esperoan geratu nintzen, eta orain ezin dut bueltatu.” (3. profila: Ghana)

Nahiz eta emakume gehienek, hona etorri baino lehen, jakin bazekiten egoera araugabea izateak zer bizimodu izatea zakarren eta arazoak izango zituztela ere pentsatu zuten, espero baino egoera gordinagoa bititzea egokitu zaie.

“[...] hortaz hitz egin zidaten, baina hemen egoera hori bititzea oso gogorra da; berdin du norbaitek egoeraren berri ematea, ez baitu zerikusirik benetako egoerarekin.” (8. profila: Paraguai)

Bestalde, emigratzea erabaki aurretik, emakume askok pentsatzen zuten egoera araugabea izateari nahiko azkar uzten zitzaiola. Baina, hemen finkatu ondoren, ohartzen dira ez dela erraza, egoera luzatu egiten dela eta epe laburrean konponbiderik ez duela.

“Ez nuen uste zortzi urte egongo nintzela paperik gabe, lanik gabe, ezer gabe... uste nuen lan egin nahi izatea nahikoa zela lana aurkitzeko.” (4. profila: Ekuatore Ginea)

“[...] uste genuen lana aurkituko genuela, paperak lortuko genituela eta haurra hona ekarriko genuela; eta, begira, bederatzi urte daramatzagu paperik gabe, hiru seme-alaba izan ditugu hemen eta denok paperik gabe gaude.” (4. profila: Aljeria)

“Hona etortzeko gogo izugarria nuen, baina iritsi nintzenean, bada, gogoak alde egin zidan, etxera joan nahi nuen, baina oso zaila da ‘papera’ ez badaukazu.” (4. profila: Ekuatore Ginea)

Administrazio-egoera arautua izatea oso zaila da; egoera arautzeko zailtasunak eta bizileku-baimena eskatzeko lan-kontratua bilatzeko izaten diren zailtasunak erabat lotuta daude. Hau da, migrazio-ereduaren gurpil-zorua da edo isatsari hozka egiten dion arraina; izan ere, gehienetan, lan-baimena edukitzeko bizileku-baimena izan behar da, eta alderantziz.

“[...] ezin dut lortu, ezin dut. Saiatu naiz, baina ezin dut kontratu bat lortu; jendeak nahiago du paperak dituzten pertsonak kontratu, paperak ez dituzten pertsonak kontratu baino.” (4. profila: Ekuatore Ginea)

“Ez, ezin dugu lan-kontraturik gabe. Lan-kontratua ez baduzu, erosi egiten duzu. Kontratuak asko balio du, 2.000 euro edo 3.000. Eta guk hainbeste ez.” (4. profila: Aljeria)

Hain zuzen ere, agerian geratu da administrazio-egoera araugabea izateak gehiago eragiten diela Saharaz hegoaldeko emakumeei, eta hori hala da, ziurrenik, emakume horien migrazio-proiektuak bakarkakoak izaten direlako, eta hortaz, helmugako herrialdean senideen laguntza ez dutenez, egoera bereziki ahula bizi dutelako. Gainera, aurreko faseetan zenbait azterketa kuantitatibo eta ikerketa egin ditugunez, jakin badakigu emakume horiek lan-munduan txertatzeko arazo gehiago dituztela. Horren guztiaren ondorioz, nabarmentzeko modukoa da administrazio-egoera araugabea izateak berekin dakarrela, askotan, enpleguaren egonkortasunik eza, eskubideak sistematikoki urratzea eta herrialdetik bota egingo dituztelako beldurrak bititzea. Nolanahi ere, egoera horrek ez die Saharaz hegoaldeko pertsonen soilik eragiten, berez lan-munduan txertatzeko arazo gutxiago dituzten herrialdeetako kolektiboek ere eragiten baitie, emakume kolonbiarrei, esaterako.

“[...] 18 egun eman nituen lan hartan, eta oraindik ere ez dut ezer kobratu, ni ‘paperik gabea’ nintzelako, ea zeinek erreklamatzeko duen hori. 18 egun horietan lau kilo argaldu nintzen, jate-

ko denborarik ere ez nuen, bi kafe edanda pasatzen nuen eguna. [...] Honela esan zidan nire nagusiak: 'paperik gabeko bat, ea non erreklamatzun duzun, eta ez dut zentimo bakar bat ere ordaintzeko asmorik!'" (2. profila: Kolonbia)

Administrazio-egoera araugabeen dauden emakume immigrantez ari garela, bada bereziki nabarmentzea merezi duen beste alderdi bat ere: administrazio-egoera ezegonkorra izateak berekin dakar inolako babesik ez izatea, lan-alorreko zein gizarte-alorreko eskubideak urratuz gero. Salaketa jartzeko beldurra egoteak eta informazioerik ez izatea halako egoerak denboran luzatzea eragiten dute.

Administrazio-egoera araugabeen dauden emakume immigrantez ari garela, bada bereziki nabarmentzea merezi duen beste alderdi bat ere: administrazio-egoera ezegonkorra izateak berekin dakar inolako babesik ez izatea, lan-alorreko zein gizarte-alorreko eskubideak urratuz gero. Salaketa jartzeko beldurra egoteak eta informazioerik ez izatea halako egoerak denboran luzatzea eragiten dute.

"Paperak ez nituenean, esan dit 'salatu egiten banauzu, ni haurrekin geratuko naiz eta zu Afrikara itzuliko zara.'" (3. profila: Ghana)

"Ni lehen mutil-lagunarekin nengoen, eta nik arazo bat eduki eta ezin dut salatu, polizia lehendabizi paperik baduzun galdetzen dizulako. Haiak esaten dute nahi baduzu salatu, eta nik papera badut, nik gauza askotarako eskubidea, baina nik papera ez nuen, eta nik ezin ezer esan." (4. profila: Nigeria)

Bada beste ondorioerik ere: ezin izaten dira jatorriko herrialdean utzitako familia bisitatzera joan. Zenbait kasutan, emakumeek urte asko daramatzate seme-alabak, gurasoak eta, oro har, maite dituzten pertsonak ikusi gabe. Haien senideen bizitzako gertakizun garrantzitsuetara ezin izaten dira joan –esate baterako, ezkontzak, seme-alaben ikasketa-amaierako ekitaldiak eta/edo gurasoen hiletak– eta horrek oso gaizki sentiarazten die, itota eta errudun sentimendu-dosi aldakorra izaten dute.

"Nire ama ere duela urtebete hil da eta ezin dut ikustera joan. Eta hori izugarri txarra da niretzat; osaba ere hil da eta ezin dut joan." (4. profila: Aljeria)

"Nire semeak hamaika urte beteko ditu orain, bederatzi urte daramatzat hura ikusi gabe; oraindik Aljerian dago eta ezin dut hona ekarri, oraindik ez dudalako bizileku-baimena." (4. profila: Aljeria)

"[...] ezin izan dut seme-alaben ikasketa-amaierako ekitaldira joan; karrera amaitu dute eta ez naiz han izan." (8. profila: Nikaragua)

"Semea han dago, baina bihotzean daramat beti; gauetan ezin dut lorik egin, eta negar asko egiten dut; badira lau urte ez dudala semea ikusi." (4. profila: Senegal)

Bistan denez, bizileku-baimena lortu ahal izatea amesten dute emakume askok, edozer emango lukete eta edozer egingo lukete beren herrialdeetara bisitan joan ahal izateagatik. Emakume askok esan du soldatarik gabe ere egingo luketela lan, administrazio-egoera arautzea dakarren lan-kontratu baten truke. Kontuan izan behar da Espainiako immigrazioaren zati handi batek irregulartasunaren kontrola eta azpizjokoa izan duela oinarri; eta horrez gain, irregulartasun hori neurtu egin izan dela, unean uneko interesen arabera.

"Nik bizileku-baimena lortu nahi dut, hemendik irten ahal izateko eta nire etxera bisitan joan ahal izateko, ahal bezain pronto etxera alde egin ahal izateko." (4. profila: Aljeria)

"Soldatarik gabeko lan baten bila nabil, kontratua bakarrik nahi dut; nik aseguria ordainduko dut, kontratua bakarrik nahi dut. Lan egingo dut, norbaitek sukaldean jarduteko laguntza behar badu, garbitzeko laguntza behar badu, edozer lan egiteko prest nago, aseguria bakarrik, 200 euro bakarrik; norbaitek kontratua ematerik baldin badu eta aseguria ezin badit eman ere, nik lan egingo dut, nik ordainduko dut, eta nire familia faltan sentitzen dudalako egingo dut hori, nire aita berriro ikusi nahi dut." (4. profila: Aljeria)

Gainera, adierazpen gehienetan hauteman dugu "paperik" ez edukitzeak zalantzako, eze-gonkortasuneko eta larritasuneko errealtate materiala eragiten diela, eta, etorkizunari begira, beldur- eta izu-sentsazioa ere bai.

"[...] une horretan, paperik ez izateak eragiten zidan eze-gonkortasuna. Baina gero, erregularizazio-araubidea ireki zenean, paperak lortu nituen eta horrek lasaitu egin ninduen, kontratu bat nuelako; oso-oso soldata txikia nuen, baina urtero berritzen jarraitzeko ziurtasuna ematen zidan, eta horrela." (1. profila: Argentina)

"Izan ere, emakume immigrantearen egoera une honetan ziurgabetasunarena da, eta 'paperik gabekoen' egoera oso gogorra da. Ez da lehen bezala; orain eragozpen asko jartzen dizkigute, beldurrak nago." (8. profila, ET: Nikaragua)

"Bigarren aldian bekarik gabe eta lanik gabe etorri nintzen, eta orduan esan zidaten 'legez kanpoko immigrantea zara orain', eta harri eta zur geratu nintzen, eta nire egoera eze-gonkorrago bilakatu zen, eta orduan pentsatu nuen niretzat ateak ixten ari zirela." (5. profila: Sahara)

Zenbait kasutan, bidali egingo dituztelako beldur direnez, elkarrizketatu ditugun emakume batzuek nahiago dute etxean geratu, arriskurik ez izateko, eta horrek oraindik ere gehiago isolatzen ditu emakume horiek.

"Nire senarrak beti esaten dit: 'Ai! poliziak harrapatu eta paperik ez baduzu, bota egingo zaituzte!' Eta orduan asko beldurtzen naiz, ezin dut irten." (4. profila: Aljeria)

"[...] irteten garenean, batzuetan beldurrez irteten gara, ez dakigulako non egongo diren, batzuetan zibilak dira-eta." (8. profila: Honduras)

Nolanahi ere, elkarrizketatu ditugun emakume gehienek esan dute beti izaten dutela gogoa edozein unetan eska diezaieketela agiria kalean, baina, oro har, administrazio-egoera arautua ez izateak ez diela, orain artean, oztoporik eragin eguneroko jarduerak egin ahal izateko, gizarte-zerbitzuak erabiltzeko, esaterako. Egoera araugabea edukitzeak berebiziko eragina du immigranteengan, eguneroko bizitza baldintzatzen baitie. Izan ere, jakin badakite irregulartasunak egoera berezietan soilik eragin dezakeela herrialdetik botatzea, baina lasai bizitzea eragozten die; hau da, egiten dituzten lan-jarduerekin bat datorren bizimodua ez dute. Irregulartasuna, azken batean, tresna politiko bat baino ez da, immigranteen etorrerak eta unean uneko lan-eskaintzak bat egin dezaten balio duena; nolanahi ere, tresna horrek immigranteen egunerokotasunari eragiten dio eta egunerokotasun hori oztopatzen du. Irregulartasuna, horrenbestez, immigranteen egonlekua arautzeko administrazioak bere buruari ematen dion denbora geroratua da, baina immigrantearentzat oso penagarria da denbora hori. Kontraesaneko mekanismo horren eraginez, irregulartasuna eta beste zerbitzu batzuk eskuratzeko-ikasketak edo osasun-zerbitzuak- arazorik ez edukitzea bateragarriak dira.

"Kontua da ezin dugula bidaiatu, ez eta lana aurkitu ere. Baina beste gauza batzuk normal, medikuarenera joateko eskubidea dugu, haurrek normal ikasten dute eta hori da dena." (4. profila: Aljeria)

"[...] izan ere, hemen, Euskadin ez da Frantzian bezala, ez dute badituzun edo ez dituzun kontrolatzen jarraitzen." (3. profila: Senegal)

Agerian dago, beraz, emakumeek badutela atzeritarrei buruzko araudiaren berri, bai eta administrazio-izapideei buruzkoa ere. Hala ere, zabaldu berri da atzeritarrei buruzko araudia aldatu egingo dutela, eta, etorkizunari begira, kezka eta beldur handia sortu da. Aldaketa horiek, hain zuzen, gizartean oso errotuta dagoen prozedurari -egoera arautzeko modu bakarra ia- eta osasun-arloko zerbitzuei buruzkoak dira. Atzeraldi ekonomikoan gaudenez, ikuspegi murriztaileagoa izanik interpretatzen da irregulartasuna, eta hori da orain abian dena. Beraz, aurreko fasean immigranteen etorrerak egokitu edo moldatu nahi ziren, eta

orain, berriz, etorrera horiek eten egin nahi dira. Agerian dago, hortaz, instituzioek unean uneko immigrazio-beharretara egokitzen dutela irregulartasunaren estatusa.

“Legea aldatzen badute ezin dut paperik sartu, eta aurrera egiten uzten ez duen ziurgabetasun ikaragarria sortzen da orduan.” (8. profila: Nikaragua)

“Medikuarenera joaterik badut, baina orain esan dute paperik ez baduzu ezin zarela medikuarenera joan. Geroaren beldur naiz.” (4. profila: Ekuatore Ginea)

Merezi du adieraztea, halaber, “itxurazko” enplegu bat edo ikasketa-mailarekin bat datorren enplegu bat bilatzea ezinezkoa dela egoera araugabeen daudenentzat, eta halakoetan, lan-munduan txertatzeko modu bakarrak ezkutuko ekonomia eta baldintza kaskarreko enpleguak direla. Eta jakina, emakumeek esaten dute administrazio-egoera araugabeen daudelako ez dutela enplegu-zerbitzu publikoetarako aukerarik eta elkartean eta GKEen lan-poltsetarako bakarrik dutela aukera.

“‘Paperak’ edukiz gero, errazagoa izango zen, leku gehiagotara joango nintzateke lan bila, orain Caritasera joan besterik ez dut. Paperik gabe zailagoa da lana aurkitzea.” (4. profila: Nigeria)

Ezkutuko ekonomian sartzeak –kolokako enpleguak eta lan-alorreko eskubiderik gabe– ez dakar, jakina, administrazio-segurtasunik. Horrela, ezin eten daitekeen gurpil zoroa ezarri da; hau da, irregulartasunak kolokako enplegua edo baldintza eskasekoa dakar, eta alderantziz. Eta hala, horren guztiaren ondorioz, lanean hasteko aukerak oso mugatuak dira, lan-eremu jakin batzuk baino ez dituzte aukeran: etxe-zerbitzua, besteen beharra duten pertsonak zaintzea eta ostalaritza.

Hortaz, eta aztertutako adierazpenetan garbi geratu denez, funtsezkoa da bizileku-baimena edukitzea. Hala ere, oso hedatuta dago “paperak” edukitzeak gizarte-mailan gora egitea eta egonkortasuna lortzea dakarrelako ideia, baina askotan ekuazio hori ez da betetzen eta frustrazio-sentimendua sortzen zaie.

“Hori ez da paperen kontua, hainbeste arazo daude; izan ere, paperik gabe daudenek uste dute paperak lortzen dituztenean aurkituko dutela nahi dutena, baina nik fase asko bizi izan ditut: lana eduki, lana ez eduki, nazionalitatea eskuratu... Baina, azken batean, lehen nintzena izaten jarraitzen dut. Lehen bezala jarraitzen dut, nahiz nazionalitatea eduki. Nik uste nuen mailaz igotzearekin batera lortzen zela egonkortasuna lortzeko aukera gehiago izatea, baina ez dut inoiz egonkortasuna eduki.” (5. profila: Sahara)

“Ia-ia bizitza erdia daramat Euskadin eta ez dut oraindik egonkortasuna lortu, ez etxebizitza-alorrean, ez lan-alorrean, ez inolako alorretan. Etorri nintzenean nuen arazo bera dut oraindik ere gaur egun.” (5. profila: Sahara)


“Nahiz nazionalitatea eskuratu, ez da ezer aldatu. Niri ez baitit inork galdetu ‘nola dituzu paperkontuak?’... Berdin nago, eskuratu izan ez banu bezala [nazionalitatea].” (2. profila: Kolonbia)

Bestalde, administrazio-alorrean egonkortasuna izateak ez dakar beti bizitza-alorrean egonkortasuna izatea. Administrazio-alorrean egonkortasuna lortzen da, eta nazionalitatea ere eskura daiteke, baina immigrante-estatusa izateari ez zaio uzten eta aurrera egitea eragozten du. Horrenbestez, migrazio-eredu orok ezegonkortasuna zekarrelako kontzientzia barkeratzen dute, eta horrek guztiak frustrazioa sorrarazteaz gain, lan-eredu horretatik atera ezin izango dutelako eta aurrera egingo ez dutelako sentimendua sorrarazten die. Prozesu hori eskema honen bidez laburbil daiteke.

Hau da, egonkortasuna lortzea eragozpen-multzo bati aurre egin zaiolako prozesutzat hartzen da, eta eragozpen horiei guztiei aurre egin ondoren, bizitzan egonkortasuna lortuko dutela uste dute. Hala ere, askotan, administrazio-alorrean egonkortasun handiagoa izateak ez dakar lan-alorreko baldintzak hobetzea, ez eta espero zuten mailan gizartean gora egi-

tea ere. Are gehiago, helburua lortze aldera emandako urrats horiek guztiak eman ondoren ere, immigranteek beste eragozpen bat izaten dute, gainditu ezin dutena, aldatzea ezinezkoa dirudiena: immigrante-estatusa. Administrazioaren aurrean ez zara immigrantea, baina ez gizartean bai. Horrenbestez, ohartzen dira estatusun-egoera eta egoera ezegonkorra ez dela soilik legezkotasun-kontua, baizik eta haien esku ez dagoen gizarte-prozesu multzo baten emaitza dela. Hortaz, lortu nahi zuten gizarte-estatusa berriro ere helburu lortezin bilakatzen da, eta horrek frustrazio ikaragarria sorrarazten die, bai eta norberaren ahalmenetan konfiantza galtzea ere. Hala ere, ez da gutxietsi behar estatus-aldaketa, egoera araugabea izatetik arautua izatera emandako urratsa; izan ere, goranzko bidean behar beste ez aurreratzeak ez du esan nahi administrazio-egoera hobetuko ez denik. Beste kontu bat da erlatibizatzea edo behar baino balio gutxiago ematea lortutakoari.

6.2. ESKEMA Administrazio-egonkortasuna, gizarte-mailan gora egiteko tresnatzat



Iturria: Egileek egina

Etxebizitza

Etxebizitza edukitzea funtsezko baldintza da immigranteak gizarteratzeko. Emakume immigranteek zenbait eragozpeni egin behar diete aurre-harreman-sare eskasa, baliabide ekonomiko gutxi eta gizarte-bazterketa- eta aparteko arazo bilakatzen dira horiek guztiak bizileku bat bilatzerakoan.

Elkarrizketetan agerian geratu da harreman-sare bat edukitzea ezinbestekoa dela, harrerako herrialdean etxebizitza bilatzeko ezinbesteko modua baita. Immigranteekiko diskriminazioaren eta konfiantzarik ezaren ondorioz, etxebizitzak dituzten pertsonak nahiago izaten dute immigranteei alokairuan ez uztea etxebizitzak edo errenta garestitu egiten diete, eta beraz, emakume immigranteek aukera gutxiago izaten dituzte, bai eta eraikinen parkerako ere.

“Gela bat alokairuan hartzeko, nik neuk ez nuen inoiz etxebizitza hala lortu. Hemengo lagunen bidez lortu izan ditut beti; telefonoz nik deitzen nuenean etxebizitzari buruz galdetzeko, ez nuen lortzen; nongoa nintzen galdetzen zidaten, eta, hara, hor bukatzen zen elkarrizketa. Eta erantzuten zidaten pertsonak atzerritarrak ziren, etxebizitza alokairuan zutenak, eta haiek ikustera joan nintzen, baina azkenean, ez [ezer ez]: diskriminatu egiten gintuzten edo oso fidantza garestiko etxebizitzak eskaintzen zizkiguten eta ezin genuen.” (1. profila: Txile)

“[...] iritsi eta, jendea ezagutzen genuenez, hamar egunen buruan aurkitu genuen bizitzeko leku bat.” (1. profila: Argentina)

Etxebizitzak alokairuan nola hartu dituzten aztertu ondoren, ohartu gara askotan ezinbestekoa dela edo komeni dela bertako norbait erreferentziatzat edukitzea etxebizitzaren jabeekin harremanetan jartzeko. Beste zenbaitetan, elkarrizketatu ditugun emakumeek kulturakomunitate bereko pertsonak, herrialde berekoak edo beste immigrante batzuek alokatuta dituzten etxebizitzak berralokatzen dituzte.

"Neska bat ezagutu nuen eta harekin batera hartu nuen etxe bat alokairuan. Kalean nengilaren batetik bestera, eta lokutorio batean sartu nintzen; gelak alokairuan zeudela irakurri nuen iragarki batean, eta hala ezagutu nuen neska hura; 'gela baten bila al zabilta?' galdetu zidan. Eta esan zidan 'nik gela bat daukat eta uzteko moduan nago'; Afrikakoa zen, Angolakoa." (2. profila: Mexiko)

"Han nire herrikide bat bizi zen, eta hari babes ofizialeko etxe bat egokitu zitzaionez eta ni garai hartan laguntza kobratzen ari nintzenez, etxearen jabearekin hitz egin zuen eta kontratua egin zidan." (4. profila: Ekuatore Ginea)

Aurrerago argituko dugunez, etxebizitza bat iragarkien bidez eskuratzeko jasaten duten diskriminazioaren ondorioz aukeratzen dute immigranteek, neurri handi batean, beste immigrante batzuekin batera hartzea etxebizitza alokairuan. Adierazpen askotan geratu da argi eta garbi oso larria dela egoera.

"Jendeak ez du konfiantzarik, uste dute ez dudala ordainduko. Nik uste dut kanpokoa izateagatik garestiago jartzen dutela prezioa; hemengo lagunak bat zure partez joaten bada etxea bilatzera, prezio merkeagoa egiten diote: zu zarelako eta ezagutzen zaitugulako. Baina ni joaten banaiz, lehenengo arazoa da ezetz esaten dizutela, asko kobratzen dizutela, eta oso garesti jartzen dutela." (5. profila: Sahara)

"Etxebizitzaren iragarkiak ikusi eta nik deitzen badut, atzerritarra zarela konturatzean, esaten dute 'ez, dagoeneko alokairuan dago'." (2. profila: Kolonia)

"Nik deitzen nuenean alokairuaz galdetzeko, esaten zuten, 'nongoa zara?' Eta nik esaten nien Errumaniakoa, eta erantzuten zuten 'eskerrik asko deitzeagatik, baina ez dut atzerritarrik nahi'." (6. profila: Errumania)

"Etxebizitza bila aritu ginenean, askotan gertatu zitzaigun erakutsi nahi ez izatea, garestiago jartzen zuten. Frustrazioa sentitzen nuen, ez baininduten ezagutzen, inpotentzia zen..." (1. profila: Txile)

Elkarrizketatu ditugun emakumeak ohartzen dira immigranteak direlako baztertzeko dituzten etxebizitza alokatzerakoan. Batzuetan diskriminazioa inplizitua eta zeharkakoa da, baina beste batzuetan, berriz, etxebizitzaren jabeek zuzenean eta esplizituki esaten diete "atzerritarrak ez ditugu nahi". Eta hori hala gertatzen da edozein dela administrazio-egoera; izan ere, hizkeragatik edo itxura fisikoagatik "hemengoak ez direla" ohartu bezain pronto esaten diete ezetz. Halako bizipenek frustrazioa eta inpotentzia eragiten die zenbait emakumeri.

Lan-alorra

Aztergai dugun atal honetan, emakume immigranteek lan-munduan txertatzeko Euskadin dituzten bideez eta enplegua bilatzeko ibilbideei buruz arituko gara, bai eta krisi ekonomikoarekin zerikusia duten alderdiei eta krisiak haien bizitzan eragiten dituen ondorioei buruz ere. Gero, zenbait emakumek lana aurkitzeko dituzten arazoak aztertuko ditugu; eta amaieran, immigrante-kolektibo honek bizi duen gainkualifikazioaren fenomenoaz ere arituko gara.

Lana aurkitzea

Aurreko kapituluaren esan dugunez, Espainia barruan *berremigratu* ondoren kokatu dira Euskadin elkarrizketatu ditugun emakume asko. Horrenbestez, elkarrizketatu ditugun emakume

kume askorentzat Euskadi ez zen hasieran pentsatuta zuten kokalekua: Espainiako beste leku batzuetan bizi ondoren aukeratu zuten zenbait emakumek Euskadi behin betiko kokalekutzat. Elkarrizketetan bildutako informazioaren arabera, Euskadira berremigratzeko arrazoi nagusia lan egiteko aukera gehiago edukitzea izan da.

“Hemen banuen ezagun bat, eta telefonoz deitzen zidanean esaten zidan, ‘etorri hona, Bilbo oso polita da eta lana badago, lan asko...’” (2. profila: Kolonbia)

“Nire bikotekideak ez du lanik eta dirurik ere ez, ez etxea ordaintzeko, ez jateko. Orduan, pertsona batek esan digu hemen Gasteizen lan gehiago dagoela.” (3. profila: Nigeria)

“Esan digute hau, Gasteiz, handiagoa dela Miranda baino, eta lan egiteko aukera gehiago daudela.” (6. profila: Errumania)

“Nire laguna hemen bizi delako eta esaten didalako hemen merkeagoa dela bizitza eta beste leku batzuetan baino gehiago ordaintzen dutela lana.” (8. profila: Honduras)

“Nire laguna hemen zegoen, eta esan zidan ‘han lanik ez baduzu, etorri hona’, eta hori izan zen motibaziorik handiena.” (8. profila: Paraguai)

Argi dago, oro har, lan-arrazoiengatik hautatzen dutela Euskadi. “Hemen lana badago” esapidea ageri da elkarrizketa guztietan, eta horrek agerian uzten du lana aurkitzea eta lan-aukera hobeak aurkitzea dela erabakiaren muina, eta EAEn lehendik dagoen norbaitek esan diola hori hala dela.

Immigranteen kolektiboaren artean, oso hedatuta dago Euskadi dela, Espainia osoan, ekonomikoki eremu oparoena eta bizi-kalitate hobereana eta gizarte-zerbitzu hobereanak dituen; nolana ere, Euskadiri buruzko irudi hori bera dute norberaren herrialdean daudela, hona etorri aurretik.

“Euskadi izan da beti Espainiako lekurik hobereana, hemen beti izan da lan asko, laguntza asko, denetik, eta hemen gaizki bazaude, bada, zergatik joango zara beste hiri batera. Beste aukera bat, Euskadin ezin baduzu ezer egin, segituan zure herrialdera joatea da.” (6. profila: Errumania)

Beste zenbaitetan, hemen familia-sare bat edukitzea da Euskadi hautatu izanaren arrazoia; izan ere, familia-sare horrek ematen dizkie beharrezko baliabideak eta informazioa inguru berrian batetik bestera ibiltzen ikasteko. Familia-arrazoiengatik migratzea erabaki zuten emakumeen artean, oso ohikoa da senarrak lan egiten duen tokiaren arabera hautatzea lekua.

“Hona etorri gara, Gasteiza, nire senarrak lana hemen aurkitu duelako.” (6. profila: Errumania)

“Lagunak hemen lan bat aginduko ziolako etorri ginen Gasteiza nire senarra eta biok.” (4. profila: Aljeria)

Orain ikusi ahal izango dugunez, hemen lana berehala aurkituko dutelako itxaropena betetzen da batzuetan. Beste batzuetan, berriz, Euskadin lehendabiziko lana aurkitu bitarteko ibilbidea oso luzea da. Oraindik ere lana aurkitu ez duenik ere bada.

Lan-munduan txertatzeko bideei dagokienez, elkarrizketatu ditugun emakume askok esan digute “harremanak” esaten zaien bidez aurkitu dutela batez ere lana. Horren hari bere-tik, sareak dira immigranteek lana aurkitzeko modurik ohikoena. Nolanahi ere, nabarmendu behar da bide horretatik aurkitzen dituzten eskaintzak, askotan, etxe-zerbitzuetan aritzeko izaten direla, hori baita EAEn lana aurkitzeko aukera gehien eskaintzen dituen jarduerasektorea. Horrenbestez, lan-ibilbideei buruzko kontakizunetan, etxe-zerbitzua da elkarrizketatuek izan duten lanean hasteko aukera nagusia, hona iritsi eta lehendabiziko hiletan.

“Egunkarietan, idazkariei buruzko iragarkiei erreparatzen nien, mota horretako lanei; eta lagundu nahi zidan inguruko jendeak, bada, haurra zaintzeko, etxea garbitzeko... lanak eskaintzen

zizkidan; horrelako lanak egiteko prest nengoen... baina ez nuen ezer ulertzen. Orain bai, orain ulertzen dut, horrelako lanak bakarrik aurkitu nitzakeen. Eta hala, bada, nire lehendabiziko lana zaharren egoitza garbitzea izan zen.” (1. profila: Argentina)

“Lan bila hasi nintzenean, aurkitu nuen lehendabiziko lana igandeetan emakume bat zaintzea izan zen.” (1. profila: Argentina)

Bestalde, zaintzen dituzten pertsonen etxean bertan bizitzeak, elkarrizketatu ditugun emakume askoren ustez, badu alde onik, beste herrialde batera iritsi eta lehendabiziko etapan.

“[...] lanean ari zaren etxean bertan bizi bazara, ez duzu gastu askorik, ez duzu egunero zertan bidaiak egin, ez duzu etxea ordaindu behar.” (8. profila: Honduras)

“Behintzat badut non lo egin, eta lan egiten dudan etxe berean bizitzea niretzat opari izugarri izan da. Baduzu non lo egin, zer jan, zer gehiago eska daiteke?” (5. profila: Maroko)

Horrenbestez, lan egiten den etxean bertan bizitzeak, hasieran, aukera ematen du toki berrian bizileku-arazoari aurre egiteko, bai eta garraio eta otorduetako gastuetan aurrezteko ere. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, egoera horrek alde txarrak ere baditu zenbait emakumerentzat; izan ere, askotan, ez dira atsedeen-eskubideak errespetatzen eta ez dago mugarik lan-orduen eta denbora librearen artean.

“Lan egiten nuen etxean bertan bizi nintzen, nire lehendabiziko lana izan zen eta ez zen samurra izan. Nik ez nuen ordura arte inoiz halako lanik izan, ez etxe-zerbitzuko, ez antzekoa... eta gizonetako bat zaintzen hasi nintzen; emakume hark morroitzat hartu ninduen. Ez zekien eskubideak nituenik, ez nuen inoiz atsedeenik; ostegunetan pixka bat lehenago etortzen zen emakume hura, eta arratsaldeko 4retatik 8ak arte irteten nintzen, eta gainontzean, egunero egiten nuen lan, larunbatetan, igandeetan.” (2. profila: Kolonbia)

Elkarrizketatu ditugun emakumeen artean, kalean eskean amaitu dutenak ere badira, lanik aurkitu ez zutelako edo beren herrialdetik ekarri zuten lan-kontratua amaitu zitzaielako.

“Iritsi nintzenean, eskean ibili nintzen, ez dago lanik.” (4. profila: Nigeria)

“Esan dit lan egingo dudala, etxe batean edo hotel batean... eta lan egin dut, bai, baina bi hil bakarrik, eta eskean bukatu dut; oso gogorra izan zen, haurrak Errumanian utzi ditut, ezin nuen haiei bidaltzeko adina diru lortzen.” (6. profila: Errumania)

“[...] eta eskean bukatu nuen, eta oso gogorra izan zen, oso gogorra; kalean egiten nuen lo.” (6. profila: Errumania)

Elkarrizketatu ditugun emakumeek bizipen horiei buruz esan digute oso egoera gogorak direla, ekonomikoki zein emozionalki. Halako estutasun-egoera larri eta egoera bereziki ahul hori, batik bat, hasieran bizi izaten dute, oraindik ez dutenean laguntza-sare bat edo agian izan dezaketen *modus vivendi* bakarra denean; hala ere, halako egoera ohikoa izaten da Errumaniako emakume ijitoen artean.

Langabezia-egoera eta krisia

Krisi ekonomikoak ondorio negatibo orokorra eragin du lan-merkatuan; izan ere, langabeziasak gora egin du nabarmen eta ezin konta ahala enplegu galdu dira. Horrenbestez, jende asko geratu da, bertakoak zein immigranteak, lanik gabe. Bildu ditugun adierazpen askotan entzun dugu azkenaldian askoz ere nekezagoa zaiela enplegua bilatzea, bai eta laguntza ekonomikoa lortzea ere.

“Lehendabiziko urteetan ondo geunden, baina denborak aurrera egin ahala, egoerak okerrera egin du. Laguntza gutxi lau seme-alaba izanik, alokairua ordaintzeko eta gastuak ordaintzeko dirua...” (4. profila: Aljeria)

Egungo krisi ekonomikoaren haritik beretik, merezi du nabarmentzea elkarrizketatu ditugun emakumeek helarazi diguten beste sentrazio bat; izan ere, esan digute bertako pertsonen

lehenetasuna dutela orain. Egoera horrekiko jarrerak kontrajarriak dira. Batetik, zenbait emakumek esan dute bidegabea dela. Hau da, haien ustez, bertakoek egin nahi ez zituzten lanak egiten zituzten immigranteek lehen; eta orain, berriz, lehia hautematen dute, etxe-zerbitzuaren sektorean ere bai, eta sektore hori, lehen, ez zuela oso gustukoa Euskadiko jendeak.

“Krisia dela-eta, orain, egoera oso kezagarria da, inork ez digu lanik eman nahi, immigranteak garelako.” (6. profila: Errumania)

“Gure sektorean [etxe-zerbitzuan] ez diogu inori lana kentzen, oso arraroa baita lan egiten duen etxean bertan bizi nahi izatea Espainiako norbaitek. Ni ez naiz inori lana kentzen ari.” (8. profila, ET: eztabaida-taldea)

Eta bestetik, zenbait emakumek onartzen du lan-munduan txertatzeko ez dituztela baldintza berberak, nahiz eta ez dauden beti ados. Emakume batzuek egoera hori naturalizat ere hartzen dute, eta ezarrita dagoen ordena justifikatzen saiatzen dira; esaten dute bertako herritarrei lehenetasuna ematea zuzena dela krisi-egoera honetan.

“Ni jabetzen naiz bertakoek lehenetasuna izan behar dutela lana banatzerakoan. Ni espainiarra banintz, ez nintzateke ados egongo nire herrikidea ez den bati emango baliote lana... Ohartzen naiz horrek hala behar duela.” (8. profila: Nikaragua)

“Zenbait oharretan irakurri dut 'ez dira hegoamerikarrak onartzen'. Ohar hori bertakoentzat edo Europar Batasuneko pertsonentzat da, eta, hori, bada, normala da krisi-garaian; ez dut esaten ondo dagoenik, mingarria ere egiten zait-eta.” (1. profila: Argentina)

Krisiaren ondorioak nabaritu ez dituela esan digunik ere bada; izan ere, emakume horiek adierazi digute hori izan dela beren ohiko egoera. Hau da, jatorriko herrialdean estatus-egoera beti bizi izan dutela adierazi nahi izan dute, eta horregatik esan dute krisi ekonomikoak ez diela, teoriarik behintzat, bizi-baldintzak okerrera egitea eragin. Nolabait ere, adierazi nahi dute orain Euskadin egoera berezitat hartzen dena beren herrialdean ohiko egoera dela. Beste kontu bat da, hala ere, euskal gizartean finkatu ostean haiek ere nabaritu dutela egoera ekonomikoa larriagoa dela, eta nolabait ere, ez zutela espero.

“Kontua da, nik beti bizi izan dudala krisia.” (2. profila, ET: eztabaida-taldea)

“Guk krisia ezagutu dugu... horregatik ez gaitu ustekabeen harrapatu krisiak. Krisia beti ezagutu dugu.” (2. profila, ET: eztabaida-taldea)

Egungo egoera berri honetan, nola jasan daiteke langabezia-egoera? Zer ondorio emozional eragiten die emakume immigranteei? Atal honetan, oso bizipen desberdin ditugu. Elkarrizketatu ditugun emakume guztien artean, langabezian dauden ia gehienek jasotzen dute subsidioa edo laguntza ekonomikoren bat, baina, nolana ere, ekonomia-ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna eragiten du epe ertainera lana ez edukitzeak.

“Etxean lanik gabe egoteak ito egiten nau, ez dut gustukoa, ez dut gosaltzeko gogorik. Lanean ari banaiz, bada, iritsi eta di-da, txokolatea edo dena delakoa; baina egoera hau...” (5. profila: Nigeria)

“Orain ez dago lanik eta uda gutxi [berehala] da, eta ez dut uste jasan izango dudarik. Lanik gabe ez naiz inoiz egon udan, inoiz ez lanik egin gabe udan... Zer egingo dut?” (5. profila: Nigeria)

Hala ere, laguntza baten mende bizitzea ez da oso eramangarria eta lasaigarria, ez baitu segurtasun ekonomikoa ematen. Askotan, egoera hori eta beldurra elkarri lotuta daude, bai eta porrotaren sentimenduari eta behin behineko konponbideari lotuta ere.

“Lehen laguntza jasotzen nuen, eta laguntza jasoko dudan azken hilabetea denez, eta sei hilabetez 300 euroko laguntza emango digutenez, eta ahurdun nagoenez, dagoeneko beldurrak nago, izututa...” (4. profila: Aljeria)

“Lan egin nahi nuke, lana, bai; nire dirua eduki nahi nuke; izan ere, laguntza eten dezakete, orain eten egin didaten bezala, eta agian datorren hilean kontratua amaituko zait, eta hala izan daiteke. Laguntzak egun batetik bestera eteten dira, baina lana baldin baduzu eta baldin bada-kizu sei hileko edo lau hileko kontratua duzula, bada, denbora hori igaro ondoren badakizu ez duzula ezer izango, baina...” (4. profila: Ekuatore Ginea)

Are eta beldur handiagoa sentitzen dute beren mende pertsonak dituzten emakumeek, eta ziurrenik emakume horiek ezin dute eta ez dute aukerarik bizitza planifikatzeko epe laburrera.

“Gaur egun asko eragiten dit garai kaskar hauetan pentsatzeak, lanik gabeko, laguntzarik gabeko eta ezer gabeko garai honetan pentsatzeak; eta zazpi lagun gara etxean, eta seme-alabak eta helduek ulertzen dugu ez dugula ezer, baina tripak ez du ulertzen, eta goseak amorratzen egon zaitezke, gosearen ondorioz zorabiatu zaitezke, eta, non jango dugu? Dirurik, lanik eta laguntzarik ez badugu.” (6. profila: Errumania)


“Beldurra ematen du lan bila joaten zarenean, dirua autobusean gastatzeak. Industrialdeak oso urrun daude, eta oinez joaten bazara, bi ordu baino gehiago behar dituzu, eta dirua gastatu behar da autobusean, joateko, gutxienez; gero, oinez egin dezakezu buelta. Eta telefonoan gastatzeak ere beldurra ematen du, bi ogi erosteko dirurik ere ez baitut, eta hiru euro bakarrik badituzu, bada, ez dakizu zer egin, ogia erosi ala telefonoan gastatu; izan ere, badakizu ez duzula lana bilatuko.” (6. profila: Errumania)

Azaldu berri ditugun adierazpen horietan, agerian geratu da langabeziak estutasun ekonomiko eta etsipena eragiten duela. Diru-laguntzak jasotzeari dagokionez, badira zazpi lagun ez osatutako familiak eta inolako diru-sarrerarik ez dutenak, eta gizarte-zerbitzuek ematen dieten laguntzari esker bizi dira; janaria eta arropa ematen diete, eta, zenbait kasutan, alokairua ere ordaintzen diete. Egoera horiek, estutasunetik haratagoak, ohikoagoak dira Errumaniako emakume ijitoen eta Saharaz hegoaldeko emakumeen artean.

Lan-munduan txertatzeko arazoak

Lehen ere agerian geratu denez, emakumea eta immigrantea izatearekin zerikusia duten arazo ugari dituzte emakume immigranteek. Emakume immigranteak lan-munduan txertatzea eragozten duten arazo horiek guztiak 6.3. eskeman adierazi ditugu.

6.3. ESKEMA Emakume immigranteak lan-munduan txertatzea eragozten duten arazoak



Iturria: Geuk egina

Eskema horretan agerian dagoenez, egoera ugari eragin dezakete, askotan oztopo bihurtzen direnak, lana ezin aurkitzea harrerako herrialdean. Arazo horien guztien artean, batzuei aurre egitea errazagoa da beste batzuei aurre egitea baino. Nahiz eta arazo guztiek lana aur-

kitzea eragozten duten, ez diete modu berean aurre egiten. Horrenbestez, lana aurkitzea euskara jakitearen baitan badago, askotan, baldintza hori betetzen ez dutelako egoera hori ulergarriago egiten zaie eta lasaiago hartzen dute, diskriminatu egiten dituztelako egoerak baino. Esate baterako, diskriminazio-egoerak bizi dituzte immigrante izateagatik ukatzen zaienean lana, kualifikazio-maila handiagoa izanagatik baztertu egiten dituztenean eta ezau-garri fisiologikoek agerian uzten dutenean atzeritarrak direla, nahiz nazionalitate espaini-
arra izan.

“Eta, beno, ohar batean ikusten badut euskara jakitea ezinbestekoa dela, bada, errespetagarrria iruditzen zait, leku elebidun batean nago, eta hizkuntza ez badut hitz egiten, nire ardura da.” (1. profila: Argentina)

“Bada, hori, deitu eta haiekin hitz egiten duzu, eta ez dira konturatzen kanpokoak zarela; izan ere, haiekin ondo hitz egiten baduzu, ez dizute igartzen kanpokoak zarela, eta elkarrizketa-egunean nabaritzen duzu horrela egiten dizutela. Batzuek esaten dizute horrek ez duela zerikusirik, baina badu. Ni joan naiz institututik atera berri diren lagunekin CVA entregatzera, eta nik DBH amaituta nuen eta ikastaro batzuk ere banituen, eta nire lagunek nahiz eta DBH amaitu ez, haiei deitzen zieten eta niri ez.” (5. profila: Maroko)

“Kontua da telefonoz hitz egin ondoren baietz esaten dizutela, lehenbailehen behar dutela neska bat lanerako. Gero, elkarrizketa-eguna iristen da eta... badirudi esan dizutela: “ez, beste neska bat espero genuen.” (5. profila: Maroko)

Ezaugarri fenotipikoez gain, ezaugarri kulturek ere eragozten dute lan-munduan txertatzea. Izan ere, emakume musulman batzuek esan digute beloa eramateak eragotzi egin diela lana aurkitzea, enpresaburuek ez dutelako nahi izaten beloa daramaten emakumeak kontratatu. Emakume horiek adierazi digute baztertuta sentitu direla arrazoi horrengatik, bai eta etxe-zerbitzuko lanak egiteko ere. Gurekin hizketan aritu direnean, ez da erabat garbi geratu beloa edukitzeagatik eta erlijio musulmanekoak izateagatik baztertu dituzten.

“Honela esan zidan gizarte-laguntzaileak elkarrizketara joan aurretik: “beloa kendu behar duzu kalean, etxe-atarira iritsi aurretik,” eta nik esan nion: “ezin dut, kalean ez, etxe barruan ez da ezer gertatzen, haurrak zaintzeko da”... eta berak esan zidan familia hori arrazista zela. Eta gero pentsatu nuen, bai kendu egingo dut, ezinbestekoa baldin bada, bai; lan hori behar dut, dirua behar dut... Ez dute nahi beren haurra belodun emakume batekin ikustea bizilagunek ...” (4. profila: Aljeria)

“Arazoak izan ditut lana aurkitzean, beloa nuelako. Ez digute Latinoamerikako emakumeei bezala ematen lana, haiei guri baino lan gehiago ematen diete, eta erlijioagatik da, gu musulmanak garelako; ez dituzte musulmanak onartzen, ez dakit zergatik.” (4. profila: Aljeria)

Errumaniako emakume ijitoek, ordea, esan dute ez dutela arazorik izan lana aurkitzeko buruzapia eramateagatik.

“Nik beti esan dut sinestuna naizela, eta nire erlijioak ez duela onartzen buruzapirik gabe ibiltzea, eta esan dudanetan ez dut arazorik izan.” (6. profila: Errumania)

Horrenbestez, esan dezakegu buruzapia eramatea arazo bat izan daitekeela etxe-zerbitzuko lan bat aurkitzeko ere. Enplegu-zerbitzuko langileek berek ere esan izan diete emakumeei hobe dutela buruzapirik gabe joatea laneko elkarrizketa bat egitera, ezinbesteko premia-egoeretan ken dezaketela ohartuz gero; izan ere, jakin badakite zer jarrera izaten duten bertakoek belodun emakume musulmanen aurrean.

Gainkualifikazioa

Aztertzea merezi duen beste gaietako bat lan-alorreko gainkualifikazioaren fenomeno da; hau da, prestakuntza-mailaren eta betetzen den enplegu-kategoriaren arteko desorekaren fenomeno. Gainkualifikazioak berebiziko garrantzia dauka zenbait emakume immigrante-

ren kasuan. Izan ere, nahiz eta prestakuntza-maila handia izan, egiturazko faktore askoren ondorioz –hizkuntzarekin zerikusia duten arazoak, administrazio-egoera, jatorriko herrialdean lortutako tituluak homologatu gabe edukitzea eta gizarte-sare gutxi edukitzea–, alferrik galtzen da edo gaizki baliatzen da haien kualifikazioa. Egoera horrek ondorio anitz ditu. Batetik, maila pertsonalean, baldintza kaskarreko enpleguak edukitzea, autoestimua galtzea eta norberaren ahalmenetan konfiantza galtzea eragiten duelako; eta bestetik, gizarte guztiak giza kapitala galtzea eragiten duelako.

Emakume batzuek etorri aurretik bazekiten etxe-zerbitzuko lanetan arituko zirela; beste batzuek, ordea, prestakuntza-mailarekin bat zetorren lanen bat aurkitzeko asmoa zuten.

“Nik banekien zertara nentorren, etxe-zerbitzuan lan egitera nentorren, eta banekien hala izango zela paperik ez dudalako; muga dezente ditut eta garbi daukat zertara etorri naizen. Garbi daukat, baina ez nago ados.” (8. profila: Nikaragua)

“Uste nuen ikasketak edukiz gero, edozein lan egin dezakezula, eta uste nuen paperik gabe ere posible zela, eta ez; nahiz eta paperak eduki, ezin dut nire tituluarekin lan egin. Esaten didate ezin dudala ezertan lan egin, etxeetan bakar-bakarrik.” (4. profila: Aljeria)

“[...] nik uste nuen nire karrerarekin ez zitzaidala zaila izango lana aurkitzea, eta hala esan nuen: “nik uste dut ez dela oso zaila izango”; jakinaren gainean nengoen, baina hemen egoera benetan bizitzea oso zaila da, eta berdin dio besteek esatea, ez baita gauza bera entzutea eta benetan bizitzea.” (8. profila: Nikaragua)

Elkarrizketetan agerian geratu da lan-alorreko asmoen –handiagoak prestakuntza-maila handiagoa den neurrian– eta errealtatearen arteko desorekak (hainbesteko prestakuntza-maila behar ez duten lanpostuetan aritzean datza errealtate hori) frustrazioa, etsipena, amorrazioa eta nahigabea eragiten duela.

“Nik garbi nuen, eta esan zidaten hemen zer lan-mota egin behar izango nituen; baina nik uste nuen Nikaraguan bezala egingo nuela lan, eta oso gogorra da. Eta hemengo egoerara eta unean unera egokitu behar dugu, sortzen den lanera egokitu behar dugu.” (8. profila: Nikaragua)

Nahiz eta jakin aukeran izango zituzten lan bakanak beren jatorriko herrialdean zituztenak baino kaskarragoak izango zirela, eta beren prestakuntza-mailari dagokiena baino maila baxuagokoak izango zirela, errealtatea bizitzea oso gogorra da. Gainera, Nikaraguako emakumeak izan dira, oro har, hona etortzen azkenak, eta lan-munduan txertatzeko aukerak, ginkualifikazioarekin zerikusia duten arazoak arazo, ordurako askoz ere mugatuagoak ziren. Ginkualifikazioaren arazoa bizi duten zenbait emakumek adierazi digute egoera horren ondorioz, “bigarren mailako hiritar” sentitzen direla.

“AEBtan adituak erakartzen dituzte, eta berdin zaie nongoa zaren. Hemen, ordea, kanpoko emakumeak elkartzen garenean, guztiak dauzkate tituluak. Gehienak etxeak garbitzen aritzen dira, eta hemen bigarren mailako hiritarra izatea bezalakoa da. Eta etxe-zerbitzuko lanak, ez dut esaten duinak ez direnik, baina esker txarrekoak dira, eta duela gutxira arte ez nuen kontraturik ere, eta egiten duzuna egiten duzula, beti akatsen bat egin duzula esaten dizute, eta niretzat askotan lanbasa pizgarria da, lanbasa hartzen dut eta amorrazio guztiarekin hasten naiz garbitzen... Eta hurrengo egunean berriro lanera joan, eta esaten dizute zure lana ez dela ona, edo gaizki egin duzula gauzatxo bat utzi duzulako, eta dauzkagun arazo guztiakin... eta justu-justu bizirik irauteko bizimodua daukazu; hori da niretzat mingarriena.” (5. profila: Sahara)

“Niri esaten didate: “zuk daukazun ikasketekin ez duzu lanik aurkituko”; eta nik esaten diet kazetari-lana ezetz; baina Enpleguko Institutu Nazionalean esaten didate: “zuk garbitasuneko eta zaintzako lanak jarri behar dituzu.” Amorratio handia ematen dit.” (5. profila: Sahara)

“Izan ere, unibertsitateko karrerara iristen zarenean, bada, errespetua ematen dizu harekin zerikusia duen lanen batean aritzea.” (5. profila: Sahara)

“Nik Argentinan ikasi nuen, curriculuma banuen eta hemen dena bertan behera geratu zen; Lanbide Heziketa eskatzen dute idazkari-lanetan aritzeko, eta nik ez nuen titulu hori...” (1. profila: Argentina)

Orain arte adierazitako guztia gorabehera, ez du esan nahi prestakuntza-maila ertain edo baxua duten emakumeek ezin dutenik etxe-zerbitzuko lan bat ez den beste lan bat aurkitu. Emakume batzuk lan horietan tratatzen dituzten moduak oso ondorio negatiboa eragiten du eskaintzen dizkieten enpleguei buruzko balorazioan eta emakume horien autoestimuan. Elkarrizketatu ditugun emakumeek adierazi digute diru-sarrerak lortzeko premiak duela lehenetasuna, eta duintasuna bera baino garrantzitsuagoa dela zenbaitetan; hortaz, jokabide umiliagarriak bizi behar izaten dituzte batzuetan.

“Nik esaten dut premiagatik jasaten dugula egoera hori, buru-estimua kendu egiten dizutela-ko.” (5. profila: Maroko)

“Zuk ez duzu ezer balio, beti igual; zerbait gaizki egin eta errua zurea da beti; Chuki txakurra bezala, hark baino balio handiagoa du, beti gutxietsi egiten dizute.” (5. profila: Maroko)

“Nik beti lortu nahi nuen morroi bat ez izatea, etxeetan morroi sentitu izan naiz.” (5. profila: Maroko)

Zenbait emakumek esan dute lan-alorreko asmo txikiak dituztela, eta atzerrian edozein lan ona dela, eta beraz, eskaintzen dutena onartu egin behar dela eta lana “aukeratzeko” asmoa alde batera utzi behar dela.

“Garbiketa-lanetan, ostalaritzan, etxeetan zaintza-lanetan aritu naiz; denetarik egin dut, atzerrian zaudenean ezin delako lana aukeratu. Patatak biltzen ere egin dut lan; oso gogorra zen, baina ohitu egiten zara eta ondo... eta deitzen zidatenean, bada, beti pozik joaten nintzen. Eta nik uste dut horregatik esaten zaiola lana; eta gauza guztiei aurre egin eta nekatu egiten zara, lana da, eta etxean egoteaz ere nekatzen zara.” (6. profila: Errumania)

“Lana eskaintzen badigute, hartu egiten dugu, eta diru gutxi izan edo asko izan, gu beti joaten gara.” (6. profila: Errumania)

Ondorio modura esan behar dugu emakume immigranteentzat lana aurkitzeko biderik nagusia harreman-sarea dela, bertako jendearentzat ez bezala, gehiago balioesten baita, hemengo kasuan, kualifikazioa. Emakume immigrante gehienek ez dutenez gizarte-sare zabalik helmugako herrialdean, ez dute eskura lan-munduan txertatzeko bide hori; beraz, arazo horrezaz gain, emakume immigranteek atzeritarrak izateagatik dauzkaten beste arazo batzuk ere kontuan hartuz gero, lan-mota gutxi batzuk baino ez dituzte aukeran. Lan gehienen baldintzak, gainera, oso kaskarrak dira, ekonomiari dagokionez zein lan-eskubideen gabeziari dagokionez.

Hauteman dugu, halaber, lan txukunari buruzko iritzia oso desberdina dela elkarrizketatu ditugun emakumeen profilaren arabera. Horren haritik beretik, emigratu aurretik prestakuntza-maila handien eta baldintza hobeak zituzten emakumeek aukera hobeak nahi dituzte; eta gizarte-hezkuntzazko maila txikiagoa duten emakumeek, berriz, edozein lanekin gustura daudela adierazi dute eta esan dute “lana ezin dela aukeratu”.

Gizarte-sareak

Aurreko ataletan ikusi dugunez, gizarte-sareen garrantzia ukazina da. Sareak funtsezkoak dira immigranteen bizitzan, laguntza eta baliabideak eskaintzen baitizkiete helmugako herrialdera iritsi berritan zein bertan ematen duten denbora guztian. Harreman-sarea edukitzeak berebiziko garrantzia du, batez ere, immigratu eta lehenengo fasean, toki berrian kokatzen laguntzen baitiete.

Senideen sarea eta/edo ezagunen sarea ez badute -eta oso ohikoa da-, gizarte-erakundeak, eta, batik bat, erlijioarekin zerikusia duten erakundeak, sare horien ordeztaritzen dira, eta immigrante horiei bizitzeko toki bat, lehendabiziko lana eta janaria ematen diete. Erlijio-erakunde horren jatorria eta izaera edozein dela ere, elkarrizketatu ditugun emakume asko baliatzen da erakunde horiez premia handien duten unetan, eta behar beste laguntza jasotzen dute.

"[...] kongregazioko ahizpek han jakinaren gainean jarri zidaten, eta esan zidaten ostatua ez hartzeko eta hemen zeuden ahizpengana jotzeko; telefono-zenbaki guztiak eman zizkidaten eta ahizpa honekin hitz egin nuen, eta honela esan nion: 'begira, hemen nago eta bizitzeko toki baten bila nabil'. [...] eta moja batzuk zeuden eliza batera joan nintzen, eta esan nien ni ere moja izan nintzela, eta orduan, une horretan, nire lehendabiziko lana aurkitu nuen." (2. profila: Mexiko)

"Iritsi ginenean, Caritas erakundeko gizarte-langilearekin hitz egitera joan ginen, eta han txartelak ematen dizkigute arropa erosteko, eta jangelara joateko ere bai. Ondo jaten dugu leku horretan eta han ezagutu genuen non lo egin ez duen jendeari laguntzen aritzen den gizon bat, eta hotela ordaintzen die haiei, besteak beste." (4. profila: Aljeria)

"Ni mezatara joan nintzen eta mezaren ondoren pianoa jotzen aritu zen neskaengana hurbildu nintzen, eta esan nion: 'begira, Nikaraguakoa naiz, eta bizitza-gorabeherengatik etorri behar izan dut, eta badakit hemen gauzak zailak daudela eta joan garen lekuan itzarote-zerrenda bat baino ez digute atara'. Begi onez hartu ninduen eta hurrengo egunean deitu zidaten esateko ez kezkatzeko, beste leku batetik deituko zidatela." (8. profila: Nikaragua)

"[...] haurdun nengoen, kalean egiten nuen lo, eta hala ezagutu nuen udaletxeko langile bat eta hark lagundu dit etxea aurkitzen eta, eta ospitalera laguntzen dit gaizki hitz egiten dudalako; Caritasen etxe bat lortu dit." (6. profila: Errumania)

Horren ildotik, harrerako herrialdean hurbileko senide-sarea edukitzea babes izugarria da bakardade-egoeretan, immigranteen kasuan ohikoagoa baita.

"[...] bata besteari laguntzen zionez hona etortzen, hasiera batean funtsezkoa izan zen, etxea lortzeko zein lana aurkitzeko, estutasunei zein larritasunei aurre egiteko..." (1. profila: Argentina)

"Ez nintzen inoiz bakarrik sentitu, gurasoak eta ahizpak ondoan izan nituen beti." (6. profila: Errumania)

Hurbileko laguntza emozionala ez edukitzeak, ordea, erabateko bakardadea, konfiantzarik eza eta autoestimurik eza sentitzea eragiten du, eta zenbaitetan, depresioa ere bai.

"Jatorriko herrialdean duzu familia, eta gizarte- eta laguntza-sarea ere bai, nork bere taldeak eta antzekoak egiten baititu. Baina nik, etorri berritan, ezin nuen talderik egin inguruan. Senarra lagunekin irteten zen, haiekin hitz egiten zuen; baina ni: E! hemen nago! Eta ez zegoen modurik. Eta hala, bada, etorri eta bi urtera izugarritzko depresioa izan nuen, eta esan nion senarri: 'alde egingo dut edo hil egingo naiz!'" (2. profila, ET: eztabaida-taldea)

"Lehendabiziko urtean oso gogorra egin zitzaidan jendea ezagutzea; lan asko egiten nuen eta ez nuen sozializatzeko unerik hartzen; lanera etorri nintzen, eta, hori, lan eta lan baino ez nuen egiten; baina horrek nire osasunari kalteak ekarri zizkion. Eta pentsatu nuen gaixotu egingo nintzela, ez fisikoki bakarrik, bai eta emozionalki ere. Eta orduan ezagutu nuen emakumeen elkartea." (1. profila: Txile)

"Beti nire barrura begira nago, eta ezin dut lagunik aurkitu; oraingoz ez dut lagunik, beti ni bakarrik. Ez nuen lagunik, beti etxean; horregatik nengoen oso urduri, bakarrik, anbulantzia, beti pentsatzen nuen hil egingo nintzela, bihotzeko minak." (4. profila: Aljeria)

"Urte asko dira hemen bizi naizela, eta bakardadea sentitzen dudala da egia; ez da ona, uste dut gaixotasuna dela." (3. profila: Nigeria)

“Ez nuen inor hemen, bertako emakume-talde bat ezagutzen nuen, espainiarrak, baina ezin nuen fio. Nire etxearen falta handia sentitzen nuen eta ezin nuen alde egin.” (2. profila, ET: eztabaida-taldea)

Bakarrik egoteagatik osasun-arazoak izan dituzten emakumeak ere badira; esaterako, larritasun-krisia edo depresioa izan dutenak.

“Gauza askok eragin zidaten depresioa; pentsatzen nuen: ‘ez banaiz Mexikora bueltatzen, erotu egingo naiz’. Eta egun batean itxaropenaren telefonora deitu behar izan nuen. Nire buruari esaten nion nire mutila eramango nuela eta nire buruaz beste egingo dut, eta itsasora joango naiz eta han hilko naiz; eta ia sei urtez egon nintzen tratamenduan. Eta orain badakit zer sentitzen duen halako depresio ikaragarria duten pertsona batek. Bost urte igaro ondoren, depresiorik ez dago; baina hona etortzen diren pertsona guztiek depresioa izaten du etorri eta bi urtera.” (2. profila, ET: eztabaida-taldea)

“Nire herrialdean oso baliagarria nintzen, beti jendearekin, beti dut burua, eta oso izaera ona dut jendearekin; baina hemen ezer gabe, ezer-ezer gabe, bada, nire pertsonalitatea zero mailan dago, ezin dut nire buruarengan konfiantza izan, ez dut konfiantzarik...” (4. profila: Aljeria)

Horrenbestez, hurbileko laguntza ez izateak oso ondorio larriak ekar diezazkieke egoera hori jasaten duten emakumeei, osasun emozionalean zein osasun fisikoan. Hutsaren hurrengoak sentitzen dira, bakarrik sentitzen dira, norberaren indarrekiko segurtasuna eta uste ona galtzen dute eta inguruan mesfidantza sortzen dute.

Aztergai dugun atal honetan ikusi dugunez, gizarte-sareek bizitzaren alor guztiei eragiten diete zeharka. Laguntza-sare bat izateak baliabideak eskura izateko erraztasuna dakar, ekonomikoa zein emozionalak. Helmugako herrialdean harreman-sarea eta senide-sarea ez duten emakumeentzat, ezinbestekoa da gizarte-erakundeen eta immigrante-elkarteen laguntza, premia edukiz gero azken baliabide hori baino ez baitute eskura emakume immigranteek.

SHOCK KULTURALA ETA AKULTURAZIOA

6.3

Immigranteek, helmugako herrialdera iristen direnean, egoera sozioekonomiko berriei aurre egin behar izaten diete, eta horrez gain, haientzat arrotzak diren beste kultura, tradizio, arau, lege eta balio batzuekin egiten dute topo. Horrek esan nahi du egoera soziokultural eta psikologiko berri horretara moldatzeko ahalegina egin behar dutela, eta ahalegin hori handia edo txikia izan daiteke, faktore-multzo baten baitan baitago. Batetik, faktore psikologikoak ditugu; esate baterako, izaerarekin zerikusia duten ezaugarriak. Eta bestetik, faktore sozioekonomikoak; esate baterako, gertutasun/urruntasun kulturala –balioetan hautematen duten desberdintasuna–, jatorriko herrialdeak zein harrerako herrialdean bizi izandako egoerak, jasotako laguntza, etab. Psikosozialki zenbat eta hobeto egokitu, eta, beraz, harrerako gizartera zenbat eta hobeto moldatu, orduan eta integrazio-maila hobea lortu dutela hautemango dute, eta horrek ondorio positiboa eragiten du immigranteen ongizate subjektiboan. Psikosozialki behar bezala egokitzen ez badira, ordea, egoera horrek estresa eragin diezaietke, larritasun- eta amorratio-sentimenduak, gaitasunik ez dutelako sentimendua eta autoestimua galtzea ere eragin diezaietke, eta, horrenbestez, oso ondorio negatiboak ekar ditzake haien ongizatean eta osasun mentalean zein fisikoan.

Elkarrizketetan bildu dugun informazioaren arabera, elkarrizketatu ditugun emakumeek ez dituzte kultura-alorrean oso desberdinak ikusten bertako herritarrak. Hortaz, gehiengoan taldearen (euskaldunak) eta elkarrizketatu dugun taldearen arteko desberdintasunez galde-tu dugunean, ohiko elementuak nabarmendu dituzte, eta adierazi dute desberdintasunak ez direla handiak.

Bestalde, hainbat kultura-jatorritako emakumeak bat etorri dira euskal gizartea deskribatzekoan: hasieran nahiko "itxiak" dira, mesfidatiak dira ezagutzen ez duten guztiarekiko, baina konfiantza hartzen duten neurrian, lagun hoberenak bilakatzen dira.

"Oso jende irekia da eta asko laguntzen dute; beno, hasieran, konfiantzarik ez badute, oso itxiak dira, baina gero oso jatorrak, oso abegitsuak dira. (3. profila: Senegal)

"Hona iritsi nintzenetik igarri nuen nolakoa zen hemengo jendea. Oso zaila da sartzea, baina sartzen zarenean, benetan sartzen zara." (5. profila: Sahara)

"Itxiak dira, ez zaie beste toki batzuetako gauzak probatzea gustatzen, daukatenarekin gertatzen dira... Egunero dilistak jaten badituzte, ez dute aldatuko, ez du probatu nahi nik eskainiko diodana." (3. profila: Kamerun)

"Jendea oso itxia, baina behin jendea ezagututa, jendea oso-oso atsegina da eta betiko lagun bihurtzen zara." (7. profila: Txina)

"Begira, badira hogeita hamar urte etorri nintzela eta baditut lagunak, hemengo jendearen lagun egiten bazara, ondo hartuko zaituzte." (7. profila: Txina)

"Batzuetan, Txinako komunitatekoak sartzen dira eta ez zaituzte agurtzen. Agian ez zaituzte ezagutzen eta ez dira ausartzen, baina hona ezagutzen ez nauen jendea sartzen da, eta agurtzen naute. Irekiagoak dira." (7. profila: Txina)

Nolanahi ere, gehiengoan osatzen duten gizartearen eta norberaren kultura-komunitatearen arteko aldeaz aritu garenez, oso iritzi desberdinak jaso ditugu, jatorriaren araberrakoak. Horrenbestez, Latinoamerikako eta Afrikako emakumeek adierazi dute bertakoak itxiagoak direla; Txinako emakumeek, berriz, esan dute euskaldunak askoz ere irekiagoak direla beren komunitatekoak baino.

Horrez gain, adingabeen hezkuntzan hauteman dira desberdintasun handienak. Hau da, emakumeek elkarrizketetan esan dute, beren ustez, hemengo seme-alabek askatasun *handiegia* dutela.

"Haurrei askatasun handiegia ematen zaie, ez zaie... Hau da, seme-alabek denetarik dute, gurasoek bizi ematen dute seme-alabengatik, eta ez seme-alabek gurasoengatik; ez zait batere gustatzen, inork ezin die seme-alabei deitu; hau da, 11 urte dituzten neska-mutikoak haurrak izango balira bezala tratatzen dira, amak den-dena egiten die. Ezer egiteko gauza ez izateko moduan hezten dira." (2. profila: Mexiko)

"Atentzioa eman zidan haurrak eta nerabeak eztabaidan ikusteak gurasoekin eta pertsona helduekin; errespetu falta horrek harritu egiten ninduen. Txundituta geratu nintzen; izan ere, nire herrialdean ez zaio amari aurre egiten, eta bestela, zigorra, edozein dela adina." (2. profila, ET: eztabaida-taldea)

"Bada, hemen, askatasun handia ematen zaie haurrei, egia da, bai; guk ere ematen diegu askatasuna, baina askatasun handiegia ematea ez da ona batzuetan, menderakaitz egiten dira, eta hori ez da ona. Baina ondo hezi behar dira, gauzak esan egin behar zaizkie, mugak jarri, eta gauza batzuk ezin badituzte egin, bada, gauza batzuk argi eta garbi utzi behar dira; baina, tira, nire ustez, askatasun handiegia dute eta oso menderakaitzak dira. (6. profila: Errumania)

“Askatasun handia dago, hurrek asko jotzen dute ama, iraindu egiten dute eta ama geratzen da... bada, hori... txundituta. Eman dezakezu, nirekin nahi duzuna egin dezakezu nik ezin dizut-eta ezer egin; hori ez dago ondo; haur hori hazten denean, egin dezake edo lapurtu dezake edo norbait hil; askatasun handia ematen zaie. Eta berak esaten du amak askatasun handia ematen diola, drogak har ditzake, erre eta edan dezake; hori ez dago ondo. Askatasun handia ematen diozu txikia denean, eta handia denean ez daki zer egin. Ez denak, baina gutxi gorabehera esaten dut, batez beste...” (6. profila: Errumania)

Elkarrizketatu ditugun emakume gehienei oso menderakaitzak iruditzen zaizkie hemengo nerabeak. Alderdi negatibotzat hartzen dute, eta elkarrizketatu ditugun emakumeek ez dute nahi beren ondorengoek halako jarrerak ikastea. Horrez gain, adierazpen askotan hauteman dugu adineko pertsonen hemenean ematen zaien tratua eta beren herrialdeetan ematen zaien oso desberdina dela. Latinoamerikako eta Errumaniako emakumeek eman diote garrantzi handien alderdi horri. Nolanahi ere, kultura-egoeren arabera jokabideak daudelako izan daiteke hori hala; esaterako, adineko pertsonak aintzat ez hartzea ezinezkoa iruditzen zaielako. Beste adierazpen baten arabera, berriz, beren herrialdeetan antzeko familia-prozesuak ez direlako gertatu izan daiteke hori hala.

“Adineko jendeari hemen ematen zaion tratua oso desberdina da, nire kulturean ematen zaienarekin alderatuta. Guretzat jende helduak badu oso irudi eta espazio berezia, haiek baitute jakinduria, haiek irakasten baitigute nola jarraitu bizitzen. Hemen, berriz, balio ez duten objektutzat hartzen dira, ezertarako gauza ez diren pertsonatzat hartzen dira; ez zaie jaramonik egiten, ez baitigute ezer irakatsiko. Hori ez dut gustukoa, eta horregatik ez naiz hemen geratuko, hori oso tristea da.” (2. profila: Mexiko)

“[...] oso elkartuta gaude; aitona-amonak zaindu behar badira, etxeetan zaintzen ditugu, egoitzak oso garestiak dira han. Eta guk dirurik ez dugunez, bada, etxeetan zaintzen ditugu hiltzen diren arte. Nire ustez, aukera izanez gero, han ere eramango genituzke egoitzetara.” (2. profila: Kolonbia)

Elkarrizketatu ditugun emakume gehienek ustez, familia-plangintza ere oso desberdina da. Alderdi horretan, kultura-jatorriaren arabera desberdintasunak oso nabarmenak dira. Batetik, emakume batzuek negatibotzat hartzen dute haurrak edukitzeko erabakia atzeratzea. Beste batzuek, berriz, positibotzat hartzen dute.

Laburbilduz, elkarrizketatu ditugun emakumeek, oro har, ez digute adierazi shock kultural handia bizi izan dutenik. Elkarrizketatu ditugun emakumeek, edozein dela jatorria, euskal gizarteaz orokorrean aritu direnez, gehiago nabarmendu dituzte antzekotasunak desberdintasunak baino. Hala ere, zenbait alorretan, euskal gizartea eta haiena alderatu dutenean, adierazi dituzte oso deigarriak egin zaizkien desberdintasunak. Esate baterako, seme-alaben heziketarekin zein zaintzarekin eta adineko pertsonenganako tratuarekin zerikusia duten alderdietan hauteman dituzte desberdintasun nabarmenenak.

AKULTURAZIOA ETA IDENTITATEA

6.3.2

Immigranteen integrazioa zenbait ikuspuntutatik azter daiteke; izan ere, oso fenomeno konplexua da, eta integrazioak bere baitan hartzen dituen faktoreei buruzko eztabaida asko dituzte zientziaren alorrean.

Integratio terminoa -edo akulturazio terminoa- bi kultura-talde edo gehiago harremanetan jartzeak dakarren kultura-aldaketaren prozesutzat hartzen da. Akulturazioak, asimilazioak ez bezala, ez dakar jatorriko gizarteko balioak eta tradizioak galtzea.

Emakume immigranteek berek integrazioaz duten ikuspegiari erreparatuko diogu; hau da, integrazioaz zer iritzi duten eta haiek integrazioari zer zentzu ematen dioten aztertuko dugu.

Bildu dugun informazioan, agerian geratu da euskal gizartean akulturazio-prozesua ez dutela modu berean bizi izan eta prozesu horretan bizipen desberdinak izan dituztela emakumeek, eta estresa eragiten duten egoerei aurre egitean ere beste hainbeste gertatu dela. Horrenbestez, Euskadin denbora luze daramaten emakume gehienek esan dute euskal gizartean integratuta sentitzen direla. Emakume batzuen ustez, integrazioa bertako lagunak edukitzea da; beste batzuentzat, berriz, integrazio soziokulturala ezinezkoa da ez badaude lan-alorrean integratuta.

"Bai, oso-oso integratuta sentitzen naiz; baditut bertako lagunak, baina koadrila bat ere. Beste kide bat naiz. " (7. profila: Txina)

"[...] integratuta nago, haiekin hitz egiten dut, haiek bezala pentsatzen dut, jokabidea ere... Azken batean, badira bost urte hemen bizi naizela, eta, jakina, dena hartzen da." (3. profila: Senegal)

"Gizartean sartzen bazara, Euskadin integratu egin behar duzu, bestela nola ulertuko diezu; negoziarik ez duten helduak gehiago egoten dira beren lagun-taldean, eta ez integratu; baina jende gaztea integratutago dago. Hona etorri nintzenetik uste asko igaro direnez, bada, ni dagoeneko gasteiztarra." (Perfil 7: Txina)

"Nire mutil-lagunaren, bikotekidearen familiarekin dut harremana, eta ni dagoeneko bertakoa; nire herrialdeko hitz batzuk ahaztu ere egin zaizkit; pentsa, hainbeste aldatzea..., ni hemengoa sentitzen naiz. Asko ohitu naiz, hemengo lagunak ditut, elkarrekin egiten ditugu gauzak, parte hartzen dut." (2. profila, ET: eztabaida-taldea)

"Ez, ez naiz integratuta sentitzen, ez naizelako niri dagokidan lanpostuan lanean ari. Agian, erabat integratuta ez naiz sentitzen, baina pixkanaka ari naiz, prozesuan nago." (8. profila: Nikaragua)

Elkarrizketatu ditugun emakumeen ustez, integratuta egoteko ez da nahikoa integratuta sentitzea; izan ere, haien ustez, gizarte honetako kide izateko, Euskadiko emakumeen itxura izan behar dute alderdi guztietan (janzkera, hizkera, gustuko gauzak, etab.).

"Badut Argentinako lagun-talde bat, eta nire bikotekidea Santurtzikoa da, eta, beno, hamar urte igaro ondoren, hau dela edo bestea dela, egun batean gizarte honetako kide sentitzen zara; baina, bai, askotan zaila da besteek ere zu bertakotzat hartzea, baldin eta ez bazaude oso mimetizatuta, ez baduzu haiek bezala hitz egiten, ez bazara haiek bezala janzten. Eta zerbait desberdina baduzu, berehala galdetzen dizute: "zenbat denbora daramazu hemen bizitzen? Herrimin handia sentitzen al duzu?, bueltatzeko asmorik ba al duzu?"; mota horretako galderak egiten dituzte. Hori da euskaldunekiko elkarrizketa, eta ez dira hortik ateratzen. A! eta bigarren fasean, esaten dute: "nik senideak ditut Argentinan"; Hori da elkarrizketa, behin eta berriz errepikatzen dena; gauza bera esaten digute guztioi, askotan hitz egin dugu hortaz..." (1. profila: Argentina)

Horrez gain, bi elementu hauek ere berebiziko garrantzia dute integrazioan. Batetik, immigranteek moldatzeko ahalegina egin behar dute; eta bestetik, harrerako gizarteak ere onartu eta barnean hartu behar ditu.

Agerian geratu da, halaber, elkarrizketatu ditugun emakumeek ikuspegi desberdina dutela integratzeko behar diren baldintzei buruz. Horrenbestez, emakume batzuen ustez, oso garrantzitsua da gaztelania eta euskara jakitea; beste batzuen ustez, berriz, harrerako gizartearen ohiturak bereganatzea da harrerako gizartean integratzea, bai eta bertako herritarrekin "nahastea" ere.

"Nork bere aldetik jarri behar du, bestela, beti defentsiban bazaude, bai?, ez zara inoiz integratuko." (2. profila, ET: eztabaida-taldea)

"Hizkuntzarik gabe ezin da integratu." (4. profila: Mauritania)

"[...] nik euskaldun sentitu nahi badut, hizkuntza hitz egin behar dut [euskara]; hori gustatzen zait, nire herrialdean ere ama-hizkuntza dut." (3. profila: Kamerun)

"[...] hemen zaudenean, jende asko, guk bezala egin behar duzu; zure etxean nahi duzuna egiten duzu, baina hemen ez." (6. profila: Errumania)

"Beste immigranteen kolektibo batzuekin gertatzen da -uste dut argentinarren artean ez dela hain ohikoa- ghettoak sortzen dituztela; gu gehiago nahasten gara; zenbait kolektibok badituzte beren... baina hori ez da nik nahi dudana, ez naiz horrekin identifikatzen, eta nik ez dut immigrante sentitu nahi, hemengoa sentitzen naiz ni. Beraz, ni egokitu egiten naiz." (1. profila: Argentina)

"Ohitu ona da, ni ere moldatu egin nintzen, eta derrigorrean moldatu behar da; gustatu edo ez gustatu, atzerrian bazaude, haien ohitura guztietara moldatu behar duzu." (6. profila: Errumania)

Hortaz, elkarrizketatu ditugun emakume gehienentzat integrazioa eta "euskaldun sentitzea" erabat lotuta daude; hau da, beren ustez, integrazioa esparru kulturalera mugatzen da.

Berehala onartuko zituztelako ustea zuten emakume batzuk oso minduta sentitzen dira; izan ere, nahiz eta urte asko daramatzaten Euskadin, bertakoek immigrantetzat hartzen dituzte oraindik ere, eta ez euskalduntzat. Egoera hori ohikoagoa da Euskadin denbora luze daramaten Latinoamerikako emakumeen artean, beste jatorri batzuetako emakumeen artean baino, kultura-alorrean hurbilagoak eta "nahasteko ahalmen" handiagoa dutelako ikuspegia baitute. Emakume batzuek esaldi honen bidez laburbiltzen dute beren identitatea: "ni ez naiz ez hemengoa, ez hangoa".

"Niri eta ezagutzen ditudan immigrante guztiei gauza bera gertatzen zaigu, ez gara ez hemengoak ez hangoak; kontua da, han zaudenean hemen nahi duzula egon, eta hemen zaudenean, berriz, han. Lau urtez garbi izan dut ez nintzela itzuliko, eta hau eta beste; baina, orain, ez daukat hain ziur. Pentsatzen dut, beno, zergatik ez; Gabonetan joan nintzenean han geratzeko gogoz joan nintzen; baina, han nengoela, nire etxera, Donostiara, itzuli nahi nuen, eta bueltako bidaia ere aurreratu egin nuen." (1. profila: Argentina)

Adierazpen horretan, agerian dago jatorriko herrialdeko ohiturak galdu egiten direla, baina, aldi berean, ez direla erabat moldatzen helmugako gizartera; eta horrek erro-gabezia sentitzea dakar. Elkarrizketetan emakumeek esan digute joera handia dagoela nongoak diren jakin nahi izateko, eta haien kulturak topikoen bidez sinplifikatzeko eta laburbiltzeko, eta horrek nekatu egiten dituztela.

"Bai, dantza tipikoak eta esne-gozokiak baino zerbait gehiago gara... Bai, formula ohikoa da, baina hutsa; ez zara gurekin elkartzeko; gakoak da beste pertsona hori edo aurrean duzun hori nor den jakin nahi izatea, hitz egitea, harekin elkartu nahi izatea, hari ikasten laguntzea. Funtsezkoa da, bigarren eta hirugarren belaunaldikoak ere hemen baikaude, immigranteen seme-alabak, immigranteen ilobak." (1. profila: Argentina)

Seme-alaben identitateari dagokionez, elkarrizketatu ditugun emakume gehienek adierazi digute beren ondorengoek lortu dutela erabat integratzea Euskadin.

"Nire alaba hemen Espainian jaio zen, beno, Euskadin, euskalduna da." (3. profila: Senegal)

"Nire alabek oso ondo ulertzen dute gaztelania eta euskaraz hitz egiten dute. Hemengo haurrak dira. Neskatok euskaraz hitz egiten dute auzokideekin." (4. profila: Aljeria)

"Nongoak sentitzen diren galdetzen diedanean, alabak esaten du: 'Ekuatore Gineakoa naiz, baina hemen jaio naiz'. Nire alaba entzungo bazenu euskaraz hitz egiten... azalaren koloreagatik, bestela... Alabak hemengo edonork baino hobeto hitz egiten du euskaraz, gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten du." (4. profila: Ekuatore Ginea)

"Gure alabak euskaldun-euskaldunak sentitzen dira; festak direnean, festetako arropa eskatzen didate, eta dantzan eta kantari ibiltzen dira kalez kale." (6. profila: Errumania)

"Nire alabak ez du txinera ondo hitz egiten, hemengoa da." (7. profila: Txina)

Adierazpen horietan guztietan, agerian dago hemen jaiotzea eta euskaraz hitz egitea direla argudio nagusiak, elkarrizketa guztietan aipatu baitituzte.

Zenbait emakumek, bestalde, sentitzen dute beren ondorengoek ez dutela identitate sendo bat, ez direla ez hangoak ez hemengoak, edo aldi berean bi tokietakoak direla edo inongoak ez direla.

"Niri alabak hemen jaiok dira, baina ez dituzte euskalduntzat hartzen, eta Saharan ez dira hangoak." (5. profila: Sahara)

"Nire semea Euskadikoa da, baina Txinakoa ere bai. Txinatarren ustez ez da Txinakoa, eta euskaldunek ez dute uste euskalduna denik, inongoa ez da." (7. profila: Txina)

Kasu horretan, elkarrizketatu ditugun emakumeek adierazi nahi dute beren seme-alabek ez dutela identitatea definitzen gurasoen kulturaren arabera, eta, aldi berean, haiek ez direla identifikatuta sentitzen jaio diren edo bizi diren gizartearekin.

Laburbilduz, esan dezakegu elkarrizketatu ditugun emakume gehienek ezinbestekotzat hartzen dutela harrerako gizartearen asimilazioa, integrazioa bera baino gehiago, haiei berei dagokienez zein ondorengoei dagokienez. Aldi berean, euskara jakitea oso integrazio-bitarteko garrantzitsutzat hartzen dute, beren seme-alabei dagokienez, behintzat.

HAUTEMANDAKO BAZTERKETA- ETA DISKRIMINAZIO- JOKABIDEAK

6.3.3

Hautematen dituzten jokabide negatiboei dagokienez, merezi du nabarmentzea halako bizi-penak ia elkarrizketa guztietan aipatu dituztela. Horrenbestez, elkarrizketatu ditugun emakumeek adierazi dute noizbait bizi izan dituztela bazterketa-portaerak; hau da, begiratu itsusiak zein diskriminazio zuzena eta zeharkakoa.

Elkarrizketatuek adierazi digute berenganako bazterketa eta aurreiritzia bizitzaren alor askotan sentitu dutela, batzuek nabarmenago beste batzuek baino, kultura- eta etnia-jatorriaren arabera eta beste zenbait faktoreren arabera; besteak beste, harrerako herrialdean bizi izan diren daramaten denboraren arabera –Espainian denbora luze daramaten emakumeek nabarmenago sentitu dute bazterketa–, gizarte-sareen laguntzaren arabera eta ezaugarri pertsonalen arabera.

Hortaz, ohartu gara emakume batzuek diskriminazio zuzena ez dutela bizi izan, baina aurreiritziak hauteman izan dituztela begiradetan eta bertakoei ematen zaien lehentasunezko tratuan. Halako egoerak elkarrizketatu guztiek aipatu dituzte, edozein dela jatorria.

"Sumatu egiten da, taberna batean sartu eta lehentasuna nork duen agerian geratzen da. Nik ikusi dut nolako tratua ematen dioten espainiar bati eta nolakoa niri, latinoamerikarra naizelako." (8. profila: Nikaragua)

"Eta begiratuak ere bai; zuzenean begiratu eta zutaz hitz egiten dute, eta uste dute ez duzula ulertzen zer esaten ari diren." (4. profila: Aljeria)

"[...] nire erlijioa, zapia buruan dugunez, bada, jende askok begiratu eta badirudi... gaizki ikusita bezala. Hemengoei ez zaie gustatzen. Eta esaten du marokoarra bezala dela, eta nik esaten diot ez naizela marokoarra, errumaniarra naizela eta nire erlijioa beste bat dela." (6. profila: Errumania)

"[...] nik bi iragarki aurkitzen nituen, eta deitzen nuen eta alokatuta zegoen. Eta niri esan zidaten argentinarrak ez direla hemen diskriminatzen; bada, niri gertatu zitzaidan, telefonoz deitu nuela eta esan zidatela 'dagoeneko alokatuta dago', eta gero nire lagunak deitu zuen eta etxea ikusteko hitz-ordua eman zioten." (1. profila: Argentina)

Zenbait emakumeri aipamen xenofoboak ere egin dizkiote, irainak eta guzti, ezaugarri fisiokoengatik.

"[...] eta hark esan zidan: 'bada, hau nire herrialdea da eta gogoak ematen didan bezala galdetzen dut, horretarako ematen dizuegu janaria eta ordaindu errenta...'" (5. profila: Maroko)

"Bai, batzuek beltza putak esaten digute, han zuhaitzetan bizi garela eta hona etorri eta etxetan bizi direla eta oso ondo jaten dugula." (3. profila: Burkina Faso)

Elkarrizketatu ditugun askorenganako hemengoan mesfidantza ere ohikoa dela esan digute, eta haserrea eragiten diela.

"Eta dendaren batean sartzan bazara, atzean dituzu irteten zaren arte. Uste dute lapurretan egingo dugula." (4. profila: Aljeria)

"[...] nire alabak zapata bat hartu zuen, eta ni berehala joan nintzen bere tokian uztera, eta emakumeak niregana hurbildu eta esan zidan: ei!!! Eta nik esan nion: ez da ezer pasa, zapata bere tokian utziko dut; baina, haren begiratu bakarrik... bihotz-bihotzean sentitu nuen mina eta ezin nuen han geratu; nire zapatak hartu eta alde egin nuen, eta negarrez hasi... Ezin dut, nola egin dezakete hori gurekin...?" (4. profila: Aljeria)

"Jendeak mesfidantza handiz begiratzen dizu hasieran, izugarri handiz, eta irribarre egiten bazenion, beste alde batera begiratzen zuen, ezikusiarrena egiten zuen jendeak. Eta ni hasieran bizi nintzen tokian oso gaizki sentitzen nintzen, gora eta behera ibiltzen nintzen haurrarenekin, eta inork ez zidan irribarrerik egiten; egun on esan, eta inork ez zidan erantzuten. Eta erosketak egitetik nentorrenean, inork ez zuen nirekin igo nahi; igo, igo zu, esaten zidaten." (2. profila: Kolonbia)

Gainera, denbora luze daramaten emakumeek esan dute krisi ekonomikoaren garai honetan, bazterketa-egoerak eta jarrera arrazistak ugaritu egin direla.

"[...] azkenaldian, hemen, krisiaren kontuarekin eta halakoekin, inoiz ez bezala, arraro begiratzen didate; nire poltsari begiratzen diote, eta ni orain arte ez naiz inoiz kanpoko sentitu, ondo sentitzen nintzen; baina, azkenaldian, nire lagunarekin nago eta hari begiratzen diote, niri begiratzen didate eta zomorroak bagina bezala begiratzen digute." (2. profila, ET: eztabaida-taldea)

Bestalde, hauteman dugu jatorri guztietako emakumeek sentitu dutela bazterketa, harrerako gizarteko kulturarekiko antzekotasuna edozein dela. Izendatzaile komuna atzerritarra eta fisikoki desberdina izatea da. Ezaugarri fenotipikoengatik immigrantetzat hartu ezin diren emakumeen kasuan, hizkera da. Nolanahi ere, tratu esplizituki negatibo horiek kaltegarriak dira, baina ez halakoak bakarrik; izan ere, bertako pertsona batzuek izaten dituzte borondate oneko jarrera babesleak, eta halakoek ere ondorio negatiboak eragiteaz gain, integrazioa oztopa dezakete.

"Ai, gajoa, immigrantea da, tratu ona eman behar diot; ez! Gertatu zait hori; esaten zidaten, ai! gajoa, etorri afaltzera etxera, arropa bete poltsa bat ekarri didate alabarentzat!; oso ondo iruditzen zait, baina zergatik niri halakoak eta besteari ez. Edo bizilaguna, ikusten nauen bakoitzean lana eskaintzen didana: 'ez al duzu nire etxea garbitzera etorri nahi?' Bada, ez, emakumea, ni kazetaria naiz." (1. profila: Argentina)

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat sexu-jazarpena da; izan ere, elkarrizketatu ditugun zenbait emakumek, Afrikakoek batez ere, halako egoerei aurre egin behar izaten diete kalean.

"Bada, ni hasieran ezetz bezala sentitzen nintzen, ni gaizki sentitzen naiz, eta hemengo mutilek ez digute ulertzen; herrikideek ez badute ulertzen, atzerritar guztiak prostituta deitzen dizute; kalean zoaz, eta zure aitona izan daitekeen agure zahar batek deitu eta galdetzen dizu: 'zenbat?' Eta emakumea zuria bada, ez dio galdetzen; beltza delako gertatzen da hori, eta min ematen dit, amorrazioa ematen dit. Nik nahiago dut nire herrian egon, halakoak gertatzea baino; benetan, nire herrian gizonezkoek errespetatu egiten naute, gutxienez, jendeak errespetatu egiten nau: han kalera joaten naizenean jendeak ez dit esaten: 'zenbat?' "(3. profila: Nigeria)

"Gizonezko helduek dirua eskaini didate. Ez zuten nire lagunak izan nahi, beste gauza bat nahi zuten eta nik ez nuen hori nahi; nik badut senarra. Beltza naizenez, eta beltz askok egiten dutenez, pentsatzen dute nik ere egiten dudala. Batzuetan, gizonezko helduek gauzak esaten dizkirate kalean, haurrekin nagoenean ere bai. Nik ez diot senarrari esaten hori egiten didatela, asko haserretuko da eta." (3. profila: Burkina Faso)

"[...] batzuetan, kalean zoazela, gizonezkoek galdetzen dizute: 'zenbat kobratzen duzu?', errespetu falta da." (3. profila: Nigeria)

Elkarrizketatu batzuen aipamenetan agerian geratu denez, bertako zenbait gizonek prostitutatzen hartzen dituzte itxura fisikoarengatik, eta dirua eskaintzen diete sexu-zerbitzuen truke. Bizipen negatibo horiek guztiak, edozein dela modua, oro har, ondorio emozional negatiboak eragiten dituzte; hau da, larritasun-, isolamendu-, frustrazio- eta inpotentzia-sentimenduak. Hala ere, hautemandako diskriminazio-mailari dagokionez, badira kulturajatorriaren arabera desberdintasunak, bai eta aurre egiteko estrategiei dagokienez ere. Batetik, bazterketa oso gaizki daramaten kasuak ditugu, eta bazterketa-arazoak bizi dituzten pertsonen larritasun- eta frustrazio-sentimenduak izaten dituzte.

"[...] atean ikusten nautenean, itxi egiten dira eta ez dute nire zain egon nahi. Horrek oso gaizki sentiarazten nau. Uste dut beltza naizelako dela, ez dakit; batzuek esaten didate beren seme-alaben lanak hartzera etorri garela." (3. profila: Burkina Faso)

"Oso gogorra izan zen, oso gogorra; hilabeteak pasa nituen negarrez, negar asko egiten nuen nire gelan gauean; kartzelan sentitzen nintzen. Hango etxeetan, atean jarri eta jende guztiarekin hitz egiten dugu; hemen, ez. Atarira iritsi eta igogailuan sartzen zarenean, jendea ez da sartzen, edo irteten direnak gaizki begiratzen dizute." (2. profila: Kolonbia)

"Bai, bai, batzuek kalean geratu egiten naute eta galdetzen didate ea zergatik dudan buruzagia, eta nik erantzuten diet erlijioagatik bakarrik dela, eta haiek uste dute aitak edo senarrak behartzen nautela; baina, ez, erlijioa da." (5. profila: Maroko)

"Gauza batzuetan mugatuta sentitzen naiz; baina ez emakumea naizelako, uste dut immigrantea eta kolorekoa naizelako dela." (3. profila: Kamerun)

Adierazpen horietan agerian dagoenez, emakumeak erabat jabetzen dira bertakoek aurreiritziak dituztela eta oso ikuspegi negatiboa dutela emakumeen komunitate horiei buruz, bai eta emakumeei buruz ere; batzuetan azalaren koloreagatik, eta beste batzuetan janzkeragatik edo jantziak duen sinbolo jakinagatik.

Beste emakume batzuk, berriz, jabetzen dira komunitatearekiko aurreiritziak dituztela bertakoek, baina ez diote garrantzi handirik ematen. Are gehiago, atzerritarrek etortzearen ondorioz jokabide eta portaera horiek izatea naturalizat eta logikotzat hartzen dituzten emakumeak ere badira. Kasu horretan, haien kulturaren berri ez dutelako gertatzen da diskriminazioa eta bazterketa. Jokabide horiek justifikatzen saiatzen diren emakumeak ere badira, eta esaten dute haien egoeran egongo balira gauza bera egingo luketela.

"[...] normala da; izan ere, herri txiki batera joaten bazara eta ez bazaituzte ezagutzen, bada, mesfidantza, eta ez bazaituzte ezagutzen ez dira fio, eta horregatik ezagutu behar dugu elkar eta hautsi behar ditugu paradigmatik." (2. profila, ET: eztabaida-taldea)

"Tira, begira geratzen dira, baina normala iruditzen zait, kulturak eta tradizioak desberdinak baitira; ni horrela janzteak, bada, atenzioa ematen die. Normala da." (4. profila: Mauritania)

"[...] beste pertsoneri ematen diezun tratua arabera bada, jakina; harro-harro etortzen bazara, bada...; baina apal etortzen bazara, lasai eta hainbestetan esaten den 'zer ikusi, hura ikasi', egiten baduzu, bada, ondo moldatuko zara; baina zakar eta erretxin joaten bazara dena ezbaian jartzera, bada, jakina, etxera itzultzeko esango dizute." (1. profila: Txile)

"[...] batzuetan, norbaitek baztertu nahi banau, ez naiz konturatzen, eta hark izango du arazoa. Beno, begiratu itsusiren bat hauteman izan dut, edo oraindik ere sumatzen ditut esaten bosgarren solairuko norbaiten zaintzailea naizela; baina nik esaten diet, 'ni hemen bizi naiz'; baina ez dit axolarik, ez nau mintzen." (1. profila: Argentina)

Hortaz, nahiz eta jakin badakiten atzeritarrak izateagatik tratatu okerragoa ematen dieten pertsonak badirela, ez diete halakoei garrantzi handirik ematen. Ikuspegi edo iritzi hori berbera duten emakumeek esaten dute diskriminazioa, hain zuzen, diskriminatzen duten pertsonen arazoa dela, eta pertsona horiek duten ondorearen seinale dela. Halakoetan, jokabide xenofoboak eta diskriminatzaileak ez zaizkie iruditzen haienganakoak direnik; izan ere, diskriminatzen duten pertsona horiek duten gaixotasun-modukotzat hartzen dute.

"Nik ez nuen ezer nabaritu, gaizki tratatu baninduten ere nik ez nuen hauteman. Eta ez naiz baztertuta sentitzen indigena naizelako; norbaitek gaizki tratatzen banau, pentsatzen dut haren bihotza gaizki dagoela eta horregatik ez didala ondo tratatzen. Jokabide hori badute, haiek ondo ez daudelako da, berez; hau da, beste pertsona batzuek baztertzen dituztelako edo gaizki tratatzen dituztelako da hori; gurpil zoro baten antzekoa da, eta gurpil zoro hori eteten bada, bada, beste bat jartzen da abian, abegitsu izatearena." (2. profila: Mexiko)

Eta, azkenik, aurreiritzirik hauteman ez dutela esan duten emakumeak ere badira. Adierazi dute berdintasunezko tratua hauteman dutela, eta euskal herritarrek oso ondo hartu dituztela sentitzen dutela.

"Kalera irteten naizenean, ez didate beltza naizelako gaizki begiratzen... tratua berdina ematen didate; agian hemen urte asko daramatzatelako eta ondo ezagutzen nautelako da hori hala." (3. profila: Senegal)

"Hemen besteei bezala begiratzen dizute, hemen zuria edo beltzarana izan ez du axolarik; agurtu egiten zaituzte, zurekin hitz egiten dute, eta hemengo jarrera hori oso gustukoa dut." (3. profila: Nigeria)

"Hemen, nagoen lekuan, bizi izan naizen tokietan, ondo nago; hitz egiten dizute, eta nahiz ikusi beltza zarela, eta naute gaizki sentiarazten." (4. profila: Ekuatore Ginea)

"Hemen nagoenetik ez dut arazo hori inoiz izan; inork ez dit esan buruzapia kentzeko edo inork ez nau iraindu. Nik haiek errespetatzen ditut, eta haiek ni ere bai..." (4. profila: Aljeria)

"Atenzioa ematen zien beti ni Mexikokoa izatea. Hemengo jendearentzat, Latinoamerikakoak edo Espainiakoak izan, mexikarra berezia da; oso pertsona berezizat hartzen gaituzte, mexikarrak izateagatik. Nire ustez, mexikarra izate hutsagatik beste maila bat daukat; izan ere, jendea poztu egiten da, jendeak maitasun berezia dio nire herriari." (2. profila: Mexiko)

Bildutako informazioa oinarri hartuta, hauteman dugu jokabide negatiboek gehiago eragiten dietela gizarte-sarerik ez duten emakumeei, eta oro har, familiak edo gainerako herritarrek gutxi laguntzen dieten emakumeei. Erligioa babesa ematen duen beste faktoreetako bat da; berebiziko garrantzia du estigmari eta bazterketari aurre egiteko. Euskadin bizi duten egoeraren balorazio orokorrari dagokionez, Espainiako beste toki batzuetan bizi izan diren emakume gehienek esan dute Euskadiko gizartea ez zaiela, beste erkidegoetako gizartearen aldean, hain arrazista iruditzen, eta berdintasunaren aldekoagoa dela. Oso ohikoa da "hemen gu-

txiago diskriminatzen da” esaldia elkarrizketatu ditugun emakumeen artean, Espainiako beste toki batzuetan hauteman duten diskriminazioaz eta hemen hauteman dutenaz galde-tu diegunean.

“Hemengo giroa gustukoa dut, ez dago liskarrik, ez da B lekuan bezala; izan ere, han, edonork egiten dizu oihu ‘aizu, morena!’, eta hemen ez, hemen giroa oso lasaia da.” (3. profila: Nigeria)

“Ez zaizkit M eta V gustatzen, arrazista asko daude; baina Gasteizen ez. Esate baterako, joan nintzenean laguntzarik bazuten mesedez galdetzer... Haiiek esaten dute ez, ez, ez. Baina Gasteizen, zuk galdetzen baduzu, hobeto ematen dituzte azalpenak.” (4. profila: Nigeria)

“B lekuan hemen baino arrazistagoa da jendea.” (4. profila: Aljeria)

“Niri gehiago gustatzen zait. Agian, hemen, arrazismoa ez da hainbestekoa; Z lekuan, bai.” (4. profila: Ekuatore Ginea)

“Bai, hemen, Gasteizen, jendea ondo dago. V lekuan nengoenean, jendea zorrotzago zegoen, ez zuten atzerritarrekin hitz egiten, eta esaten dute ‘errumaniarrak gaiztoak’; baina errumaniar guztiak ez dute lapurtzen, ez dute jendea hiltzen.” (6. profila: Errumania)

“[...] hona etorri eta aldea handia da; gizartea itxiagoa da, oso zaila da bizilekua aurkitzea, asko begiratzen dute nongoa zaren, zertara etorri zaren, nor zaren...” (1. profila: Txile)

“[...] espainiarrek goitik begiratzen dizute, zeharka; eta hemen, Euskadin, tratua bihozberagoa da.” (8. profila, ET: eztabaida-taldea)

Hona hemen adierazpen horietatik guztietatik atera dugun ondorioa: Euskadin tratua berdintasunezkoagoa delako eta gutxiago baztertzen delako iritzia nahiko orokorra da; hortaz, bizipen negatiboak dauden arren, Euskadin bizi duten egoerari buruzko balorazioa, alde horri dagokionez, positiboa da, bai eta diskriminazio-bizipen gogorrak izan dituzten emakumeena ere. Laburbilduz, emakume askok bizi izan dute inoiz, urteen joanean, diskriminazio-egoeraren bat edo aurreiritziek eragindako bizipen desatseginen bat. Nolanahi ere, bizipen horiek, oro har, unean unekoak izan dira.

Laburbilduz,

- Migrazioaren lehenengo fasea da helmugako herrialdean bizi izan duten unerik gogorretako bat, eta lehenengo fase hori are gogorragoa da bakarrik emigratzen duten eta familia jatorriko herrialdean uzten duten emakumeentzat. Gaztelania ez jakiteak ere badu eraginik.
- Administrazio-egoera araugabea izateak baldintza kaskarretan lan egin behar izatea, eta lan-eskubideak eta eskubide zibilak urratzea dakar emakume askoren kasuan, eta horrek segurtasun-falta, ziurgabetasuna eta herrialdetik bota egingo dituztelako beldurra sorrarazten die; eta horrek guztiak, de facto eragozten die halako gertaerak salatzea. Zenbaitetan, bikotekidearekiko edo gizonetzko batetikiko mendetasuna eragiten du.
- Egoera araugabeari irtenbidea emateak ez du derrigorrean esan nahi gizarte-mailan gora egingo denik, ez eta lan-alorrean hobekuntzak lortuko direnik ere, eta batzuetan frustrazio-sentimendu handiagoak eragiten ditu.
- Egun bizi dugun krisi ekonomikoa dela eta, onartu egiten dute bertako emakumeek lehenetasuna izatea lana lortzeko.
- Bertako herritarrei dagokienez, ez dute uste oso desberdinak direnik; bestalde, euskal gizartea hasieran nahiko “itxia” delako topikoa oso hedatuta dago, eta arrotza den guztiarekiko nahiko mesfidatia dela ere bai, baina ezagutu ondoren dena ematen dutela.
- Denbora luze daramaten emakume batzuentzat integrazioa bertako lagunak edukitzea da; eta beste batzuentzat, berriz, garrantzitsuagoa da lan-alorrean integratzea kultura-alorrean integratzea baino. Bai eta asimilazio-prozesua nolabait onartzea ere.

- Nahiz eta bizi izan dituzten jokabide xenofoboak eta arrazistak, bai eta diskriminazio zuzeneko egoerak ere, tratua berdintasunezkoa delako iritzia nahiko orokorra da.

MUNDU-IKUSKERA ETA GENERO-ROLAK

6.4

EUSKADIKO EMAKUMEAK ETA GIZONAK, ETA BIKOTE-HARREMANAK

6.4.1

Gizarte-pertzepzioaren bitartez, gizakiok, oro har, errealitatearekiko eta, bereziki, pertsonetikiko lehen inpresioa hartzen dugu. Aurrerantzean, beraz, hautemandakoarekin harremanetan jarriko gara, egoera horretaz egin dugun definizioaren arabera. Gizarte-pertzepzioa izateko, ahalegina egin behar da, gainerako pertsoneri buruzko iritzi orokor bat sortu behar baita. Lehen inpresioak onak direla esan ohi da, eta beste pertsona batzuekin lehen aldiz harremanetan jartzen garenean, hainbat informazio bateratu eta inpresio orokor bat sortzen dugula. Pertzepzio-prozesuan, gure alderdi kontzientea nahiz inkontzientea aintzat hartzen dituzten bizitzako hainbat mekanismok esku hartzen dute. EAEn egindako hainbat azterketak Euskadiko biztanleriak atzerritar immigranteekiko duen pertzepzioa aztertu dute, bai eta urteek aurrera egin ahala ikuspegi kuantitatibo batetik izan duen bilakaera ere. Ikerketa honetan, aldiz, emakume atzerritar immigranteek hitz egin dute; hau da, haiek adierazi dute nola hautematen dituzten Euskadiko biztanleak –emakumeak nahiz gizonak– eta horien bikote-harremanak. Beraz, bertako biztanleriaz duten pertzepzioa azaltzeko erabili dituzten diskurtsoak eta iritziak aztertuko ditugu.

Elkarrizketetan, Euskadiko emakumeak nola hautematen zituzten galdetu zitzaizen; hau da, zer iritzi zuten haiei buruz, eta zer nabarmentzen zuten haien izateko moduz edo haien izaeraz. Egia esan, erantzunetan bat etorri dira; hau da, bertako emakumeak definitzean, langileak, irekiak eta independenteak direla adierazi dute, eta kasuren batean, “euskal matriarkatua” aipatu dute. Inkestatutako emakume-talde guztietan bertako emakumea antzera deskribatu den arren, emakume-profil desberdineko kideek bakoitzaren kulturakodeen arabera definitu dute Euskadiko emakumea, beren jatorriko herrialdeetako emakumeekin inplizituki edo esplizituki alderatuz.

“Nik ez dut uste hain femeninoak ez direnik, ez eta irekiagoak edo itxiagoak direnik, bikote bakoitzaren arabera baina hori. Hau da, bikote batek elkar maite badu, biek nahi dutena egiten dute; hau da, gizonak ez dio emakumeari agintzen, ezta alderantziz ere. Horregatik da euskal emakumea indartsuagoa; agian, horregatik esango dute etxean emakumeak agintzen duela.” (2. profila: Peru)

“Arazoei aurre egiten dieten emakumeak dira, matxismoaren aurka borrokatzen direnak. Langileak eta borrokalariak dira” (5. profila: Sahara)

“Nire iritziak, euskal emakumea oso langilea da, alderdi guztietan, eta oso borrokalaria. Antzinako euskal emakumeek beren seme-alabak bide onetik eraman dituzte, lan egin dute, etxeko lanak egin eta seme-alabak eskolara bidali; horren guztiaren aurrean, txapela kentzen dut.” (2. profila: Kolonbia)

"Euskal emakumeak zirt edo zart egiten du, eta oso langileak dira, bai etxean lan egiten dutenak (oso eginbehar garrantzitsua) bai etxetik kanpo lan egiten dutenak. Nire iritziz, euskal emakumeek eskubide asko dituzte; hau da, eskubideak dituzte gizonak bezala, eta nire herrian hori ez da oso ohikoa." (7. Profila: Txina)

"Euskal emakumea, emakume indartsua, euskal matriarkatua, eta nahiz eta egoera txarragoan dauden emakumeak egon, aldarrikapen nabarmenik egonez gero, oso borrokalaria; horregatik kezkatzen dira gizonak. Lekuz kanpo sentitzen dira." (1. profila: Argentina)

"Ezagutzen ditudan gutxiak kontuan hartuta, planetako emakume irekienak direla iruditzen zait; matriarkak dira (hemen agintzaile esaten zaie). Nik andaluziarrak eta nire herrialdekoak ezagutzen ditut, eta euskaldunak aurreratuagoak iruditzen zaizkit. Nortasuna dute" (5. profila: Sahara)

"Euskal emakumea oso independentea da, oso emakume langilea (...); nire iritziz, oso autonomoa da." (4. profila: Paraguai)

"Hemen, emakumea irten egiten da, eta askatasun handiagoa du; horri dagokionez, kultura handiagoa dago." (Azken etorritako latinoamerikarrak)

"Hemengo emakumeek askatasun handia dute" . (6. profila: Errumania)

"Askatasun gehiago dute erabakiak hartzeko." (8. profila: ET: eztabaida-taldea)

Adierazpen horietan ikus dezakegunez, atzerritarren iritziz euskal emakumeak indartsuak, borrokalaria, langileak, agintzaileak, matriarkak, independenteak eta autonomoak dira, eta dena ematen dute eremu publikoan. Zehazki, hemengo emakumeen independentziaz eta askatasunaz ari direnean, ordaindutako lana eginez dirua irabazteko eta hori administratzeko duten aukera aipatzen dute. Elkarrizketatutako emakumeek badakite, eta modu positiboan balioesten dute, euskal emakumeek duten autonomiaren zati handi bat lan egiteko eta ordaindutako lan-harreman bat izateko aukeraren ondorio dela. Agerian gelditu da, beraz, norberaren autonomiaren eta, ekonomikoki, beren bikoteengandik independente izateko ahalmenaren artean egiten duten lotura. Lan egiten dute, soldata kobratu eta autonomia lortzen dute; hau da, matxismo handiagoko kulturekin eta generoaren arabera atxikitako rolerkin hausten dute.

"Hemengo emakumeek, ezkontuta egon nahiz ezkontu gabe egon, lan egiten dute, eta hori niri gustatu egiten zait." (4. profila: Ekuatore Ginea)

"Hemen, emakumeek... Are gehiago, nik nire dirua irabazten dut." (7. profila: Txina)

"Euskadiko emakumeek ez dute inolako oztoporik lan egiteko." (8. profila: Nikaragua)

"Bada deigarria zaidan gauza bat: emakume gehienek etxeko ardura osoa dute, zer sartzen den, zer irteten den, erosketak... Han ez da hori askotan gertatzen; hau da, gizonak izan ohi du diru-kontuen ardura, eta emakumeak, etxeko lanena." (3. profila: Senegal)

"Eta horrez gain, hemengo emakumeek dena ongi antolatuta dute, eta noski, gizona ongi lotuta daukate. Eta ni, berriz, matxismo handiko kultura batetik nator." "2. profila: Kolonbia)

Euskadiko emakumeen itxura fisikoa ere hizketagai da. Beren itxurarekin ausartak izatea balioesten dute, eta beren irudiaren preso ez egotea. Horrek, hain zuzen, hemengo emakumearen autonomia adierazten du; hau da, ez dio nor edo nork ezarritako bideari jarraitzen, are gehiago, norberaren burua aurkezteko jarraibide nagusiak haustera ausartzen dira. Elkarrizketatuen arabera, emakumeek banakako apustu ausarta egiten dute, eta horrez gain, ez daude "beren irudiaren mende".

"Bada euskal emakumeetatik gustatzen zaidan zerbait: haien ilea, koloreak, orrazkerak; ausartak dira." (1. profila: Txile)

"Txundigarria da haien janzteko modua, ile-orrazkerak, tinduak; eta gero, udan, oso arropa txikia janzten dute." (2. profila: ET: eztabaida-taldea)

"Hemen, emakumeak ez daude beren irudiaren mende." (1. profila: Argentina)

Euskal emakumeak definitzeko beste ezaugarri batzuk ere aipatu dira: autoestimu handia dute, familiako ekonomiaz arduratzen dira, errespetua ematen dute, erantzukizunez jokatu dute, eta aginte eta autoritarismo apur bat agertzen dute. Ezaugarri horiek guztiak ikuspegi positibotik hartu behar dira, euskal emakumeen balioetatik.

“Euskal emakumeek autoestimu handia dute.” (2. profila: Ekuador)

“..eta hemen, emakumeek badakite zertan gastatzen duten dirua senarrek.” (2. profila: Kolonbia)

“Kontua da hemen emakumeek agintzen dutela.” (4. profila: Mauritania)

“Hemen, emakumea autoritarioa, agintzailea, da berez.” (2. profila: ET: eztabaida-taldea)

“Emakumea asko errespetatzen dute, eta hori oso garrantzitsua da.” (4. Profila: Ekuatore Ginea)

“Emakumeak oso arduratsuak dira, ezin dute ezer egin gabe egon, beti daude gauza guztiak dagokien lekuan.” (4. profila: Aljeria)

“Hemen gustatzen zaidana da emakumeek beste modu batean pentsatzen dutela; zintzoak dira, asko gustatzen zaie elkarrekin egotea, eta gauza askori buruz hitz egiten dute: zer gertatzen zaizun, etxeko kontuak...” (6. profila: Errumania)

Dena den, denak ez dira ezaugarri positiboak. Elkarrizketatutako emakumeak harridura galditu dira adineko pertsonen ematen dieten arretarekin, edo hobeto esanda, adinekoekiko familiek agertzen duten interes-faltarekin; hau da, enbarazu bat direla dirudite. Era berean, ez zaie gustatzen zer egiten duten aisialdian; besteak beste, alkoholaren kontsumoa eta tabernetara sartzea aipatu dituzte, bereziki, nerabeen eta emakume gazteen artean.

“Baina, hemen, kalean, emakumeak ikustean ez dut jakiten amonak ala amak diren.” (8. profila: ET: eztabaida-taldea)

Era berean, elkarrizketatutako lagun guztiek aipatu dute ama izateko adina berantiarra dela. Ez dute ulertzen zergatik atzeratzen duten emakumeek haurrak izateko garaia; “amak” baino “amonak” dirudite. Azkenik, bada dezente erabili duten beste ezaugarri bat ere, konnotazio negatiboak dituen; hau da, emakumeak “itxiak” direla adierazi dute. Hori bai, hasierako muga hori gainditu ondoren, Euskadiko emakumeak pertsona atseginak direla diote; haiekin adiskidetasun iraunkorra izan daitekeela.

“Euskadiko emakumeak oso itxiak dira; ez zaie gustatzen kanpoko gauzak probatzea.” (3. profila: Kamerun)

“Hemen, emakumea nahiko zakarra da. Keinuak, ahotsa... ez dakit, nik ere erre izan dut, baina zenbait emakume oso mari-mutilak iruditzen zaizkit.” (2. profila: Kolonbia)

“Hemen oso askeak dira; han, nire garaian, emakumeak ez ziren dantzalekura joaten. Alabak esan zidanaren arabera, orain bai, joaten dira. Lehenengo aldiz beste emakume batekin dantzalekura joan nintzenean, nire buruari galdetzen nion: zer da hau? Beste emakume batekin!” (2. profila: Ekuador)

“Hemen, adibidez, 20 urterekin dantzalekura joaten dira, eta hori ez zait gustatzen, ez da 15 edo 20 urte, ez, 40 urterekin ere dantzalekura joaten dira. Libre egon zaitezke, baina mozkortzeko, bada... zertarako? Hori ez zait gustatzen. Hemen, neska asko mozkortuta ikusten dira parkean, festa handi horietan asko edaten dute.” (6. profila: Errumania)

“Ez zaizkit gustatzen 30 urterekin bikotea eduki arren ezkondu gabe dauden neskak; askatasun hori ez zait gustatzen. Ez zait gustatzen mutilak neska-laguna izan arren beste neska batekin joaten direnean; mutil horiek tristura ematen didate. Eta haren neska, bihotzez maite duena, beste batekin joaten da, eta... Ez zait gustatzen.” (6. profila: Errumania)

“Hemengo emakumeak adin jakin batera iristen direnean, eta lana badute, ezkondu eta seme-alabak izaten dituzte, eta nire alabaren lagunekin ikusten dudanez, denetik dago. Nire ustez, gehienak horrelakoak dira.” (7. profila: Txina)

Adinaren edo egoeren arabera bereizten direnean, kritikak sortzen dira, Euskadin eta haien jatorriko herrialdean gauzak egiteko dagoen modua dela eta. Hemen, mozkortzea, erretzea eta *mari-mutilak* izatea, elkarrekin eta bikotekiderik gabe dantzalekura joatea, ezkondu gabe izateko bikote egitea, neskek nahiz mutilek bikotearekiko leialtasunik ez agertzea... Jokabide horiek guztiek ez dituzte elkarriketatutako emakumeak maila berean nahigabebetzen, bakoitzaren jatorriaren eta profilaren arabera baizik. Lekukotasun horien arabera, askatasunari buruzko denetariko iritziak daude; mutur batean, askatasun abstraktua egongo litzateke, euskal emakumeengan modu positiboan balioesten dena, eta beste muturrean, askatasun konkretua, alderdi kritikoak ere onartzen dituena. Zenbait gai aipatu dira (adibidez, hemen, emakume atzerritarren iritziak, seme-alabek gurasoekiko agertzen duten urruntasun nabarmena), eta noski, egoera horiek inolako zalantzarik gabe kritikatu dituzte.

"Alabak ama ikustera etorri eta berehala joaten dira, eta andrea hiltzeaz dago; eta nik diot, nola daiteke alabek alde egitea ama hilzorian egonda?" (2. profila: Mexiko)

Bertako gizonen buruzko iritzia ere hizketagai izan da elkarriketatuta. Emakumeekin gertatu bezala, elkarriketatuta gizonen buruzko zenbait ezaugarri on atera dira, eta beste batzuk, ez hain onak. Solasaldi gehienetan azpimarratu da Euskadiko gizonen amaren rola hartzen dutela –emakume immigrante horien beren jatorriko herrialdeetan amaren rola identifikatzen duten moduan–; hau da, etxeko lanetan eta seme-alaben zaintzan laguntzen dute. Horrez gain, emakumearen rola hartzen dute, seme-alabekin ulerkeragoak eta maitekorrak baitira.

"Hemen, senarrak emakumeak dira; amek agintzen dute. Aitek gehiago ulertzen diete seme-alabei amek baino." (3. profila: Nigeria)

"Bai, gizonak maitekorrak dira emakumeak baino. Nire herrian ez da horrela gertatzen; amak oso maitekorrak dira, eta hemen ez." (5. profila: Maroko)

"Baliteke hemengo gizonen apur bat gehiago laguntzea; erabakiak emakumeek hartzearekin ohituta daude, eta onartu egiten dute." (1. profila: Argentina)

"Izan ditudan nagusiak etxetik lanera joaten dira, eta lanetik etxera; seme-alabei guztiz emana daude." (2. Profila: ET: eztabaida-taldea)

"Familiari dagokionez, gustatzen zait gizonen etxeko gauzetan esku hartzea, erosketak egiten, etxean laguntzen... Hori nire herrian ez da gertatzen. Erretiratu bat etxea garbitzen!" (2. profila: Kolonbia)

"Euskadiko gizonen batekin ezkontzea gustatuko litzaidake; beste pentsamolde bat dute, emakumea errespetatzen dute." (2. Profila: Ekuador)

Hemengo gizonen idealizatuta dituzte, besteekin alderatuz; beren pertzepzioaren arabera, etxeko lanetan laguntzen dute eta seme-alabekiko arreta handiagoa erakusten dute. Dena den, elkarriketatutako emakumeen deigarria zaie, adinean aurrera egin arren, gurasoekin bizi diren gizonen kasua; horrez gain, elkarriketatutako emakumeen arabera, hemengo gizonen etxean laguntzen duten arren, ez dira batere erromantikoak, eta ez dute hartzen emakumeak maitemintzeko inizatiba. Hain zuzen, euskaldunen erromantizismoa ezin da parekatu, inola ere, haiek ezagutu edo bizi izan dutenarekin.

"Berrogeita hamar urtetik gorako gizona, eta oraindik amarekin; hori ez da han ikusten." (2. profila: Kolonbia)

"Hemen, gizonen ez dira erromantikoak." (2. Profila: Peru)

"Hemengo mutilei ez zaie gustatzen beraiek inor maiteminarazten hastea; hau da, besteek beraiek maiteminaraztea nahi izaten dute." (8. profila: Honduras)

"Ez dut ikusi emakume maiteminarazten edo antzekorik egiten duen hemengo gizonik; nire herrialdean, aldiz, ohitura da." (8. profila: ET: eztabaida-taldea)

Atal honekin amaitzeko, bikoteak nola hautematen dituzten jakin nahi izan genuen; hau da, hemengo gizon-emakumeen bikote-bizitzari buruz zer iritzi zuten galdetu genien. Hala, elkarrizketa askotan, berdintasuna izan da aipatu den lehenengo gaia, beren jatorriko herrialdeetan ez dagoena; hau da, hemen, lanak modu bidezkoagoan banatzen dituzte, bai etxeari dagokionez bai seme-alaben zaintzari dagokionez. Berriro ere, hemengo gizonak rol femeninoagoa hartzen duten ideia aipatu da; izan ere, elkarrizketatutako emakumeek ez dituzte horrelako jokabideak eta jarrerak bizi izan beren jatorriko herrialdeetan. Gaiari dagokionez, oso balorazio ona egiten dute.

“Hemen ikusten dudana berdintasuna han ez dago.” (3. profila: Kamerun)

“Hemen, badirudi ez dagoela ez emakumerik ez gizonik. Izan ere, nik gizonak kalean ikusten ditut seme-alabekin jolasten, eta gero, etxera joan eta janaria prestatzen dute, eta emakumea lanetik iristen da, eta haurrak eskolara eramaten ditu, edota gizonak lan egiten dute eta emakumeak etxeko lanez arduratzen dira. Hau da, ez dut desberdintasunik ikusten batoren eta bestearen artean.” (3. profila: Nigeria)

“Hemen, gizonak eta emakumeak eskubide berberak dituzte, hemen denak dira berdinak; han, nire herrialdean, gizonak ez dute janaria prestatzen, ez dituzte ontziak garbitzen, eta emakumeak ez du eskubiderik gizonari nora doan galdetzeko. Hemen, denak dituzte eskubide berdinak; nire bikoteak garbitu egiten du, eta nik ere bai; gizonak pixoihalak aldatzen ditu, eta nik ere bai. Han ez da horrelakorik gertatzen.” (3. profila: Nigeria)

“Asko laguntzen diete beren emazteei; emakumeak berak baino denbora gehiago egoten dira sukaldean. Nire nagusiak, emakumeak, ostiral arratsaldetan irteten dira, eta egun hori beraientzat eta beren lagunentzat izaten da; eta senarra etxean gelditzen da, haurrak zaintzen. (...) Kolonbian, gizonak diete aisialdia beraien lagunekin egoteko dela.” (Aspaldi etorritako latinoamerikarrak)

“Emakume batek lan egiten badu, etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko ardua senararen esku uzten du.” (Aspaldi etorritako latinoamerikarrak)

Nolanahi ere, zenbait lekukotasunen arabera, lanen banaketa hori ez du gizonak bere gogoz egiten, familiar berdintasunezko antolaketa bat ezartzeko; hau da, gizonak, zenbait emakumeren eskakizunen aurrean, egoerara moldatu eta egokitzen dira, bestela emakumeak sumindu egiten baitira. Latinoamerikarrek aitortu dute beraiek, oraindik, oso urrun daudela, oro har, horrelako egoeretatik. Berdintasuna lortzeko prozesu horren ondorioz, emakumea gizonaren gainetik egongo litzatekeen egitura ere hauteman da; dena den, elkarrizketatutaren arabera, egoera horrek baditu alderdi nahasgarriak, dibortzioetan gertatzen direnak, esaterako.

“Euskadiko emakumeen eta gizonen artean berdintasun handiagoa dago; berdintasun hori, ordea, emakumeak beren eskubideak aldarrikatzen dituztelako gertatzen da, ez gizonak berdintasun-maila berarekin tratatu nahi dituztelako; izan ere, bestela, emakumeak haserre bizi jartzen dira, eta beraiek ondo tratatzeko eskatzen diete. Aldiz, gu, immigrante latinoamerikarrok, matxismo handiagoko kultura batetik gatozenez, oraindik ere kultura haren eragin handia dugu. Zenbait emakumek ahotsa altxatzen dute egoeraren aurka, horri buruz hitz egin eta beren eskubideak eskatzen dituzte, baina ez guztiek.” (Aspaldi etorritako latinoamerikarrak)

“Hemen, emakumea gizonaren gainetik dago, eta hori gustatzen zait, baina badira hain gutuko ez ditudan gauzak ere. Adibidez, bikote bat banatzen bada,... gizona kale gorrira joaten da, eta emakumea denarekin gelditzen da, etxea... Han, guztiz kontrakoa gertatzen da.” (3. profila: Senegal)

Ondorio gisa, adieraz dezakegu Euskadiko emakumeak langiletzat eta independentetzat definitzen dituztela; bizitzaz goza dezakete eta beren eskubideak baliatu ditzakete horretarako aukera ematen eta errazten duen gizarte batean. Elkarrizketatutako zenbait emakumeren arabera, hemengo emakumeak erakusten duten indarrak lotura zuzena du *euskal matriarkatu* deritzonarekin; hau da, gizarte-egituran, emakumea gizonaren gainetik dagoen

errealitate objektiboa litzateke. Nolanahi ere, beste egile batzuek nahiago dute *euskal matriarkalismo* terminoa erabili. Kontzeptu hori aurrekoaren desberdina da, egitura psikosozial bati egiten baitio erreferentzia; hau da, errealitate objektibo bat baino gehiago, errealitate intersubjektiboa izango litzateke, hainbat mailaz osatutako egitura batekin.

Euskadiko emakumeak deskribatzen dituzten kalifikatzaileen artean, lan- eta gizarte-autonomiarekin lotutako hainbat aurki ditzakegu, bai eta haiek duten independentziarekin lotutakoak ere. Hala, agintea (ez autoritarismoa), errespetua edo autoestimua EAEko emakumeak iradokitzen duen irudia azaltzeko adierazleak dira.

Bikote-bizitzak helburu komun bat du, hots, elkarbizitzan eta eguneroko bizitzan berdintasuna lortzea. Gizonek seme-alabak zaintzea edo etxeko lanak modu natural eta normalizatuan banatzea positiboki balioesten dituzte. Hemengo jendearen bikote-harremanei buruz zer iritzi duten galdetzean, elkarrizketatutako ia emakume guztiek adierazi dute harreman horiek berdintasun-printzipioan oinarritzen direla. Hausnarketa horrek adierazten du aho batez identifikatzen eta balioesten dutela beren jatorriko herrialdeetan ez daukaten edo, gutxienez, modu eraginkorrean ezarri gabe dagoen printzipio bat. Printzipio horren arabera, berdintasun handiagoko ikuspegia izango litzateke bikote-harremanaren oinarri, eta bide hori (benetakoa ala ez) jatorriko herrialdekoarekin alderatuz hain matxista ez den egitura bat eraikitzeko erreferentzia bihurtzen da.

Euskadiko emakumeak duten pertzepzio hori ezinbestean alderatu da elkarrizketatutako emakumeek beren jatorriko herrialdeetan dituzten homonimoez duten irudiarekin. Kultura-, erlijio-, etnia- eta gizarte-desberdintasunek eragin nabarmena dute hemengo biztanleriaren jarrerak eta jokabideak positiboki nahiz negatiboki baloratzeko.

EMAKUMEEN EGUNGO EGOERA BEREN JATORRIKO HERRIALDEETAN

6.4.2

Migrazioek, askotariko arrazoiak direla eta, mundu osoko milioika pertsonak beren jatorriko herrialdea utzi eta beste leku batera mugitzea adierazten dute. Aurreko kapituluetan ikusi bezala, haien etorrerari eta helmugako herrialdean daramaten bizitzari buruzko hainbat dimentsio aztertu dira. Elkarrizketatutako emakume immigranteek hemen zer aurkitu duten azaldu dute, zailtasunak, kultura-desberdintasunak eta diskriminaziozko jarrerak eta jokabideak, besteak beste. Baina horrez gain, interesgarria da beren jatorriko herrialdeetan emakumeek daramaten bizitza nola deskribatzen eta baloratzen duten jakitea.

Elkarrizketatutako emakumeek askotariko iritziak eman dituzte. Batzuek diote beren jatorriko herrialdeetan, batez ere gazteen artean, gertatzen hasi diren rol-aldaketak hauteman dituztela; beste batzuek, berriz, beren jatorriko herrialdeetako jokabideak eta jarrerak hango kulturaren eta ohituren parte direla irizten diote, eta aldatu gabe jarraitzen dutela.

Alde batetik, elkarrizketatuek beren jatorriko herrialdeetan emakumeak nola bizi diren deskribatu dute. Deskripzioetan, batez ere, bereizketa hau egin da: batetik, emakumeek etxeaz arduratzeko funtzioa dute, hau da, etxea, seme-alabak eta senarra zaindu behar dituzte; eta bestetik, gizonek produkzio-funtzioa dute, hau da, ordaindutako lan bat dute, eta askatasun handiagoa leku publikoetan ibiltzeko. Halaber, hizketagai izan da seme-alabak izateko adina; oro har, helmugako lekuetan baino gazteago izan ohi dituzte. Hori bai, matxismo-pertzepzio nabarmenagoa dute afrikar profileko pertsonen (Saharaz hegoaldekoek eta magrebtarrek) eta Europako zenbait nazionalitatetako pertsonen (adibidez, Errumaniako iji-

toek). Solaskide batek hau esan du: "Marokon, gizona aurrean doa eta emakumea atzean". Horrez gain, latinoamerikar batzuen lekukotasunen arabera, matxismoaren gaiaz gain, beren herrialdeetan gazteago ezkontzen dira helmugako herrialdeetan baino, azken horietan oraindik ikasten egoten baitira. ("*Han seme-alabak oso gazte izaten dira, eta hemen, ikasten ari dira.*" (8. profila: Honduras)

"Emakumeek etxean egon behar dute, eta gazte ezkondu, eta gizonak lanera joaten dira, beti bezala, antzina egiten zen moduan." (4. profila: Mauritania)

"Nire familian, gizonak eskubide gehiago dituzte emakumeek baino; emakumeak ezin du nahi duen bezala irten, beti familia izan behar du ondoan, hura zaintzen; emakumea izanik, ez dute nahi ezkondu aurretik haurdun gelditzea." (3. profila: Nigeria)

"Zenbait etnietan, emakumearen bizitza oso gogorra da; aitak berak aurkitzen du alabarentzako gizona, eta txikitatik ezkon-hitza emanda izaten dute, gustatu ala ez. Hori txarra da, mutil horrekin ezkondu behar baita, eta gero gaizki bukatzen da; baina neskak ezin du banandu, oso gaizki ikusita baitago." (6. profila: Errumania)

"Marokon, gizona aurrean doa eta emakumea atzean. Jendeak halakorik esan ez arren, bai, hala da. Asko aldatu da, bai, ez da orain dela mende batzuk bezala, baina ildo beretik jarraitzen du; behera joaten naizenean, hango neskekin hitz egiten dut, eta beti gizonaren mende daude, gizonaren esana bete behar da." (5. profila: Maroko)

Bikoteak askoz ere gazteago ezkontzen dira, eta neurri batean, joera horrek murriztu egiten du biografia propioa eta autodeterminatua garatzeko aukera, ezkontza emakumea gaztea denean gauzatzen delako (herrialde horretako kultura-ereduari jarraiki), edo norberaren aukera baino, kontratu bat delako (hau da, familia-estrategiek garrantzi handiagoa dute emakumearen beraren nahiak baino).

"Han, hogeitertetik gora badituzu, gurasoek senargaia bilatzen dizute ezkontzeko; horregatik, seme-alabak gazterik izaten dira." (7. profila: Txina)

"Gurean, seme-alabak gazterik izaten dira, eta hemen, oraindik ikasten daude adin horretan." (8. profila: Honduras)

Helmugako herrialdearekin alderatuta, jatorriko herrialdeko gizartean matxismoak nonahikotasuna du; hori dela eta, gizona da familian dirua ekartzen duen bakarra, eta emakumeak etxeoandarearen funtzioa betetzen du, etxeaz arduratzea da haien zeregina, baina betiere, gizonarekiko erabateko mendekotasunean. Mendekotasun horrek eremu publikoan nahiz lan-eremuan bizitza autonomo bat garatzeko aukerari eragiten dio, bai eta ekonomia-arloari ere; azken batean, autonomizazio-prozesu oro eragozten du, eta horrenbestez, emakumeak egoera horretara ohitzen dira (adibidez, emakume magrebtar batentzat, ohikoa bihurtzen da dirua ekartzen duen senarra izatea edota, lan-munduan sartzean, debekuak jartzen dizkiona).

"Izan ere, gizonak oso matxistak dira; esaten dute emakumeok ezin ditugula egin haiek egiten dituzten gauzak, adibidez, lan egin. Haiek soilik egin dezakete lana. Haien iritziz, emakumeak ezin du kalean ibili, etxean eduki nahi dituzte, bakarrik, seme-alabekin; baina beraiek bai, beraiek kalera irten eta lan egin dezakete, emakumeek ez bezala. Gainera, emakumea senarrari ezer esan gabe irteten bada, hura engainatzen ari den seinale. Zenbaitetan hala gertatzen da." (8. profila: Honduras)

"Nire herrialdea oso matxista da, emakumearen rola etxean egotea da, seme-alabak izatea, eta ez dago askatasunik emakumeak bere burua garatzeko." (8. profila: Nikaragua)

"Marokoko emakumeentzat, ohikoa da gizonak dena ekartzea." (5. profila: Maroko)

"Nire herrialdean, ezkondata egonez gero, zure senarrak lan egitea debekatu diezazuke." (4. profila: Mauritania)

"Nire herrialdean, euro bat nahi duzun aldiro, senarrari eskatu behar diozu. Egoera apur bat matxista da." (4. profila: Senegal)

Bestalde, elkarrizketatutako emakume batzuek aipatu dute beren jatorriko herrialdeetan aldaketak hauteman dituztela sexu-berdintasunerako bidean; beste batzuek adierazi dute, beren herrialdeetan lehen ere berdintasuna bazela; eta beste batzuek, prozesua abiatzen ari dela, gazteen eta hirietan bizi direnen artean, behintzat. Prozesu horrek indar gutxiago izango luke landa-eremuan; izan ere, leku horietan, premiak materialagoak direnez, sexua-ren araberako funtzio tradizionalak errepikatzen dira, eta beste zenbait ondorioren artean, emakumeak irakaskuntzan sartzea oztokatzen dute. Amek jada hauteman dituzte aldaketak, diskurtsoan bada ere; izan ere, ikusten dute beren alabek, neurri batean, agindu egiten dutela, eta etxeko lanetan eta zereginetan gizonen laguntza geroz eta gehiago eskatzen dutela. Horrez gain, ezkontzeko adina atzeratzen ari da, eta hitzartutako ezkontzen garrantzia eta kopurua ere, geroz eta txikiagoa da.

"Orain, emakumeak gehiago agintzen du. Oraingo gazteen artean, biek egiten dute lan, senarrak eta emazteak, eta hori da onena." (2. profila: Kolonbia)

"Nire alaba han bizi da, eta esaten dit bere senarrak lagundu egin behar izaten diola, berak ere lana egiten duelako, eta nik ondo deritzodala esaten diot, nik ez bainuen horrelako laguntzarik izan." (2. profila: Ekuador)

"Emakumeek ikasi egiten dute, eta egoera hobetu egin da, baina landa-eremuko herrietan, neskatoak ez dituzte eskolara bidaltzen, etxean gelditu behar izaten dute, etxeko lanak egiteko". (3. profila: Senegal)

"Nik uste dut lehen jendea gazteago ezkontzen zela; gaur egun, ez dira hain gazte ezkontzen." (6. profila: Errumania)

Gauzak aldatu egin dira; emakumea etxetik irteten da, nahi duenean eta nahi duenarekin; lehen, ezkontzera behartzen zituzten. Pentsamoldeari dagokionez, gauzak hobetu egin dira, asko garatu dute. Halere, hirietan gehiago aldatu da egoera, herrietan baino." (3. profila: Senegal)

Beraz, badakite erantzukizunak geroz eta gehiago banatzen hasi direla edota neskatoek ikasten jarraitu dezaketela, eta horrek, aldi berean, beste gertaerak atzeratzea dakar, ezkontza eta seme-alabak, esaterako.

Azken batean, emakume atzerritarren artean askotariko iritziak daude; besteak beste, batzuek uste dute emakumeek eskubide eta askatasun berdinak dituztela beren jatorriko herrialdeetan eta helmugako herrialdean, eta beste batzuek, aldiz, desberdintasun nabarmenak hautematen dituzte beren jatorriko herrialdeko eta EAEko bizimoduaren artean.

Jatorriko herrialdean emakumeak gizonak baino maila baxuagoan egoteari erreferentzia egiteko joera dago. Zenbait kasutan, adierazpen horiek etsipenez egiten dituzte, eta neurri batean, beren jatorriko herrialdeetan errotutako sistemarekiko onospena agertzen dute. Baina, beste aldetik, emakume atzerritar immigranteek beren jatorriko herrialdeetako genero-roletan gertatutako aldaketei buruz hausnartzen dute; hala, belaunaldi gazteenen bitartez, poliki-poliki hedatzen ari da emakumeak gizartean duen funtzioarekiko kontzientzia.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

6.4.3

Emakumeen aurkako indarkeria gure gizartearen arazo larrienetako bat da. Gaitz horrek ez du bereizketarik egiten gizarte-mailen eta nazionalitateen artean. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak emandako datuen arabera, genero-indarkeriaren 4.125 salake-

ta jaso ziren EAEn, 2011. urtean; Espainian izandako salaketa guztien %3,1. Datu horrek agerian uzten du genero-indarkeria errealitate jarraitu bat dela, gizarteak eta erakundeek dituzten hainbat baliabideren bitartez zaindu eta kontrolatu beharrekoa; baliabide horien bidez, problematika horri erantzuteaz eta bertan esku hartzeaz gain, arazoaren prebentzioan egin behar da lan.

Biztanleria atzerriarraren artean ere badira beren bikoteengandik tratatu txarrak jasotzen dituzten emakumeak, Espainiar estatuko emakumeen artean baino joera handiagoarekin, gainera; beraz, emakume atzerriar immigranteek talde bereziki ahula osatzen dute arazo horri dagokionez. Osasun, Gizarte Politika eta berdintasun Ministerioaren datuei dagokionez (Genero-indarkeriari buruzko makroinkestak - 2011), emakume atzerriarren %20,9k genero-indarkeria jasan du bizitzan behin gutxienez (bertako emakumeen %10,1ek), eta azken urtean, %5,8k jasan du indarkeria hori (bertako emakumeen %2,5ek).

Baina aurrez, gogora dezagun nola definitu zuen Nazio Batuen Erakundeak (1979) emakumeen aurkako indarkeria Emakumeen aurkako Indarkeria Deuseztatzeko Nazio Batuen Erakundearen Adierazpenean: "emakumea izatean oinarri duen indarkeria-ekintza oro, emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, sexuala edo psikologikoa dakarrena, horrelako ekintzen mehatxuak, bortxak edota askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, jendaurrean nahiz pribatuan gertatzen direnak aintzat hartuta".

Mehatxuak eta tratatu txarrak gizonen eta emakumeen aurka egin daitezkeen arren, azterlan honetan emakumeenak soilik aztertuko ditugu; izan ere, azterketa honetan, emakume immigranteen lekukotasunak jaso ditugu, jasandako indarkeria eta, zenbaitetan, tratatu txarreko egoerak gainditu izana agerian uzten dutenak. Kultura-, etnia- eta erlijio-desberdintasunek eragin handia dute bizi izandako tratatu txarren egoerak identifikatzean, eragindako kaltearen aurrean haien bikoteak defendatzean edo salatzean, eta indarkeriazko jarrerak justifikatzean; gure iritziz, azpimarragarria da joera hori. Beraz, emakumeen aurkako hainbat indarkeria-mota aurkitzen ditugu. Zaila da elkarrizketetan tratatu txar mota desberdinak bereiztea, bata besteari gainjartzen baitaio, inolako etenik gabe.

Bikotekideak eragindako indarkeria fisikoa. Nabarmenagoa da, markak eta orbanak uzten baititu emakumearen gorputzean. Indarkeria fisikotzat har daiteke eskuekin edo beste edozein objektorekin nahita egiten den edozein ekintza, adibidez: kolpeak, ebakiak, masailekoak, erredurak, erailketa, etab.

Elkarrizketatutako emakumeek lehen pertsonan deskribatu dituzte haien jatorriko herrialdean nahiz helmugako herrialdean jasandako indarkeria fisikoaren ekintzak. Tratatu txar fisikoarekin batera, beste hainbat faktore agertzen dira: bikotekideak emakumeari eragiten dion beldurra; haren presentziak sortzen duen errespetua; askotan, bizi duten administrazio-egoera irregularra ez okertzeko, salaketa jartzeko beldurra; jasotako kolpeen justifikazioak eta barkamenak; eta mehatxuak nahiz irainak.

"Etxean samindu egiten ninduen (senarrak), bizitza hondatzen zidan, baina barre egin behar nuen, ez bainien nire seme-alabei bizitza zapuztu nahi. Hura etxera iristean arropa lixatu gabe banuen, jo egiten ninduen, ostikoka hasten zen. Eta nire maitasuna eman nien seme-alabei; hura ez zitzaidan axola, ez nuen harekiko maitasunik sentitzen. Nire lanari eta nire seme-alabei lotu nintzaian." (2. profila: Ekuador)

"Nire aitak lan egiten du, baina emakumea jotzen du, asko, horregatik ez dut nire aitarekin bizi nahi, beldurra ematen dit; egun batean, jo eta jo, hil egingo nau" (3. profila: Nigeria)

"Nire senar ohiak jo egiten ninduen, eta gure kulturari, gizonari barkatu egin behar zaio, eta... horrelako gauzak. Baina bukatu da." (6. profila: Errumania)

"Arazoak nituen harekin, eta iraindu egiten ninduen, etengabe, emagalduta esaten zidan (...), 'zure seme-alabak berogailurik gabe bizi dira etxean, eta pasta ezer gabe jaten ari gara, eta zuk iraindu egiten nauzu'; eta berriro jo ninduen." (3. profila: Ghana)

"Beldurra ematen zidan salatzeak. Izan ere, egun batean kolpe handia eman zidan argi-kable batekin, eta oso gaizki jarri ninduen... poliziari deitu zion berak, eta nik poliziari deitzen badiot, kalera botako naute. Polizia etorri zenean, pijama apurtuta eta nekatuta ikusi ninduten, eta logelara sartu; salaketa jarri nahi nuen galdetu zidaten, eta nik baietz, eta hark, poliziaren aurrean, hil egingo ninduela esan zidan." (3. profila: Senegal)

"Nik beldurra nion, errespetua. Zerbait hartuta etortzen zen, eta jo egiten ninduen. Hura etxean egoten zenean, beldurra ematen zidan. (...) Egun batean, semeak defendatu ninduen, eta sinetsiez ezadazu, egun hartatik aurrera, babestuta sentitu nintzen; izan ere, lotsaren lotsaz, ez nion nire familiari ezer kontatu. Nire seme-alabak hazten joan ahala, gero eta babes handiagoa sentitu nuen." (2. profila: Ekuador)

"Beste mutil batekin egon nintzen; tratu txarrak ematen zizkidan, zerbait hartzen zuelako, eta arazoak izan genituen, epaiketa eta guzti. 2009tik 2011ra bitartean gertatu zen hori guztia; urrutze-agindua ezarri zioten bi aldiz, eta orain, alabarekin bakarrik nago berriro. Oso pozik. Tratu txarrak ematen zizkidan pertsona hemen ezagutu nuen, baina nire herrialdekoa zen." (3. profila: Senegal)

"Oso basatia izan da, eta oso matxista; bere emaztea etxean egotea nahi du, baina gero, azkenean, asko maite ditu bere seme-alabak, eta oso momentu ona izaten du, eta nik ez diot ezer esaten, ez diot erantzuten. Gero, agian, beroaldi bat izaten du, eroaldi bat, eta bultza egiten nau. Horrenbestez, nik haren esana betetzen dut." (2. profila: Ekuador)

"..eta gizarte-segurantzak ohartu egin zen, eta dirua nire kontuan sartzen zuen. Eta hura ohartu egin zen; dirua eskatu zidan, eta nik ezetz. Labana ateratu zuen, eta esan zidan dirua ematen ez banion hil egingo ninduela; jo egin ninduen. Eta azkenean, ambulanzia etorri zen, eta ospitalera eramanez ninduten; ez naiz gehiago etxera bueltatu. Gizarte-laguntzaileak pisu batera ekarri ninduen, nire hiru haurrekin." (3. profila: Ghana)

"Nire aitak tratu txarrak ematen ditu, eta niri ez zait gustatzen harekin bizitzea; nahiago dut aitarik ez izan, tratu txarrak ematen dituela ikusi baino. Neskalagun asko ditu." (3. profila: Nigeria)

Kasuistikak eta ondorioak ugariak dira, baina hauteman dugu emakume horiek tratu txarrak ematen dituen pertsonarekiko esanekotasun- eta otzantasun-jarrerak hartzen dituztela; mendekotasun-jarrerak agertzen dituzte ustez kontrolatu ezin dituzten egoeren aurrean; aurre egiteko kemena eta indarra, tratu txarren unean; edota lotsa, beren familiaren aurrean bikoteek jo egiten dituztela onartu behar izaten dutenean. Gainera, txinatarren kasuan salbu, hauteman dugu tratu txarrak oso zabaldua daudela nazionalitateen ikuspegitik, eta ez dagozkiola bereziki aztertzen ari garen profiletako bati. Nazionalitate guztietara hedatu daiteke, eta lekukotasun baten arabera, gizarte-maila guztietara, nazionalitate bakoitzaren baitan. Bestalde, elkarrizketatutako beste pertsona batzuek beren kulturako beste emakumeek jasaten dituzten tratu txar fisikoei buruz hitz egin dute, eta beraiek egoera nola interpretatzen duten adierazi dute. Era berean, ikusi dugu, kultura-eredua oso barneratuta egoteaz gain, zigorgabetasuna dela nagusi; hala ere, badirudi egoera aldatzen ari dela adierazten duten zantzuak ikus daitezkeela ("..Orain ez, orain hemen bezala da").

"(nire herrialdean) emakumeak jada gizonak baino gehiago direla ikusten dut; izan ere, gobernu honi esker, hemen bezala gertatzen da. Baina lehen ez; lehen, senarrak emaztea jo, eta emakumeak epaiketara jo nahi bazuen, salaketa bere horretan geratzen zen. Eta orain ez, orain hemen bezala egiten dute. Lehen, senarra iritsi, emaztea jo eta gaizki tratatzen zuen, eta emakumeak salaketa jartzen bazuen, senarra utzi nahi zuen galdetzen zioten, eta, noski, senarrak diru guztia kentzen zion." (2. profila: Kolonbia)

"Ijito-familietan, etniaren arabera, egoera okerragoa da; zenbaitetan, zerbait txarra egiten baduzu, eta zure aitagarrebak edo koinatuak nahi izanez gero, jo eta gaizki hitz egiten dizu."

Etniaren arabera dago. Beste batzuek emakumeak errespetatzen dituzte, gehiago edo gutxiago; eta badira emakumeek oso bizimodu gogorra daramaten etniak ere. (6. profila: Errumania)

"Han, indarkeria asko dago; gizona oso matxista da, baita gizarte-maila altuetan ere. Ezin duzu etxetik atera; gizonak esaten duena egin behar da. Gizonak jo egiten du emakumea. Eta mozkortiak dira, horretarako bai baitago dirua, zerbait hartzeko badago dirua. Hori gizarte-maila baxuetan eta ertainetan gertatzen da." (2. profila: Kolonbia)

*Indarkeria psikikoaren bidez, emakumea manipulatu egiten dute; erasotzaileak kontrolatu egiten du emakumea, eta bere esanetara izaten du, mendekotasun psikologikoa eta sinboliko-kulturala baliatuz. Horrela, hainbat egoera aurki ditzakegu: mehatxuak, umiliatzeak, esana betetzeko eskakizunak, edozein arazoren errua biktimari leporatzeko joera, deskalifikazioak, irainak, isolamendua, etab. la beti, beste era bateko indarkeriari lotuta egoten da, *gizarte-indarkeriari*, esaterako. Indarkeria-mota horretan, tratu txarrak ematen dituen pertsonak emakumearen gizarte-bizitza mugatzen du, bere inguruetik isolatuz. Halaber, *indarkeria ekonomikoarekin* du lotura; hau da, emakumeak dirua erabiltzeko aukera kontrolatzen du erasotzaileak, lan egiteko aukera ukatuz edo irabaziak berari ematera behartuz. Ikusi dugunez, jokabide horietako batzuk jada oso orokortuta zeuden, baita indarkeria-mota osagarririk gabe ere. Hau da, profil hauek dituzten pertsonen kultura-egiturak berak eragiten du egiturazko genero-indarkeria; izan ere, esplizituki, biktimarioen esku jartzen ditu hainbat indarkeria-mota.*

Indarkeria-kasuak jasan dituzten elkarrizketatutako emakumeen iritziak entzunda, jabetu gara bikotekideek emakumeak ikaritzen dituztela, haien administrazio-egoera irregularra baliatuz; beren seme-alabekin gelditzeko mehatxua egiten diete. Horrez gain, emakumeei botatzen diote lana bilatzean porrot egitearen errua. Bestalde, arreta jarri behar zaio bikotekideek beren emazteen bizitza kontrolatzeko agertzen duten nahiari, beste pertsonekin duten harreman orotatik isolatuz. Isolatze hori gauzatzeko bideetako bat da, esaterako, helmugako gizarteko hizkuntza ikastea debekatzea (gurean, gaztelania izango litzateke). Etxetik irtetea edo bertako hizkuntza ikastea debekatuz, eta horrez gain, lana bilatzeko duten zorte faltaren errua emakumeari leporatuz, emakumeek helmugako herrialdeko gizartearekin harremanak izatea oztopatzen dute, eta elkarreraginik ezean, ezin da asimilaziorik gauzatu. Horren adierazgarri da Ghanako emakume baten adierazpena: "nire senarrak ez zuen nahi nik ikasterik,... ez zuen nahi gehiago jakiterik, zenbat eta gehiago jakin defendatu egin zaitezkeelako, eta hark etxean nahi zuen emaztea". Horrelako mugak gehiago gertatzen dira latinoamerikarrak ez diren pertsonengan, haien profila zeinahi izanda ere, bereziki, afrikarengan (kulturalki eta sozialki, urrunen daudenak) eta, zenbaitetan, ijito errumaniarengan.

"Eta ez zidan lanean utzi nahi, ez zidan paperik eman nahi; arazo asko ditugu, eta bere beste neskari etxera deitzen dio." (3. profila: Ghana)

"Baina hark esaten dit: 'nire arazoak, krisia, zure errua dira; Espainia oso ondo zegoen, eta zurekin ezkon-hitza egin nuenetik, ez dago lanik, eta zu etorri zinenetik, krisia dago'." (4. profila: Aljeria)

"Beldur hori nuen nik paperik ez nuenean; 'salaketa jartzen badidazu, zure hurrekin geldituko naiz, eta zu Afrikara itzuliko zara. Zer esango diote besteek zure amari?' esaten zidan." (3. profila: Ghana)

"Badira ijito batzuk, familia bat ezagutzen dut, beren emakumeekin oso zorrotzak direnak; ezin dute etxetik asko atera. 'Nora zoaz?' galdetzen diete. 'Beste batekin al zoaz? Jendeak zuri begiratu eta oso polita zaudela esaten dizu?'. Gizona haserrarazten ez baduzu, gizonak errespetatu egiten zaitu. Nik diot, zuk jendea errespetatzen baduzu, haiek zu errespetatzen zaituzte." (6. profila: Errumania)

"Eta nire senarrak iraindu egiten ninduen; 'begira nire nebari, hiru hilabete daramatza hemen eta jada hitz egiten du, eta zuk, hiru urte daramatzazu eta ez duzu batere hitz egiten' esaten

zidan. Eta nik esaten nion berak ordenagailuan eserita egoteko denbora zuela, baina nik bien ontziak garbitu behar izaten nituela.” (3. profila: Ghana)

“Batzuetan, hutsaren hurrengoia izango banintz bezala sentiarazten nau. ‘Ez duzu inolako ardurarik, ez dakizu ezer, ez duzu mailarik...’ esaten dit; ezta bera pertsona talentudun bat balitz ere!” (4. profila: Aljeria)

Nire senarrak ez zuen nahi nik ikasterik, ez zuen nahi nik gauzak jakiterik, gehiago jakiterik, zenbat eta gehiago jakin defendatu egin zaitezkeelako, eta hark etxean nahi zuen emaztea. Tratu txarrak ematen zizkidan, iraindu, eta denetarik egiten zidan.” (3. profila: Ghana)

“Berak ez zuen nahi nik gauzak ikasterik; hori zen arazoa. Ez zuen nahi ezta gaztelaniaz hitz egiten ikastea ere. Eta jendaurrean iraintzen ninduen, ‘isildu’ esaten zidan, ‘ez hitz egin gaztelaniaz’. Ez nuen ezertarako balio, ezta hitz egiteko ere...” (3. profila: Ghana)

Emakumeen aurka egiten diren hainbat indarkeria-mota aztertu ondoren, horien aurrean izan diren erreakzioei eta hartu diren neurriei jarriko diegu arreta. Zenbaitetan, salaketa jartzten dute eta/edo beren bikotekideengandik banantzea erabakitzen dute. Erakundeek tratu txarrak jasotzen dituzten pertsonentzat dituzten zerbitzuak erabiltzen dituzte, adibidez: GPSa edo genero-indarkeriako biktimen arretarako telefonoa. Dena den, zenbait kasutan, emakumeek independentzia ekonomikorik ez izatearen ondorioz, ezin izaten dute beren bikotekideengandik banandu.

“Nik dibortzioa proposatu nion (helmugako herrialdean); ez dut harekin gehiago bizi nahi, ‘ez dut zuen aita maite, ez dut maitasunik sentitzen’ esan nien. (...) eta hurrei hori esatean, ‘baina, ama, gaizki tratatzen al zaitu?’ galdetu zidaten. Eta nik, ‘ez, baina orain gauzak ondo ateratzen ari zaizkit, eta orain, seguru nago zuekin, eta harengandik dibortziatu nahi dut; libre izan nahi dut.” (2. profila: Ekuador)

“Eta dena hasi zen, epaiketa...; baina bai, ausarta izan naiz salaketa jarritz, hiru aldiz salatu dut, deitzen eta mehatxatzen jarraitzen baitu. Oso gaizki pasatu nuen; lehen, beldurra izaten nuen kalera irteteko, eta askotan aldatu naiz etxez. Orain, Ertzaintzaren telefonoarekin ibiltzen naiz badaezpada ere, GPSa dauka; urruntze-agindu bat dago indarrean. Orain, ez dut horretan pentsatu nahi, nire alabarengatik; ez diot beldurra transmititu nahi. Babesten nauten lagunak ditut.” (3. profila: Senegal)

“Harengandik banandu nintzen, ez zelako ona, tratu txarrak ematen zizkidan. Salaketa jarri nion, gaizki tratatzen ninduelako, eta orain, urruntze-agindua du.” (7. profila: Txina)

“Ez litzaidake gustatuko, baina nik independentzia ekonomikorik ez dudanez, zer egingo nuke? Hau da, nik ezin ditut nire seme-alabak batetik bestera ibili... Nik aurrera jarraitzen dut; indarra atera eta ez diot uzten ni makurrarazten. Azkenean, etxetik kanpo gaudenean, biok bakarrik gaudenean, badaki ni naukala, eta nik bera dudala; hori da biok dakiguna. Beraz, itsusi, atso zahar edo beste edozer gauza esaten badit ere, azkenean beti esaten dit ‘zenbait maite zaitudan’.” (2. profila: Ekuador)

Seme-alabak ere azterketako beste faktore bat dira, zenbait unetan laguntza eta babes handia izan baitira amentzat. Askotan, seme-alabak kokatu eta bideratu ondoren, emakumeak indartsuago sentitzen dira (“orain gauzak ondo ateratzen ari zaizkit, eta seguru nago zuekin, eta harengandik dibortziatu nahi dut; libre izan nahi dut hemen”); beraz, ezkon-bizitzarekin amaitu edo denbora bat hartzen dute. Beste batzuetan, seme-alabek (batez ere txikiak badi-ra) tratu txarren egoerak bizi izanaren ondorioak jasaten dituzte. Bestalde, seme-alabak izan ohi dira emakumeek banantze-prozesua abian jartzea ez erabakitzearen arrazoi.

“Hark dio ‘nik haurrak bi orduz ikusi nahi ditut, hilean bi aldiz. Eta horrek hurrei eragiten die; berriro ere pixa egiten dute galtzetan, beldurra, amets txarrak.” (3. profila: Ghana)

“Ni gazteagoa eta argalagoa nintzen, eta hura jeloskor jartzen zen. Lanetik atera eta, burua makurtuta, korrika joaten nintzen etxera; beldurra nion. Nire seme zaharrak aurre egin zion arte, ‘nire ama ez duzu zertan gaizki tratatu’ esan zion. Eta nire alabak besteak hona ekartzen hasi zirenean, hobetu egin zen; orain, zerbaitetan laguntzen dit.” (2. profila: Ekuador)

"Baita nire 15 urteko semeak ere; esan zidan 'ama ez da sufritu behar, nik oso gaizki ikusten zaitut gizon horrekin. Nire seme-alabek lagundu didate; beren aitengandik banandu naiz, baina ez didate aurpegiratzen.'" (6. profila: Errumania)

"Nik askotan alde egin nahi izan dut, eta hura utzi, baina gero pentsatzen jartzen naiz eta... nire seme-alaba gaixoak. Bizimodua aldatuko litzaieke. Gizona matxista da, baina ez da beste emakumeekin joaten den horietakoa." (2. profila: Ekuador)

Gure ustez, bereziki aztertu behar da zer eragin duen elkarrizketatutako emakumeengan indarkeria matxistaren ondorioz espainiar estatuan izandako heriotza-kopuru handiak. Diotenez, beren herrialdeetan, emakumeei tratu txarrak ematen dizkieten arren, ez dira inoiz haiek hiltzeraino iristen, eta erailez gero ere, kopurua askoz ere txikiagoa da helmugako herrialdean baino. Gure iritziz, ondorio horretan funtsezko garrantzia dute gizarte-salaketarako bitartekoek eta komunikabideek, arazo hori geroz eta gehiago ikustarazten baitute. Orain dela urte batzuk arte, genero-indarkeria etxeko intimitatearen partetzat hartzen zen EAEn, eta kanpokoek ez zuten zertan bertan muturra sartu. Gerora, genero-indarkeriaren aurkako legeak onartu eta biktimak babesteko programak eta ekintzak sortu ahala, komunikabideek, administrazioek eta gizarte-erakundeek gaiari buruz informazioa zabaltzearekin batera, herritarrengan genero-indarkeriaren arazoaren kontzientzia sortu da. Legezko, informaziozko eta gizarte-sentsibilizazioko mekanismo horiek guztiak ahuldu eta, zenbaitetan, hautsi egin dute genero-indarkeriaren inguruko isiltasunaren gurpil zoro hori. Genero-indarkeria esplizituagoa da helmugako gizartean; hain zuzen, baliteke gizarte horretan bizi den egoera jatorriko herrialdeetan ez gertatzea, bai indarkeria egiturazkoa delako eta gizarte-rolen nahiz mundu-ikuskeraren baitan sartzen delako, bai oraindik ez delako iritsi indarkeria matxista kontrolatzeko exigentzia iradokitzen duen egoera batera. Antza, elkarrizketatuen artean ere alde kualitatibo handia dago; hau da, tratu txarren ustezko "kultura-normaltasuna" jasanezin bihurtzen da "eraiketa" izatera iristen denean. Shocka eragiten du emakumeak erailteak: "nire iritziz, hemen eraiketa gehiago daude", "tratu txarrak egon badaude... baina heriotzara iritsi arte... horrek harritu egin ninduen".

"Genero-indarkeria... han ere tratu txarrak ematen dituzte, baina hemen...; norbaitek ez bazaitu maite, bere bizimoduarekin jarrai dezake, baina hil... Nire ustez, hemen eraiketa-kasu gehiago daude; ikustean, harritu egiten nau." (4. profila: Ekuatore Ginea)

"Zirrara handia eragin zidan erailteak, indarkeriak, (...) nire herrialdean, nire inguruan hiltzen diren emakume guztiak gaixotasunaren edo arrazoi naturalen ondorioz hiltzen dira; tratu txarrak egon daitezkeela, bai, badaude, emakumeek tratu txar ekonomikoak jasaten dituzte, sozialak... baina fisikoak, hiltzerainokoak... horrek asko harritu ninduen." (5. profila: Sahara)

"Han ez dituzte emakumeak hiltzen; ez dut esan nahi hemen asko hiltzen dituztenik, baina telebistan emakumeak hil dituztela ikustean... ni asko harritzen nau." (4. profila: Ekuatore Ginea)

"Han, gizonak ez dituzte hainbeste emakume hiltzen, ez hemen bezala, hemen egunero hiltzen baitute norbait. Nire herrialdean ez dut hainbeste entzun emakumeak hiltzen direnik. Ez badu maite, bada joan egiten da, eta ez dio zertan tratu txarrik eman behar." (2. profila: Kolonbia)

Azkenik, elkarrizketan, planteamendu interesgarriak sortu dira; esaterako, beren azalean bizi izan dituzten tratu txarren egoerei buruz hausnartzen dutenean edo beren jatorriko herrialdeetan beste emakumeek jasaten duten indarkeriaz jarduten dutenean. Alde batetik, helmugako herrialdean egoera publikoki salatzen dituzten aukerak ikusten dituzte. Beren jatorriko herrialdeetan jasotzen duten aitorenarekin eta tratuarekin alderatuta, jendeak babestu eta ulertu egiten dituztela sentitzen dute; izan ere, haien jatorriko herrialdeetan, babes hori hutsala da zenbaitetan, edota errudun sentiarazten dituzte. Tratu txarrak daude la kanporatzea eragozten duen familiaren kontrola salatzea, "negar egiteko aukera izatea", lotsa gainditzea eta nork bere buruarengan konfiantza izatea; egoera horiek Euskal

Autonomia Erkidegoan finkatu ondoren sentitu duten estatus-aldaketa adierazten dute. Erakundeek dituzten sareen bitartez, gizartekoak indartzen dituzte, bai eta norberaren autoestimua ere, sare horiek ematen duten babesaren ondorioz.

"Inork ez du eskubiderik beste pertsona bat jotzeko, ez eta hiltzeko ere. Zuk beste emakume batekin bizi nahi baduzu, ez da ezer gertatzen; baina Afrikako emakume asko familiaren beldur da, jendeak zer esango duen beldur. Bai, zer pentsatuko ote dute Afrikan dauden familia-koek." (3. profila: Ghana)

"Hona hemen nire gomendioa Afrikako emakumeentzat; hemen negar egin dezakegu, jendeak entzun egiten gaitu, horra hor alde. Gure herrialdean ez du ardura gizonak jo egiten bazaitu edota gauza txarrak egiten badizkizu, ez eta diru guztia hark kontrolatzen badu ere; hala da eta kito. Hemen desberdina da; hemen, lagun zaitzakeen jendea dago." (3. profila: Ghana)

"Nik, lehen, beldurra nion. Orain, nik, harekin topo egiten badut, hau eta bestea esaten diot; orain, hainbat psikologoren laguntzaz, konfiantza handia dut nigan. Lehen, lotsa sentitzen nuen." (3. profila: Ghana)

Bestalde, asko baloratzen dute konfiantza eta autoestimu gehiago lortu izana, jaso duten laguntza psikologikoari esker, neurri batean. Horren bidez, behar beste adore lortzen dute, halakorik gertatuz gero, beren erasotzaileei inolako beldurrik gabe aurre egiteko, behingotan "esnatu" direnez edota gizartearen, legearen eta erakundeen "babesa" sentitu dutenez; horrek konfiantza ematen die, eta salatu egiten dute.

"Inork ez dit aginduko; tratu txarrekin bizi izan dudan guztiaren ondoren, oso erne ibiltzen naiz gizonekin." (3. profila: Senegal)

"Egoera horren ondorioz jakin dut zer balio duen emakumeak Espainian eta Europako gainerrako herrialdeetan; jabetu naiz nire bikotekide ohiarengandik dibortzia naitekeela, ez duela ni jotzeko eskubiderik. Urte batzuk behar izan ditut jendearengan konfiantza izateko; ez nekien salaketa jarriz gero babestu egin zaitzaketela." (6. profila: Errumania)

Hala ere, ezin dugu ahaztu sentimenduak tartean daudenean (adibidez, maitasuna), zenbaitetan, arrazoimena ahuldu egiten dela eta indarkeriaren zirkulu kaltegarrian sar gaitzkeela. Maitasuna, jarrera aldatuko duen itxaropena eta indarkeriazko gertaera baten ondoren agertzen duten damua direla eta, tratu txarrek bere horretan irauten dute.

"Nik maite nuen, hori da maitasunaren arazoa; zeure buruari esaten diozu 'aldatuko da, aldatuko da'. Ni baikorra nintzen, 'aldatuko da' pentsatzen nuen, jotzen nindueanean berriro itzultzen baitzen. 'Barkatu, ezin dut zu gabe bizi'. Hitz politikak, eta nik barkatu egiten nion, berriro ere lepotik heltzen ninduen arte; 'Jauna, emadazu beste emakume bat' esaten nion neure buruari." (3. profila: Ghana)

Emakumeen aurkako tratu txarrek ez dute nazionalitaterik. Irainak, mehatxuak edota kolpeak berdin jasotzen dituzte Afrikako emakume batek, Latinoamerikako batek edo Europako batek. Nolanahi ere, zenbait zailtasun daude, emakume atzerritar immigranteak ahultasun-egoera larriagoan egotea eragiten dutenak. Hizkuntza-arazoak edo administrazio-egoera irregularrak eragindakoak behartzeko baliatzen dituzte erasotzaileek, emakumeen bizitza kontrolatu ahal izateko edo mendekotasun-egoerekin jarraitzeko. Kultura-, etnia- eta erlijio-desberdintasunak oso baliagarriak dira tratu txarrak nola identifikatzen eta hautematen dituzten ulertzeko, arazoa nola landu behar den, zer bide dauden indarkeriazko egoerei aurre egiteko, eta zer aukera dauden egoera salatzeke eta eragindako kaltea konpontzeko. Hala, jatorriko herrialdean familiaren eta bikotekidearen aldetik indarkeria jasan ondoren hango gizarteak egoera tratatzeko duen modua oso desberdina da EAEn arazoari heltzeko dagoen moduarekin alderatuz. Salaketak jartzeko bideak eta emakumea babesteko egiturak daude, juridiko eta instituzionalak nahiz gizarte-arlokoak, eta horrek itxaropenerako eta aldaketarako bidea ematen die tratu txarrak jasaten dituzten emakume atzerritarrei.

Bizitzan zehar hartutako erabakiek zer ondorio izan dituzten aztertzerakoan nor bere bizitzako oroitzapenetan atzera egitea oso hedatuta dagoen baliabidea da. Hainbat arrazoi direla eta, emakume horiek beren jatorriko herrialdetik irten eta Euskadira etortzea erabaki zuten. Aurrez ikusi dugun bezala, besteak beste, ekonomia-, familia- eta gizarte-arrazoiak zirela-eta utzi zituzten beren herriak eta hiriak. Beste herrialde batera iritsi eta bertan finkatuz (helmugako herrialdean bizitako urteen arabera), ziur asko pertsona batzuek jada hausnartuko zuten beren bizi-proiektuan migrazio-prozesuak izan duen eraginari buruz. Beste batzuentzat, elkarrizketak berak askotariko egoerak azaleratu ditu, eta egoera horiek hainbat bizipen baloratzen eraman dituzte, zailtasunak zailtasun. Ikasi, hazi, esnatu, berriro jaio, heldu, administratzen ikasi...; aditz horien bidez laburbildu daitezke bakoitzaren bizipenak. Finean, berpiztea eta indarberritzea ezinezko izango ziren migrazio-prozesurik gertatu izan ez balitz.

“Migrazioari esker asko ikasi dut; esnatu egin naiz. Nor bere herrialdetik irtetean, ikasi egiten da.” (2. profila: Kolonbia)

“...heldutasuna lortzen irakatsi dit, nire baliabideak administratzen; egoera berean dauden pertsonetik elkartasun handiagoa adierazi behar dudala irakatsi dit. Finean, horrek guztiak hazten irakasten dizu.” (8. profila: Paraguai)

Elkarrizketatutako emakume askok beraiena ez den beste gizarte eta kultura batean bizi izan dituzten aldaketei buruz hausnartu dute. Helmugako herrialdean, egunerokotasuna beste kultura-ezaugarri batzuek osatzen dutela ikusi dute, eta horrek aldatu egin ditu beren pentsatzeko eta jokatzeko moduak. Aurrerantzean, “inork ez dit aginduko; nahi dudana egingo dut.” Baina, bestalde, badira helmugako herrialdean beren bizimoduarekin jarraitu dutela pentsatzen duten emakumeak ere; hala uler daiteke Txinako emakume baten lekukotasuna entzunda. Noski, helmugako herrialdean komunitate txinatarrak bere baitan eratu duen egiturak azal dezake, neurri batean, adierazpen hori; komunitate-izaera horrek zuzenean oztokatzen du Euskadiko gizartearekin kalitatezko harremana edo benetako elkarreragina izatea. Gauza bera esan dezakegu Afrika iparraldeko biztanleei dagokienez; familian oinarritutako egitura dute, eta horren baitan, emakumeek debeku handiak dituzte eremu publikoetan sartzeko. Beraz, esan daiteke zenbat eta agerikoago eta irekiago izan jatorriko gizartearekiko are eta aukera gehiago izango direla elkarreragiteko eta norberaren izateko modua aldatzeko, eta alderantziz.

“Iritsi nintzenetik, aldatu egin naiz, iritzia, ohiturak, pentsatzeko modua, hitz egiteko modua... pentsatzen dudana esaten dut, inork ez dit aginduko, nik egin nahi dudana egiten dut.” (3. profila: Senegal)

“Bai, apur bat pentsatzeko modua, gauza asko; izan ere, familiarik aldentzea eta hain urrun dagoen herrialde batean egoteak asko aldatzen du pentsatzeko modua, gauzak esateko modua, izateko modua. Izaera era bai, noski.” (8. profila: Honduras)

“Orain seguruago sentitzen naiz; asko lagundu dit. Seguruago sentitzen naiz, lasaiago; bi hilabete barru paperak lortuko ditut, eta horrek segurtasun handiagoa ematen dit.” (8. profila: Nikaragua)

“Hemen nagoenetik, emakume moduan ez naiz aldatu.” (7. profila: Txina)

“Ni han nintzen bezalakoa naiz, nire jokabidea ez da aldatu. Ez naiz asko pintatzen, ez naiz estaltzen.” (5. profila: Maroko)

Elkarrizketatuen adierazpenen arabera, beste errealitate baten ateak ireki zaizkie, ezezagunak zitzaizkienak, eta horrek, emakume gisa, seguruago sentiarazten ditu. Jendearekin erla-

zionatzeko beste modu batzuk ezagutu dituzte, iritzia emateko, hitz egiteko...; azken finean, bizitzeko beste modu bat. Gizarte-adierazpenerako askatasunak, kasu honetan, ateak ireki dizkie, beren jatorriko gizarteetan emakumeen eskura ez daudenak.

"Hemen lagunak izan ditzakezu, jendearekin hitz egin, nahi duzuna esan, iritzia eman... eta hori oso garrantzitsua da; Mauritanian zenbait gauza ezin dira egin, desberdina da." (4. profila: Mauritania)

Elkarrizketatutako emakume batzuek esplizituki adierazi dute helmugako herrialdean daukaten askatasuna. Askatasun horri esker, beren bizitzari buruzko erabakiak har ditzakete eta bikotekidearekiko independentzia izan, bai ekonomikoa bai pertsonala. Autonomia hori, zenbaitetan, jatorriko herrialdeetan zeramaten bizimoduarekin alderatuz sortzen da; esaterako, Errumaniako emakume batek harrিতa du bere familia, eta bere buruari "zer gertatzen da nirekin?" galdetzen dio. "Askeago sentitzea" esamoldeak laburbiltzen du gogo-aldarte hori. Horren guztiaren aurrean, emakumeek bi lekuetako ohiturei eta gauzak egiteko moduari buruz hitz egin dute.

"Hemen, bada zerbait ona. Emakumeak lan egiten badu, kontu korrante bat du bientzat; han, nork berea zuen, eta horrenbestez, ezkondu nengoela, askotan gertatu zitzaidan nire senarrek zenbat irabazten zuen ez jakitea. Ez zidan kontua ikusten uzten, eta nahi zuen kopurua ematen zidan; hemen, berriz, emakumeek badakite zertan gastatzen duten dirua beren senarrek." (2. profila: Kolonia)

"..eta horrela ikasi nuen nik gaztelaniaz, eta bizitzan zer gertatzen den jabetzen; banekien hemen emakumeok gure aukera dugula, badakigu zenbat balio dugun, eta nolabait esateko, aske izatea lortzen dugu. Nik, zenbaitetan, familiarekin eta lagunekin hitz egiten dut, eta harrিতa gelditzen dira nirekin; gauza horiek ez dira nire herrialdean gertatzen. Poliziak hainbeste babestea; kaleko jendeak, gertaeraren berri izanez gero, laguntzea, eta bihotzez hitz egitea." (6. profila: Errumania)

"Nik ez dut jeloskortasunik sentitu, hark bai; hari ez zitzaion gustatzen ni kalera irtetea. Hemen bai; batzuetan, parkera joaten naiz alabarekin eta lagunak egiten ditut, eta ez dit ezer esaten. Lehen, Ekuadorren, ez zitzaion gustatzen lagunak izatea." (2. profila: Ekuador)

"Bai, bai, ni hemen askeagoa naiz; nire bizitza daukat eta nire bizitza kontrola dezaket." (3. profila: Nigeria)

"Hemen, libreago sentitzen naiz, nire seme-alabek askatasuna ematen didatelako. Askeago sentitzen naiz." (2. profila: Ekuador)

Dena den, migrazioa ez da beti lotzen ikuspegi positibo horrekin, emakumeak beste muturrera eramaten dituzten egoerak baitaude; hau da, beren jatorriko herrialdean ustez zuten mugitzeko askatasuna kentzen diete, gure artera etortzen direnetik. Egun osoa etxean egonez, ezin diote beren buruari lagundu. Funtsean, ez da euskal gizartean finkatzeari egiten zaion kritika; hau da, finkatzeko modua kritikatzan da, jatorriko herrialdeko familia-arauek baldintzatua eta oztopatua.

"Hemen, ez naiz sentitzen... ezin diot neure buruari lagundu, egun guztia etxean, giltzapertuta, nire herrialdean nuen askatasunik gabe." (4. profila: Aljeria)

Egungo bizimodua jatorriko herrialdean zeramatenarekin alderatzean, beren seme-alabek dituzten aukerak ere aintzat hartzen dituzte. Seme-alabak EAera ekarri ahal izan dituzten kasuetan, hezkuntzaren eta ikasteko aukeraren garrantzia baloratzen dute, are gehiago neskei dagokienez.

"Nik uste, han gelditu izan banintz, nire alabak ezin izango zukeen ikasi, baina ez dut nire burua han bizitzen ikusten; dirua izanda ere, ez nintzateke hara bizitzera joango. (...) Halako segurtasun falta dago han! Hemen, lasaiago ibiltzen zara." (2. profila: Peru)

"(Bizi izandakoan pentsatzean) nire alabak ikastera bidali behar ditudala ikusten dut, eta baita emakumeak ere, askok eta askok ez baitute ikasi." (4. profila: Aljeria)

Amaitzeko, elkarrizketatutako zenbait emakumek aipatutakoa azpimarratu behar da; hau da, adierazi dute ederra litzatekeela beren jatorriko herrialdera itzuli eta hango emakumeei beste errealitate eta bizi-eredu batzuk daudela ezagutaraztea.

"Nik badut borrokatzeko ideia bat hango jendearentzat, han bizi diren emakumeentzat. Bizitza hobetu daitekeela, gauzak ikas daitezkeela." (4. profila: Burkina Faso)

"Txilera itzultzea gustatuko litzaidake, eta nire familiari 'e, geldi' esatea; nire lehengusina batzuek horrela pentsatzen dute, eta 'neska zaharrak' esaten diete. Eta ez, neska zaharrak ez, bizitza ez da gizon bat izatea." (1. profila: Txile)

Azken batean, emakume atzerritar immigranteek aldaketa handiak izan dituzte beren bizitzan. Gehientzat, EAEra etortzeak askatasun-maila handiagoetarako aldaketa adierazten du. Beraien herrialdekoen bestelako kultura-ezaugarriak dituen herri batera iristea, oro har, ez da arrisku edo mehatxu bat; agian, kasuren batean izango da, baina, batez ere, aukera bat izan ohi da. Erabakiak hartzean autonomia handiagoa izateko edota beren jatorriko herrialdeetan ezezagunak zitzaizkien errealitateak ezagutzeko benetako aukera izatea aurre-rapen bat da, norberaren izateko modua aldatzea eta helmugako herrialdean, egunez egun, egonkortasuna lortzea.

Interesgarria da ikustea emakume atzerritarrek ardura sentitzen dutela beren jatorriko herrialdeko emakumeei beste bizimodu bat izan daitekeela erakusteko. Hau da, jarrerak eta jokabideak aldatzen saiatzen dira, beren jatorriko herrialdeko pentsamoldeak aldatzen; izan ere, pentsamolde horien ondorioz, desberdintasunak sustatzen eta iraunarazten dituzte, borrokatu behar diren eskubideak eta askatasunak baztertuz.

Laburbilduz,

- Elkarrizketatutako emakume immigranteak bat datoz Euskadiko emakumeak definitzean; langileak, irekiak eta independenteak direla iruditzen zaie.
- Era berean, elkarrizketatutako emakumeen iritziz, bertako gizonen amaren rola hartzen dituzte, eta gehiago laguntzen dute etxeko lanetan nahiz seme-alabak zaintzen, beren jatorriko herrialdeetakoek baino.
- Deigarria egiten zaie seme-alabek, adinean aurrera joan arren, gurasoekin bizitzen jarraitzen dutela, eta horrez gain, uste dute hemengo gizonen erromantikotasun gutxi dutela, edo batere ez.
- Adierazi dute barneratuago dutela emakumearen rol femeninoa; hau da, etxean, seme-alabak eta senarra zaintzen dituen emakumearena. Horrez gain, uste dute ama gaztea izateak askapen-prozesuak murrizten dituela.
- Hori bai, arlo horri dagokionez, beren jatorriko herrialdeetan ere aldaketa txikiak haute-maten hasi dira, belaunaldi gazteen artean, batez ere.
- Tratu txarren errealitatea nahiko ohikoa da elkarrizketatutako pertsonen artean. Dena den, salaketa hori ezkutuan gelditzen da hainbat arrazoi direla eta: independentzia ekonomikorik eza, administrazio-egoera irregularra, kultura-arrazoiak eta gertatzen den unea.
- Amaitzeko, atal honetan, bereziki aztertu behar da zer eragin duen elkarrizketatutako emakumeengan genero-indarkeriaren ondorioz espainiar estatuan izandako heriotza-kopuru handiak.

“ Elkarrizketatutako emakume askok beren herrialdekoarekin alderatuz bestelakoa den gizarte eta kultura batean izan dituzten aldaketei buruz hausnartu dute, eta adierazi dute interesgarria litzatekeela beren jatorriko herrialdeetara itzultzea eta hango emakumeei beste errealitate eta bizitzeko modu batzuk erakustea.

AURREIKUSPENAK ETA ETORKIZUNA

6.5

Azken atal honetan, emakume atzerritar immigranteek bizi izan duten migrazio-prozesuaren balantzea egiten jarraitu nahi dugu, eta balantze horren baitan, proiektzio-dimentsioan, haiek etorkizunerako duten ideia zertan oinarritzen den jakin. Hau da, hemen behin betiko gelditzea erabakitzen duten, jatorriko herrialdera itzultzeko asmoa duten, edota berriro beste herrialde batzuetara (normalean, Europakoetara) emigratzekoak diren, biztanleria atzerritarren zatirik handienak EAEn egun bizi duen krisi ekonomikoaren ondorioz beren proiektuan jasaten ari diren prekarizazio-egoera dela eta. Oro har, itzultzeko ideiak migrazioaren amaiera arrakastatsua adieraz dezake alde batetik, eta bestetik, egonaldiaren prekarizazioak behartutako mugimendua, jatorriko herrialdean babestera edo beste helmuga batean babesa hartzera bultzatzen duena.

Aurreko ataletan ikusi dugunaren arabera, etorkizuna proiektuaren araberakoa edota atzera begirakoa izango da. Migrazio-proiektuaren hasiera beti egon ohi da lotuta etorkizunari buruzko gogoetaren batekin. Berriemaile honek kontatu digunez, bere bizitzan etenaldi bat egin eta ikasketei berrekiteko gogoak bultzatu zuen bere etorkizuna Espainian irudikatuz, Salamancan, zehazki. Gero, Salamancatik Euskadira emigratu zuen. Pertsona honek EAEn lurra ia bermatuta duten emakumeen profila adierazten du, bere proiektua iraupen luzekoa delako eta irteera-egoera, sendoa.

“Ideia 37 urte bete nituenean hasi zen. Nire bizitzan etenaldi bat egin, atzera begiratu eta jabetu nintzen lan asko egin eta bizitzaz gutxi gozatu nuela; eta noski, etorkizuna ere oso antzekoa izango zela konturatu nintzen. Baina nik beste bizipen batzuk izan nahi nituen, gauza gehiago ezagutu, gehiago ikasi... Asmo hori buruan nuela hasi nintzen Salamancara (Espainia) hezkuntza-teknologiako master bat egitera joateko ideiaz hausnartzen. Ni Hispaniar Filologiako irakaslea nintzen, baina ikastera joateak zerikusi handiagoa du... hau da, gauza bera egiteari uztea da, gutxi gorabehera, egunerokotasunarekin haustea, mugari bat ezartzea. Eta Espainiara etorri nintzen. Masterra amaitu ondoren hasi zen nire immigrante-abentura, ikasle-estatusak abantaila gehiago baititu immigrantearenak baino; hau da, aurrez planifikatu dituzun baldintza ekonomiko batzuekin etortzen zara, oinarritzko premiak estalita. Baina egonaldia luzatzea erabakitzen duzunean, bizitzeko modua bilatu behar duzu. Salamancan nengoenez, ikasten jarraitzea ona izango zela erabaki nuen, hemen ikasketak merkeagoak baitira. Unibertsitate publiko batean, master-programa bat eta doktoretza-programa bat egiteko, %70eko alde egongo da prezioan. Beraz, 'lan pixka bat eginda, ordain dezaket' pentsatu nuen. Txilen, irakasle-soldatarekin, doktoretza bat egitea bururatuz gero, ezinezkoa litzateke, bi arrazoi direla eta: bata, ez da bateragarria dugun soldatarekin, haren erdia kostatuko bailitzaidake, eta bestea, bateraezina da ordutegiarekin, han goizeko 8etatik iluntzeko 8etara egiten baita lan, eta ikasteko denbora oso... Lagunak, familia... beste guztia alde batera utzi beharko zenuke. Beraz, 'ikasi eta lan egin, ba agian...' esan nion neure buruari, 'gainera, Txilen baino lasaiago ibiliko naiz'; izan ere, Txilen egingo banu, askoz ere zailagoa izango zen, askoz ere gogorragoa. (1. profila: Txile)

Migrazio-proiektuaren hasiera guztietan, beraz, etorkizunaren ideia dago inplizituki. Beste gai bat lorpen-maila da, baina elkarrizketatuak dion bezala, hori beste kontu bat da.

"Nik ustez, luzera begira, ez; etorkizunera begira, ez dakit... Une batean, etsi egiten duzu, 'onena pasatu zait, gaztetasuna' pentsatzen duzu. Eta ez da esperantza galtzeagatik, baina... 'agian, lana bilatuko dut beste herrialde batean, edo beste komunitate batean'" (4. profila: Magreb)

Etorkizunak, dena den, forma zehatz bat hartzen du, ez da errealitate abstraktu eta esku-
raezin bat. Ia beti, familiaren etorkizunarekin dago lotuta, seme-alaben etorkizunarekin.
Seme-alabak etorkizunaren ardaztat hartzea joera unibertuala eta eztabaidaezina da, baina
momentuz aipatu baino egingo ez dugun gai hori aurrerago landuko dugu.

*"Bai, ni ezagutu eta lana eman zidan palomitak saltzen, eta abenduan, baita jaietan ere...
Horrela, haiekin lagun egin nintzen, ez baikenuen paperik, eta alaba gazteenak ere ez zuen
paperik, eta Errumaniara itzuli behar genuen pasaporteak eta paperak egitera. Hemen immi-
grante asko ikusi ditudanez, 'saia gaitezen zerbait egiten' pentsatu nuen. Izan ere, guraso guz-
tiok familian pentsatzen dugu, seme-alabengan, haiek etorkizuna izan dezaten, eta... [...]"*

*Zerbait hobea, lana, gure seme-alabentzako etorkizuna, denek bezala, lanari buruz pentsatu
dugu. Udala lana aurkitzen laguntzen ari zait, ikastaro bat edo zerbait, lana aurkitzen lagundu-
ko didana... familia pobrea garenez [...] Guk hasieratik pentsatu dugu horrela; gure alabak
hemen hasi ziren ikasten, eta pena da orain lekuz aldatzea; gainera, beste hizkuntza bat ikasi
behar dute, eta haien zatia ona da, nire ustez, ikasketak amaitzea. Guretzat zaila da, baina haiek
gauzak aldatu behar dituzte, eta etorkizun hobea izan behar dute." (5. profila: Errumania)*

Era berean, egia da migrazio-prozesuaren hasiera guztietan, inplizituki, azkar itzultzearen
ideia dagoela, berehala lortu behar diren (baina lortzeko moduak ikusi arren beti betetzen
ez diren) helburu material batzuetan oinarritzen dena. Agian, ez dago emigratzeko erabaki-
rik itzulera proposatzen ez duenik. Izan ere, zaila dirudi hain erabaki gogorra hartzea ez
baduzu pentsatzen iragango den une batera –luzeagoa ala laburragoa– mugatuko dela; hau
da, denbora mugatu bat, gaingitu eta berriro arrakastaz itzultzeko aukera emango duena.
Emigrazioa denbora "hila" da, gerora, jatorriko herrialdeko jendearekin, berreskatuko dena.

*"Ez, ez, Kolonbiatik irtetean, bospasei urterako joango nintzela esan nuen, eta gero, itzuli eta
nire negozioarekin jarraituko nuela, aurreztutako diruarekin itzuliko nintzela. Nire seme-alabek,
Kolonbiatik, 'ama, etorri hona, behar zaitut' esaten didate." (2. profila: Kolonia)*

*"Nire herrialdetik irten nintzenean, jada lana banuenez, pentsatzen nuen handik irten, dirua
aurreztu eta berriro nire herrialdera itzuliko nintzela. Baina ez da hain erraza; hemen, jan egin
behar duzu, alokairua ordaindu eta ezin izan dut ezer aurreztu. Izan ere, hasieran, nire herrial-
detik irten nintzenean, pentsatu nuen 'orain, urtebete edo bi urte, herrialdea gaizki egongo da,
eta gu beste herrialde batera joango gara, moldatuko gara', ez dakit. Baina gero, ikusi da ezetz,
oso zaila da. Hemen ere oso zaila da, irabazten duzun guztiarekin alokairua ordaindu behar
dugu, jan, seme-alabei behar dituzten gauzak erosi...; izan ere, lan egiten baduzu, ez dizute
haurrei liburuak, zapatak eta bestelakoak erosteko laguntza ematen, eta normala da, nik hori
ulertzen dut. Laguntza lanik egiten ez dutenei eman behar diete. Eta nik ez dut sekula lagun-
tzarik eskatu, eta orain ere, lana aurkituko banu, ez nuke dirurik eskatuko. Esan dizudan beza-
la, guk, nola edo hala, lana nahi dugu, lan egin nahi dugu, eta frogatu daiteke. Begira mutil
horri, eskua gaizki dauka, baina lanera doa, eta zerbait da, haur txiki bat dute eta jaten eman
behar zaio, zer egingo diogu ba, gauzak horrela dira." (6. profila: Errumania)*

*"Bai, zeren bizi diren gizartean, gusturago daude. Ni hara joaten naizenean, dituzten lau gau-
zekin gehiago gozatzen dutela ikusten dut, presarik gabe, inork deitzeko telefonorik gabe, ger-
tatzen diren gauza txarren berri emango dizun telebistarik gabe. Ez dituzu uraren eta argiaren
fakturak ordaindu behar; gaur jaten duzu, eta bihar ere bai. Hemen, presaka bizi zara, une
oro... Han, gauza gutxiago izanda ere, jendea gustura bizi da. Baina egia da, nire ama, nik
bidaltzen diodan laguntza ekonomikorik gabe, okerrago egongo zen. Beraz, nire alabak ikasten
ikusteak indarra ematen dit, baita, tarteka, sor dakidan edozein lan eginda hara dirua bidal
dezakedala jakiteak ere." (5. profila: Sahara)*

Ez, ez. Beste pertsona batentzat izan daiteke. Baina niretzat ez, ez. Hemen ere gauzak oso garesti daudenez, dirua irabaztean eta etxea eta gainerako gastuak ordaintzean, azkenean ez zaizu dirurik gelditzen zure familiari bidaltzeko. Hilaren amaieran, haiek deitzen zidaten dirurik ez nuela bidali esateko, baina ez dago lanik eta ezin da zuretzat beste diru irabazi". (3. profila, Nigeria)

Hori bai, itzulera atzeratzen ari da, eta EAEra etorri diren emakume immigranteei dagokienez, berehala beren jatorriko herrialdera itzultzeko ideia zabalduago dago orain gutxi etorri direnen artean; baina, gure iritziz, ideia hori hasierako nahietan oinarrituta dago, eta ez hainbeste Euskadin egunerokotasunean hartzen den dinamikan. Beraz, desio bat da, ez hainbeste helburu lorgarri bat. Horri dagokionez, esan daiteke berehala itzultzearen ideia funtsezkoa dela hasierako bakartasun-egoerari aurre egiteko, hasieran egoerara egokitzeko izaten diren une gogorrei aurre egiteko, eta oraindik kontrakoa eta ezezaguna den ingurune batera ohitzeko. Ideia hori oso zabaldua dago azken etorritako latinoamerikarren artean, baina hemen denbora apur bat edo denbora luzea daramaten emakumeen artean, ideia hori desagertu egiten da edo indarra galtzen du.

Azken etorritako latinoamerikarrak euskal gizartearen sartzeko prozesua oso modu prekarioan gertatzen ari da, egoera ekonomiko bereziki gogorrean; beraz, itzultzeko nahia prebentzio-txerto bat da porrot egiteko aukeraren edo egonaldiaren gogortasunaren aurrean. Oro har, egonaldia luzatu ahala hasierako irregulartasun-egoeratik egoera erregular batera pasa ohi dira, eta lan-prekarietatea kalitate hobeagoko lanak ordezkatzeko du, poliki-poliki; horrenbestez, jatorriko herrialdera itzultzeko ideia desagertu egiten da edo indarra galtzen du. EAEra azken aldian iritsi diren pertsonak Erdialdeko Amerikakoak dira, Nikaraguakoak eta Honduraskoak, esaterako; horiek bizi-baldintza gogorrek jasaten dituzte, bai jatorriko herrialdean bai helmugakoan.

Nikaraguako, Hondurasko eta Paraguako emakumeen kasuan, beren egonaldia EAEn finkatzeari dagokionez egun planteatzen duten baldintza hori beren lan-egoera hobetzearen edo okertzearen arabera izango da, baina gure iritziz, bertan jarraitzea erabakiko dute; azken erabakiak lotura handiagoa du denborarekin migrazio-egiturarekin baino. Dena den, migrazio-egitura hori Erdialdeko Amerikako edo Latinoamerikako emakumeen etorrerari irekita dago; emakume horiek, ziur asko, hemen denbora luzea daramaten Latinoamerikako emakumeek egindako ibilbide berari jarraituko diote. Azken talde horretako emakumeen erregularizazioa ia erabatekoa da (zenbaitek, nazionalizazioa ere lortu dute), eta horrez gain, etorri berriekin baino lan-egoera finkoagoa dute. Noski, profil horretako elkarrizketatuek sistematikoki adierazi dute gehienez ere hiru edo bost urte egoteko etorri direla; aurreztu eta itzuli. Itzultzea ez den beste ideiarekin bat adieraztea oso arraroa litzateke, une txarrean iritsi baitira eta enplegarritasun-baldintzak ez dira aurreko urteetan inguruko herrialdeetatik etorri zirenek izan zituztenen berdinak.

"Nik hiru helburu jarri nituen, emigratu, zorrak kitatu, nire seme-alaben heziketa amaitu, nire etxea eraikitzea amaitu, pixka bat aurreztu, eta itzuli. Hori zen nire aurreikuspena. (Beno) zen, baina une batean, norbera moldatu egiten da, eta orain ez dut nire burua han ikusten, komunitateetan, ekaitza etorri, gero beroa... eta adinean gorantz noa... eta ez, nik ahal dudana bitartean hemen jarraituko dut". (8. profila, Nikaragua)

"Bada nik, esaterako, ez nuen uste... ingeles eta frantses filologia ikasten ari nintzen, eta Frantziara ikastera joatea nuen buruan. Baina, gutun bidez, nire senarra izango zena ezagutu nuen, eta hona etortzeko nuen asmoa azaldu nion, eta orduan, senarrak esan zidan, 'zergatik ez gara ezkontzen eta hara joaten?' Orduan hara joan zen, eta nik ezetz, ni Frantziara nindoala ikastera; gero, berriro joan zen, eta konbentzitu egin ninduen. Baina gero, hona etorrita, ontzigitzaren matxinada handiena gertatu zen, eta kontratu finkoa egin zioten. Ni ezkondu nengoan, eta etorri egin nintzen. Haurdun nengoan, eta nagusia nintzenez, haurdunaldia arriskutsua zen; beraz, hemen gelditu behar izan nuen. Gero, semea jaio zen. Hala, haurra zela,

etxea... ikasketak baliozkotzen saiatu nintzen, ez bainuen nahi nire lanbidea utzi. Poliki-poliki, etxeak bereganatu egiten zaitu, eta jada ezin izan nuen. Itzultzeko ideiarekin etorri nintzen, baina ezin izan nuen.” (2. profila, Ekuador)

Aurreko lekukotasunean hauteman daitekeen bezala, hasierako proiektuaren eta egungoaren artean zalantzak sortzen dira. Egia da helmugako herrialdeko lan-egoera txarra dela, baina ez dio laguntza handirik ematen itzultzeko ideiarri jatorriko herrialdean zeuden lanbaldintzek. Jatorriko herrialdea kanporatzeko faktore bat izan zen hasiera batean, eta egun, ez du erakapen handirik sortzen; beraz, ez du itzultzeko gogoia pizten, eta bertan jarraitzeko aukera berresten du. Are gehiago, orain dela urte batzuk iritsi ziren eta aurreikuspenen eta lorpenen arteko desfaseak nahigabe bat baino gehiago eragin zizkieten emakumeekin alderatuz, azken etorritako latinoamerikarren immigrazioari dagokionez aitortu behar da aurrez bazekitela zer lan-aukera izango zituzten, etxeko lanak eta zaintza-lanak, hain zuzen; gainera, nahiago zuten “barneko zaintzaile” izan, baita egoera horrek kualifikazioa galtzea adierazten duenean ere. Hasieran, “barneko zaintzaile” izateak badu bere alde ona, kostuak merkatzen baititu, baina bestalde, aurrerago ikusiko dugunez, egonezin handia sortzen du.

Euskadiko migrazio-egitura eta, funtsean, lan-egitura ez dago hain prestatuta Afrikako biztanleentzat, bereziki Saharaz hegoaldeko afrikarrentzat. Afrika iparraldeko emakumeek, magrebtarrek oro har, lanean hasteko kultura gutxiago dute, lehenengo belaunaldiak, behintzat. Egitura ere ez da oso irekia Errumaniako biztanleria eta/edo emakume ijitoentzat. Saharaz hegoaldeko emakume afrikarrei nahiz errumaniarrei dagokienez, jatorriko herrialdera itzultzea pentsatzen da, baina ia ezinezkoa da; izan ere, funtsean, bizirauteko duten aukera bakarra diru-sarrerak bermatzeko errenta edo laguntza ez hain formalak (Caritasek, erakunde publikoek edo antzekoek ematen dituztenak) jasotzea da gaur egun. Hurrengo testigantzak erakusten duenez, oso egoera larrian dauden pertsonak daude, laguntza ematen dieten pertsoneri eta erakundeei esker bizi direnak; beraz, ez itzultzea erabaki dute, ezta lana lortzen ez duten kasuetan ere.

“Ez, ez, ez dut dirurik [itzultzeko]. Ez, ez, zertarako itzuli nire herrialdera han ez badaukat ezer, ez kotxerik, ez etxerik... ezer ez. Hemen ondo nago. [Lana bilatzen ez badugu ere, ez gara itzuliko] Ez, ez, Espainian, Carmenekin eta laguntzarekin... nire seme-alabak hemen badaude, ni eta nire senarra ez gara nire herrialdera itzuliko; nire seme-alabak hemen badaude, ez naiz itzuliko. Han arazo asko daude; hemen ondo nago.” (4. profila: Senegal).

Bi talde hauetan, arrisku bat dago gizarteratze-prozesuari dagokionez, oso prekariora eta gainditzeko zaila dena, hainbat arrazoi direla eta. Familia-kargak (pobrezia-egoerez gain, zenbaitetan ama buru duten guraso bakarreko familiak osatzen dituzte, hainbat haurrekin) eta beren kultura-egiturak direla eta, zaila da beti bazterketara daraman gurgil zoro horretatik ateratzea. Egoera horren aurrean, hainbat testigantzak adierazi dute jakin izanez gero ez zutela migrazio-proiektua hasiko. Izan ere, proiektu hori zerbaitek eragina izan da neurri handi batean, nahiko ohikoa baita Europaren idealizazioa, Saharaz hegoaldeko jatorria duten pertsonen artean, bereziki.

“Nire neba-arrebak falta ditut; ez dugu amik eta nik badakit asko maite nautela, eta nik haiek. Eguberriak bakarrik, ez dut inor eguberrietan afaltzeko, zer bizimodu da hori? Eguberriak bakarrik ospatzean, lehenengo egunean [Urteberri egunean] nik ez nuen ezer jan, alaba bidaiari baitzegoen; deitu zidatenean 'zertan ari zara? galdetu zidaten. Eta nik lotan nengoela esan nien. 'Ospatzera irten behar duzu' esan zidaten, eta nik ezetz, ezin nuela. Bakartasunak ez dit uzten, ezin dut. Ez naiz batere zoriontsua. Nire ahizpek dirua bidali behar izaten didate lanik ez dudanean; hori lotsagarria da.” (3. profila: Nigeria)

Bada hasiera batean aipatu nahi dugun beste alderdi bat, migrazio-prozesuetan oso ohikoa dena, hots: pertsona immigrante marjinatua aurkitzeko dugun maiztasuna, Stonesquistek teorizatua. Hau da, bi kulturen artean dago, baina ez da bi komunitate horietako bakar bate-

ko kide eztaba daezina, ez jatorriko komunitatekoa ez helmugakoa. Hala kontatzen digu hurrengo elkarrizketatuak:

“Hitz egin dudana emigrante guztiek dute ideia hori; hau da, ez gara ez hemengoak ez hangoak. Han zaudenean hemen egon nahi duzu, eta hemen zaudenean, han egon nahi duzu. Lau urte haietan oso garbi neukan ez nuela itzuli nahi eta... Orain, zalantzan nago. Hau da, zergatik ez? Eguberrietan joan nintzenean, itzultzeko gogoa nuen. Baina han nengoela, etxera itzuli nahi nuen, Donostiara; bidaia aurreratu egin nuen!” (1. profila: Argentina).

“Oro har, esango nizuke ez dela txarra izan, baina nik Argentinako lagunak ditut hemen, eta nire bikotea euskalduna da, santurtziar peto-petoa. Eta beno, 10 urte eta gero, hau eta besteak, diozu... ni gizarte honen parte sentitzen naiz, baina bai, asko kostatzen da, batzuetan, besteak zu hala ikustea, oso bertakotuta bazaude salbu; hau da, hemengoek bezala hitz egin, hemengoak bezala jantzi, eta zerbait desberdina duzunean 'eta zuk, zenbat denbora daramazu hemen?' galdetzen dizute. 'Herrimina sentitzen al duzu? Hara itzultzeko asmorik?'. Galdera horiek egin ohi dituzte. Horrelakoak dira euskaldunekin izan ohi ditudan solasaldiak; ez dute besterik galdetzen. A, eta 'nik senideak ditut Argentinan!' Hori da bigarren fasea...[...] Bai, lehenbizi, 'zenbat denbora daramazu hemen?'. Eta gero, 'herrimina sentitzen al duzu? Hortaz, hangoa zara'. Eta... 'itzultzeko asmorik?' Hortaz, itzuli egiten gara.” (1. profila: Argentina).

Gainera, ziurgabetasunik gabeko status hori areagotu egiten da helmugako gizarteetako pertsonen pertzepzioa dela eta; haientzat, pertsona immigranteari beti faltako zaio elementu edo ziurtagiriren bat, eskubide osoko kide izateko hartzeko aukera emango diona. Irudi horren aldagaietako bat Schützek adierazi zuen Ulisesen bidaiaren bidez; hau da, pertsona haien egoera deskribatzeko balio du. Izan ere, beren jatorriko herrialdetik abiatu ziren eta denbora luzez kanpoan egon ondoren, ez dute hango egunerokotasunaren berririk, denboraldi batez ez baitute parte hartu hango planetan, ez dira izan han orain gutxi antolatutako ekimen bateko parte; beraz, ezezagun bihurtzen dira alde batetik, eta bestetik, beraiek ez dute beren jatorriko herrialdean gertatu diren aldaketen berririk. Gidoiaren zati bat ez dute ezagutzen. Horrenbestez, “maitasunaren pilak” maiz kargatu ahal izateak, urtean behin jatorriko herrialdera bidaiatuz, adibidez (funtsezkoa arrazoi pertsonalak direla eta), ez du berdintzen gertukoengandik urrun bizitzeak eragiten duen galera.

“Sahara..., ba... itzuli..., familiak tira egiten du, eta ni hara joaten naizenean, pilak maitasunez kargatzen ditut. Urtero joaten naiz oportetara, eta han bost egun pasatzean, iruditzen zait nire bizitzako urte asko galdu ditudala familiarengandik urrun. Hori da konpondu gabe daukadana, eta igarri egiten da; lehengusuak izaten dituzu, eta azken batean, bizitza erdia kanpoan daramazu. Maitasunezko urte asko galtzen dituzu. Nire herrialdeak dituen arazoak izango ez balitu, eta errefuxiatuta egon behar izango ez banu, bizitza arrunta egingo nukeen; lanera joan ahal izango nuen, nire alabak amarekin utzi... Hemen bezala da, parkera joan eta hiru belaunaldi ikusten dituzu: aitona-amonak, gurasoak eta ilobak. Nire alabak ez dira inoiz beren amonekin bizi izan.” (5. profila: Sahara)

BARREN-BARRENEAN DAUDEN JOERAK: BIZITZA EZ DA GIZON BAT

6.5.1

Joera sendotuenak aztertuz gero, atzerriko emakumeek etorkizunerako dituzten asmoei dagokienez, itxaropena aipatu behar da, eta neurri batean, beren egonaldia EAEn finkatzea da xedea, bai baldintza ekonomiko “normaletan” bai apur bat edota guztiz okertutako baldintza materialetan. Azkenean, EAEn egonaldia modu iraunkorrean luzatzea da emakume atzerritarren zati handi batek (edo gehiengoak) proposatu duen aukera.

Bertan geratzearen aldeko erabakia agerikoa da egitura- eta lan-egoera hobea eta paperak lortu dituztenen artean, eta batez ere, nazionalitatea lortu dutenen artean. Baina, era berean, erabaki hori hartzen dute orain gutxi etorritakoek ere; horietako batzuen artean (egoera irregularrean daudenak, afrikarrak eta, hertsiki, oraintsu etorritakoak), ordea, ezkortasun apur bat sortu da beren lan-etorkizunari dagokionez. Pertsona horietan guztietan, etorkizuna enplegu bat eskuratzea da, eta horren bidez, segurtasun juridikoa lortzea. Gainera, ia modu magikoan jotzen dute bi elementu horiek lortzera, pentsatzen baitute bi estatus horiek –herritartasuna eta lana– lortuta, oztopo guztiak gainditzen direla eta, automatikoki, arazo guztiak konpontzen direla.

Itzultzearen ideia, oraintsu etorritakoei edo helmugako lurraldean integratzeko ageriko ezintasuna dutenei dagokienean salbu, herriminarekin lotutako gai bat izan ohi da, jatorriko herrialdera itzultzeko nahi zehaztugabeari edota kontu garbiketa bati dagokiona; horiek lotura dute immigrazio-biografian bizi izandako zehaztapen-prozesuekin. Gerora berriro alderdi horiei helduko diegun arren, ezkondu gabe bizitza-proiektu bat antolatzea, guraso bakarreko familia bat eratzea eta, azkenean, migrazio-prozesua nahiko arrakastaz burutzea aintzat hartuta, irmotasunez esan daiteke bizitza ez dela gizon bat. Jatorriko herrialdera autonomiazko bizitza-proiektu batekin itzultzea ahaldundutako biografia-modalitatea beste biografia-modalitate bati –hau da, tradizioaren segurtasunari jarraiki, segurtasuna eman bai, baina autonomia oztopatzen duen biografia-modalitateari– kontrajartzeko modua da. Horregatik, ezinbestekoa da “familiar” eta “lehengusinei” harrotasunez horren berri ematea, “emakume izateko beste modu bat badela” jakin dezaten.

“Zu badakizu. Hemendik hogei urtera, nire semearekin ikusten dut neure burua, Pucónen [Txilen]; izan ere, kopak jartzen, eta hau eta hura egiten, lursail txiki bat erosi dut han, zahartzen naizenerako. Semearengana itzuli, eta Trancura ibaiaren inguruan paseatuko dut, eta baratze bat eta lorategi bat zaindu, eta telebistaz, Euskadiko programak ikusi. Eta planifikatuta daukat, horregatik itzuli behar dudalako. Hori pentsatuz egiten dut lan, nire bizitza 'baliagarrian' pentsatuz; hau da, hamabost urtez ongi biziko naiz, eta gero, erritmoa jaitsiko dut, eta azkenean, bizimodu lasai samarra bizi beharko dut. Horregatik aukeratu nuen leku hura; nire bizitza baliagarriaren proiektzioa egin nuen, eta zahartzaroa bizitza erabaki nuen. [...] Hori nahi dut. Txilera itzultzea gustatuko litzaidake, eta nire familiar 'e, geldi' esatea; nire lehengusina batzuek horrela pentsatzen dute, eta 'neska zaharrak' esaten diete. Eta ez, neska zaharrak ez, bizitza ez da gizon bat izatea.” (2. profila: Ekuador)

Azken finean, desiratutako itzuleraren ideia, planteatzen denean, bete gabeko ametsen kontakizun nostalgikoetan oinarritzen da, haurtzaroko herrialdeetara itzultzeko gogo lausoen kontakizunetan, eta bestelako idealizazio-iturrietan. Itzulera mota hori lehenesteko, inplizituki ezinbestekoa da itzultzea erabakitzen duen pertsonak behar beste kapital sozial eta intelektual izatea edo familia-erabaki estrategikoak hartzea, esaterako: ondorengoak beren jatorriko herrialdean gizarteratzea eta ahalegina egitea, joan-etorrien ondorioz, deserrotze-bizipen ugari izan ez ditzaten. Ondorioztatu da hobea dela seme-alabak oso gazteak diren bitartean itzultzea, ezinezkoa edo oso mingarria izan baino lehen; hala gertatu izan da, adibidez, erbesteratu politikoekin, eta normalean, horrela gertatzen da etengabe bizilekuz aldatzearen ondorioz nerabeek izaten dituzten biografia etenekin.

Eta baita nire semearengatik ere. Ni hemen gelditzen banaiz, hemen hezi beharko dut, eta beraz, betiko gelditu beharko nuke hemen; izan ere, hemendik eramango banu, deserrotu egingo nuke. Erbesteratu politikoen seme-alabekin horrela gertatzen da; gurasoek itzultzea erabaki zutenean, seme-alabak jada nerabeak ziren, eta ez ziren inoiz Txilera egokitu. Asmoa da txikiak direnean hara eramatea eta han haztea; izan ere, hemen hazten bada, ez da bidezkoa gero hara eramatea. Txilen dauden baldintzak eta hemengoak ez dira berdinak. Bizitzaren beste ikusmolde bat dago. (1. profila: Txile)

Baina migrazio-mota pertsonalizuago horiez aparte, itzultzeko erabakia hartzea faktore ekonomikoek eta administratiboek eragingo lukete, batez ere, edo gizarteratze-errentarik ez izateak (eragile-funtzioa izango lukete), ez hainbeste elkarrizketatu ditugun emakume immigranteen nahiak edo gogoak. Hau da, EAEn jarraitzea praktikan ezinezkoa bihurtuko balitz, itzultzea izango litzateke irtenbide bakarra. Beraz, jatorriko herrialdeko ekonomia-egoera ez itzultzeko arrazoia izan ohi den bezala, helmugako herrialdeko lan-egoera larriaren hipotesiak ere itzulerako bide ezatsegina eragin dezake, arrakastarik gabeko migrazioa.

Gainerako kasuetan, itzultzearen ideia aldi baterakoa izan ohi da, jatorriko herrialdean gelditu diren familiarrak ikustera joateko; izan ere, aurreikuspenei dagokienez seme-alaben etorkizuna (hutsik egin gabe) EAerekin lotzen den arren, ondorengoek gurasoen jatorriko herrialdearen ezaugarri bereizgarriak ez galtzea eta lurraldearekiko lotura afektiboek eustea nahi da. Beste hainbeste gertatzen da hizkuntzarekin. Baina jatorriko herrialdearekiko kultura-lotura horri eutsi nahi izan arren, jasotako lekukotzetan ezkutatu ezineko halako harrotasun-kutsu bat hauteman da, jatorriko herrialdera "bisita egitera bai, baina ez han gelditzeko" diotenean.

Hori guztia dela eta, joera nagusia da EAEn jarraitzea; beraz, seme-alabetako baten itzulera onartzeak eragingo lukeen atsekabea ere sortzen da. Hau da, EAera iritsi ziren, han finkatu ziren, seme-alabak eraman zituzten familia elkartzeko prozesuen bitartez, eta egun, zuzenean familia guztia EAEn edo Espainian bizi da; baina, krisia dela eta, familiako kideetako bat jatorriko herrialdera itzultzea pentsatzen ari da, eta horrek nahigabea sortzen dio amari.

Nire bizitza Ekuadorren ez da txarra izan. Denok berriro hemen elkartu gara. Nire gizonak lan egin du, nik lan egin dut, eta orain, nire ilobak hazten laguntzen diet. Nire bizitzan, etxe guztietan bezala, arazo txikiak izan dira, baina denak ongi eramaten dira eta nirekin ongi daude. Nik maite ditut, eta haiek maite naute; eta esan diezazuket oso emakume zoriontsua naizela, hamabi iloba baititut eta handitu egin baitira. Nire seme-alabak direla dirudite; haiek ni asko maite naute, eta errespetu handia didate. Nire familia, hemen, ia hogeita hamar bat lagunek osatzen dute, ilobak, seme-alabak, errainak... Beraz, ni hemen oso pozik nago haiekin, eta espero dut hemendik ez joatea; izan ere, familiako kide batzuk nire herrialdera itzultzea pentsatzen ari dira, eta horrek gaizki sentiarazten nau. Nire alabetako bat, hona ekarri gintuena, hara itzultzea pentsatzen ari da, eta apur bat gaizki nago. Hark eman zidan nire lehen iloba; jada gazte bat da, baina niretzat, mutil txiki bat da. Asko maita nau, baita neska txikiak ere. Niri tristura sortzen dit familiako kide bat hara itzultzea. Bi gizon eta bost emakume ditut, eta seme nagusia ere itzultzea pentsatzen ari da. Hark dio langabezia gelditzen bada, hemen ez duela ezer egiteko. Eta horiek ni ere beraiekin joatea nahi dute, baina ez dago ondo ni hara joatea eta nire alaba, ezkongabea, hemen uztea. Itsusia da ni joatea; izan ere, nire ilobak nire alabak bezala dira. Zaharrenak hamahiru urte ditu, eta besteak, hamaika; ez zait ondo iruditzen ni joatea eta haiek hemen uztea. Askotan bidali naute nire seme-alabek Palmara oporretan, han nire ahizpa bizi baita. Eta gaizki sentitzen dira, eta ni ere gaizki sentitzen naiz; izan ere, dena niri eskatzen didate, baita jatekoa ere, eta horrenbestez, haiek gaizki sentitzen dira. Amarekin ez dira oso... eskolan edozer gauza gertatzen zaienean, haiek niri esaten didate; hau da, amari ez diote gertatutakoa kontatzen, baizik niri. Denek niri kontatzen dizkidate gauzak. Mutilek ere niri kontatzen dizkidate gauzak amari kontatu beharrean; beraz, ni gaizki sentitzen naiz, nire herrialdera itzultzen banaiz, haiek bakarrik utziko ditudalako. Eta nire ilobak berdin. Haiek ez didate amona esaten, 'mamita' esaten didate. 'Gure herrialdera joaten bazara, nire izebak eta osabak ez dizute itzultzen utziko' esaten didate. (2. profila: Ekuador)

Kasu horretan, familiako kideak sakabanatzeak berriro hastearen sentipena adieraziko luke, lehenengo emigrazio-prozesua gogoratzea, eta familia-nukleoa ahultzea. Familia-nukleo hori, bai bateratuta dagoelako bai bermatu nahi izateko, da ikerkuntzan zehar jaso ditugun kontakizun guztien *leit motiv* nagusia, txinatarren kasuan salbu. Izan ere, azken horiek familiaren ikuspegi ekonomikoagoa dute; hau da, produkzio-unitatetzat tratatzen dute batez ere, eta horretarako, ondorengoak ahalik eta gazteen sartzen dituzte lan-munduan. Erdi- eta goi-

mailako ikasketak jaso ahal izan dituzten profil horretako pertsona batzuek adierazi dute seme-alabek ikasi egin behar dutela, emakumeek gaztelaniaz hitz egiten ikasi behar dutela; hala ere, etorkizuna negoziarekin lotuta dago, familiaren edo komunitatearen zaintzapean.

LORTU DUTEN EDO LORTZEN ARI DIREN AUTONOMIAREKIKO POZTASUN URRIA

6.5.2

Dokumentatutako gainerako jatorrietan eta egoeretan, emakume immigranteek izandako aldaketa handia bertan denbora luzea daraman ekuadortar batek bere prestakuntza-maila ezerezean gelditu izanari buruz egindako adierazpen honekin laburbildu daiteke, xehetasun handiagoz edo gutxiagoz.

Ez, nik lehen ikasturtea egin nuen, gehiago ez; izan ere, nire senarrarekin hasi nintzen, eta ikasteari utzi nion. Han, badaude pertsonak, nire adineko lagunak ditut, bost seme-alaba izan, eta ikasten eta beren lanbidean jarraitu dutenak. Ia hemengo maila bera da, baina hemen ez dira hainbeste haur izaten. Han, senargaiak, lehenik eta behin, maitasuna adieraztea eta haur bat izatea nahi dute, eta beraz, senarra maite dutenez, haurrak izaten dituzte lehenengo... Baina orain, gazteak asko zaintzen dira, eta Internetez ikusten dut nire lagunak alabek, ezkonhitza eman arren, ez dituztela haurrak izaten eta ikasten jarraitzen dutela. Nire lagunak beste alabek ikasten jarraitzen dute; batzuk lizentziadunak dira, besteak irakasleak. 'Zer ondo!' diot nik; izan ere, hori nahi du ama batek bere seme-alabentzat. Nire alabek, hemen, lan egiten dute, eta noski, seme-alabengatik. Hiru lagun ditut, eta haiek, nire antzera, ilobak hazten ari dira, baina ni baino ahituago daude, ni baino zaharragoak dirudite; izan ere, gehiago sufritzen dute, han gizonak oso matxistak baitira. Baina nire gizona, hona etorri zenean, hemengo bizi-modura egokitu zen. (2. profila: Ekuador)

Horrenbestez, seme-alabak edo, modu zabalagoan, familia eta horien ongizatea dira elkarriketatutako emakume immigranteen kontakizun guztien muina, baina bereziki, lehenengo horiek dute garrantzia. Zenbaitetan, seme-alabak beraiekin daude, eta beste batzuetan, familiarekin eta jatorriko herrialdean; hala ere, elkarriketatutako amen etorkizuna beren ondorengoen etorkizunari lotuta dago, modu hertsian. Azken horien gizarteratzeak baldintzatuko du haien gurasoena; beraz, gurasoen edozein neke edo oinaze onartu egin behar da, seme-alaben onurarako bada. Gainera, norberarentzat eszeptizismo eta ziurgabetasun apur batez ikusten den etorkizun hori berdindu egiten da ondorengoek izatea nahi den etorkizunarekin. Hau da, gizarteratzea ez da orainaldiarekin lotzen, seme-alabek etorkizunean izango duten ongizatearekin lotzen da.

Era berean, desiratutako edo idealizatutako itzulera, ziur asko, hurrengo belaunaldiek egingo dituzten aukerekin dago lotuta; beraz, lehenengo belaunaldien gizarteratzearen zati handi bat ondorengo belaunaldiek izango dituzten aukeren mende egongo da. Hau da, bigarren belaunaldiek bertan gelditzea erabakitzen badute, gurasoek, ziur asko, EAEn jarraitzea beste biderik ez dute izango. Are gehiago, denbora iragaiteak eta administrazio-erregularizazioa lortzeak nabarmen baretuko dute itzultzeko hasierako ametsaren zirrara. Itzultzea erabakitzen badute, nahigabea adierazteko moduak agertuko dira, ezkutuagoak ala ez hain ezkutuak, berriro emigratzera behartzen den kasua denean salbu. Pertsona batzuek, ordea, European proba egingo dute.

Gainera, ongizate horrek ez ditu derrigorrean ezkontideak barne hartu behar. Zenbaitetan, horiek ez dira egoten; beste batzuetan, emakumeak haiengandik betiko urruntzen dira. Horrenbestez, oinarritzko harremana eta lotura nagusia amen eta seme-alaben artekoa izan ohi da; eta ondorengoak zer izatera iristen diren, horrek baldintzatuko du modu negatiboan edo positiboan migrazio-proiektua. Lotura hori are eta nabarmenagoa da egitura-egoera okerragoan dauden emakumeengan. Hau da, etorkizuna seme-alabak dira, eta gizarteratzea seme-alabak izatera iristen direnaren ondorio izango da.

Gizarteratzeko erronka ondoko belaunaldiei pasatzea edo haien esku uztea ez da gertaera historiko berria, baina oso agerikoa da emakumeen artean. Badakite (beren azalean bizi baitute), egun, laneratzea errazagoa dela beraientzat beren senarrentzat baino, eta etorkizunean ere hala izango dela uste dute; baina laneratze hori lanpostu batzuetara mugatzen da, eta beraz, badakite lanpostu horietara egokitu eta aurrera egin beharko dutela, edota gaitzifikazio-prozesuak bizi beharko dituztela. Hau da, beraiek osatzen duten immigranteen lehenengo belaunaldiak nekez gaitzifikatu du etxeko lanekin edo pertsonen zaintzarekin lotutako lan-esparrua. Merkatu etniko eta sexualki mailakatu batera egokitzea hobeto edo okerrago onartzen da, etorkizunean beren seme-alabentzat arrazoizko mugikortasun-maila bat eragozten ez duen neurrian.

Lan honetan ikusi den bezala, elkarrizketatutako emakumeek erreferentzia asko egin dituzte etxeko lanaren eta zaintzaile-lanaren gogortasunari buruz, adibidez: zer atsekabe sortzen dien enplegatu ondoren lan-baldintzak etengabe aldatzeak (asko eta asko barneko zaintzaile dira), eta zer modu desberdinean tratatzen dituzten adineko pertsonak eta haurrak bertako familiek. Dena den, txinatar nazionalitatea duten emakumeek (autoerreferentziazko familia-logiken baitan sartuta daudenak) edota Afrikako emakumeek (laneratze zailtasun handiagoak dituztela dakitenak) salbu, gainerako emakumeek esan gabe onartzen dute beren laneratze-eremuak etxeko lanen ingurukoak direla funtsean. Pertsona batzuek ibilbide profesionalagoak egiten dituzte, eta hala egiten jarraituko dute, baina elkarrizketatutako emakume gehienentzat, hori da laneratze bide bakarra. Nahien artean, ohikoak dira erizaintzari, ile-apaintzailearen lanari eta abarri buruz egiten dituzten aipamenak, bai eta gorantz egiteko nahi izango lituzketen bestelako lan-eremu batzuk ere.

Halere, etxeko lanak egiteak oztopatu egiten du lehenengo belaunaldiarentzat nabarmen gorantz egitea. Askotan, pobretze-faktoretzat har edo izan daiteke; beste batzuetan, berriz, migrazio-proiektua bermatzeko oinarria da. Dena den, bai egoera batean bai bestean, zuzeneko familiarekiko eta/edo ingurukoekiko autonomia-mailan aurrera egiteko balio izan du.

Zuzeneko edo gertuko familiari dagokionez, autonomia-maila lotze horrek bi alderditan eragiten du gutxienez:

- 1) Emakume immigranteak familiako titular eta/edo familiaburu bihurtu dira, bai materialki bai errealitatean; horrenbestez, askotan betetzen dute amaren eta aitaren funtzioa.
- 2) Senarrekiko urruntasun sinbolikoa eta faktikoa ezarri dute, haiekiko atxikimendua gutxitzeko eta haiekiko lotura eteteko prozesu mingarrien ondoren; askotan, familien aginte ekonomikoa hartu dutelako, eta beste askotan, indarkeriaren eta tratatu txarren (larriagoak nahiz arinagoak) ohikotasunetik libratu direlako. Asko eta askotan, autonomia ezkutu egoten da; hau da, hor dago, baina ezin da adierazi. Batez ere, krisi-egoera larrian.

Horrenbestez, bai bakarrik bai seme-alaben laguntzaz, bikote barruko funtzioak zehaztu dituzte berriro, eta *askapen-prozesu* arin bat izan dute; prozesu horrek ez du, ezinbestean,

haustura gogor bat edo independizatzea eragin, baina jatorriko herrialdean, nahiz emigrazioaren hasierako faseetan, gizonak gauzatu ahal izan duen menderatze-joerarekiko urruntasun bat ezarri dela adierazten du, bai eta emakumeek jasan izan dituzten tratatu txarreko ere (agerikoak nahiz ezkutukoak).

Urruntasun horrek berriro orekatu ditu bataren eta bestearen funtzioak; hala, gizonak agintzen zuen eremuan lekua irabaziz joan da emakumea, mugarri berriak ezarriz, eta orain, kasu askotan, gizona da mendekoa, egoera berrira egokitu ezinik dabilena, dibortziazteko eta bere jatorriko herrialdera itzultzeko aukera ematen zaiona, nahi izanez gero denbora luzean bere maitale izan denarekin berriro ezkondu dadin... Egoera horiek agerikoagoak dira egonkortasun gehien lortu duten Latinoamerikako biztanleen artean, baina, neurri batean, emakume atzerritar immigrante askok egingo duten bidea adierazten du. "Askeago senti-
teak" esamoldea asmoen edo egoeraren adierazpen argi bat da.

"Bai, bai, askeago sentitzen naiz, ez dakit, hori izango da edo nire seme-alabek askatasuna ematen didatela; izan ere, orain, nire senarra hemen badago ondo, eta joaten bada, nik nire alabekin nagoela esaten diot, eta haiek deitu eta 'ama, jantzi, bila goaz eta' esaten badidate, eta nire senarrak ez badu joan nahi, bada ni joan egiten naiz. Jarrera desberdina da; han oso matxismo handia dago; hau da, han, esaten dute 'hemen dago zure gizona, eta ezetz esaten badizu, bada ez, eseri egin behar zara. Nik ez diot hari esaten... hau da, bi neskak hartu eta esaten diot, eta haiek ez badute joan nahi, 'hemen duzue janaria' esan eta ni joan egiten naiz. Hau da, askeago sentitzen naiz. Ez dakit, zerbaitek esaten dit inork ez didala niri aginduko." (2. profila: Ekuador)

"Ez dakit, zerbaitek esaten dit inork ez didala niri aginduko" edo "immigrazioarekin esnatu egin naiz, asko ikasi dut" esaldiek geroz eta autonomia handiagoa lortzeko bide hori berres-
ten dute. Izan ere, alde batetik, oso orokortuta dago (nahiz eta oso idealizatuta egon) hemengo gizonek etxeko lanetan eta familian askoz ere gehiago laguntzen duten ideia, bai eta euskal emakumeak gailendu egiten diren ideia ere; eta bestetik, nahiz eta erreferentzia horiek oso zehatzak ez izan, imitatu beharreko erreferentzia-funtzioa betetzen dute. Erreferentzia-taldeak norberaren sozializatorako bide ematen du, zer kultura- eta gizarte-eredu nahi ditugun erakusten ditu, eta horrek imitazio-prozesua jartzen du abian, emakume-
ek egun dituzten gizarte- eta kultura-kapitalen arabera garatuko dena.

Elkarrizketatutako pertsonengan, ia erabatekoa da, euskal gizartearekin alderatuta, beren jatorriko herrialdeko gizartea askoz ere matxistagoa den iritzia. Halaber, badira emakumeak kontzientzia feminista handiagoa izan arren bertakoen arteko berdintasunean izan diren ustezko aurrerapenak ezbaian jartzen dituztenak edo haiekiko sinesgogor direnak, baina, oro har, ez gaude oker lehenengo iritzia bigarrena baino nabarmenagoa dela eta hedatuago dagoela esaten dugunean. Idealizatutako erreferentzia horrek, lortu beharreko helburutzat hartzen denak, askatasun-sentipen txiki edo handi batera darama, egonaldi atseginago batez gozatzen; izan ere, immigrazioaren protagonista batentzat esperientzia berri bat izan dena itzulezineko eredutzat hartzen du bere alabentzat.

"Baina oso gogorra da; niretzat, maitasuna jada ez da lehen bezalakoa, hark egin didana gogoratzen dut, eta hark ezabatu egiten du. Baina niri ez, niri sentimendu hori etortzen zait, eta nik hura gehien behar nuenean, hura ez zegoen; orain, nik ez dut hura behar, eta badirudi, hark ez duela joateko asmorik. Nik bikotetzat nuen, laguntzat, ez genuen ezkon-bizitza egiten, ez genuen elkarrekin lo egiten, eta orain, zahartzaroan, zer galtzen ari den ikusten du. Eta nik nire seme-alabei esaten diet ezetz, nik ezin dudala gehiago harekin. Gaztaroan, asko sufriarazi zidan. Ni ez nago damutua hainbeste seme-alaba izateaz, onak direlako, ulerkorragi; haiek ematen didaten gauzarik onena da ondo konpontzen direla, horrek poztu egiten nau. Neba-arreben artean ondo eramaten dira, eta hori da nik dudana gauzarik ederrena. Niri ez zaizkit gauza handiak inporta, nik haiek ondo konpontzea nahi dut, haiek ni maitatzea... llobek estimatzen naute, eta hori da zorientasunik handiena, haiek asko maitatzea, neba-arreben artean elkar

*zaintzea; hori da egon daitekeen gauzarik ederrena... Nire bizitza eleberri baten antzekoa da”
(2. profila: Ekuador)*

Inguruko senideei dagokienez, nortasunaren aurreko bi aldaketa horiek areagotzea eta jendaurrean zabaltzea adierazten du. Dena den, nortasunaren aldaketa horiek garrantzi handiko bi baldintza geldiarazten dituzte:

- 1) Jatorriko herrialdeko kulturak pisu handia izaten jarraitzen du; hala gertatzen da, esaterako, magrebtarrekin eta Afrika iparraldekoekin, kultura horietan erlijioa eta kultura osagaiak eragozpen bat baitira barne-barnetik mutazio horretan aurrera egin duten baina beren familia- eta etnia-testuinguruetan publikoki adierazi ezin dituzten pertsonentzat.
- 2) Ikuspegi materialetik, enplegurik gabeko egoerak aldaketa hori ahultzen du; hau da, indartzeko behar den jarraitutasuna eteten da.

Bi kasu horietan, kultura- nahiz lan-arrazoiak direla eta, emakumearen autonomizazioa edo pertsonalizazioa erdibidean gelditzen da; beraz, ezin du bere osotasunean garatu aukera gauzagarritzat duena. Ia eskuetan dago; jada eman dira lehen urratsak, baina oraingoz, stand by dago. Hori bai, kasu hauetan sortzen den egonezinak bi hanka ditu, barne-barnean hasita zegoen aurrerapen pertsonal baten gauzatze zehatza oztopatzen dutenak: langabezia eta gizarte-zerbitzuen ahultzea. Bi faktore horiek hasitako bidea zapuzten dute.

Aldaketa geldiarazteaz gain, era horretako aldaketa batek eragin ditzakeen edukiekiko zalantza apur bat dagoela hauteman dezakegu. Hau da, hasi berri den indibidualizazio-, autonomizazio- edo ahalduntze-prozesu hori ez da beti positiboki balioesten. Gutxienez, emakume musulmanen eta Errumaniako emakume ijitoen artean, zalantza sortzen du agintezko tradizionaltasun eta/edo familiarraz libratzeak adierazten duenak. Argi eta garbi, jatorriko kulturarekiko errespetua eta kultura horretan egin behar diren egokitzapenak uztartu nahi dira, autodeterminazio handiagoa eta komunitatearekiko mendekotasun txikiagoa dituen estrategia pertsonala lortzeko bidean aurrera egiteko. Ez dirudi erraza puntu bertutetsu bat bilatzea; izan ere, beste zenbait alderdiren artean, baldintza materialek lurzoru sendoa izan beharko lukete, hautatu ahal izateko aukera gainbehera ez etortzeko. Dena den, Afrika iparraldeko pertsonak etorkizunerako dituzten ikuspenak pitzatuago daude kulturako arrazoiak direla eta, Saharaz hegoaldeko emakume afrikar musulmanen artean baino are gehiago. Bai batzuek bai besteek etorkizun autodeterminatuak izateko aukera izango dute jada hasita dagoen prozesua arrakastaz burutzeko aukera materialak izaten jarraitzen duten neurrian; horretarako, hain zuzen, lan-merkatuan sartu eta bertan jarraitu behar dute, eta hori ez da beti erraza izaten jatorri horietan.

“HEMEN BESTE HELBURU BATZUK IZAN DITZAKEZU”

6.5.4

ABaina itzuli egin behar bada, arrazoi ekonomikoen edo sentimentalen ondorio izango da, batez ere; izan ere, norberaren autogarapenari dagokionez izan daitezkeen aurreikuspenak aintzat hartzen baditugu, elkarriketatutako pertsonak ez dute inolako zalantzarik; hau da, adinez nagusiak direnean, pertsona autonomo izateko EAEn jarraitzea komeni zaie.

Elkarriketatu batek honela dio: “hemen, beste helburu batzuk izan ditzakezu”. Hori norberarentzat horrela bada, askoz ere gehiago da alabentzat. Hala adierazi du elkarriketatu batek, egoera irregularrean dagoen aljeriar nazionalitateko emakumeak. Lau seme-alaba ditu: bat Aljerian, orain dela bederatzita urte etorri zenetik ikusi ez duena, eta gainerakoak,

neskak, Gasteizen berekin dituenak; jada diseinatuta du azken horientzako etorkizuna. Hau da, bere jatorriko kultura- eta talde-arauak hautsi eta urratu, beren ingurukoaren aurrean itxurak egin eta disimulatu, eta bere alabak lanbide-karrerak ikastera bultzatu.

“Ez, egia esan, ezin dut. Hurrek paperak izan arte; izan ere, ni orain behera jaisten banaiz, ezin dut ezer eskatu. Nik eskola eskatuko dut haurrentzat, eta beste ezer ez. Alabak eskolan ditut hemen, eta oso ongi daude, egia esateko... Batek zortzi urte ditu, eta besteak zazpi, eta oso ongi daude eskolan. Bi urte zituztenetik; haurtzaindegian egon ziren. Ni Aljeriara jaisten banaiz, dena aldatu behar diet, eta berriro hutsetik hasi beharko dute, eta hemen, oso ondo daude. [...] [Etxean arabiera hitz egiten dute]... baina oso ongi ulertzen dute gaztelania, eta euskaraz hitz egiten dute. Hemengo haurrak dira. Neskek euskaraz hitz egiten dute bizilagunekin. Oso ongi dakite. [...] Eta nik hemen ikasten jarraitzea nahi dut, ikasketak hemen amaitzea. [Aljeriara] oporretan soilik joatea [nahi dut].

Zure alabek ikasteko aukera berdinak izango al lituzkete Aljerian?

Aljerian, hurrek denbora daukate. Adibidez, neskek 18 edo 19 urte dituztenean, hau esaten dute: “O, neskatxa hazten ari da, tititxoak atera zaizkio, hilekoa jaitsi, zaindu egin behar duzu! Ezkontzeko ordua da, ez 30 urterekin.” Hazten ari bazara, ezkondu egin behar duzu. Eta beraz, ezin dituzu ikasketak amaitu. Nire ustez, hemen hobeto izango da beti. [...] Hau da, Aljerian ere ikasten dute, baina muga batzuk daude. Alaba hazten bada, familiak presio handia egiten dizu. Nire familian ez, nire familia irekia da. Nire ahizpek bankuetan egiten dute lan, eta oso irekiak dira, baina nire gizona herri txiki batean bizi da. Eta han, ez daki inork, ez emakumeak ez hurrek ez beste inork. Eskolara joateko denbora bat eta muga batzuk daude. Eta ikasketak ez dira amaitzen.

Gustatuko al litzaizuke ikasketak amaitu eta, esaterako, unibertsitatean sartzea?

Eta erizainak edo medikuak izatea, zerbait ona, nik ezin izan bainuen ikasi. [...] Bai, noski, noski. Ikastea, hori da nik nahi dudana. Horixe, ez besterik.

[...] Eta Aljerian duzuen semeari dagokionez, ba al duzue harremanik harekin? Deitzen al diozue?

Bai, telefono bidezko deiak, ez besterik. [Han bakarrik hazi da] baina gurasoekin ere bai, hau da, aitaginarrebekin eta izeba-osabekin. Horrelakoa da bizitza, bai.

[... Eta hara itzultzeko aukera izanez gero] Ez, inoiz ez. Ez dugu inoiz hara itzultzerik pentsatu. Hemen jarraituko dugu Jainkoak ateak ireki arte.” (4. profila: Aljeria)

Lekukotasun hori entzunda, ikusi dugu egoera erregularrean ez dagoenez atzeratu egiten duela bere jatorriko herrialdean dauden senideak ikustera joateko aukera, “paperik gabe” ez bailuke bermatuta izango handik itzultzea. Hala ere, paperik ez izatea aitzakiatzat har daiten “bien bitartean” denbora irabazteko eta bere alabentzat ibilbide bat diseinatzeko; hau da, ikasten jarraitzea nahi du, gazterik ez ezkontzea, familiaren presiorik ez izatea (bereziki, gizonarena, tradizioari jarraitzea nahiko bailuke), eta zerbait izatera iristea: “erizain edo mediku”, “zerbait ona”, “nik ezin izan bainuen ikasi”. “Ikastea, hori da nik nahi dudana.” Eta hau esanez amaitzen du: “horixe, ez besterik”.

Programa horrek adierazten du ez dela itzuleran pentsatu behar, ez da itzuli behar ezta oporretan ere, eta hemen jarraitu behar da, “Jainkoak ateak ireki arte”. Jainko horrek erregular-tasun-egoera lortzearen ateak ireki ditzake, baina ez ditu zertan proiektu biografikoaren ateak itxi, berak egin ezin izan zuena bere alabek egin dezaten. Interesgarria litzateke jakitea proiektu hori zer neurritan adostu den gizonarekin, edota amaren eta alaben arteko itun inplizitu bat baino ez den, edota asmo horiek bere buruan soilik dauden eta ez dizkion inori kontatu, ezta bere alabei ere. Kasu horrek muturreko egoera bat adierazten du argi eta garbi, ondorengoaren etorkizunerako asmoen ohiko kasu ezin hobea da, alabei dagokielako,

erregularizazioa penagarria delako eta, zuzenean edo zeharka, bere jatorriko taldeari aurre egitea adierazten duelako.

Gainerako kasuak oso antzekoak dira, baina ondorengo nahiz gurasoen baldintzak eta ezaugarriak arinagoak dira aurreko kasuarekin alderatuz, hau da: erregularizazioa edota nazionalitatea lortu duten amak izan daitezke, lan-egoera ez hain prekarioan egon daitezke edo ez, baliteke gizarte-laguntzak jaso beharrik ez izatea, baliteke seme-alabak nahiko hel-duak izatea... Dena den, elkarrizketatutako emakume guztiek adierazi dute migrazio-proiektua seme-alabak oinarri hartuta eraikitzen dela.

Baina arlo ekonomikoan bizi dugun unea nahiz Saharaz hegoaldeko emakumeek lan-merkatuan sartzeko dituzten zailtasun handiagoak direla eta, azken etorritako emakumeek, Saharaz hegoaldeko pertsonak eta egoera irregularrean daudenek uste dute beren etorki-zuna posible izango dela baldin eta lanpostu bat lortzen badute. Euskal agintariei zer eskatuko lieketen edo immigrazio-politika beren esku egonez gero zer egingo luketen galdetzen zaienean, nabarmen gailentzen da lan-gizartean integratzeko aukera emango liekeen lanpostu bat izateko egun duten ezintasuna konpontzeko nahia.

Aurrez aipatu bezala, administrazio-erregularizazioaz ere hitz egin dute, baina lanarenak baino intentsitate txikiagoa du eskaera horrek. Egoera prekarioenean dauden emakumeek badakite segurtasun juridikorik ez izatearen arazoa eramangarriagoa dela eta agintarien aurrean errazago saihestu daitekeela (askotan ez baitirudi jarraipen jarraiturik egiten dutenik), langabezia-egoera edo lanik gabeko egoera bat baino. Lanik gabe, pertsona horiek ez dute etorkizunik. Beren aurretik emigratu zuten pertsonak erreferentziatzat hartu arren, badakite ez dutela pertsona haien egoera bera lan-merkatuan.

Noski, aurrez etorritako beste nazionalitateetako pertsona guztiek dute langabezia-egoeran erortzeko aukera, baina etorri berriek ez bezala, haiek bizileku-baimen iraunkorra edota nazionalizazioa lortu dute; beraz, langabezia egoera lasaiago jasan dezakete, beharoko doiketak eginez, murrizketak, bizilekura egokitzeko modu berriak zehaztuz eta etxea beste pertsona batzuekin banatuz, nazio bereko jendearekin elkartuz, etab.

Horrenbestez, arlo horretan paradoxa bitxi bat gertatzen da; hau da, azken etorritakoek enpleguari lehentasun handiagoa ematen diote bizilekuari baino, baina hemen denbora luzea daramatenei mesede egin diezaieke langabezia-egoeraren aurrean bizileku-baimena izateak, bai hemen ongi kokatuta daudelako, bai Europako beste herrialde batzuetara joan daitezkeelako EAEko egoera okerraren aurrean.

GIZARTE- BALDINTZEKIKO GOGOBETETASUNA

6.5.5

Euskadiko egonaldia luzatzeko beste arrazoietako bat, oso ongi balioesten dena, segurtasunarena da. Segurtasunak bi dimentsio ditu. Batetik, segurtasuna aipatzen da Euskadiko errealitatea ordenatuagoa iruditzen baitzaie; hau da, gauza guztiak bere lekuan daude, ez da bide informaletara jo behar oinarriko zerbitzuak lortzeko, egunerokotasuna oso bide seguruetatik igarotzen da, kaletik ibil daiteke, arauak errespetatzen dira, etab. Hau da, eguneroko bizitzaren oinarri den segurtasuna balioesten da, jatorriko herrialdeetako ziurgabetasun instituzionalarekin alderatzen baita. Hala adierazten dute hurrengo lekukotasunek. Gure ustez, balorazio horretan eragina izan dezake beren jatorriko zenbait herrialdetan bizi ahal izan duten egitura gatazkatsuak (gehiago ala gutxiago); dena den, euskal gizarteak etorkizunari aurre hartzeko duen gaitasuna hartzen da kontuan eta lehenesten da.

“.. eta bueno, dena hain ondo antolatuta egotea egin zitzaidan deigarriena, eta legeak nahiz pertsonen eskubideak errespetatzen direla; hiriaren antolaketa, denek errespetatzen dute zirkulazioa. Horrez gain, lege bat ateratzean, denek betetzen dute, eta nire herrialdean ez da horrelakorik gertatzen, ez eta Latinoamerikako edozein herrialdetan ere, legeak jarri arren, ez dira errespetatzen.” (2. profila: Peru)

“Ez Gasteizen soilik, Europa osoan; izan ere, han nahi duzun guztia egin dezakezu, ez dago legerik. Hemen seguruago sentitzen naiz.” (3. profila: Nigeria)

“Han, gaixotzen zarenean, ordaindu egin behar duzu senda zaitzaten, baina hemen, gaixotuz gero, ospitalera joan eta doan sendatuko zaituzte.” (3. profila: Kamerun)

Bestetik, segurtasun horrek gizarte-zerbitzuei ere egiten die erreferentzia, formalei nahiz ez-formalei, Euskadin immigrantei dirulaguntza bereziak ematen zaizkien ideari buruz bertako biztanleek dituzten uste eta diskurtso txarrenak sustatzeko arrisku izatera iritsi arte; izan ere, bertan egonkortutako profila duen pertsona batek adierazi du bere ustez Euskadin errentagarria dela behartsua izatea. Korrante xenofoboan ahoan, horrelako adierazpen batek hautsak harrotuko lituzke eta babes handia lortuko luke gizartean.

Eremu formal eta instituzionalari dagokionez, euskal erakundeetan “herritartasun barne-hartzaileari” buruz ezarri den ikuspegiaren eragile diren zerbitzuek, ongizate-egitura unibertsalen zehaztapen direnek, harridura sortzen dute ia profil guztietako emakume immigranteengan; izan ere, ordena publikoko oinarrizko segurtasunaz gain, bizi-segurtasunaren hainbat modalitate daude, ezezagunak eta, agian, ustekabekoak izateagatik harrigarri zaizkienak.

Beren jatorriko herrialdeetan, aurrerago osasun-zerbitzuei dagokien atalean ikusiko dugunez, ez daude horrelako segurtasun-mekanismoak, eta beraz, hemengo gizarteak (euskal gizartea, adibidez) “paternalistak” izatera iritsi daitezkeela uste da; izan ere, Diputazioa “zure atzean dago, eta zerbait behar baduzu, oinarrizko premiak estaltzen dizkizu”. Gainera, zerbitzu horiek indartu ditzake zure premien arabera; hau da, elkarrizketatutako emakume batek aipatu bezala, muturreko egoerarako programak daude, “arazoak dituen haur bat duzunean”, kasu.

“Nabari da justizia sozialaren gaia; hemen, gizarte-desberdintasunak ez dira Txilen bezain nabarmenak, denek baitute hezkuntza doan jasotzeko eskubidea, osasun publikoa, etxebizitza... Txilen ez, Txilen behartsu jaiotzen denak horrekin bizi behar du [...] Hemen, nik banekien gaixotuz gero sendatu egingo nindutela eta ez zidatela ezer kobratuko; niri hemen egin dizkidaten ebakuntzak Txilen egin ahal izateko 6000 euro ordaindu beharko nituzke, gutxi gorabehera [...] Hemen, Euskadin, behartsua izatea errentagarria da. Ez dakit, oso gizarte paternalista dela iruditzen zait; izan ere, Diputazioa zure atzean dago, eta zerbait behar baduzu, oinarrizko premiak estaltzen dizkizu, eta arazoak dituen haur bat duzunean, harrerako leku bat eman diezazukete. Horrelako gauzak sinestezinak dira Txilen, eta ezinduak aintzat hartzea, pensioak... Txilen ez dago horrelakorik, nik ongi ikusten dut.” (1, profila: Txile)

Erakundeen segurtasun-sarea, gainera, sare ez-formalek indartzen dute, komunitateko gizarte-zerbitzuek eta/edo erlijiosoek, esaterako, Caritasek (egitura-egoera txarrenean dauden pertsonen sarri aipatzen eta baloratzen dutena), bai eta tarteko beste erakunde batzuek ere, premia handieneko oinarrizko beharrak estaltzen dituztenek, adibidez: elikadura-bankuen zerbitzuak eta pertsona partikularrek ematen duten laguntza. Horiez gain, badira beste pertsona batzuk, erakunderen bateko kide izan arren, elkarrizketatutako pertsona batzuentzat familia-unitateko beste kide bat direnak, “salbatzaileak”. Egitura horri dagokionez, Saharaz hegoaldeko pertsona batek hau adierazi du: “Euskadiri esker, ez naiz kalean bizi”.

“Euskadin, beso zabalik hartu naute, nire alabarekin laguntzen didate, eta pozik bizi naiz; Euskadiri esker, ez naiz kalean bizi.” (3. profila: Senegal)

"Nire herrialdean, ez daude horrelako lekuak, hau da, jatekoa edota arropa behar izanez gero, laguntzen dizutenak. Diruarekin erosi behar duzu. Baina hemen oso desberdina da, oso. Asko laguntzen digute; hori da Espainiatik gustatzen zaidana." (4. profila: Aljeria)

Erakundeetako nahiz gizarteko harrera- eta arreta-zerbitzuak hain ongi baloratuta egoteaz gain, inplizituki, bada poza sortzen dien beste faktore bat, Euskadin bizitzearekin lotuta dagoena; izan ere, hemen Espainiar estatuko gainerako lurraldeetan ez dauden zerbitzuak egongo lirateke.

"Lagunen bidez, nik badakit nola egiten duten beste hirietan; esaterako, Alacanten edota Madrilan ditudan lagunek esaten didate bakarrik sentitzen direla, ez dute nora jo hitz egitera, eta nik esaten diet ni hara ezetz, ez noala. Ni batera eta bestera joaten naiz, munduko emakumeak, udalera... ikastaro asko daude, eta bideratu egiten zaituzte, 'joan zaitez hara', 'beste leku hartara'. Adibidez, nire Madrilgo lagunek ez dute nora jo galderak egitera." (2. profila: Kolonbia)

"Ezin dut ahaztu jendeak ematen duen laguntza; euskaldunek asko lagundu didate, eta hori ezin dut ahaztu." (5. profila: Maroko)

Osasun-arreta aparteko gaia da; izan ere, profil guztietako emakume immigranteak harritu egiten ditu osasun-zerbitzuen doakotasunak, denei ematen zaien arretak, norbaitek artatu ahal izateko bertan bizitzea nahikoa izatea, baita egoera irregularrean egonda ere... Gehien aipatu duten gertakari edo eskubideetako bat izan da. Adierazpen hauen bidez laburbildu daiteke: "Espainian, bizitza salbatzen dizute dirurik gabe" edota "harridura sortzen dit anbulatoriora joan eta berehala artatzen zaituztela ikusteak. Nire herrialdean, goizean joan eta ez zara gauera arte irteten".

"Hemen, osasun-zerbitzuak doakoak dira; han ere doakoa da, baina gaua bertan pasatzea ordaindu egin behar da. Farmaziak ere garestiak dira, ez da hemen bezala; hau da, hemen, medikuaren errezetarekin oso ongi eros dezakezu." (4. profila: Aljeria)

"Nire herrialdean ez dago gizarte-segurantzarik, ospitalerik, ez besterik; han, dirurik ez baduzu, ezin duzu botikarik eman, ospitalera joaten bazara, ordaindu egin behar duzu." (3. profila: Nigeria)

"Hemen, gizarte-segurantza dugu, osasun-arreta, eskubideak errespetatzen dizkizute, ordain-sariak eman; beste baldintza batzuk dira." (8. profila: ET: eztabaida-taldea)

"Ni hemen Espainian egon naizenean, haurdun nengoela, ebakuntza eta dena egin zidaten; nire herrialdean, norbaitek arazo hori duenean, hil egin daiteke. Izan ere, nik ez dut dirurik mediku bat eta sendagaiak ordaintzeko, baina Espainian, bizitza salbatzen dizute, dirurik izan gabe." (4. profila: Nigeria)

"Hona etorri, ospitalera joan, txartela eman eta artatu egiten zaituzte, ez da han bezala; han, gaixorik bazaude eta sendagaiak ordaintzeko dirurik ez baduzu, hil egin zaitezke. Hemen, artatu egiten zaituzte, zer duzun begiratu, eta sendagile onak daude, gainera; izan ere, han, ordaindu egin behar izateaz gain, ez daude sendagile onak." (4. profila: Ekuatore Ginea)

"Nire herrialdean, dirurik ez baduzu, ezin duzu medikuarengana joan, eta ingresatu egiten bazaituzte, logela ordaindu behar duzu; han, garestia da, baina hobea. Baina han, jende askok ez du dirurik eta hil egiten da." (3. profila: Burkina Faso)

"Ez nekien hemen gauzak hain zailak zeudenik, baina gustura nago, nire herrialdean baino gusturago; medikuarengana joan naiteke, etab. Orain, txartela kendu digute, baina joan naiteke; nire herrialdean, dirurik ez baduzu, ez zaituzte artatzen; hantxe bertan hiltzen zara." (4. profila: Ekuatore Ginea)

Gizarte-zerbitzuen eta, batez ere, osasun-zerbitzuen balorazio on orokor hori, egun, atzera egiten ari da, bai Espainiako araudiaren ondorioz bai Euskadikoaren ondorioz, eta horrek kezka apur bat sortu du elkarrizketatutako batzuegan; izan ere, bere jatorriko herrialdean

ez bezala (han "dirurik ez baduzu, hantxe bertan hitzen zara"), Euskadin artatu egiten zaituzte, baina "orain, osasun-txartela kendu digute".

Amaitzeko, etorkizunaz hausnartzerakoan jatorriko herrialdera itzultzeko ideia gailentzen ez den arren, Euskadin neurri batean bizi izan duten burujabetze-prozesua baloratzen duten arren, eta krisi ekonomikoaren egoerak egonaldia bertan finkatzeari dagokionez etorkizun iluna iragartzen duen arren, elkarrizketatutako emakumeek –bakoitzak ordezkatzeko duen profilararen nahiz bizi eta garatu duen biografia pertsonal zehatzaren ikuspegitik– hainbat eskaera egin dituzte, honela laburbildu daitezkeenak:

1. Bertan egonkortuen dauden eta heziketa gehien jaso duten emakumeek eskaera hauek egin dituzte: kulturen arteko elkarbizitzarako programak sustatzea, exotismoan erori gabe; lan- eta familia-bizitza bateratzeko laguntza ematea, haurtzaindegien bidez; segurtasun handiagoa eta genero-indarkeriarekiko pentsamoldeen aldaketa bultzatzea; Atzerriartasun Legea aldatzea; eta bidezko gizarteratze-politikak sustatzea.
2. Nahiko egonkortuta daudenek eta prestakuntza gutxiago dutenek lanarekin lotutako eskaerak egin dituzte: lanean egonkortasun handiagoa izatea; beste enplegu-eremu batzuetan lan egiteko aukera izatea; eta, oro har, lan gehiago egotea. Horrez gain, tratu txarrak jasotzen dituzten pertsonen laguntzea ezinbestekoa dela adierazi dute, bai eta zerrendatutako zenbait eskaera aintzat hartzea ere, etxea lortzeko bidea errazteko.
3. Enpleguari dagokionez egoera okerrean dauden emakumeek egindako eskaerak "lana egin, besterik ez" ideian oinarritzen dira, eta zenbaitetan, eskatu dute ez diezaitezela eguneroko bizitza oztopatu paperik ez izateagatik. Horrez gain, "etxe merkeagoak" eskatu dituzte. Atal honetan zehaztu ez duten arren, enplegu bat lortzeko zailtasunak dituzten eta guraso bakarreko ama nahiz tratu txarren biktima diren emakume horietako batzuen oinarritako eskaera izan da krisi-egoeran ez ditzatela gutxitu edo kendu zalan-tzazko "bien bitartean" hori bermatzeko gizarte-laguntzak. Jakin badakite etorkizuneari tratu txarrak jasotzeko nahiz guraso bakarreko ama izateari aurre egin diezaioketela, baina gakoa diru-sarrerak bermatzeko errentek, gaur-gaurkoz, eta enpleguak, etorkizuneari, osatutako binomioan oinarritzen da.

Laburbilduz,

- Horrenbestez, eta kapitulu hau laburbiltzeko, interesgarria iruditu zaigu azpimarratzea emakume immigranteen etorkizuneko proiektua, neurri batean, haien administrazio- eta lan-egoeraren mende dagoela; hala, hemen egonkortuen daudenek eta gizarte-, kultura- eta lan-kapital handiagoa dutenek beren bizitza Euskadin garatu nahi dute, eta aldiz, hain egonkortuta ez dauden pertsonen artean, zabalduago dago jatorriara itzultzeko ideia. Dena den, ohikoagoa da etorri berri diren pertsonen haren denbora luzea daramatenen bide beretik jarraitzea; hala gertatzen da, behintzat, Latinoamerikako emakumeei dagokienez.
- Atal honetan, komeni da beste profilekiko zenbait salbuespen aipatzea. Txinako emakumeak oso ibilbide seguruetatik mugitzen diren arren, bi talde beste muturrean daude: Saharaz hegoaldeko emakumeak eta Errumaniako emakume ijitoak. Hau da, talde horien oinarria ahulagoa da, ia ez baitute laneratzeko aukerarik, eta epe laburrera nahiz ertainera hemen jarraitzeko aukera diru-sarrerak bermatzeko errentak ematen jarraitzearen mende baitago; izan ere, enplegurik gabeko egoera bizitzeari, gurasobakar izatea eta, askok eta askok, tratu txarrak jasotzea gainezartzen zaio. Tartean daude emakume magrebtarrak; emakume horien migrazioa mendekoagoa da, bai kulturari dagokionez bai ezkon-bizitzari dagokionez, eta gutxienez, lehenengo belaunaldian, emakume horien gizarteratzea senarrek lortzen dutenaren mende dago, neurri handi batean.

- Nolanahi ere, etorkizuneko proiektua emakumeek beren seme-alabentzat dituzten asmo eta aurreikuspenek baldintzatzen dute, neurri handi batean. Atal honetan, transferentzia-prozesu bat dagoela hauteman dugu; hala, lehenengo belaunaldiaren gizarteratzea bigarren belaunaldiarenak baldintzatuko du, neurri handi batean, haiengan jarri baitituzte beren itxaropen handienak guraso immigranteek, bereziki, amek. Beraz, bideratutako gizarteratze-prozesu bat da.
- Itxaropen horien artean, funtsezkoa da emakumeek familia-egiturarekiko izan duten autonomia alabengan sendotzea; hala, familiaren migrazio-proiektuaren protagonista eta aitzindari izateak familiaren diru-iturri nagusitzat sendotu ditu. Urruntasun erlatibo hori sendotuta dago edo hasi berria da, eta zenbaitetan, estalita edo ezkutuan dago; hau da, hor dago, baina ez da adierazten.
- Amaitzeko, adierazi behar da emakume immigranteek ez dituztela gauza berdinak eskatzen bakoitzaren profilaren eta kapital sozioekonomikoaren nahiz kapital kulturalaren arabera. Hau da, hemen egonkortuago dauden pertsonen balio materialez harago dauden bestelako balioak eskatzen dituzte, Atzerriartasun Legea bertan behera uzteaz gain; aldiz, hemen hain egonkortuta ez daudenek egiten dituzten eskaerak materialista-goak dira, hots lana izatea eta, esplizituki adierazi ez duten arren, diru-sarrerak bermatzeko errentari eustea nahi dituzte.

ONDORIOAK

6.6

OROKORRAK

6.6.1

1. Immigrazioaren arrazoiak zehaztea zaila den arren, faktore ekonomikoa izan ohi da emigratzeko arrazoi nagusia, eta horrekin batera ageri dira kultura berriak ezagutzeko jakinmina eta askatasun-grina. Dena den, faktore ekonomikoa da eragile nagusia, eta denboraren poderioz, eta betiere migrazio-proiektua arrakastatsua izan bada, motibazio pertsonalagoen eta ez hain estrukturalen bidez berrinterpretatu ohi dute; berrinterpretatze horretan, hain zuzen, desagertu egiten da egituraren hertsadura, eta norbanakoren aukeraketak nabarmentzen dira.
2. Migrazioaren modalitate klasikoan, emakumeen rola bigarren mailakoa zen eta ez eragilea, baina jokamoldeak aldatzen ari dira, eta emakumeak migrazio-proiektu ugariren bultzatzaile dira gaur egun. Era berean, normala da gaur egun ere familia osoak emigratzea beste herrialde batera, baina gero eta bakarkako migrazio-proiektu gehiago abiarazten dituzte emakumeek, gerora familia osoa berrelkartzeko.
3. Helmugako herrialdea aukeratzea, kasurik gehienetan, erabaki konplexua izan ohi da; erabaki horretan, hain zuzen, hainbat faktorek eragiten dute. Alde batetik, arrazoi ekonomikoek, erabakia azkartzea eragiten dutenek, eta bestetik, helmugako herrialdean aurrez finkatuta dauden nazio bereko pertsonen sareak, bitartekari- eta segurtasun-egituratzat; hain zuzen, azken horiek esaten diete hautagaiei emigratzeko.
4. Faktore erakargarriei dagokienez, Europa lurralde emankorra dela uste dute immigranteek eta pertsonen askatasunak (gizabanakoenak, giza taldeenak eta, bereziki, emakumeenak) nahiz goi-mailako hezkuntza bermatzen dituela; hori da Europara etortzera

bultzatzen dituen arrazoietakoa bat. Irudi hori barneratuagoa daukate Saharaz hegoaldeko Afrikan jatorria duten pertsonak. Aldi berean edo gerora erabakitzen dute Espainiara eta Euskadira etortzea, helmugako lurraldean dituzten gizarte-sareei erreparatuta. Gizarte-sareak funtsezkoak dira migrazio-proiektuaren lehen fasean, eta arindu egiten dute immigrantearen ziurgabetasun-egoera.

5. Espainiara eta Euskadira etortzeko arrazoiak artean, emakume immigranteek nabarmentzen dute erraza dela iristea, mugetan ez dagoela kontrol handirik, lan-aukerak izaten direla eta sarri aipatzen dira EAEk dituen osasun- eta hezkuntza-zerbitzu bikainak. Zenbaitetan, arrazoi horiek dirudite migrazioaren eragile, baina ez dira bertan finkatu ondoren aurkitu dituzten erakundeak baino.
6. Oztopo handia izaten da independentzia ekonomikorik edo soldata duinik ez duten emakumeentzat jatorriko herrialdetik irteteko behar dituzten baliabideak eskuratzea. Dena den, funtsezkoa da hori, horrek baldintzatzen baitu nola sartuko diren emigranteak helmugako herrialdean eta zer-nolako bizimodua izango duten herrialde horretan. Batzuetan, oso interes altuko maileguak eskatuz, eta besteetan, senideek egindako ahalegin handiari esker, elkarrizketatutako emakumeek oso inbertsio handia egiten dute hasieran, migrazioaren abenturak arrakasta izateko berme handirik ez izan arren.
7. Migrazioaren lehenengo fasea da helmugako herrialdean bizitzen duten unerik gogorrenetako bat, eta lehenengo fase hori are gogorragoa da bakarrik emigratzen duten eta familia jatorriko herrialdean uzten duten emakumeentzat. Gaztelaniaz eta euskaraz ez jakiteak larriagotu egiten du egokitzapena hara heltzeko unean, muga handia izaten baita eguneroko jarduerak egiteko eta bertako gizartearekin harremanak izateko.
8. Administrazio-egoerak baldintzatzen du neurri handi batean emakume immigranteen bizitza helmugako lurraldean. Hala, administrazio-egoera araugabea izateak baldintza kaskarretan lan egin behar izatea, eta beren lan-eskubideak eta eskubide zibilak urratzea dakar emakume askoren kasuan, eta horrek segurtasun-falta, ziurgabetasuna eta herrialdetik bota egingo dituzten beldurra sorrarazten die; eta horrek guztiak, automatikoki, halako gertaerak salatzea eragozten die. Halaber, garrantzitsua da azpimarratzea administrazio-egoera irregularrean dauden emakume asko figura/bikote maskulinoaren mendeko bihurtzen direla, eta haiek, tratatu txarren kasuan, emakumearen ahultasunaz eta poliziarekin kontaktua izateko duten beldurraz baliatzen direla.
9. Askotan, erregularatasun-egoera lortzea gizartean gora egitearen edo lan-egoera hobetzearen bermetzat hartu ohi da; hori ez da, ordea, beti horrela izaten, eta frustrazio-sentimenduak areagotu egiten dira.
10. Elkarrizketatutako emakumeek hauteman dute, krisiaren testuinguru honetan, lana lortzerakoan bertakoek dutela lehentasuna; horrenbestez, oro har, uste ohi dute migrazio-prozesuak enpleguaren nazio-egoeraren mende jartzen direla. Batzuen iritziz, lehentasun hori ez da bidezkoa; beste batzuek, berriz, herritarren arteko desberdintasun hori onartzen dute, eta logikoa nahiz justifikatua dela iritzen diote.
11. Oro har, kulturari dagokionez, ez zaie iruditzen bertako biztanleak beraien oso desberdinak direnik, eta haiekin dituzten elementu bateragarriak azpimarratzen dituzte. Horrela, betiko topikoa azaltzen da; hau da, euskal jendarteak, hasieran, nahiko "itxia" dela, eta nahiko mesfidatia pertsona ezezagun guztiekiko, baina, konfiantza hartu ahala, lagun onak izaten direla. Hainbat kultura-jatorritako emakumeak bat etorri dira deskribapen horrekin.
12. Euskadin bizitzen denbora luzea daramaten emakumeek euskal gizartean integratuta sentitzen direla adierazi dute. Horietako batzuen iritziz, integrazioa bertako lagunak

edukitzea da; eta beste batzuen iritziz, berriz, garrantzitsuagoa da lan-alorrean integratzea kultura-alorrean integratzea baino. Dena den, elkarrizketatutako emakume guztiek adierazi dute, hemen, erabat onartu zaitzaten, "hemengoen antza izan behar" dela, euskal kultura asimilatuz. Bai gizarte-politiketan bai kultura-eskeman, emakume immigranteek nolabait onartzen dituzte asimilazio-eskema horiek.

13. Elkarrizketatutako emakume gehienek adierazi dute jokabide xenofoboak eta arrazistak bizi izan dituztela, bai eta diskriminazio zuzeneko egoerak ere; hala ere, tratua berdintasunezkoa den iritzia nahiko orokorra da. Horrez gain, bizi izan diren Espainiar estatuko beste leku batzuekin alderatzean, adierazi dute euskal gizartea toleranteagoa dela, eta ez besteak bezain arrazista.
14. Ildo beretik, elkarrizketatutako emakume immigranteak bat datoz Euskadiko emakumeak definitzean; langileak, irekiak eta independenteak direla iruditzen zaie. Horrez gain, *euskal matriarkatu* kontzeptua nabarmendu dute. Zehazki, hemengo emakumeen independentziaz eta askatasunaz ari direnean, ordaindutako lana eginez dirua irabazteko eta hori administratzeko duten aukera aipatzen dute.
15. Era berean, elkarrizketatutako emakumeen iritziz, bertako gizonek *amaren* rola hartzen dituzte, eta gehiago laguntzen dute etxeko lanetan nahiz seme-alabak zaintzen, beren jatorriko herrialdeetakoek baino. Dena den, deigarria egiten zaie zenbaitek, adinean aurrera egin arren, gurasoekin bizitzen jarraitzen dutela; horrez gain, uste dute hemengo gizonak ez direla oso edo batere erromantikoak.
16. Euskal gizartearen kultura-ereduarekin alderatuz, adierazi dute barneratuago dutela emakumearen rol femeninoa da; hau da, etxean, seme-alabak eta senarra zaintzen dituen emakumearena. Senarrak, berriz, agerpen eta askatasun handiagoa du eremu publikoan. Era berean, iradoki dute, helmugako lurraldean seme-alabak izateko adin berantiarra iritsi gabe, ama gaztea izateak askapen-prozesuak murrizten dituela; horri dagokionez, aldaketa txikiak hautematen hasi dira beren jatorriko herrialdeetan, belaualdi gazteen artean, batez ere.
17. Tratu txarren errealitatea nahiko ohikoa da elkarrizketatutako pertsonen artean. Dena den, salaketa hori isilpean gelditzen da independentzia ekonomikorik eza, administrazio-egoera irregularra, kultura-arrazoiak eta gertatzen den unea direla eta. Halere, lehenengo bi faktore horiek dute eragin zuzenena; horrez gain, emakume asko eta asko gizonaren mende daude beren egoera ekonomikoa edo administrazio-egoera direla eta. Seme-alabek funtsezko laguntza eta babes eman diete amei beren askapen-prozesuetan, baina, aldi berean, emakume askok seme-alabengatik ez diote ekin banantze-prozesuari.
18. Bereziki aztertu behar da zer eragin duen elkarrizketatutako emakumeengan genero-indarkeriaren ondorioz espainiar estatuan izandako heriotza-kopuru handiak. Diotenez, beren herrialdeetan, emakumeei tratu txarrak ematen dizkieten arren, ez dira haiek erailtzera iristen, eta erailez gero ere, kopurua askoz ere txikiagoa da helmugako herrialdean baino.
19. Elkarrizketatutako emakume askok beraiena ez den beste gizarte eta kultura batean bizi izan dituzten aldaketei buruz hausnartu dute. Helmugako herrialdean, egunerokotasuna beste kultura-ezaugarri batzuek osatzen dutela ikusi dute, eta horrek aldatu egin ditu beren pentsatzeko eta jokatzeko modua. Baina, bestalde, badira helmugako herrialdean beren bizimoduarekin jarraitu dutela pentsatzen duten emakumeak ere. Elkarrizketatuen adierazpenen arabera, beste errealitate baten ateak ireki zaizkie hemen, ezagutzen ez zituztenak, eta horrek, emakume gisa, seguruago sentiarazten

ditu. Elkarrizketatutako emakume batzuek esplizituki adierazi dute helmugako herrialdean daukaten askatasuna. Askatasun horri esker, beren bizitzari buruzko erabakiak har ditzakete eta bikotekidearekiko independentzia izan, bai ekonomikoki bai pertsonalki. Kasu batzuetan, autonomia hori beren jatorriko herrialdeetan zuten bizimoduarekin alderatuz sortzen da. Elkarrizketatutako zenbait emakumek adierazi dute ederra litzatekeela beren jatorriko herrialdera itzuli eta hango emakumeei beste errealitate eta bizi-eredu batzuk daudela ezagutaraztea.

20. Emakume immigranteen etorkizuneko proiektua, neurri batean, haien administrazio-eta lan-egoeraren mende dago; hala, hemen egonkortuen daudenek eta gizarte-, kultura- eta lan-kapital handiagoa dutenek Euskadin garatu nahi dute beren bizitza, eta aldiz, hain egonkortuta ez dauden pertsonen artean, zabalduago dago jatorrira itzultzeko ideia. Dena den, ohikoagoa da etorri berri diren pertsonak hemen denbora luzea daramatenen bide beretik jarraitzea; hala gertatzen da, batez ere, Erdialdeko Amerikako emakumeei dagokienez.
21. Etorkizunari dagokionez, gainerako profilei buruzko zenbait salbuespen egin beharko lirateke. Txinako emakumeak oso ibilbide seguruetatik (baina ilunegietatik) mugitzen diren arren, bi talde beste muturrean daude: Saharaz hegoaldeko emakumeak eta Errumaniako emakume ijitoak. Hau da, talde horien oinarria ahulagoa da, ia ez baitute laneratzeko aukerarik, eta epe laburrera nahiz ertainera hemen jarraitzeko aukera bakarra diru-sarrerak bermatzeko errentak ematen jarraitzearen mende baitago; izan ere, enplegurik gabeko egoerari, gurasobakar izatea eta, askok eta askok, tratu txarrak jasotzea gainezartzen zaio. Tartean daude emakume magrebtarrak; emakume horien migrazioa mendekoagoa da, bai kulturari dagokionez bai ezkon-bizitzari dagokionez, eta gutxienez, lehenengo belaunaldian, emakume horien gizarteratzea senarrek lortzen dutenaren mende dago, neurri handi batean.
22. Nolanahi ere, etorkizuneko proiektua emakumeek beren seme-alabentzat dituzten asmo eta aurreikuspenek baldintzatzen dute, neurri handi batean. Atal honetan, transferentzia-prozesu bat dagoela hauteman dugu; hala, lehenengo belaunaldiaren gizarteratzea bigarren belaunaldiarenak baldintzatuko du, neurri handi batean, haiengan jarri baitituzte beren itxaropen handienak guraso immigranteek, bereziki, amek.
23. Itxaropen horien artean, funtsezkoa da emakumeek familia-egiturarekiko izan duten autonomia alabengan sendotzea; hala, familiaren migrazio-proiektuaren protagonista eta aitzindari izateak arlo materialean ere indartzea eragin du, familiaren diru-iturri nagusi bihurtzeraino. Urruntasun erlatibo hori sendotuta dago edo hasi berria da, eta zenbaitetan, estalita edo ezkutuan dago; hau da, hor dago, baina ez da adierazten.
24. Adierazi behar da emakume immigranteek ez dituztela gauza berdinak eskatzen bakoitzaren profilaren eta kapital sozioekonomikoaren nahiz kapital kulturalaren arabera. Hau da, hemen egonkortuago dauden pertsonak balio materialez harago dauden bestelako balioak eskatzen dituzte, Atzeritartasun Legea bertan behera uzteaz gain; aldiz, hemen hain egonkortuta ez daudenek egiten dituzten eskaerak materialistagoak dira, hots lana izatea eta, esplizituki adierazi ez duten arren, diru-sarrerak bermatzeko errentari eustea nahi dituzte.

1. PROFILA. Mendebaldeko ohiturak hartu dituztenak

- Profil honetako emakumeek premiengatik eta motibazio pertsonalengatik migratzen dute. Jatorriko herrialdeetik irteteko askotariko helburuak dituzte, eta baztertu egin behar da arrazoi ekonomikoekin soilik lotutako migrazioaren ideia. Erdi- edo goi-mailako heziketa-maila duten emakumeak dira, eta beren bizimodua hobetzea dute xede, bai esparru pertsonalean bai lan-esparruan. Erabakiak hartzeko, beraz, honelako arrazoiak hartuko dituzte oinarri, adibidez: beren bizi-kalitatea hobetzea edota beren lan-profilekin bat datozen arloetan prestakuntza lortzea.
- Itxura fisikoari dagokionez, zenbaitetan bertako emakumeen antza daukate, baina horrek ez du adierazten helmugako herrialdeetan diskriminazio-egoerarik bizitzen ez dutenik. Enplegua bilatzean edo etxe bat aurkitzean, bertako biztanle batzuek ukatu egiten diete, inolako arrazoi justifikaturik gabe.
- EAEn bizitzen jartzerakoan, denboraldi bat behar izaten dute bertako kultura-kode berrietara egokitzeko. Euskadiko biztanleak nahiko itxiak direla uste dute, baina hartu dituen gizartearen oso kontzeptu ona dute; lagunak egiten dituzte, eta pertsona gisa onartzen eta baloratzen dituztela sentitzen dute.
- Haien ustez, EAEko gizartean berdintasun handiagoa dago, eta gizonak nahiz emakumeek maila berdinean banatzen dituzte etxeko lanak edota seme-alabak zaintzeko lanak. Hauteman dute hemengo emakumeek askatasun handiagoa dutela eta beren bizitzari buruzko erabakiak beraiek hartzen dituztela, eta hori positiboki baloratu dute.
- Inola ere ez dira damutu migratzeko erabakia hartu izanaz; izan ere, iristean zailtasunak izan arren, denboraldi bat pasatu eta gero, euskal gizartearen parte sentitzen dira. Ez dute baztertzeko beren jatorriko herrialdera betiko itzultzea, baina, oro har, ez dute horretarako data bat ezarrita. EAEn duten bizimodua ona dela irizten diote, eta onartzen dute lanik ez izatearen ondorioz soilik aldatuko dituztela beren planak bat-batean. Azken batean, momentu bizi dute.

2. PROFILA. Denbora luzea daramaten latinoamerikarrak

- Hemen denbora luzea daramaten Latinoamerikako emakumeek dagokienez, gehienetan erabakia emakumeak berak hartzen duen arren, funtsean ia beti daude familia-interesak. Emakume asko ama ezkongabeak dira, eta oro har, beraiek izan ohi dira familiaren diru-iturri.
- Ia emakume guztiak egon ziren administrazio-egoera irregularrean etorri berritan, baina erregularizazioa lortu zuten, errotze sozialaren prozeduraren bidez. Askok jada lortu dute espainiar nazionalitatea.
- Administrazio-egoera egonkorra edo espainiar nazionalitatea izan arren, gizartean mugitzeko oztopoak izan ohi dituzte. Helmugako herrialdean denbora gutxi daramaten Latinoamerikako emakume gehienek baikortasunez begiratzen diote etorkizunari; aldiz, hemen denbora luzea daramatenak nahiko atsekabetuta daude.
- Zenbait oso ongi egin dira bertara, baina gehienak tarteko egoeran daude; izan ere, helmugako lurraldean denbora luzean bizi arren, ez dira guztiz gizarteratu, eta horrez gain, jatorriko herrialdearekiko loturak galdu dituzte.

- Beren prestakuntza-mailaren azpitik dagoen lanpostu batean denbora luzez jardutea (gaitzualifikazioa) ere gizarteratzeko beste oztopo bat da.
- Krisi ekonomikoaren eraginari dagokionez, profil hau duten elkarrizketatutako emakumeek adierazi dute, krisia hasi baino lehenago aldiarekin konparatuz, gizartean, oro har, xenofobia handitu egin dela, bai eta lana eta etxea bilatzean jasaten duten diskriminazioa ere.
- Euskal gizartean beraienean baino berdintasun handiagoa dagoela hautematen dute. Hemengo emakumeei dagokionez, langileak eta oso irekiak direla uste dute.
- Helmugako herrialdean denbora luzea daramaten Latinoamerikako emakume gehienek betiko hemen gelditzeko asmoa dute. Aldiz, etorkizunari buruz hitz egitean, egun batean beren jatorriko herrialdera itzul daitezkeela onartzen dute, baina bisitan bakarrik.

3. PROFILA. Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeak, egoera erregularrean daudenak

- Talde honek askotariko arrazoiak izan ditu migrazio-prozesua hasteko. Arrazoi ekonomikoengatik migratzen duen ohiko familia-eredua agertzen da, baina asko dira etorkizun hobea eta prestigiozko heziketa lortzeko edota beste kulturekiko jakin-nahia asetzeko emigratu duten emakumeak. Gizona buru duen ohiko migrazio ekonomikoaren ikusmoldea aldatzen ari dela adierazten duen erakusgarri txiki bat da.
- Helmugatzat Euskadi aukeratzeari dagokionez, elkarrizketatutako emakumeek eredu idiliko bati buruz hitz egin digute: “Europako ametsa”. Europa lurralde emankorra eta askea den eta aukera ugari ematen dituen ideia oso hedatuta dago; hain zuzen, ideia hori oso faktore erabakigarria da migrazioa planteatzerakoan, bai norberaren erabakia denean bai familiarena denean. Horri dagokionez, Euskadi lan-, ikasketa- eta osasun-aukera gehien dituen lekutzat ezagutarazi da.
- Kasu gehienetan, hizkuntza oztopo bat da hasieran, euskal gizartera egiteko; horren ondorioz, bikotearekiko edo sareekiko mendekotasun-egoerak sortzen dira. Enplegua, oro har, ez dute gizarteratzeko eta bertako kulturara egiteko baliabidetzat hartzen; aitzitik, egun Euskadin duten arazo nagusi eta ia bakarra da.
- Laneratzeko modu nagusia “kontaktuak” izatea da; horretarako, beraz, lagunak eta ezagunak sare handia behar da. Emakume askok ez dute sare hori, lehenengo etapetan, batez ere; horrenbestez, oso zaila da emakume horiek laneratzeko. Horrez gain, azpimarratu behar da azkenean lortzen dituzten lanak (garbitasunarekin lotutakoak, oro har) sektore prekarioenetakoak direla, behar bezala erregularizatu gabe daudenak. Talde honetako emakumeen langabezia-tasa handia da oso, eta subsidioei, dirulaguntzei edo gizarte-erakundeek ematen dituzten laguntzei esker bizi dira; azken horiek, hain zuzen, jatekoa eta arropa ematen diete, bai eta alokairua ordaintzeko laguntza ere.
- Oro har, lan-esparruan salbu, elkarrizketatutako emakumeek adierazi dute gustura eta pozik sentitzen direla Euskadiko gizartean; halere, ia denek kontaktu dute kalean bizi izandako baztertzeko edo diskriminazio-egoeraren bat. Bereziki talde honek askotan aipatu du bertako jendearen aldetik jaso duten jazarpen sexuala, bai eta beren eguneroko bizitza zailtzen duen estereotipo handia ere.
- Desberdintasun nabarmenak aurkitu dituzte beren jatorriko herrialdearen eta euskal gizartearen artean, gizonak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan betetzen duten funtzioari dagokionez, batez ere. Zenbaitetan, beste perspektiba bat da, Euskadin egun duten bizimoduan aintzat hartu nahi dutena.

- Aurrez aipatutakoaz gain, oro har, afrikar jatorriko emakumeak oso gustura daude Euskadiko gizartearekin. Oso ongi baloratzen dute pertsonen eta gizartearen segurtasuna, eta bertan gelditzeko nahia agertu dute; itxaropen handia dute etorkizunean.

4. PROFILA. Administrazio-egoera irregularrean dauden Afrikako emakumeak

- Elkarrizketatutako profil honetako emakume batzuek bazekiten helmugako lurraldean administrazio-egoera irregularrean egongo zirela; beste batzuk, berriz, bikotekidea bisitatzera etorri ziren, turistaren bisatuarekin, eta pentsatzen zuten jatorriko herrialdera itzuliko zirela dokumentazioa zuzentzeko eta familia elkartzeko prozesua abian jartzeko, baina haurdun gelditu zirenez, helmugako lurraldean geratu behar izan zuten, administrazio-egoera irregularrean.
- Azken kasu horietan, emakumeak ez zeuden prestatuta egoera horretan egoteak eragiten dituen ondorioei aurre egiteko. Helmugako herrialdean sarerik ez izatea, gaztelaniaz ez jakitea, akulturazioak sortutako estresa, kanporatua izateko beldurra, bikotekidearekin erabateko mendekotasuna; faktore horien guztien ondorioz, emakumeak oso egoera ahulean daude.
- Kasu guztietan, administrazio-egoera irregularrak erabat baldintzatzen du helmugako herrialdeko bizimodua; hain zuzen, talde horrek jasaten duen diskriminazioarekin eta bazterketarekin batera, ezinezko bihurtzen du emakume horien laneratzea eta gizarteratzea.
- Egoera irregular horretan egonda, behar bezala erregularizatu gabeko enpleguak soilik izan ditzakete, etxeko zerbitzuekin lotutakoak, batez ere.
- Egoera irregularrean dauden Saharaz hegoaldeko emakumeei dagokienez, helmugako lurraldean familiaren laguntzarik ez dutenez, gehienek gizarte-bazterketaren arriskua edo egoera bizi dute. Baliabide ekonomikorik eta gizarte-kapitalik ez izateak ezegonkortasun eta ziurgabetasun handia sortzen du, eta horren ondorioz, emakume hauek laguntza publikoei eta elkarteen laguntzari esker bizi dira.
- Profil honetako emakume askok beren eskubide zibilen eta lan-eskubideen urraketa salatzen dute, eta genero-indarkeriako kasuen aurrean, babesik gabe gelditzen dira.
- Etorkizunerako dituzten aurreikuspenei dagokienez, egoera irregularrean dauden Afrikako emakumeek, prekariotasun-egoera larriak bizi arren eta epe laburrera begira irteerarik ikusten ez duten arren, ez dute planteatu ere egiten jatorriko herrialdera itzultzea, eta pozik daudela adierazten dute, nahiz eta helmugako lurraldean ezer gutxi eduki.

5. PROFILA. Egoera erregularrean dauden magrebtarrak

- Askotariko arrazoiak izan dituzte profil honetako emakumeek migrazioa jotzeko; dena den, arrazoi ekonomikoak eta, batez ere, familiarekin lotutakoak izan dira motibo nagusiak. Oro har, beste pertsona batekin migratzen dute, bikotekidearekin edo senideren batekin, baina gertatu izan da denboraldi bat pasatu eta gero senar-emazte batzuk banantzea. Senar-emazteak banantzearen arrazoi nagusia helmugako herrialdeko bizi-modu berriak bikotekideen artean eragiten dituen desadostasunak izan ohi dira.
- Ez dute bazterketa-jarrerarik hautematen euskal gizartearen aldetik; are gehiago, jatorriko eta adeitsuak direla iruditzen zaie. Dena den, horrek ez du adierazten diskriminazio-

egoerarik bizi ez dutenik, zenbaitetan beren itxura fisikoak edo fenotipikoak eraginda. Erljio musulmana dute, eta emakume gehienek zapia erabiltzen dute. Beren itxura dela eta sortzen diren egoera deserosoek ez diete arazo handirik eragiten, eta entzungor egiten diete arrazoi hori dela-eta entzun ditzaketen iritzi xenofoboiei.

- Oro har, uste dute beren jatorriko herrialdean emakumeak gizonak baino egoera txarra goan bizi direla. Hausnarketa hori helmugako herrialdean bizitzearen ondorio da; izan ere, helmugako lurraldean berdintasun handiagoa hautematen dute gizonen eta emakumeen artean, eta horrez gain, azken horiek eskubide batzuk aitortuta dituzte. Aitortzen dute beste errealitate batzuk ezagutzeari esker, gaiari buruz hausnartu ahal izan dutela, eta jatorriko herrialdearen eta helmugakoaren arteko desberdintasunak hauteman ditzutela.
- EAEn izango duten etorkizuna, beren lan-egoeraren mende dago. Lana duten bitartean, beren bizimodua Euskadiri lotuta egongo da. Jatorriko herrialdera betiko itzultzeko aukera ez da epe laburrera duten helburu bat; nahikotzat dituzte oporraldietan familia ikustera egiten dituzten bisitak. Era berean, ez dute uste leku berean jarraituko dutenik, eta beharrezkoa bada, beste leku batera migratzeko prest daude.

6. PROFILA. Ijito etniako emakume errumaniarrak

- Ijito etniako emakume errumaniarrei dagokienez, migratzeko erabakia familian hartzen dute, eta gizonak etorri ohi dira lehenengo. Migrazio-proiektua epe laburrekoa izan ohi da, eta azken helburua dirua aurrezte da, eta gero, Errumaniara itzultzea. Dena den, askotan, itzulera nekez gauzatu daitekeen ametsa bihurtzen da.
- Europar Batasuneko herritarrak izateak, administrazio-egonkortasunaz gain, ez die bizimodua errazten helmugako herrialdean. Aitzitik, ohikoak dira muturreko prekarietatea bizi duten egoerak; izan ere, emakume hauek, familiako beste kideekin batera, kalean eskatzen amaitzen dute, eta infraetxeetan soilik bizi daitezke. Egoera ekonomikoa oso larria da, baldintza prekarioetan bizitzera eta lan egitera eramaten dituena; halere, emakume hauek pozik daude beren bizitzarekin, eta migrazioari dagokionez balantze baikorra egiten dute.
- Emakume hauek beste taldeen babes handia eta garrantzitsua izan ohi dute, eta batez ere, beren komunitateko kideekin izaten dituzte harremanak. Horretaz guztiaz gain, prestakuntza urria behar duten lanpostuak bete ohi dituzte, eta beraz, gaztelan ez jakitea ez da oztopo handia izaten helmugako herrialdean bizi dituzten hasierako unean.
- Etxean jasotzen dituzten diru-sarrerak txikiak diru-sarrerak bermatzeko errentaren bidez eta elkarteek nahiz Elizak ematen dituzten laguntzen bidez lortzen dituzte. Askotan joan behar izaten dute jantoki publikoetara.
- Emakume euskaldunen desberdinak direla diote; errumaniarren iritziak, euskaldunek ez diote halako garrantzia ematen familiari, eta ez dira hain etxezaleak.
- Beren taldearekiko dauden aurreiritzien berri izan arren, adierazi dute ez dutela diskriminazio-egoera larrikeria bizi izan, eta oro har, euskal gizartearen babesa sentitzen dutela; asko eskertzen dute beraiengatik egiten duten gutxi edo asko hori.

7. PROFILA. Txinako emakumeak

- Txinatar jatorriko emakumeek bigarren mailako funtzioa betetzen dute migratzeko erabakia hartzeko unean; halere, gerora, helmugako herrialdean finkatzean, rol aktiboa izan

ten dute. Aitak eta senarrak izan ohi dira prozesuaren bultzatzaileak, bai eta helmugako herrialdera iristen diren lehenak ere.

- Helmugako herrialdera iristeko modu bertsuak erabiltzen dituztela dirudi, hau da, jatorriko herrialdean egindako kontratuen bitartez. Familia-unitateak mugitzen direnez, familia-ko guztiak batera berrelkartzen dira.
- Gizarte- eta familia-sare zabala dute, migrazioaren lehenengo fasean haien hartzeko prest dagoen erreferentziaren bat dagoen lurraldeetara soilik mugitzen baitira. Komunitate gisa funtzionatzen duen sare hori ongizatearen berme izaten da hasieran, baina gizarteratzeko arazo bihurtu daiteke baldin eta ez bada zabaltzen.
- Euskal gizartea lasaia baina itxia dela adierazten dute, eta zenbaitetan, hizkuntza izaten da bertara egiteko oztopo. Oro har, ez dituzte desberdintasun handiak hautematen emakumeak beren jatorriko herrialdean eta Euskadin dituen egitekoak aintzat hartuta; biak ia berdinak direla diote.
- Emakume hauen helburua Euskadin jarraitzea da, eta horregatik, garrantzi handia ematen diote seme-alabak euskaraz eskolaratzeari. Euskara jakitea funtsezkotzat dute bertara egiteko; horrez gain, etorkizunerako bermetzat hartzen dute. Dena den, familiako negozioari eustea beti agertzen da diskurtsoaren muinean.
- Itxura batean, legezko egoera administratiboa izateak, laguntzako familia-sare zabala izateak eta helburu lorgarriak finkatzeak (negozioak jartzea) indartu egiten du haien poztasuna eta gogo-aldartea, eta bizitzarekiko ikuspegi positiboa izatea dakarkie.

8. PROFILA. Etorri berriak diren emakume latinoamerikarrak

- Talde honek migratzea eragiten duten arrazoi nagusia ekonomikoa da, baina lotura handia du, halaber, jatorriko herrialdearen ezegonkortasun politikoarekin eta ekonomikoarekin, bai eta familia barneko arazoekin ere. Profil honetan, oso ohikoa da elkarrizketatutako emakumeak berak izatea migrazioaren bultzatzaileak, nahiz eta askotan erabaki hori familian eztabaidatzen den.
- Helmugako lurraldean sartzeko turistaren bisatuaz baliatzen dira gehienetan, legearen barruan sartzea oso konplexua baita; gero, erregularizatzeko bidea hartzen dute, errotze-prozeduraren bidez.
- Ohikoa da bidaiak egiteko hasierako inbertsioa (bidaiak-txartelak, ostaturak...) jatorriko herrialdeko mailegu-ematei eskatzea; aukera hori, ordea, arriskutsua da, eskatutako dirua itzultzea helmugako herrialdean lan-arloan izaten duten arrakastak baldintzatuta baitago.
- Ordainketei aurre egin behar diren presioak baldintzatu egiten du haien bizitza eta "dirua irabazi" behar diren helburua lehentasunezko eta obsesio bihurtzen da, haien ongizatearen gainetik askotan. Gainera, haien egoera administratiboa legezkoa izaten ez denez, lor ditzaketen enpleguak ere erregularizatu gabeak izaten dira; beraz, sektore prekarioetan lan egiten dute, lan-eskubiderik gabe eta diru-sarrera apalak jasoz.
- Kasu honetan, talde honek helmugako herrialdean izan ohi dituen gizarte-sare zabalak izaten dira etorri berri diren emakumeen euskarri prozesuaren aldi gogorrenetan, eta bereziki, etxean hartu eta zer egin behar duten aholkatzen diete, hasierako fasean.
- Euskal gizartera egiteari dagokionez, ez dituzte beraienganako bazterketa-jarrerak hauteman bertako biztanleen aldetik. Oro har, errespetu handia azpimarratzen dute, baina

harreman gutxi. Diskriminazio-sentipena lan-arloan soilik hautematen dute. Ostalaritzan eta etxeko zerbitzuak dira talde honen lan-txoko nagusiak; hain zuzen, elementu horrek sorrarazten die bereizketarik handiena.

- Euskal gizartea berdintasunean oinarritutako gizartea dela iruditzen zaie, gizonak eta emakumeak, eskubide berberak izateaz gain, funtzio berberak dituzten gizartea. Emakumeak ekoizpen-prozesuan duen funtzioa azpimarratzen dute, bai eta gizonak etxearekin lotutako lanetan betetzen duena ere.
- Talde honek jarrera argia du beren jatorriko herrialdera itzultzeari dagokionez; baliteke gehiegizkoa izatea, migrazioaren hasierako etapan egoteagatik. Ez dute familia berriro elkartzeko asmorik; hau da, beren helburuak lortzean (mailegua ordaintzea, etxea, alabaren unibertsitatea...), jatorriko herrialdera itzultzea da xedea.

7

ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

1. Gure immigrazio-ereduan, espainiar ereduaren tokiko egokitzapenean, emakume atzeritarak hartzen dira pertsonen zaintzan eta etxearekin lotutako lanetan dauden premiak betetzeko; lan horietan guztietan, *bertako gizonek oraindik ere ez dute parte hartze handirik*. Era berean, ez da Euskadiko erakunde- eta gizarte-ehunik ageri, ez baititu familia eta lana bateratzeko politikak sustatzen eta hori gauzatzeko aukerak ematen.
2. Litekeena da hurrengo hamarkadan eredu hori ez aldatzea. Beraz, emakume immigranteek aukera handiagoa izango dute lan munduan sartzeko, eta gizonek, berriz, aukera txikiagoa; bai batean bai bestean, ez dira edozein jatorritakoak izango. EAEn, emakume latinoamerikarrek osatzen dute eredu *gustukoena*, gero eta feminizazio-kutsu handiagoko parametroetan, gainera. Aldiz, emakume afrikarrek (bai Afrika iparraldekoek bai Saharaz hegoaldekoek) geldialdia, gizarteratzeko ezintasuna eta baztertutako guneetan kroniko bihurtzeko joera adierazten dituzten zantzu argiak dituzte.

Haurrak eta, batez ere, adineko pertsonak zaintzearekin lotutako lan-esparruetan (baita beste batzuetan ere), estetika-ezaugarri hauek dituzten zaintzaileak eskatu ohi dituzte: emakumeak, kaukasiarrak eta gaztelaniaz hitz egiten dutenak (baita euskaldunak ere). Horrenbestez, eskaera hori bi ahoko ezpata da; izan ere, alde batetik, ezaugarri horiek dituzten pertsonen laneratzea errazten du (europarren ezaugarriak dituzten emakume latinoamerikarrek), baina bestetik, guztiz baztertzeko dituzten ezaugarri horiek ez dituztenak (emakume beltzak, magrebtarrak edo indigenen ezaugarriak dituztenak, eta gure hizkuntzak ez dakizkitenak). Horren ondorioz, lan-txoko horien atea ixten dizkiete, eta gizarte-zerbitzuei esker bizitzera behartzen dituzte.

Nolanahi ere, etorkizunean emakume immigranteak lan-merkatuan sartzeari dagokionez, aipatu behar da atzerriko pertsonen eskaera txikiagoa den egoeran gertatuko dela.

3. Kulturari dagokionez, kulturarteko ereduak hautatu behar ditugu, kultura-aniztasun erlatibista hutsalaren arriskuak gainditzeko; izan ere, kultura-aniztasun horrek emakumea talde-esentzien gordailu bilakatzen du, eta galarazi egiten dio arau jakin batzuekin –etnien arabera mailakatutako lan-merkatuan mendekotasun-egoeran egotera behartzen duten kultura-arauak– hausteko berariazko prozesuei ekitea. Elkarrizketatuek adierazi dutenez, emakumeak beren kulturarekiko autonomia lortzen ari dira; dena den, amaizateagatik dituzten ardurak direla eta, prozesu horren erritmoa moteldu egin daiteke.
4. Egiaztatu da erregularizazioa finkatzen ari dela. Erregularizazio horren eragile nagusia, ordea, ez da izan integrazio- eta immigrazio-politika irekiagoak bultzatzea, fluxuak geldituz joatea baizik; horrenbestez, zenbat eta mugimendu gutxiago, are eta *stock* finkatu gehiago eta erregularizazio handiagoa. Epe ertainera eztabaidatu beharreko gai interesgarrietako bat da hobe zer izango litzatekeen argitzea, hau da: %30eko irregulartasun-tasa fluxu biziekin eta suspertutako ekonomiarekin, edo alderantziz.
5. Hizkuntzari dagokionez, jatorriek aurreko joerak azpimarratu dituzte. Izan ere, gaztelanirik eta, batez ere, euskararik ez dakitenak ugariago dira laneratzeo zailtasunak eta bertakoekiko urruntasun soziokultural handiagoa dituzten taldeetan, emakume txinatarren taldean salbu; azken horiek erabateko kultura-desberdintasunean bizi diren arren, ez dute laneratzeo inolako arazorik. Horrenbestez, Afrika iparraldeko taldeek eta Saharaz hegoaldekoek bizi dituzte prekarizazio-egoera larrienak, maila guztietan. Lehenengo taldean, Afrika iparraldekoen artean, erlijioak ere eragin handia du; izan ere, kontuan hartuta kultura eta mundu-ikuskera guztietan emakumeak direla beren definizioaren eta

iraupenaren ardatz, pentsa daiteke zailtasunak jartzen dizkietela gizarte-harremanetarako eta beste kulturetara irekitzeko. Dena den, hainbat egoera hauteman ditugu; hau da, jatorri horietako emakumeek talde-arauak esanekotasun-maila handiz betetzen dituzte, baina, aldi berean, haustura isilak baina nabarmenak egiten ari dira.

6. Langile atzerritarren etorrerari esker, hemengo bi egitura-aldaketa kudeatu ahal izan dira (lan-merkatuan sartu diren bertako emakumeen kopuruaren igoera eta biztanleriaren zahartzearen erronka), zenbaitetan gairakualifikazio-erregimenean; hau da, AEI 2010 inkestako datuen arabera, gairakualifikazioa duten emakume immigranteak emakume immigrante guztien %20 izan daitezke. Dena den, gairakualifikazio hori ez da orokorra; izan ere, elkarrizketatutako emakume immigranteen prestakuntza-mailak lanbidez aldatzeko aukera ematen dien arren, funtsean zerbitzuen sektoreko lanbideak dira.
7. Emigratzearen eta beste gizarte eta kultura batzuetan finkatzearen ondorioz, etorkinak, etorkin-taldeak eta haien sendiak aldatu egiten dira. Familia barruko eta familiaz kanpo ko harremanek eta gizarte hartzailak etorkinei buruz dituen ikuspegi, aurreiritzi eta jarreraren feedbackak baldintzatuko dute aldaketa horren emaitza: etorkinek sorterriko ohiturak alde batera utziko dituzte, edo alderantziz, etniaren ohituretan zokoratuko dira, hein batean edo argi eta garbi kaltegarria den ingurunetik babesteko. Zokoratzea ez gertatzeko eta beste kulturetara irekitzea sustatzeko, ezinbestekoa da *baztertutako belaunaldiak* sortzea galaraziko duen eskolaratze-kultura. Horri dagokionez, gure iritziz funtsekoa da emakume immigranteen seme-alabak etorkizunean biztanleria hori baztertuko eta estigmatizatuko ez duen hezkuntza-sisteman sartzea.
8. Emakume immigranteen etorkizuneko proiektua, neurri batean, haien administrazio- eta lan-egoeraren mende dago; hala, hemen finkatuen daudenek eta gizarte-, kultura- eta lan-kapital handiagoa dutenek beren bizitza Euskadin garatu nahi dute, eta aldiz, hain egonkortuta ez dauden pertsonen artean, zabalduago dago jatorrira itzultzeko ideia. Dena den, ohikoagoa da etorri berri diren pertsonen hain denbora luzea daramatenen bide beretik jarraitzea; hala gertatzen da, behintzat, Latinoamerikako emakumeen artean.
9. Etorkizunari dagokionez, gainerako profilei buruzko zenbait salbuespen egin beharko liriteke. Txinako emakumeak oso bide seguruetatik ibiltzen dira, baina endogamikoe-giak, itxiegiak eta ilunegiak dira bide horiek; aldiz, beste bi talde beste muturrean daude: Saharaz hegoaldeko emakumeak eta Errumaniako emakume ijitoak. Hau da, talde horien oinarria ahulagoa da, ia ez baitute laneratzeko aukerarik, eta epe laburrera nahiz ertainera hemen jarraitzeko aukera bakarra diru-sarrerak bermatzeko errentak jasotzen jarraitzearen mende baitago; izan ere, enplegurik ez izateaz gain, familia gurasobakarrak dira eta, askok eta askok, tratu txarrak jaso dituzte. Tartean daude emakume magrebtarrak; emakume horien migrazioa mendekoagoa da, bai kulturari dagokionez bai ezkonbizitzari dagokionez, eta gutxienez, lehenengo belaunaldian, emakume horien gizarteratzea senarrek eta familiek lortzen dutenaren arabera da, neurri handi batean. Gizarteratze hori desorekatua izan daiteke gizonen eta familiek izaten dutenarekin alderatuz. Izan ere, zenbaitetan joko bikoitza erabiltzen dute; hau da, emakumeak integratzea oztopatzen eta galarazten dute, baina gizonen komunitatean parte hartzen dute eta bertakoekin harremanak izaten dituzte, integrazioaren normaltasunean.
10. Nolanahi ere, etorkizuneko proiektua emakumeek beren ondorengoentzat dituzten asmo eta aurreikuspenek baldintzatzen dute. Atal honetan, transferentzia-prozesu bat dagoela hauteman dugu; hala, lehenengo belaunaldiaren gizarteratzea bigarren belaunaldiaren baldintzatuko du, neurri handi batean, haiengan jarri baitituzte beren itxaropen handienak guraso immigranteek, bereziki, amek.

11. Itxaropen horien artean, funtsezkoa da emakumeek familia-egiturarekiko izan duten autonomia alabengan sendotzea; hala, familiaren migrazio-proiektuaren protagonista eta aitzindari izateak aldaketa garrantzitsua eragin du arlo material eta sinbolikoan ere, familiaren diru-iturri nagusi bihurtzeraino. Urruntasun erlatibo hori sendotuta dago edo hasi berria da, eta zenbaitetan, estalita edo ezkutuan dago; hau da, hor dago, baina ez da adierazten.
12. Emakume immigranteen nahiak, aldarrikapenak eta eskaerak aldatu egiten dira bakoitzaren profilaren eta kapital sozioekonomikoaren nahiz kapital kulturalaren arabera. Hau da, hemen egonkortuago dauden pertsonak balio materialez harago dauden bestelako balioak eskatzen dituzte, Atzerritartasun Legea bertan behera uzteaz gain; aldiz, hemen hain egonkortuta ez daudenek egiten dituzten eskaerak materialistagoak dira, hots lana izatea eta, esplizituki adierazi ez duten arren, diru-sarrerak bermatzeko errentari eustea nahi dute. Azken talde horiek bizileku-baimenaren eskaera ere atzeratu egiten dute; nahikoa dute lan-baimena eskatzea eta eskuratzea, epe laburrean migrazioaren helburu zen diru-kopurua ahalik azkarren lortzeko itxaropenak beteko dituen.

Izan ere, oraingoz, haien lehentasuna da jatorriko herrialdera itzultzea eta beraientzat eta beren familientzat etorkizun oparoari hasiera ematea, gure herrialdean lortutako aurrezkien eta soberakinen laguntzaz. Dena den, migrazioan bide luzeagoa egin duten emakumeen bizipenak aintzat hartuta, badakigu gure komunitatean denbora pasatu ahala, gutxitu egiten dela jatorriko herrialdera itzultzeko nahia, eta aldiz, areagotu egiten dela bizileku-baimena lortzeko eskaera, migrazio-proiektua finkatzeko aukera emango diena.

13. Bertako biztanleek onartzen dute emakume atzerritarrek lan-esparruan betetzen duten funtzioa, baina horrek ez du esan nahi haiek egiten duten ekarpena aitortzen dutenik; gainera, hedatuak dauden estereotipoetan oinarrituz, gizarte-zerbitzuen onura handiak jasotzen dituztela uste dute. Hain zuzen, nahita edo nahi gabe, emakume atzerritarrek uste hori indartzen dute, osasun-sistema balioesten dutenean, batez ere.
14. Era berean, mendekotasunaren arazoa gainditzeko betetzen duten funtzioa onartzen da, baina ahal dela ez dute ekonomikoki zehazten ekarpen hori; izan ere, ekarpen hori positiboki baloratzeak emakume atzerritar immigranteak onartzea ekarriko luke zuzenean. Eta antza, oraindik ez da eman nahi emakume immigranteek lan-esparruan duten parte-hartzea ekarpen ekonomiko bihurtzeko urratsa.
15. Irudien jolas bat dago; hau da, batzuen iritziz, emakume immigranteak matxistak, interesatuak, ezjakinak, gezurtiak, axolagabeak eta ezgaiak dira, eta beste batzuen iritziz, atseginak eta langileak.
16. Beharrezkoa da KULTURA-EZBERDINTASUNAREN faktoreei ahal den neurrian aurre egiteko estrategiak bilatzea, bertako biztanleen artean begikotasun-maila txikiena duten taldeetako emakumeak zigortzen baititu. Era berean, ESTIGMA vs. GHETTO faktoreari aurre egin behar zaio, gehien estigmatizatuta dauden emakumeen profilak (Errumaniakoak, EB ekialdekoak...) eta itxiztat hartzen ditugun emakumeen profilak (Txinakoak, Asiakoak...) kontrajartzen baititu.

EAEEn bizi diren emakume immigranteen errealitatea aztertuz, jabetu gara badirela lan egiteko zenbait eremu, emakume atzerritar immigranteek gurean jasaten dituzten zenbait egoera hobetzen laguntzeko. Hona hemen zenbait proposamenen zirriborroa:

1. Lehenik eta behin, bertako biztanleen artean zabaldurik dauden aurreiritzi eta estereotipo negatiboak aipatu behar dira; aurreiritzi horiek ez dagozkie emakume immigranteei soilik, gizonei ere eragiten baitiete. Ikusi dugunez, ohikoa da euskal biztanleriaren artean errealitatearen desitxuratzeak aurkitzea, besteak beste: immigrazioa eta herritarren segurtasun eza lotzea; emakume immigranteei leporatzea gure ongizate-gizarteaz baliatzen direla edota gure gizarteari egiten dioten ekarpena baino gehiago jasotzen dutela; emakumeen immigrazioa eta prostituzioa lotzea, batez ere Saharaz hegoaldeko emakume beltzen artean; eta abar.

Aurreiritzi eta estereotipo horiei aurre egiteko ekintzak behar dira, eta horretarako, beharrezkoa da iritzi publikoa gai horien inguruan sentsibilizatzea. Garrantzitsua da irudimenezko beste aukera batzuk pentsatzea eta komunikazio-mekanismoak abian jartzea, pentsatzeko moduak eskura ditugun datuek adierazitako errealitatera doitzeko.

Emakume immigranteei dagokienez, bereziki lazgarria da haiek gure gizarteari egiten dioten ekarpenaz euskal gizarteak duen pertzepzio urria.

Horri dagokionez, tokian-tokian lan egitea proposatzen da, erantzukizun politikoa duten pertsona guztiak nahiz teknikariak sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko. Lan-eredu bat mintegi jarraituak antolatzea izan daiteke, udal-gobernuarekin, udalbatza osatzen duten alderdi politikoeekin, teknikari-taldeekin eta, oro har, herritarrekin eta elkarteekin.

2. Aurreiritziei eta estereotipoei dagokienez, immigrazioaren esparruan dugun esperientzia aintzat hartuta, esan dezakegu aurreiritzi horiek taldeekin lotzen direla funtsean, ez hainbeste norbanakoekin. Horri dagokionez, gure iritzi garrantzitsua da immigranteen eta bertako biztanleen arteko **elkarreragina eta harremanak sustatzea eta bultzatzea**.

Garrantzitsua da jendea kontzientziatzea, batez ere erantzukizun publikoak dituzten pertsonak, elkarbizitza eraginkorra, hartu-eman eta ingurukoekiko harremanak lortzeko estrategiak hartzearen premiaz; azken batean, hainbat pertsona-talderen arteko kulturartekotasuna garatzeko estrategien premiaz kontzientziatu behar dira.

Hau da, bertako herritarren eta immigranteen arteko elkarbizitza eraginkorra eta hartu-eman sustatzeko (ez behartzeko) jarduerak antolatu beharko lirateke; hau da, kulturartekotasuna sustatzeko jardunaldiak, jaiak, topaketak edota foroak antolatzeaz harago joan behar da, ekintza horiek mugak baitituzte kulturartekotasuna sustatzeari dagokienez.

Emakumeak eta immigranteak oinarri dituzten foroak bide egokiak izan daitezke euskal gizartean **kulturartekotasunerako programak** sustatzeko.

3. Emakume immigranteei eragiten dien beste arazo bat funtsean beren bikoteengandik edo familiengandik jasotzen dituzten tratu txarrak dira, fisikoak nahiz psikikoak. Zenbaitetan, ikusi dugu emakumeek berek zailtasunak dituztela arazo hori hautemateko, bai eta horrelakorik ez gertatzeko eta/edo horri aurre egiteko zer bide dauden edo zer urrats eman ditzaketan jakiteko ere.

Tratu txarrei aurre egiteko, gure iritzi beharrezkoa da **emakume immigrantei heziketa eta informazio egokia emateko** neurriak hartzea. Hezi egin behar dira, norbana-

ko gisa zer eskubide dituzten jakin dezaten eta norberaren nahiz inguruko tratu txarren egoerak identifikatzeko gai izan daitezen; era berean, informazioa eman behar zaie, egoera horri aurre egiteko zer neurri hartu behar dituzten jakin dezaten.

Ildo horretan, **tratu txarren aurkako programak** abian jartzea proposatu da, bi helburu horiek dituztenak. Emakume immigranteak berak hezitzaileztat, bitartekarizat eta eragile biderkatzailizat erabiltzen dituen **“elur-bola”** metodologia interesgarria izan daiteke; izan ere, emaitza onak eman ditu beste zenbait arlotan, adibidez: Bilboko Udalean, bertako gazteen artean droga-kontsumoren arriskuak kudeatzeko prestakuntza- eta informazio-programak –URBAL - ADI! programa–; eta EAEn, haurren eta gazteen kirolean indarkeriaz sentsibilizatzeko eta horri aurre hartzeko programak –Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren mendeko Kirolalde euskal batzordeak kirolean indarkeria erabiltzearen aurka garatutako ekintzak–.

4. EAEn bizi diren emakume immigranteen errealitatea aztertzeari esker, erlijio-ohiturek eta -sinesmenek emakume horiengan betetzen duten funtzio bikoitzaz jabetu gara. Alde batetik, erlijio-ohiturek eta -sinesmenek eragin positiboa dute haiengan, gauzak argi izateko eta beren artean biltzeko aukera ematen baitie, eta horrela, hobeto jasan baititzakete migrazioak sortutako nahigabeak. Hau da, kohesio-faktore gisa, gizarte- eta talde-funtzio garrantzitsua betetzen du.

Baina bestetik, emakumeen aurkako arma arriskutsua da, emakumea taldearen kultura- eta identitate-garbitasunaren gordailutzat hartzen duen erlijioa praktikatzan duten taldearen artean, bereziki; talde horietan, emakumea gizonaren mende eta esanera egoten da. Horri dagokionez, garrantzitsua da sekularizazioaren eta laikotasunaren bidean aurrera egin nahi duen gizarte batean (adibidez, gurean), euskal herritarren banakako eskubideei dagokienez atzera ez egitea; bereziki, emakume immigranteen eskubideei dagokienez, askotan gabetzen baitituzte eskubide horiez.

Botere publikoek zaindari-lana egin behar dute, eta erlijio-sinesmenen artean elkarrizketa eta hartu-emana sustatu behar dute, baina betiere gure gizartean erlijioaren eta legearen artean dagoen banaketa argi utzita; hain zuzen, lehenengoa esparru pribatuari dagokio, eta bigarrena, esparru publikoari. Esparru pribatuan, pertsona orok berak nahi duen erlijioa praktikatzeko eskubidea errespetatu behar da, baina esparru publikoan, oro har pertsona guztien eta, bereziki, emakumeen banakako eskubideak lehenesten dira eta lehenetsi behar dira. Ezin dugu onartu pertsona-talde txikiek (gehienak gizonez osatutakoak), erlijioa argudiotzat hartuta, herritarren talde handien eta, bereziki, emakume immigranteen esanekotasuna eta mendekotasuna eskatzea.

Horri dagokionez, interesgarria da Eusko Jaurlaritzak hasitako bidean aurrera egitea. Hau da, EAEn udalerrri nagusiek parte hartuko duten **hausnarketa-talde bat** bultzatu behar da, **erlijio-sinesmen nagusiak ordezkaturata egongo direna**; horren bidez, erlijio horiei ez zaie utziko dagokien lekua eta eragin-eremua (esparru pribatua) gainditzen, ez eta beren eskumenekoak ez diren arloetan lehiatzen ere. Ezbairik gabe, garrantzitsua da Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak ezaugarri horiek dituen talde batean parte hartzea.

Foro horretan, bereziki garrantzitsua litzateke pertsonen banakako eskubideak erlijio-sinesmenen gaineratik daudela azaltzea eta emakume atzerritar immigranteei eragiten dieten bazterketa-egoerei eta eskubide-urraketei arreta berezia jartzea.

5. Azterketaren arabera, desberdintasun handiak daude emakume atzerritar immigranteen hainbat taldek bizi duten egoeraren artean. Bereziki larritu gaitu emakume hauek bizi duten egoerak: Saharaz hegoaldeko emakume beltz askok, gaztelaniaz (edo euskaraz)

hitz egiteko zailtasunak dituztenek; egoera irregularrean dauden zenbait emakume magrebtarrek, hizkuntza-arazoak dituztenek, beren etxean gehiegi babesten direnek eta autonomia gutxi dutenek; eta emakume errumaniar ijitoek, beren taldetik kanpo hitz egiteko eta harremanak izateko arazoak dituztenek.

Emakume-profil horiek jada gainditu dute gizarte-bazterketako egoeran argi eta garbi sartzeko arrisku-eremua. Zailtasun handiak dituzte lan-merkatuan sartzeko, emakume latinoamerikarrak (kaukasiarrak) eta gaztelaniaz (edo euskaraz) hitz egiteko gai direnak eskatzen baititu merkatuak, Euskadiko etxeetan (pertsonak zaintzen edo etxeko lanak egiten) edota ostalaritzan eta merkataritzan lan egiteko.

Funtsezkoa da talde horietarako enplegu- eta laneratze-politika aktiboak hartzea, bestela oso gaztetatik (gehienak emakume gazteak dira) kroniko bihurtuko da gizarte-laguntzak eskatzeko joera (irakurri diru-sarrerak bermatzeko errenta).

Lehenengo neurria EAEko bi hizkuntza ofizialetako bat berehala eta ongi ikastea da, ezinbesteko baldintza lan-merkatuan lehiakor izateko; izan ere, jakin badakigu Euskadiko etxeetan lan egiteko estetika hau lehenesten dutela: emakume latinoamerikarra, kaukasiarra eta gaztelaniaz (edo euskaraz) hitz egiten duena. Horrenbestez, funtsezkoa da talde horientzat **gaztelaniako eta/edo euskarako ikastaro intentsiboak eskaintzea**.

Ekimen hori onuragarria izango da emakume-profil horientzat ere, nahiz eta laneratzeko asmorik ez izan (adibidez, zenbait magrebtarrentzat edo errumaniarrentzat); izan ere, baliagarria izango da beren autonomia handitzeko, horrela ez baitira beste pertsona batzuen (aita, senarra, semeak) mende egongo helmugako komunitatearekin (pertsonak nahiz erakundeak) harremanak izateko.

Lanbide gizarte-laguntzak kudeatzen hasi aurretik udaletan izandako esperientziari esker, EAEko hizkuntzak ikastea sustatzeko eredu batzuk ditugu; zenbait udalerritan, gizarte-laguntza jasotzeko aukera gure hizkuntzen ikaskuntza egiaztatzearekin lotuta egon da. Bide hori egokia izan daiteke emakumeen artean hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko eta arrazoitzeko, bai eta inguruan dituzten jokabide murriztaileak baliogabetzeko ere.

6. Azterketa honen bidez, beste gai bat ere jarri da mahai gainean: emakume immigranteen kopuru handi batek bizi duen **gainkualifikazio**-egoera; dena den, ezin da esan aurkikuntza berria izan denik.

Fenomeno hori ez dagokio emakumeei soilik, gizonei ere eragiten baitie; era berean, fenomeno hori ez da immigranteen artean soilik gertatzen, hemengo herritarrek ere bizi dute egoera hori. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Gaietako Sailaren AEI 2010 estatistika-lanak prestakuntzari eta lanari buruz emandako datuen arabera, emakume atzerritar immigranteen %20 dago, gutxi gorabehera, gainkualifikazio-egoera horretan (unibertsitateko edo lanbide-heziketako prestakuntza izan arren, ez dute maila horretako lanik).

Oso ekimen interesgarria da Bilboko Udala egoera larri hori arintzeko gauzatzen ari den ekimena: Europako *Realise* programaren baitan sartzen den "Izoko Proiektua". Ekimen hori, hain zuzen, dagokien arloan arrakastaz laneratu diren **emakume immigranteen** (tutoreak) eta oraindik beraiei dagokien lana lortu ez duten emakumeen **arteko mentoring-jardueretan** oinarritzen da. 2012. urtean, esperientzia pilotu bat egin dute, eta bertan, 11 tutorek eta 12 tutoretzapekok hartu dute parte; ekimenak aurrera jarrai dezake 2013. urtean ere, parte-hartzea 50 tutoretzapekora zabalduz.

Ekimena Bilbon garatu da, baina EAEko udalerrri nagusietara ere heda daiteke: Donostia, Vitoria-Gasteiz, Barakaldo, Getxo, Leioa, Irun, Arrasate, Laudio, etab.

7. Aintzakotzat hartu behar dugu etorkizuneko belaunaldiekin –emakume immigranteen seme-alaben etorkizunarekin– zerikusia duen oro. Eta noski, etorkizun horretan, funtsezkoa izango da prestakuntza- eta heziketa-prozesua. Horri dagokionez, gauza asko (eta ondo) egiten ari dira, baina gure iritziz, heziketa-arloan ardura handiz jokatu behar da; izan ere, neurri handi batean, heziketa horren arrakastaren mende egongo da immigranteen gizarteratzearen arrakasta, eta ondorioz, baita gure komunitatearen gizarte-kohesioaren maila ere.

Arreta handiz jokatu behar dugu, pertsona horiek, etorkizunean, gizarte guztiz demokratiko batean ezinbestekoa den bidezko gizarte-mugikortasuna izan dezaten.

Gure ustez, bertako biztanleria eta immigranteak bereiziko ez dituen hezkuntza-sistema behar dugu. Eta beraz, ezin dira banandutako hezkuntza-zentroak egon; hau da, ikasleen jatorriaren arabera hezkuntza- eta hizkuntza-eredu desberdinak dituztenak. Era berean, ezin dira ghettoak sortu; hau da, ikasle immigranteen eta bertako ikasleen banaketak euskal gizartean dagoen banaketaren isla izan behar du.

Arretaz jokatu behar da, hezkuntza-sistemaren bidez **emakume immigranteen seme-alabei heziketa egokia bermatzeko**, Euskadiko gainerako biztanleekin berdintasunean egoteko aukera emango diena.

8. Azterketan azaldu den azken gaia asiar jatorriko emakumeen ezohiko egoera izan da; antza, ez dute laneratzeko arazorik (emakume horien %80k lan egiten du), ez eta gizar-te-bazterketako arazorik ere.

Hala ere, talde horien atzean dagoen iluntasuna eta itxitasuna kezka-iturri dira. Oso zaila da emakume horiengana iristea, beren gizarte-taldean irmotasuna eta helmugako gizar-tearekin edo beste taldeekin harremanak izateko egiten diren saiakerekiko agertzen duten jarrera itxia direla eta.

Ez dirudi beren artean arazo larriak dituztenik, baina agerikoa da gaztelaniaz (edo euskaraz) hitz egiteko duten zailtasuna; horrenbestez, mendekotasun handiegia dute beren taldearekiko, eta horrek, noski, asko mugatzen du beren autonomia pertsonala eremu horretatik kanpo.

Gure ustez, talde horiek irekitzea bultzatu behar da, nahiz eta kultura horien ezaugarri nagusia itxitasuna izan; talde barruko kohesio handia dute, eta talde arteko hartu-eman gutxi harrerako komunitateekin.

Horretarako, **lan diplomatikoa** proposatu da, goi-mailako erakundeetatik hasi eta lekuan bertan lanean ari diren pertsonetara arte; hau da, kultura arteko bitartekarien, udaletako teknikarien eta hirugarren sektoreko gizarte-eragileen laguntzaz. Egun dau-den foroak balia daitezke, baina helburu espezifikotako batek izan behar du asiar jatorriko emakume immigranteen taldeekiko komunikazio eta elkarreragin zuzena izatea.

Emakumeekin harreman zuzena izanez eta haien benetako arazoibideak eta premiak ezagutuz soilik bermatuko dugu haien banakako eskubideak eta askatasunak babestea, eta garapen pertsonalaren proiektua errespetatzea.

8

BIBLIOGRAFIA

- Achotegui, J. (2002), *La depresión en los inmigrantes. Una perspectiva transcultural*. Bartzelona. Mayo argitaletxea.
- Aierdi, X. y Moreno, G. (2011), *Anuario de la inmigración en el País Vasco 2010*. Ikuspegi@k. Immigrazioaren Euskal Behatokia.
- Amara, F. (2004), *Ni putas ni sumisas*, Cátedra, Madril.
- Arellano, M.J. (2006), "Trabajadoras latinoamericanas en España: migraciones laborales y género", *Cuadernos de relaciones laborales*, 41, 151-179
- Bañon Hernández, A. M. –Arg.–. (2008), *Comunicación, empleo y mujer inmigrante*, Tercera Prensa-Hirugarren Prentsa, Donostia
- Basabe, N., Páez, D., Aierdi, X., eta Jiménez-Aristizabal, A. (2009), *Salud e inmigración. Aculturación, bienestar subjetivo y calidad de vida*. Gipuzkoa: Immigrazioaren Euskal Behatokia.
- Beltrán, E. eta Maquieira, V. V. (2001), *Feminismos. Debates políticos contemporáneos*, Alianza, Madril
- Benhabib, S. (2006), *Las reivindicaciones de la cultura. Igualdad y diversidad en la era global*, Katz, Buenos Aires
- Benhabib, S. eta Resnik, J. –Arg.–. (2009), *Migrations and mobilities. Citizenship, borders and gender*, New York University Press, New York
- Blanco, C. (2000), *Las migraciones contemporáneas*. Madril. Alianza Editorial.
- Calavita, K. (2006), *Gender, migration, and law. Crossing borders and bridging disciplines*, en *International Migration Review*, vol. 40, 1 zbk., 104-132
- Calonge, F. (2009), "Inmigración femenina en Madrid. La incorporación a la ciudad de las mujeres inmigrantes latinoamericanas", *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 32, 1115-1133.
- Caritas Internationalis (2012), *El rostro femenino de la migración*, Madril, Lanerako dokumentua.
- Carrasco, C. (1991), *El trabajo doméstico y la reproducción social*, Madril. IMU.
- Castles, S. eta Miller, M. (1998), *The Age of Migration*. New York. The Guilford Press.
- Colectivo IOE, (2000) "Aproximación a los proyectos migratorios de las mujeres migrantes en España", en María Angels Roque, *Mujer y migración en el Mediterráneo occidental: tradiciones culturales y ciudadanía*, Bartzelona: Icaria. 153-180
- Colectivo IOÉ. (2001), *Mujer, inmigración y trabajo*, Instituto de Migraciones y Servicios Sociales, Madril
- Coordinadora española para el Lobby Europeo de Mujeres (CELEM), (2004), *La integración laboral de las mujeres inmigrantes. ¿Una oportunidad para la igualdad?*, CELEM, Madril
- Criado, M. (2001), *La línea quebrada*. Madril. Consejo económico y social.
- CSIC. (2010), *Informe sobre envejecimiento* Fundación General CSIC noviembre 2010. Hemen eskuragai: <http://www.imsersomayores.csic.es>

- Elejabeitia, C. (2006), *Mujeres inmigrantes en la educación de las personas adultas*, CIDE-Instituto de la Mujer, Madrid
- Engle, L. B. (2004), *The world in motion. Short essays on migration and gender*, Organización Internacional para las Migraciones (OIM), Ginebra
- European Women's Lobby (2007), *Equal rights, equal voices. Migrant women in the European Union*, European Women's Lobby, Bruselas
- Fondo de Población de las Naciones Unidas (FNUAP), (2006), *Estado de la población mundial 2006. Hacia la esperanza. Las mujeres y la migración internacional*, FNUAP, New York
- González, H. (2007), *Familias y hogares transnacionales: una perspectiva de género*, en Puntos de Vista, 11 zbk., 7-27
- Gregorio, C. (1998), *Migración femenina. Su impacto en las relaciones de género*, Narcea, Madrid
- Gregorio, C. eta Ramírez A. (2000), "¿En España es diferente...? Mujeres inmigrantes dominicanas y marroquíes", *Papers*, 60, Bartzelona, 257-273
- Guerrero, T. (2006), "Inmigración femenina y servicio doméstico: resurgimiento de un régimen especial de seguridad social decadente", *Revista universitaria de ciencias del trabajo*, 7, 23-46
- Ikuspegi (2008), Barómetro 2008. *Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera*. Bilbao: Ikuspegi.
- Ikuspegi (2007), Barómetro 2007. *Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera*. Bilbao: Ikuspegi.
- Ikuspegi (2009), Barómetro 2009. *Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera*. Bilbao: Ikuspegi.
- Ikuspegi (2010), Barómetro 2010. *Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera*. Bilbao: Ikuspegi.
- Ikuspegi (2011), Barómetro 2011. *Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera*. Bilbao: Ikuspegi.
- Innobasque (2011), Euskadi envejece. Hemen eskuragai: <http://www.innobasque.com/home.aspx?tabid=1058&idElementoBiblioteca=185>
- Izquierdo, A. (1995), *La inmigración inesperada*, Trotta, Madrid.
- Joly, D. –Ed.– (2004), *International migration in the new millennium. Global movement and settlement*, Ashgate, Aldershot
- Juliano, D. (2006), *Excluidas y marginales. Una aproximación antropológica*, Cátedra, Madrid
- Lacomba, J. eta García Roca, J. –Arg.– (2008), *La inmigración en la sociedad española. Una radiografía multidisciplinar*, Bellaterra, Bartzelona
- Loroño, J.J., Izurieta, C. (2006) "Diagnóstico y plan de previsión social complementaria en Euskadi", *Boletín de estudios económicos*, vol. 61, 51-62
- Maquieira, V. –Ed.– (2006), *Mujeres, globalización y derechos humanos*, Cátedra, Madrid

- Marçinez, S. (2003), "Mujeres al borde de la igualdad: La inmigración femenina como contribución a la igualdad entre los sexos", *Anuario de filosofía, psicología y sociología*, 6, 213-222
- Martín, M.J., Moreno, G. eta Fullaondo, A., (2012), *Mujer inmigrante en la CAE 2010*, Ikuspegi, Bilbao, 2012.
- Moreno, G., Fullaondo, A. eta Martín, M.J. (2012), *Mujer inmigrante en la CAPV*, Bilbao: Ikuspegi. Hemen eskuragai: http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/investigacion/es/mujer_inmigrante_capv_2010.pdf
- Moreno, R. eta Adelantado, José, (2005), "Ciudadanía y estado del bienestar: la inmigración femenina en España", in Carlota Solé Puig, Lluís Gonzaga Flaquer Vilardebó, *El uso de las políticas sociales por las mujeres inmigrantes*, 69-96
- Morrison, A. R., Schiff, M. eta Sjöblom, M. –Arg.–, (2008), *The international migration of women*, The World Bank
- Moyerman, D. R. eta Forman, B. D. (1992), Acculturation and adjustment: A meta-analytic study. *Hispanic Journal of Behavioral Sciences*, 14 (2), 163-200 aipatuta in Collazos F., Qureshi A. Estrés aculturativo y salud mental en la población inmigrante, *Papeles del Psicólogo*, Vol 29, 3 Zbk., iraila-abendua, 2008, 307-315.
- Nash, M. (2000), *Inmigración, género y espacios urbanos: los retos de la diversidad*, Bellaterra, Bartzelona
- Nash, M. eta Narre, D. (2003), *El desafío de la diferencia: representaciones culturales e identidades de género, raza y clase*, EHU, Bilbao
- Ortiz-Osés, A. eta Mayr, F. K. (1980), *El matriarcalismo vasco: reinterpretación de la cultura vasca*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.
- Parella, S.(2005) "La maternidad a distancia de las empleadas domésticas latinoamericanas en España", a: *El género quebrantado. Sobre la violencia, la libertad y los derechos de la mujer en el nuevo milenio* (arg. J. Giró), Madril: Los Libros de la Catarata.
- Parella, S. (2009), "Políticas públicas de género y mujer inmigrante" A: R. Zapata (arg.) *Inmigración en España: claroscuros de las políticas y gobernabilidad*. Madril: Ariel
- Parella, S. (2003), *Mujer, inmigrante y trabajadora: la triple discriminación*, Anthropos, Bartzelona
- Parella, S. (2005), "Segregación laboral y vulnerabilidad social de la mujer inmigrante a partir de la interacción entre la clase social, el género y la etnia", a: *El uso de las políticas sociales por las mujeres inmigrantes* (arg. Lluís Flaquer i Carlota Solé), Madril: Instituto de la Mujer.
- Parella, S. (2007) "Mujeres inmigrantes en el mercado de trabajo español. La división internacional del trabajo reproductivo", a: *Mujeres, instituciones y política* (arg. I. Diz i M. Lois), Bartzelona: Edicions Bellaterra.
- Parella, S. (2009) "Desigualdades de género. Jóvenes inmigrantes. Tomo 5. In: AA.VV. *Informe Juventud en España 2008*. Madril: INJUVE
- Parella, S. (2009) "Aplicación de los campos sociales transnacionales en los estudios sobre migraciones" A: Solé, C; Parella, S.; Cavalcanti, L. (arg.) *Nuevos retos del transnacionalismo en el estudio de las migraciones*. Madril: Observatorio Permanente de la Inmigración (OPI)

- Pedone, C. (2007), "Familias transnacionales ecuatorianas: estrategias productivas y reproductivas". En Bretón, Víctor; García, F.; Jové, A. eta Vilalta, M. J. (arg.). *Ciudadanía y Exclusión: Ecuador y España frente al espejo*. Madrid: Ediciones de La Catarata.
- Pedone, C. (2008), "'Varones aventureros' vs. 'Madres que abandonan': reconstrucción de las relaciones familiares a partir de la migración ecuatoriana", *REMHU. Revista Interdisciplinar de Movilidad Humana*, XVI urtea, 30 zbk., 45-64.
- Pedone, C. eta Gil, S. (2010) "Políticas de migración familiar en Europa. El gobierno de la inmigración a través de las familias". In Pedreño, Andrés et al (koord.) *Tránsitos migratorios. Contextos transnacionales y proyectos familiares en las migraciones actuales*. Murcia: Universidad de Murcia.
- Pedone, C. eta Gil, S., (2008) "Maternidades transnacionales entre América Latina y el Estado español. El impacto de las políticas migratorias en las estrategias de reagrupación familiar". In Solé, Carlota; Parella, Sònia Calvancanti, Leonardo. *Nuevos retos de transnacionalismo en el estudio de las migraciones*. Madrid: Observatorio Permanente de la Inmigración-Ministerio de Trabajo e Inmigración.
- Pérez Orozco, Amaia, (2005), "Amenaza tormenta: la crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico", Lanerako dokumentua.
- Pérez Orozco, Amaia, (2010) "Diagnóstico de la crisis y respuestas desde la economía feminista", *Revista de Economía Crítica*, 9, 2010, Madrid.
- Posso, J. eta Urrea, F. (2007), "La migración internacional y los cambios en las relaciones de género y estructuras de los hogares: la migración colombiana hacia España", *Papers*, 85, 109-133
- Ribas, N. (1999), *Las presencias de la inmigración femenina: un recorrido por Filipinas, Gambia y Marruecos en Cataluña*, Icaria, Barcelona
- Ribas, N. (2000), "Inmigración femenina en el sur de Europa", *Papers*, 60, 13-34
- Sáez de la Fuente, I. (2008), *Género e inmigración. Encuesta de Ikuspegi a la población extranjera 2007*, Ikuspegi, Bilbao
- Solé, Carlota eta Parella, Sonia (2006), "Una revisión de la posición de las mujeres inmigrantes no comunitarias en el mercado de trabajo español", *Sistema*, 190-191, Madrid, 193-215.
- Sutcliffe, B. (2005), *100 imágenes de un mundo desigual*, Intermón Oxfam, Madrid.
- Tobío, C. (et al.) (2010), *El cuidado de las personas. Un reto para el siglo XXI*, La Caixa, Barcelona
- Touraine, A. (2005), *Un nuevo paradigma. Para comprender el mundo de hoy*, Paidós Ibérica, Barcelona
- Vicente, T. (2003), "España 'país de inmigración femenina'", *Letras de Deusto*, Deustuko Unibertsitatea, 137-172.
- Vicente, T. (2003), "La inmigración femenina en la Comunidad Autónoma del País Vasco", in María Luisa Setién Santamaría, *Problemas de las mujeres, problemas de la sociedad*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 139-180

- Vicente, T. (2006), "Importancia de los flujos migratorios de mujeres", in C. Blanco (arg.), *Migraciones. Nuevas moviidades en un mundo en movimiento*, Bartzelona, Anthropos, 206-233.
- Vicente, T. eta Royo, R. *Mujeres al frente de familias monoparentales*, Bilbao, Deustuko Unibertsitatea.
- Vidal, E. eta Vono, D. (2011), La inserción de las mujeres inmigradas en el mercado de trabajo español", *Documents d'anàlisi geogràfica*, Vol. 57, 3 zbk., 563-573
- Vila, J.M. eta Vila, C. (2005), *Mujeres del mundo. Inmigración femenina en España hoy*, Imagine Ediciones, Madril
- Villota, P. (1999), *Globalización y género*, Síntesis, Madril
- VV.AA. (2006), *Estudio mundial sobre el papel de la mujer en el desarrollo. 2004. La mujer y la migración internacional*, ONU, New York
- Ward, C., Bochner, S. eta Furnham, A. (2001), *The psychology of Culture Chock*. East Sussex: Routledge.

9

ERANSKINA

ATARIKOA: AZTERKETAREN ETA BEGIRUNEREN AURKEZPEN LABURRA

- Geure burua aurkeztu eta Begiruneren aurkezpen labur bat egingo dugu.
- Egiten ari garen azterketaren laburpen txiki bat egingo dugu.

1. Norberaren eta jatorriko herrialdeko familiaren aurkezpena

- Izena, jatorria, zer herrialdetik datorren
- Familiaren deskripzioa: gurasoak, neba-arrebak, bikotekidea, seme-alabak, lagunak...
- Norekin bizi zen, eta non
- Zer bizimodu zeraman; kontaktu dezala bere bizitza pixka bat: gurasoek zertan lan egiten zuten, zer haurtzaro izan zuen, gaztaroa, zer ikasi zuen...
- Garrantzitsua eta gai guztiari dagokiona: zer rol betetzen zuten emakumeek bere jatorriko lurraldean

2. Jatorriko herrialdean inguruan zituen pertsona helduak eta han bizi zuen egoera pertsonala

- Zer egoera bizi zuen jatorriko herrialdean: zertan egiten zuen lan, zeri esker bizi zen, non, norekin; esan familiari buruzko gauzak kontatzeko, lagunei buruzkoak, etab.
- Zer ematen zion bere gizarte-inguruak
- Nola sentitzen zen; esan bere sentimenduak deskribatzeko eta horiei buruz hitz egiteko: bere ametsak, nahiak, beldurrak, kezak, etab.
- Nola ikusten zuen etorkizuna
- Garrantzitsua: zer eskaintzen zien beren inguruneak emakumeei, diskriminatu egiten al zituen? Berdintasunean oinarritutako etorkizuna eskaintzen al zien?

3. Irteteko erabakia hartzeko prozesua

- Nolakoa izan zen etxetik irten eta emigratzeko erabakia hartzeko prozesua
- Zer fase dituen
- Nola hasi zen, nola sortu zen bertatik irteteko ideia
- Zer pertsonak esku hartu zuten prozesuan, nork izan zuen eragina eta nola
- Zenbat iraun zuen prozesu horrek: ideia sortu zenetik gauzatu zen arte
- Nola hartu zen erabakia
- Prozesuan zer oztopori aurre egin behar izan zien; emigrazioari dagokionez, zerk ematen zion beldurra
- Prozesuan zehar zer pizgarri izan zituen; zerk bultzatu zuen emigratzera
- Garrantzitsua: zer sentitzen den prozesu horretan, zer sentimendu sortzen diren fase bakoitzean, zer oroitzapen dituen

4. Hasierako aurreikuspenak

- Jatorrian zer bizi-itxaropen zituen, zer espero zuen bizitzaz bere jatorriko herrialdean
- Zer aurreikuspen zituen handik irteteko eta emigratzeko erabakia hartu zuenean: zer lortzeko itxaropena zuen, bere bizitza nolakoa izatea espero zuen
- Prozesuaz zer espero zuen
- Zerk bultzatu zuen aurrera jarraitzera

5. Migrazio-prozesua

- Migrazio-prozesuaren kontakizuna, labur-labur, jatorriko herrialdetik irten zenetik hasita
- Ez dute hainbeste axola bidaiako xehetasunek, ez eta aurrez egondako lekuek ere; garrantzitsuena sentimenduak dira
- ZERGATIK joan zen leku batera, eta ez beste batera
- ZERGATIK aldatu zuen lekuz,
- NOLA sentitu zen prozesu hartan,
- NOLA aldatu zen prozesu hartan,
- NOLA hartzen zuten berekin lan egiten zuten pertsonak, tokian tokikoek edo immigranteek
- Emakume den aldetik, zer egin zaion deigarria prozesutik

6. Euskadira iristea

- Zergatik hautatu zuen leku hau
- Zer helburu zuen Euskadin
- Nola dagoen hemen
- Nola sentitzen den
- Euskaditik zer gustatzen zaion gehien
- Euskaditik zer gustatzen zaion gutxien
- Hemen jarraituko duen edo beste leku batera joango den
- Zergatik geldituko den bertan edo zergatik joango den
- Zer aurreikuspen dituen orain Euskadin
- Zertan aldatu diren lehen zituen aurreikuspenak eta orain dituenak
- Nola hautematen dituen bertako biztanleak
- Nola hautematen dituen Euskadin bizi diren beste immigranteak: nola sentitzen diren
- Bere ustez, nola hautematen duten bera bertako pertsonak

7. Oraina Euskadin

- Bere egungo bizitzaren kontakizuna: administrazio-egoera, familia, lagunak, lana, dirua, etab.
- Esan hemen bere bizitza nolakoa den kontatzeko
- Esan hemen nola sentitzen den kontatzeko
- Zer gauza aldatu diren Euskadira iritsi zenetik
- Nola aldatu diren bere sentimenduak Euskadira iritsi zenetik
- Nola aldatu diren bere aurreikuspenak Euskadira iritsi zenetik
- Zer iritzi duen Euskadiko emakumeei buruz
- Emakume gisa, zertan aldatu den
- Prozesu guztia nola baloratzen duen (alde onak, alde txarrak)

8. Etorkizuna

- Nola ikusten duen etorkizuna Euskadin
- Nola ikusten duen bere burua Euskadin etorkizunean
- Nola azalduko lituzkeen bere sentimenduak etorkizunera begira
- Zer desira dituen, ametsak, nahiak
- Zer etorkizun izatea nahiko lukeen
- Errealista izanda, nola irudikatzen duen bere etorkizuna hemendik 20, 25 edo 30 urtera: nola ikusten duen bere burua hainbat arlotan: familia, lana, lagunak, egoera ekonomikoak, bizilekua, etab. Esan egoera deskribatzeko, film bateko eszena bat balitz bezala: nola dagoen jantzita, nola sentitzen den, norekin bizi den, norekin dagoen, zer harreman

dituen, bikotekiderik duen, seme-alabarik, nolakoak diren, non lan egiten edo ikasten duten, non bizi den, nolako etxea duen, etab.

- Errealista izanda, galdetu nola ikusten duen bere seme-alaben etorkizuna, bereziki, alaben etorkizuna: esan etorkizun hori deskribatzeko, alabak bereziki aintzat hartuz: zer irabazi eta galdu duten beren jatorriko herrialdean izango zuten etorkizunarekin alderatuz, zer desberdintasun eta antzekotasun dauden bataren eta bestearen artean
- Errealista izanda, esan kontatzeko bere ustez zer etorkizun izango duten bere alabek; lehen bezala, esaiozu film baten antzera kontatzeko, ahalik eta xehetasun gehien emanenez, eta haien sentimenduetan eta betetzen duten funtzioan arreta berezia jarritz.

9. Prozesua hobetzen duten ekintzak

- Zeren hutsunea sentitu duen migrazio-prozesu guztian
- Zer hutsune aurkitzen duen etorkizunera begira
- Zer egin dezakeen euskal administrazioak migrazio-prozesua errazteko
- Zer egin dezakeen euskal administrazioak bere egoera pertsonala hobetzeko

Bera administrazioan egongo balitz, hau da, alkatea, parlamentarioa edo lehendakaria balitz:

- Zer egingo zukeen bere egoeran dauden emakumeen alde
- Zer egingo zukeen bere egoeran dauden emakumeen alaben alde
- Bere ustez, zer ekintza izango litzatekeen behar-beharrezkoa abian jartzea haiei laguntzeko
- Zer programa izain daitekeen lagungarri bera bezalako emakumeentzat

EMAKUNDE

ATZERRIKO EMAKUME IMMIGRARIEN GANAKO PERTZEPZIO ETA JARRERAK

**EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO
SOZIOLOGIKOEN KABINETEAREN GALDEKETA**
Telefonoz egina

1.- Esaidazu, mesedez, **zenbateraino ados edo desados zauden** ondoko esaldien edukiarekin (erabat ados; ados; ez ados, ez desados,desados, erabat desados):

	EA	A	EA,ED	D	ED	ED
a) Atzerriko emakumeen etorrerak beste era batera bete ezin diren lanpostuak betetzea dakar	1	2	3	4	5	0
b) Atzerriko emakumeak onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik	1	2	3	4	5	0
c) Ekonomikoki, atzerriko emakumeen euskal jendaratean ematen dutena baino gehiago jasotzen dute.	1	2	3	4	5	0
d) Emakume immigrariak gure ekonomia hobetzen lagutzen dute.	1	2	3	4	5	0
e) Emakume atzeritzaileen seme-alabengatik ez balitz, Euskadik biztanleria galduko luke	1	2	3	4	5	0
f) Emakume atzeritarren etorrerak bertakoak lana eta etxeko-lana konziliatzea bermatzen du.	1	2	3	4	5	0
g) Gure semealabak eta gurosak zaintzeko garrantzikoak dira emakume atzeritarrak.	1	2	3	4	5	0
h) Oso handia da Euskadi dauden emakume immigrarien emari soziala.	1	2	3	4	5	0

2.- Esan iezadazu, mesedez, 0tik 10era bitarteko puntuazioa duzula, zenbatekoa den munduko herrialde hauetako pertsonenganako sentitzen duzun **sinpatia**; kontuan izan, 0 sinpatia eza dela eta 10 sinpatia handia dela:

	Ninguna sinpatia					Mucha sinpatia					Ns	
1) Menbealdeko Europako emakumeak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
2) Kolonbiako eta Peruko Emakumeak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
3) Afrikako emakume beltzak eta Saharaz hegoaldekoak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
4) Afrika iparraldeko emakumenak, Magrebtarrak; Marokokoak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
5) Errumaniako eta EB Ekialdeko emakumeak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
6) Txinako eta Asiako emakumeak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
7) Paraguaiako eta Nikaraguako emakumeak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
8) Edozein nazionalitateko emakume etorkin irregularrak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

3.- Orokorrean hartuta, zure ustez, atzerriko emakumeak etortzeak, **ondorio positibo** edo **negatiboak** eragiten dizkio euskal gizarteari? Puntuatu ezazu, mesedez, 0tik (oso ondorio negatiboak) 10era (oso ondorio positiboak).

Negatiboak										Positiboak		ED
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

**IKUSPEGIKO (IMMIGRAZIOAREN
EUSKALBEHATOKIA) ETXEZ-ETXEKO
GALDEKETA**

1.- Oro har, esango zenuke atzerriko emakumen immigrariak dira **batik bat**: (irakurri ezaugarrien bikotea)

	+	=	+	
Atseginak	1	2	3	Zakarrak
Langileak	1	2	3	Alferrak
Arduratsuak	1	2	3	Axolagabeak
Feministak	3	2	1	Matxistak
Egiatiak	1	2	3	Gezurtiak
Interesatuak	3	2	1	Altruistak
Iaok	1	2	3	Ezgaia
Ezjakinak	3	2	1	Jantziak

2.- Orain, 1. Txartel honetan aurkezten dizkizudan emakume sorta kontutan hartuta, esaidazu zein edo zeintzuei lotzen dizkiezuden honako **ezaugarriak** (erakutsi 1. Txartela)

	1	2	3	4	5	6	7
Integratzeko ahalegina							
Gure antzekoak							
Zakarrak							
Egiatiak							
Integratzeko ahaleginik ez							
Egoera erregularrean							
Harremanak izatea zaila							
Desberdinak gure aldean							
Gure kulturarekiko errespetua							
Bortizak							
Langileak							
Zintzoak							
Atseginak							
Itxiak							
Konfiantza ematen dute							
Gaizkile ugari dago							
Harremanak izan daitezke							
Egoera irregularrean							
Irekiak							
Alferrak							
Mesfidantza sortzen dute							
Gezurtiak							
Bakezaleak							

1. Txartela

1) Menbealdeko Europako emakumeak, argentinarrak, txiletarrak
2) Kolonbiako eta Peruko Emakumeak
3) Afrikako emakume beltzak eta Saharaz hegoaldekoak
4) Afrika iparraldeko emakumenak, Magrebtarrak; Marokokoak
5) Errumaniako eta EB Ekialdeko emakumeak
6) Txinako eta Asiako emakumeak
7) Paraguaiako eta Nikaraguako emakumeak

**MUJERES INMIGRANTES
EXTRANJERAS EN LA CAE**

EMAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Vitoria-Gasteiz 2012

TÍTULO:	Atzerriko emakume etorkinak EAen. Mujeres inmigrantes extranjeras en la CAE
EDITA Y REALIZA:	EMAKUNDE - Instituto Vasco de la Mujer. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
EQUIPO TÉCNICO:	Xabier Aierdi José Antonio Oleaga Izaskun Sáez de la Fuente Joaquín Arriola Silvia Carrizo Ana I. Pérez Machío Laura Pego Amelia Barquín Monika Madinabeitia Nerea Alzola Iraide Fernández Julia Shershneva Maite Fouassier DEPARTAMENTO DE SOCIOLOGIA y TRABAJO SOCIAL UPV/EHU
MAQUETACIÓN Y DISEÑO GRÁFICO:	Taide Arteta
FECHA:	Diciembre 2012
DESCRIPTORES:	Inmigrantes extranjeras, estudios de género, encuestas, datos estadísticos, Euskadi
ISBN-10:	84-616-2142-5
ISBN-13:	978-84-616-2142-2

ÍNDICE

PRESENTACIÓN	9
1. INTRODUCCIÓN	13
2. OBJETIVOS	17
2.1. Panorama de las mujeres inmigrantes extranjeras de la CAE: aspectos clave	19
2.2. Percepción de la población autóctona	20
2.3. Expectativas y necesidades de las mujeres inmigrantes extranjeras	20
3. METODOLOGÍA	21
3.1. Fase 1: Panorama de las mujeres inmigrantes extranjeras de la CAE	23
3.2. Fase 2: Mujeres inmigrantes extranjeras en la CAE: esferas clave	24
3.3. Fase 3: Percepción de la sociedad vasca	25
3.3.1. Público objetivo	25
3.3.2. Tamaño de la muestra	26
3.3.3. Recogida y tratamiento de información	26
3.4. Fase 4: Expectativas y necesidades de las mujeres inmigrantes extranjeras de la CAE	27
4. PANORAMA DE LAS MUJERES INMIGRANTES EXTRANJERAS DE LA CAE: ASPECTOS CLAVE	31
4.1. Mujeres extranjeras en la CAE. <i>Xabier Aierdi</i>	33
4.1.1. Situación administrativa	39
4.1.2. Nivel de estudios	41
4.1.3. Relación con la actividad	42
4.1.4. Síntesis	46
4.2. Impacto económico de las mujeres inmigrantes en la CAE. <i>Joaquín Arriola</i> ..	47
4.2.1. La inmigración extranjera contribuye a compensar el envejecimiento demográfico	48
4.2.2. Las mujeres inmigrantes extranjeras generan valor añadido	49
4.2.3. Las mujeres inmigrantes pagan impuestos y consumen menos servicios sociales que lo que aportan	52
4.2.4. Las mujeres inmigrantes extranjeras mejoran la calidad de vida de la población	54
4.2.5. Las mujeres inmigrantes extranjeras amplían el capital humano en la CAE	56
4.2.6. Conclusiones	57
4.3. Mujeres inmigrantes en la CAE: Ámbito laboral. <i>Silvia Carrizo</i>	59
4.3.1. Evolución de la migración en la CAE. Migración femenida: consideraciones generales	59
4.3.2. Condiciones laborales de las trabajadoras inmigrantes	61

4.3.3.	Aspectos a considerar sobre la situación laboral de las mujeres inmigrantes	63
